

«BASARRI»  
Inazio Eizmendi Manterola

# NERE BORDATXOTIK



80-2192

10266

# NERE BORDATXOTIK

(Bertso-bilduma)

Auspoaren Sail Nagusia

---

Auspoa Liburutegia  
EDITORIAL AUSPOA

Plaza Santa María, 2 - Tolosa (Gipuzkoa)  
Tfno. (943) 67 12 82



«BASARRI»  
Inazio Eizmendi Manterola

# **NERE BORDATXOTIK**

(Bertso-bilduma)

Auspoaren Sail Nagusia

© Inazio Eizmendi Manterola, «Basarri». Zarautz, Gipuzkoa.


© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)

Fotokonposatzaile: Cometip fotocomposición, s.l. - Pamplona

Inprimatzaile: Gráficas Lizarra, S.L., Estella (Navarra)

ISBN: 84-7158-156-6

Depósito Legal: NA. 160-1992



Inazio Eizmendi Manterola, «Basarri».

# **ITZAURREAK**

## INAZIO EIZMENDI «BASARRI»

Inazio Eizmendi Manterola, Basarri bertsolaria alegia, 1913 urteko azaroaren 27'an jaio zan, Errezilko sailletan arkitzen dan Granada baserrian.

Baserri ori mendi-mendian dago, Errezilko plazatik ordu pare bat oiñez, erreka zulo batean. Onela idatzi izan du Basarrik berak:

«Sei urte nituan arte irauin nuan Granada'n. Ez daukat ango ezaguera aundirik, artean oso ume nintzalako. Baiña, jaiotexera noan bakoitzean, ez naiz aspertzen paraje ari begira. An ez da ordekarik, sororik eta zelai zabalik. Pentsamentuz beterik egoten da nere burua. Gero ta geiago goresten ditut guraso zarrak, an bizimodua ateratzeko modua egin zutelako».<sup>1</sup>

Gurasoak, Antonio eta Maria ziran. Amar seme-alaba izan zituzten: Inazio, senideetan zaarrena; ondotik Granadan jaio ziranak, beste lau: Segundo; Blas, Asturias'en gerran illa; Tomas, il berria; eta Luisa; eta Zarautz'en jaiok: Paulino, Julian, Mertzedes, Garbiñe eta Manolo. Amar senideetatik, zazpi bizi dira gaur egunean.

Sei urterekin Azpeitira bialdu zuten Inazio, senitarteko etxe batera, andik eskolara joan zedin.

Urrengo urtean, Zarautza aldatu zan famili guzia, aita Azken-Portu izeneko taberna eta beraren lurak erosita. Geroz-

tik Zarautzen bizi izan da Basarri bertsolaria, gerra eta gerra ondoko urteetan izan ezik.

–Zu nola bertsozaletu ziñan? –galdetu diogu.

Ona beraren erantzuna:

–Gure aita zanarengandik ere ekarri nun nik zaletasun ori. Bera ere oso bertsozalea baizan. Eztarri onekoa gaiñera. Baiña bertso ariñik etzun sekula ikasten. Beti pulamentuzko kantak izaten ziran arenak. Aurrez-aurre ez nun ikusi bein ere kantatzen. Baiña zar asko zekin.

–Bertso-paperak ere irakurriko zenuen, bada.

–Bai. Orain baiño geiago izaten zan orduan ortatik. Baiña geiegi balio etzutenak ere bai tartean. Zer esan nai gutxi-koak. Nik, ordea, aitarena egiten nuan: onak ikasi edo aietara nere arreta jarri.

–Eta bertsolaririk ez al zan Azken-Portura biltzen?

–Bai. Emen, Zarautzen, bazegon *Ne-kazabal* zana-ta, *Sasi* zana-ta, *Exkerra* igeltseroa-ta, pixka bat aritzen ziranak. Tabernarako ta sagardotegirako poliki egiten zuten. Baiña bertso zarrak ere entzun egiten nitun: Xepelarrek au ta ura jarri zula; Txirritari au kantatu ziotela, eta berak au erantzun. Ni gustora egoten nintzan entzuten. Ordutik beintzat nere zaletasuna. Gaztelu ere askotan izan gendun gurean. Nik ezagutu dedan onena bera

zan. Tenor boza ona zun. Eta bertsoa ere ondo. Propio etorri izan zan nerekin bertsoan egitera. Prantzes-Txikiarekin ere kantatua naiz. Ura ere Zarautza sarritan etortzen zan. Eta 1935'etik aurrera Txirritarekin ere bai. Txapel ta Zepai ere, bi koñaduak, gerra aurretik ezagutu nitun. Itziarko Zubeltzurekin ere kantatu izan nun.

–Eta zu noiz asi ziñan kantatzen?

–Azitzen eta gogortzen ari nintzan bezela, asi nintzan poliki-poliki Azken-Portun bertan. Nik garai artan ez nun izaten bertsoa besterik buruan. Nere gozamina ura zan. Baiña senideetan beste iñork ez du izan bi puntu alkarri lotzeko abildaderik.

–Euskal giro ederra ezagutu zendun, beraz, zuen etxeko ostatuan.

–Orain iñun ere nekez arkitu ditekenez bezelakoa. Gaur baiño osasun ohea zun baserriak. Ara etortzen ziran baserriarrak, morroiak, baso-mutillak, ikazkiñak eta abar; eta nor bere pasadizoak esaten an jarduten ziran: murrontzan zer irabazten zuten; baso-mutillak zein menditan eta zer lanetan ari ziran; baserriarrak zer buruauste zeuzkaten; langilleak nungo trozotan ibili ziran trenbidea egiten... Gustora egoten nintzan aiei entzuten. Euskal kiroletara ere an zaletu nintzan.

Basarrik etzituan eskolan urte asko egin. Amaika-amabi urterekin utzi zion joateari, gau-eskolan jarraitu bazuan ere. Bera senideetan zaarrena eta etxean baze-goan zer egiña. Baita tabernan ere. Aroztegi batean ere asi zan.

Eskola aundia duala diotenak ez dute, beraz, arrazoi. Edo, obeto esateko, beste eskola mota bat izan du bere burua janzteko: irakurtzeko zaletasuna. Liburuak txikitandik eta benetan maite izan ditu.

Irakurtzeari ordu asko eman dizkio, bai egunez eta bai gauez, loari puska kenduz. Eta iru izkuntzatan irakurri ere: euskeraz, gazteleraz eta frantzesez. Orixe da beraren kultura mailla altxa eta zabaldu duana.

Amazapi edo emezortzi bat urterekin kantatu zuan leenengoz jende aurrean. Egun batez, Zestoara joan lagunekin, an bertsolari bat kantuan ari mitin batean: Ordizian bizi zan Erauskin Errotaria edo Patxi Errota zaldibitarra; lagunak bultza eta, oartu zanerako, bera ere bertsoan asi.

Beste batean, Zarauzko *Naste-Borras-te* taldeak jaialdi bat eman zuan Donostian: dantza, kantu, antzerki... Tarte batean, Basarrik bertso batzuk kantatu zituan. Jende artean Jose Zubimendi idazlea zegoan. Oni orduan bururatu omen zitzaion bertsolari-txapelketa bat antolatzeari.

Danak dakiguna, 1935'eko ilbeltzaren 20'an, leenengo Bertsolari-Eguna ospatu zan, onako bertsolari auek parte arturik: Txirrita, Zepai, Txapel, Saiburu, Erauskin, Mintegi, Lexo, Nekazabal, Telleritxiki, Abarrategi, Alkain, Kortatxo, Pello Zabaleta, Juan Zabaleta, Sorozabal, Etxeberria, Uriarte eta Basarri, danetan gazteena, ogei ta bat urteko mutilla. Ta berak txapela irabazi. Onela galdetu diogu berari:

–Nola etorri zitzaizun Donostira joateko deia, edo nola egin zenduan arako bidea?

–Ordurako asiak geunden zerbait abertzaletasunean. Beti ala izana naiz ni. Eta Txomin Olano nun oso laguna. Baita Zubimendi ta oiek ere. Donostitik lagunak giñan. Eta joateko eta joateko asi zitzaizkidan, arren ta arren. Ala, derrigot-



Granada baserria.

rrean bezela joan nintzan. Nik egun artan pasa nitun bildurrak eta izuak! Ura zan dardarra, ainbeste bertsolaritatik gazteena neu ta... Ume bat. Eta andixe asicra, poliki-poliki.

–Zu ume bat, baiña bai egun artako «rebelazioa» ere.

–Ez dakit ori. Baiña artean iñork ezagutzen ez eta balcike ori ere, urrengo urtean Uztapiderena izan zan bezela. Nik ezagutzen nun bera. Oikian, nekazari egun batean biok izan giñan. Orduan egin nintzan Manuelekin lagun. Andik laster, bigarren Bertsolari-Eguna 1936'ko ilbel'tzaren 19'an ospatu zan. Gai jartzaille neu

izan nintzan. Bein irabazten zuanak, iru urtean kanpoan gelditu bear baitzun. Orrela eskatzen zun orduko araudi edo reglamentuak. Eta Uztapide an agertu, mutil gaztea ura ere. Baita bigarren gelditu ere, Txirritaren ondotik. Gero gerra etorri, eta orduan etenaldia izan zan.

Basarri gazteak 1935'ean txapela irabazteak bertsolaritzaren aro berri bati asiera eman zion. Ume artan iñor gutxi oartuko zan ortaz. Gerra, izan ere, bereala etorri zan, eta bertsolari gazte arekikoa andik urteetara ikusiko zan. Baiña Txirrita ordurarte izan zana, Basarri izango zan andik aurrera. Bakoitza zan bezela-

koa, noski, bere bertsogintza bereziarekin. Baiña norbere belaunaldiaren buru. Aldaketa onen berri onela ematen du Juan Mari Lekuonak:

«Basarrik, egia da, une hartan iraultza-joera baten indarra zekarren, orduko gazte askoren joera aberrikoa. Baina bazekarren, baita ere, sozio-kultura mailako joera orokor bat, zibilizazio berriago baten eskakizuna, azken urte hauetako bertsolarien araupide jakina: apain jantzia, hizketa txukun eta aberatsa, errespetuzko jokabidea, eskola eta garaiaren garaiko pentsamolde zehatzagoa. Eta *Victoria Eugenia*-ko txapelketaz gero, –Basarrik irabazi zuen hartaz gero–, zokoraturik bezala gelditu zen Txirritaren belaunaldia. Ordu berri bat zetorren: gazteriaren eta kultur forma berriagoen ordua».<sup>2</sup>

Langintza ortan lagun egokia ere izanago zuan: Uztapide, 1936'ko Bertsolari-Egunean nabarmenduko zan mutil gaztea. Bikote ori erriz-erri ibiliko zan gerra ondoan, ogei ta zazpi bat urtetan, bertsolaritzari aize eta indar berria emanez.

«Basarri bertsolaria» esan oi degu beti edo geienetan. Baiña orrekin bere izatearen erdia besterik ez degu adierazten. Periodista eta idazlea ere badegu, bertsolaria dan aiñean. Aren leenengo bertsoak eta idazlanak 1931'an azaldu ziran egunkari eta aldizkarietan. Orregatik, au izan zan gure urrengo galdera:

–Egunkarietan-eta nola asi ziñan?

–*Luzear* izenordea zuana bazan orduan. Andres Arzeluz, izen-abizenak. Ederki idazten zuan. Arek bultzatu niñun. Baita Zubimendi ta oiek ere. Ala, asi nintzan *El Día*'n, *Euzkadi*'n, *El Pueblo Vasco*'n, eta *Argia*'n batez ere. *Nere Bordaxotik* jarri nion izena nere saillari. *Argia* zarrak lan asko egin zun orduan. As-

tean beingoa zan, baiña nekez arkituko zendun sartzen etzan etxe edo baserririk. Emengo saltzaillea, Dolores izena zun andre alargun bat zan. Ta gogoratzen naiz: neu ostiral gauean joaten nintzan aren etxera *Argia*'ren billa. Irugarren bitzta batean bizi zan. Larunbat goizetan, berri, azoka izaten zan Zarautzen, eta baserriarrak antxe joaten ziran *Argia*'ren eske.

Basarriren guk arkitu ditugun leenengo idazlanak, esan bezela, *El Día* eta *Euzkadi* egunkarian, 1931'an, agertu ziranak dira. Emezortzi bat urte zituan orduan. Izenpetu ere, *Basarri* izenordez egiten ditu. Ori nundik edo zergatik aukeratu zuan, onela azaldu izan du berak:

«*Es curioso lo que ocurre con algunas cosas. Si yo le dijera que adopté el nombre para que nadie me conociera... Y, sin embargo, ya ve. Ahora me conocen más por «Basarri» que por mi nombre. Adopté el nombre para escribir mis primeras colaboraciones en «Argia», un semanario en euskera que se publicaba por aquellos tiempos. Era muy «errikoa», muy popular. Luego empecé a escribir en «El Día», y cuando pensé mandar la primera colaboración, me fijé, muy especialmente, en que donde yo vivía entonces, en «Azken Portu», terminaba el entorno del pueblo y comenzaba el campo. Era lógico, pues, que me llamase «Basarri».*»<sup>3</sup>

Gerra etorri zan gero, 1936'ko uztaren 18'an. Bera bezelakorik ez da erri baten bizitzan eten sakon bat irikitzeke. Bai irabazleentzat ere; eta zer esanik ez galtzailleentzat. Urte aietan nundik nora ibili zan galdetu bearra zegoan, beraz, Basarri-ri:

–Zaraten-eta, Bidanin-eta, ibili nintzan. Loiolan osatu gendun batallioia. Ge-





Basarriren gurasoen ezkontza.

ro, altuenak aukeratu egiten zituzten eta ertzaina artu niñuten. Gure kapitana Iñaki Leclerc izan zan; donostiarra. Baiña ingeles kasta edo orrelako zerbait zan. Instruzioak-eta Bilbon ikasi genitun. Antxe jarraitu gendun, Bizkai aldean ertzain lanak egiñez ta abar, ta gustora. Frentean ere izan giñan, ordea. Arrate artuta zeukaten beste aldekoak. Baiña andik urrean illebeta edo ez dakit zer egin gendun. Denbora berean, *Euzkadi*'n idazten jarraitu nun. Euskal egunerokoa ere atera zan orduan, *Eguna* izenekoa. An ere zerbait idatzi nun. Egiten nitun noizean bein lantxoak, eta billa etortzen zitzaizkidala uste det. Ematen nitun ta alaxe.

–Danak etzuten olako zorionik izan, eta zuk nola aldegin zenduan Frantzi'ra?

–Santandertik pasa nintzan ni. Bilbo galdutakoan, araiño, kapitaleraño joan giñan. Baiña ez gendun Bizkaiian bezelako girorik billatu. Gauero garbi ametralladorra-otsa. Ura etzan bizitzea. Elizatik meza-tatik irten ta beste motiborik gabe badira gure lagunak an illak. Monzonek asko lagundu zidan orduan. Ta ingeles barku batean –*Sarastone* izena–, ume, elbarri ta gaixo artean joan nintzan Nantes ondoko erri batera. Gero andik, Landesetako piñudietan billatu gendun lana, ta ara. Iru urte egin nitun an. Baiña azken aldera



Lenengo jaunartzea.

Baionatik iru kilometrora, Saint Pierre d'Irube'n.

–Ondoren, onera.

–Bai. Ama etortzeko ta etortzeko ari zitzaidan; etzitzaidala ezer gertatuko. Ala, muga pasatzea erabaki ta etorri. Baiña artu ta iru urte trabajadoreetan: Aritxulegi, Bejar, Palentzia, Madrid eta ez dakit zenbat tokitan ibili arazi giñuzten. Nun ez? Afrikan beintzat bukatu, Campo de Infantarax'en, Melillatik emezortzi kilometrora. Nere denbora guzian ez det poz aundiagorik izan, libre etortzeko txartela eman zidatenean baiña. Bakar-bakarrrik barkuaren kubiertan, ta antxe bertsoan. Arraiak-edo entzungo zituzten nik orduan kantatu nitunak. Ta onera San Pelaiotara -garagarrillaren 26'an-, erriko festetara etorri. Ura poza, ura! Ainbeste urtetan katigatuta, eta azkenean libre. Esaten dizut: nere bizitzan izan dedan pozik aundiena. Ez dakit orain ziur, baiña 1943'a zala uste det. Ia zazpi urte etxetik kanpo.

Ogia irabazi bear eta asegurutako ordezkari bezela asten da.

Ezkondu, 1945'eko ilbeltzaren 20'an egin zan, Arroako alaba zan Miren Aginagalderekin,

Andik laster, 1946'an, *La Voz de España*'n idazten asten da. Egunkari ortan nola sartu zan galdetu diogu. Ona beraren erantzuna:

–Emengo berri emaleak zun gogoia: Frantzisko Juaristik. Asi nintzan poliki-poliki, ta gero bertatik eskea, ta egunero ko sailla jarri zidaten. *Mi atalaya montañera* izena jarri nion, eta makiña bat urtetan bete gendun. Asieran euskeraz etzan libre. Baiña gero, noizean bein, bertsolari zarren pasadizoak sartzen asi nintzan euskeraz, eta bertsoaren bat edo beste ere bai.

Eta azkenean, urteen buruan, bertako zuzendariak, ez daukat orain gogoan zein zan, erderaz eta euskeraz erdibana egiteko eskatu zidan. Ondoren, berriz, *El Diario Vasco*'ra aldatu nintzan, ta geroztik or. Baiña ni danetan ondo artu izan naute, ta ez det kejarik izan bein ere.

Irratian ere asten da, eta beraren saioak millaka euskaldunek entzuten zituzten.

–Iru lan-mota, beraz: egunkarian idatzi, irratitik itzegin eta erriz-erri bertsoan.

–Bai. Nunaitik deia. Iganderik eta jairik ez gendun libre izaten. San Juan astean, adibidez, sei edo zazpi erri pasa bear izaten genitun, zazpi egunetan. Geien-bat Uztapiderekin ibili nintzan. Gu biak alkarrekin beti. Gero, berriz, Lasarte oso gazterik asi zan: amazapi edo emezortzi urterekin, eta arekin ere asko.

Iru alderdi izan ditu, beraz, Basarriren bizitzak: bertsoak, irratia eta egunkaria; kantua, itza eta papera. Millaka bertso plazetan; millaka saio irratitik; eta millaka idazlan, naiz bertsoz eta naiz prosaz, agerkarietan. Iru alderdi oiek alkarri asko eragin diotela esango nuke.

Kantuak eta irrati saioak, jende aurrean maiz jardun bearrak alegia, idazkera argi, errez, zuzen, gozo eta aguroa ekarri dio; ulertzen zailtasunik gabea, naizta izkuntza aberatsa erabili. Irakurlearengana bera makurtu alegia, ta ez irakurlea berarengana. Prosaren barruan bertsoa ere sarritan sarrerazi ere bai.

Egunkariak eta irratiak, berriz, beraren esan bearrak neurri jakinetan errenditza eskatu diote. Muga batetik ezin pasa. Orregatik, Basarriren bertso-saillik geienak ez dira luze oietakoak. Bertso gutxiko

saillen aldekoa izan da. Egunkari-artikulu baten luzera, beraz; ez poema batena.

Orrek ez dio, ordea, bere ugaritasunari ezer ere kendu. Bertso asko ta asko jarri ditu. Bear ere bai, bere eguneroko sailla nolabait ere, naiz itz lauz eta naiz bertsoz alegia, beteko bazuan.

Orrek zailtasuna sortu du bilduma au egiteko. Izan ere, Basarriren bertso guziak nola bildu? Alde batetik, eunka asko dira. Bestetik, oso sakabanatuak. Ainbeste tokitatik eskatu baidizkiote bertsoak. Sail guzien ondotik iturria esaten degu; bertso oiek nundik artu ditugun alegia. Eta, irakurlea oartuko danez, zenbat iturri diran esaten ere ez da erreza: gerra aurretik, Donostiko *El Día, Argia, El Pueblo Vasco*, Bilboko *Euzkadi* ta abar; gerra denboran eta gerra ondoko urteetan, Bilboko *Euzkadi, Eguna, Gudari*; Parisko *Euzkadi, Enda* ta abar; gerraz geroztik, berriz, *La Voz de España, El Diario Vasco, Aranzazu, Anaitasuna, Zeruko Argia, Goiz-Argi* ta abar ta abar.

Sei bertso liburu ere argitaratu ditu: *Atano III, Itxaropena*, 1949; *Basarri'ren Bertso sorta, Itxaropena* 1950; *Kantari nator, Itxaropena*, 1960; *Laugarren txinpartak, Auspoa*, 55, 1966; *Sortu zaizkidanak, Auspoa* 112, 1973; eta *Kezka-giroan, Auspoa* 169, 1983. Prosa liburu bat ere agertu du: *Bertsolaritzari buruz, Auspoa* 178, 1984.

Baiña ugaritasun orrek, zailtasuna ez- ezik, eziña ere badakar. Basarri jarritako bertso guziak bilduko duanik ez dala esan nai degu. Guk, beintzat, bi milla ta bosteun bat bertso pillatu ondoren, ortik aurrera liburu batentzat geiegi izango zala eta bilketa lanari utzi egin bear izan diogu.

Badaki, beraz, irakurleak, esku artean

daukan liburua zer dan: Basarriren bertsoekin orain artean egin dan bildumarik mardulena eta osoena; baiña ala ere oso- osoa ez dana.

Liburu ontan bildu ditugun Basarriren bertso zaarrenak, 1931'koak dira. Emertzortzi urte zituan orduan berak. Azken jarriak, berriz, aurtengoak dira; 1991'koak alegia. Irurogei urte eman ditu, beraz, eten gabeko bertso gintzan.

Ala, bera izango degu bertsoerik geien jarri duan bertsolaria; ta bai ere gai geiena ikutu ta erabili duana. Eta nekez azalduko da, gure iritzirako beintzat, marka au autsiko duanik.

Or goien esan degunez, bertso sail laburren aldekoa izan da Basarri. Orrek, eta bertso asko jarri izanak, gai asko erabiltzera beartu du. Oinbeste urteko lana bestetik. Baldintza oiek danak beste ondorio bat ekarri dute: Basarriren bertsoak, danak erabat artuta, Euskalerriko bizitzaren ikuspegi ederra ematen digute. Irurogei urte oietako gure gertakaririk nagusienak ortxe daude bertsoetan jarrita, gure kondairaren liburu berezi bat osatuz.

Beste gauza asko esan ditezke Basarri buruz. Baiña zer izan degun itz batean esateko, auxe aukeratuko nuke nik: serbitzaria. Erriaren serbizioerako jarri zuan bere burua emertzortzi bat urterekin, bertso, idatziaren eta iratiaren bidez; eta erriaren serbitzari jarraitzen du irurogei urteren buruan ere. Euskalerrriak naiko lan baduala esango genduke, zor ori ordaintzen.

A. Z.

1. Basarri: *Nere bordatxotik saillan, El Diario Vasco*, 1988, apirilak 5.

2. Juan Mari Lekuona: «Ahozko euskal literatura», Erein, Donostia, 1982, 213 orrialdean.

3. *El Diario Vasco* 1980-IV-19'an agertutako alkarrizketa, «A. E.» izenpetzen duan batek egiña.

## ATADI - ANTZERA

(*Basarri*'ren bertso sorta libururen itzaurrea)

IRAKURLE: ezagutzen dezu noski liburuxto onen egilea. Gipuzkoan guztiok dute ezaguna *Basarri*. Entzutez bederenik. Eta ikustez ere bai askok eta askok.

*Basarri*, bertsolaria degu. Bertsolari jatorra. Eta gaur dan egunean bertsolari-rik sonatuenetakoa, izan ere.

Bi eratakoak bai-ditugu ezik gure bertsolariak: eskolatuak eta eskolagabeak. *Basarri* eskolatuetakoa degu.

Askotan ikusi izan degu nor edo nor, bertsolariak buruz lantua jotzen: tamala, lastima aundia dala, alegia, orrelako etorria duten gizonak eskola-gabeak izatea!... Olakoen iritziz, bertsolaria eskolatu balitz, askotaz ere ohea litzake. Askotaz ere bertso oheak egingo litzuzke.

Ez diokegu ezetzik, baldin eta eskolak bertsolarietasuna kentzeko, galduerazteko arriskurik ezpaleuka. Bañan kontuz, oso kontuz ibilli bearra dago ortan. Bertsolariak ba'du alako zer bat, eskolatuen artean izaten ez danik. Ez ezin izan leitekealako. Izan oi ez dalako baizik. Eta bildur izatekoa da, bertsolari jatorrak eskolatzen astean, olako zer ori galtzea. Arriskua dago.

\* \* \*

Zer da, ordea, zer ori? Bertsolarien zer berezi ori? Ez da errez esaten. Gatza? Bizitasuna? Azkartasuna? zorrozatasuna? Nik al-dakit? Jatortasuna, bertsolarietasu-

na. Dana dala, letradun poetak, gutxitan, oso gutxitan izan oi duten zerbait. Eta bertsolari bati ori kendu ezker, poeta bat geiago izan dezakegu, bañan baita bertsolari bat gutxiago ere.

*Basarri*, bertsolari eskolatu degu. Bañan «bertsolaria». Orixe da gure *Basarri*'ren berezitasunik ederrena. Eskolatu izatera eldu zaigula, bertsolari izateari ukorik egin gabe, len bezain bertsolari irauten dualarik.

\* \* \*

Bertsolari eskolatuetan ez da *Basarri* bera bakarrik. Ori ez. Izan izan ditugu era ortako beste geiago ere. Eta ez noa Bizkaiko Arrese ta Beitia bat, ez Enbeita bat aipatzera. Gipuzkoako bi aipatuko ditut. Biak ereduak, egiako bertsolari eskolatu ereduak: Iparragirre ta Pello Mari Otaño. Bi, eta biok oso era bitakoak, era berdiñezekoak.

Iparragirre –gizagajoa– Xenpelarrek utzi zigun erretrataturik zorrotz asko arako bapateko koplak bikain artan:

Iparragire abilla dela  
askori diyot aditzen;  
eskola ona eta musika...  
ori oyekin luzitzen.  
Ni ez nazu ibiltzen  
kantuz dirua biltzen  
komeriante moduan...

Debalde pesta preparatzen det  
gogua dedan orduan.

Iparragirre –gizagajoa– arlote-kutsuko bertsolaria genduan. Arlote-kutsuduna, bohemio-antza, komeriante-antza... Eskolatua zan, eta, bear ba-da, eskolak moztu zizkion ari bere bertsolaritzako egoak. Musika bezelakoak zituan bertsoak ere. Musika, Italian zear ikasia... eta bertsoak ere ortik zear zebillela kutsatuak. «Bertsolari-kutsu» gutxikoak. Batzuek bai eder askoak: «Ara nun diran» adibidez, eta «Giltzapean sartu naute»-ren koplak bat. Bañan bai lasaixkak ere ez gutxi. Bañan, dana dala, Urretxuako seme argi oni zorko diogu beti, euskaldunen artean geiena kantatu izan dan arako erri-kanta «Gernikako arbola» ura. Eta ori ez da bein ere aztuko. Besteak beste.

Iparragirrerengandik oso besterako bertsolari eskolatu bat ere izan degu guk Gipuzkoan: Pello Mari Otaño, bertsolari «bertsolaria» eta eskolatua. Gure *Basarri*'ren maisu kutuna. *Basarri* ez degu Iparragirre. *Basarri*, Otañoren eskolako degu bete-betean. Otañoren etorri ber-bera dario *Basarri*'ri bere ezpañetatik. Gaiak, antz-antzekoak biok; eta erabiltzeko era, ber-bera...

Nolakoa da, ordea, *Basarri*'ren poesia? Bertso-era?

Irakurle: ez nijoakizu geiegi aspertzera. Itz gutxitan esango det nere esatekoa.

Ezagutu nuan nik Oiartzunen bertsolari bat. Lexoti zuan izen-goitia. Il zan (Jaungoikoak bere zeru ederrean dezala). Berak bereak ezik, besteren bertso asko kantatu oi zituan Lexotik. Ostatuan eta... Bañan sekulan oso gutxi kantatuko zuan ark maite-kontuko bertsorik. Olako bertsoai, «bertso txorruak» esaten zien. Bertso txoroak, Pello Mari Otañorenak!...

Aiek bai, aiek ziran bertsoak! Bertso ederrak... Beste aiek «bertso txoroak» bezela. Otañorenak bertso «eederrak. Kristobal Kolonenak eta Lartaunenak eta...

Otañoren bertsoak, bertso ederrak eta egokiak ezik, bertso onak eta «onegilleak» ere oi ziran. Ez arek bertso txorrorik; bertso itzal-aundikoak, bertso onak, «sermoi-bertsoak» askotan.

Olakoxeak dituzu, ba, irakurle, *Basarri*'ren bertsoak ere. *Basarri*'k ez du bertso txorrorik. Noiz beinka ikutuko dizu maite-gaia. Bañan orduan ere sermolari antzean. Ikus bestela «Eder bati».

Ez diot alare *Basarri*'ren bertsoak makalak diranik. Bertsolari «bertsolaria» da ta orrekin esanik dijoa aren bertsoak bizkorrak dirana. Bañan kaxkariñak, ez. Sermolari-antza? Antziñako Retorikoak ziotenez, sermolaria, *vir bonus, dicendi peritus* izan bear du, «gizon on eta etorri errezeke». Eta alaxe da gure *Basarri* ere: *vir bonus*, «gizon ona eta etorri oparoduna». Bañan ez da sermolari utsik. Poeta da bide batez. Ezta iztun ona bakarrik. Iduripena du, ta indar aundikoa. Ez da xentikor; bañan bai biotz aundidun...

Ikus zerorrek.

Zein bertso-aldi duan ederrenik? Asko ta asko ditu on askoak. Bañan nerretzat bat du ondoen landua: «Itxas-ertzeko kontuak»; ondo aterea, eta txukun landua. Bete-beteko ederra.

Aren urren, «Arrantzaleak» da oso ondo sentitua, eta berdin «Landetako piñu-arteana» eta abar.

Lirika ariñagoan, «Aurak», eta «Eder bati» eta «Erantzun zaidazu»...

Eta beste era batean, benetan bortitza, «Mixioak izan ditugu».

Eta nik al-dakit zenbat geiago. Ba-

tzuek obekixeago landuak: Otañoren eskola-eskolakoak. Ala baitzan Otaño: oso bertsolari oparoa, bañan bai ondo landua ere.

Eta onenbestez ekiozu irakurtzeari zerrorrek, irakurle.

Eta agur.

*Lekuona'tar Emanuel Euskaltzaindikoak.*

## KANTARI NATOR

(Basarriren *Kantari nator* liburuaren itzaurrea)

Benetan kantari. Ortxe dezute azalean bera: *Basarri* bertsolaria, alegia. Aundia ta sendoa, luzez eta zabalez, bere abots eder eta zoliez mikrofonu baten aurrean bertsoak kantatzen. *Basarri* aundiari buruz itzegitean, inoiz zeozer labur-labur esan bear bagenduke, auxe erantsiko genioke bere izenari: «Ogeigarren gizaldiko euskal-bertsolaria».

Bai, ogeigarren gizaldiak aurrerapenik ekarri dio munduari. Edozertan aurrerapenak. Jakintzatan eta teknika-gauzetan, gogozko eta besozko gauzetan, danetan. Bertsolaritzan ere bai. Ta ogeigarren gizaldiko bertsolaritzaren eragille, egille ta eredu, *Basarri* degu. Azalez eta mamiz.

Bertso-mamiari, bertso-gaiari begiratu ezker, berak jaso du bertsolaritza gaur duan mailla ederrera. Bertsolaritzak duan erritartasuna galdu gabe –orixe bait-da euskal bertsolariaren izatean eta sustraiean sartuta dagon berezitasunik aundienetakoa: erritarra izatea–, berak altxa du gaur eguneko edozein gai erabiltzeko diña izatera. Artu liburua ta ikusi: edozein gai arkituko dezu bertan. Mezaberri bat dala, edo deportistaren bat aupatu bearra, edo Aita Santuari edo euskal gizon ospetsuren bati buruz itzezin bearra, badu *Basarri*'k beti zer esana. Gertatzen

dan guzia bertsolari-begiz ikusirik, gaurko gai guziei erantsiko dizkie bertsorik egokienak. Antziñako bertsolariak gaiez, mamiz, urriagoak ziran askoz. Ez al da egia Udarregi bertsolariak ziona, bertsolarien eskolak sagardotegiak zirala, alegia? Lekuona apaizak «Basarri'ren bertso-sorta» liburuaren itzaurrean, *Basarri* bertsolari eskolatua dala esan zigun, oso egoki esan ere. Eta ala da.

Azalari begiratu ezker berriz, berak eraman du bertsolaritza periodiku ta radioetara. Ez al zaigu aspalditik egunero koetan eta euskal aldizkarietan eta batez ere azken-aldi ontan radioan bertsoak kantatzen ari?

Ez noakizute bere bizitzaren berri ematera. Naikoa ezaguna degu danok. Errezillen jaioa, Zarautz'en azi eta bertan bizi dana: auxe esatea naikoa da.

Baño asi zaitezte lenbaitlen liburu irakurtzen. Ez dezute berealakoan eskue-tatik utziko. Bein da berriz artu bearko dezute, bertan dauden bertso ederrak irakurri ta kantatzeko.

Geroak esango du: «Bertsolari bat izan zan». Bertsolari ori: *Basarri*.

*Aita K. Iturria*



## IRAKURLEARI ITZ BI

(*Kantari nator* liburuari Basarrik berak egindako itzaurrea).

Emen natorkizu, irakurle maite, nere aletxo batzukin. Lengo «Bertso Sorta'ri» guziz arrera ona egin zenioten. Ori ikusirik, berriro zorretan nintzaizuten, zuenkiko artuemanak galtzea bidegabekeri bat litzake ta.

Euskal alorrean saiatsen geranok kontentagaitzak gaituzu, ta ondo ere ondo dakit danen gogorik ez dedala beteko. Batek baño geiagok, izkera mordollotxo ote darabilkidan esan dezateke.

Ni, ordea, bertsolari solla naizenez, batere aizeketarik gabe natorkizu; naizen bezelaxe agertzera. Gure artean ezer bada erriarekin bat egiña dagoanik, bertsolaria da, dudarik gabe. Inñolaz ere ez dagokit neri erri orrengandik aldentzerik, eta alaxe nai izanik ere, gaitasunik ez det ortarako, noski. Erriak ausnartu ta konprendi ez lezazken bertsoak egin baño naiago det geldi geldi egon.

Izkera orraztuxeagoa erabili nezakela?

Ez dizut ukatzen. Artaraka, ordea, erri orrek eragozpenak izango lituzke bertsoaren mamia bear bezela bereganatze-ko, ta bertsoak berak ere gatz eta piper gabeak lirake ortara jokatuta. Erriak bereganduta dauzkan itzak, aspalditik ondo

itsatsita dauden itzak erabiltzeak ematen dio bertsoari bere bizitasun eta grazia.

Goragoko zerbait nai dutenak, poesi lurrun gogoz ase nai lutekenak, bijoaz olerkarien sallera. Ni ez naiz malla oietara irixten.

Liburu onen orrialdeak zabaltzen dituzanean, bertsolari bat arkituko dezu kantari. Bertsolari orren amets bakarra, ikastekoak ikasita erria kantari ikustea litzake. Gaitz ere ez da ta, aurreko bertsolari zaar asko baño txukuntxeago arkituko nazu, baño gure olerkariak baño narratxago. Bien tartean aukeratu nai izan det nereztat kabia.

Euskerari buruz nere iritzi argalak ezer balio balu, tellatu ta bodegaren tarte bide erosoak daudela esango nuke.

Nereak diranez, ez lezateke balio aundirik izan eskeintzen dizkitzudan bertsoak. Asmorik onenez tajutuak dirala jakin zazu ordea.

Aurreko liburuxka bieri bezelako abegia azaltzen badiezute, Jaungoikoa lagun, azkenengoak ez dira izango.

Beste gabe, irakurle, ar zazu bertsolari soil onen maitasun agurra.

*Basarri*

**1931 - 1936**

## NERE ARREBATXUARI

- 1/ Olerki batzuk jartzera nua  
*Euzkadi* maite onetan,  
maitetasuna nabaitutzen det  
orain alderdi danetan.  
Emakumiak asi dirade  
gogo onez beren lanetan,  
urrutira ez dago jua biarrik,  
ekusten dira emen bertan,  
arreatxuak, zuen laguntza  
atsegin zaigu benetan.
- 2/ Arreatxuak, asmuak artu  
lanian gogoz aatera,  
zuen laguntza guk izatiaz  
gutxi poztutzen ez gera.  
Zortzi urtian emen eduki  
gaituzte ba buruz bera,  
indar berriak artu ondoren  
ementxen gatoz oatera.  
maite dezagun gure aberria,  
maite dezagun euskera.
- 3/ Guk euskotarrok Ama bat degu,  
ezta ori ez dakiñik,  
neronek ez derizkiot beintzat  
ortaño buru ariñik.  
Nola geiago oroitzen ez gera  
gauza oriek jakiñik?  
Izkuntza ere bakarra degu  
iñun eztuna berdiñik,  
bera goitzera saia gaitian  
alkarte on bat egiñik.
- 4/ Anai-arreba biotzekuak,  
biar dizutet otsegin,  
geure birian jarrai dezagun  
ez dezagula utsegin.  
Gure izkuntza goratutseko  
ondo dakigu zer egin:  
irakurri ta idatzi gogoz  
eta euskeraz itsegin,  
ori guztia eiten badegu  
izango zaigu atsegin.
- 5/ Etsai gaiztuak ditugu nunai,  
auxe da bada bizitza,  
berri txarren bat noiz etorriko  
beti bildurrez gabiltza.  
Itxiko dituzte batzokiak  
berak arturikan giltza,  
izparringiak ixilduko dira,  
orra naiko zorigaitza;  
euskotasunik ezta galduko,  
alper-alperrik dabilta!
- 6/ Esan biarrik ez da batere  
guk zer egin biar degun:  
gorroto danak alde bat utzi,  
al dan guztia egin lagun.  
Ama Euskadiren kate astunak  
albora bota ditzagun,  
egunen baten alde guzitan  
izan dedilla ezagun,  
askatasun eguzkia ongi  
danak abestu dezagun.

*Euzkadi*, Bilbo, 1931-XI-1.

## OTOITZAK

- 1/ Eusko lur orok ikaraz daude,  
illuntasunez mendiak,  
alaitasunik ezin emanik  
eguzkiaren argiak;  
eusko biotzak naigabeturik,  
malko bizian begiak,  
negar dagite euskotar danak,  
negar dagite guztiak,  
piska bateko estali beltza  
artu du Euskal-Erriak.
- 2/ Samiñez daude euskotar danak,  
samiñez dago euskua,  
biotz berritik irteten zaio  
samintasunez malkua.  
Eusko odolak zaiñetan ziar  
daraman indar sendua.  
Naigabe ontan didar dagidan:  
«Ene goiko Jaungoikua!»,  
berari otoitz egiten diot,  
berari opal gogua.
- 3/ Betiko agur egin digute  
ta jua dira lurretik,  
odol gorria txaide gañian  
ixuri dute soñetik.  
Euren biziak eman dituzte  
aberri maitiagatik,  
goi zabalean arkitu bitez  
zuzen dagan bidetik,  
euren altzora igongo dute  
geure otoitzak lurretik.
- 4/ Gauden illaren zortzigarrena  
min garratzezko eguna,  
euskotar onak beti eukiko  
egun orren mintasuna.  
Matiko ziar erail ditubez,  
an izan da berri illuna;  
orrek benetan eusko semioi  
erdibitu digu barna,  
artalde ontan ardi zintzuak  
iges egin dizkiguna.
- 5/ Eusko gudari izan zerate,  
benetan bai gudaria,  
etsai gaiztuak egite txarrez  
ixuri dute bizia.  
Zenbateraño eldu litzaken  
gizonen maltzurkeria!  
Otoi dagoit barren-barnetik  
neure otoitxu garbia:  
donoki goian Zeruko Jaunak  
emon bezaie tokia.

*Euzkadi, Bilbo, 1931-XII-3.*

## BASERRITARRAK ERNE!

- 1/ Sei bertsoentzat lekua nai det  
 ementxe bazter batian,  
 guztiak ondo zabaltzarren  
 nere lagunen artian;  
 nekazariak nola gauden gaur  
 naigabez bete-betian,  
 besterentzako gauza egiten  
 gau ta eguneko nekian,  
 garaia da ta baserritarrak  
 pixka bat esna gaitian.
- 2/ Izerdi larriz gau eta egun  
 beti eten gabe lana.  
 Saiatutzeak zer balio du?  
 Besterentzat degu dana.  
 Ate ondoan laister da norbait  
 zerbait eskatzen duana,  
 eta orduan oartzen gera  
 alperrik jardun gerana,  
 neke ta desaidia besterik  
 emen ez dator gugana.
- 3/ Udaletxera eramanazi,  
 an galdera ugariak:  
 «Adiskidia, zenbat dituzu  
 aurtengo arto ta gariak?».  
 «Ogei anean ustia nuen,  
 erdia jan dit txoriak».  
 Gelditzen diran amar oieri  
 azkar luzatu begiak,  
 urteko zorrak ordaindutzeko  
 auek dituk alderdiak!
- 4/ Txekor ta txerri lur jota daude,  
 gora dijua pentsua,  
 oinbesteraño iritxi zaigu  
 gure izate neketsua;  
 esne pixka bat bear dan garaian  
 orduantxe bei antzua,  
 txanpon batzuek artuko baña  
 osatu ezin putzua,  
 istillu txarrak ikusten dago  
 nekazari beartsua.
- 5/ Zerga aundiak ditugu beti  
 ortikan edo emendik,  
 badakizute pakerik nola  
 ezta dukagun iñondik;  
 laguntza beti izan dezagun  
 guztiok alkarrengandik,  
 etsita iñork ez dezala esan  
 «Jaunak, guriak egin dik»,  
 gauza onek ere bere aldaera  
 ekarriko du oraindik.
- 6/ Nekazariak antolatuta  
 duten alkartasunian,  
 geren izenak eman ditzagun  
 antxen zuzen-zuzenian;  
 ia pixka bat lasaitzen geran  
 Jainkuaren izenian,  
 lana egiñez geren buruak  
 jartzeko ontasunian,  
 Euskadi ontan bizitutzeko  
 bear dan gozotasunian.

*El Día*, 1932-II-1.

## ZORION, «ARGIA»

- 1/ Esna dira gaur gizon azkarrak,  
 esna gaur jakinduriyak,  
 lanari gogor ekin diyote  
 idazle ta olerkariyak.  
 Zorion utsez beteak datoz  
 ingurutako berriyak,  
 amaika urte bete dirade,  
 senide maitagarriyak,  
 laguntza aundi bat artu zubela  
 gure Euskal-Erriyak.
- 2/ Gure izkuntzaren apaingarriya,  
 zorioneko *Argia*,  
 zintzo ta leial betetzen dezu  
 gure asaben legia.  
 Zeure deiak adierazten du  
 euskera dala guria,  
 uzkurtza zale goienekua,  
 artaño zera garbia,  
 eusko sendiak alaitutzeko  
 iñon berdiñik gabia.
- 3/ *Argia* maite, zuk entzun dezu  
 Ama Euskadiren dearra,  
 beragatikan diozu orañ:  
 «Itxartu zaite, euskotarra!».  
 Laztan gozoaz goratzen dezu  
 gure euskera ederra,  
 maitatzen dezu Jaungoikoa  
 eta lengo lege zarra,  
 aitortu're bai Euskadi dala  
 gure aberri bakarra.
- 4/ Etengabeko lana ari dezu  
 joan dan amaika urtetan,  
 zu maitatua izango zera  
 gero're gizaldietan.  
 Euskera ederra zabaldu dezu  
 baso eta mendietan,  
 euskera gozo maitekor ori  
 kale ta baserrietan,  
 euskerarekiñ agertu zera  
 beti alde guztietan.
- 5/ Zure oroipenik ezta galduko  
 ez orain eta ez gero,  
 nere barrena alaitutzeko  
 gauza oberik ez dago.  
*Argia* kutun maitagarria  
 erositzea astero,  
 irakurlea, ortxen dijoaz  
 azkenikan bi itz bero:  
 bide zuzen bat artzen degula  
 orixen egiñ ezkeru.
- 6/ Zuzendari ta gañontzekuui  
 aitamen au ematia,  
 jaun maiteak, esairazute,  
 ez al da on egitia?  
 Esker sutsuak artu itzazute,  
 orra or borondatia.  
 Gure begien gozagarria,  
*Argia* kutun maitia,  
 zorionean asi dezala  
 amabigarren urtia.

*Argia*, 1932-IV-24.

## GUGANDIK EGATU BERRI DAN LIZARDI OLERKARI OSPETSUARI

(Irratizkiñez esana)

- 1/ Negu trinkoa urrundu eta  
eldu da udaberria,  
euskaldunori atsegiñ zaigun  
aldi alai pozgarria.  
Etorrera au pozez agurtzen  
bearko luken erria,  
samintasunak estali eta  
orra or itun negartia,  
orra or itun negartia!
- 2/ Oitura on bat ez galtzearren  
ni mendi goruntz abitu,  
zugaitz laztan maitea eskertu  
gabe ezin ba gelditu.  
Bere kerizpe zoragarrian  
iñortxo ez dut nabaitu,  
an exertzen zan olerkaria  
ez baidut aurten arkitu,  
ez baidut aurten arkitu.
- 3/ Mendi gaiñ zoragarria, beti  
oi ziñana eder, alai,  
ezjakiñ gerta eta nik uste  
nuen aurten ere bai,  
Baña... txoriño danak ixilik,  
beltz estaliz, arturik jai,  
zuzendaria aldendu zan ta...  
piska batez ez kanta nai,  
piska batez ez kanta nai.
- 4/ Ene, Lizardi, ene, ba, txindor,  
zu beti neke garratzez,  
aberri mintzo berdiñ gabea  
oitara jaso bearrez.  
Eriotz zikoitzak uxatu zaitu  
ta Euskadi naigabez,  
Zarautz, Tolosa, kabi zureak  
ler bear dute negarrez,  
ler bear dute negarrez.
- 5/ Euskel olerkari gurenak artu  
digu betiko loa,  
euskel baratza landatuta da  
zeru goitara igoa.  
Baña Euskadi olerkari  
gabe ezta egotekoa,  
Jauna altsua, erruki zaita  
ta biali ordekoa,  
ta biali ordekoa.

*Argia*, 1933-VI-11.

## ZAITU GAITZAZU!

- 1/ Biotza dut gogo betean,  
olerkari esnatu bainaiz;  
izan ere, lumatxoa noiz  
eskutaratu, gaur ezean?
- 2/ Biziro bear nuke ari  
ta eskariz ditut bertsoak,  
gartsuki zuzendutakoak,  
euskaldunon zaindariari.
- 3/ Aldiaren zoritxar bidez,  
len ziranak aberats, alai,  
nola Gipuzkua ala Bizkai,  
orra orain itun, negarrez!
- 4/ Begira noiznai egun argiz  
lenago ikusten etzana,  
zoritxarrak dakar gugana:  
langilleak kaletan dabiltz!
- 5/ Emazte ta umetxoak,  
gizona kaleratuarekin,  
zer daukaten guziak jakin:  
gose maltzurra gaxoak!
- 6/ Baita ere nekazaria  
ondatu du ugoldeak,  
eta izan ditun kalteak,  
or utzi du... errukarria!
- 7/ Ene! Goi ortatik, Iñaki,  
begira kale, baserriak.  
Ondatu baño len guziak,  
arren, izan guban erruki!
- 8/ Euskoen zaindaria zu,  
ta euskoak laguntza eske,  
bizitzeko gaurtik aske  
pake donean zorientsu.
- 9/ Biotza dut gogo betean,  
olerkari esnatu bainaiz;  
izan ere, lumatxoa noiz  
eskutaratu gaur ezean?

*El Día, 1933-VIII-2.*



## EUSKO ARAUDIA

- 1/ Dei esnakor bat egiñ nai luke  
gaurtikan bertsolariyak,  
esanez: «Nator alde batera  
uzteko nagikeriyak».  
Badakizute nola dauzkagun  
une estu ta larriyak,  
aberri aldez ekiñ deiogun,  
senide maitagarriyak,  
askatasuna lenbailen lortu  
dezala Euskal-Erriyak.
- 2/ Ama Euskadi, Ama laztana,  
beti zaude negarrían,  
zure semeak dabiltzalako  
oso bide okerrian;  
esan gantzake egun gorriak  
daduzkagula urrian,  
pake done bat izan ezkeru  
gu jaio giñan lurrian,  
aberri aldez guztiok gaude  
alegindu bearrian.
- 3/ Senide talde izugarria  
gerade Ama batena,  
esan bearrik ere ez dago  
maite bear gendukena;  
Eusko Araudi orretan dago  
guztioen zoramena,  
badakit ondo gauza geiegi  
emango ez digutena,  
piska izanda're artu dezagun  
berak eskeintzen dutena.
- 4/ Guk euskotarrok egingo degu  
bear ainbat eskari,  
garai onetan saiatu gabe  
iñor gelditu ez bedi;  
alkarregana seta gaiztua  
artu genduen aspaldi,  
argitasunez bildu gaitean  
nola ezker ta eskubi,  
al dan azkarren gaizkabidean  
jarri dezagun Euskadi.
- 5/ Nik galdera bat egingo dizut:  
Euskotarra al zera?  
Saiatu zaite zeure burua  
ontasunian jartzera;  
zeure abenda maitagarria  
arren ez utzi galtzera,  
bearrak diran eskubideak  
ekarri geren etxera,  
lasaitasunez bizituzeko  
gure asaben antzera.
- 6/ «Jaungoikua ta Lege Zarra» da  
gure ikurriz garbiya,  
bide au jartzén alegindu zan  
gure irakasle argiya;  
anai guztiok bildu gaitean,  
badago oraindik astiya,  
araudi aldez joka dedilla  
Euskal-Erri guztiya,  
al dan azkarren agertu dedin  
askatasun eguzkiya.

*El Día, 1934-II-14.*

## AGATE DONEAREN AINTZAZ ZARAUTZ'KO KALEETAN ABESTU DIRAN BERTSOAK BASARRIK JARRIAK

- 1/ Goitar Jaunak dizutela gabon,  
etxetar onak, gaurkuan,  
baimena geurekin badegu ta  
astera goaz kantuan.  
Otsaillaren laugarren gaba  
nola ez izan goguan?  
Oitura zarrak ez galtzarren  
ona gu ate onduan.
- 2/ Txoriñoak legor zale dira  
baña ur zale arraia,  
laño izartsuen gañean dago  
guzioren gidaria.  
Erri osoak gure egiyak  
nolabait aditu naia,  
ikusitako danak diyote:  
«Au gazte jende alaia!»
- 3/ Ontzi apañak pozgarri dira  
iñoiz itxas zabalean,  
sendi on bat pozgarriago da  
gure begien aurrean.  
Eleiztar zintzo, euskaldun onak,  
zerate zorionean,  
zuentzako esker ona dago  
Zarautz'ko erri maitean.
- 4/ Agate Deunaren bizitzari  
arreta onez begira,  
egun latz mingotsak ikusteko  
agertua zan ludira.  
Baña ordañez beti-betiko  
igo da zeru-aulkira,  
etxe ontako bizi-lagunak  
aren antzekoak dira.
- 5/ Beartasunezko aur oientzat  
erruki bedi biotza,  
zer jan ta jantzirik ez dutela  
asko ta asko dabilta.  
Eleiz Amaren bidea da ta  
kristau arteko zuzentza,  
arrats onetan beroientzako  
eskatzen degu laguntza.
- Txanponak artu ondoren:*
- 6/ Gogoan izango zaituztegu  
nola orain eta gero,  
prez diranak aldeztutzeko  
beti gogotsu ta bero.  
Zuen sariak lenez gain ere  
gu poztu gaitu ziara,  
agur bat biotzez guziori  
ta gau on bana igaro.

*Euskadi, 1934-II-16.*

## JOSU OIN GARBITZALE

- 1/ Jaungoiko gizon egiña,  
izadiaren argia,  
apaltasun guztiaren  
eredu garbi-garbia,  
izanik zeru lurraren  
Egille, Jaun da Jabea,  
obenlari-oñetara  
bildu zan erregea.
- 2/ Azken apari aretan  
ene ba, artzai apala,  
Kepa Doneak nabaitu  
bere oñetan ziñala.  
«Baña, Josu,... zer da emen?  
zuk neri oñak garbitu?  
Ez beintzat orrelakorik!  
Jauna, ezin det aditu!».
- 3/ «Oñetan garbiturikan  
ez dizudala emango?  
Nerekin zer ikusirik  
ez dezu bada izango!».  
Ori entzun ondorean  
Kepa guztiz bildurturik.  
«Garbitu bitez ba, Jauna»  
zion, buru-makurturik.
- 4/ Zentzuz geranok aitortu  
bear dizugu benetan  
asko zabartu gerala  
lurralde nastu abetan.  
Ibildeun bat antolatzen,  
ene!, ausartzen ez gera.  
Geu ez ote gera jarri  
judatar aien antzera?
- 5/ Zuzentasun ixpillua,  
beti zaudena gertuki,  
biotz elbarri auegaz  
izan zaitea erruki.  
Izenik ere ez dute  
guk egindako irañak,  
berriro ere garbitu  
mundutar zabarren oñak.
- Jaungoiko gizon egiña,  
izadiaren argia,  
apaltasun guztiaren  
eredu garbi-garbia.

*Euskadi, 1934-III-3.*

## IGANDEKOARI BURUZ

- 1/ Astera nua, jaunak,  
ni bertso lanean,  
berriyak zabaltzeko  
euskaldun artean;  
zer esana badago  
gaur Zarautz aldean,  
komeriyak giñuzen  
joan dan igandean.
- 2/ Joan dan bi illabetez  
*Konstantzi*<sup>1</sup> artuta,  
orri danetan Zarautz  
zegoen aututa,  
karlistak nola zuten  
sekulako junta;  
zer izango ote zan  
geunden bildurtuta.
- 3/ Arritzekoa dala  
beren batasuna,  
ori da jende orrek  
esaten ziguna;  
azkenik iritxi zan  
bear zan eguna,  
utsan urrengoa da  
ikusi genduna.
- 4/ Joan-etorriak merke  
jarriagatikan,  
etzuten atzipetu  
iñor askorikan;  
tren eta berebillak  
bai erdi utsikan,  
gizon auek ez dute  
batere lotsikan.
- 5/ Egin bear giñuzen  
guk geure bixitak,  
naiz ondoren entzun  
etxeko erritak;  
gustatzen zaizkigu, bai,  
guri margaritak,<sup>2</sup>  
baña igandekoak  
etziran politak.
- 6/ Rekete batzuk ere  
soldadu antzera,  
kapitan eta guzi  
batetik bestera;  
jendeak esan zuben  
gurekin batera:  
«Fueroak ekartzeko  
ori dek tankera!»
- 7/ Garrantzi aunditxoa  
zuela mitiñak,  
*Noiz-Bait*'en sartu ziran  
ziraden pitiñak;  
erriari gusta ez  
ango itz zikiñak,  
nazkaturikan asko  
ziran aldegiñak.
- 8/ Arrue'kin batera  
Don Biktór Pradera,  
zorionez iritxi  
zarauztar artera;  
laister joan bear det  
grazik ematera,  
len baño abertzale  
sutsuago gera.

- 9/ Ainbeste izlari ta granorik ez egiz, gugatik gaizki esan zuten milla aldiz; *El Día*<sup>3</sup> apaintzeko bertso jator garbiz, naigo nun *Atarrene* emen izan balitz.
- 10/ Katoliko zuzenak dirala esaten, egun guzian ala jardunak ziraden; obrak erakusten du zuek zer zeraten, arratsean ederki azaldu zenduten.
- 11/ Jesus mingañean da pistola eskuan, ori agertu zuten zebiltzan lekuan; ala usteagatik askotxok gaurkuan, ez dute luzituko denbora askuan.
- 12/ Aldegiñak ziñaten aziyo egiñik, guraso askotara negarra emanik; lendik egonagatik zerbaitxo jakiñik, ez gendun uste orren txarrak ziñatenik.
- 13/ Jaungoiko, errege ta España maitatu, makillak eta armak jaiero dantzatu; zeru-bidea dala naiz zuek aitortu, naiago degu askoz bestera jokatu.
- 14/ Lenago txikitxua gendun batzokiya, orain artua degu guk etxe berriya; joan dan jaia ezkerok askok sartu naya, izango ote degu danentzat tokiya?
- 15/ Iru milla ziraden onuntz iritxiak, amabost milla ziyon *Doña Konstantziak*. Neurrik ez du iñun, zer gezur-ontziak! Nazkatuko dituzte inguru guziak.

*Euskadi*, 1934-VII-2.

1. *La Constançia*, garai artako egunkari bat zan, karlistena noski.

2. Margaritak, karlista alderdian sartzen ziran emakumezkoei esan oi zitzairen. Margarita izan baitzan Karlos VII'ren leenengo emaztearen izena.

3. *El Día*, Eusko Alderdi Jeltzalearen egunkaria zan.

## EIZTARIA

Edermenez jositako udazken sendoa  
gutxitan oi dan bezela gendun aurtengoa.  
Alare arrigarri askoren eskaria...  
Negu gordiñari oska dabil eiztaria.

–Zer diozu zuk? Euri, aize, txingor ta elur?  
–Datorrela eiza, bai, ta ez naiz oien bildur!  
Sendo agertzen zaigu Txomiñ adiskidea,  
denboraren aldar-teari bildur gabea.

Ez daki maindire altzoan gozoki biltzen,  
asia da aurten ere goizean goiz jeikitzen.  
Amak dantzatu zuan lengo batez mingaña:  
ez dula egiten oñetakoentzat aña.

Atzo ere kalean bere erosketa denak,  
artu ditu izkilluari dagozkionak.  
«Piztia erruz dabil» zion bart sukaldean,  
egurrak egin bear ditut bigar goizean.

Goiz muxiña, ta gu leia biziz estaltzeko...  
Baña Txomiñ etzegoan oian egoteko.  
Bere saioa eginda noizbait badator,  
badakarzki iru alkaban ta lau ollagor.

Ama Mikelak, ura guzia ikustean,  
berari diotsa poz irripar batean:  
–Makiñatxo bat denboran iraun duk eztari;  
noizbait bear uken ta biurtu aiz eiztari.

–Bai, ama; asko utsegiten nuen lenago,  
baña gaurtik aurrera ez da giro izango.

*Argia, 1934-XI-18.*

## ATOZ, UDABERRIA!

(*Olano'tar Txomini biotzez*)

- 1/ Lore apain bat nuen  
begien pozgarri,  
zenbat aldiz ingura  
naitzaion berari!  
Emezortzi urtean  
prest eusko baratzan,  
nere gozamen utsa  
beti ber-bera zan.
- 2/ Ene!, goi basetxeko  
aingeru kutuna,  
zer da joan dan aspaldiz  
gertatzen zaizuna?  
Ementxe nago kezka,  
ditudanak galtzen,  
Jesus!, nik nai baño len  
etzera inguratzen.
- 3/ Ene orban gabeko  
lora usaintsua,  
nolatan zu gugandik  
orren aldendua?  
Ixo ordea denok  
unetxo batean,  
orain oldozten baidut  
zer izan leikean.
- 4/ Kontu bear aundia  
loreak neguan,  
orreatatik zaude zu  
mendi ostantuan.  
Zorigaitzeko negu  
mingotz, zakar, illun!  
I aiz nere naigabe  
guzien errudun.
- 5/ Atoz zorionean,  
atoz, udaberri,  
maitalien kabira  
egin zazu argi.  
Argi egin dizdikor  
euskoen baratzan,  
lore zale txiro onek  
bera izan dezan.


*Argia, 1934-XII-9.*

## ATARRENE'RI

- 1/ Gudaritzako bildur naizela  
*Atarrene*'k derizkiyo,  
 nunbait berari ere pultsuak  
 zerbait mugitu zaizkiyo.  
 Aizazu, aske atera nintzan  
 eta ez da misteriyo,  
 mutill onari gure Jainkoak  
 beti lagundu oi diyo.
  
- 2/ Gudari joango baldin banintz ni  
 esan izan dut sarritan,  
 laister izango ote nintzaken  
 txit aginpide aunditan;  
 deskuido santuz egin ezkeru  
 gudaltegiko kapitan,  
 mutil zar auek nik bakanduko  
 nituzke euskal erritan.
  
- 3/ Nik ongi dakit, bai, *Atarrene*'k  
 maixua ortik daukala,  
 alkar artuta izparringitik  
 gaizki esan egiñala.  
 Jakiñ zazute Mundaizko jauna  
 orren tokaiua dala,  
 itxurak egiñ, baña ezagun da  
 bapo konpontzen dirala.
  
- 4/ Iganderako jarria dago  
 Zarautz'en egun aparta,  
 Irujo eta Ugartetxea'k  
 itzegin bear dute ta...  
 Ene *Litargi* maitagarria,  
 ekarri zazu karnata,  
*Atarrene* ta On Juan jauna  
 emen izango dira ta.

*El Día*, 1935-XI-1.





Lenengo bertsolari-eguna, Donostian, 1935-1-20.

Goien, lenengo lerroan, ezkerretik: Saiburu, Txapel, Txirrita, Zepai, Basarri; bigarren lerroan, ezkerretik: Erauskin, Ordizia; Mintegi, Ordizia; Lexo, Antigua, Donosti; Nekazabal, Zarautz; Telleritxiki, Errenteri; Abarrategi, «Besamotza», Urduliz, Bizkaia.

Bean: 1: Alkain, Urnieta; 2: Kortatxo, Itxiar; 3: Pello Zabaleta, Errenteri; 4: Juanito Zabaleta, Errenteri; 5: Sorozabal, Aiete, Donosti; 6: Etxeberria, Aiete, Donosti; 7: Uriarte, Bermeo.

## BELTZAK GOGORREAN ETA ABAR

1/ Negus'en mende dan Abisini'k  
ez ditu seme nagiak,  
lur aren aldez noiznai iltzeko  
trebe ta indartsu jarriak.  
Goiko indarrez Itali'k artu  
Axum ta beste uriak,  
ostera berenganatu nairik  
sarrera bildurgarriak,  
beltzak aurrera dijoazela  
diote azken berriak.

2/ Ezjakin eta atzeratuak,  
ori dena izango dute,  
baña bonba ta tiroen bidez  
onduko al dizkigute?  
Aitzeki ori artuta Itali'k  
ango jabe egin nai luke,  
jipoia izango ote dun laister  
irabaziaren truke?  
Arrazoi dena beltzak dute ta  
guk poz artuko genduke.

3/ Atzo inguratu zan  
berri txar motela:  
buruaustetan nola  
zebillen Portela,  
ministro batzuk anka  
egin diotela;  
denok dakigu larre  
ona dagoela;  
artalde denboraz  
osetzen dutela.

*Gil Robles bero-bero:*

4/ Gure Gil Robles auxe  
ez dago izua,  
Kataluña orretan  
atera da sua.  
Alcalá Zamora'ntzat  
txingor erasua,  
menpean dauka ustez  
Españi osua,  
aspaldi ontan beintzat  
ez dabil gozua!

*Laborda'ren kirtenkeriak:*

5/ Gasteiz'en agertu da  
Laborda'ren planta,  
adierazi zuan  
integristen kanta:  
Prieto nola gendun  
nagusi aparta,  
Zumarraga'n berekiñ  
batu giñala-ta...  
Kaiku zarra izateko  
ez du asko palta.

6/ Nolanai sartzen dira  
euskal errietan,  
ollar arroan gixa  
asi berriketan:  
katoliko piñenak  
beroi en ustetan,  
abertzeleontzako  
beneno nasketan,  
ezpaitakite gaizki  
esaten bestetan!

*Euzkadi, 1936-I-4.*

## MENDIGOIZALEAK

- 1/ Egun eder ta argitsu batez  
gela leioan nengola,  
egon ezin bat nabaitu nuen  
neronek ez dakit nola.  
Jakin zazute nere barrena  
gaur ortarako dagola,  
neuk ikusia azaldu gabe  
ezin naiz egon iñola.
- 2/ Alde batera bazterturikan  
nere naigabe mingotsa,  
alaitasuna berdingabeak  
denboraz zuan jaiotza.  
Belarritara eldu zitzaidan  
–ura zan eusko abotsa!–,  
artxek bai neri neurrik gabe  
poztu zirala biotza.
- 3/ Gazte bulartsu trebe aieri  
zer begiratu gozoak!  
Auek dirade leio artantxe  
oldoztutako bertsoak.  
Abesti eder, zoragarriak,  
irrintzi eta santzoak,  
mendi aldera egiten zuten  
eusko gudari zintzoak.
- 4/ Dei bizitan nola baizeuden  
eleizetako ezkillak,  
buru utsikan egin zituzten  
beren otoitz ixillak.  
Ondoren ere aurrera beti  
arturik beren makillak,  
gaurko gazte askoren orde  
aiek ziraden mutillak!
- 5/ Neronek ere irten nitzaden,  
bai, atariko atera,  
«Gazte zintzoak, nora zoazte?»  
ori zan nere galdera.  
Apaltasunez erantzun zuten  
guztiak abots batera:  
«Anai maitea, jakin dezazu:  
mendigoizaleak gera!».
- 6/ Arreta onez entzun nuben nik  
gazte bulartsuen itza,  
eusko izaera nolakoa dan  
eman ziraten deritza:  
«Jaungoikoa ta Lege Zarra da  
damakigun ikurritza,  
irakaslean azi ederra  
zabaldu nairik gabiltza».
- 7/ Gau eta egun entzuten gaude  
Ama Euskadin dearra,  
beragatikan daukagu orain  
zintzo erantzun bearra.  
Itxartu zaite, kaletar ori!  
Itxartu, baserritarra!  
Eta oroitu Euskadi dala  
gure aberri bakarra.
- 8/ Zu ziñan, Sabin, eusko abenda  
guztiz indartu zenduna,  
zu izan ziñan ludi guztiak  
zorotzat artu ziñuna.  
Zorionekoa Euskadi dana  
oroitutzen dan eguna,  
ura izango da gure erria  
aske ikusiko deguna.

*El Pueblo Vasco*, ez dakigu zein egunetakoa.

## EZKONBERRIAK DONOSTIAN

*(Baserri bertsolariak eratu ta, berak, Izagirre  
andereñoa lagun zuala, irratizkiñez esandako bertsoak)*

- 1/ – Erakutsi nai nuke  
nik daukadan griña,  
pozarez pozez au da  
iraun eziña.  
Alaitu zaitetz bada,  
nere emazte piña,  
kantatu biaitugu  
bana edo biña.
- 2/ – Asi gaitean bada  
bakoitzak bere,  
ontan egingo dizut  
nai ainbat mesede;  
bertso batzuek ondo  
merczia zaude,  
etzera geldituko  
erantzunik gabe.
- 3/ – Arpegi gorri eder  
ta begi urdiñak,  
oso gutxi dirade  
zurekin berdiñak.  
Igarotzen ditugu  
une atsegiñak,  
nunbait alkarrentzako  
giñaden egiñak.
- 4/ – Itzegiten dirazu  
dotorien gixan,  
ortarako ez dezu  
beldurrikan izan;  
bestela gaizki ziñan  
zeure bizitzan,  
egun batez ni ondo  
errukitu nitzan.
- 5/ – Antoni, iritxiak  
gera ontaraño,  
diruz ez naiz osatu  
aberasteraño.  
Gezurrez ez natzaizu  
ari egundaño,  
Praxkukin obe dezu  
askorekin baño.
- 6/ – Esku txuri legunak  
markes baten eran,  
langillearen trazik  
ezin dizut eman;  
lepo ondo ori berriz  
nik ez dakit zer dan,  
ikusiko da nola  
portatutzen zeran.
- 7/ – Basarrian jaio ta  
basarrian azi,  
argintzan ere gazte  
gazterik ikasi.  
Zortzi bat pezetatxo  
noiznai irabazi,  
pixka bat goratzea  
ez al det merezi?
- 8/ – Naiz arotza eta  
berdin da argiña,  
ni oker egotea  
balíteke, baña  
arrantxoz bear bada  
emengo tamaña,  
oriek ez ditugu  
ardotako diña.

9/ – Emakume, etzazu  
oinbeste itzegin,  
nik ez dizut beintzat  
ezertan utsegin.  
Gaur bezelako aldia  
badezu beñepin,  
zure ondoan ez da  
izango atsegin.

10/ – Konpondu dituzu zuk  
jaki ta erariak,  
naiz besteak pasa  
gose ta egarriak.  
Artzen ez bazaizkizu  
aurretik neurriak,  
ikusi bear ditut  
ixtillu gorriak!

11/ – Donostian gertatu  
gera eztaietan,  
jakin dezatela au  
alde guzietan.  
Antz ematen dizut nik  
lengo egunetan:  
ona izango zera  
jaten da errietan.

12/ – Pitxar bat ardo zaude  
ementxe eranda,  
tankera txarra nago  
aurrez emanda.  
Gizontxo zintzo baten  
bearra nuban da  
damuak artu ditut  
denbora juanda.

*El Pueblo Vasco*, ez dakigu zein egunetan.

## ARANTZAZUKO AMA

Agur, Ama maitea,  
biotz barnez, agur;  
por jarioz aurrean  
ona buru makur!

Edermen lora denak  
zeuregan dituzu;  
onez berriz, o Ama,  
zein ona zeran zu!

Trakets, oker zanean  
gizaldi eria,  
zuk agertu zenduan  
onuntz errukia.

Eusko baso mendiak  
negar zegioten,  
anai orok alkarri  
gorroto zioten.

Erriak erriekiñ  
orobat zebiltzan,  
burruka gaitz arentzat  
sendakairik etzan.

Poztasunik inñun ez,  
denak negar kanta,  
sorterria betiko  
galduko zala-ta!

Au dena nabaiturik,  
o biotz ona, bai,  
Euskalerra gaxuok  
ondatzerik ez nai.

Zentzumenik degunok  
txoratzeko eran,  
arantz artean tinko  
non agertzen zeran!

Asarrez zakarturik  
zegen itxasoak,  
garaiz agertzen ditu  
goi apar goxoak.

Negar uluz genitun  
baso ta mendiak,  
irripar uzten ditu  
zerutar argiak.

Gizon arteko naspil,  
guda ta nastea,  
orok aldegin dute,  
sortu da pakea.

Gizon eta erriak  
pozez zorabio,  
aldaketa guzi au  
Amari zor zaio.

Aurreko gizaldien  
osakai ziñan zu,  
gaur ere premiz gera,  
lagundu zaiguzu.

Esku Ama on orrek  
egun beltz auetan,  
argi zaindari maite  
euskal errietan.

Gorrotzko edena  
bijoar uruti,  
maitasunean bizi  
gaitezela beti.

Maitasuna gure ikur  
ludi ontarako,  
orrekin gertutu nai  
zure ondorako.

*Aranzazu, 1936-VI.*

## ZORNOTZA'KO GERTARIAK

- 1/ Kanpoko arroputzak  
Euskadi'n aginte,  
euskaldun langillea  
larri dabilkite;  
lanean zamazkitenak  
amazazpi urte,  
kale gorri lakarrera  
or jaurti dituzte,  
amaika onelako  
egiten digute!
- 2/ Eusko lurreen sartu zan  
beingoan txerrena,  
geroztik asko ugaldtu,  
ori da txarrena;  
onez asten bagera  
galdu degu dena,  
berotu ezkeru badu  
euskoak kemena,  
ortzak erakustea  
gauzarik onena.
- 3/ Zornotza'ko kontuak  
arrigarri daude:  
euskaldunak kanpora ta  
atzerritarrak jabe.  
Laiseka txatxuak egin  
digu ori ere,  
neurri gogorak artu  
bearrean gaude,  
ancker oien ankapean  
beti egon gabe.
- 4/ Jakiñik ez digutela  
opaltzen ogirik,  
gau t'egun dabiltzala  
ori kendu nairik,  
berdin diote Zornotza  
ta *Anbotomendi*-k,  
euskotar asko kanporuntz  
begira oraindik,  
ortaraño itxutzea  
gezurra zirudik!

*Euzkadi*, Bilbo, 1936-VI-27.



## BERTSO BERRIAK EIZMENDI'TAR IÑAKI (BASARRI'K) JARRIAK

- |                                                                                                                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                    |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>1/ Milla bederatzieun<br/>ogeitamabostean,<br/>asi naiz bertso batzuk<br/>jartzeko ustean,<br/>esango dut zer dagon<br/>mundu zabalean,<br/>arrokeria buru<br/>gizonen artean. (bis)</p>      | <p>5/ Amaikagarren Pio<br/>«pakea» deituaz,<br/>aundi-naiko erriak<br/>beti armatuaz.<br/>Besteren etxetara<br/>indarka sartuaz,<br/>mundua odol-putzu<br/>jartzera dijuaz.</p>                    |
| <p>2/ Lurralde dena dabil<br/>olatu nastuan,<br/>burruka ta zarata<br/>gabiltzan lekuan;<br/>gose ta naigabea<br/>gudaren<sup>1</sup> onduan,<br/>Jaunaren beldur gabe<br/>orra zer dagan!</p>   | <p>6/ Ugaldu goi-egazkiñ<sup>3</sup><br/>eta itxas-ontziyak,<br/>gudari dei egiñaz<br/>korneta biziyak;<br/>Aita Vitoria eta<br/>Eleizan egiyak,<br/>eurena egiñ ezkeru<br/>or konpon guziyak!</p> |
| <p>3/ Mundu negargarritik<br/>gaur zenbat albiste,<br/>sinismena galduta<br/>orain milla naste.<br/>Gizonaren jokera<br/>au da bataz beste:<br/>elbi bat aña ez ta<br/>dana dala uste.</p>       | <p>7/ Milloi eta milloikak<br/>armentzat bakarrik,<br/>agintarien deira<br/>arretaz jarririk.<br/>Sasoi duten artean<br/>ez daukate ikarrik,<br/>apalduko zerate<br/>ez zuei eskerrik.</p>         |
| <p>4/ Nazioak alkarri<br/>gudazko jokoia,<br/>izkilluz<sup>2</sup> gañeztu-ta<br/>alkar galtzekoa;<br/>gizonen maltzurkeri<br/>bide-gabekoa,<br/>ez dute aintzat artzen<br/>Kriston ordekoa.</p> | <p>8/ Gure dotriña zarrak<br/>gorde ziran betiko,<br/>onek alderdi onik<br/>ez du ekarriko.<br/>Kristau ikasbidea<br/>betezkeru trinko,<br/>mundua ez litzake<br/>onela ibilliko.</p>              |

9/ Otoi egiñ dezagun,  
otoi, bai, benetan,  
laño beltzik ez dediñ  
gure mendietan;  
jarrai zagun aurreko  
asaben bidetan,  
pakez bizi gaitezen  
Euskal-errietan<sup>4</sup>.

- 
1. gudaren: gerraren (Bertso-paperaren oarra).
  2. izkilluz: armaz (Bertso-paperaren oarra).
  3. goi-egazkiñ: aeroplano (Bertso-paperaren oarra).
  4. Bertso-papera: «Editorial Itxaropena. – Zarauz». (Felipe de Jausoro, Oñate).

*Laugarren txinpartak, Auspoa 55, 1966.*

**1936 - 1943**

## AGUR, AMUZKIBAR, AGUR!

1/ Eusko aberri maitean alde  
beti jokatua legez,  
beste ametsik etzenduan zuk  
ez egunez ta ez gabez.  
Jeltzale zintzgorik billatzen  
etzan izaten ain errez,  
faxista txarrak galdu zaitue  
euren gorrotu ankerrez,  
nere begiak itxaso zabal  
biurtu dira negarrez.

2/ Zuk badakizu, Mikel zintzoa,  
maite zindutan benetan,  
alkarrekin ibilli oi giñan  
sarri Zarautz'ko kaletan.  
Alkarrekin baita ere gogoz  
an Batzokiko lanetan,  
zu arkitzeko poza beti nik  
banuen bazter danetan,  
geiago alkar ezin ikusi  
orain lur eder onetan.

3/ Euskaltzalea izandu ziñan  
besterik gutxi bezela,  
amaika aldiz esaten zendun  
izkuntz oberik etzala.  
Birao bat iñoiz ez nizun entzun,  
ain ziñan kristau apala,  
ezagututzen zinduten denak  
badakit au diotela:  
zalantzik ez dutela egiten  
orain zeruan zaudela.

4/ Toki askotan entzuna zuan  
gure Amuzkibar onak,  
zein ikasbide mardulak diran  
Sabin aundiak emanak.  
Eleizaren arau guztiak  
betetzen bazekian ark,  
Jaungoikoa ta Lege Zar alde  
bizia ematen duanak,  
zoriondegian zabal dauzka  
bear ditun ate danak.

5/ Saia gaitean geren barrendik  
pekatu loiak urruntzen,  
geure irakasle Sabin bezela  
ibilli garbi ta zuzen.  
Era orretan, ai!, eriotzak  
iñortxo ez du beldurtzen,  
Mikel maitea, asia nago  
otoitz beroak zuzentzen,  
emen beian lez or goian ere  
alkarganatu gaitezen.<sup>1</sup>

*Argia*, 1936-IX-29.

1. Bilbo'ko *Euzkadi* egunkariak, 1936-IX-25'ean, onela ematen du Amuzkibar onen ilberria: «El gudari D. Miguel de Amuzkibar y Mendizabal, afiliado al P. N. V. y S. de T. V. (q.e.p.d.), falleció ayer, 24 de septiembre de 1936, a los 32 años de edad, a consecuencia de las heridas recibidas en el frente de combate de Deba, Gipuzkoa».

## AGIRRE'TAR JOSEBA A.

- 1/ Alde guzitan agertu zera  
bikain, sendo ta indartsu,  
ekaitzaldi ta pake denboran  
jokera berdiña dezu;  
etxe ta kanpo, inguru danak  
benaz arritu dituzu,  
gaur eguneko Europa oro  
zeuri begira daukazu.
  
- 2/ Gogai aundia, biotz zabala,  
jakinduriz nai ainbeste,  
erriak buru zu nai ziñun da  
oraintxe gogoak bete;  
oinkadik ezin eman ziteken  
gizon obearen eske,  
aberria ta abertzaleok  
pozikan egon gindezke.
  
- 3/ Gobernu batek zenbat lezaken  
askotxok eztu jakingo,  
auzoko mandatariari geio  
guk ez diegu itxoingo;  
araudi on au il batzuk lendik  
inguratu balitz beingo,  
gipuzkoarren kontura iñork  
etzuan parrik egingo.
  
- 4/ Joseba Andoni txalogarria,  
agur dagizut euskeran,  
euskal erriak ikusi dute  
zu zein bearreko zeran;  
eusko anaiak, aurrera gogoz,  
aurrera euskaldun eran,  
negarrez irten giñan kabira  
ia parrez sartzen geran!

*Euzkadi, Bilbo, 1936-X-28.*

## AI, MOLA, MOLA!

- 1/ Berriro ere entzuna degu  
Mola jaunaren itz-otsa,  
laster ikusi bear degula  
bere ezpata zorrotza;  
euskaldun danak zapaltzea da  
darabilkian ametsa,  
ollarran gixa kukurrukuka  
etorri baita onuntza.
  
- 2/ Gure mutillak menperatuta  
aurrera ezin abitu,  
naiz ortarako moro beltz eta  
aleman txuriak bitu;  
emakume ta aur gaxoak il,  
erriak goitik zatitu,  
oraintxen ere txatxu txar onek  
asmo kaxkar oiek ditu.
  
- 3/ Bazter guziak auts biurtzeko  
inguratu egazkiñak,  
ortaka indar artuko baitu  
Jesukristoren dotriñak;  
guda oñetatikan urruti  
guztiz jeneral bikañak,  
auekin beintzat erronka aundirik  
ezin joko du España'k.
  
- 4/ Bekaizkeri ta gorrotu itxuak  
zuri onuntz bultza dizu,  
ta abenda zar au ondatutzeko  
asmo biziak dituzu;  
euskoak aske giñan len ere,  
berriro laster gaituzu,  
Aitor zarraren semean berri  
orain ikasiko dezu!

*Eguna, 1937-1-2.*

## TXALO EUSKO APAIZ AGURGARRIAI!

- 1/ Gure erri zarra erne ikusirik  
guda beltzeko nasketan,  
eusko apaizak euren lanari  
ekin zioten benetan.  
Ainbat anima jarri dituzte  
zoriondegi bidetan,  
txalorik inork merezi badu  
auetxek, nere ustetan.
  
- 2/ Arrixku gogor makurrenetan  
leialki doaz mendira,  
eusko gudari bikain trebeak  
ernecki dauden tokira.  
Eurekin jan da eurekin etzan,  
noiz nai zerurantz begira,  
Kristoren ordezkari zintzoak  
olaxe jokutzen dira.
  
- 3/ Gure gogoak gaizkatzearren  
saiatzen dira orrela,  
txingor, aize ta euri ta elur,  
jakin beti an daudela.  
Baña ez dabiltz pusillarekin  
gorrotua jaun dutela,  
beste alderdi ortako batzuk  
ikusten diran bezela.
  
- 4/ Obenlari ta aulak geranez  
sarri adimen nastua,  
ondoren datorkigun auzia  
oso daukagu aztua.  
Guziok garbi epaitutzeko  
iritxiko da ordua,  
goitar Jaun onak bere garaian  
eskatuko du kontua.

*Eguna, 1937-I-19.*



Gerra denboran.



## **EZ LARRITU, MAITE!**

- 1/ Muxu gorrixta, gorputz lirain,  
aingeru gixako maiteño,  
jostallu ameslari ziñan ori,  
zerk itundu zaitu ortaño?
- 2/ Badakit, bai, ta asmatuko dizut,  
izartxo polit ori, itz bian:  
kezka arantzak zulatzen zaitu zu  
biotzaren erdi-erdian.
- 3/ Baña... ez larritu, polit ori,  
uxatu urrun barrengo kezka;  
gotzon dizdir ori illuntzeko  
iñongo berri txarrik ezta!
- 4/ Zure kezka dan Joseba onak  
jopu baño... naiago du il;  
ta izkillua eskutan dularik  
eusko menditan alaiki dabil!
- 5/ Garaitz eguna laisterka dator,  
Joseba lez poztu zu ere,  
pake aroan laister baizera  
kezka daiguzunaren jabe!
- 6/ Muxu gorrixta, gorputz lirain,  
aingeru gixako maiteño,  
jostallu ameslari zeran ori,  
zerk itundu zaitu ortaño?

*Eguna, 1937-I-30.*

## ARANTZADI'TAR INGARTZI AGUR, IRAKASLE!

Bat-batetako dardar zaratatsua  
senti dizu eusko lurrak,  
guzia beltz jantziz... naigabetsu, mingots  
utzi du zure agurrak!

Nola naigabearen zama mingotsak  
dardartu ez gure lurra,  
betiko iges dijoala ikusten badu  
bere aldeze ziurra?

Aldiaren zorigaitz minkorra bide  
itun dira aran, zelai, baso, mendiak,  
betiko agurra egin baitiote  
euren maitale aundiak.

Txuritasun dizdirak edertzen zindun  
sort-iturri,... basetxea,  
illundu ta bezteko naikoa izan da  
Ingartziren aldentzea.

Beti zure altzora begira zuan  
luma erdoi gabekoa,  
bera zan zure oñarri, asiera,  
ad.....itakoa!<sup>1</sup>

Ene, basetxe! Atzo txuri dizdiraz,  
gaur beltz estalkiz zaudena,  
galdu dezu aldeze, laguntzallerik  
apalen da zintzoena.

Zuek ere, Kantauri ertzeko urak,  
orru illuna dagizute,  
ainbat bider laztandu zinduten jauna  
urrundua baitezute.

Eusko barrutian ez da ezer gaurkoan  
arantz miñak zula barik;  
gizaldiko jaunik goragarrien bat  
orain galdu du Euskadik.

Agur, idazle  
ta irakasle  
betiko...  
Atsedenean,  
zorionean.  
egin lo!

Ludia utzi  
dezu, Ingartzi...  
Aspertu?  
Lo orain munduan,  
gero zeruan  
esnatu!

*Eguna, Bilbo, 1937-II-18.*

---

1. Lerro onek utsune bat du.

## ANTZUOLA'TAR ANASTASI (G. B.)

(Azken oparizat Basarrik bere lagunari eskeñitako olerkiak)

- 1/ O, Anastasi biotzekoa,  
agur egin igukan ik,  
euskaldun lurra garbitu asmoz  
Araba'n aurreruntz juanik,  
bala txar batek utzi indukan  
berela gorputz egiñik.  
Esan akidak: ez ote aut ba  
geiago ikusiko nik?  
Kantuz ari nauk il aizenikan  
ñoiz sinistu eziñik.
- 2/ Aberri alde zenbat aztalka,  
zenbat oinkada nekati!  
Jeltzale berriak egiteko  
gertu egoan i beti.  
Eure erti-lanez apaintzen uken  
makiñatxo bat antzerki...  
Negar malkoak jabetzen dira  
nigan poliki-poliki,  
Zarautz'ko erriak zer galdu duan  
Jaunak besterik ez daki.
- 3/ «Jainko ta Lege Zarra» izan uken  
ire betiko ikurritza,  
ta aberriaren askatasuna  
ire amets eten gaitza.  
Zuzen, zintzo ta garbia intzan  
uso txuri baten gixa,  
abertzalean bizitza egin duk  
ta abertzale eriotza,  
«Gora Euskadi!» izan bai uken  
ire azkeneko itza.
- 4/ Igandik urrun ibiltzen uken  
atzerapen da bildurra,  
beti aurrera, aurrera beti,  
orixe ire ikurra.  
O, Anastasi, il aute ordea,  
auxe zorigaitz makurra!  
Zulo bat egin, bertan utzirik  
an eman ziteken lurra!  
Negar da negar egiñaz uken  
erritar danen agurra.
- 5/ Itz egiteko esanagatik  
gaur ez aiz mintzatzen bate,  
ta ibiltzeko esanagatik  
ezin agindurik bete.  
Ain argi itukan begi ederrak  
illunean utzi aute,  
egin zak, bai, lo, lagun mamia,  
lo gaur, adiskide maite,  
biotz-biotzez agurtzen augu...  
zeruan esnatu arte.

*Eguna, 1937-II-19.*

## BERTSOTAN DENBORA PASA...

- 1/ Neguak orain ditu  
bere joaldiak,  
ikusi bearko dira  
ixtillu gorriak.  
Elurrez jantzi dira  
baso ta mendiak,  
etsaia zaitzen irmo  
daude gudariak,  
Euskadi'ren aldezle  
gogoangarriak.
  
- 2/ Gure morrosko auek  
bai trebe ta onak,  
elur eta kazkabar  
bildur ez diranak,  
parapetoa ongi  
zaitzen dakitenak,  
reketeak ikusteko  
zorutzen daudenak,  
propiñ ederra zeukak  
deskuidatzen danak!
  
- 3/ Zuen lagunak atzerri  
alde ortan dire,  
euskoen laguntza bear  
nunbait aiek ere;  
laister etorriko dira  
ta milla aldiz obe,  
oraingo ontan egon denok  
zalantzarik gabe,  
denboraz egingo gera  
geure lurren jabe!

*Eguna, 1937-III-6.*

## «AITZA» IDAZLE LAGUNARI...

1/ Gure «Aitza» jatorrak  
zer berri dakazki?  
Lengoan irakurriko  
zenioten noski:  
mando bat ingura zaie  
patata ta guzti,  
azitarako asko  
ez dezute utzi,  
arrane pikaruak  
etzaudete gaizki.

2/ Zeuen mando beltz ori  
portatu zaizute,  
gixadu jana ederki  
gozatu dizute.  
Deklarazioak ere  
egin dizkitzute,  
makil orde z pentsua  
eman zaiozute,  
etzerate gizonak  
iltzen badezute.

3/ Zintzo inguratu da  
zeuen sallerano,  
janariz kargatua  
lepo ezurreraño;  
politikarik ez dula  
berak omen diño,  
paxiotar, reketek,  
milla demoniño,  
mando ori argiago  
oiek denak baño.

*Eguna, 1937-III-6.*

**BIOTZGEAK ZERATE!***(Bilbo'ko irratitik abestutako bertsoak)*

- 1/ Etsai zakarrok, entzun zazute,  
entzun, bai, arrats onetan:  
gorrotua ta edena baizik  
ez da zuen biotzetan;  
aurrerakorik ezin ba egin  
iñoiz gure mendietan,  
emakume ta aurtxoak iltzen  
gutziz apartak orretan,  
ene maltzurrok, odoltzaleak  
zerate beintzat benetan.
- 2/ Egoki asko joka zerate  
ene Durango aldean,  
meza ematen zeuden apaizak  
il dituzuten uanean.  
Ainbat aurtxo ta emakume on,  
amairu moja tartean,  
etxe illarak txit apurturik  
antxe gorputz loi artean...  
kontu ederra daukazute ba  
Jaungoikoaren aurrean!
- 3/ Zeuen ustetan ori guzia  
euskotarrak bildurtzeko,  
gu kokilduta auldu ondoren  
geure salletan sartzeko.  
Dana batekoz bestera izan da  
lenez gain indartutzeko,  
Erroma autsi zun erria ez dago  
zuen menpean jartzeko,  
emen guziok gertu baigaude  
aberri alde iltzeko.
- 4/ Ongi dakigu milla pikardi  
egingo dituzutela,  
goiko txori zar maltzur oiekin  
saiatuko zeratela.  
Naizta etxe bat bera osorik  
utzitzen ez dezutela,  
jakin euskoak edozertako  
txit gertutuak gaudela,  
ta erri au aske izango dala  
Jainkoak egin bezela.
- 5/ Ezertxok ez du izutu izan  
euskaldun jende bikaña,  
len ere edesti garbi askoa  
daukagu guk alajaña.  
Erriak puska, andre ta aurrak il,  
bestetarako ez diña,  
bearbada or orrelakorik  
ez dezute usteko baña,  
bere garaian iritxiko da  
gaiztakerian ordaña.

*Eguna, 1937-IV-15.*

## ELDU DA GURE ORDUA!

- 1/ Gorrotu beltzez josirik dator  
etsai txar amorratua,  
bera da gure erri apañak  
griña gaiztoz apurtua.  
Ainbat aurtxo ta giza-emakume  
betiko lurperatua.  
Jeiki, euskoak! Zutiñik denok!  
Eldu da gure ordua!
  
- 2/ Gure erri zar au ondatutzeko  
oiek dakarten gogua!  
Gu euskotarrok irentsitzea  
amets eten gabekua.  
Gaur gure jokerari begira  
jarria dago mundua.  
Jeiki, euskoak! Zutiñik denok!  
Eldu da gure ordua!
  
- 3 Edesti bikain garbia degu,  
anai maiteok, lengua,  
nolanai ezin utziko degu  
ezereztuta, galdua,  
Gora biotzak! Eman arpegi,  
jaso dezagun burua...  
Jeiki, euskoak! Zutiñik denok!  
Eldu da gure ordua!
  
- 4/ Gauza bat euki bear genuke  
oso gogoan artua:  
gure erriaren etorkizuna  
orain dala agertzekua.  
Ez dezagula galtzera utzi  
irabaz leiken jokua,  
il edo bizi gudara denok,  
eldu da gure ordua!

*Eguna, 1937-IV-30.*

## BASETXEKO IKUSPEGIAK

Negu erreñu beltza  
aldendu da urrun,  
ta udaberri ertza  
orain gure lagun.

Gaur *ertza*, biar *erdi*,  
lan aro bizia...  
Orain duk ire aldi,  
o nekazaria!

Mutillak esnarazi,  
oiu, beti bezela,  
bizkorki ta bizi  
jeiki ditezela!

Eguzki erregea  
ager duk goietan,  
giro berdingabea  
gaur gure lurretan.

Karramarra, lai, golde,  
atxur, sarde, pala,  
ez, arren, ezer gorde,  
dena bear dala.

Idi biak uztartu,  
gertu zimaurre,  
ongarri oro artu  
goza zagun lurra!

Alabatxo gazteak  
txarroa eskutan,  
indar du pitar meak  
egarrune estutan.

Urretxindorrarentzat  
abestea errez,  
nekazari orrentzat  
lur lana zan legez.

Deitu du aurten ere  
nekazari zaarrak,  
gelatxoak uts daude,  
urrun gazte indarrak.

Nekazari zaarraren  
naigabe astuna:  
berak daki ziurren  
balio ez duna.

Baña lurrari kemen!  
Beingoa zer zaio?  
Zaar, aul dagon arren  
erasoko dio.

Amaika aldiz bustia  
len bere izerdiz,  
aberri dei bizia,,,  
ta orra or berriz.

Nekatuko da, bai,  
nekazari zaarra,  
baña ez jabetuko  
sasi ta larra.

Menditik, zorionean,  
semeak datozenean,  
urten dedilla  
euren billa.



Zorion poza  
orduan goza  
guztiok,  
gaztiok,  
orok,  
zaarrok.  
Orain  
erein,

gero jaso  
benaz oso.  
Uztaroa,  
eder giroa.  
Udazkenean,  
askatasunean...  
Euskadi...  
Ala bedi!...

*Gudari, 5'gn zenb., 1937.*

## BILBAO! ZU ETSAIARENTZAT? EZ ORIXE!

- 1/ Arrano beltzak bidean dira  
ego zarrak zabaldurik,  
nunbait eurentzat ezta bestetan  
au ainbateko kabirik;  
prizti txikiak gera gu baña  
lumaz ongi orniturik,  
zugaitz gañetik auxe diogu  
itxaropenez beterik:  
emen ez dala iñoiz izango  
maltzurarentzat sarrerik!
- 2/ Bere izkillua eskutan dula  
orra tinko gudaria,  
ez du utzi naiko orrek nolana  
zanpatzen duen mendia;  
zai dago arretaz noiz asiko dan  
arerio erauntsia,  
badaki orain jokutzen dala  
gure etorkizun guzia,  
bear danean par irri goxoz  
eskeñiko du bizia.
- 3/ Ene, Euskadi berdingabea,  
zer zorigaitz eldu zaizun!  
Zenbat naigabe, zenbat oñaze,  
zuk zenbat jasaten dezun!...  
Uri txukunak, erri politikak,  
ai!, len denak bazenitun,  
ta zakartegi apurtu bat gaur;  
baña esan auxe edonun:  
eusko gogoa apurtuko dun  
sugarrik ez dala iñun!
- 4/ Ezin geiagoz saiatu dira  
euskaldun seme jatorrak,  
zein errik iraun ote lezazke  
orren joaldi gogorrek?  
Utik, lizunok! Etzaituzte nai  
gu bizi geran kaiolak,  
amets zikoitza ez du egundo  
egi biurtuko Mola'k,  
«Askatasuna!» dei egiten du  
or ixuri dan odolak.
- 5/ Gure biotzak jeiki, euskoak,  
jeiki, aberri laztana,  
jeiki, Bilbao zoragarria,  
zutiñik euskaldun dana.  
Gure abenda da indarrez iñork  
azpiratu ez duana,  
ta gu zein geran erakusteko  
orain da garai onena,  
gure menditan nabaituko da  
paxismuaren azkena.

*Gudari, 1937-VI-1.*

## EGUNA BERTSOTAN

### I

#### *Otto Españi'ko errege?*

Mussolini eztabil  
illun eta tonto,  
Españi'ko erregetzat  
jarri nai du Otto;  
Alpontxo zarra alde bat  
baztertu ta kito...  
Oraindik ere baziok  
amaika astapito,  
amets bapoa egin dezu,  
lagun zar Benito!

#### *Kataluña lagun?*

Badirudi errakitu  
ote diran gutzaz,  
asko egin gentzake  
guk aien laguntzaz;  
lengo jokerarekin  
geldi bitez lotsaz,  
mudantzak ikusteko  
emen gaude pozaz,  
eztena zorroztuta  
ekin, lagun Pozas.

#### *Onena galdu*

1/ Mola'ren eriotzak  
ze esanak baditu,  
galera ori ez tute  
txit gutxi sentitu.  
Onena galduta orain  
txaputxak gelditu,  
orrela ezin litekek  
gerrarik amaitu,  
atarramentu ederra  
demontrek ezpaitu!

2/ Astelenez genitun  
soñu gogor piñak,  
gerra asi ezkerro izan  
diranik aundiñak.  
Trumoia zala zioten  
or buru ariñak,  
laño denboran dizkitek  
jokera bikañak,  
errespetua baditek  
eusko egazkiñak!

*Eguna, 1937-VI-9.*

## EGUNA BERTSOTAN

### II

*Eguzkiak jai?*

Denborak euritarako  
ere artua du,  
orrekin kalte ainbat  
mesede badegu;  
eguzki erregerik  
etzaigu azaldu,  
gure artean paltik  
gaur egiten al du?  
Ai, pixkatxo batean  
jai artuko balu!

*Euskaldunak Ciscar'en*

Gure itxas-gizonak gaur  
ontzi orren maiztar,  
ezin utzi baileike  
edozeñen bizkar;  
biotzean sendotasun,  
aotan irripar,  
arrantz onak egiteko  
dago gure «Ciscar»,  
señaletxon bat ikusi  
bear degu azkar.

*Tximistargi edo tranbiak duan*

Tranbe batean sartuta  
daukazun bizitza,  
azkar egingo dizute  
txartelan eskeintza;  
laurleko txuria da  
guk degun dirutza,  
«no tengo cambios» dezu  
lenbiziko itza,  
txanponik ez dagolako  
debalde gabiltza.

*Paxistak ikaraz*

Lengo gabez etzan giro  
Lemoaitz gañean,  
pusil eta bonba zarrak  
gogotsu lanean;  
galtzetan estu ziran  
unetxo batean,  
afaitan jandakoak  
iya erdi botean,  
aizeakin bildurtuta  
gu giñan ustean.

*Eguna, 1937-VI-10.*

*Eguzkiak*

Eguzkiak jai zuala  
 esaten atzo gu,  
 amaika putzutan anka  
 sartu bear degu;  
 aurten beintzat lanerako  
 gogotsu daukagu,  
 egun biko atsedena  
 nolaz artu digu?  
 Guk nai baño lenagotik  
 etxeratu zaigu.

*Gudari asko datoz*

Indarrez artu dituzte  
 askotxok pusillak,  
 ortaraxe bearturik  
 paxisten makillak;  
 andik igesi badatoz  
 sekulako pillak,  
 osatu aldra aundi  
 edo kuadrillak,  
 au dek zuen tokia ta  
 etorri, mutillak!

*Naiko kañoi ta egazkin?*

Prieto'k ala esan du  
 lengo egun baten,  
 laister naiko guda tresna  
 badegula emen.  
 Ez utzi nolanaitan  
 egunari juaten,  
 zeuek ongi dakizute  
 zer premitan gauden,  
 denontzat obe da ta  
 bialdu lenbailen.

*Gudaritzarako deia*

Gobernuak egiña du  
 deitxo bat aparta,  
 nunbait lanerako ere  
 jende asko palta;  
 izututa ez atera  
 milla zalaparta,  
 berdiñik ezautu ez dun  
 burrukan gaude ta,  
 denok zerbait egitea  
 derriorra da ta.

*Eguna, 1937-VI-11.*

*Madrid apurtzen*

Paxistak artu dute  
 sekulako griña,  
 Madrid apurtutzeko  
 oien alegiña;  
 bi milla kañonazo  
 sartu alajaña,  
 jendea il, erria austu,  
 ai zer lan bikaña!  
 Dena txikitutakoan  
 «*Arriba España!*».

*Dávila*

Mola'ren tokirako  
 or dute Dávila,  
 reketek diotenez  
 ezta ain abilla.  
 Ene, Mola ez omen da  
 deskuidoan illa,  
 asko omen dabilta or  
 giza-larru billa,  
 gizarajoa kontuz  
 ibilli dedilla!

*Lizunkeria nunai*

Donosti'n da Gasteiz'en  
gaur zer gertatzen dan,  
bear dan bezela iñork  
ezin lezake esan,  
aragikeri lizuna  
zinetan da plazan,  
Afrika'ko basatiak  
darabilten gisan,  
katoliko zuzen oiek  
orra zer dabiltzan!

*Ondo gabiltz*

Garagardua badabil  
gaur tankera onez,  
gu ere sarri gabiltz  
al dana edanez.  
Arroz eta garbantzu  
geienean gañez,  
paxistak jardun arren  
gauz oiek esanez,  
umore au ezin eduki  
arratoiak janez.

*Eguna, 1937-VI-12.*

## ELEZKANO I. JAUNARI AZKEN OPARITZAT BIOTZKI OPALDUA

Gure azkena laister izatea gerta diteken arren, bertsoen eta eusko gogoaren amairik ezta iñoiz izango.

Agur baso mendiok, agur, bai, biotzki,  
agur basetxe alai, agur nire kabi.  
Agur uri apañak, agur Kantauri.  
Noiz arte? Eztakit! Baña... agur Euskadi!

Begira erri zaar oni, Jaungoiko laztana;  
erruki apur bat izan euskaldunongana!  
iltzea baldin bada dagokigun dana,  
zeure altzoan bedi gure atsedena.

Zeñ une latzetan zauden, o... aberri maite!  
Etsaiak zure azkena ikusi nai dute.  
Lur gañeko gizaki danak au entzun bezate:  
eusko gogoa ezta ilko ludia ludi dan arte!

Zalla erriko Otxaran auzoan, 1937'garren garagarriak 21.

*Eizmendi'tar Iñaki, «Basarri».*

*(Basarrik Elezkano Jaunari bialdutako orriaren fotokopia batetik artuak. Elezkano jaun onek beste itz auek eransi zizkion orriari:*

*«Estupendos versos que me dedicó en un momento de exaltación patriótica vasca, en Zalla, Otxando, Vizcaya, el gran versolari guipuzcoano «Basarri», en los momentos trágicos de cuando las tropas de Franco habían tomado ya Bilbao. Se publicaron también en la revista vasca «Eusko Deya», en París, en el año 37»).*

## GERNIKA'KO TXIKIKETA

1937'garren urtea zan. Frantzia'n, Landes'etako piñuardean irabazten genduan eguneroko ogia. Gau ta egun, Gernika'ko txikiketa gendukan burutik kendu eziñik. Neurrigabeko ezbear artaz kezkatu rik, amalau bertso jarri genituan. Paris'en argitaratzen zan euskal aldizkari batean argitaratu ziran.

Geroztik pranko aldiz ikusi ditugu gu-re bertsoak paperetan. Baiña ez guk jarri ta bezela, akats nabarmen samarrekin baizik. Egille batentzat mingarri izaten da au. Onak badira ta txarrak badira, norberak eginda bezela ager ditezela beintzat, eta ez antzalduta ta itxuragabetuta.

Era ontan ziran 1937'garren urtean guk moldatu genituan aleak. Amalau guztira. Ondoren dijoazkitzutenak.

1/ Milla ta bederatzireun da  
ogeï ta amazapia,  
euskotarrentzat urte beltz, illun,  
triste ta negargarria.  
Auts biurturik utzi zutena  
Gernika zoragarria,  
euskal reliki maitatuena  
gordetzen zituen erria.

2/ Pitxirik goxo ta kuttunena  
zu ziñan euskaldunentzat,  
lur mardul, ona eman baizendun  
arbola santuarentzat.  
Pentsatu utsez begiak ibai  
ditugu negarrarentzat,  
orra zer sari modu zeukaten  
etsai ankerrak zuretzat.

3/ Apirilleko illarekin zan,  
ogeï ta seigarrenean,  
ain juxtu ere peri eguna,  
astelen arratsaldean;  
kale-baserri, millaka anai,  
gizatasun ederrean,  
plaza inguruan aurkitzen ziran  
lengo oitura zarrean.

4/ Kanpantorreko ezkillak asi  
ziran dinbili-danbala,  
goiko piztien motor burrun  
dentzuna zan bereala;  
emakume ta ume gaixoak  
kurrixka zeriotela,  
eriotzari igesi nairik  
nora jo etzekitela.

5/ Bertsoz nork esan bonba txar aien  
indar gaiztozko danbarra?  
Eztuten beintzat osorik utzi  
bizileku bat bakarra.  
Ta dana xetu zuten garaian  
alde guztitik su-garra,  
errugabeko gixaxoentzat  
orra or azken ederra!

6/ Bizi ziranak igesten zuten  
sutegi zakar artatik,  
baiña egazkiñak tiro ta tiro  
etengabe goietatik;  
kristau gorputzak alde batetik,  
beso-buruak bestetik,  
odol gorritzko itxaso artan  
etzan ikusten besterik.



- 7/ Eunka izan ziran etxe jausien zakarpetan geldituak, nork daki zenbat kale gorrian zearo erdibituak?  
Inpernu ontan uzten gaituzte laguntza gabe galduak, o, euskaldunen min, oiñazerik, ez du sentitzen munduak.
- 8/ Millatik gora igaro ziran arnasa utzitakoak, ez jakin zenbat bizi guztiko eri gelditutakoak.  
Oietatikan geientsuenak andrezko ta umetxoak, guda txar ortan erru galantik izango zuten gaixoak!
- 9/ Puska dituzte gure erri polit, apain eta maitekorrak, puska dituzte baserri txuri, gure kabi on, xamurrak.  
Ta zirtzildurik kaletan utzi, o, euskaldunen ezurrak, Alemani'tik gu txikitzera etorritako maltzurak.
- 10/ Basati gaizto, odolzaleak atzerritatik ekarten, tokirik zoragarrienari txikitu ta su ematen; auts egindako gure Gernika antsika dago esaten, Franco ta bere laguntzailleak zein biotz ona daukaten.
- 11/ España aundi bat egin asmotan gerra txar ortan asiak; euskal erririk ederren aiek zeuen aginduz autsiak; denborak joanda gero damutzen zeraten pekatariak, zer griñetako jaunak zeraten badaki mundu guztiak.
- 12/ Ikusi zuten neurrigabeko pekatua zeukatela, ikusi zuten ainbat kristau on odolustu zituztela; ikusi zuten mundua kontra jeikiko zitzaietela, eta orduan zabaldu zuten gorriak erre zutela.
- 13/ Bere lekuan erne ta zintzo ortxe dago euskalduna, berak baitaki zein ederra dan barrengo garbitasuna.  
Itxaron, jaunak, itxaron lasai, iritxiko da eguna, Goiko Jaunaren aurrean kontu eman bearako deguna.
- 14/ Ez da, ez, alperrikako izan or ixuri dan odola, pentsa oraindik emaitz ederrak ematekotan dagola.  
Euskal gogoa armez ta indarrez ezin il leike iñola, Gernika erre ziguten baiña zutiñik dago arbola.

*Goiz-Argi, 1977-V-28.*

## O ZARAUTZ NEREA!

- 1/ Faraon andiaren gisa, bart arratsean,  
poz ikarak jarduna nazute ametsetan.  
Joseri zertan deitu, ametsa azaldu dezan?  
Gogoan dut, astia dut, neuk bear dut esan!
- 2/ Illatargi ederra zan. Ura zan giroa!  
Izarrak kiñuz zioten: «Ator, mutikoa!».  
Zeru urdiñetik deika nituela ikusirik,  
an noia Bidaso ibaia txit atzean utzirik.
- 3/ Irun, Donosti, Usurbil, Orio ere bai,  
danak igaro ta... alare aurreragoxe nai.  
Goizaldea inguratu zen. Lo zeuden erriak.  
Ixil-mixilka nai nere joan etorriak!
- 4/ Urreratu naiz. Ona nun dudan Talaimendi.  
Ene! Azkenengo ikus nuela iru urte aundi!  
Eldu bezain laster muin eman diot lurrari.  
Urte askoz adilla Zarautz'en babeslari!
- 5/ Itxaso kaskarra zan. Olatuzko ekaitza,  
Etzan ordea izutzen Mollarriko arkaitza.  
Arri latz oien parrats artetan dantzatuaz,  
zenbat aldiz nintzen bertso zarrak abestuaz!
- 6/ Argiak piztuak zeuden. Kale guziak uts.  
Mairidire zuritan bilduta lo zegon Zarautz.  
Mendixkoa utzi dut, eta banoia bera.  
Egunsentiaz egin nai dut etxeko sarrera.
- 7/ Goiz zalarik, lo ote ziraneko bildur nintzan.  
*Kaxk! Kaxk!* atea ta... irikitzen ama bera zan!  
Itzegin nai zuen. Ezin! Malkoak begitan.  
Besarkatu gera bein, bitan, bost eta seitan.

- 8/ Bereala nun dijoan gora didar biziz,  
berri ona etxe barnean adieraziz:  
«Tira, utzi oiok! Jeiki azkar! Denok jeiki!  
Ez dakizute geure artean dala Iñaki?
- 9/ Eldu, txiki ta aundi, bera besarka laztantzera!  
Eldu bizkor ongi etorria egitera!».  
Aita zarragandik asi ta beste guziak,  
an zetozkidan pozez malkoz bustiak.
- 10/ Geiegiz ezin zabal ziteken nere pozik;  
artean iru aulki ikusten nizkitzun utsik.  
Irutatik bi osatu? Ezta ez leikena.  
Ai! Baña betiko utsik degu irugarrena!
- 11/ Aitak zaartu aundia artu digu iru urtetan.  
Zimurrak zabal zaizkio arpegi kopetan.  
Neure kolkorako nion: «Ai! Urteak urte!...  
Tolareak sagarra gisa zapaltzen dute!».
- 12/ Mai jarduna alaitasun biziz buka genduan.  
Batetan, errira agertzea oldoztu nuan.  
Kaletxotan zearka antxe nenbillen urduri.  
Gazte bat iñondik iñora etzan agiri.
- 13/ Aiton buru sollak an zebiltzan egurasten.  
Billobatxorik ez dute aspaldiz ikusten.  
Bati galde diot: «Jauna, nun dira gazteak?».  
«Nun diran? A!... Gudan batzuk, lurpean besteak!».
- 14/ Pralletan eta eliz nagusian sar nintzan.  
Jaunari eskerrik beroenak eman nizkan.  
Asi naiz Allepunta'runtz urratsak zuzentzen.  
Santa Barbara gañari begira ez aspertzen.
- 15/ Zarautz kabi apaña zegon, beti bezela.  
Oker bat: txori onenak urrunen zirala.  
Lertzera zijoazen olatuak zesaten:  
«Noiz zatozte berriro? Noiz arte jun ziñaten?».
- 16/ Batera ta bestera argiki nenbillelarik,  
lagun zar bat urbiltzen zait uste ez nuelarik:  
«Motell! Arrixkuan aiz! Iru-lau odoltzale  
ire billa or zebiltzek sutan kalez-kale.

- 17/ Bizkor, baña bizkor! Arren ezkutatu adi!  
Ondartza bazterretik barna jo Talaimendi!».  
Besarkatuz eskerrak lagunari emanik,  
laisterkadarik bizieta an asi nuen nik.
- 18/ Mendilauta ertzean bertan nitun etsaiak.  
Ikusi niñuten batera, aien antsiak!  
Txanpa bizieta joaz baninjoan aurrean.  
Basatiak an bertan, ni irunsi bearrean.
- 19/ Izerdiz blai bero-beroen nintzan garaian,  
estu ta larri, *plast!*, nun esnatzen naizen oian!  
«Ari batetik zintzilik diat ba bizieta!  
Bai zera! Ez duk deus! Ametsa uken guzieta!».

*Enda aldizkaritik.*

## LANDES'KO PIÑU ARTEAN

Ichoux errian, ogei euskaldunen eskariz moldatuak, Prantze'ko Landes'etan.

1/ Euskaldun jaio giñan mundura ta beti euskaldun bizi, onak izanda alare begiz askorek ezin ikusi; pekaturikan baldin badegu lana egitea noski, Españaiko odoltzaleak nai giñuezan irentsi, eta Frantzira etorri bear izan genduan igesi.

2/ Euskalerrria maite genduan, beste erririk ez ainbeste, txoriak ere gogozkoena euren kabia oi dute; txita bati gaitz egingo ez ta, ondo ikusi dezute, berdin gabeko gerra txar ontan sartu arazi gaituzte, Jaunari kontu ematerako damutu bear zaiote.

3/ Ala bearrez sartu giñan bein Landes'ko piñu artera, eguneroko ogi zuria irabaziaz jatera. Ogei euskaldun bagera baño au da guzion galdera: «Nere famili edo sendia gaur zer modutan ote da?». Gorputzez emen arkitu arren gu beti an bizi gera.

4/ Iru urte aundi igaro dira utzi giñula txokoak, geu jaio giñan etxe atsegin, mendi, zelai ta basoak. Zer diote gaur bakarti dauden gure emazte ta aurtxoak? Ta senargaian zai-zai negarrez dagon aingeru gaxoak? Berriz noiz artu bear ditugu amaren laztan goxoak?

5/ Ene Jaungoiko errukitsua, izazu gutzaz kupira, laister joateko maitasun danak utzi giñuzen tokira. Iparragirre'n itz eder aiek gaur ongi etortzen dira, egia da, bai, alde guzitan txit leku onak badira, baño biotzak indartsu dio: «Zoazte Euskalerrria!».

6/ Aspaldi ontan gogoz ari naiz erregutuaz eskatzen, lagundutzeko gerra bukatu ta geure etxetan alkartzen; euskal erriak orain da beti euskaldun izan ditezen, legetan zintzo, fedean sendo, oituraz garbi ta zuzen... Anaitasunez lana egiñaz paketsu bizi gaitezen!

*Euzkadi*, Paris, 1938-II-3.  
*Basarriren bertso sorta*, 1950, 3, 4, 5 eta 6 bertsoak.  
*Aranzazu*, 1952, 3, 4, 5 eta 6 bertsoak.

## PRANTZI'KO ALKATE BATI

- 1/ Bertso txiki batzuek  
 nua ni jartzera  
 Gai eder au nolatan  
 utzi galtzera?  
 «San Pierra» etorri  
 giñan bizitzera,  
 atzerriko egunak  
 pakez pasatzera;  
 ta gaizki atera,  
 geretzat kaltera,  
 gure bizikera  
 beti okerrera...  
 Amaika supritzeko  
 sortuak gera!
- 2/ Bixar-luxe bat degu  
 erriko alkate,  
 orrek egiten digu  
 amaika kalte!  
 Demoniño danekiñ  
 nola duen parte,  
 adar gorri artean  
 ortxe daramate.  
 Juntu dabil tente,  
 badu ainbat urte,  
 gorrotoa merke,  
 birtutea aparte...  
 Larri da gu erritik  
 bialdu arte!
- 3/ Guretzat beltz, illuna,  
 du begiartea,  
 otso zar bat dirudi  
 illez betea!  
 Orrentzako zer poza  
 guziok jatea!  
 Guk ere eskuetan  
 badegu sardea.  
 Badula fedea,  
 zer dotrin klasea:  
 auzoa galtzea  
 gorrotu saltzea...  
 Ezta errez zeruan  
 ori sartzea!
- 4/ Len etzuen eman nai  
 guretzat baimenik,  
 «San Pier» alderako  
 etzan ordenik.  
 Ez pentsatzeko emen  
 biziko giñanik,  
 etzuen ikusi nai  
 begiz euskaldunik.  
 Gu gora juanik,  
 kanpaiak jo andik...  
 Eziñ egin lanik  
 berak nai zuanik...  
 Geroztikan eztauka  
 egun bat onik!

5/ Orain zoritxarrean  
gerra egokitu,  
bengantza danak kolpez  
egin nai ditu.  
Garai oraiñ ote dan  
orreri iruditu.  
Jenderik ezin dala  
errian kabitu;  
gezurrak aunditu,  
benenoz guritu,  
ezin du supritu  
ori nork gelditu?  
Trapu zarrak bezela  
bota nai gaitu.

6/ Geure sakelen bidez  
bizitzen gera gu,  
Erri onetan beintzat  
zorrik eztegu.  
Geure txanpon aleak  
utzitzen ditugu,  
alare jaun on orrek  
au egiten digu.  
Gipuzkoan barru,  
joan nai baldin badu,  
uda edo negu,  
ori bere kargu,  
zer gonbita eskeñi  
jakingo degu!!

*Basarri'ren bertso sorta, Zarautz, 1950.*

## EUSKAL MIXIOAK ICHOUX'EN

- 1/ Geure lur onak utzi genitun  
guztiz era mingarrian,  
geroztik, ene!, oroitu utsez  
negarra degu begian;  
baña euskaldunak fededun gera  
iritxitako tokian,  
Landes'etako probintzian ta  
Ichoux deritzan errian  
mixio batzuk izan ditugu  
cuskoen mintzo garbian.
- 2/ Gure artera itzegitera  
etorri ziran bi jaunak,  
bai egitazko apaizak eta  
benetako euskaldunak;  
gizon arteko gorrotu, gerra,  
baztertu nai lutekenak,  
mundutar denok alkar maitatuz  
ikusai nai gaituztenak,  
animen ona beste ametsik  
erabiltzen ez dutenak.
- 3/ Urtebete da apaiz-jantzia  
zeuregan darabilzula,<sup>1</sup>  
lenengo aldia eleiz-barnean  
itza zuzentzen dezula;  
garai batez nork esan entzule  
geu izango ginduzula,  
ta piñu landa eten eziñak  
testigu bear ziñula?  
Lenen-lenengoz alderdi ontan  
mintzatu bear zendula?
- 4/ Ezpañetatik par-par jaurtiaz  
euskera gozo garbia,  
sendo ta ziatz azaldu zendun  
Jesukriston nekaldia;  
pekatariok gaizkatzearren  
nola eman zuen bizia,  
mundu zarpall au amaitu ondoren  
bestean degun auzia,  
bera irabazten egin dezagun  
al dezagukuen guzia.
- 5/ Jakinduritan gañeztutako  
izlari gartsu, trebea,<sup>2</sup>  
epel daudenak sutan jartzeko  
nun arki leike obea?  
O, zein eskertsu gelditua dan  
emen euskaldun jendea!  
Zer zoramena etzan izango  
bere itza entzutea:  
minututxo bat bezin azkarki  
juaten zan ordu bete!
- 6/ Eztala orain gizonik eta  
ez nazio alkarterik,  
gaurko itxaso zakar arroa  
txit baretu lezakenik,  
fede galduok nola gabiltzan  
denok gorrotuz beterik.  
Ai...! Baldin aintzat artzen ezpada  
Jaungoikoaren legerik,  
mundu txar ontan ez dala iñoiz  
ezagutuko pakerik.



7/ Pazko-eguna eldu zitzaigun  
eder eta zoragarri,  
ta goizean-goiz Jauna arturik  
ekin genion kantari;  
euskal abesti xamur, eztiak,  
mundu danan entzungarri;  
erbeste ontan ikusi degu  
guziok argi ta garbi,  
o, euskaldunak diran tokian  
an dagola Euskalerrri.

8/ Ichoux onetan zer ikasbide  
goralgarri eman degun,  
prantzetar oro geu zorientzen  
nolaz ibili zaizkigun;  
Jaunak nai arte bizi bear guk  
baña geuk eztakigu nun,  
naiz aberrian, naiz erbestean,  
urre, urruti... edonun...  
arnasa geugan degun artean  
izan gaitezen euskaldun!

*Euzkadi*, Paris, 9-VII.1938.  
*Sortu zaizkidanak*, *Auspoa* 112, 1973.

- 
1. Arostegi jauna.
  2. Ariztimuño jauna.

## ICHOUX'KO MADAME SART'ERI BIOTZEZ

1/ Landes'en igaroak  
gera urtebete,  
Ichoux errian artu  
genduan aterpe;  
an ezagutu degu  
makiña bat jente,  
on egiten dutenak  
nolatan ez maite?  
Eztitugu aztuko  
bizi geran arte!

2/ Antziñan erregeak  
izarra gidari,  
Belen arkitutzeko  
bear zuten ori;  
nik «izar» deitzen diot  
Madame Sart'eri,  
piñutegi beltzetan  
egin digu argi,  
urte askoz dizdiraz  
zoriotsu bedi.

3/ Ain andere leiala,  
ain andere ona,  
duanaz laguntzeko  
beti prest dagona;  
biotzez txit zabala,  
mintzotan leguna,  
esan ezkeru nola  
zeran euskalduna,  
laister lortuko dezu  
zeuk bear dezuna.

4/ Sarri libratu gaitu  
estutasunetik,  
bera jarriz gugatik  
arrixkuz beterik;  
ez diot ezuala  
izango parerik,  
baña esan nezake  
ikara gaberik,  
eguzki azpi ontan  
eztala oberik!

5/ Amaitzen diranean  
gerrazko auziak,  
argitzen gaitularik  
pake-iguzkiak,  
zugana zuzenduko  
ditugu begiak,  
bildur gabe igaro  
muga ta esiak,  
zabal izango dira  
an ate guztiak!

*Euzkadi*, Paris, 1938-VIII-27  
*Sortu zaizkidanak*, *Auspoa* 112, 1973.

## ONDARRUTAR GAZTEERI

Mugaz beste aldera iges igaro eta Itxasu'n bizi ziran ondarrutar gazteeri eskeñiak:

1/ Jendea asia da  
otzarekin kor-kor,  
aizeak eta euriak  
jotzen gaitu gogor;  
estaltzean premia  
badegu derrior,  
osasanari eutsi  
nai dionak jator,  
kontuak orain atera:  
negua badator!

2/ Zugaitzetatik ere  
ostro danak jausi,  
arto ta babarrunak  
ganbaran sar-azi;  
toki obero joanak  
enarak igasi,  
ta etxetik kanpora  
gu bakarrik utzi,  
arranea, ez gendun  
orixe merezi!

*Euzkadi*, Paris, 1938-XI-15.

## GAZTE DENBORAN NESKA BATI

- 1/ Zorionean egin nuen nik  
Sara errira bixita,  
ta txoraturik gelditu nintzan  
damatxo bat ikusita.  
Zu goraltzeko ez daukat itzik,  
o biotzeko Klarita,  
ain zera biotz-ikuitzallea,  
ene, ain zera polita!
- 2/ Gorputz liraña, begi argia,  
irriparra ezpañetan,  
urretindorra kantari beziñ  
alaia zera izketan.  
Orren urruti bizi bearrak  
ez nauka nere onetan,  
zugan pentsatzen nago ni beti  
egunez eta gabetan.
- 3/ Emakumeak lore bezela  
artu ditzagun aurrena,  
ta goazen danok beroiek dauden  
baratzatxoan barrena.  
Danak usaintsu, guri ta mardul,  
au begien zoramena,  
bañan neretzat zu dan-danetan  
krabeliñik ederrena.
- 4/ Nere begiak arpegi ori  
sarri nai dute aurrean,  
soñez urruti banago ere  
gogoz or nazu urrean.  
Mundu onetan bearko degu  
nork daki zenbat urtean...  
Nik zu gogoan izango zaitut  
arnasa dedan artean.

*Laugarren txinpartak, Auspoa 55, 1966.*

## ZORIONAK, ERESOINKA!

- 1/ Bertso txiki batzuek  
*Eresoinka*'ntzako,  
 euskera errexean  
 nunai kantatzeko;  
 gertu gaude gu beti  
 plumaz ekiteko,  
 merezi duanari  
 sona emateko.
- 2/ Paris eta Londresen  
 lanean aritu,  
 Belgika ta Holandan  
 jendea arritu;  
 talde oberik ezin  
 liteke arkitu,  
 Europa guziak gaur  
 ezagutzen ditu.
- 3/ Izen ona zabaldu  
 dutela European,  
 ainbatek idatzi du  
 talde orren onran;  
 zai-zai jarrita geunden  
 ainbeste denboran,  
 azkenik or ikusi  
 ditugu Baionan.
- 4/ Oien kantu-eskola  
 ta oien abotsak  
 zoratu bear zuten  
 euskaldun biotzak;  
 sillan egon ezin da  
 tente jarri pozak,  
 trumoi zarra zirudin  
 ango txalo-otsak.
- 5/ Kantuz abildadea  
 bada *Eresoinka*'n,  
 iñoiz ez degu entzun  
 olako gauzikan;  
 rusoak onak dira,  
 ez dago dudikan,  
 baña auek ez dute  
 iñoren lotsikan.
- 6/ Eta dantzari aiek  
 zer egin zituzten,  
 ikusi gabe oso  
 zalla da sinisten;  
 ez dakit nik gorputza  
 gomazkoa duten,  
 sarritan etzitzaien  
 ankarik ikusten.
- 7/ Naiz napar dantzak eta  
 naiz zuberotarrak,  
 naiz gipuzkoarrenak,  
 berdin bizkaitarrak;  
 izan arren zail gaitzak,  
 neketan okerrak,  
 aterako dizkate  
 biurri ederrak.
- 8/ Arrigarriak dira  
 gure mutil motzak,  
 iztarrak bigun eta  
 begiak zorrotzak;  
 ango salta bearra,  
 ango egur-otsak!  
 Tximista iduri zun  
 beren uztai-dantzak.

9/ Zorionak biotzez,  
Luisa Olaizola,  
munduaren aurrean  
jarrai zuek ola;  
denbora gutxi barru  
nunai esango da  
euskalduna lakorik  
iñon ez dagola.

*Euskadi, Paris, 1938-V-12.*

## ITZALDI BAT

Fernández Cuesta Franco'ren gobernuko lurgintzako ministroak egundoko itzaldi bat ogutzi du Valladolid'en. «Mussolini'k esan du –zion izlariak– mende edo *siglo* au paxismoaren mendea dala. Paxismoa erriak diran erara artu diteke; ta, gure erria guziz katolikoa dalarik, Españi'ko paxismoa katoliko uts-utsa da».

- 1/ Bazterrak erre, kixkali,  
txikitu ta autsi,  
emakume ta aurrik  
bizirik ez utzi;  
erlijioan alde  
moro zar ta guzi,  
katolikotasunean  
munduko nagusi,  
olako dotriñik guk  
ez gendun ikasi.
  
- 2/ Gure apaiz on, zintzoak,  
gorrotu betean,  
or sartu dituzute  
betiko lurpean;  
ta eunka dauzkazute  
zeuen katepean,  
katoliko izen ori  
bego apartean,  
olakorik eztegu nai  
euskaldun artean!

*Euzkadi*, Paris, 1938.

## AU DUK KOMERIA!

- 1/ Diruaren pixutik  
ez degu geiegi,  
patrikak miatuta  
ezpaita ageri;  
aspaldian idazten  
diot naiko sarri  
Amerika alde ortan  
dedan osabari,  
baña ez dio kasorik  
eiten illobari.
- 2/ Guda sortu ziguten  
egun txar batean,  
ederki bizi bear  
gendunak pakean;  
naiz pozaldietan da  
naiz atsekabea,  
zintzo jarraiko degu  
*Jel* ikurrinpean,  
azkenengo ordua  
datorren artean.

*Euzkadi*, Paris, 1938-XI-15.



## OLAKORIK!...

1/ Atzo irakurri dut  
*La Voz de España*,  
 baita billatu ere  
 albiste bikaña:  
 Donostin nola dagon  
 jendetza apaña,  
 askorek ez dezute  
 sinistuko, baña  
 moruak poz askorik  
 dabiltz, alajaña.

2/ Ango gobernadore  
 jaun Rivas y Jordán,  
 nik ez dut ezagutzen  
 ta eztakit nor dan;  
 baña berak esan du  
 lasai ta patxaran  
 nola saiatu diran  
 moruak *Cruzada*'n,  
 zein jende santua ta  
 zein jende ona dan.

3/ Hach Abselam Inlud bat,  
 Mohamed el Jatabi,  
 pentsatzen jarrita ere  
 ai zer nolako bi!  
 Asko zor diotela  
 España'k oieri,  
 ta txapelak erazten  
 dizkate eurari,  
 ortaraño eldu da  
 jende zintzo ori.

4/ España or ibilli da  
 beti armaturik,  
 aberritik moruak  
 ezin uxaturik;  
 zenbat odol ote da  
 lan ortan galdurik!  
 Orain or dabiltz eurak  
 santutzat arturik...  
 Erljioak eztu  
 galtzeko bildurrik.

*Euzkadi*, Paris, 1938-XI-15.

## EUSKALDUN AMA!

(Bordieu ta Harispe'tar Emilen'eri, adiskidetasun leialaren agerkaitzat.)

- 1/ Ezpañetan par-irria,  
biotz zabal aipagarria,  
laguntzeko prest jarria.  
Zu izan zera etxe barneko  
argi izar dizdilaria,  
maitasun danen kabia,  
doai on utsez jantzia,  
euskaldun ama garbia!
- 2/ Egun batetik bestera,  
ama, orixe aldakera!  
Noraño zoaz gainbera?  
Gaur irri ordeztu negarra dezu  
beltzez jantzirik gañera;  
lengo erdia etzera,  
ama, txit bildurtu gera...  
Azken unetan al zera?
- 3/ Su ondoan ordu pranko  
dezu negar egiteko,  
semeak gogoratzeko.  
Joan zaizkitzu, bai, egia da,  
geiago ez etortzeko,  
Euskadin alde iltzeko,  
baña zeruan pizteko...  
Goian dituzu betiko!

*Euzkadi*, Paris, 1938-XII-15.

## AMERIKAKO ANAIK, ENTZUN

- 1/ Geu jaiotako lur eder aiek  
maite genitun ainbeste,  
arrazoi aundiz genbiltzan noski  
geurea zanaren eske.  
Indarra da gaur nunai nagusi,  
egia zapaldu dute,  
auzo zarpaillak jaun da jabe ta  
guri zer egin digute?  
Bertako seme jator zintzoak  
kanpora bota gaituzte.
- 2/ Ain paketan ta leialki geunden  
gu geure Euskal Errian,  
gerrarik etzan inoiz aitatzen  
gure lur zoragarrian.  
Baiña otsoak arkume billa  
nola zetozten abian,  
geure buruak aldeztarren  
agertu giñan mendian.  
garbiago inor ezta jokatu  
eguzkiaren azpian.
- 3/ Biotza zabal, eskuak garbi,  
ori genduan ikurtzat,  
odolez zikintzea ez baita  
egiña euskotarrantzat.  
Arpegi ona, tratu gozoa  
gendukan etsai danentzat,  
gorrotoa ta eriotz beltza  
ikusten degu ordaintzat,  
baiña zuzentza noiz izango da  
erri zar zintzo onentzat?
- 4/ Ai, Zesarrena eman Zesarri,  
ta Jaunarena Jaunari,  
ta euskotarrena zergatik ez  
itzuli euskotarrari?  
Ez gera inora batere nastu  
ez ezker ta ez eskubi,  
geureagatik irten gera ta  
utzi pakean besteri,  
len eta orain beti didar bat:  
Euskadi eta Euskadi!
- 5/ Neron'ek ere kristau ziranak  
an galtzen zitun sallean,  
leoi traketsen janaritzako  
boteaz zelai batean.  
Baiña kristauak ugaldtu egiten  
orixe ikusi ostean,  
Euskadi ere edukiarren  
derrior ezpatapean,  
eusko gogoia ez da galduko  
euskotar bat dan artean.
- 6/ Goian zerua ta beian lurra,  
erdian gaude jarririk;  
alde orotan illuntasuna,  
ez degu ikusten argirik.  
Geure altzoan ez degu aurrik,  
ez lur eta ez etxerik,  
arantz biurrik josirik gaude,  
begiak malkoz bustirik,  
anai maiteak, ez degu emen  
itxaropena besterik.

(St. Pierre d'Irube)  
Euskadi, Paris, 1938-X-16.

## MUSSOLINI TA HITLER

*Mussolini:*

Itali aunditzea  
nai nuke nik laister,  
agertu dedin guztiz  
indartsu ta eder;  
gauzak pentsa ditzagun  
beñ eta bi bider,  
kukuak jo ez dezan  
uste gabe oker,  
konpondu bear degu,  
adiskide Hitler.

*Hitler:*

Iñola ezin dezu  
ezer zeuregandu,  
ai!, txakur zaunkariak  
gutxitan eltzen du.  
Nik egiten dedana  
egingo bazendu:  
ixilik egon baña  
al danari eldu...  
Nere kukuak beti  
alai abesten du.

*Mussolini:*

Tunez eta Corcega,  
al bada geiago,  
tokatzen zaizkidala  
uste ortan nago.  
Zure laguntza nai dut  
lan orretarako,  
bakarrik ez dut jo nai  
nolanai «ordago»,  
Daladier zar ori  
arrotuta dago.

*Hitler:*

Austria bildu nuen  
lengo egun batean,  
gero Sudetak berriz  
neuk nai nuenean.  
Orain txeko guziak  
neronen mendean,  
zuri ezin lagundu  
au dan bitartean,  
lanik asko badaukat  
Poloni aldean.

*Mussolini:*

Chamberlain ori ere  
bai bapo mugitu,  
atxoan gonapean  
eztu nai gelditu.  
Azkenengo itzaldiak  
izutu al zaitu?  
Europako urreak  
berekirin or ditu,  
demokrazi ardatzak  
zapalduko gaitu!

*Hitler:*

Bakizu Memel ere  
artu dedala nik,  
ta laister kontu eman  
bear dit Polonik.  
Ez pentsa zuen gixa  
olloak geranik;  
naiz burua makurtu  
lagun Mussolinik,  
eztu menderatuko  
iñork alemanik.

*Mussolini:*

Inglaterra degu bat,  
bigarren Prantzia,  
Poloni ta Rumani,  
Turki ta Rusia.  
Roosevelt an daukagu  
etsai nagusia,  
ia damutzen zaigun  
nolabait asia...  
Geure aurka baitegu  
deabru guzia.

*Hitler:*

Neri deitu didazu  
ola mintzatzeko,  
negar ustel eginda  
malkoak kentzeko.  
Ai zer gizonak zuek  
laguntzat artzeko!  
Ta diña ziñateke  
adarra jotzeko,  
lengo gerran bezela  
guziok saltzeko!

*Mussolini:*

Hitler, etzaite mintza  
panparroi moduan,  
zuen bildur ez gera  
gabiltzan lekuan.  
Danen gañetik gaude,  
artu au kontuan:  
erakutsiko degu  
bear dan orduan,  
Itali añakorik  
eztala munduan.

*Hitler:*

Ez gaitzela beintzat  
ur gutxitan ito,  
emandako itzetan  
jarrai zagun zintzo,  
ta gure ardatzari  
nork esan gaur iso?  
Gaizki esanak barka,  
gañontzean kito;  
ekatzu esku ori,  
lagun zar Benito!

*Euzko Deya, Paris, 1939-IV-16.  
Ihintza, La Salle-enea, Irun, 1989-IV.*

## UDABERRIAN GERA

(Doñua: «Ikusten duzu goizean...»)

- 1/ Negu arlote, gorria,  
arturik pardel aundia,  
orra or gertu jarria:  
«Beste bat arte» agur egiñez  
uzten du bere tokia,  
urre-margozko aulkia,  
auxe poz aipagarria,  
badator udaberria!
- 2/ Txoriño denak abestiz  
asten dira egunsentiz  
gu esnatzeko par-irriz;  
zelai-zugaitzak pixkabanaka  
nun jazten diran orlegiz,  
goitar eguzkiak dizdiz,  
zazpi aingeruren graziz...  
Ederra zera zu guziz!
- 3/ Eusko basetxe txuriak  
laztanten udaberriak,  
ain dira maitagarriak!  
Etxetik kanpo soro sendotan  
indar dakarki gariak;  
goldean dabiltz idiak,  
artoarentzat bidiak,  
badu lan nekazariak.
- 4/ Gazte askoren ametsak  
lilitegian zebiltzak,  
garaian garaiko gauzak.  
Zein usaintsu ta erneki diran  
udaberrian arrosak  
ta krabelintxo panpoxak!  
Zora bear dik gauz pozak  
maitenoaren biotzak.
- 5/ Arrantzaleak arrantzan  
orra or nola dabiltzan  
ontziarekin balantzan...  
«Antxoa merke» didarka zeuden  
kalean bezela plazan.  
«Gogorik baden artu zan,  
bestela pake eman zan,  
ez adi berritxua izan!».
- 6/ Sagasti muñora goazen  
zugaitzak nola dagozen  
lau aldetara loratzen.  
Igali txortak or ari dituk  
bear bezela osatzen,  
ta gu begira goxatzen,  
gero jatea pentsatzen,  
okerrik ezpada sortzen.
- 7/ Larrun mendira igorik,  
aberria ikusi dut nik  
kateak ezin jasorik.  
Euskoen Ama zigortua ta  
seme guziak gaxorik,  
kopetik ezin altxarrik,  
ez dute ikusten argirik,  
an ez da udaberririk!

## AGUR, EUSKADI!

1/ Agur, baso ta mendi,  
sagasti, zelaiak,  
agur, iturri garden,  
erreka ta ibaiak!  
Agur, uritxo kutun,  
paketsu zoliak!  
Agur, o biotzeko  
basetxe txuriak!

2/ Agur, Kantauriaren  
eztizko aparrak!  
Agur Euskal-Erriko  
osin da ibarrak!  
Agur txikitandiko  
nere lagun zarrak!  
Urrutira narama  
ni bizi bearrak!

3/ Agur kanpantorreko  
ezkil zar on ori!  
Ainbat naigabe ta poz  
emana zu neri.  
Zuk jarraituko dezu  
dinbilin-dingili,  
berriro zu entzuten  
noiz izango naiz ni?

4/ Agur, nere lureko  
aingeru liraiñak,  
Jainkoak berezirik  
ain eder egiñak!  
Izarño dizdilari,  
jostallu ariñak,  
ez al nau galduko ni  
orko biotz-miñak?

5/ Agur, ene amatxo  
laztan da maitea,  
Amerikara doia,  
bai, zure semea.  
Okerrago litzake  
zugana joatea,  
ta biar edo etzi  
gorputz izatea!

6/ Agur, aita zintzoa,  
agur biotz barnez!  
Agur, senide onak,  
ongi bizi bitez!  
Otoi egin zazute  
seme onen aldez,  
or estutzen zaituztet  
besarkada batez.

7/ Aruntz bagoaz baña  
ez txit luzaroko,  
emen ezpauidu beti  
kuku batek joko.  
Jainkoaz itxaropen  
ona degulako,  
Euskadik euskoentzat  
bear duelako!

\* \* \*

*«Jaungoikoak berak nai du  
ni urez joatea...  
Ama, zertarako da  
negar egitea?».*

1939-VI.

## AMERIKAKO EUSKALDUNOK, ENTZUN!

- 1/ Amerikako eusko anaiak,  
 astera noa langintzan,  
 kantuz bizi ta kantuz iltzeko  
 ortakoxe sortu nintzan;  
 agur sendo bat biotz-biotzez  
 maitasunezko eskeintzan,  
 bertso neurtutan agertuko dut  
 asaba zarren izkuntzan  
 zuen senide zintzoak emen  
 zein kupigarri gabiltzan.
- 2/ Ez gero pentsa beste erri bat  
 mundu zabalean danik,  
 gureak ainbateko zigorra  
 beregan izan duanik.  
 Mendi maiteak ortxe dauzkagu  
 odol-erreka egiñik,  
 euren semeak beti-betiko  
 joanak dirala jakiniñik,  
 euskaldun amak negarka daude  
 bururik jaso eziñik.
- 3/ Len eta orain beti ta beti  
 gerraren etsaiak gera,  
 lana egiñaz paketsu geunden  
 aurreko zarren antzera.  
 Mendian bera gorroto biziz  
 bazetozten gu iltzera,  
 alegiña nork ez du egiten  
 bere burua zaintzera?  
 Gu ere orrek beartu giñun  
 eskutan armak artzera.
- 4/ Gu, euskotarrok, beti izan gera  
 erlijioaren alde,  
 erri au bezin sinimentsuak  
 munduan asko al daude?  
 Ezkertarrakin batu gerala  
 gaur askok esaten dabe,  
 geure lurretan geuk nai genduke  
 izatea jaun da jabe,  
 orretxen billa urten gera gu  
 besteren ardurik gabe.
- 5/ Etsai ankerrak gureganako  
 ainbat gorroto zeukaten,  
 gure apaiz jaun zintzo leialak  
 balaz or josi zituzten.  
 Jainkoak daki presondegitan  
 gaur ere zenbat dauzkaten,  
 ta erbestean ainbeste dabiltz  
 egun gorriak ikusten,  
 Jesus maitea aotan artuta  
 orra zer egin diguten.
- 6/ Iru naziok alkar arturik  
 azpiratuak gaituzte,  
 gure erri polit irripartsuak  
 auts biurtuak dituzte.  
 Ainbeste milla martiri ziran,  
 egurra eman digute,  
 erri zar onen malko garratzak  
 nola legortu ditezke?  
 Amerikako eusko anaiak,  
 gutzaz erruki zaitezte!



## AIAKO ARRITAN

- 1/ Nork egin du gure galde?  
Aiako Arritan gaude,  
baña beti bezin trebe...  
Lanean gogoz aritzen gera  
soldatarik jaso gabe,  
berreun nagusi badaude  
gure artaldean jabe,  
guk umore ona alare!
- 2/ Otz-aldi eta goseak  
ta barau egun luzeak  
guk baditugu paseak;  
gorputzari on egiten nunbait  
gallur ontako aizeak;  
nola baigeran gazteak,  
sano dauzkagu esteak,  
ez egonarren beteak.
- 3/ Goizean ekin lanari,  
egunsentian pozgarri,  
txori guziak kantari;  
eziñ atera gentzake orain  
iñoiz adinbat izardi,  
erdietan gaude geldi,  
al degunean exeri,  
zertan nekatu geiegi?
- 4/ Oiarzungo neskatillak,  
muxu-gorri biribillak,  
izan zaitezte abillak;  
zertan maitatuzten dituzute  
kaleko ume zirtzillak?  
Aitxulei'n daude trankillak<sup>1</sup>  
saltzeko dauden opillak,  
pare gabeko mutillak.<sup>2</sup>

---

1. Aitxulci edo Aritxulegi, Oiartzun eta Lesaka bitarteko mendi-lepo bat da.

2. Lendabizi, Oiartzun'go Patxi Labandibar'ek emanak, eta gero Basarrik beak bazkal-ondo batean kantatu zuan bezelaxe kopiatuak.

*Laugarren txinpartak, Auspoa 55, 1966.*

## ARITXULEGI GAÑEAN

(Doiñua: «Ikusten duzu goizean...»)

- 1/ Aritxulegi gañean,  
  loa uzten dedanean,  
  zer poztasun barrenean!  
  Mendi gallurak «ator onuntza»  
  deituaz aldamenean,  
  pago zar baten oñean,  
  asten naiz kantu lanean,  
  euskerik xamurrenean.
  
- 2/ Adar gañetan kantari,  
  zorrotz erantzun alkarri,  
  txori danak bertsolari!  
  Edertasun au ikusiz gero  
  begiak zerurantz jarri;  
  eskatu diot Jaunari,  
  biurtu al baldin baledi  
  urte dana udaberri!
  
- 3/ Zugaitz sendiak loretan,  
  nekazariak lurretan,  
  bei pintak zimaurretan.  
  Alkazi usai ameslaria  
  beko errekoetan;  
  alboko pagadietan  
  kuku zar bi berriketan  
  dakiten izkuntz orretan!
  
- 4/ Zar dana gaztetzen dela,  
  mundu berrian gaudela,  
  orain bai esan leikela!  
  Iruditzen zait Paradisoan  
  Jaunak gaur jarri nauela,  
  dana menpeko detela,  
  zugaitzak gurtzen nautela...  
  Bai zoriontsu naizela!!

*Basarri'ren bertso sorta, Zarautz, 1950.*

## LESAKA'KO PESTETAN

- 1/ Lesakan izana naiz  
aurten San Fermiñez,  
Atxulei'ko puntatik  
joanak giñan oñez.  
Guri zer gerta zaigun  
askotxok jakiñ ez...  
Bertsotan jarriko dut  
guzizko atsegiñez.
- 2/ «Lesakan pestak dituk»  
-zioten poz aundiz-  
iru-lau duro giñun  
patrikan izerdiz.  
Etxean gelditzeko  
txarrak gera berriz,  
joana damutu zaigu  
berrogei milla aldiz!
- 3/ Bi orduko bidean  
estutuz arnasa,  
noizpaiten jo genduan  
Lesakako plaza;  
ango neskatxekin guk  
egin nai ba dantza,  
kolpez artu ditugu  
iru kalabaza!
- 4/ Neskatxen ezezkoa  
ainbat sentiturik,  
tabernan sartu gera  
xoil egarriturik;  
ardoak nola zeuden  
txit bataiaturik,  
an ere ez genduan  
moskortu beldurrik!
- 5/ Oi billa egin gendun  
alegiña pranko,  
goizeko ordubietan  
pesta dana akabo!  
Guretzat beste ezertxo  
iñon etzalako,  
txerritegi batean  
egin genduan lo!
- 6/ Lau soldadu giñan gu  
an gerta giñanak,  
lo egiteko asmoz  
garotan etzanak.  
Urdai gabe izateko  
pranko txerri onak,  
baña aundiago ziran  
alboan zeudenak!
- 7/ Biaramon goizean  
garoak agurtu,  
kafesne pixkat nunbait  
nai genduan artu;  
ostatu danak giñun  
galdezka miatu,  
ler gaizto egiñarren  
ez gendun billatu.
- 8/ Eguardian partida  
zuten iragarri,  
onenak zetozela  
lau bat pelotari;  
amaiketan txartelak  
artuta zai jarri...  
Arratsalde-erdirarte  
etziran etorri!

- 9/ Txanponak bukatuta  
alimentu gabe,  
ez giñan orduantxe  
dantzan egin zale...  
Geure samintasunik  
ezin gendun gorde,  
esanaz: «Ai, oraintxe  
Atxulei'n ba geunde!».
- 10/ Amaikak jo zuten da  
eldu zan illuna,  
txarra izanagatik  
bukatu eguna.  
Eztakizute gero  
gertatu zaiguna,  
Kristo'n pasioa da  
ikusi deguna!
- 11/ Pauso arin xamarrez  
abiak artuta,  
laister asko jo gendun  
goiko mendi punta.  
Baña an illuntasunak  
guziok aulduta...  
Lau ordu ibili gera  
bideak galduta!
- 12/ Ain zegon illun da beltz,  
eze ikusten etzan,  
guk berriz poxpollorik  
iñortxok ez izan!...  
San Anton'go bidea  
eztakit nik nun zan,  
uste gabe ia sartu  
giñan Artikutzan.
- 13/ Danok asarretuta  
alderdi banata,  
ango erretolika,  
ango zalaparta!  
Batak besteri zorrotz  
aitzaki eman-ta,  
alkar jotzen asteko  
etzan asko palta!
- 14/ Donostiar lagunak  
au da esan zuena:  
«Ez al dakik, kaiku, ik,  
gaizki goazena?».  
Otzak gortu baño len  
probatu nai dena,  
biok an jo genduan  
sasitan barrena.
- 15/ Batzutan erori ta  
bestietan altxa,  
sasi ta ote artean  
joan zitzaigun otza.  
Erreka zuloaño  
sartuak berantza,  
baña bidea nun zan  
zeñek eman antza?
- 16/ Lokatza ta zikiña  
erropen artean,  
eztira txukunduko  
zazpi illabetea...  
Musuak odolduta  
jarraituz nekean,  
arrastoa artu degu  
alako batean.
- 17/ Gorputzari ez giñun  
deskantsurik utzi,  
alperrik ez genduan  
eman pauso gutxi!  
Atxulei'ri ez diot  
aiñ urre iritzi,  
amaiketan asita  
seiretan iritxi.
- 18/ Au esan dit, Isasti,  
nere lagun piñak:  
«Donostiar geienak  
gaituk kaxkariñak!  
Lesaka'ko pakeak  
dizkiat egiñak,  
nigatik libre dituk  
ango Sanpermiñak!».

*Basarri'ren bertso sorta, Zarautz, 1950.*

## MADRID ALDETIK

- 1/ Bertso txiki batzuek  
asi naiz ipintzen  
adierazitzen  
joan dan urtebetean  
nolatan gabiltzen.  
Gorputzak melartu ta  
indarrak gutxitzen,  
naigabe ta samiñak  
beti nagusitzen...  
Oraintxe bai ikasi  
degula bizitzen!
- 2/ Madrid'en arkitzen naiz  
batalloi batean  
neretzat kaltean,  
gose zakar gaiztoak  
arturik menpean.  
Arrantxoaren billa  
ontzira joatean,  
iru garbantzua ale  
itorik urpean...  
Etzait aztuko bizi  
naizen bitartean.
- 3/ Lana egiten degu  
amar bat orduan,  
bear dan moduan,  
nagusi zar kaxkar bat  
baitegu onduan.  
Txarragorikan ez da  
izango munduan,  
beti errietan da  
ez dakit zer duan...  
A zer bizkarrekoak  
merezi dituan!
- 4/ Ta bere izenez da  
jaun ori don Sixto,  
petral bezin gaizto;  
diru gutxitan saldu  
lezakena Kristo.  
Zartuta gaizki dabil,  
ez du bizi asko,  
beste mundu ortako  
jarria da listo,  
deabruak bidera  
or irtengo zaizko.
- 5/ Arratsetan dauzkagu  
istillu mingotsak,  
ain etsai zorrotzak:  
zorri ta arkakosoak  
dabilzkiten dantzak!  
Eta okerragoak  
ditugu tximutxak,  
gure odol txuputzen  
etzeudek amutsak;  
deskantsu aundirikan  
ez dauka gorputzak.
- 6/ Kabo xaxtar batzuek  
dabilzkigu gañez,  
nai dutena egiñez;  
jotzen asten zaizkigu  
oker txikienez.  
Begira jarri zaite,  
iñon ageri ez,  
putz eginda desegin  
ditezkenak berez.  
Pazientzia artzen  
ez da oso errez!



Gerra denboran.

7/ Botoirik gabe nabil  
nere txamarrakin,  
itxura txarrakin;  
josi deizkodan bizkor  
ari beltzarekin.  
Ase naiz ni militar  
izakerarekin,  
sekula ez det pasa  
oinbeste tripa-min...  
Naiago det Aralar  
mendian ikazkin!

Madrid, 1940.

## OIARTZUN'I GORALPENA

Oiartzungo Gurutze'n, bazkalondo  
batean, kantatuak, 1942/12/2'an.

- 1/ Gure barrenak gaur sentitzen du  
eztaikit zenbat poztasun,  
denok txoratzen arkitzen gera  
ta ez al degu ezagun?  
Zorionean ezagutua  
egun batez guk Oiartzun,  
bertsolari on, maitagarriak,  
zuek nai zaituztet lagun,  
kabitxo kutun zoragarri au  
pixkat goraldu dezagun!
- 2/ Mendi lardenak alde guzitik;  
erdian dago gaxoa,  
zelai baratzez inguraturik  
parrez dagon erritxoa;  
sagasti denak lorez jantzirik,  
marmarka errekatxoa,  
aize otxanak emen dakarki  
lilien usai goxoa...  
Oiartzuarrak, poztu zaitezte,  
auxen da paradisoa!
- 3/ Gau paketsutan kiñuka dabiltz  
goi artako izar denak,  
maindire zuriz bilduta Oiartzun  
lotan ikusten dutenak.  
Zuentzat dira berak dituzten  
argirik ditzikorrenak,  
zuentzat udaberri goizetan  
zeruko intzik fiñenak,  
Jaunari eskerrak emaiskatzute  
emen jaio ziñatenak.
- 4/ Bein ezagutu zindutan eta  
geroztik zaitut maitea,  
neretzat ain gauz pozgarria da  
lur eder au zopaltzea.  
Ainbat gizon on eta jakintsuk  
izan duten aterpea,  
Mendiburu'ren kabi goxo au  
bego dirdiraz betea,  
gizaldietan izan dezala  
zoriona ta pakea!<sup>1</sup>

---

1. Oiartzun'go Ugaldetxo'ko Larria baserriko  
Patxi Labandibar'en eskuz idatzitako paper-punta  
batetik kopiatuak.

*Laugarren txinpartak*, Auspoa 55, 1966.



## OROIPENAK

- 1/ Nun dira gure baso mardulak?  
 Nun dira gure mendiak?  
 Nun dira soro, zelai, sagasti,  
 errekatxo ta ibaiak?  
 Nun aingeruen mama goxoa  
 zerioten iturriak?  
 Arkitu naian gau ta egun nabil  
 lausotu arte begiak.  
 Alperrik dana! Euskalerrian  
 gelditu ziran guztiak.
- 2/ Miru ta zapelaitzen erdian  
 jartzen badezu usoa,  
 egan asmatu eziñik larri  
 gerta liteke gaixoa.  
 Zazpi urtean kabirik gabe,  
 nere zorigaitz gaiztoa!  
 Leiza zulora jausi naiz eta  
 urrun dut argi gozoa.  
 Noiz zanpatuko dut nik berriro  
 euskaldun paradisoa?
- 3/ Bakartasunez illunki nabil  
 arantz mingotsez betea,  
 unetxo batez aztu eziñik  
 gure Donosti maitea.  
 Otañon'n gisa beti zugana  
 dijoa oroipen nerea:  
 «alalipide bat bakarrik daukat  
 ametsetan sinistea,  
 zu ikusteko noiznai aski det  
 nere begiak ixtea».
- 4/ Afrika'ko lur elkor auetan  
 ari naitzazu bertsoan,  
 izate dana beti zuregan  
 naiz esna eta naiz lotan.  
 Or sortu nintzan, or azi ere  
 ta il nai nuke lur ortan.  
 Denbora gutxi gelditzen bazait  
 leiza zulo triste ontan,  
 aberri laztan, artu berriro  
 seme argal au besotan.

*Afrika, Al-Diedir, 1943-V-4.*

**1944 - 1950**

## BERTSO BERRIAK

### ESTROPA-GAIZ BASARRI'K JARRIAK

- 1/ Milla ta bederatzireunetan  
berrogei ta laugarrena,  
Kantauriako itxas-ertzetan  
aztu ezin litekena;  
betiko penaz geldi liteke  
joaterikan etzuenan,  
sei ontzi bizkor leia bizian  
bata bestean urrena;  
gure begiak ikusi duten  
arraun-jairik ederrena.
- 2/ Ain gazte jende sendo, zaildua,  
indartsu bezin liraña,  
nolako txanpa beldurgarriak,  
ura arraunketa bikaña!  
Testigu ortxe gelditutzen da  
Donostiko itxas-gaña,  
urrezko letraz moldetu leizke,  
merezi dute, alajaña!,  
bi Pasai, Ondarrabi, Orio,  
Donosti eta Pedreña.
- 3/ Lendabiziko neurketa izan zan  
Agorraren amarrean,  
gure itxasoan etzan arkitzen  
oso era zakarrean;  
mugitzen zanik etzirudian,  
baretasun ederrean;  
ura jokoa ta estuasuna!  
Danak alkarren urrean!  
Bein bear eta oriotarrak  
beste guzien aurrean.
- 4/ Bizkor asi ta bizkor bukatu,  
an etzan inor makaldu,  
joko guzitan gertatzen dana:  
norbaitek bear zun galdu;  
ta bakoitzari berea eman,  
zertako temari eldu?  
Langille onak bere soldata  
irabazia ez al du?  
Guziak onak izanagatik  
batek onena bear du.
- 5/ Arraunlariak jokatu ziran  
asmo zuzenez beterik,  
aien burutan etzegon ezer  
al zana egin besterik;  
askok diote an ez ote zan  
amairu seundon alderik,  
maiko juezak nastu litezke,  
ortan ez dago dudarik,  
ala izan arren mutil on aiek  
bai al zeukaten kulparik?
- 6/ Uretan garbi erabaki zan  
ontzi arteko burruka,  
gero etzegon kalerik kale  
zertan ibili muturka;  
ainbat eta ainbat nabaitu giñun  
karraxika ta ujuka,  
urte ontako txapeldunari  
*fuera*'ka eta txistuka,  
gauz ori ontzat artzen duanak  
gizatasunik eztauka.

7/ Galdu-irabazi, lagun bear du  
 alkarri esku emanda,  
 gure aurreko guraso zarrak  
 ala gelditzen ziran da;  
 itxusi baitzan ainbat naspilla  
 Donostiraño juanda,  
 nik beitzat asko sufritu nuan  
 begira egon nintzan da,  
 alkar jan naian ala ibiltzea  
 danok anaiak izanda!

8/ Gora San Juan! Gora Ondarrabi!  
 Biotz on oiek alaitu!  
 Egin dezuten lan eder orrek  
 guziok poztu baigaitu.  
 Gora Pedreña! Gora Donosti!  
 Aurrera gogoz jarraitu,  
 ta San Pedrotar bikain trebeak  
 aurten bigarren gelditu,  
 aita Manuel jator leialak  
 ondorengoak baditu.

9/ Oriotarren birtute ori  
 arrigarri ez ote da?  
 Obrari begiratu zaiogun,  
 itzak laga alde batera;  
 errepeto onez txapela erantzi  
 gizonak baldin bagera,  
 txarrak izanda eztira ekartzen  
 nolanai erri aldera,  
 lau medallekin, amabi kopa  
 eta ogeitamar bandera.

10/ Ara Bilbaon nola izan diran  
 uste ez ginduzen ordañak,  
 Españaiko txapelketa or  
 eramam digu Pedreñak;  
 beste tokitan ere semeak  
 badira amak egiñak,  
 itxasoa ta ibaia nunbait  
 eztira izaten berdiñak,  
 galtzen ere ondo jakin bear du  
 irabazitzen dakiñak.<sup>1</sup>

---

1. «Elustondo - Zarauz» moldiztegiak argitaratutako bertso-papera.

*Laugarren txinpartak, Auspoa 55, 1966.*



Ezkontza.

## ERREZIL'KO BILLERA NAGUSIAN

- 1/ Negu beltzaren ondorenenan  
 eldu zaigu udaberri;  
 txoriak kantuz ari dira ta  
 ortara dator Basarri.  
 Ni jaio nintzan txoko polit au  
 ez al da ba gorgarri?  
 Baso ta mendiz inguratua  
 bera izanik lorategi,  
 Ernio zarra bertan dularik  
 zaitzale ta gordelari,  
 goi gallurrean gurutz donea  
 fedearen azalgarri;  
 orain artean bezela aurrera  
 jarrai zaiogun berari.  
 Argitasuna eskatzen diot  
 zeruetako Jaunari,  
 zintzo ta sendo ekin deiodan  
 San Franziskoren gaiari.  
 Aundi ta txiki, zar eta gazte,  
 gizon-emakumeori,  
 lendabiziko biotz-biotzez  
 arratsalde on danori.
- 2/ Milla ta eun geiagorekin  
 laroi ta bigarreanean,  
 Italia'ko Umbria izenez  
 ezagutzen dan sallean,  
 Asis deritzan erri polit bat  
 mendi baten egalean,  
 antxe sortu zan gure Frantzisko,  
 antxe, bai, zorionean,  
 gure iduzki zoragarria  
 Dante baten esanean.  
 Gazte-gazterik sutu zitzaigun  
 zerutar maitasunean,  
 aberastasun pranko izan arren  
 aitaren aldamenean,  
 danak utzita bizi nai zuan  
 pobretasun aundinean.  
 Animen alde an ekin zion  
 gau ta eguneko lanean,  
 iru kibistatiko kordoia  
 jantzirik bere soñean...  
 Zer ikasia badauka batek  
 pentsatzen jartzen danean!
- 3/ Frantziskon aita merkatari zan  
 eta diru pranko zuna,  
 semea berriz danak utzita  
 izan zeiken beartsuna,  
 Jesukristoren jarraitzallea,  
 txiro guzien laguna,  
 Salbatzallean bost zauri mingotz  
 gorputz berean zituna,  
 gogoan baizun Eleiz-arauak  
 garbi esaten diguna:  
 «Anima galtzen dunak zertako  
 munduko aberastasuna?»,  
 lepradunaren gozatzallea,  
 gaxoen alaitasuna,  
 arrokerian etsai gogorra,  
 bera zan apaltasuna,  
 bere burua umil egiten  
 ai aren estuasuna!  
 Ongi dakigu neurri artara  
 irixterik ez dagona,  
 baña ixpillu ortan begituz  
 egin zagun al deguna!

4/ Gaur egunean ikusten dana  
 apaltasunaren falta,  
 alde guzitan arrokeria  
 zearo jabetu da ta.  
 Animalien gisara gabiltz  
 anima alde bat lagata,  
 geroni ondo izan ezkeru  
 bestegatik zer inporta?  
 Lagun urkoa al baldin bada  
 leiza-zuloraño bota;  
 gerokoaren ajola gabe  
 lur ontarako arreta,  
 pekatu danak besterentzako  
 ta nork bereak gordeta;  
 gerra, odola eta lutoa,  
 erri ederrenak erreta;  
 maitetasuna lurperaturik  
 danok gorrotoz beteta...  
 Arren, Frantzisko, erruki gutzaz,  
 zure premian gaude-ta,  
 salbaziorik merezi ez degun  
 biotz gogorak gerra-ta.

5/ Biotza jaso ta Frantziskori  
 egin geure eskariak;  
 bitartekotzat artzen badegu  
 ai zer grazi ugariak!  
 Asis'ko eskaletxo apalak  
 ain ditu indar andiak,  
 larros biurtzen ziran len ere  
 arantzak eta sasiak,  
 baldin zapaltzen bazitun beintzat  
 Frantziskoren aragiak...  
 Iru Ordena sortu zituan  
 ain santu arrigarriak:  
 lendabiziko osa zitunak  
 izenez praille txikiak;

ta Santa Klarak bere eskutik  
 artu zituen jantziak;  
 azkenik Irugarren Ordena,  
 goazen bertara guziak!  
 Emen arretaz entzuten dira,  
 bai, Jaungoikozko berriak;  
 iñor bada-ta erantzungo al du,  
 noski, Errezil'go erriak!

6/ Erruki gutzaz eta zabaldu  
 zerutar bendizioak,  
 goitar grazitan igurtzi, arren,  
 bekoak eta goikoak.  
 Zure bitartez bear dana eman  
 dezaigula Jaungoikoak,  
 laguntza ori eskatzen dizu  
 Errezil'go erri sendoak.  
 Bedeinka itzazu emengo ibar,  
 mendiak eta basoak,  
 bedeinka itzazu emengo ibar,  
 mendiak eta basoak,  
 bedeinka itzazu zelai ta erreka,  
 sagasti eta soroak,  
 txiro ta aberats, nagusi morroi,  
 gaztedi ta gurasoak,  
 berdin amaren bular xamurrez  
 azten or dauden aurtxoak,  
 baratz onetan ez bitez palta  
 lore usaintsu goxoak;  
 ta gure eriotzako orduan  
 luzatu zure besoak...  
 Onenbestekin bukatzen dira  
 Basarrin gaurko bertsoak!<sup>1</sup>

1. «Aránzazu», 1945/V.

*Laugarren txinpartak, Auspoa 55, 1966.*

## BASARRIK GRAZIANORI

Gezaltzako Grazianok amalau bertso argitaratu zituan *Aranzazu* illerokoan, 1945 urtean, *Nekazaritza goratuaz* izenburuarekin. Ikus *Auspoa* 30, 35 orrialdean. Kaletar jendea etzuan asko famatzen. Basarrik bertso batzuen bidez erantzun zion. Auek ere *Aranzazu*'n agertu ziran, 1945'ean. Baita *Auspoa*'ren, 30 zenbakian ere 41 orrialdean.

- 1/ Nere lumatxo maitagarria  
estali ez dedin erdoiz,  
aitona batek bide oberik  
etzidan jarriko iñoiz.  
Ta, Gezaltzako Grazian jauna,  
jakin bear dezu garaiz,  
Basarri deitzen didate danak  
baña kalean bizi naiz.
- 2/ Zure bertsoan egi asko da,  
ori ez det ukatzen nik,  
baserrietan ezta paltatzen  
neke gogorreko lanik.  
Egin ezean ezin itxaron  
lurrak emango duanik,  
baña kalean ere ez pentsa  
eztitan bizi geranik.
- 3/ Langillearen gaurko biritza  
gaitza da kanpoz neurtzeko,  
probatu bear luteke askok  
eskarmentuan sartzeko.  
Bat emateko baldin badago  
iru an daude artzeko,  
zer alderdia Caja Ahorrosen  
mordo aundiak jartzeko!
- 4/ Etxeko errentak igoak daude  
lengo lautatik zortzira,  
ur eta argi, Jaunak badaki  
zenbat dijoan guzira!  
Jan eta jantzi egin bear da,  
ta ain irabazi gutxi da,  
baserritarra orrenbesteko  
kezkarik gabe bizi da.
- 5/ Egun osoa lanean egin,  
amabost pezta etxera.  
Emaztea ta iru-lau aurren  
jabea baldin bazera,  
zoaz aiekin arategira  
libra xerra eskatzera,  
ta afal ondoan txukun jantzita  
kafe ta kopak artzera.
- 6/ Ollasko, gaztai, arkume, kapoi,  
txekorrak tarte sartuta,  
aitaren egin bear degu maiz  
prezioak galdetuta.  
Dozenatxo bat arrautzegatik  
ogei pezta eskatuta,  
porruen billa dijoaz asko  
gerrikoak estututa.
- 7/ Gaur iru zapaldatan ez daude  
langillearen okotzak;  
gerri mea ta gorputz ariña,  
begitarteak zorrotzak.  
Udaran koipe beldur gutxi ta  
neguan il bear otzak,  
geio zulatu bearrik eztu  
gaitz oiek dauzkan biotzak.



8/ Geien-geienak ditugu emen  
erru eta pekatuak;  
eskuak biotz gañean jarri,  
ondo atera kontuak.  
Peri ta dema, joko, billera  
ta gañontzeko tratuak,  
baserrietan ere guziak  
eztira oso santuak.

9/ Goazen Amatxo onarengana  
kaleko ta baserriko,  
gorputz-animak bear dutena  
eskatzera belauniko.  
Gure lurreko uskeri abek  
nola diran egun biko,  
bere laguntzaz gero zoriontsu  
izan gaitezen betiko.

10/ Ez gaitezela beintzat ibili  
alkar ezin ikusian,  
pizti gaiztoak ibiltzen diran  
era trakets itxusian.  
Ikusten dana agertu dizut  
gutziz maitasun bizian,  
ezertan naigabetu bazaitut  
barka zaidazu, Grazian!

## TXANTXA BENETAN GEZALTZA'KO GRAZIAN'ERI ERANTZUNEZ

Gezaltzako aitonak amabi bertsoarekin erantzun zion Basarriri. Bertso oiek *Aranzazu* aldizkariak agertu zituan, 1946 urtean. Baita *Auspoa*'k ere, bere 30 zenbakian, 78 orrialdean. Basarrik, ordea, ordaiñak jarri ostera. Auek ere *Aranzazu*'n argitaratuak, 1946'an. Eta *Auspoa*'n, 30 zenbakian, 86 orrialdean.

1/ Lenengo bertsoarekin zatoz zorion xamur ematen, aitona baten itz ezti oiek zer poza sortzen didaten! Berri-berriri asi bear det nik ere zerbait esaten, *Aranzazu*'ren irakurleak pixka bat goza dezaten.

2/ Alper bizkorrak uzten dutela baserritako bizitza, ori da aitonak bigarren bertsoz neri esaten didan itza. Sei urterekin jetxi ninduten, geroztik emen gabilta, artean ezin jakin nezaken zer zanik nekazaritza.

3/ Naigabetsu ta gogorrek dira nekazariaren lanak, eta denporen gora-beretan arrixkatu bear danak. Askon iritziz eroso gaude kalean bizi geranak, baserrietan ere badaude asko urratzen ez diranak.

4/ Sal-erosle ta nagusi, arakiñ, tabernari ta dendero, karga guztiak oien gañera ez itzazu bota gero! Nik gure erriko azoka ortan garbi ikusten det astero, geienak saiatutzen dirala aukerik izan ezkeru.

5/ Geien-geienok zorutzen gaitu gaur dirutarako griñak, nola datorren ez begiratu, biltzen egin alegiñak. Kalean ainbat oker badira baserrietan egiñak, gaur ezin leike iñor bereztu danok baigaude berdiñak.

6/ Zorion dana dirua dala nola egiten degun amets, orretxegatik dabil mundua ain moldakaitz eta trakets. Beti besteak pekatariak, sekula egundaño geu ez, baño zozoak beleari iñoiz deitu izan dio ipur-beltz.

7/ Iñor ez gera gustora bizi daramagun bizikeran, zintzo jokatu baño okertzea naiago degu aukeran. Gure pausorik geienak dira lagun urkoen galeran, bein biurritu giñan da ez dakit berriz zuzenduko geran.

8/ Ama maitea, bitarteko zu  
bear zaitugu ontzeko,  
ain gutxi nola falta baidegun  
gure buruak galtzeko.  
Aiton laztana eztira itz auek  
zuk naigaberik artzeko,  
ainbeste itzegin bearra zegon  
saltxa apur bat jartzeko.

*Aranzazu, 1946-III.*

## ERREZIL'KO ERRETORE AGURGARRI ETXEBERRIA JAUNARI BERE URREZKO APAIZ-EZTEIETAN

- 1/ Egun aundia gaur Errezill'en,  
zerutar kutsu dun jaia,  
Ernio-peko erriarentzat  
une diztikor, alaia.  
Goitar Jaunari eskeintzen zaio  
intzentsuaren usaia;  
bere ordeko on bat goraltzen  
danok bear degu saia,  
berrogeitamar urte luzetan  
gu zaitu gaitun artzaia.
- 2/ Guztiz bikainki leiatu zaigu  
egitazko onbidetan,  
zenbat poztasun sortu ote du  
premi zeuden animetan?  
Amiltegitik jasoko zitun  
makiñatxo bat bidertan,  
berrogeitamar urte beteak  
aurten Azentzioetan,  
lenengo meza eman zuala  
Azkoiti'ko Brijidetan.
- 3/ Nere baratzak baldin balitu  
bear diran ainbat lore,  
esango nuke: Auek artzea,  
jauna, egin gaur fabore;  
beorren lana oroituko da  
orain bezela gero're,  
motela naiz ta nik eziñ eman  
merezi ainbat onore  
berrogeitasei urtez danari  
Errezil'go erretore.
- 4/ Gaurko jaiaren aunditasunak  
ni oso txiki uzten nau,  
emen zaudeten geienen gisan  
lur ontan sortua naiz neu.  
Gure erretore maitagarriak  
lanetik eztu egin barau,  
bataio-bidez egiñak ditu  
milla ta zortzireun kristau,  
ez ote zeukan irabazia  
eskeintzen zaion egun au!
- 5/ Emen ederki ezagutzen da  
guk ainbat maite degula,  
gure animen zuzendaria  
txit bearreko zaigula.  
Artalde onek aurrerantz ere  
artzai on ori nai dula,  
nik derizkiot Jaungoikoari  
eska bear diogula,  
komeni bada gure artean  
luzaro gorde deigula.
- 6/ Kontatu eziñ ainbeste dira  
egindako obra onak,  
kristau bidean sartuak asko  
len baztarturik egonak.  
Konfessore on, izlari xamur,  
beti ejemplu sakonak,  
bere urrezko eztei-egunez  
esan ditut bere sonak,  
bertsolariak danen partetik  
damazkio zorionak!<sup>1</sup>

Zarautz 10-IX-1946

---

1. Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea, Inazio Zubizarreta'k (Errementeri, Loiola, Azpeitia) eskura emana.

*Laugarren txinpartak, Auspoa 55, 1966.*

## EUSKAL BASERRIAK ZER DIRAN

1/ Euskal baserri aintzagarriak,  
gure oñarri lerdanak,  
zugaitz mardulen babes gozoan  
irriparezka daudenak;  
gure izkuntzaren gordetzallerik  
bikañen da sendoenak,  
zuentzat dira nigan jaiotzen  
diran bertsorik onenak!

2/ Gure oituren ispillu garbi  
oraindik zuek zerate,  
ala izatea komeni zaigu  
mundua mundu dan arte!  
Ai, arrazaren mendu gordiña  
barrunbe oiek daukate,  
euskal baserri maite, laztanok,  
arren, zutikan zaudete!

3/ Zaudete txuri ta irripartsu,  
zaudete goitan bakarti,  
or jaio ziran zarrak bezela  
Jaunari otoizka beti.  
Pakearen da zorionaren  
atsedenezko barruti,  
errietako naspil-zarata,  
bildurgarritik urruti.

4/ O, kaletarrok, txapela erantzi  
iñoiz mendira joatean,  
baserri zabal, urtez jantziak,  
aurrez aurre ikustean.  
Nik bildur gabe esan nezake  
deadar gozo batean:  
euskal arrazik ezta galduko  
baserririk dan artean!

5/ Baserritatiek dute sustraia  
damazkigun abizenak,  
baserritatiek iturburua  
erri askoren izenak.  
Baserrietan sortuak dira  
izar dizdiratsuenak,  
Euskalerrria zerutaraño  
jaso diguten gizonak.

6/ Soro ta zelaiz inguratuta  
begoz, begoz dizdiratsu;  
zerutar intzak busti goizean,  
eguardian eguzkitsu.  
Gure asaben seaskak dira,  
Jauna, Zuk ondo dakizu,  
zure maitasun azkengabeaz,  
Jauna, bedeinka itzazu.<sup>1</sup>

Zarautz'en 1946'garren  
Garagarriaren bostean.

---

1. Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea,  
ta bee-aldean «Gipuzkoako Aurreztzitegiaren opa-  
ria (Caja de Ahorros Provincial)» diona.

*Aranzazu*, 1946'ngo. Urria.

*Gernika* aldizkaria, 1949-III-1.


*Laugarren txinpartak*, *Auspoa* 55, 1966.

## EROSI ZAZUTE SIGMA

- 1/ Danok dakigu bizimoduak  
gaur asko eskatzen dula,  
familietan bearrekoak  
ainbat pitxi ditugula;  
euskaldun maite, eziñ gentzake  
guk beintzat aztu sekula,  
*Sigma* izeneko makin-etxea  
Elgoibar'en daukagula.
- 2/ Añ da jostallu zoragarria  
geure eskuetan artzean,  
uzteko gogorikan ez dator  
beñ josketari eltzean.  
Udaberrian bizi leizkenak  
or daude negu beltzean,  
au gertatzen da *Sigma* makina  
arkitzen eztan etxean.
- 3/ Ezkon deietan zauden neskatxa,  
ordua dezu pozteko,  
tresna on ori bearra dezu  
zeu ta zeureak jazteko;  
bi gauz eskatu bear dituzu  
bizimoduan asteko:  
osasun ona bizitzeko ta  
*Sigma* makina josteko.
- 4/ *Sigma* jabeak irripar gozo  
nunaitan agertutzen du,  
bere menpeko pitxi aretzaz  
iñora eziñ da aldendu.  
Familitako urre kutxa da,  
au burutikan ez kendu,  
*Sigma* makina erosten dunak  
zoriona erosten du.

1947 garren urteko agorra.

Bertso auck kanta-paperetan zabaldu ziran, *Sigma* etxeak argitara arazita.



Uztapide eta Basarri.

## ERNIO'KO GURUTZ SANTUAREN BABESEAN

- 1/ Parrezka dago; zer du Erniok gure mendirik zarrenak?  
Gallur goraño igo zaizkio mutikorik bizkorrenak, gurutze sendo berdin gabe bat bertan zutitu dutenak; bijoazkite maitasun eztiz nere bertsorik onenak.
- 2/ Milla ta bederatzireunekiñ berrogei ta zazpi urte, egin diteken lanik onena gazte batzuk egin dute. Sinismenaren indar goitarrak emanik ainbat birtute, aitondutako Ernio zarra jantzi-berritu digute.
- 3/ Zer da, kristaubak, gure Erniok igaztik duen jazkera?  
Bira guzitik begira ondo deritzazuten aldera. Golgota dakar onek burura, gu artzaz oroitzen gera, Kristok odola eman zuneko aren iduri ber-bera.
- 4/ Oraindik ere gure salletan badira mutil azkarrak, lan on bat egin bear danean nagi gabeko goitarrak. Oietakoak dira Astiasu eta Aia'ko Luistarrak, fede-txinpartik degun guztiok eman deizkegun eskerrak.
- 5/ «Izarra bezin garbiak eta Ernio beziñ sendoak», itz eder oiek ageri ditu luistar bandera Aia'koak. Mendi gañetan egitezkeroko obra era ortakoak, derrior izan bear dezute izena bezelakoak.
- 6/ Aia'ko eta Astiasu'ko gaztedi zintzo ta piña, maitetasunez besarkatuta gurutz langintzan ekiña; illabete ta erdian zuten asi ta buka egiña, zer ez gentzake egin kristauok ola bilduko bagiña?
- 7/ Seireun bat kilo burni baditu gurutzeak saietsetan, amabi metro kubiko arlear goi-be aurre ta atzetan. Aizeak eztu lurreraziko, estu da bere galtzetan, berrogei ta sei zakutik gora badauzka porlan utsetan.
- 8/ Arkaitz aundiak tiroen bidez an jarri zituzten ernai, amabost gizon egunero egun gorputzak izerditan blai. Ainbat neke ta tratu gogor an, alare guziok alai, bein asitako lanik etzuten bukatu gabe utzi nai.



- 9/ Santa Ana egunez, gari matxaka  
goruntz jasotzen asirik,  
iya gelditu ziran guziak  
arnas-bideak itxirik.  
Urteko egun beroena zan,  
alako penitentzirik!,  
gurutzeari esker gelditu  
ziran mutillak bizirik.
- 10/ Olako obrik egingo bada  
arkaitz gallur gogorretan,  
biotzak sendo egon bear du  
fedearen su-garretan.  
Aia'ri eta Astiasu'ri  
gelditzen gera zorretan,  
gaztedi orrek egin duena  
ezta ordaintzen urretan.
- 11/ Orañ an dago zutik pozkidaz  
ezaugarri onerako,  
beartasun da premi latzetan  
gertatzen geranerako.  
Esker bizi bat ager dezagun  
denok Albiztur'ganako,  
gurutz orrentzat bear zan salla  
gogoz eman zuelako.
- 12/ Dagonillaren azken eguna  
bedeinkazio eguntzat,  
jaialdi aren aunditasunik  
ai, neri ezin aztu zat!  
Milla ta irurogei metroko  
arkaitza meza-lekutzat,  
amar bat milla kristau otoizka  
ta zerua tellatutzat.
- 13/ Aiton zar bati begira gogoz  
luzaro egon nitzai on,  
ta larogei ta zazpi bat urte  
beteta zegola zion.  
«Jauna, esan bezait gaurko gaztedi  
augatik zer deritzaion»...  
Gurutz aurean belaunikatuz  
negarra irten zitzaion.
- 14/ Bertsolaririk argitsuenak  
gurutzeari kantuan,  
sermoigille on, iaio, bizkor bat,  
bere «pulpitu» altuan.  
Meza-emaleak, ainbat dantzari  
mai santuaren onduan,  
Jaun-artzalleak txandik etzuten  
ematen asi orduan.
- 15/ Gora Aia'ko ta Astiasu'ko  
gaztedi bedeinkatua,  
illabete ta erdi luzetan  
Kristogatik nekatua!  
Euskaldun denok artu paperak,  
ikas emengo kantua,  
maite biotzez Ernio zarra  
ta bere gurutz santua!

---

Moldiztegiaren izenik gabeko bertso-papera.  
(Inazio Zubizarreta, Errementeri, Loiola, Azpeitia)  
*Aránzazu*, 1948, 10.

*Laugarren txinpartak*, *Auspoa* 55, 1966.

Ernioko gurutze au nola zutitua izan zan jakin  
nai duanak, irakur beza Jose Mari Lertxundiren *Iga-  
roari begira* liburua, *Ernioko gurutze aundia* atala  
(*Auspoa* 214, 1991).

## GIPUZKOA'KO LUISTARRAK, ONGI ETORRI!

1947'garren urteko iraillean, Zestoa'ko luistarrak beren alkarteko ikurrin berria bedeinkatu zuten. Ori zala-ta, ospakizun aundiak egin ziran, nola elizan ala kanpoan. Basarri ta Uztapide ere bai bertsoan. Egitarauaren azken orrialdean, Basarriren bertso auek agertu ziran.

- 1/ Egun aundia, egun alaia,  
triste guzien pozgarri,  
besarkadarik anaikorrena  
eman deiogun alkarri.  
Luis arren deia izan da eta  
zuek erantzun dei orri,  
gure kabitxo kutun ontara  
guztiok ongi etorri.
- 2/ Pozaren pozez gañezkatzen da  
luistarren biotz xamurra,  
anaitasun au degun artian  
uxa gentzake beldurra.  
Gure txokoak nola izan duan  
zuek biltzeko adurra,  
artu guztiok gaur Zestua'ko  
anaien maite agurra!
- 3/ Nola kaleko ala mendiko  
anai maiteok, gaur poztu,  
alkarganako maitetasun au  
iñoiz ez dedilla oztu.  
Luistarren gisan otoitz egin da  
luistarren gisan jolastu,  
gaurko billeraz oroitu eta  
Zestua'etzaz ez aztu!

## ZESTUAKO IRUGARRENDAREN URREZKO EZTAIETAN ABESTUTAKO BERTSOAK


- 1/ Agintarien aginduz orain  
astera noa bertsoan,  
egi latz batzuk esatearren  
iru-lau bat itz gozotan.  
Urrezko eztaiak nola baitiran  
Zestua maitetsu ontan,  
prantziskotarrak zer poz daukaten  
gaur beren biotz ondotan!  
Beldurrik gabe jarrai aurrerantz  
artutako bide ortan,  
onak zerate eta ondorean  
obetutzeko asmotan,  
aurrera, anaiak, aurrera, arrebak,  
olaxe urte askotan!
- 2/ Danok dakigu gaurko mundua  
oso gaizki dagoela,  
barren-barrenen sendagaitza dan  
gaitz bat berekin duela.  
Pake santua zer degun ere  
aztutzen zaigu berela,  
anai-arrebak noiz arteraño  
jarrai gentzake onela?  
Nik derizkiot berriz dotriñan  
asi bearrak gaudela,  
ain nago ziur iñon gerrarik  
izango ez litzakela,  
lagun urkoa maite bagendu  
geren buruak bezela.
- 3/ Gorputz-animak aiñ itsatsiak  
gaude guziok lurrera,  
gerokoaren beldur santua  
utzi degu bazterrera.  
Gauza on asko eziñ itxaron  
diteke emendik aurrera,  
fedea galdutako gizonak  
abere biurtzen gera.  
Ortatik dator gizaldiaren  
okerra eta galera,  
sarri mingañez gauza bat esan  
ta biotza bestaldera...  
Mundurik eziñ aldatu leike  
geu aldatzen ezpagera.
- 4/ Asisko Aitak ondo zekian  
zerbait egin bear zana,  
goiko laguntzaz emana zuen  
artaño pauso zuzena.  
Eziñ diteke neurritz eskertu  
gugatik egin zuena,  
or eman zigun eman diteken  
sendagairik sendoena,  
gorputza indartu eta anima  
guztiz arintzen duena,  
pekatarien babes-tokia  
dan Irugarren Ordena;  
nola oraingo, ala geroko,  
au da biderik onena.

5/ Oker guzien iturburua  
maitetasunaren palta,  
aundinai eta arrokeria  
nunaitan jabetu da-ta.  
Danok burrukan estrapuzuka  
agindutzea dala-ta,  
besteren errukirik eztago  
dana geroni gera-ta,  
errezeloak ekartzen digu  
alkarganako zelata,  
berriro ere entzuten gaude  
gerra tronpeten zarata...  
Aita Prantzisko, lagun zaiguzu  
zure premian gaude-ta!

*Anaitasuna*, Tolosa, 1947-XII.



Uztapide eta Basarri.



Gerra ondoko lenbiziko txapelketako bertsolariak, Tolosan, 1945-IX-30.  
Ezkerretik: Mitxelena, Saiburu, Ernani Txikia, Basarri, Uztapide, Batista Kortajarena eta Zepai.

## AITA OLAIZOLA'REN OROIZ (G. B.)

- 1/ Biotza lertu zorian daukat,  
 eskuak berriz izoztu.  
 Lagun onena galdu ezkeru  
 au zeñek izaten eztu?  
 Gizona ziñan gu bezelaxe,  
 lurrean ezin berpiztu.  
 Ikusi bear etzaitudanik  
 orixe ezin det sinistu.
- 2/ Zure urrean izan geranok  
 ainbat oroipen daukagu,  
 zuk egindako lan aundiari  
 gaur neurri artzen diogu.  
 Gure artean ziñan bitarten  
 lasai ibiltzen giñan gu,  
 betiko galdu zaitugunean  
 zer ziñan ikusten degu!
- 3/ O adiskide aztu eziña!  
 Biotz aundiko semea!  
 Jaungoikoaren serbitzurako  
 ain bizkor eta ernea.  
 Argi gabeko lañope beltza  
 iges joan ziñan unea,  
 betetzen ain da neketsu, gaitza,  
 utzi dezun utsunea.
- 4/ Bein da betiko utzia dezu  
 agur egiñaz lur gaña,  
 euskaldun denak tristetu dira  
 itzez ezin esan aña.  
 Sasoirik onenean joan zera  
 gure artzai on, bikaña.  
 Estali dira zure begiak,  
 ixildu zaizu mingaña.
- 5/ Zure mingaña ez leike neurtu  
 zenbat on egiña duan,  
 Zeruko Jaunak alaxe nai ta  
 ain egokia zenduan!  
 Biotz gogorrak xamurtzen ziran  
 pentsatzen zendun orduan,  
 pekatu griñak galtzen gaitunok  
 bearrezkoa genduan.
- 6/ Arantzazu'ko Amarengana  
 beti maitasun egarriz,  
 bera aupatuz eta goralduz  
 zenbiltzan erririk erriz.  
 Millaka kristau biltzen ziñun an  
 fede bizi ta pozgarriz,  
 artalde aiek lengo artzairik  
 ez dute ikusiko berriz.
- 7/ Ondo genkigun emengo nekez  
 atsedeen gogoz zeundela,  
 nik pentsatzen det Goitarrak ere  
 zure zai estu zeudela.  
 Gure azkena ere badator  
 egunen gaba bezela,  
 lurrean lagun izan geranok  
 goian ala gaitzezela!

*Anaitasuna*, Tolosa, 1949-I.

**ATANO III**  
**BERE EDESTIA BERTSOTAN**

## AZKOITIA

- 1/ Izarraitz'peko babex ez titan  
paketsu zauden txokoa,  
esan liteke bertan sortua  
dala pelota jokoa.  
Zure izena urrezko letraz  
nunaitan azaltzekoa,  
Gipuzkoa'ren aipagarria,  
Azkoiti biotzekoa,  
magal gozoan amaika seme  
bulartsu azitakoa.
- 2/ Zure semeak une guzitan  
beti pelotaren eske,  
bera delakoz artuak dira  
esan ezin ainbat neke.  
Gorputzak busti, oñak urratu,  
jarraitu bertan jo ta ke;  
milla orriko liburu on bat  
bertsoz tajutu liteke,  
Kontzejupeko arri zar oiek  
itzegin balezateke.
- 3/ Zure seme bat gure pelota  
goi-mallan jarri duena,  
Euskalerriko plaza guziak  
jendez bete dituen.  
Ogeitaka urtez kontrariorik  
aintzat artzen etzuen,  
bere aurrean txapela erantziz,  
au da gure aitormena:  
amarengandik inoiz sortu dan  
pelotaririk onena!
- 4/ Atano izenak igaro ditu  
nola erri ta erbeste,  
mundu guzian ezaguna da,  
ortaz kontura zaitzte.  
Denak jaso nai dute ta eziñ  
merezi duen ainbeste.  
Erri bat eziñ egon liteke  
zorion geiagon eske,  
bere seaska zeran Azkoiti,  
poztu ta alaitu zindezke.
- 5/ Ikusi dezu zure semeak  
zenbat on ekarri dizun,  
ikusi dezu urtien pixuz  
nolatan erori zaizun.  
O, Azkoiti! Zuk jarrai pelotan  
or jo ta emen erantzun;  
bertan leiatu, bertatik saia,  
beste gauzetara ez jun,  
Mariano'ren oñordeko bat  
ea azkar sortutzen dezun.



## FLORIAGA JAUREGIA

- 6/ Floriaga'ko etxe zabala  
barrunbe pozkidatsua,  
bertan jaiotzen ikusi baizun  
ain izar dizdiratsua.  
Azkoitiarrok bereganako  
izan maitasun gartsua.  
Pitxi kutunak gordetze ori  
gutziz egintza goxua,  
tellatu orrek estali zuen  
pelotarien maixua.
- 7/ Orma zar oien aurrean gogoz  
iñoiz jardun naiz kantari,  
lau aldetatik begiratuaz  
kabi zar urtetsuari.  
Ezta iñolaz aztutzekoa  
etxe bedeinkatu ori,  
guraso zarrak bertan eskeñi  
zizkaten gure lurrari,  
iru alaba baliotsu ta  
zazpi anai pelotari.
- 8/ Kanta bezate bertsolariak  
alaitsu zure gorantzan,  
urte astunen pixuagatik,  
arren!, etzaite zu etzan.  
Denbora joanik, pozgarri oberik  
ezer ez liteke izan,  
emendik berreun urtera ere  
or bazaude gaurko gisan,  
zu ikusita esango dute:  
«Atano emen jaio zan!».
- 9/ Ortxen jaio ta ortxen aziak,  
ortxe, amaren altzoan,  
sukalde ortan maiz exeriak  
suaren epel goxoan.  
Zuen guraso maitegarrien  
laguntzaz urte askoan,  
ondoren txarrak utzita beintzat  
etziran mundutik joan,  
goi ederrean goza bezate  
betikotasun osoan!

## BERE ASIERA TA JARRAIPENA 1921-1926

- 10/ Mariano'ren guraso zarrak  
beren lanezko izerdiz  
amar ume eder azi zituzten  
berebiziko nekaldiz.  
Irabazirik etzan geiegi,  
gasturik falta ez berriz;  
aurrera atera baziran ere  
sarritan ixtillu gorriz,  
gure Atano txalogarria  
beartsua da jatorriz.
- 11/ Danok dakigu auntzak mendia  
sortzetik maite duala,  
erleak ere sortu ordukoz  
lorien zale dirala.  
Gu guziotan ere sinistu  
grñen bat sortutzen dala,  
esan bearrik ezta Atano'k  
pelotakoa zuala,  
txit umetatik nabarmendu zan  
artako jaioa zala.
- 12/ Unerik artzen zuen guzian  
an zan frontoian sartua,  
ta nekezkoa etzerizkion  
an artzen zuen tratua.  
Pelota zuen bere maitea;  
artzaz zegon zoratua,  
artatik kanpo beste guzia  
beretzako sobratua,  
abarketik ez urratzearren  
oñak sarri urratua!
- 13/ Etzezakean beti jarraitu  
txikitako jolasetan,  
abilidadez jantzi zanean  
asi bear zedoertan.  
Mutikotxoa izanagatik  
utsik etzegen ezertan,  
laguntza danak gutxigi dira  
premia dagon etxetan,  
amazazpi urte bete orduko  
asi zan gure plazetan.
- 14/ Egintza bidez zabaltzen dira  
beti kristauaren sonak,  
pauso latz asko eman bear du  
gora igotzeko dagonak.  
Gauz asko dira Mariano'ri  
aztutzen etzaizkionak;  
Billarreal da Zestua beintzat  
beretzako erri onak,  
oietan irabazi baizitun  
lendabiziko txanponak.
- 15/ Zer pozarekin azaldu oi zan  
deitzen zioten lekuan,  
berak izketan beziñ ederki  
eziñ agertu kantuan.  
Pelota gosez ero zebillen,  
iñon eziñ geldituan.  
Apart xamarra ote zetorren  
ikusi zan segituan...  
Bere kideko guziak aixa  
purrukatutzen zituan!

- 16/ Artean emeretzi bat urte  
zituelarik berekin,  
Eibar'ko dei bat jasoa zuen  
poz izugarriarekin.  
Tokirik aundiñetara joanda  
nai zion lanari ekin,  
partidu bat an jarri zioten  
kolpez Arriola'rekin,  
bata eskubi utsez zan eta  
Atano esku birekin.
- 17/ Atano'k irabazia zion  
gutziz modu apañean,  
Arriola'ren estuasunak  
ezer ezin egiñean!  
Andik zortzi egun jarri zituzten  
biak berdin-berdiñean,  
kontrariorik etzun ageri  
Mariano'k aldamenean,  
lenbizikoan beziñ aguro  
jan zion bigarreanean.
- 18/ Urrengo txandan jarri zioten  
zumaiarra dan Gorriti,  
au probatzeko ere gaztea  
etzan arkitzen beldurti.  
Ametz askotxo gelditu ziran  
egi izatetik urruti,  
sarri oi dana, kukuak oker  
jo zion makiña bati...  
Ta bitartean Atano izena  
goraltzen zijoan beti.
- 19/ Gero, Zabala, elgoibartarra,  
beartu ziran jartzera,  
Mariano'ren sona zijoan  
neurri goienak artzera.  
Azkoiti'tikan Eibarra oñez  
joan zan ari jokatzera,  
Txikiarekiñ eziñ burutuz  
an gelditu zan atzera...  
Estutu gabe menderatu zun  
aurreko danen antzera.
- 20/ Alakorikan sortu zeikela,  
nork izango zun usterik?  
Ainbeste eragozpen austeko  
batek artaño gazterik.  
Artean ere gure txikia  
probatu bear beste bik,  
Ulazia ta Artamendi an  
zeuden gogo onez beterik,  
aiek ausita etzan gelditzen  
Mondragones'a besterik.
- 21/ Ai, Atano'ren aunditasuna  
zein garbiro ageri dan!  
Esaidazute ixtori abek  
nolatan aztuko diran!  
Biak banaka neurtu zituen  
bata bestean segiran,  
Artamendi ta Ulazia're  
bai aguro erori an,  
Beste aurreko danak bezela  
urruti gelditu ziran.
- 22/ Pelotarien artalde dana  
an zebillen zoratua,  
mutil gazte igar, xaxtar arekiñ  
iñork eziñ burutua!  
Ille tenteka, txit arriturik,  
askok zuten galdetua:  
«Nun demontretik sortu zaigu aiñ  
pristi madarikatua?»  
Izen ordetzat ordun ezarri  
zioten: «Basakatua».
- 23/ Ainbat lanbide ematen digu  
emen iritxi eziñak,  
Atano'k ere ortik zituen  
bere naigabe samiñak;  
Trena garesti irizten eta  
aldatzen zituen oñak,  
maiean ere eziñ arkitu  
aberatsen jaki fiñak,  
gaur dauzkan diru oiek ez ditu  
gutxi kostata egiñak.

## ATANO TXAPELDUN 1926

- 24/ Amar urtean Mondragones'a  
zebillen danen aotan.  
¿Zeñek sinistu obeagorik  
izan zeikenik pelotan?  
Atano ere gora zijoan  
arrigarritzko saltotan;  
kondizioak jarriak zeuden  
gutziz agiri sendotan,  
uraxe menderatu bear zun  
txapel-dun izatekotan.
- 25/ Mondragones'a bere denboran  
ain zan langille mardula,  
esan ziteken bere besoak  
arraun sendo bi zitula.  
Bizi ta ilko gera guziok  
bera gogoan degula.  
¿Nork esan gazte, txiki, argal ark  
menderatu bear zula?  
Ori lortzea etzan orduan  
auntzen gaberdiko eztula!
- 26/ Arreta biziz gertutua zan  
Floriaga'ko mutilla,  
poz dirdaietan zuzen zijoan  
goiko aulkiaren billa.  
Au da orduan ezarri zuten  
neurri edo maratilla:  
iru partidu jokaturtea,  
ikusiz nor zan abilla,  
ta irutik biren irabaztuna  
burutzat autu zedilla.
- 27/ Urte artako azaroaren  
lendabiziko egunez,  
Donostia'ko «Moderno» zegoan  
gutzizko apaintasunez.  
Bi pelotari lertu zorian;  
jendea eziñ egonez,  
azkoitiarra nagusitu zan  
bere jokabide onez,  
ogeitabira emeretzikiñ  
utzi zuen Mondragones.
- 28/ Partiduaren ondorenean  
bazan zer esan ederrik,  
askok sinistu eziñ zuten da,  
berri guziak alperrik!  
Andik berela Eibarren bota  
zituzten biak bakarrik,  
amabi tantoz gora ezpaizan  
orduan pasatu zarrik,  
etzuten izan irugarrengoz  
alkar probatu bearrik.
- 29/ Mondragones'a an gertutu zan  
ondorengoa pozteko,  
amar urtean berekiñ zuen  
errege aulkia uzteko!  
Esku emanez, besarkatu zun,  
biotza erakusteko,  
Mariano'ri ordua iritxi  
zaio txapela jazteko,  
geroztik ogeitabi urtean  
geiago ez erazteko.

- 30/ Orra gizon bi, gure jokia  
zerurantz jaso dutenak,  
erri guzitan estatu bana  
zutik bear lutekenak.  
Lurralde guziaren aurrean  
ondraz bete gaituztenak,  
urteak joan da etorri arren  
baztatu ez litezkenak,  
pelota bizi dan arteraño  
entzungo diran izenak!

## TRINKETEKO BURU 1927 - 1931

- 31/ Gure txikiak etzuen iñoiz  
zapaldu iñun trinketerik,  
aukera ona izan zun eta  
probatzeak ez kalterik.  
Mugaz aruzko anaiak zeuden  
zaletasunez beterik,  
lezio batzuk artu zituen  
ta etzun bear besterik,  
erakusteko etzegola ari  
pelotan irabazterik.
- 32/ Frantzi'ko txapelduna zan Arze,  
kontrariotan lenena,  
Irun'en gendun «Ramuntxo» plazan  
ordun jarri ziotena.  
Atano antxe, trinkete berri  
arrastorik etzuen,  
egun aretan gaxo gertatu;  
aztu ez lezaken pena...  
Zorigaitz artaz galdu baizuen  
irabazi zezakena.
- 33/ Arze bizkorra konturatu zan  
Atano ezaguturik,  
lenen pelotak jotzen ikusiz  
gelditu zan arriturik.  
«Lenengo aldiz erabili nau  
ia-ia menderaturik,  
pixkat ibiliz jartzen bazaigu  
gure tranpiak arturik,  
etsita egon, eztala emen  
au ausiko dun kristaurik».
- 34/ Arze ta Arrayet zeuden nagusi  
trinketetako langintzan,  
alkarganako iñoiz etzuten  
maitasun aundirik izan.  
Eztakigu ta ez liteke esan  
naspil ura zergatik zan,  
zakartutako denboralerik  
iñola ondu ezin zan,  
zenbait katu ta zakur baño're  
biurriago zebiltzan.
- 35/ Desapio bat biali zion  
Arrayet'ek Atano'ri:  
gertu zegola trinkete baten  
jokatutzeko berari.  
Arze bizkorrak jakin zunean  
ala dio txikiari:  
«Zortzi bat egun igarotzera  
nerekin etorri adi,  
Aitaren egin baño lenago  
menderatuko dek ori».
- 36/ Atano'k ordun obeditzea  
une baten erabaki,  
Arze'n etxean, esan bezela,  
ate guziak ideki.  
Jan da edana nai zan ainbeste,  
gero izerditu galanki.  
Zortzialdi ark zer balio zun  
gure Jaungoikoak daki...  
Trinketearen sekretu oiek  
ikasi zitun ederki!

- 37/ Eguna iritxi zitzaioten bein  
ain luzaroan itxoina,  
biak saltakor ikusten ziran  
geldirik egon ezinda!  
Berealaxe nabarmendu zan  
beren lanari ekinda,  
danak zioten: «Atano'rentzat  
Arrayet gauza gutxi da»,  
atzekaldean utzia zuen  
nai zituenak eginda.
- 38/ Beste biderik etzegoan da  
goraka itxu-itxuan,  
lenengo malla zegoan osorik  
besteak pasa zituan!  
Bigarren aldiz Arze'ren aurka  
sekulako partiduan;  
pelotarien izarrangana  
illunpetan ezin juan,  
ikasle batek bere maixua  
kokilduta utzi zuan.
- 39/ Gero Darraidu zegoen sasoian,  
ainbat abildade zuna,  
gure Atano probatu arte  
ark zeukan estuasuna!  
Azkoiti'tikan Hazparne'ra zan  
ari jokatzera juna,  
mundu guziak aitortu zezan  
ura izan zan eguna:  
«Atano zala klase guzitan  
egitazko txapelduna».
- 40/ Atano zenbaterañoiko zan  
ezin ziteken ikusi,  
kontrariorik etzun ezertan,  
bera danetan nagusi!  
Emengo frontoi, ango trinkete,  
ezin makurtu-erazi.  
Angoak nola zapaldu zitun  
orra nik adierazi:  
lenbizikoa gaxorik galdu,  
beste danak irabazi!

## ATANO III'GARRENA BINA-BINAKA

- 41/ Mariano'ren egintzarekin  
zein ez liteke arritu?  
Pelotak ditun ezkutu danak  
orrek ezagutu ditu.  
Ezker-eskubi, aide ta bole,  
plazan ezin zan kabitu.  
Azkoitiar au ezin ziteken  
iñortara errenditu,  
zenbaitek ditun esku gogorrak  
berekin izan balitu.
- 42/ Eskuetako oñaze ori  
ezta berriz lagun ona,  
a zer nolako etsai maltzurra  
beingoz sortu zitzaiona!  
Orixe baizan diru irabazten  
galerazitzen ziona,  
partidutxo bat jokatzten bazun  
bi illabeteko egona...  
Auxen da beti Mariano'ri  
gertatu izan zaiona.
- 43/ Oraintxe dala ogei bat urte  
orrekin giro zeguan,  
arrigarrizko partiduetan  
ikusi izan genduan.  
Gaur baño pelotari aukera  
ohea zegon orduan,  
ta Luxiano anaia arturik  
laguntzat bere onduan,  
garai artako iru onenak  
bapo betetzen zituan.
- 44/ Zortzi kuadrora bialtzen zuan  
noiz-nai pelota biraka,  
zutik jarrita bera txalotzen  
ikusten ziran millaka.  
Aurrean eziñ asi ziteken  
jostatzen ari tiraka,  
zallenak arrapatzeko berriz  
erbi gixako bi anka...  
Orrelakorik ezta izan iñoiz  
ez banaka, ez binaka.



**ATANO III'GARRENA  
TA IRAETA'KO TXIKIA  
1940**

- 45/ Pelotarentzat gizon talde bat  
eskubidetan jarri zan,  
lege zuzenak izan zitezen  
nunbait ori komeni zan.  
«Federazio» izenarekin  
dago gaur agintaritzan,  
kondizio bat ezarri zuten,  
lendik olakorik etzan:  
urte bitik beñ jokatzeko  
txapela zeñentzat izan.
- 46/ Pelotazale danak goizetik  
arin, Donosti aldera,  
«Gros» izenakin ezagutzen dan  
ango frontoi ederrera.  
Dagonilla'ren amaikagarren  
eguna izan zan bera,  
Iraeta'ren itxaropenak  
erori ziran lurrera;  
ogeitabira etzan pasatu  
zortzi tantotik aurrera.
- 47/ Ordurako're etziran gutxi  
Mariano'ren urteak  
kontuak ondo atera ezker  
ogeitamasei beteak!  
Saso onena aldegiña ta  
berekiñ lengo nekeak.  
Alare erantzun zalla zeukaten  
azkoitiarra'n sakeak,  
sarri orrekiñ egiten zitun  
frontoi aldeko pakeak.
- 48/ Tankerik ezin eman ziteken  
bera ikusi gabetandik,  
jende guziak esaten zuna:  
asko jetxi zala lendik.  
Lanari ekin ziotenean  
pallorik etzan iñondik,  
ondorenean au entzuten zan  
an bixtan ziranengandik:  
«Nagusitzari puska batean  
eutsiko zioke oraindik!».

## ATANO III'GARRENA TA VII'GARRENA 1942

- 49/ Bi urte igaro ziran paketsu  
alkar neurtzea utzita,  
baña berriro ara nun zuten  
ordu estua iritxita.  
Zer gertatu zan txapelketa artan,  
danak ain gogoz asita?  
Atano zazpigarrena gogor,  
jokatuk irabazita,  
azkena jokatzeke gelditu  
beste guziak ausita!
- 50/ Atano'tarren sendotasunak  
gorengo malla artu du,  
zer meritu dan adieraztera  
ezin giñezke sartu gu.  
Berriz pelotak gertakizun au  
ezagutuko ote du?  
Litekeana dala badakit,  
baña ezetz diot seguru,  
anai bik erabaki bearra  
zeiñ izan Españi'n buru.
- 51/ Berriro «Gros'en» jokatu ziran  
urte bi aurrez bezela,  
agorreko illak ogeitazapzi  
egun aundi zituela.  
Askok uste zun benetan junda  
gazteak jango zuela,  
ezta dudarik aien usteak  
leiza zuloan zeudela,  
bost tantorekiñ an gelditu zan  
zer egiñ etzekiela!
- 52/ Gaztetasuna ez uste arren  
an gelditu zan galduan.  
«Ori pristia!» makiña batek  
kolkotik esan genduan!  
«Orrelakorik berriro amak  
sortuko ote dik munduan?  
Aundiak txiki gelditzen dituk  
oraindik orren onduan».  
Odol bereko anai gaztea  
orra zertan utzi zuan.

## ATANO III'GARRENA TA PELIPE 1944

Urte ontan ere, legez Atano irugarrena ta zazpigarrena ziran alkarren aurka jokatzea zegokienak. Pelotaren buruzagia (federazioak) urrengo mallan zegon Pelipe'rekiñ neurtu-eraztea erabaki zuan.

- 53/ Pelota borobilla degula dago aitortu bearra, urte onetan gertatu zana gauz arrigarri xamarra. Bere aldetik etzun izango eun kristautatik bakarra, makiña batek guztiz arrituz astindu zuen kaskarra, azken mallara igo zalako Pelipe Ketariarra.
- 54/ Arritu ziran pelotazale, baitare pelotariak, ikusirikan Ketariarrak egindako mirariak. Patrika betez joandako asko ziran utsik etorriak, «Atano'ngana irixteko, orrek nundik ditu alderdiak?» «Pentsatzen eztan lekutik sarri erten izan du erbiak».

- 55/ Apirilla'ren ogeitamarra. Bilbao'k «atozte» dio. Bertan jokatzan da txapelketa, ta or dago pozez jario. Basakatuak ketariarra du gaur bere kontrario, gazteak bere almen guziak gogoz azaldu dizkio, saiatu paltik eztu izan baña zarrarentzat ez balio!
- 56/ Atano trebe ta bizkor dago naiz joan da naiz sakean, berrogei urte badauzka baña utzi berari pakean! Ketariarra zortzi tantokiñ utzi du penaz betean, beste konturik etzan entzuten pelotazale artean: «Orri barkatu bearra zeok oraindik pixka batean!».

## ATANO III'GARRENA TA HARRAMBILLET 1944

- 57/ Mugaz aruztik pelotari bat  
zegoen sasoi betean,  
guzien buru izendatua  
Harrambillet trinketean.  
Ta pelotaren buruzagiak  
alako egun batean,  
erabaki bat or artu zuten  
batzarturik alkartean:  
bi txapeldunak probatu bear  
zirala alkarren artean.
- 58/ Izendatu zan illabetea,  
izendatu zan eguna,  
Bi txapeldunak alkarren aurka  
ikusi bear giñuna.  
Kondizio bat ezarri zuten  
danok gogoan deguna;  
pelota-leku izan zedilla  
frontoi orma ezkerduna,  
munduko buru gelditzen zala  
bertako irabaztuna.
- 59/ Joko-lekutzat autatu zuten  
gure Donosti'ko Gros'a,  
abendua'ren amaseian zan  
bien arteko jolasa.  
Harrambillet'en jokoa etzan  
uste zan bezin eskasa,  
zabal da txoko, atze ta aurre,  
berotuarren arnasa,  
amalau tanto egin zizkion;  
etzan andik gora pasa!
- 60/ Gipuzkoa'ren zeru urdiñean  
izar bat zegoen lo gabe,  
ain dizdilari ta irripartsu  
etzan ikusi beñere.  
Azkoiti berriz pozez gañezka  
milla zoramenen jabe,  
buru makurrez zion munduak:  
«Gorengo mallan zu zaude,  
zeure seme bat gaur egin zaizu  
pelotarien errege».

## ATANO III'GARRENA TA AKARREGI 1946

- 61/ Lekeitio'ko erri polita,  
Bizkai'ko babes kutuna,  
denbora guziz seme jatorrak  
eman izan dizkiguna.  
Pelotarentzat bat sortu digu,  
ez belaxka ta biguna,  
auxen da guri belarritara  
askotxok esan diguna:  
«Andik zetorrek emengo danak  
menderatuko dituna».
- 62/ Egokia ta artarakoa,  
nola ezker da eskubi,  
jo aundia ta sake gogorra;  
azkarreneko anka bi.  
Sasoi aparta, gerri biguna,  
konta eziñ ainbat alderdi,  
makiña batek esaten zuen  
artzaz pozturik geiegi:  
«Oraingo onetan zarrarengatik  
nagusi dek Akarregi!».
- 63/ Urri'ko illaren ogeigarrenez  
bazan Eibar'en jendea,  
ondo neurtu nai baizuten danak  
bakoitzan abildadea.  
Asmo ta uste onak aurretik;  
oker atera ordea,  
joko guzitan gertatzen dana,  
erremerio gabea:  
lekeitiarra ona zegoan,  
Atano, berriz, obea.
- 64/ Atano zarrak bere maixutza  
dotore azaldu zion,  
berrogeitabi urteko batek  
ia noiz egingo dion.  
Artean ere anka bizkorrak,  
baitare berriz bi begi on.  
Bizkaitarrari txalo biziak  
nik pozez jotzen nizkion,  
ogeitabira amasei tanto  
ark beintzat egin zizkion.

## ATANO III'GARRENA TA GALLASTEGI 1948

- 65/ Gazte lerdan bat Eibar aldetik  
zetorren indar aundiko,  
danak apurtuz gora igo zan  
gutziz bulartsu ta tinko.  
Berrogeitalau urte Atano'k,  
bestea berriz sasoiko.  
Ainbeste argi egindakoa  
ez al zan bein itzaliko?  
Jende guziak esan zuena:  
«Jaungoikoa dek betiko!».
- 66/ Azaro illak ogeitazortzi  
egun bere zituela,  
Bergaran'n antxe jokatu ziran  
esanda zegon bezela.  
Pelotazale asko zeuden an  
malkoa zeriotea,  
ikusirikan jator da umill  
Atano'k uzten zuela,  
ogeitaka urtez bere mendean  
eduki zuen txapela.
- 67/ Gallastegi'ren trebetasuna  
an ikusi zan ederki,  
geiago zala azaldu zun da  
zalantzik eziñ eduki;  
sei tantorekin zarra utzita,  
egin zitun ogeitabi,  
ainbat urteko auzi garratza  
orra jator erabaki:  
gaztetasuna goraka dator,  
egin dezaiozun toki!
- 68/ Arrazoi aundiz ongi bete du  
gazteak bere ametsa,  
gaiztoa baita erabilitzen  
urtien pixu traketsa.  
Oiek zapaltzen gaituzte danok,  
auxen da komeri beltza;  
Atano'k ola dio Migel'i:  
«Eldu da zure jabetza.  
Esku onetan uzten det eta  
tori nere erregetza».
- 69/ Poztu gaur, Eibar, poztu, Azkoiti,  
on baita gogoraztea  
biori nola gerta zaizuten  
seme on oiek aztea.  
Bertso gozotan zoriontzen ditut  
bata bezela bestea.  
Urte askoan naiko nuke nik  
osasuntsu ikustea,  
len izan degun txapeldun zarra  
ta orain daukagun gaztea.

## ATANO'REN IZAKERA ZER DAN

70/ Goizean jeiki ta ibili bat  
ingurutako menditan,  
bere orduan otordu danak  
ta dagokien neurritan;  
Gizon oberik ezta egongo  
beste bat Euskal Erritan.  
Arrokerizko txinpartik ezta  
arkitzen bere begitan,  
arpegi emateko lotsetan  
ikusten degu sarritan.

71/ Jaunak emanik emazte on bat  
bere lagun atsegiña,  
alaba bi ta seme bakar bat;  
gutziz irukote fiña!  
Eun da berrogei kanaiorekiñ  
izaten du zer egiña,  
egazti sail bat ere badauka  
arrautz egiten dakiña...  
Ola bizi da ezagutu dan  
pelotaririk aundiña.

72/ Zeru egaztiz inguratuta  
aiek dauzkatzu kantuko,  
egun argitzez zu alaitzea  
ez dezu gaizki artuko.  
*Txio* fiñ aiek, zure biotza  
nola ez dute poztuko?  
Txori ta kristau, zugan daukagun  
maitasunik ez oztuko,  
gure Gipuzku zoragarriak  
iñoiz etzaitu aztuko!

### *Bukaera*

73/ Luza nazkitzu zure eskuak  
estutu ditzadan bero,  
oroipen ori izan dezadan  
beti, oraiñ eta gero!  
Goitar Jaunari, otoiz berotan,  
eskatzen diot gabero:  
komeni bada, zu zorionez  
gañeztatzeko zearo,  
osasun onez gure artean  
gorde zaitzala luzaro.

## IZASKUN'GO AMA

- 1/ Biotz gureko Tolosa zarra  
orra apaindurik argiz,  
Ernio'tikan Uzturre'raño  
danak egiten du diz-diz.  
Ta tolosarren lanak neurtzeko  
ez daukat bear ainbat itz,  
Ama maite bat eskertu nai-ta  
asmatu eziñik dabiltz.
- 2/ Emakumeak beren salletan,  
bestetik gizon-taldeak,  
Amaren larre eztitsu ortan  
jan nai duten artaldeak.  
Gau ta egunezko zer egiña du  
gaur Tolosa'ko jendeak,  
eziñ ordainduz Birjiñagandik  
lortutako mesedeak.
- 3/ Ikusten dezu, Ama laztana,  
gogoz maite zaituztela,  
ezaugarritzat koroi eder bat  
ezarri nai dizutela.  
Tolosar onak magal goxo ortan  
gozatu nai lutekela;  
aurrerantz ere lagun zaiezu  
orain artean bezela.
- 4/ Tolosa'k daukan alderdi ona  
ez daukate ainbat errik:  
Ama berekin duten semeak  
ez dira bizi bakarrik.  
Ta... zerutarra izan ezkeru,  
ez dago esan bearrik,  
Bera laguntzat duten artean  
ez dute ezeren beldurrik.
- 5/ Agorrillaren amaikarekin  
datorkigun zoramena,  
Eleiz Amaren agintariak  
gure lurrean barrena.  
Ama Izaskun'en buruzkundera,  
Birjiñaren goralpena,  
Tolosa'k ezagutu duenik  
egunik pozgarriena.
- 6/ Urkizu, Kue, ta zuk, Uzturre,  
makurtu zuen buruak,  
gallurrik gallur Izaskun'era  
egan datoz aingeruak.  
Poztu, Tolosa, jeiki, guziok,  
azaldu esker beruak;  
berdingabeko zuen jai ortan  
jai egingo du zeruak.<sup>1</sup>

---


1. *La Voz de España*, 1949-IX-11.  
*Izaskun*, Tolosa'ko errebista.  
*Laugarren txinpartak*, *Auspoa* 55, 1966.



## UDAZKENA

- 1/ Udararen zai pozik geundenak  
gero naigabetan josi,  
egin dituen kalteak eziñ  
bertsotan adierazi.  
Biotz gogorra agertu zaigu,  
ez du eskerrik merezi;  
pardela artuta, agur egiñaz,  
ortxen dijoa igesi.
- 2/ Au da berari nekazariak  
aurrez esan diotena:  
«Lenago alai geunden txokotan  
sortu dezu milla pena.  
Zuk eman dezu eman diteken  
zigorkarik gogorrena,  
zu baño ohea izango al da  
zure urren datorrena!».
- 3/ Ondartzak ere bakandu dira,  
len bai beteak zirala!  
Bakoitza bere sallera doiaz  
tren zarrak eraman ala.  
Ikusten degu arto-soroak  
urre-kolorez dirala,  
onetxek garbi erakusten du  
udazkenean generala.
- 4/ Esan bezela, udara gendun  
aiñ maltzur eta traketsa,  
orretxek bota digu lurpera  
udaberriko ametsa.  
Bakoitzak bere soroetara  
begia luzatu beza,  
aurten ganbarak ondo betetzen  
ez daukagu lan erreza!
- 5/ Orain elduko zaizkigu ongi  
ditugun gauza txamarrak,  
arto-babarrun, intxaur da gaztain,  
pikoak eta sagarrak.  
Beren lanetan asiak daude  
gogotsu tolare zarrak,  
penak azteko edan ditzagun  
lendabiziko pitarrak.
- 6/ Ai, udazkenak zer burutapen  
dakarren nere gogora!  
Zugaitz guziak soilduko dira,  
joan baizan beren denbora!  
Osto igarrak jausiko dira  
jeikiko ez diran zulora,  
gure bizitzen udazkena're  
olaxen etorriko da.

*La Voz de España, 1949-9-18.  
Laugarren txinpartak, Auspoa 55, 1966.*



Uztapide eta Basarri.



Ezkerretetik: Lazkao Txiki, Uztapide, Mattin eta Basarri.

## AMERIKARA DIJOAN LAGUN BATI

- 1/ O, nere lagun biotzekoa,  
bertso auek gogoz entzun,  
jakin berri naiz bat-batetan zuk  
zer asmo artu dituzun;  
lengo batean, meza ondoren,  
zedorrek esan zidazun...  
Etzindazuke sinistatuko  
zer pena eman didazun.
- 2/ Malko tontorrak datozkit sendo,  
ain naiz bigun da makala!  
Ikusten baitut lagun onena  
oraintxen galtzen dedala.  
Gu bion tarte gelditzen zaigu  
itxaso aundi, zabala,  
iruditzen zait azken aldiz gaur  
besarkatutzen gerala.
- 3/ Iñoiz ez gera aldendu biok  
beñ eskolatik asita;  
bion artean gorputz bat giñan  
bakarka eziñ bizita.  
Zure begiak gelditu dira  
Europarentzat itxita,  
aiñ urrutira nolatan zuaz  
gu era ontan utzita?
- 4/ Emengo mendi, zelai, sagasti,  
ta kale xarren itxura,  
jaiotetxe ta anai-arrebak  
ta emengo milla oitura...  
ta batez ere zu azitako  
ama goxo, xamur ura,  
amaika bider etorri bear  
zaizkitzu danak burura.
- 5/ Eleiz batean sartuak giñan  
biok kristau egitera,  
gero alkarri esku emanda  
biok eskola batera.  
Maite dituzun adiskide ta  
jaio ziñan erri bera,  
andik gogoan izan gaitzazun  
emen geldituko gera.
- 6/ Agur, lagun on, extimagarri,  
apaltasunez betea;  
ontzia txistuz asi zaizu ta  
komeni zaizu joatea!  
Gerta liteke bion arteko  
azken itzak izatea,  
zeru-lurretan egin dedilla  
Jaunaren borondatea.

*La Voz de España, 1949-X-2.  
Basarri' ren bertso sorta, Zarautz, 1950.*

## ARRANTZALEAK

- 1/ Arrantzaleak gaur kanturako  
bidea jartzen didate,  
ez nago lasai beren izena  
goi-mallan ezarri arte.  
Beren ogia irabazteko  
zer guruzpide daukate!  
Zuentzat beti arrixku beltza,  
zuentzat beti gerrate...  
Ala gertatzen ezpada ere  
maitatzekoak zerate.
- 2/ Itxasoaren aserraldiak  
bai aserraldi sakonak!  
Ongi daki au urte askoan  
an ibilita dagonak.  
Burruka ortan beti galera  
aterako du gizonak,  
asko mindutzen bagaitu ere  
orain auzoaren onak,  
ondo kostata irabaziak  
oi dira zuen txanponak.
- 3/ Kantauri zarra jartzen danean  
kopet astun eta aserrez,  
kristauak aixa iraultzen ditu  
bere olatu zakarrez.  
Gero sutondo jator askotan  
samintasunak indarrez,  
galdu zaioten aita maitea  
gogora ekarri bearrez,  
zenbat famili ikusten dira  
beltzez jantzita negarrez!
- 4/ Maindire zuri biguñak utzi  
eta goizean txit goizik,  
otar bana ta parolarekin  
ontzira doiaz ankutsik;  
ezta supritzen ez duten euri,  
aize bolara ta otxik,  
ainbat nekeren ondorenean  
sarritan etxera utsik,  
arrantzalea maite eztuanak  
eztu izango biotzik!
- 5/ Boga, bai, boga, mariñel onak,  
boga, itxas bazterrean,  
aurrerantz ere jarraitu zuek  
lengo era jatorrean,  
Ama Birjiña bitartekotzat,  
zuen oitura zarrean.  
Arrai prexkoen itxaropenez  
zai gaudenak legorrean,  
txapela erantzi bear genduke  
arrantzalien aurrean.

*Gernika, 1949, XII.  
La Voz de España, 1949-IX-25.  
Basarriren bertso-sorta, Zarautz, 1950.*

## ATOMIKA

- 1/ Beldurgarrizko aurrerapenak  
ditugula an da emen,  
nik pentsatzen dut sekula baño  
atzerago ote gauden.  
Erruki danak uxatu ziran,  
indartsuena gogorren.  
Dana txikitu, erre, kixkali,  
arnasik artu baño len...  
Gaurko gizonen jakinduria  
orra zertara datorren!
  
- 2/ Mundu guzian jabetu dira  
laño beltz, astun, illunak,  
gizonak gera ezaguerarik  
gutxin-gutxien degunak.  
Alkar iltzeko sortu al dira  
olako asmakizunak?  
Bestela ere aín kontatuak  
dira lurreko egunak,  
bere garaian kenduko digu  
arnasa eman zigunak.

*La Voz de España, 1949-X-9.  
Basarri'ren bertso sorta, Zarautz, 1950.*

## ETXEKOAK NAGUSI

- 1/ Kataluñatik zetozen deiak  
gutziz taju ederretan,  
ango ta emengo probatu bear  
ote ziran indarretan.  
Auntzak oituak egoten dira  
arkaitz toki zakarretan,  
euskaldunari utzi pakean  
arri jasotze orretan.
  
- 2/ Gaur Barzelonan zuen izena  
guziak autan daukate,  
zuen berririkan etzekiten  
ikusi zaituzten arte.  
Bere lagunak ondorengo ta  
txapeldun degu Soarte,  
denon zorion beroak artu,  
bapo portatu zerate!
  
- 3/ Gerri trinkoak, beso sendoak,  
kargaren zale bizkarra,  
millaka kilo dantzan jartzeko  
betik gorako azkarra.  
Atzo *Ur-Kirolak* eta gaur zuek  
au da irabazi bearra!  
Nola erabili jakin ezkeru  
bazeok emen indarra!

*La Voz de España*, 1949-X-16.

## BERNARDA PATON

- 1/ Ciudad Real'ko berriak ere  
etortzen zaizkit etxera,  
amonatxon bat bizitzen zan an  
aztutakoen antzera.  
Min-bizi txarra sortu eskuan  
eta artatik sendatzera,  
eun da amasei urte beteta  
joana da operatzera.
  
- 2/ Plumazko gizon azkarrak ere  
bildu zaizka bereala,  
esanaz bere gazte denboran  
atzera bizi zirala.  
Gaurko egazkiñ, zine, radio,  
bizi izatea au dala,  
bañan amonak erantzun die  
sorginkeriak dirala.
  
- 3/ Gaurko mundua, geure iritziz,  
paradisotzat daukagu,  
apainduri ta aurrerapenak  
ain gogozkoak ditugu.  
Oiek ondoren zer dakarkiten  
gerretan ikusten degu,  
atzeratunak zeññ ote gaude:  
amonatxoa edo gu?

*La Voz de España, 1949-X-16.*

## EIZTARIAK

- 1/ Egoaizeak aurten indar  
zuen bazterretan,  
amaikak esaten zuen:  
«Segi zak orretan».  
Beren oiak utzita  
neke gogorretan,  
eiztariak or zebiltzan  
mendi-tontorretan.
- 2/ Gaberdirako iyorik  
tokiak artzera,  
beste bat antxe dijoa  
bertan gordetzera.  
«Ni naiz emen lenengoa,  
zu ñor etzera».  
Burrukaldi bat eginda  
sarritan etxera.
- 3/ «Mendira emanagatik  
makiña bat pauso,  
Pello, aurten ez dakarkik  
ñoiz ainbat uso».  
Erantzuna or eman dit  
zakarturik oso:  
«Nik bota dizkiat baña  
beste batzuk jaso».
- 4/ Bakoitzak agertu beza  
nai ainbat iritzi,  
nereari ez ñortxok  
belarririk itxi:  
Usoak ez dute aurten  
probetxurik utzi;  
paseak asko dira,  
geldituak gutxi.
- 5/ Erriko lagun onena  
Pello ori det nik,  
egunero ortxen dabil  
mendira juanik.  
Ez det uste «mustrarako»  
bat bota duanik;  
orrek ekarriak jaten  
ez daudagu lanik.

*La Voz de España, 1949-X-30.  
Lagarren txinpartak, Auspoa 55, 1966.*



## EGAZKIÑAK

Egazkin batek Albardia mendia jo zuan Azores ugarteetan, 1949'ko urriaren 28'an, goizeko lauretan, eta dana zirtzillatuta gelditu zan. Bertan zijoazen guziak, berrogei ta zortzi lagun, il ziran.

- 1/ Azores alde orretan  
oraingo naspillak,  
negargarrizkoak dira  
ango berri pillak:  
ezin pasaturik ondo  
gallurreko maillak,  
berroi ta zortzi kristau  
badirala illak.
- 2/ Jendea jarria dago  
orain goiko bidez,  
beko trasteak utzita  
lañotara iges.  
Txori onak baña egan  
ez dakite legez,  
aurrerapen asko baño  
segurantzirik ez.

- 3/ Orra sarritan goi orrek  
zer arrisku duan,  
azkar ibiltzeagatik  
ez nolanai juan.  
Azores'en il diranak  
esan dan moduan,  
Jaun onak artu ditzala  
bere inguruan.

- 4/ Ezin piatu liteke,  
jaunak, egazkiñez,  
berri txar oiek betetzen  
gaituzte gu miñez.  
Bide luzen bat ezpada  
jarrai zagun oiñez,  
bestela tren zar abetan  
balantzak egiñez.

*La Voz de España, 1949-XI-2.*

## AITON BATEN ESANAK

- 1/ Añ maite dedan aiton batekin,  
sarritan ditut tratuak,  
larogei urte ditu oraintxe  
beregán inguratuak;  
lengo batean, kalez-kale gu,  
biok besotik lotuak,  
urte gutxian aldakuntz asko  
nola baigauden artuak,  
bertsotan jarri nai dizkitzutet  
esan zizkidan kontuak.
- 2/ Gazte maitea –esaten zidan–  
gauzak bai oker daudela!  
Gu sasoikoak giñan denboran  
etziran beintzat onela.  
Aundikeri ta lujoko griñak  
gaur bai indar daukatela!  
Ekaitz gogorrek gure soroak  
galtzen dituen bezela,  
sinista zazu emakumeak  
galdu bear gaituztela.
- 3/ «Bañan aitona, ainbat pekatu  
al du emakumezkoak?»  
«Bai, gazte maite, oien jokerak  
etzira itxurazkoak.  
Berak printzesak bezela jantzi;  
zikiñ etxeko zokoak,  
lanari uzkur, baña festara  
azkar aldatu zankoak.  
Gipuzkoa'ko lengo alabak  
etziran orrelakoak.
- 4/ Gaur ille beltza baldin badute,  
biar oria buruan;  
ezpañak eta azkazal gañak  
piper autsaren moduan.  
Usai gozorik entzungo dezu  
pasatuz beren ondun;  
gazteak pentsa bear luteke  
garai datorren orduan,  
orrelako bat lagun artuta  
zer etorkizun dagan.
- 5/ Nobelak ondo irakurrita  
gabez zinetara irten,  
guraso zarrak negar egiñez  
sutondoan itxogiten.  
Beren izkuntza bajutzat bota  
ta... beste bat itzegiten.  
Noizbait ezkondu; ta... asitakoan  
etxeko lanak egiten,  
sua nolatan pizten dan ere  
askok ez dute jakiten.
- 6/ Musu, betazal da gañontzeko  
margo ta autsez beteak,  
apainduri ta lujoz aberats,  
jatordutan arloteak.  
Etxean falta izaten dira  
kanpoan errez boteak;  
zorigaitzeko aundinai orrek  
ekarri ditun kalteak.  
Egun onenak ikusi zitun  
gure Gipuzku maiteak!

*La Voz de España, 1949-XI-6.  
Basarri'ren bertso sorta, Zarautz, 1950.  
Anaitasuna, Zarautz, 1955-VI.*

## PEDRO MARIA OTAÑO

- 1/ O, Zizurkil'ko izar argia,  
gaur nator zure gorantzán,  
zauden tokitik neri entzuten  
ote zauden esperantzán;  
zure mingaña bezin iaierik  
garai artan emen etzan,  
etxe ta kanpo zure ametsa  
jakiñekoa izaten zan...  
Lorerik mardulena zu ziñan  
bertsolarien baratzan.
- 2/ Badakit ainbat urte itxasoz  
aruztik egin ziñula,  
zure ezurak Amerika'ko  
Pampa zabalak ditula.  
Zure gogoa etzan emendik  
iñora aldatu sekula,  
Zure bertsoen usai gozoa  
bai indartsu ta mardula!  
Jaio ziñan lur bedeinkatua  
bai gogoz maite zendula!
- 3/ O, Pedro Mari, zure bertsoak,  
urrezko letretan daude,  
ta irakurtzen ari geranak  
ezti miasketan gaude.  
Biotz osoa agertzen dezu zuk,  
etzenduan ezer gorde,  
atseden gabe lan egiteko  
gure izkuntzaren alde...  
Ai, Europa ta Amerikan gaur  
Otaño asko baleude!
- 4/ Zutiñik daude baserri txuri,  
soro, zelai, baso, mendik...  
Errekatxo ta ibaiak berdin,  
aldakuntza gabetandik.  
O, Pedro Mari, au zorigaitza!  
Gauz bat atzendu da lendik;  
beldur naiz baña ez al da, noski,  
ezkutatuko gugandik...  
Zuk ain kutuna zendun izkuntzak  
arnasa badu oraindik.
- 5/ Beti-betiko atsedenean  
zu goxoki egon zaite,  
zure aginduk gogoan daude  
ta badago zeñek bete.  
Asmo bizi ta zaletasuna  
gaur ainbat gaztek daukate,  
zuk botatako sustrai sendoak  
kimu bikaña dakarte,  
zure bidetik jarraiko degu  
Jaungoikoak nai dun arte.

*La Voz de España, 1949-XI-13.  
Basarri'ren bertso sorta, Zarautz, 1950.*

## ABREGO'REN OMENALDIA

- 1/ Egun aundi bat gañean dezu,  
aurrez asi da ditzira,  
pelotazale guziak daude  
Iruña alderuntz begira.  
Gazte-gazterik eskeñi ziñan  
euskaldun joko garbira,  
gure pelota zuk jaso dezu  
merezi zuen tokira.
- 2/ Zure xestoak badu berekiñ  
berezitasun aparta,  
ainbat urtean beste guzien  
gañetik agertzen da-ta.  
Zeu berriz bildots apal bat zera  
ainbat burruka joka-ta,  
mundu guziak maitatzen zaitu,  
maitagarria zera-ta!
- 3/ Poztu pelota ta pelotari,  
gaur Jexux'en inguruan,  
zalla da neurtzen guzien onez  
onek zer lan egin duan.  
Zeru-lurretan gu danontzako  
Jabe bat dagon moduan,  
sinistu gero Abrego ere  
bakarra dala munduan.
- 4/ Merezi dezun omenaldia  
ortxen doiiaz egitera,  
Iruña berriz apain jantzita  
zuri laztan ematera;  
gure esker onak egan joan nai du  
nolabait zuen artera...  
Gorputzez ezin degunak ere  
gogoz or izango gera.
- 5/ Jaun zerukoa, otoizka nator  
entzungo didazulako:  
esker beroak izar argi au  
munduratu zendulako.  
Gure artean nai genduke guk,  
bere premiz gaudelako,  
urte askotan gorde zaiguzu  
pelotaren onerako!

*La Voz de España, 1949-XI-27.  
Basarri'ren bertso sorta, Zarautz, 1950.*

## TXISTULARIAK

- 1/ Egun-urratzez kantari dauden  
txoritxoak nork ez maite,  
bizi-pozaren alaitasuna  
adierazten badute?  
Euskalerriko txistulariak  
doai berdiña daukate,  
zuen doñuak belarritara  
zeru-lurruna dakarte,  
gure erritxoen esnatzallerik  
onenak zuek zerate.
  
- 2/ Entzun dedilla gure errietan  
ta berdin mendi-gañetan,  
jolastu bedi gaztedi dana  
dantza-soñu ariñetan.  
Biarkoari begiratuaz  
norbait utzi ordañetan,  
ta txistuari kontu egiten  
saiatu alegiñetan,  
arnaspiderik dezuten arte  
erabili ezpañetan.

*La Voz de España, 1949-XII-4.  
Lagarren txinpartak, Auspoa 55, 1966.*

## BAKOITZARI BERA

1950'garren urteko Maiatzaren 3'an, Españaiko Aizkolari-Txapelketa jokatu zan Donostia'ko zezen-plazan. Txapel-dun, Martin Gartziarena gertatu zan. Bigarren, Baleztena. Bi naparrak nagusi. Oien atzetik, Korta ta Arriya, gipuzkoarrak. Basarrik bertso auk biribildu zituau:

1/ Joan dan igandez, napar anaiak,  
Donostiratu ziñaten,  
bai saiatu're Gipuzkoako  
sari danak eramaten.  
Ikusten det nik Leitzalde ortan  
zein pozez bizi zeraten,  
era ontako semerik eztu  
edozein errik ematen.

2/ Aundi ta txiki mendean ditu  
zuen artzai mutikoak,  
au batez ori aitortzen dute  
ezaguera garbikoak.  
Martíñen sonak izan ditezen  
txit iraupen aundikoak,  
oraintxen daukan osasun ori  
gorde deiola Jainkoak.

3/ Orren gerri ta beso sendoak  
gaur bai sasoi daukatela,  
esan liteke nekea zer dan  
ezagutzen ez dutela.  
Petxua berriz azken lanetan  
asieran zan bezela,  
ongi merezi dunak jantzi du  
aizkolarien txapela.

4/ Makiña bati gustatu zaio  
zuen gazte lerden ori,  
kontra zertako egingo zaio  
askoz geiago danari?  
Lan danak bixtan dauden ezkerero  
berriketan zertan ari?  
Jaunak ortako emana da-ta,  
toki gaztetasunari!

5/ Aizkorarako ez daukazute  
oso jokera baldarra,  
pentsatzen jarri ta... ura bazan  
egurra moztu bearra!  
Bazter guzitan ondo zekiten  
ona zegola naparra,  
bi lenengoak orkoak ziran,  
etzendukaten bakarra!

6/ Korta ta Arriya izanagatik  
guztiz bikote trebea,  
urtien karga astuna da-ta  
gaur zuek jende obea.  
Gipuzkoako gizatasuna  
nunai mantxarrik gabea,  
emen geiago danari beti  
ematen zaio berea.

*La Voz de España, 1950-III-14.  
Laugarren txinpartak, Auspoa 55, 1966.*

## GURE BASERRIAK

(Doiñua: «Ikusten duzu goizean...»)

- 1/ Orra or goien mendia,  
maldan etxe ataria,  
aurrez-aurre belardia,  
intxaur aundi bik dagoitela  
kerizpe zoragarria;  
gure sustrai, jatorria,  
pake ta atseden-tokia,  
orixen da baserria!
- 2/ Orra or zutik zugatzak,  
bei maindire aberatsak,  
etzeuzkatek oi narratsak;  
sukal barruan zintzilik zeudek  
txerri sendoaren ertzak,  
esnez gañezturik pertzak,  
jaki goxotan laratzak...  
Toki ohea billa zak!
- 3/ Gure ukullu zarrean,  
ganaduak ausnarrean,  
gozotasun ederrean;  
ganbaran berriz arto-babarrun  
igazkotatik sobrean,  
ta berriak indarrean  
or zetozkiguk lurrean...  
Ez gaituk zoritxarrean!
- 4/ Mendi erpiñak batetik,  
baso itzalak bestetik,  
zoriona emen det nik.  
Errekatxo bat marmarioka  
etxean azpikaldetik,  
semeak azten gogotik,  
laister laguntza nunaitik,  
poz alde guzietatik!
- 5/ Gaur txit langiro izanda,  
danok soroan giñan da,  
jorrrak atzera zeuden da;  
ganadu danak bazkatu ondo,  
ta kendu esne zerrenda,  
oraiñ aparia janda,  
kontu ohea etzanda,  
errosaioa esanda!
- 6/ Kaleak onak dira, bai,  
bizi liteke an alai,  
milla jolaspide nunai!  
Ta ni mendiko bakardadean,  
nekazari edo artzai,  
emen bizitzen naiz lasai,  
beian ez egon nere zai,  
ez det beste tokirik nai!

*Aurrezki Kutxa Probintzialak argitaratutako  
bertso-papera.  
Basarri'ren bertso sorta, Zarautz, 1950.*

## ITXAS-ERTZETAKO KONTUAK

- 1/ Kantari nator anai arrebak,  
oitua bainaiz ongi len,  
ta *Gernika*'ren<sup>1</sup> zuzendariak  
onetxen zale baiziren.  
Bertso batzutan azaldu nai det  
al nezakenik garbien,  
Euskalerriko itsas-ertzetan  
jendea nola dabillen.
- 2/ Zoaz ondartzat batera gaur da  
zaude bertan une baten,  
zure begiei lan pixkat eman  
zerbait ikusi dezaten.  
Ondorenean ni bezelaxe  
asiko zera esaten,  
oso xamurra ez tala oraiñ  
kristau zuzenak izaten.
- 3/ Orra neskatxa jostalariak  
ildako griñak pizteko,  
oial bearrik apenas duten  
beren gorputzak jazteko.  
Berak bakarrik naikoa dira  
zuzentxoena nasteko,  
ezpaitaukate kezka ta lotsik  
dutena erakusteko.
- 4/ Emakumeak nola baitauden  
zabarkerira emanak,  
arrixku bide aunditan gabiltz  
gu, gizonezko geranak.  
Bixtara azaltzen badizkitzute  
gordean bear diranak,  
zirikaldia seguru dauka  
marmolezkoa ez danak.
- 5/ Billuzkeria maite dun batek  
geiago eziñ eskatu,  
ortik aurrera bide askoan  
ezin leike arrixkatu.  
Argi daudenak itxutzen dira,  
lotan daudenak esnatu;  
gizonezkoak inguratzeko  
ez dakite zer asmatu.
- 6/ Gaur eguneko emakumeak  
zer asmo klase dakarte?  
Dituzten sallah erakusteko  
zaletasuna daukate.  
Billuzkeria gauz zatarra da,  
orretan oker zaudete;  
neurri batean errendituta  
ederragoak zerate.
- 7/ Lenen gizonak ikusi zuten  
estalia bear zala,  
ardi larruen bolara joanda  
sortu ziguten oiala.  
Frutu guziak ere or dute  
beren ostoen itzala,  
zuek ibili nai al dezute  
amak eginda bezala?
- 8/ Gaur gaztetasun osoan eta  
biar bagoaz gainbera,  
zerbait gerala uste degu ta  
utsaren urrengo gera.  
Naiz eta orain dituzutenak  
bixtara pozik atera,  
etzerate aiñ arro izango  
emendik ogei urtera.



9/ Gorputza baldar, illeak zuri,  
alde guzitik galeran,  
garai bateko eguzki printzak  
illunpetako sarreran,  
Iñork ez digu begiratuko  
jarri arren lengo eran,  
ontatik pentsa bear genduke  
arrotzeko gu zer geran.

*Basarri'ren bertso sorta*, Zarautz, 1950.  
*Zeruko Argia*, 1963-XII-28.

---

1. Bayona'ko errebista baten izena.

## MOSKORKERIA

- 1/ Urte gutxian jarri gera gu  
biurrikeriz beteak,  
edari bidez askok dauzkate  
lotsa guziak botoak.  
Gero ondorenak izaten dira  
negargarri ta tristeak,  
bertsoen bidez ikus ditzagun,  
o aberkide maiteak!  
moskorkeriak gure lurrean  
egiten ditun kalteak.
- 2/ Ordu batzutan purrukatzen du  
aste guziko eltxorra,  
beti egarriz nola baitagon  
bustitzea derriorra.  
Ankak narrastu, burua galdu,  
oiuz mingaiñ ustelkorra;  
iñork ematen dion artean  
nunai utziko du zorra...  
Etxe ta errien ondagarria,  
ori da gizon moskorra!
- 3/ Moskorrak eztu gauz onerako  
iñoiz izaten denborik,  
edaria du bere maitea,  
ezta arentzat alakorik!  
Familiako guraso bada,  
zer dezu makurragorik?  
Ez izan andik ondoren onik  
aterako dan asmorik,  
gaitzak jotako zugaitzak eztu  
emango frutu preskorik.
- 4/ Gazte artean zer gertatzen dan  
esan liteke txit xamur:  
alkar arrotzen dute bapo ta  
lengo kezka danak agur!  
Tragoxka batzuk edan ezker  
eziñ egon buru-makur...  
Lenago gizon egin gabeak  
or biurtzen zaizkigu aur,  
arrokerizko afanez ere  
asko moskortzen dira gaur.
- 5/ Izketa txarrak, birau zikiñak,  
indar artzen dute gogor;  
oitura txarrak jabetzen dira  
uste gabe, emen da or.  
Etxe goseak pakerik eztu,  
an iñor eztabil jator!  
Itzal guziak galdu ezker  
griña txar danak saltakor,  
sukalde askotako negarra  
sarritan ontatik dator.
- 6/ Bearrezko da ta argatik dauka  
Jaunak guretzat jarria,  
zentzudun batek eztu esango  
txarra danik edaria.  
Orretzek ase bear du beti  
gizonaren egarría,  
gorputzari ez ukatu baña  
artu deiogun neurria,  
gañezka ibili bear badegu  
galdu zan Euskalerría!

*Basarri'ren bertso sorta, Zarautz, 1950.*

## NEKAZARIA

- 1/ Zugana nator, nekazaria,  
zugana, maitasunean,  
zu ainbat maite dedanik inor  
ezpaidut mundu danean.  
Zure neke ta langintza danak  
lur pixuaren gañean,  
zeñek goraldu ote zinduzke  
merezi dezun añean?
- 2/ Jaio ta laister eskeñi ziñan  
osorik lurrarengana,  
etenik gabe geroztik beti  
bertan egin dezu lana;  
lurretik dala gure izakera,  
lurretik gure zer jana,  
amaika buru arro badago  
ori aztutzen duana.
- 3/ Arto-babarrun da gañontzeko  
zure lanaren saria,  
guziak landu bear dituna  
nola dan nekazaria;  
zure izerdien emaitz bezela  
dator, baitare, garia,  
gero artatik moldatzen dute  
eguneroko ogia.
- 4/ Lur gogor orrek auldu dizkitzu  
lengo sasoi ta kemenak,  
etengabeko burruka ortan  
galdu dituzu almenak.  
Puruak erre ta kopak ustu,  
lotsagabe zar alenak!,  
zugatik gaizki mintzatzen dira  
kafetetxetan daudenak.
- 5/ Inoiz ez dute lurrik irauli,  
ez izerdirik atera,  
alare gertu itzegiteko  
nekazarien kaltera.  
Oiek bezela utzi ezkero  
lur-lanak alde batera,  
besterik ezta laister giñake  
gizonak alkar jatera.
- 6/ Zure besoak premizko dira  
darabizkitzun lurretan,  
gaur soro-baratz diran sail oiek  
ez biurtzeko larretan;  
egindakoak ezkutatzeko  
ez gaude urte txarretan,  
lau inozori ez kaso egin;  
zuk jarrai zazu orretan!
- 7/ Bizkar tentea kakotu zaizu,  
arpegi dana zimurtu,  
indarrak beti gutxitzen eta  
lanik ezpaita samurtu;  
al dezun arte or ari zera  
emen laitu, an atxurtu,  
ori dakigun asko gaude ta  
etzaitezela beldurtu!
- 8/ Egun argitzez, txoriak kantuz,  
zuk ekiteko lanketan,  
eguzkiaren lenengo printzak  
maite zaituzte benetan;  
bere sorkera ikusten dezu  
datorren egun danetan,  
zu bezin gizon txalogarririk  
ez dago mundu onetan.

*Basarri'ren bertso sorta, Zarautz, 1950.*

## ARANTZAZU!

- 1/ Arantzazu'ko gallur santua,  
gallur guzien gallurra!  
Ostatuz bertan an baitaukagu  
gure Amatxo xamurra.
- 2/ Zeiñ izan leiken, ene kristauak,  
Arantzazu'ko elorri,  
ta egun batez etorri zana  
bere gañera etorri!
- 3/ Neketsu, latza, ala bearrik,  
Arantzazu'ko bidea,  
neke guzien aztugarria  
an arkitzen da ordea.
- 4/ Gure erriaren «zeru zatia»  
Aloñagañean dago;  
mundu lokatzak eztu sarrerik,  
nun liteke garbiago?
- 5/ Ixpillu danen ixpillua ta  
argi guzien argia,  
gure erriaren zuzendaritza  
an dago gogoz jarria.
- 6/ Arantz guzitan arantz onena  
Aloña'n aukeratua,  
ta liriorik usaintsuena  
gerri artan loratua.
- 7/ Gure Amatxo an azaltzeak  
eztu esan nai au baizik:  
«Beko bizitza labur onetan  
ezta paltako arantzik».
- 8/ Mundu olatu aserre, beltzak,  
mendera nai gaitunean,  
eska laguntza; oroitu norbait  
degula Aloña gañean.
- 9/ Oroitu utsetan au pozaldia  
gutzaz jabetzen zaiguna,  
Jaungoikoaren Ama baitegu  
Arantzazu'n daukaguna.
- 10/ Arantzazu'ko gallur santua,  
gallur guzien gallurra!  
Ostatuz bertan an baitaukagu  
gure amatxo xamurra.

*Basarri'ren bertso sorta, Zarautz, 1950.*

## ATZERRIKO BIZITZA

- 1/ Zeiñ ederra dan, nere anaiak,  
nor bere etxeko epela,  
sinistu gero probatu duen  
batek esaten duela.  
Ongi dakigu txoria egan  
noranai asi leikela,  
baña bestetan ezin gozatu  
bere kabian bezela.
- 2/ Joan da lenengoz arkitzen dezu  
izketan taju berria,  
zer esaten dan arrastorik ez;  
ez al da kixkalgarría?  
Mesede baten premiz bazera  
zeñi egin eskaria?  
Laztasun bidez irabazten da  
aoratzen dan ogia.
- 3/ Ogei balio baldin badu an  
zuk egiten dezun lanak,  
amarrez gora eztu pagatzen  
buru egiten duanak.  
Egin bearco dituzu sarri  
bestek nai ez dituanak,  
alare ixilik egon bear du  
atzerrian dagoanak.
- 4/ Gaizki esaka noiznai asten da  
edozeiñ ume mukitzu,  
berorik iñoiz jan ez dezula  
aguro esango dizu.  
Aien ogia galeraztera  
aruntz joana zaudela zu...  
Biotz aundiko bazera ere  
an bearra izango dezu.
- 5/ Dana ezberdiñ, nola lanketa,  
oitura eta janari,  
adiskiderik ez daukazu ta  
eziñ itzegin iñori.  
Amets betean begira zaude  
utzitako sail onari,  
aldapa latza egiten zaio  
emen oitua danari.
- 6/ Ikusi dunak itzegiten du,  
auek ez dira gezurrak!  
Neure kabian goza nai ditut  
lurreko urte laburrak.  
Ainbeste toki izaten badu  
jaio nintzan eusko lurrak,  
iñora gabe bertan utzi nai  
nituzke neure ezurrak.

*Basarri'ren bertso sorta, Zarautz, 1950.  
Gernika, I-III, 1951.*

## EUSKALERRIA ITXUSTEN

- 1/ Seme on danak amaren moldez  
beti oroituko dira,  
zimur berriak ikusiz nola  
datozkion arpegira.  
Sarri nago ni mingotz alditan  
sorterriari begira,  
gure Euskalerra kutun, laztana,  
itxusten gogor ari da.
- 2/ Gure lurretan len xamurra zan  
gozatzea kerizpean,  
garai artako patxarak oraiñ  
zeñek artu lezazkean!  
Negar malkoak datozkit sendo  
egun bat eta bestean,  
euskal mendien burusoilketa  
ain nabarmen ikustean.
- 3/ Garai bateko zuaitz ederrak  
itzala zuten lekuko,  
euskaldun dena nola etzaigu  
aietzaz gogoratuko?  
Aurreko zarrak piztu baleizke,  
ez ote bertan lertuko?  
Beren lurralde berdingabea  
ez luteke ezagutuko.
- 4/ Aberastasun aunditxoena  
beingo ezkutatua da,  
burusoildurik arkitzen dira  
nola ordeka ta malda.  
Onek zer kalte dakarren onuntz  
ikusten dunik ez al da?  
Tontor aundiak berdintzen dira  
kendu ta jartzen ezpada.
- 5/ Arraiak ura nai luke beti  
inguru-aldamenetan,  
larrerik ez dun artzaia iñoiz  
ez dago bere onetan.  
Begiratuta zuaitzak giñun  
lenago bazter danetan,  
aiek gabeko Euskalerra  
zatar deritzat benetan.
- 6/ Altza ta lizar, aritz ta pago,  
gaztaindi, intxaur eta arte,  
millaka urtez gure salletan  
egon zeratenak tente!  
Etzaituztegu ikusten iñon  
ta gu naigabetan bete!  
Lur santu, eder auek utzita,  
noruntz ezkuta zerate?
- 7/ Baso-gizonak, agintariak,  
eror zaitzte kontura,  
gure erriari eman zaiogun  
len zuen tankera ura.  
Zuloak egiñ, landarak jarri,  
klase guziak ingura,  
mendi maiteak artu dezaten  
lenago zuten itxura.
- 8/ Zuaitz gabeko Euskalerra  
bai Euskalerra triste!  
Ortatik laister izango ditu  
gaitz bat ezpada bestea.  
Gauzak zuzendu leizke oraindik  
–au da geienen ustea–,  
urak joatean alperrik degu  
presak egiten astea.

9/ Ogei, berrogei, urte direla  
ortako bear direnak,  
ezta ardurarik; oiek baitira  
okerrikan txikienak!  
Azaldu bitez mendi danetan  
zuaizti bikaiñ, lardenak,  
artara eskertuko gaituzte,  
ondorean datozenak.

*Basarri' ren bertso sorta, Zarautz, 1950.*

## EUSKAL SUKAL BAZTARRAK

- 1/ Negu beltzean denboraleak  
sari jokera zatarrak,  
aizeak orru, trumoi-tximistak  
berebiziko danbarrak;  
Ondorenean leiatil danak  
autsi bear kaskabarrak,  
une oietan zein goxo diran  
euskal sukalde baztarrak!
- 2/ Zuaitz gerri bat zartu dalarik,  
orra bertan sukartua,  
otz beldur gabe, famili dana  
beregana inguratua.  
Ekaitz kontrako piztu dizute  
kandela bedeinkatua,  
marmar goxoan otoizten dute  
errosario santua.
- 3/ Zar eta gazte, aundi ta txiki,  
Jaunaren itzal aundian,  
Goiko Amari arrenka beti  
beren izkuntza garbian.  
Deabru danak jolastu bitez  
nai badute atarian,  
otoitzarekiñ itxaropena  
fedea dagon tokian.
- 4/ Federik ez dan etxe oietan  
sari naigabe samiña,  
biraua buru, itz nabarmenak,  
eta konpondu ezina;  
Arrixku txar bat datorrenean  
beldurrez kezka ta miña,  
otoizlarien itxaropena  
ez degu gauza berdiña!
- 5/ Danok ibili nai degu orain  
gaurko munduan moldera,  
amaika pauso ematen degu  
bear ez degun aldera.  
Zorigaitzean, ez ote goaz  
amildegian gainbera?  
Geroni ere urte gutxian  
geiegi zabartu gera.
- 6/ Etxetar danak suaren biran,  
izketa ezti, goxotan,  
aitona xarra billobatxoei  
ipui-jario, bertsoan.  
Gazte ta zarrak, danak paketsu,  
maitasunaren besotan,  
orrelakorik ezta ikusten  
orain famili askotan.
- 7/ Mundua etsai gogorra degu,  
beti zirika eztenak;  
aginpideak geuk nai ditugu,  
ez gaitu pozten bestenak!  
Aurreko zarren errespetoak  
eman zituen azkenak,  
aundinaia ta dirua dira  
gu ondatzen gaituztenak.
- 8/ Gazte-zarretan ezpaldin bada  
okerra badu norbaitek,  
etxeko seme batek ezpadu  
etxeko alaben batek.  
Gaur negarra du, lenago poza  
zuen amaika sukalde,  
fedea ozten ari dalako  
datoz ondoren txar abek.



9/ Euskal sukalde biotzekoak,  
gorde suaren epela!  
Baña biotzak fede su-garrez  
gurikatu ditezela.  
Pakea buru izan zazute  
oraiñ eun urte bezela,  
lengo bidera itzul zaitezte,  
galdu zerate bestela!

*Basarri'ren bertso sorta*, Zarautz, 1950.  
*Zeruko Argia*, 1966-XI-13.

## LERDE-JARIOAK (GAMBERROS)

- 1/ Lerde-jario batzuk asiak  
daude gauzak itxustera,  
ta arrokeritan ortxen dijoaz  
baso ardoak ustera.  
Entzutekoa ondorenean,  
darabilkiten izkera,  
Aprikaraño aldatu gera  
egun batetik bestera.
- 2/ Erderaz oiei ematen zaie  
«gamberroaren» izena,  
garbi ikusten da aspaldi ontan  
ugaltzen dijoazena;  
danok dakigu lotsa arrastorik  
berengan ez daukatena,  
beste batzuri ematea da  
oiek egiten dutena.
- 3/ Sartu zaite zu tren, automobil  
edo berdin da tranbera,  
oiekin ezta giro izango  
ortxe, illuntze aldera.  
Pizti txar batzuk bezela biltzen  
zaizkitzu danak batera,  
errespetuko kristaurik eziñ  
liteke etxetik atera.
- 4/ Ume batzuekin baldin bazera  
ez daukazu gauza onik,  
ez gero pentsa jende txar orrek  
begiratuko dizunik.  
Alaba azirik badaramazu  
-garbi esango dizut nik-,  
entzun bearra izango du an  
izketa eder, txukunik.
- 5/ Kantu lizunak, birau gordiñak,  
ao sapaia betean;  
emen bultza ta or azpiratu,  
or dabiltz orru batean!  
Jan da irentsi bear dutela  
iñork ezer esatean,  
zenbat supritu bear dun batek  
olako kristau artean!
- 6/ O... Gipuzkoa, anai arrebak,  
ondo aldatu gera gu!  
Aurreko zarren errespetoa  
toki onean daukagu.  
Baratzan diran lore ederrenak  
ondatu bear zaizkigu,  
belar gaizto au erraietatik  
ebakitzen ezpadegu,
- 7/ Agintariak saiatu gogor  
jende txar ori ezitzen,  
utzi ezkeru ez dago giro  
oien tartean bizitzen.  
Dirua kendu, zigorra eman,  
asi kateak ipintzen,  
edo ikasi dezaigutela  
kristau antzera ibiltzen.
- 8/ Lerde-jario geientsuenak  
kanpotik azaltzen dira,  
zer aurrerapen ekarri duten  
gu jaino giñan errira!  
Borumakurka errendi bitez  
jartzen zaioten neurritan,  
bestela bizkor dijoazela  
etorri ziran tokira.

*Basarri'ren bertso sorta, Zarautz, 1950.*

## MENDIETAKO GURUTZAK

- 1/ Amaika alditan egun sorkeran  
begiak jaso ditut nik,  
zer ikuspegi zoragarria  
ezpada laño illunik!  
Gure lurretan ezta arras galdu  
aurretiko sinismenik,  
mendi gallur bat ezta ikusten  
gurutzerik ez duanik.
- 2/ Aurreko zarrak ain ziran emen  
sinismenari elduak,  
gaur, zorigaitzez, olako griñik  
ez du agertzen munduak.  
Lendik onera geroni ere  
egonagatik aulduak,  
gurutz itzala degun artean  
ez gera oso galduak.
- 3/ O, euskaldunak, begi ernaiak  
irudi ortara luza,  
gizon egin zan Jaungoiko batek  
or izan zun eriotza.  
Ortatik dator itxaropena,  
ta gero zorion utsa,  
geure izenik gordetzezkero  
maita dezagun gurutza!
- 4/ O, gurutz sendo, tinko, lerdanak,  
gure mendiak alaitu!  
Gurutz oiekin batera al bada  
fedea printzak ugaritu.  
Ori egiten duen erriak  
sariak jasoko ditu,  
Golgotan odol-ustu zan arek  
gogoan izango gaitu.
- 5/ Su zakar batek artuak gauzka  
auts egin nairik bazterrak,  
emen kixkaltzen ez danak pozik  
eman lezazkike eskerrak.  
Etenik gabe jarri zaizkigu  
goseteak eta gerrak,  
gurutz beldurra galdu dalako  
datoz orrelako okerrak

*Basarri'ren bertso sorta, Zarautz, 1950.*

## AURRAK

- 1/ «Aurraren» izena nai dut  
ezpañetan goza,  
bera izaten baitegu  
familiko poza.
- 2/ Berak baretzen dizkigu  
etxeko ekaitzak,  
berak sortu-erazten  
eguzkizko printzak.
- 3/ Galdetu dut nere baitan  
makiña bat aldiz,  
etxe asko zer liraken  
aurrikan ezpalitz.
- 4/ Aurra da Jaunak bialtzen  
dìgun ezti tanta,  
laztasun danak berekiñ  
gozatzen dira ta.
- 5/ Ai, biurtu al bagindez  
une batean aur,  
ezti tantaren bearra  
munduak badu gaur!
- 6/ Ta ikusi gizadia  
baretu leikela,  
guraso asko baretu  
oi diran bezela.
- 7/ Aur paltan ikusten det nik  
lur txar au nastua,  
Belen'en sortu zan ura  
baitegu aztua.
- 8/ Ai, biurtu al bagindez  
une batean aur,  
ezti tantaren bearra  
munduak badu gaur!

*Basarri'ren beriso sorta, Zarautz, 1950.*

## EDER BATI

- 1/ Nundik agertu zera,  
izar eder ori,  
argi egin naiean  
illun zegonari?  
Indar dagiozu zuk  
edertasunari,  
ez diozu gutxi zor  
Zeruko Jaunari.
  
- 2/ Begiak iduzki bi  
azaltzen zaizkitzu,  
ta gorputz lirain ori  
berezia dezu.  
Mundua burumakur  
jarriko ote zaizu?...  
Ederra zera baña  
zeuk ondo dakizu!
  
- 3/ Ez dedilla itzali  
olako izarrik,  
ezta gure artean  
tristura bearrik.  
Ez nuke ikusi nai  
zuregan negarrik,  
ederra zera baña  
etzera bakarrik.
  
- 4/ Zer ondasun daukazun  
Jainkoak emana,  
ameslari guzien  
begiak zugana.  
Gizon legezko batek  
maite nai duana,  
ederra izanarren  
puztutzen ez dana.

*Basarri'ren bertso sorta, Zarautz, 1950.*

## ERANTZUN ZAIDAZU!

- 1/ Ler-zoriz emen nabil  
naigabe danetan,  
eztakit atsegiñik  
miaztuko detan.  
Maite, zuk jarri nazu  
era latz onetan,  
biotz gogorra zera,  
gaxo ori, benetan.
  
- 2/ Egon ninteke pozik  
goxoki zu gurtzen,  
arriku aundienak  
ez naute beldurtzen!  
Maite, zuk ez al dezu  
gauz au ezagutzen:  
zugatik nola nagon  
maitasunez urtzen?
  
- 3/ Milla bider kaletan  
agurka naukazu,  
zuk beti ez ikusi  
egiten didazu.  
Arrizko biotzen bat  
zeugan ezpadezu,  
bein bakarrik badere  
erantzun zaidazu!

*Basarri'ren bertso sorta, Zarautz, 1950.*

## TXISTULARI ZARRA

- 1/ Gipuzkoa'ko erri batean,  
-gañera jai arratsalde-,  
pozaren billa joan nintzan eta  
an bete nintzan naigabez.
- 2/ Kontzejupeko txoko batean  
txistulari bat jo ta jo;  
danbor laguntzan semea zuen,  
oraindik ikusten nago!
- 3/ Aitondutako txistulariak  
ager nai zitun bereak,  
berrogei urte aurrez bezela,  
Euskalerriko aireak.
- 4/ Dozenerdi bat umetxo ziran  
biran zebiltzanak dantzan,  
sasoiko gazte kementsu baten  
arrastorik iñon etzan.
- 5/ Parez pasatzen ziran gazteak  
etzuten an gelditu nai;  
beste tokitan zeukaten zerbait,  
beste nunbaiten zuten jai!
- 6/ Aitondutako txistularia,  
neretzat bai txalogarri!  
Etenik gabe jo ta jo antxe  
sei umetxoren pozgarri.
- 7/ Amonatxo bat inguratu zan  
entzuten negon tokira,  
«Arratsaldeon» opa ondoren  
galde diot belarrira:
- 8/ -Aizu, andre on, jakin al leike;  
nun dira emen gazteak?  
-Auzo erritan dituzu asko,  
zinean daude besteak.
- 9/ -Bost milla lagun bizi dirala  
jakin det erri onetan,  
aiton au ola bakar uztea  
gaizki deritzat benetan.
- 10/ -Ongi diozu, gazte maitea;  
zertan ari da lanean?  
Etzan ain bakar izaten ori  
gu sasoiko giñanean.
- 11/ Ikasi gendun izkuntzan iñork  
eztu egin nai gaur itzik;  
plazetan berriz ain gutxiago  
gure aurrekoen dantzik.
- 12/ Musikalarik asi orduko  
kanpoko doñuak jotzen,  
denbora askorik ez dute bear  
danak alkargana lotzen.
- 13/ Orain sei ume diran tokian  
gaztedi dana gañezka.  
Badirudi au zerbait badala  
ta ordun tokirik ezta.
- 14/ Zine ta futbol, kanpoko izkuntz,  
jolas oitura, legeak...  
Etxekorik ez degu maite ta  
iya egin du gureak!!

- 15/ Esker gaiztoko erri nerea,  
nolaz oinbeste pekatu?  
Ixildu zaite, txistularia;  
zu ez geiago nekatu!
- 16/ O, zenbat aldiz mendi artean  
gordetzen dan eguzkia,  
illun estalpez uzten dularik  
len argitzen zun guztia.
- 17/ Ezkututzen da, segurki, baña  
berriz ere agertzeko;  
gure eguzkia iges dijoa  
geiago ez etortzeko!
- 18/ Gipuzkoa'ko erri batean  
-gañera jai arratsaldez-  
pozaren billa joan nintzan eta  
an bete nintzan naigabez.

*Basarri'ren bertso sorta, Zarautz, 1950.  
Aranzazu, 1951-VI.*



## UDAZKENA

- 1/ Soro guziak soildu zaizkigu,  
bildu baitituzte emaitzak!  
Ganbara zarrak astundu dira,  
an du toki gauz bakoitzak!
- 2/ Arto, babarrun ta belar ondu  
bertan itxoiten digute;  
urte luzean esku nork bota  
sarritan izango dute.
- 3/ Egunak labur, gabak luzeak,  
erein bear da garia;  
azaro egun on batzun eske  
asi da nekazaria.
- 4/ Orraztu dira sagasti danak,  
arinduz unetxo baten,  
tolare zarrak aste daukate  
etxe pitarrak giten.
- 5/ Gallurretako artzai jendea  
asi da beruntz begira,  
neguan lurmen nun izango dan  
pentsatzen jarriak dira.
- 6/ Danbolin otsa entzun liteke  
goi aldeko sukaldetan;  
parre ta algara, ipui ta bertso,  
giro da artazuriketan!
- 7/ Baso itzalak galdu digute  
ain maite zuten itzala;  
burutsik geldi zaizkigu, triste,  
aiton soilduak bezela.
- 8/ Orri igartuak ixuriz daude,  
tarteka, emen eta or...  
Gure bizitzen udazken beltza  
era orretantxe dator.
- 9/ Baso sail baten burusoiltzea  
ikusten nengoelarik,  
eleiz kanpaia entzuna nizun  
aizeak inguraturik.
- 10/ Ezkil, eleiz, eta... aldarea,  
danak zetozen nigana!  
Pentsatu nuen: «An baduk norbait  
udazkenik ez duana».

*Basarri'ren bertso sorta, Zarautz, 1950.*

## ARTZAI MUTILLA

- 1/ Ardiak ditu bere maiteño,  
aiekin dabil laztanduz,  
mendia bere ostatu bakar,  
sakonetatik aldunduz;  
txabola zar bat etzantokitaz  
babeseke gordelekuz,  
osasunetik saltzeko dauka;  
gustora da bizimoduz!
- 2/ Ixkanbil eta zaratetatik  
ain zabilta urrundua,  
lokatzik eztan gain ederretan  
daukazu bizimodua.  
Onetsi zazu bizitz orrentzat  
autatu zendun ordua,  
zorioneko artzai mutilla,  
zuk daramazu mundua!
- 3/ Begietako lausorik ezta,  
ikusi-ezin ugari,  
nor geuretzako nai ez deguna  
opa diogu besteri;  
kristau legeak baztertu ziran,  
grina gaiztotan igeri;  
beian eztago saltsa besterik,  
eutsi zaiozu goiari!
- 4/ Inongo txori mota guziak  
or datozkitzu kantura,  
goitar iturri garbi, gardenak,  
eskeintzen dizute ura.  
Baba ta urdaiz osatzen zera,  
artesnea ta gazura,  
biotz oneko azaltzekero  
eskerrak eman zerura.
- 5/ O, artzai mutil sendo, tinkoa,  
zeure artaldea maite,  
zeru izarren argi ditziraz  
goi ortan gozatu zaitte.  
Inoiz utziko baziñu gainak,  
ondorean zenbat kalte!  
Pakea zer dan ezta jakiten  
gerrik sortzen eztan arte.
- 6/ Kantu ta txistuz or bizi zinan  
pozkidatsu ta alai,  
tristetu nairik, bateonbatzuk  
zaitu dizute garaia.  
Iruditurik «larre gozotan  
bapo zebillek artzaia!»,  
nunai pinua sartu dizute;  
gaurtik badezu etsaia!

*Basurri' ren bertso sorta, Zarautz, 1950.*

## BEKAIZKERI EDO INBIRIA

- 1/ Landaretxotan kaltegarri da itzal gaiztozko belarra, beste guziak galdu baño len dago atera bearra. Euskal baratza zoragarrian aiñ ikusten dut gauz txarra: bekaizkeriak biotz askotan artzen ari dun indarra.
- 2/ Ezta maitatzen guraso zarrik, ez senide ta lagunik; ez leike pasa lasaitasunez ez gabik eta egunik. Eziñ suprituz urtutzen beti patxaran eziñ egonik, inbrietan dagon gizonak ordu bat eztauka onik.
- 3/ Gure begiak beti aurrera begira naia daukate, Iñor gañetik ikusitzeak orrek egiten du kalte! Gaizki biziko gera gogotik, pake santutik aparte, bakoitza geren alderdiekin kontentu ez geran arte.
- 4/ Norbera santu dala uste ta beti bestegatik marmar, iñola galdu al balezake artan bai saiatu azkar. Aurretik lagun bezela mintza, naiz atzetik saldu alkar; gorrotoa ta bizi-eziña askotan onetxek dakar.
- 5/ Lagun usteko askorekin gaur egon bear beldurrean, inbiriako arrez josita or baitabiltz marmarrean. On egin naian baldin bazabiltz nekezko tratu txarrean, tranpa zuloa jartzen dizute esku eman bearrean.
- 6/ Inbiriaren menpe dagonak ezin du ezer ikusi, besteren lanik eziñ eraman, bera ez ezertan asi. Orrelakoak arnasik ere ezpailuteke merezi, gauz eztiranak begoz ixilik, ez besteri galerazi!
- 7/ Ez gera iñoiz konturatutzen atzean zenbat dauzkagun, zazpi pausotan gañak artzeko a zer amorru daukagun! Lurreko ordu labur abetan pakea nai bada lagun, gure ixpillua Belen'en dago, aruntz begira dezagun!
- 8/ Amar ditunak ogei nai ditu, neurri mugarik iñon ez; il bear ezpagendu bezela gabiltz orren itxumenez. Dirutsu, pobre, ta erdikoak, bere semeak geranez, gau ta egun ari bear genduke Jaunari esker emanez.

9/ Auzoko gauzak auzoan utzi,  
ta errikoak erriko;  
agindu gogoz iñor galtzera  
gu ez gerala jarriko.  
Premi danean alkar serbitu  
ta inbiriari ostiko...  
Bide ontara sartu ezean  
galduak gera betiko!

*Basarri'ren bertso sorta, Zarautz, 1950.*

## EZ OPA BESTERI

- 1/ Gizon guziok jarriak gaude  
otso goseti moduan,  
alkar ondatzen saiatzen gera  
garai datorren orduan.  
Zuzentasunik ezta geiago  
gu bizi geran munduan,  
Jesukristo'ren dotriña ere  
aspaldi aztu genduan.
- 2/ Biotz geienak artuak dauzka  
gorroto ezten lizunak,  
argatik ezin bete ditugu  
legezko bearkizunak.  
Matralleko bat artuagatik  
bestea jarri zun Jaunak,  
gaurko kristautan asko ez gera  
ori egiten degunak.
- 3/ Gure artean oker txiki bat  
izaten degun orduko,  
lenez gañera okertu arte  
ez gera atsedenduko;  
kristautasuna gogoratuz  
ezta ezer konponduko,  
loa baztartuz pentsatzen gaude  
alkar nundikan galduko.
- 4/ Dotriñ ederrak ainbat gauza on  
erakusten digu guri:  
geuri bezela begiratzeko  
geure lagun urkoari,  
nor gerentzako nai ez degunik  
ez opatzeko besteri...  
Zorigaiztoan, gaurko egunez  
ez dago urre gauz ori!
- 5/ Asmo txarretan gabiltzan arte  
nola egingo degu on?  
Bakoitza bere aldera dabil,  
errukirik ezta iñon!  
Iñoren fama oinperatzeko  
kezketan zertako egon?  
Geroni ondo baldin bagabiltz  
gañontzekoak or konpon!
- 6/ Eziñ ikusiz jarriak gaude  
alkarganako begitan,  
fedebateko kristau artean  
negargarri da egitan!  
Mixiolarik iges dijoaz  
nekatzera urrutitan...  
Baña premirik geientsuena  
bertan daukagu sarritan.
- 7/ Olatu trakets onen beldurrez  
aspalditxotik nago ni,  
ondamen beltza dakarkio onek  
gure kabi polit oni.  
Alain aguro amaitutzerik  
nola ezpaitan komeni,  
gauzak ontzea nai baldin bada,  
ondu gaitezen geroni!!

*Basarri'ren bertso sorta, Zarautz, 1950.*

## ARANTZAZU'KO ELEIZ BERRIA

Arantzazu'ko eleiz berriaren lenengo arria ezarri bear da. An dira eleiz agintari ta erri agintariak. Ain zuzen, agorraren bederatzia da: Amaren eguna. Bertan abestutako bertsoak.

- 1/ Gaurko eguna gain ontarako egun gogoangarria,  
bere aulkian ikusi baitet  
Amatxoren par-irria.  
Eleiz orretan ezin kabituz  
gaizki zebillen erria,  
une ontantxe ezarri dute  
lendabiziko arria...  
Lengoa txiki gelditu da ta  
egin dezagun berria.
- 2/ Gaur Arantzazu dute kabitat  
euskaldun fedezko danak,  
berriz etorri nai dutelako  
bein inguratzen diranak.  
Jende asko ta estalpe gutxi,  
marmar eta zer esanak...  
Gaitz au sendatu bear degula  
lendik gaude itz emanak,  
merezi duan tokia beza  
gure Amatxo laztanak.

- 3/ Artu ditzagun lan ontarako  
premizko berotasunak,  
merezi baitu ainbat mesede  
goitik ixurtxen digunak.  
Estalpe orrek bildu gaitzala  
senidetzarik degunak,  
ao zabalka esan dezala  
lan au bein ikusten dunak:  
Ama maitatzen ezin berdindu  
ditezkelak euskaldunak.

*1950'garren urtea.  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## BASERRIKO AITONA

- 1/ Larogei urte oso ez ditu,  
bañan guztiz alderatu;  
bizkar tentea kakotu zaio,  
oñik ezin du aldatu.  
Urtien pixuz, gixarajoa,  
etxe zulora baztertu,  
lanaren berri jakin nai dunak  
aitona orri galdetu.
  
- 2/ Burruka latza erabili du  
inguruko malkarretan,  
garai batean bigun zan arren  
gogortu da ezurretan.  
Gaur umetxoak gozatzen ditu  
ipui ezti, xamurretan;  
zenbat izerdi ixuri ote du  
landu dituen lurretan!
  
- 3/ Zaude or goxo ta atsedean zaite  
maite dezun sukaldean,  
zaude bertan zu, eraso txar da  
ekaitzaldien gordean.  
Orrenbeste poz bear zenduke,  
jauna, zeure zardadean;  
ondorengoak saiatu bitez  
zuk utzitako bidean.

*Basarri' ren bertso sorta, Zarautz, 1950.*

## LUXIA - GARZIARENA

- 1/ Amalau milla inguru giñan  
begira gogoz egonak,  
kaleko gazte ta jende egiña,  
berdiñ mendiko aitonak  
Geroztik eziñ azturik gaude  
pasatako une onak,  
makiña batek esaten du ta:  
«Zuek zerate gizonak!»
- 2/ Eztakit nola egiñ ziteken  
egin zenduten ainbat lan;  
joko bat asi ta bukatzera  
eziñ obeto eraman.  
Irurogeitabost minutuan  
nolako zartakak eman.  
Onena zein zan azkenerarte  
an eziñ zeiken antzeman.
- 3/ Gure menditan sortu ziñaten  
gazte sendo ta gordiñak,  
aspaldi ontan izan ditugun  
aizkolaririk aundiñak.  
Aiñ bulartsu ta gogor, trebeak,  
aiñ neurriko ta berdiñak;  
dudik ez dago, biok zerate  
alkarrentzako egiñak.
- 4/ Iraun dezala zuen artean  
premisako bizitz arnasak,  
zuekiñ eztu gutxi irabazten  
euskaldunaren jolasak.  
Oraindik noski zuzendu leizke  
erri zar onen akatsak,  
zuen moduko asko baleuzka  
aultzten ari dan arrazak.
- 5/ Zortzi enborrak ikusitako  
euskaldun arek badaki,  
aien biotzak erditibitza  
kostako zala galanki.  
Gogorrak izan, lan txarrak artu,  
neke kupirik ez euki,  
plaza batean kristauak ezta  
traketsagorik ebaki.
- 6/ Ogeitabederatzia gendun  
ta urriko illarena,  
Donostiñ degun zezen-tokia  
jendez bete genduena.  
Gipuzkoa'ren ordez «Luxia»,  
Naparruz Garziarena,  
norbaitek bear ta egun artan  
an gutarra zan onena.

*Basarri'ren bertso sorta, Zarautz, 1950.  
Deia, 1979-VII-29.*



## MIXIOAK IZAN DITUGU!

- 1/ Milla bederatzireun  
ta berrogeitamar,  
urte au oroituko  
degu ondo samar;  
iru mixiolarik  
arturikan alkar,  
Jaungoikozko biotzak  
pizturik su ta gar,  
Zarautzen egin dute  
amaika deadar.
- 2/ Garbi mintzatu dira  
prantziskotar onak,  
esanez zer nai duen  
zeru-lurren Jaunak;  
amar agindu dira  
jarri zizkigunak,  
azken gabeko pozak  
gero dauzkagunak,  
azten ezpaditugu  
entzun ditugunak!
- 3/ Utsik etorri giñan,  
ta utsik amaitu,  
eriotz orrek danok  
berdin uzten gaitu.  
Munduko zorionez  
iñor ez alaitu,  
naiz eta lur gañeko  
diru danak bitu,  
anima galtzen dunak  
zertarako ditu?
- 4/ Eguzki ta izarrak  
goi-sail urdiñetik,  
ta itxaso zabala  
neurri jakiñetik.  
Jaunaren esanera  
nor bere bidetik,  
danok gozatzen degu  
arek egiñetik,  
maite dezagun gauza  
guzien gañetik.
- 5/ Gu salbatzeagatik  
Jaungoiko bat il zan,  
bestela guretzako  
zorianik etzan;  
Bera autan artzeko  
oiturik ez izan,  
Euskalerriak gero  
negarrik ez dezan,  
birau nazkagarririk  
ez geiago esan.
- 6/ Jaunagan izan arren  
konta eziñ ainbat zor,  
zabarkerian gabiltz  
beñ emen da beñ or;  
aldarean zai dago  
goazen danok bixkor!  
Astean beñ bixita  
bear da derrior,  
mezarik entzun gabe  
ez gelditu iñor.

- 7/ Etxean da kanpoan  
beti izan zintzoak,  
azpiratu ditzagun  
grina setosoak.  
Nunai azaldu otzan,  
apal da gozoak,  
maite senide danak,  
maite gurasoak,  
pakea izan dezan  
famili osoak.
- 8/ Bosgarren agindua  
ez degu motela,  
esan leike kristauak  
bartzatu dutela.  
Beste modu batean  
gina bestela...  
Gorrotu danak beingo  
galdu ditezela,  
lagun urkoa maite  
nor-bera bezela!
- 9/ Eleizan amar ordu  
pasatzen baditu,  
nai badu egunean  
lau sermoi aditu,  
naiz eta Jaunartzetik  
inoiz ez gelditu,  
ezin lezaioteke  
ezertxo serbitu...  
Gorrotoa daukanak  
alperrikan ditu!
- 10/ Aragizko gozamen  
oiek ez ugaltu,  
tentazio txar danak  
otoizka zapaldu!  
Sakramentu santu bat  
nai duenak or du,  
minutuko atsegin  
oieri ez eldu,  
anima betirako  
ez dezagun galdu.
- 11/ Norbere eginbearrak  
saiatu betetzen,  
Jaunaren lege danak  
kunplitu ditezten;  
ez ibili besteri  
lapurretan kentzen,  
inoz gosez aulduta  
norbera gizentzen...  
Bakoitza bereakin  
konporma gaitzen.
- 12/ Zuzenak izateko  
artu zagan gogo,  
dan bezela egia  
beti garbi bego.  
Gezur bat esan baño  
ixildu naiago,  
bere famik ez kendu  
besteri geiela,  
au egiten duena  
pekatuan dago!
- 13/ Jan-edan egin baño  
neurria izan maite,  
geiegi orrek beti  
egiten du kalte;  
arrixku txarretatik  
ibili aparte,  
erretira onak egin,  
aginduak bete!  
Mixiolari jaunak  
alaxe nai dute.
- 14/ Guztiz argala baita  
guk degun gorputza,  
deabruak sarritan  
pekatu bultza;  
erortzen bagera inoiz,  
berriz azkar altza,  
damutasunez egin  
dezagun aitortza,  
Arantzazu gañera  
eskatuz laguntza.

15/ Aita Garmendia ta,  
berdin Agirretxe,  
Aita Apraiz bestaldean  
abek bezelaxe;  
zortzi egun aunditan  
zer malko ixurtze!  
Zarautz'ko erriak gogoz  
eskatzen du auxe:  
Jaunak luzaro gorde  
ditzala olaxe.

16/ Aurtengo mixioak  
josiak ditugu,  
aste orren oroitza  
beti izango degu.  
Agur, aita maiteok,  
poz-pozez gaude gu!  
Noizik bein egizute  
gugatik erregu,  
eriotzeko orduan  
ez gaitezen galdu.

Bertso-papera, «Tip. Elustondo, Zarautz».  
*Basarri'ren bertso sorta*, Zarautz, 1950.  
*Aranzazu*, 1950-V.

## ERNE, BASERRITARROK!

- 1/ Aspaldi ontan era tristian bizi da baserritarra, eziñak berriz bereak ditu mixeria ta negarra. Derrior zaude erabaki bat lenbailen artu bearra, lana gañezka daukazu baña irabazia kaxkarra.
- 2/ Gure lur auek beti dituzu aldapatsu bezin gaitzak, lengo xixtimik eztu maitatzen gaur eguneko bizitzak. Alperrik dira zure labore ta zure gari-ereintzak, jateko ainbat eztu ematen emengo nekazaritzak.
- 3/ Gauza gutxi da arto-babarrun pixketatik datorrena, asmo sendo bat artu zazu-ta al dezunik azkarrena. Zerbait badago gaur baserrian ondo ematen duena: ganadutara jotzea dezu gauzarik onen onena.
- 4/ Ukulluari begiratzea da gaur komeni zaiguna, ori baitegu dirurik geien inguratuko diguna. Esne ona ta aragia da ugaldtu bear dezuna, sinistu gero ortan dagola etxeko etorkizuna.
- 5/ Labore-soro dituzun oiek aldatu itzazu belardi, irabazia doble daukazu ta lenagoko lan erdi. Esnea saldu, ta... matarira sei-zortzi eramanaldi, ontara jotzen dezun unetik biziko zera zu ongi.
- 6/ Alpalpa, paotx edo allubre eta belar piñak tarte, segi aurrera, ukullutako buruak doblatu arte. Aproba egin duten guziak garbi aitortzen digute: bide oneri len ez ekiña beste penik eztaukate.

Bertso-papera, «Gráficas San Marcial.- Irún». *Laugarren Txinpartak, Auspoa 55, 1966.*

**1951 - 1960**

## AMAREN IGOERA ZERURA

- 1/ Zorioneko Urte Santuak zenbat pozgarri guretzat, ederrik inoiz izan badegu juzga genezake edertzat. Asegarririk ederrena auxe biotz egarberarentzat, oberik eziñ autu diteke federik degunarentzat.
- 2/ Gure barrenak egarriz zeuden inolaz neurri ezinda, guzior Aitak aseak gaitu gure berri bazekin-da. Erroman dagon tronua aunditik garbi asko itzegin da, eunka urtetan egiñ ez dana aurtengo onetan egin da.
- 3/ Ez dakit noiztik irrikitzen zai or zegon Euskalerrria, Amari buruz izan genezan bear dan erabakia. Gorputz-animaz zeruetara igoa zala Maria, danok sinisten genduan baña etzan fedeko egia.
- 4/ Amabigarren Pio izan da orretara jarri dana, ain bearreko genduen epai garrantzizko au emana. «Gorputz-animaz goi-ostatura igo zala gure Ama», gaur Eleizatik kanpora dago ori ukatzen duana.
- 5/ Euskal saill onek Urte Santu au bai bere gogozko dula! Mendi abetan nabarmen dago poz berezia degula. Garbi bizi ta ill ondorean goietara jo zendula, Zuk badakizu, Amatxo maite, lendik sinisten gendula.

*Aránzazu, 1951-III.  
Laugarren Txinpartak, Auspoa 55, 1966.*

## ITXASOA ASERRE

- 1/ Bolara ontan arpegi beltzez  
or zabilz ondamenean,  
antsi tristeak eta negarra  
sorturik alde danean;  
ongi dakigu zu bezin onik  
ez litekela onean,  
baña zakarra zera gogotik  
aserretzen zeranean.
- 2/ Zu txarrerako zauden garaian  
bai errez egin kalteak,  
ezer askorik eztu balio  
zuri kontra egiteak;  
berrogei urtetako langintzak  
minutu baten boteak,  
ez dituzu zuk aintzakoz artzen  
gizonen lan da nekeak.
- 3/ Aitortzen degu zeure aldetik  
arrazoi asko dezula,  
zure salletan agindu-naia  
sarritan izan degula;  
Donostin bezin trakets etzaitut  
iñon ikusi sekula,  
beldurtu giñan bein da betiko  
azpiratuko zendula.
- 4/ Zure mugarik aintzat artu ez,  
or egin degu pekatu,  
gero kastiguz biali dezu  
gugana ainbat olatu;  
inbiri asko degu gizonok,  
Jainkoagatik barkatu...  
Oraindik bizi nai genduke ta  
etzaitetz ola zakartu.
- 5/ Ene Kantauri trebe gordiña,  
zuk ez gorrotorik izan,  
adiskidetu zaite berriro  
lo gozoak artu gaitzan;  
euskaldunaren lagun zerala  
mundu guziari esan,  
gure Donosti berdingabeak  
bere sona gorde dezan.

Zarautz, 1951'garren urteko Otsailla.  
*Gernika aldizkaria*, 1951, IV-V.  
*Laugarren Txinpartak*, *Auspoa* 55, 1966.

## ZER DA ARANTZAZU?

Zer da Arantzazu?  
Beregan zer dun ez dakit baña,  
badu alakoxe *zerbait!*  
Beste alderdi guzietatik  
berezia irudi zait.

Zer da Arantzazu?  
Ez ote mundu baten azkena,  
bestearen asiera?  
Arantzazu'ra igo ezkeroz  
geienok aldatzen gera.

Zer da Arantzazu?  
Otoizlarien gordelekua;  
non aukeratu oberik?  
Zeru-izkuntzak an dauka indar;  
besterek ez du sarrerik.

Zer da Arantzazu?  
Gure animak zer sentitzen du  
Arantzazu gallurrean?  
Ager lezaken izkuntzik ezta  
oraindik sortu lurrean.

Zer da Arantzazu?  
Iñigo baten santutasunak  
or zitun lenen txertuak.  
Geroztik zenbat millaka ote  
txertu ortaz indartuak?

Zer da Arantzazu?  
Al dakit ba nik, anai maitea!...  
Lurtar batek nola neurtu!  
Amairik ez dun poz-biderako  
lenen bide ori artu!

Zer da Arantzazu?  
Alper lana da; nik eziñ esan  
zuri zer dan Arantzazu!  
Zoaz an dagon Amarengana  
ta... Berak esango dizu!

Zer da Arantzazu?  
Beregan zer dun ez dakit baña,  
badu alakoxe *zerbait!*  
Beste alderdi guzietatik  
berezia irudi zait.

Zarautz, 6-VII-1951

*Arantzazu*, 1951, 8-9.

*Laugarren Txinpartak*, *Auspoa* 55, 1966.



## AU PAKEA AL DA?

- 1/ Noizpait bukatu ziranean bein azken gerran erasoak, buka zirala uste genduen gizarteko arazoak, pakea gozatuko zuela ondoren mundu osoak... Toki onean gelditu dira orduko amets gozoak!
- 2/ Ainbat urteko nasketak eztu Europa utzi mardula, sinistu gero gaur Amerikak errukiz mantentzen dula. Ez gendun uste ontaratzerik gure denboran sekula, ta badirudi aundiagoa berriz gañean degula.
- 3/ Ainbeste milloi gastatzen dira libretan da dolarretan, armak eginda, armak pillatu, larri dira bazterretan. Nazio danak sartuak daude neurrigabeko zorretan, nolabait lertu bear du onek, ez leike segi orretan.
- 4/ Zazpi balio zuena, orain igo baita amabostera, lanetik bear duena ezin inguratu erostera. Gerra-tronpetik entzungo balitz egun batetik bestera, beste guziak baño lenago bere bizia uztera.
- 5/ Danak alkarren beldurrez daude, ori ez leike ukatu, bi aldetatik gogor dira ta segi indartu ta indartu. Beldurgarrizko arma txar oiek zertarako izendatu? Biziarekin gelditzen danak izango du zer kontatu.
- 6/ Aurreko mallan zebiltzan aiek len istillua zeukaten, atzetik lasai bizi zitezen beren odola ematen. Orduan etzan orain bezela «atomikarik» izaten, arrixku geien nun legoken gaur ezta erreza esaten.
- 7/ Ikusirikan milloika gorputz lurpean sartu zirela, millaka erri oraindik ere erdibituta daudela; beren onera ekartezkero urteak bear direla, zeñek sinistu onen aguro ontaratuko giñela?
- 8/ Maitasun danak uxatu ziran, jarri giñan txarrerako, gugatik il zan Kristo aretzaz beingoz aztu giñalako. Au ikusia dago garbiro aspaldikoa dalako: gizonak bizi geran artean gerrarik ezta paltako.

9/ Jaun Zerukoa, Zuk ezagunak  
gaituzu gu betidandik,  
Zureganako itzal apur bat  
lur onek badu oraindik.  
Bere izenez, belaunikatuz,  
otoitz egiten dizut nik,  
komeni bada, laño beltz oiek  
urrutiratu gugandik.

*Aranzazu, 1952, 87-88.*

*Laugarren Txinpartak, Auspoa 55, 1966.*

## BASARRI JAUNAREN ERANTZUNA

*Aranzazu* aldizkarian, 1951 urtean argitaratutako bertso batzuen bidez, orduko gazteei eraso zien Gezaltzako Grazianok, garai artan modaz zegoan gabardinari *asto-manta* deituz eta abar. Baita Basarrik erantzun ere, *Aranzazu* ortan, 1952'an, azaldu ziran bertso auekin.

- 1/ Gezaltzan degun aiton maitea  
orra indarberrituta,  
negua iges dijoan ontan  
iñon ezin kabituta.  
Bere amalau bertso ikusi  
ditut guztiz arrituta;  
ordañaik jarri bear dizkiot  
ondo merezi ditu ta.
- 2/ Uste al dezu, aiton maitea,  
gauza bidezkoa dala  
beti besteri esate ori  
burura etorri ala?  
Etzazu aztu txori guziak  
mokodunak oi dirala,  
zar eta gazte, emen geienak  
pekatariak gerala.
- 3/ Ongi dakigu garai bateko  
konturik eztaukaguna,  
lengoak lengo, gaurkoak gaurko,  
ta biar datorkiguna.  
Naiz bruxa beltza, naiz asto-manta,  
esan zazu nai dezuna,  
jazkeraren gain ezta egoten  
sarritan gizatasuna.
- 4/ Jazkerak lendik egonagatik  
erabat txit aldatuak,  
gabardiñazko estalgarriak  
etxe askotan sartuak;  
oiek ez dira ortaño gogor  
zigortzeko pekatuak,  
bruxa beltzaren azpian ere  
danak ez daude santuak.
- 5/ Kaleratuta or asten dira  
neurritz kanpora edaten,  
edozein baño geiago dira  
birau gordiñak esaten;  
lanak dituzte kaleko kargak  
baserrira eramaten,  
ala dabilzan bruxa beztunak  
ez dute ederki ematen.
- 6/ Jazkeraz pixkat apaindutzea  
zeñek ar lezake pena,  
bere dirutik egiña badu  
soñean jartzen duena?  
Besteri neurri artu nai ori  
askok izaten dutena,  
norbereakin konpondutzea  
ez al da gauzik onena?
- 7/ Batek trintxera daramalako  
zertan jarri zipotzean?  
Aren jantziak ezta mermarik  
egiten nere poltsean;  
arekin ere ibilli leike  
jatorrenaren antzean,  
lanikan asko ez al daukagu  
bakoitzak geren etxean?

- 8/ Sinisten dizut zure denboran  
 egingo zinduzen lanak,  
 bañan alpertzat ez itzazula  
 artu gaurko gazte danak.  
 Bruxa utzita egonagatik  
 modari zerbait emanak,  
 oraindik asko dira lur ontan  
 bapo saiatzen diranak.
- 9/ Gaurko aitona askok ez dute,  
 ez, moduaren paltikan,  
 bañan pillatzen jarraitu naia  
 len ikasitakotikan.  
 Prenda berriak ere gustatzen  
 zaizkiete gogotikan,  
 zarrekin pasa naiago dute  
 ez gastatzeagatikan.
- 10/ Fede biziko gazterik ezta  
 edozein moduz narrasten,  
 neurri estuko kontseju oiek  
 ez ditut ondo ikusten;  
 gazteak noizpait jakin bear du  
 kristau bezela jolasten,  
 jaiak ukullun pasatu gabe  
 txekor da beiak orrazten.
- 11/ Noizean beingo lagun arteak  
 nor ez gaitu jartzen alai?  
 Nekeak bere poza bear du:  
 asteak aste, jaiak jai.  
 Dirurik iñoiz ez bota gaizki,  
 ori ez nuke esan nai,  
 alperrik galdu ezer ez baña  
 premizko gauzak artu bai.
- 12/ Erabaki bat artu dezute  
 Arantzazuko elizan:  
 bazkari on bat jaiero egin  
 dirudun batzuen gisan.  
 Orretarako modu paltarik  
 len ere ez dezu zuk izan,  
 zure tokian egon banintz ni  
 lenago asiko nintzan.
- 13/ Ikusirikan gaztien aurka  
 ain gogor sartzen ziñala,  
 nik pentsatu det alde jarrita  
 asko poztuko dirala.  
 Badakit berriz len bezin lagun  
 onak izango gerala,  
 Arantzazuko Ama maiteak  
 luzaro gorde zaitzala.

## EUSKALDUN ARTZAIAK

- 1/ Amerika'ko ipar aldera  
gazte asko dira joanak,  
denbora gutxiz ejenplu asko  
egongo dira emanak.  
Bertako agintariak dira  
aitortzen ari diranak,  
gure lurreean sortzen dirala  
munduko artzai onenak.
- 2/ Millaka buru zeuen menpean  
larretan darabiltzute,  
besten eskutan utzi nai ez ta  
zuei eman dizkitzute;  
berdiñik iñon ez dezutela  
adierazten zaizute,  
gure erriaren izen bikaña  
zuek edertzen dezute.
- 3/ Pesta ta jolas danak utzita  
igo ziñaten mendira,  
gau ta egun erne or zabilzate  
artaldeari begira;  
diruz osatzen ari zerate,  
entzunak egi badira,  
atsedentzera atozte bizkor  
jaio ziñaten tokira.
- 4/ Zuen lurra ta zuen etxea  
penaz zenduten utzia,  
Amerika'ko gallur aunditan  
nolako penitentzia!  
Neke latzetan pasa dezute  
gazte denbora guzia,  
zartzaro on bat ez al dezute  
orain ondo merezia?
- 5/ Leialtasuna ain ona da ta  
nunaitan maite gaituzte,  
munduan ibiltzeko ez degu  
askok ainbat buruauste.  
Nortean nornai sartu leikenik  
iñork ez dezala uste,  
zergatikan dan ez dakit baña  
euskaldunak nai dituzte.

*Aranzazu, 1952, II.  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## ITZIAR'KO AMARI KORONAZIO EGUNEAN

- 1/ Argi ditzirak dira nagusi,  
azpiratu da illuna,  
Andutz azpian zeru txiki bat  
gaur dei egiten diguna.  
Ongi dakizu biotz guretan  
gogo au lendik genduna,  
Ama laztana, orra iritxi  
eskutzen gendun eguna,
- 2/ Gure lureko irudietan  
baliotsuen zu izan,  
jakintsu danak ala diote  
jendeak sinistu dezan.  
Zure burua estali zedin  
gaur arte koroirik etzan,  
lendik ederren baldin bazera,  
egun onetan zer esan?
- 3/ Zortzigarrengo gizaldiz gero  
zauzkagu gure Amatzat,  
zenbat mesede lortu ditugun  
Zu jarriz bitartekotzat!  
Illunpe beltzik aserrenetan  
Zu beti gure izartzat.  
Gizonak egin gentzaken dana,  
Ama, utsa da zuretzat.
- 4/ Nola legorrez ala itxasoz,  
egin dituzun laguntzak,  
millaka dira eriotzetik  
libra dituzun gorputzak.  
Bizi labur bat duten mingañaak  
ain dituzu gauza utsak...  
Merezi dezun itzik ez dute  
lur ontan diran izkuntzak.
- 5/ Gaur zeru-lurrak pestetan dira:  
au gozamen erosoak!  
Zenbat pitxi ta apaingarri dan  
zure burura jasoak!  
Guk ez ikusi arren or dezu  
aingeru talde osoa,  
iñoiz bada ta gaur bai eztia  
zure irripar gozoa.
- 6/ Euskalerrria zure oñetan  
poztasunetan igeri,  
bere esker ona erakusteko  
ain laguntzalle onari.  
Bota tiroak, dantza kanpaiak,  
ekin, anaiak, lanari!  
Eztarriz lertu artean kanta  
gaur Itziar'ko Amari.
- 7/ Laño traketsak beren ondoren  
denboralea dakarte,  
mundua berriz lañotsu dago,  
pake santutik aparte.  
Gorde gaitzazu babes gozoan  
ta zerutar graziz bete,  
Ama, zer beldur izan gentzake  
Zu lagun zaitugun arte?
- 8/ Dagonillaren irugarrena  
egun alai, ditzikorra,  
auspez jarri da gaur Itziar'en  
gure Gipuzku jatorra.  
Ama laztana sekula baño  
apañago degu, orra!  
Al zan añean ordaindu degu  
aspalditik gendun zorra.

9/ Goza bedi, bai, lur zabal dana,  
goza bedi zero goia,  
berdingabeko ditzira batek  
uxatu digu erdoia.  
Berandu xamar izanagatik  
iritxi zaizu sasoia,  
gaurtik aurrera, Ama laztana,  
or dezu zure koroia!

Zarautz, 1952-VIII-3.

Bertso-papera, moldiztegui izenik gabea.

*Aranzazu*, 1952, X-XI.

*Kantari nator*, Zarautz, 1960.

## ITZIARTARREI ELEIZ DEIA

- 1/ Ene Itziar maitagarria,  
kantuz nai zaitut alaitu,  
Mixio santu ospatsu batek  
eleizara deitzen zaitu.  
Era oberik ezta izango ta  
gazte ta zarrok mugitu,  
Jaungoikoaren itza entzun gabe  
etzazteztela gelditu!
- 2/ Entzun bakarrik ez egin beintzat,  
saia al diranak betetzen,  
pekatuz makurturik gaudenak  
ea asten geran tentetzen.  
Lurreko urte bakar abetan  
jokatu garbi ta zuzen,  
gero denbora joandakoan  
damuz izan ez gaitzezen!
- 3/ Baztatu zagus gorrotoa ta  
txarrerako grin zakarra,  
guziontzako nola daukagun  
goitar juez bat bakarra.  
Bi bide daude, ezta besterik,  
au dago pentsa bearra:  
betiko zoriona eztunak  
betirako zoritxarra.
- 4/ Gure animak garbitu itzagun  
goitar grazi eder batez,  
eztezagula pausorik eman  
lagun urkoaren kaltez.  
Gaiztoak ondu, onak obetu,  
ta bildu maitasun katez,  
mirari auxe gerta dedilla  
mixio aben bitartez.
- 5/ Prantziskotarrak datorkizute  
zerutar doaiz beterik,  
eleizaratu gabe eztago gaur  
iñola ere egoterik.  
Izlari sutsu, prestu, egokia,  
zeñek olako molderik?  
Berdiñak egon ditezke baña  
ez diteke izan oberik.
- 6/ Amar agindu daude jarriak,  
ta izan oiengana beldur;  
Mixio santu eder onetan  
entzun danak buru makur.  
Jaso biotzak, garbitu animak,  
gure egunak daude labur,  
zerutar graziz gañezkaturik  
salbatu gaitzezen gaur.

(1953'ngo otsaillean)  
Moldiztegi izenik gabeko bertso-papera.



## ORIoTARRAK TXAPELDUN

- 1/ Arraun-jaietan Donosti'n giñan  
zaletasunez beterik,  
pesta ohea ez bait-da errez  
beste iñun ikusterik.  
Buka ondoren ango kaletan  
etzan entzuten besterik:  
oriotarrei ez dagoala  
lan ortan irabazterik.
  
- 2/ Sarasua'ren izena dago  
gaur ditzira berezitan,  
mutil traketsik ezta izaten  
patroi onaren ontzitan.  
Kontrariorik ez dezu laister  
itxasoko ur gazitan,  
lendabiziko sartzen baizera  
jokatutako guzitan.
  
- 3/ Makiñatxo bat arritzen da gaur  
Orio'ren arraunkeraz,  
jende zaildua dago beti ta  
indarra nai dan aukeraz.  
Bazter guzitan jartzen dituzten  
sari guziak ateraz,  
erria bete dezute bapo  
zillar-kopez ta banderaz.
  
- 4/ Naiz traiñeru ta naiz trainerilla,  
berdin da berriz batela,  
oien aurrean jarriko danak  
ez du bearko motela.  
Uste det aspaldiko urtetan  
erakusten digutela,  
oriotarrak arraun-lanean  
grazi aparta dutela.

*Aránzazu, 1953, XI.*

## MARQUES DE CUEVAS'EN JAIALDIA

1953'garren urtea da.

Biarritz'en, mundu kutsuzko pesta lotsagarri bat egin da. Jaungoikoak daki zenbat milloi franko itxura txarrean gastatu diran. Aundiki ta aundi naiko guziak an dute beren tokia. Zentsu arrastorik duan katoliko batek ontzat ez dezaken billera izan da Biarritz'koa.

1/ Mundu kutsuzko pesta aundi batek Biarritz zuan ostatu, dirua gañez zebillen eta ez dira gaizki jostatu. Errepetuzko kate guziak milloien bidez puskatu, kontzientziko kristau artean ez da geiegi gustatu.

2/ Neurrigabeko arrokeriak nolatan eman ez miñik? Orren aldera ezin diteke iñoiz jarri kristau fiñik. Batzuk milloiak arrika botaz lau zorakeri egiñik, ta ainbeste milla ogi koxkor bat aura eraman eziñik.

3/ Goi jendeari komeni zaio beruntza begiratzea, aberats baño pobre geiago gerala konturatzea. Langillerikan bizi ezin da batzuk ola ibiltzea, auxe da komunismoarentzat ateak idekitzea.

4/ Billera orrek Erroma'n ere eman du zerbait naigabe, kristau erritan orrelakorik egingo ezpalitz obe. Norbaitzuk baldin badira emen diru geiegiren jabe, nun enpliatu bada oraintxe era ortan bota gabe.

5/ Bizi geranok ementxe gaude eriotzari zorrean, utsik etorri giñan da utsik joan bear derriorrean. Gogoan izan, denbora gutxi daukagula guk lurrean, ta kontu eman bear degula Jaungoikoaren aurrean.

*Zarautz, 1953'garren urtea  
Aranzazu, 1953, XI.  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## GIPUZKOA'REN NEGARRA

1953'garren urteko Urrilla da. Beldur-garrizko ugolde batek estali du Gipuzku maitea. Iraeta'tik Zeztua'ra tarte, ur zakarrak irauli dute «Guipuzcoana» izeneko autobusa. Bere barrenen zetozten ainbatentzat azken gaba izan zan. Urak irentsi zituan.

1/ Kantu illunak ditut gaurkoan  
eta doñu tristekorra,  
ugolde batek uxatu digu  
aspalditako legorra.  
Ain denborale trakets, gaiztoa,  
ain kaltegille gogorra,  
ez leike neurtu Gipuzkoa'ri  
erantsi dion zigorra.

2/ Batzuk dendatxo batekin zeuden  
erosian da salduan,  
jateko aña egiten zuten  
udaran eta neguan.  
Zituzten danak urak irentsi  
sekulako amorruan,  
berri-berriro asi bearra  
daukate bizimoduan.

3/ Ainbat urteko izerdia ta  
ainbat urteko ametsa,  
negargarri da gure artean  
zerbait baliatu eza.  
Mixerri beltza aixa sortzen da,  
zoriona da nekeza,  
berriz burua jasotzen emen  
ezta lantegi erreza.

4/ Negarra dago mendi aldean,  
negarra dago errian,  
malko garratzak gañeztu dira  
euskaldunen arpegian.  
Laguntza egin bear dutela  
arrigarizko neurrian...  
Sekula izan baldin bagera  
oraintxe gera premian!

5/ Lanean gogor alegintzea  
gure erriaren jokera,  
kanpo laguntza ona da baña  
gogor saiatuz nor bera.  
Ezbear ontan danok alkartuz  
gizon jokutzen bagera,  
Jaungoikoaren begirapenez  
irtengo degu aurrera.

6/ Okerrak sarri izanak dira  
euskaldunen probintzitan,  
ugolde latzak, suketa aundiak,  
gerrak ez oso gutxitan.  
Berriro asten giñan xuxperten  
ain intenzio bizitan,  
olaxen altxa izan gera gu  
eroritako guzitan.

7/ Iraeta'tik Zestua tarte  
gertatu dan pikardia,  
ainbat kristaurek uraren mende  
beren eriotz larria.  
Bazter guzitan luto gogorra  
zabaldu duan berria,  
besteak beste, ori bai dala  
triste ta negargarria.

8/ Ainbat gizon da emakumezko,  
tarteain ainbat sasoiko,  
gure begien aurrean berriz  
ez ditugu ikusiko.  
Autobusetik eraman zitun  
goiko, beko ta erdiko,  
beldurgarrizko gau zakar artan  
aldendu ziran betiko.

9/ Etxeak jausi ta zakarpetan  
batzuk badira galduak,  
beste norbaitzuk lur erauntsiak  
bere azpian artuak.  
Bear bezela ezin agertu  
bertsolari baten auak,  
zenbat naigabe sortu dizkigun  
urrillaren amalauak.

*Zarautz, 1953'garren urtea*  
*Aranzazu, 1953, XII.*  
*Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## GIPUZKOA'REN ETXEA MADRID'EN

- 1/ Ez dakienik inor balego  
nai det jakinda jartzea,  
egalari dan txoriak on du  
kabi goxo bat artzea.  
Gaur edo biar ango peritan  
gerta leike gu biltzea,  
ala balitza gipuzkoarrok  
an degu geure etxea.
- 2/ Joan dan urteko ango periak  
ikusgarriak izanik,  
gipuzkoarrok an bildu giñan  
alkarri esku emanik.  
Barren aietan gure izkuntza  
alaiki entzun nuan nik,  
etzun ematen gure lurrean  
arkitutzen ez giñanik.
- 3/ Gure lurreko emaitzak eta  
emengo zenbait makiña,  
emengo gazta zoragarriak,  
emengo goxoki piña.  
Nai zan aukeraz bazegon berriz  
sagardo ta txakoliña,  
etzan jendea beldurrez egon,  
an egin zan alegiña.
- 4/ Ainbeste millak ikusi zuten  
gure baserri txukuna,  
inork damurik etzuen izan  
alderdi artara juna.  
Estu ta larri, edari eske,  
jendean estuasuna,  
besteai ere gustatzen zaie  
guri gustatzen zaiguna.
- 5/ Gure izena goitan jartzea  
guziok naiko genduke,  
kanporatzen dan euskaldun batek  
amets oberik zer luke?  
Arreta pixkat artzen badegu  
ez daukagu milla neke,  
joan dan urtean ondo zegona  
obeto jarri liteke.
- 6/ Gipuzkoa'ren etxea jazten  
egin zagun egiñala,  
ortan egiten dana sinistu  
guzion onean dala.  
Berriro era datorrenean  
baietz esan bereala,  
alde guzitan jakin dezaten  
txiki aundiak gerala.
- 7/ Deirik danean, aruntz biali  
ditugun gauzik onenak,  
klase guzitik gure lurrean  
dauzkagun aurrerapenak.  
Gipuzkoarron etxearentzat  
gero a zer goralpenak!  
Beti gogoan izango dute  
ondo ikusten dutenak.

*(Gure Baserriak, órgano de las Hermandades  
Sindicales de labradores y ganaderos de Guipúzcoa,  
1953, abendua.)*

## URTE BERRIARI ESKARI BAT

- 1/ Urte berrian sartu gera ta kanta bearrean nago, zorioneko urte abekin ainbat istillu al dago! Nik pentsatzen det orain bezela izango zala lenago: alde batetik bat geiago ta bestetik bat gutxiago.
- 2/ Kontaduritan daramazkigu zuzen bakoitzak bereak, iñork galdetu ezkeru bizkor esaten ditut nereak. Urteak azkar joatearekin kristau askon naigabeak! Nekez pasatzen zaizkigun aiek ez dira izaten obeak.
- 3/ Gazteak zartu egiten dira aitarenekin egiten dira, era onetan gertatu da len amaika gure moduko. Utsa bestela azken ordurik ezpalitzake elduko, nazio danak armatzen dabiltz alkar nolatan galduko.
- 4/ Arrokeritan gallen jarrita, ustez gaur zerbait bagera, bizitza-sua itzal orduko bagamazkite lurpera. Bitarte ortan ainbat gorrotu, ainbat gerra ta galera, ortarañoxe iritxitzen da gizonaren ezaguera.
- 5/ Urte berriak jakin dezala zer diran gure gogoak, pakezaleak asko dira ta euskaldunak lenengoak. Gerra tronpetik ez dezaigula entzun-azi aurtengoak, mendiak berriz gorritu gabe, naikoa dira lengoak.
- 6/ Pakea dute amesgai emen gazteak bezela zarrak, lana dagite kale, pabrikak, ta lana baserritarrak. Eguneroko ogian billa gaude saiatu bearrak, Jauna maitatuz igarotzeko lurreko urte bakarrak.

*Anaitasuna* aldizkaria, Tolosa, 1954-I.

## ARRATE'KO AMA'RI

- 1/ Edertasunez gañeztutako mendigain lerdentsu baten,  
Zerutar Ama dago pozkidaz goitar indarrak ematen.  
Eibartar anai aztu-eziñak,  
zein zoriontsu zeraten,  
naigabe danen arintzallea  
or daukazute Arrate'n.
- 2/ Zenbat mesede ixurtzen duan  
Arrate'ko izar orrek,  
ezin dezake bear bezela  
orixe neurtu iñorrek.  
Alper-alperrik astinduko du  
millaka ekaitz zakarrek,  
Ama on ori lagun dun arte  
ez du beldurrik Eibar'ek.
- 3/ Amargarrengo gizaldikoa  
omen da bere tajuaz,  
jakintsu asko ibili dira  
iritzi au azalduaz.  
Belaunak lurra jo dezatela  
onetzaz gogoratuaz,  
eunka urtetan baitago Ama  
Eibar gorde ta zainduaz.
- 4/ «Sortzez Garbia» zendun izentzat  
guraso zarrak emana,  
mendi auetan uste on ori  
beti izanda Zugana.  
Ongi dakigu artean gauz au  
fedeko egi etzana,  
baña guk gogoz sinisten gendun  
garbi sortua ziñana.
- 5/ Urregorritzko kutxatxo polit,  
dizdiratsu, apañean,  
Ama semeak agertzen dira  
goxoki bere gañean.  
Amak sagar bat eta semeak  
liburua du aldean,  
an daude beti laguntzeko prest  
iñor beartzen danean.
- 6/ Ikusten dezu eibartar onak  
gogoz maite zaituztela,  
beren otoitzik eztietsuenak  
Zuretzako dituztela.  
Ezagutuzten dute bakarka  
errez galdu ditezabela,  
aurreruntz ere lagun zaiezu  
oraiñartean bezela.
- 7/ Ainbeste zelai, ainbeste lore,  
nunai mendi dotorea,  
lurrak batzutan artu dezake  
paradisu kolorea.  
Ederrak dira mundutar lorak,  
baña badegu ohea,  
Arrate gañak dauka usaintsu  
lore guzien Lorea.
- 8/ Goazen guziok Lore ortara  
erle kutsuak arturik,  
zer zoramena sentiko degun  
beregana inguraturik!  
Laister gelditzen geranean gu  
lorak ezin usaindurik,  
goiko baratzen sartu gaitzala  
bere besotik eldurik.

*Aranzazu, 1954, I.  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## EIZTARIAK ASARRE

Eizaren arrastorik ez dute izan urte guzian. Alperrikako gastuak eta ibillerak ugari. Egun auetan –elur egunak baitira– bada egaztiaren emana. Eiza galerazia, ordea, elurtean. Au komeri beltza!

- 1/ Alde guzitik sortzen zaizkigu  
berebiziko lazoak,  
neurtu bearra dago nolatan  
ematen diran pausoak.  
Entzun ditudan izketaldiak  
gogoan dauzkat jasoak,  
bolara ontan gure eiztariak  
ez dabiltz oso gozoak.
- 2/ «Zenbat irtera nolabaiteko  
egiten degun etxetik,  
oñetako ta erropa danak  
bustiaz oso goizetik!  
Urte guztian egazti bat ez,  
gastuak alde guzitik;  
orain aukera dagon garaian  
guardazibillak atzetik».
- 3/ Ez dagonean ez dagola ta  
danean elurra dezu,  
arrapatuko bazinduzteke  
errukarri ziñake zu.  
Mundutar danak juzgatzen ditut  
eiztariekin berdintsu:  
nai degu baña ezin izan gu  
lur gain ontan zorientsu.

Zarautz, 1954'garren urtea.  
«Kantari nator», Itxaropena, Zarautz,  
1960.



## ARANTZAZU'KO ELEIZA

- 1/ Ama Birjiña egunez nintzan  
Arantzazu'ko gañean,  
ikusitu nuen kupirik gabe  
ari dirala lanean.  
Guziak berdin esaten dute  
obra aztertzen dutenean:  
«Ikusgarria geldituko dek  
ondo bukatzen danean».
- 2/ Praille zintzoak or jo ziguten  
gure etxetako atea,  
euskaldun danen bearkuna zan  
al zanetik ematea.  
Oraingo onetan egingo degu  
pixka bateko pakea,  
Ama laztanak laister bait-du an  
merezi dun estalpea.
- 3/ Buru argiko artista azkarrak  
bertan dituzten ekintzak,  
zer eginkizun daukan garbiro  
badaki gizon bakoitzak.  
Esan bezate Basterretxeak,  
Eulatek eta Oteizak...  
Iñoren lotsik ez du izango  
Arantzazu'ko eleizak.

*Arantzazu, 1954-I.*

## OGETA GAZTEA

Emezortzi urte ditu Araba'ko Ogeta pelotari gazteak. Azaldu berri da gure plazetan. Etorkizun aundiko pelotaria ote dan dirudi. Gaurko txapeldunari buruz garai artan moldatutako bertsoak dira.

- 1/ Gure pelota dala bitarte  
zerbait nai nuke itzegin,  
Ogeta gazte orren izena  
ezaguna izan dedin.  
Ezker-eskubi sendoak dauzka,  
naiz kolpe batzuk utsegin...  
Oker txarren bat izan ezean  
orrekin ez da atsegin.
  
- 2/ Besoak sendo baldin baditu,  
bigun anka ta gerriak,  
utsune danak zaintzeko berriz  
lañorik gabe begiak.  
Ta emezortzi urte bakarrik  
mutiko arrigarriak,  
zarrak baztertzen diranerako  
azaldu dira berriak.
  
- 3/ Guk nai genduken ainbeste gazte  
plazetan ezin azaldu;  
besozko lanak bakandu dira,  
ostikoketa ugaldtu.  
Beti zabarrak izan gera ta  
geren izena geuk galdu,  
Ogeta asko bearko dira  
pelotak bizi nai badu.

*Zarautz, 1954'garren urtea  
Aranzazu, 1954, II.  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## NEGURIK ETZALA?

- 1/ Gabon jaitara iritxi giñan  
uda kutsu eder baten,  
elastiku bat jazteko ere  
etzun gogorik ematen.  
Aurten negurik ez genduela  
or ari ziran esaten,  
ondo pentsatzen jarri ezker  
zer deskuidoa zeukaten!
- 2/ Ilbeltza bere azken aldetan  
asi zan griña ximurrez,  
ta otsaillak astindu gaitu  
bizkarretikan egurrez.  
Asealdi bat artuak gaude  
izotzez eta elurrez,  
or egon gera su ondotikan  
aldegiteko beldurrez.
- 3/ Ainbat egunez supritu degu  
denborale txar, petrala,  
jakiña dago etortzen dana  
emen artu bear dala.  
Askok diote aurtengo otza  
Siberia'koa zala,  
nik nongoa zan ez dakit baña  
bai ondradua etzala.
- 4/ Elurrak preso artuak trenak  
baditu Kastilla ortan,  
uste ez dala arrixku beltzak  
sortzen baitira askotan.  
Paris'en berriz badira aurrak  
illak amaren besotan,  
beldurgarria da otza ere  
neurriak pasatzekotan.
- 5/ Negu beltzari jende geienak  
izaten dio gorrotu,  
bero danean otza nai degu  
ta otz danean berotu.  
Udaberria iritxi arte  
ezin lezake girotu,  
kukuen kankak entzun artean  
ez gaitzezela arrotu.

*Aranzazu, 1954-III.*

## KONPONDU EZIÑA

Nazio aundien arteko batzarra Berlin'en. Itz asko ta eztabaida asko, baña... pakea urruti. Aretxen billa joan bereziki, ta eskuratzeko itxurik ez. Alper-alperrikako billerak Berlin'goak.

1/ Nazio aundi oiek biltzeko bazala zioten ordu, alako batez egiña dute ortarako ainbat modu. Len gauzak gaizki baldin bazeuden Berlin'en ez dira ondu, batzarra pranko egiñagatik iñola ezin konpondu.

2/ Amerikano, prantzes, inglesak ustez benetan asiak, erabakiko ziralakoan alkar arteko auziak. Oiek baietza esan ezkeru ezetza zeukan Rusia'k, alper-alperrik izan dira or egindako lan guziak.

3/ Alemania bi puskan dago, nunaitan mugaz beterik. «Ezta komeni -zioten danak- era ortan egoterik». Oraindik ere ez dute artu konponketaren biderik, Berlin'en ez da gai ortan egin tinta gastatu besterik.

4/ Rusia beti Txina'ren alde sekulako indarrean, besteak ura ikusi nai ez beren begien aurrean. Errezelo ta azpianetan, eta alkarren beldurrean... Guk nai genduken pake santua ez dago oso urrean!

5/ Berrogei auzi atera maira eta danekin biurri, batasunaren itzal gozora ezpaizuten nai etorri. «Arre» nork bere astoari ta... «Kristonak» esan alkarri, beraren billa joan danak eta pakerik ezin ekarri.

6/ Lurreko urte labur auetan ainbat naigabe ta pena, sinismen danak galdu ziran da au da orain ondorena. Kezka gogor bat daukat aspaldi itsatsirik daukatena: armetan erabakiko dala izketan ezin leikena.

*Zarautz, 1954'garren urtea  
Aranzazu, 1954, IV.  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## ZORIONEKO UDABERRI!

- 1/ Kanta bezate bertsolariak  
guzien atsegingarri,  
urratu bitez bera goraltzen  
millaka euskal eztarri.  
Azaldu zera zorionean  
maite, kutun, udaberri,  
barrengo indar berezienez:  
biotzez, ongi etorri!
- 2/ Ementxe zatoz soñeko argi,  
dizdiratsutan jantzia,  
zure txinpartez bizkortzen dezu  
neguak gaxo utzia.  
Zu gaztetasun ber-bera zera,  
zu arnas eta bizia...  
Zure etorrerik ezpalitzake  
ilda legoke guzia.
- 3/ Txori alaiak zure gorantzan  
kantuz nabaitzen ditut nik,  
soro, zelai ta zugaitzik ez da  
zuri zorrik ez dizunik.  
Munduko diruz ezta ordaintzen  
udaberriko egunik,  
izadi onek ez du ezertxo  
zuk apaintzen ez dezunik.
- 4/ Zugaitzak ostoberritu dira,  
or daude berdez jantzirik,  
mendi-lurreri etzaie palta  
garaiko apaingarririk.  
Galdera triste au egin bear  
biotza lertzen jarririk:  
gure izkuntza maitearentzat  
ez al da udaberririk?
- 5/ Euskera maite, azken mugetan  
ote dituzu indarrak?  
Zure semeok lotsaren lotsez  
gaude ezkuta bearrak.  
Gure zugaitzik mardulenari  
moztu dizkagu adarrak,  
udaberriak ez du errurik:  
geroni gera zabarrak!

*Zarautz, 1954'garren udaberria  
Aranzazu, 1954, V.  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## BERE PIXUA DIAMANTETAN

India'ko ismaelitik, oitura dutenez, beren errege ta Jaungoikoa dan Aga -Khan'i urteko soldata eman diote: bere pixua diamantetan, 93 kilo pixatu ditu dalako Aga-Khan'ek.

- 1/ India aldeko ismaelitik  
Aga-Khan dizute jauna,  
ikusten danez bere erri alde  
gogor egiten du lana.  
Soldata ere ez da makala  
arek urtero daukana,  
diamantetan ematen zaio  
berak pixatzen duana.
  
- 2/ San Blas egunez Aga-Khan ori  
pixu gañean zutitu,  
eun arrapatzen lituzke bapo  
zazpi geiago balitu.  
Ia larogitamalau kilo  
platinotan jaso ditu,  
negua lasai igarotzeko  
ez da ain gaizki gelditu.

*Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## EGI ZABALTZALLEAK MUNDUZ MUNDU

- 1/ Urtebete da laño traketsak  
gugan jabetu zirela,  
urtebete da Gipuzku dana  
urak gañeztu zutela,  
kastigu zakar baten azpian  
burumakurtu giñela,  
zar eta gazte, aundi ta txiki,  
zotiña zeriota...  
*Domund*'ek ere negar egin zun  
erri guziak bezela.
- 2/ Osorik zeuden etxe sendoak  
denboraleak zatitu,  
kosetxak galdu, dendak irauntsi  
ta pabrikak elbarritu.  
Orduko kalte arrigarriak  
bertsoz nork esango ditu?  
Etxea modu artan eukita  
mixioetzaz oroitu,  
al zezakenik eman gabe etzan  
gipuzkoarrik gelditu.
- 3/ Galera izugarriak ziran  
emen izan ginduzenak,  
kontatu eziñ ainbestekoak  
gure naigabe ta penak,  
kristautasuna dala bitarte  
gero gozatu zirenak.  
Orduan ere milloika ziran  
askoz gaizkigo zeudenak:  
zeru ta lurren Jaun da Jabea  
ezagutzen ez dutenak.
- 4/ Ito zirenak aldendu ziran  
errosaioa esanez,  
aingeru baten gurutzetxoa  
lantzandurik zorionez.  
Ta Urola'ko gazte bietzaz  
gu nolatan oroitu ez?  
Zer ikasbide eman ziguten  
arriskutara ertenez,  
beste batzunak salbatzearren  
beren biziak emanetz!
- 5/ Urrezko letraz izenda leizke  
Iraeta'ko gazte biak,  
berengan artu zituztelako  
arrixku izugarriak.  
Etzun erantzun bear bezela  
zemakiten lokarriak,  
besteren ona zala bitarte  
zein azken kupigarriak!  
Era berean ibiltzen dira  
gure mixiolariak.
- 6/ Illunpez dauden milloika anima  
ezin utzi guk aztuak,  
Kriston odolez utzi leizkenak  
grazitan aberastuak.  
Zabaldu bitez mundu guztira  
mixiolari prestuak.  
*Domund* egunez au egingo du  
aurten ere Gipuzkuak:  
ezpañak otoitzetan zabaldu  
ta limosnetan eskuak.

*Guipúzcoa misionera*, 1954, X.

## IRIZAR BIGARREN

Lasarte'ko zaldi-zelaian laisterkariak ditugu. España'ko txapelketa jokatzenda.

Patxi Irizar, andoaindarra, bigarren iritxi da arraira.

- 1/ Laisterkarien zeingeiagoka zaigu Lasarte'n gertatu, España'ko onen guziak bai pulamentuz gertutu. Bear zalarik alkar lagundu, anaitasunez jokatu, gipuzkoarrak aurtengo ontan ez dira gaizki portatu.
- 2/ Aixa pasatzen zituzten aiek nola ordeka ta bizkar, gorputz melarrak zeuzkaten baña belaun-buruetan indar. Alkarren leian egin ondoren makiña bat ibilli txar, lenen Amoros sartu zan eta bigarren berriz Irizar.
- 3/ Ongi dakigu beste tokitan kontu eginda daudela, premizko duten berotasuna beti berekin dutela. Gure mutillak euki ezkerro laguntz onaren epela, emen irtengo lirake onak kanpo aldetan bezela.
- 4/ Gipuzkoa'ko laisterkariak zuen izenari eutsi, al badezute aurrera joaten beste iñori ez utzi. Iñork pentsatzen ezpazun ere zu bigarren go iritxi, nere zorion anaikorrenak artu itzazu gaur, Patxi.

*Zarautz, 1954'garren urtea  
Aranzazu, 1954, IV.  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*



## UDARA BADATOR

- 1/ Urtea zatitua daukagu  
legezko lau pusketara;  
zati bakoitzak iru ill ditu,  
amabi guzietara.  
Preskatu premiz izan ezkerro  
salta gindezke urtara...  
Zai geunden eta gañean degu  
zorioneko udara.
- 2/ Modak dirala ta ez dirala  
gaur eguneko moldeak,  
ez dakit nola izan ditezken  
lengoak baño obeak.  
Ikusitako gauzak ez dauzkat  
gogoan artu gabeak,  
udara berez ona da baño  
geu gera gu zelebrea.
- 3/ Begira iñoiz egon izan naiz  
gauzak ezin sinisturik,  
askon gorputzak ikusten dira  
eguzki galdaz bezturik.  
Animalien gisara dabiltz  
errespetoak azturik,  
zer jaten duten ez dakit baño  
jazten ez dute gasturik.
- 4/ Erropen etsai agertzen dira  
gaur eguneko gazteak,  
iñori kezka gutxi ematen  
dio itxuran jazteak.  
Uda giroak bezelakoak  
baldin balira besteak,  
laister lirake kolperik gabe  
jostunak eta sastreak.
- 5/ Nabarmena da zertarako dan  
askon erropa kentzea:  
ondar gañean jartzen zaizkigun  
postura ortan jartzea.  
Oien asmoa ez da bañatu  
ta eguzkia artzea,  
buruan duten amets bakarra:  
jendeak begiratzea.
- 6/ Loreak gauza gutxi bear du  
edertasuna galtzeko,  
gure lurreko joan-etorriak  
lore gaxoen antzeko.  
Aragi oiek zer bear dute  
berriro auts biurtzeko?  
Zein buru arin, ergelak geran  
ortaz ez konturatzeko!

*Zarautz, 1954'garren urteko udaberrian  
Aranzazu, 1954, VI.  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## ZARAUTZ'KO MIXIO BATZUTAN

- 1/ Zarautz erriak entzunak ditu izketa sendo, beroak, egiak bide bakarra du ta an izan ziran angoak. Ikusi dana garbiro jartzen geu gera gu lenengoak, oraiñarteko marka guziak autsi ditu aurtengoak.
- 2/ Obeto ezin entzun ziteken Mixio Santuko itzik, eleizaratu gabe ez gendun ez goiz eta ez arratsik. Orratz batentzat ainbeste toki ezin arkitu zan utsik; etxe zuloan ez da gelditu gaxoren bat izan ezik.
- 3/ Iñoiz aztutzen ditugun gauzak bai ederki gogoratu, diran bezela azaldu dira; ez da ezer zokoratu. Len sasitegi ziran barrenak orra batetan loratu; anima salba nai lukeanak badaki nola jokatu.
- 4/ Amar agindu daude emanak kristau guzion artera, egunen batez joan bear degu beren kontu ematera. Esamin on bat egin dezagun anai guziok batera, argaltxoena zeñetan gauden orain kontuak atera.
- 5/ Zar eta gazte, pobre ta aberats, danetik da mundu ontan, neska ta mutill, ezkondu ta gai, sartzen gera talde ortan. Pekatuaren errañu beltza ageri da guziotan, gordeta ez da ezer gelditu aurtan gure Mixiotan.
- 6/ Aita Lasa ta Aita Agirretxe, izlari trebe zorrotzak, agertu dute zer dakarkian pekatuaren morrontzak. Barren guziak aztertu ditu jaun argi auen itz otsak, ongi dakite nola xamurru pekatarien biotzak.
- 7/ Gai errezetan bezin garbiro jardun dira gai zalletan, utsegin gabe zintzo jarraituz artzen zituzten salletan. Goiko bi jaunak parrokiaren da Aita Abaitua prailletan, arrai guziak erortzen dira dauzkaten sare malletan.
- 8/ Zeru ta lurren Jaun da Jabea daukagu beti testigu, egun batean kontu guziak eskatu bear dizkigu. Mixioetan makiñatxo bat kontseju on eman zaigu, geuretzat mesederik geiena aztutzen ezpazaizkigu.

*Aranzazu, 1955, V.  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## TOLOSA'KO NEURKETA

1955-IV-17'an, apustu latza jokatu zuten Arruiz'ko Txikiak eta Yurrebaso'k: lenengo, zortzi enbor ebaki; ta, ondoren, zortzi kilometro korritu. Arruiz'ko Txikiak irabazi zuan. Apustu orren berri ematen digute bertso auek.

1/ Zenbait bertso nai ditut

*Aranzazu'n jarri,*  
bi gazte kementsuren  
izen sendogarri.  
Zabaldu ditezela  
erririkan erri,  
jendeak ikas dezan  
Tolosa'ko berri.

2/ Apirilleko illan  
amazazpia zan,  
bost milla kristau pasa  
Tolosa'ko plazan.  
Guzien ezpañetan  
itz bat loratzen zan:  
«Olakorik aspaldin  
ez dek emen izan!»

3/ Bi gazte kementsuak  
elkarri eraso,  
bi azio latzetan  
biurturik otso.  
Goiko malletan jarri  
bear dira oso  
Arruiz'ko Txikia  
eta Yurrebaso.

4/ Egin dutenarekin  
nola ez arritu?  
Lenengo zortzi egur  
sendo erditu,  
ta zortzi kilometro  
ondoren korritu...  
Gure lurak oraindik  
gizonak baditu!

5/ Beren egur gañetan  
aien zirti-zarta,  
eginda utzi dute  
lan bikain, aparta.  
Aizkorari utzita  
erbi gixan salta...  
Etzaiote oieri  
talenturik palta.

6/ Plazan entzuten ziran  
deadar bapoak:  
«Aupa!» Gipuzkuk eta  
«Aupa!» Napparroak.  
Aien beso-gerriak,  
petxu ta zankoak,  
jaiotzatikan izan  
nunbait artakoak.

7/ Yurrebaso asi da  
sekulako sutan;  
aren eman bearra  
azpian da puntan!  
Zortzi egur txikitu  
ain epai estutan,  
amabost minutu ta  
segundo batzutan.

- 8/ Tolosa'n etzegoan  
aizkora bakarra,  
gero plazaren bueltan  
saiatu bearra.  
«Korrika aterako  
diat nik aparra!»  
ori pentsatuz gogor  
ari zan naparra.
- 9/ Saiatu zan Txikia  
aizkoran gogotik,  
baita ebaki ere,  
bat besten ondotik,  
emeretzi minutu  
baño lenagotik,  
esanaz: «Orain neri  
etzidak inportik!»
- 10/ Txikiak bukatzean  
aizkorazko lanak,  
bederatzi bat buelta  
besteak emanak.  
Arritu giñan gogor  
begira giñanak,  
zerizkion garaian  
kendu zizkan danak.
- 11/ Barren borobill artan  
buelta bueltarekin,  
irurogei emanda  
laister ziran berdín.  
Geroxeo Txikiak  
aurrera aldegin,  
gipuzkoar bizkorrak  
eziñ ezer egin.
- 12/ Ezin jokatu zeiken  
iñor gizonago,  
lan danak egin zitun  
asi ta akabo.  
Galtzalleantzat onra  
besterik ez dago,  
biren artean batek  
bear du geiago.
- 13/ Bukaera eman zun  
ango apustuak,  
alkarganatu ziran  
mutiko prestuak;  
baita luzatu ere  
alkarri eskuak,  
ola portatzen dira  
kristau legezkuak!
- 14/ Tolosa'ko plazatik  
ikasbide artu:  
jokatzeko denboran  
gorrotoz jokatu,  
ta geiago danari  
umilki barkatu,  
gero pake santuan  
alkar besarkatu.

*Aranzazu, 1955, 6.  
Laugarren Txinpartak, Auspoa 55, 1966.*

## IRUN'I, MAITASUN OPARAZ

- 1/ Bidasoa'ren zaintzalle gisan  
ernai ta zoli zaudena,  
Gipuzkoa'ren ate nagusi,  
muga-leku nabarmena.  
Txapela kenduz, ainbat alditan,  
agurtu izan detena,  
zerbait badezu zure baitan zuk  
beste erriak ez dutena.
  
- 2/ San Marzial'ko gallur polita  
begi guzien pozgarri,  
ederra zer dan jakin nai dunak  
igo bear luke sarri.  
Garai batean agertu bazan  
odolezko ibai gorri,  
zeruak musu eman diola  
esan liteke gain orri.
  
- 3/ Irundar emakumea berriz  
bai egitzako krabelin,  
zure zelai ta mendien arauz  
Jainkoak polita egin.  
Milla aldetara begiratuta  
zoramen guziak berdin,  
bein ondo ezagutzen zaitunak  
ortikan ezin aldegin.
  
- 4/ Etxeko balitz bezin gozoro  
artutzen dute arrotza,  
lur eder ortan karidadeak  
eztu oso neurri motza.  
Duten guzitik eskeñitzeko  
ez dira izaten lotsa,  
mundua bezin zabala baita  
irundarraren biotza.

*El Bidasoa*, 1955-VI-28.  
*Sortu zaizkidanak*, *Auspoa* 112, 1973

## ARANTZAZU ARRATE'N

Arrate, Euskalerriko tokirik ederrenetakoa! Bertara joan zan Arantzazu'ko Ama maiatzaren 10'garrenean, Jesusen Igokunde egunez. Millaka eibartar eta inguruko errietako kristau batu ziran bertan, Arrate ta Arantzazu'ko Ama goratze-ra. Gogoangarriak benetan bi imajiñak alkartu ziranean entzun ziran gorak eta txaloak! Ona emen alkartze ori zala-ta mol-datutako bertsoak.

1/ Urten zaitezte bertso alaiok,  
urten gaur ezpañetara,  
euskal erritan entzun dedilla  
gure irrintzi, algara!  
Gaur Arantzazu iritxi zaigu  
Arrate'ren besotara;  
ongi etorri, Ama maitea,  
gain zoragarri ontara.

2/ Gipuzkoa'ko Zaindaria gaur  
gallur ontara bixita,  
orra bi-biak irripar goxoz  
zerutar lorez jantzita;  
egun au ezin aztu liteke  
lareun urtean bizita,  
nolako poza izango duten  
aizpak alkar ikusita!

3/ Ez leike kanta kristau eztarriz  
unezko aunditasuna,  
ez leike ager Arrate gañak  
egun ontan senti duna;  
lendabiziko «Sortzez garbitzat»  
erriak autatu zuna,  
ori da emen, Amatxo maite,  
zure zai zendukazuna.

4/ Ama maiteok, zuen aurrean  
ona pozkidaz erria,  
zuen alkartze pozgarri ori  
ikustera etorria!  
Gu danontzako izan zazute  
bear degun errukia,  
zeuen ondoan goza dezagun  
betiko atsedentokia.

*Arantzazu, 1956, VII.*

## **GURE KABIA ALKARTEAREN ERESERKIA**

- 1/ Zarautz'ko kabitarrak  
emen gatoz alai,  
maitasunez gainezka,  
benetako anai.  
Jan-edan itxuran da  
umorea salgai,  
*Kabia*'ren diztirak  
zabalduaz nunai.
  
- 2/ Egizko kabizale  
gu orain eta len,  
ekaitzak indar sarri  
an ezpada emen.  
Gure kabi goxoan  
beti dago lurmen,  
laño beltzak utzita  
bertara lenbailen!

## ESKERRAK ZURI, OIARTZUN!

- 1/ Mesedetxo bat eska didate  
biotz nereko lagunak,  
barren aundirik eztu izango  
ori ukatuzten dunak.  
Zuretzat ditut, Oiartzun maite,  
gaur nere bertso kutunak,  
zu aztutzerik iñoiz ez dauka  
beñ ezagutzen zaitunak.
- 2/ Iñor galdezka baldin baletor  
erri on jator bat nun dan,  
zure izena erabiltzeko  
ni ez naiz egongo dudan.  
Gogoan daukat zure salletan  
zer une pasa ditudan,  
etzindazuke sinistatuko  
nik zenbat maite zaitudan.
- 3/ Karidadezko bide onetan  
serbitzari ta umillak,  
nere modura esango dute  
or ibillitako millak.  
Guretzat pozik dantzatzen ziran  
zuen ate-maratillak,  
preziz danari lagundutzeko  
zuek zerate mutillak!
- 4/ Baso ta mendi, soro-zelaitan,  
badezu nai dan aukera,  
semeak berriz gordetzen dute  
jatorrizko izakera.  
Mendiburu'ren lurretan ezta  
askotan ainbat galera,  
euskaldun kutsu orri eutsiaz  
jarrai, Oiartzun, aurrera!
- 5/ Illunpe beltzez nintzan garaian  
zuk argi egin zidazun,  
beste erri batek ezin zezaken  
era obean erantzun.  
Ezjakin onen bearrik iñoiz  
baldin bazendu, Oiartzun,  
nezaken pixka egiteko prest  
badakizu nun naukazun.

Zarautz, 1956-VII-20.  
*Oiartzun* urtekaria, 1956.



## BASERRIA AZKENETAN?

1956'garren urtea da. Gipuzkoar industri indartsua beso eskasian dago. Millaka pertsona sartzen zaizkigu kanpoetatik. Ainbat eta ainbat baserrik itxi dituzte beren ateak. Erreka-ibaietako urak itxasora bezela, mendi gizonak kalera dartzokigu.

1/ Bein bear eta kantari nator,  
danak entzun deidatela,  
iñoiz bada-ta, sinistu gero  
motiboa badetela.  
Kezka bat daukat barren barrenen  
len egundo ez bezela,  
euskal baserri maitegarriak  
galtzera dijoazela.

2/ Gure izate, sustrai guzia  
baserriaren oñean,  
artatik degu jatorri dana  
lur ontan, zorionean.  
Guraso zarrak gizaldietan  
or lertu dira lanean,  
bizi-poz asko ez da izango  
bera ondatzen danean.

3/ Ainbat urteko lanaren kargaz  
bizkar danak makurtuta,  
baserrietan ainbeste daude  
penetan ezin lertuta.  
Ta ikusirik beren buruak  
zor aundipean sartuta,  
kale aldera datoz igesi  
beren trasteak artuta.

4/ Aspaldi ontan eman-bearrak  
aunditu dira ugari,  
zutik joateko kemenik ezta  
geientxoena erori.  
Eun kilo juxtu eramango ta  
berreun bizkarrean jarri,  
orixe bera gertatzen zaio  
orain baserritarrari.

5/ Agintariok, abixu auxe  
nai nizuteke bialdu:  
bide txarrean dijoaz gauzak,  
onek bukatu bear du.  
Baserriarren laneko pozak  
orren aguro ez galdu,  
kalea ere larrituko da  
lurrak ematen ezpadu.

6/ Ezin bizia jarria dago  
mendi aldean etxero,  
nor beretzako zer gelditzen da  
besterek kendu ezkerok?  
Agintariak, asi lanean  
oraintxe sutu ta bero,  
damu guziak alperrik dira  
denbora pasata gero.

7/ Mendian bizi ezin diranak  
sallean datoz kalera,  
askok ez dute, ez, neurtzen ondo  
onek dakarren galera.  
Laguntza pixkat ezpadijoa  
nekazarien artera,  
baserri danak ustuta daude  
emendik ogei urtera.

8/ Lengoak lengo, zer egin digu  
aurtengo negu saztarrak?  
Guziz erre ta kixkali ditu  
ingurutako bazterrak.  
Ekarri bear zai edo baba,  
iñongo lasto zakarrak,  
pentsuarentzat aña ezin du  
egin gaur baserritarrak.

9/ Baserriari alde guzitik  
etorri zaion kaltea,  
ainbat kostata egindakoak  
beste batzuek jatea.  
Askoren poza au zan bakarrik  
basoa piñuz betea,  
ta otsaillak or eman die  
betiko errematea.

10/ Gizaldietan sendo zeudenak  
ekaitz aldiak irauli,  
baserritako bizi-poz dana  
orra kolpetik itzali.  
Kaletan gañezkatu baño len  
millaka mendi famili,  
gero negarrak alperrik dira:  
oraintxe bizkor ibili!

*Aranzazu, 1956-VII.*  
*Kantari nator, Zarautz, 1960.*  
*La Voz de España, 1975-V-19.*

## AITA IÑAKI EIZAGIRRE'REN MEZA BERRIA

Au egunaren ederra! Lau anai aldare batean. Zarren irurak laguntzalle ta gaztena meza ematen. Lenengo aulkietan gurasoak; ondoren, Zarautz'ko erri osoa.

- 1/ Udaberriko goiz ederra da,  
zeru-lurrak zorionez,  
Zarautz erriko mar-mar goxoak  
poz jariotan entzunez.  
Aurtengo urte gogoangarriz,  
Jose Deunaren egunez,  
derrior sarri oroitu bear  
begiz ikusi degunez.
- 2/ Prantziskotarren eleiz bikaña  
orra or bete betean,  
batzuek emen exer-aulkitan,  
beste batzuek tente an.  
Etxe bateko lau anai prestu  
aldare santu batean...  
Une onetzaz ezin aztu gu  
bizirik degun artean.
- 3/ Ai, egunaren bikaintasuna  
ez da samurra esaten,  
al dan guzia saiatuko naiz  
guziak jakin dezaten.  
Aitatutako lau anai bizkor  
jarririk aldare baten,  
zarren irurak laguntzalle ta  
gaztena, meza ematen.
- 4/ Lenengo mallan aita-amak daude;  
jendeak begira beza,  
beste oinbeste iñon ikusten  
ezpaitago lan erreza.  
Ai, biotz oien gaurko zoria  
nik agertu al baneza...  
Zein arretatsu entzuten duten  
seme gaztenaren meza!
- 5/ Eizagirre'tar zorionsuak,  
zuen lekua or dago,  
Jaungoikoaren ordezkartizan  
nor zuek baño gorago?  
Lau seme apaiz egiñak eta  
zein baño zein argiago,  
guraso batek ezin eskatu  
lur ontan ezer geiago.
- 6/ Sermoi eder bat derrior bear  
jai au dan bezelakoak,  
gogoan izatekoak dira  
belarriz entzundakoak.  
Jaun Elustondo'k esan dizkigu  
gaur esan bearrekoak...  
Ibai koxkor bat sortzeko ainbat  
ixuri diran malkoak.
- 7/ Jaun Iturria'k bai organoa  
aixa dantzatzen duela,  
ta badirudi aingeru batzuk  
meza kantatzen dutela.  
Eleiz barrena lorez jantzia,  
ta argiz gutxitan bezela,  
une ontantxe esan diteke  
zeru erdian gaudela.

8/ Aita, Bartolo, ama Jexuxa,  
biak zaizkigu begizko,  
seaskatxotik erakutsiak  
amaika gauza egizko.  
Oien gradua bezelakorik  
ezin diteke begiz jo,  
lau seme aundi or dituzute  
Jaungoikoaren ministro.

9/ Zorion bero ta gartsuenak  
nai dizkitzutet bialdu,  
nolako gurasoak zeraten  
jendeak jakin bear du.  
Etxe indarrak orra nun diran  
Jesukristoren soldadu,  
ikasbidea eman dezute  
iñork jarraitu nai badu.

*Zarautz, 1957'garren urteko San Jose eguna  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## OIARTZUN ZARRARI KANTUZ

- 1/ Oiarzun maite, emen nator ni  
zu gogotsu aipatzera,  
aztu-eziñak izaten dira  
pizti batzuen antzera.  
Bearturikan bezela gaude  
zuri txapela kentzera,  
Gipuzkoako erri guzitan  
zarrentxoena zu zera.
- 2/ Plinio batek bere lanetan  
iñoiz aitatzen zaitu zu,  
aren garaiko idazle askok  
maixu arek bezelatsu.  
Erromatarren kutsuak berriz  
Arditurri'n or dituzu,  
atzo goizeko lore etzerala  
zeuk antzemango diozu.
- 3/ Kondaira zarrak zutzaz, Oiarzun,  
zenbat daukan esan-naia,  
izan zenduen lurrez aberats  
arkitu ziñan garaia.  
Zureak Ondarrabi ta Irun,  
Lezo bezela Pasaia,  
oraiñ estua etzeran arren  
orduak ziñan lasaia.
- 4/ Orain bezela, gerrak ugari  
lengo denbora zarrean,  
onez konpondu ezin ziranak  
asten ziran indarrean.  
Ta beti nola izan zeran zu  
mugatik oso urrean,  
odola pranko ixuri izan da  
oiartzuarren lurrean.
- 5/ Milla ta lareun irurogei ta  
amasei zeritzaiona,  
prantzesak sartu, erria sutan,  
ura zan estuasuna!  
Kixkali zuten eleiz-torrea  
eta barrenen zegona,  
auts biurturik gelditu ziran  
bertan larogei pertsona.
- 6/ Andikan berreun urte baño len  
berriz oz ziñun prantzesak,  
su ta garretan aldatutzera  
zure pakezko ametsak.  
Sarri pagatu izan dituzu  
beste batzuen lañezak,  
zure kalteak zer izan diran  
neurtzen eztaude errezak.
- 7/ Zenbat alditan entzun dezun zuk  
tronpeta zarren orrua,  
zenbat alditan ikusi dezun  
zeure lurra odoldua!  
Arkaitza bezin tinkoa zera,  
ortan dezu anparua,  
«Aitaren» esan baño lenago  
jasotzen dezu burua.
- 8/ Lartaun, Isasa ta Mendiburu,  
eztira joaten burutik,  
zuei laguntzen baitaude beti  
arkitzen diran lekutik.  
Sarri zapaldu nai izan arren  
sendo zaude zu or zutik,  
aurrerantz ere Goitar Jaun onak  
izan zaitzala eskutik.

Zarautz, 1957-VII-16.  
Anuario «Oyarzun», 1957.  
*Laugarren Txinpartak, Auspoa* 55, 1966.

## ELGOIBAR LANGILLEARI

- 1/ Ben-benetako adiskideak  
datoz bertso batzun eske,  
ederrik inoiz asmatzekero  
oraintxe asma litezke.  
Zuri eskeñi nai nik, Elgoibar,  
loretxo bat edo beste,  
alare etzaitut, ez, goralduko  
merezi dezun ainbeste.
- 2/ Mendi bikañak or jeiki ziran  
zuri guardi egitera,  
Deba ibaiak bustitzen zaitu  
komeni zaizun aldera.  
Zure semeak nagirik gabe  
emanak daude lanera,  
argatik zoaz gogor indartzen  
egunetik egunera.
- 3/ Lanaren bidez iritxi zera  
guziz gorengo neurrira,  
zure aurreko guraso zarrak  
eztauzkatzu gaur begira.  
Orain larogei urte sartuak  
erri ortan lur azpira,  
zer pentsatuko ote luteke  
berriz piztuko balira?
- 4/ Konturatuta bizi gera gaur  
gipuzkoatar bakoitza,  
txit aldatua dagola lendik  
erri ortako bizitza.  
Industriz lenen mallan zaude ta  
indartsu nekazaritza,  
negarrik ezin jo zenezake,  
Elgoibar, ondo zabilta.
- 5/ Elgoibartarrok deporte-zale  
sutsuak zerate oso,  
ta pelotaren izena ere  
etzenduten gutxi jaso.  
Orko semeak agertzen ziran  
frontoietako guraso,  
Baltasar eta Arriola bat,  
gero Zabala ta Artazo.
- 6/ Asten zeraten alderdi artan  
beti ortzak erakutsi,  
aspalditxoko urte auetan  
ezta or azio gutxi.  
Or ainbat sari edo premio  
bestetan eziñ ikusi,  
ostikoketan noiznai zerate  
Gipuzkoa'ko nagusi.
- 7/ Jarrai, Elgoibar, aurrerantz ere  
frutu bikañak emanez,  
zure gradurik ez leike artu  
alperkerian egonez.  
Goiko Jaun onak danok beteko  
al zaituzte zorionez,  
anai-arrebok, ongi jolastu  
aurtengo San Bartolomez.

Zarautz, 27-VII-1957  
Elgoibar'ko 1957 urteko festa-programatik artuak.  
*Laugarren Txinpartak, Auspoa* 55, 1966.  
*La Voz de España*, 1978-VIII-23.

## AZPEITI'KO ERRIARI

- 1/ Azpeiti maite, aztu-eziña,  
apalki nator zugana,  
Izarraitz bikañaren oñetan  
zaude gozoro etzana.  
Amaika seme argi ta bizkor  
ezaugarritzat emana,  
munduaren lau egaletan gaur  
sarri aitatzen zerana.
- 2/ Zure pozaren aunditasunak  
nolatan mugarik izan?  
Zenbateraño irixten dan nik  
bertsoz ez nezake esan.  
Zuk landutako lur-zati ori  
ain mardula izango zan,  
San Inazio arrigarri bat  
zerbaitegatik jaio zan.
- 3/ Zure bitartez Euskalerrria  
gutziz dago zoriontsu,  
alako seme goralgarria  
berari eman diozu.  
Inazio bat aitatzen dunak  
beti aitatzen zaitu zu,  
Zaindari orren babesean zuk  
zeren beldurra daukazu?
- 4/ Zure semeak zerutar garra  
nunbait berekin daukate,  
zure izena entzungo baita  
mundua mundu dan arte.  
Eta aldaretan ikusi leike  
aguro Anai Garate...  
O, azpeitiar biotzekoak,  
inbirigarri zerate.
- 5/ Mendi bulartsuz inguratuta  
zoriontsu zera guziz,  
lantu jotzeko motibo asko  
eztezu nere iritziz.  
Nekazaritza bikain daukazu,  
indartsu zaude industriz,  
geientsuenak arritzen dira  
gaur zu zerana ikusiz.
- 6/ Azokaz eta periz etzaitu  
beste erri batek autsiko,  
orko billerak bezin jatorrak  
eztitugu ikusiko.  
Gure esker ona nola eztezu  
zuk, Azpeiti, mereziko?  
Euskera zarra gordetzen ere  
zu zera lendabiziko.
- 7/ Erriko jaitan jolatsu danok  
arpegi alai emanik,  
ezta munduan anaitasuna  
menperatuko duanik.  
Jarrai aurrera, guraso zarren  
seme leialak izanik,  
etzazutela iñoiz zikindu  
Azpeitia'ren izenik.

*Aranzazu, 1957, IX-X.  
Laugarren Txinpartak, Auspoa 55, 1966.*

## KANPOKO JENDEA

- 1/ Probintzi maite, aldatu zera  
zu lengo denboretatik,  
fabrika, taller eta tximini  
ageri dira nunaitik.  
Bertan bear zan ainbat beso ez,  
lana zegoan gogotik...  
Urte auetan millaka kristau  
sartu zaizkigu kanpotik.
- 2/ Gorrotuz iñoiz ez degu artu  
etorri zaigun jendea,  
premi gorrian arkitzen danak  
berekin du naigabea.  
Guzieri on egitea da  
Jaungoikoaren legea,  
jaiotzen danak bizi izateko  
badauka eskubidea.
- 3/ Gure anaiak, millaka dira  
emendik joanak igesi,  
Ameriketan edo Europa'n  
aiek ere nunbait bizi.  
Lana egiñaz nai badu batek  
jatekoa irabazi,  
asmo orrekin datorrenari  
ezin iñork galerazi.
- 4/ Arrokeriak sekula ez du  
ondoren onik ekartzen,  
oien artean askok ez daki  
zer lur ari dan zapaltzen.  
Kanpotarreri guk ez diegu  
beste gauzarik eskatzen:  
jakin bezate oiturak eta  
izkuntza errespetatzen.
- 5/ Euskeraz izan oi dira beti  
gure izketa xamurrak,  
ori entzunaz jartzen dituzte  
iru metroko muturrak.  
Gero gañetik gaizki esaka  
urratu arte zintzurak,  
ementxe gaude geure lurrean  
itzegiteko beldurrak.
- 6/ Oso zabalik arkitu dute  
gure etxeko atea,  
ori eginda merezi gendun  
esker on bat izatea.  
Gure oiturak azpiratuta  
geuri gaizki esatea,  
auxe bai dala burutik bera  
nai dutena egitea.
- 7/ Bizibearrak onuntz ekarri  
zaituzte zuen erritik,  
danok ederki konpon gindezke  
irten ezean neurritik.  
Errespetoa ibil zazute,  
ez jarri bide txarretik;  
oinbeste burla ez da egiten  
erri baten bizkarretik.

*Zarautz, 1958'garren urtea.  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*



## PARISEN KANTATUTAKO BI BERTSO

(1958 urteko maiatzean)

Parisko euskaldun jende jatorra  
 ara ementxe batua,  
 anai-arreba pranko badegu  
 gaur onuntz inguratua.  
 Ameriketan zenbat dabillen  
 etxetik urrutiratua!  
 Egun onetan aiekin degu  
 gorputza eta gogua.  
 Jaunari esker egin baitegu  
 emen biltzeko modua,  
 era ontako alkartasunez  
 alaitutzen da mundua.  
 Berriro ere autatu zagon  
 onelakoxe lekua,  
 irrintzi eta santzo egiteko  
 iritxi baita ordua.  
 Bertsolariak ager gaur goitik  
 bertsoa eta kantua,  
 eman eta zabaldu dezagun  
 mundu guzian frutua.

Arrantzaleak boga ta boga  
 beti itxaso aundian,  
 artzai mutilla txistu ta kanta  
 or ikusten da mendian,  
 nekazariak beren lurretan  
 ari baitira lanian;  
 igande egunez gu euskaldunak  
 ementxen aldamenian.  
 Bein bear eta gure erria  
 dago umore onian.  
 Eguzkia're dizdiratsua  
 goizetik zeru gañian.  
 Auxen da poza kabitu eziña  
 edertasun au ikustian,  
 zar eta gazte, aundi ta txiki  
 guziok bat alkartian,  
 maitetasunez bildu bai gera  
 gaur festa eder batian,  
 anai-arrebak, ezta bildurrik  
 ola gabiltzan artian.

## OXOBI ZANARI

(Parisen, 1958'ko maiatzean)

Hernandorena jaunak: Biotz miñez as-  
tera nijoakizue bigarren saioa zuei presen-  
tatzera. Biotz min ori aundiagotu zait  
Dassance emen ikusita. Urterik urte eta  
txapelketaz txapelketa, gaur ohoratzen  
degun gizona, apeza, eta Dassance jauna  
beti alkarrekin baitziran. Dassance jauna  
emen ikusirik, etzait iruditzen Oxobi jau-  
na bazterren batean ikusi bear ez dedanik.  
Bañan zoritxarrez ala da. Otoitz egin degu  
goizean bere ohorez, eta orain bertsolari-  
ak eskeñiko diote beren omena.

Basarrik:

Oxobi jaunak idazten zuen  
oso xamur eta erraz,  
alegi edo ipui batzuek  
emanaz egi tankeraz.  
Itz guziak e ondo josiak,  
aparta baitzan joskeraz;  
gaiak erabiltzen zitun berriz  
berak nai zuan aukeraz.  
Euskaldun danok arenganako  
zorretan gaude gaur beraz.  
Illa zala jakin ta guziok  
gelditu baigiñan penaz.  
Zer galera guk beste mundura  
gizonaren irteeraz!  
Arek baitzuan almen bizi bat  
izana beti bere eraz.  
Lafontaine eta Samaniego  
bizkor baitziran erderaz,  
baña Oxobi añakorikan  
izan al degu euskeraz?

Luto edo doluz gelditu ziran  
basoak eta mendiak,  
negar egin zun artzai mutillak  
ta negar arrantzaliak.  
Askoz geiago liburutatik  
dauden gizon ikasiak.  
Oxobi zein zan bear bezela  
eztaki mundu guziak.  
Tristetu giñun zaarrak eta  
tristetu giñun gaztiak  
gizon uraxe beste mundura  
zijoala ikustiak.  
Zartada aundi bat eman baitzigun  
Oxobi illaren berriak.  
Geuk ere ez dakigu zer gizon  
galdu dun Euskalerrriak.

## BAXURKO OLERKARIARI URRUÑAN, 1958 URTEAN

1/ Gure Baxurko maitagarria  
nola ez izan goguan?  
Oraintxe dala ogeitamar bat  
urte ezagutu nuan.  
Toki askotan ibilli gera  
biok beti inguruan,  
pentsamentu bat zun biotzean,  
pentsamentu bat buruan:  
bere euskera maitagarria  
nundikan jasoko zuan.  
Ura txit garbi agertutzen zan  
etxean eta auzuan,  
euskera zeukan ark ametsetan  
eta euskera pausuan,  
berdin kafean eta kalean,  
ta berdin-berdin pausuan,  
ta nere ustez pekatuaren  
arrastorikan etzuan;  
iñor badago, ni seguru naiz  
au daguela zeruan.

2/ San Inazion bititza ere  
bertsotan zuen egiña,  
gero Jesusen izakeraren  
zer liburu atsegiña!  
Gorroturikan etzuen iñoiz,  
beti ondo itzegiña,  
ezagutuzten zuten danentzat  
oso baizan gizon fiña,  
bere lur ori ikusi eta  
biotzean zeukan miña:  
Ama gaixoa ia illean  
eta sendatu eziña.  
Ori nai zuan ta ori izan zan  
beti Baxurkoren griña,  
obe genduke beste guztiak  
orrelakuak bagiña.

## BEORLEGI JAUNA IL ZAIGU (G.B.)

Udaberriaren urratzean, kukuen kantu otsak entzun zitezkean garaian, eldu zaigu berri garratza: D. Gregorio Beorlegi donostiar antzezlarari trebe ta ospetsua bat batean eriotzaren atzaparretan jausi da.

- 1/ Teatru sallak zu izan zaitu lenen mallako lankide, zuri eskerrak urratu ditu makiña bat illunpide.
- 2/ Iñon da iñor baldin bazegon laguntzaren bearrean, an azalduko ziñan zu beti beste guzien aurrean.
- 3/ Nunai nabarmen azalduko zan zuk zendun abildadea; ta batez ere beti nabarmen ai, zure karidadea.
- 4/ Diruz ta sonaz aundia izan zindezkean zu kanpoan, naiago zendun, ziñan bezela azaldu zeure txokoan.
- 5/ Arraiak ura bezela maite baizenduan zure lurra, ta bere mugaz aldentze orrek ematen zizun beldurra.
- 6/ Bere semerik bikaintxoena euskal teatroak galdu... Bañan erein dun azi ederrak frutu on emango al du!
- 7/ Berrogeitamar urte luzetan zu baiziñan lendabizi, orain datozen gazte maiteak badaukate nun ikasi!
- 8/ Gure Donosti'k, gure Gipuzku'k, berekin dute galera, ainbat balio zuan pitxia sartu baitute lurpera.
- 9/ Udaberriko egun batean, kukua kantuz basoan; zu berriz, zurbill, betiko ixill, eriotzaren altzoan.
- 10/ Agur, lagun zar, ixpillu eder, eta antzezlarari bikaña, goiko teatru ortan artzazu emengo lanen ordaña.
- 11/ Agur onetan bein da berriri busti zaizkigu begiak, etzaitu azten, o, Gregorio, zu jaio ziñan erriak.
- 12/ Zeru ta lurren Jaun da Jabea, Zu zera Jaunik onena! Eman zaiozu betiko pake, ta betirako atsedena.

*Zarautz, 1959'garren urteko udaberria  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## ZUELTZU'REN OMENALDIA

Itziartarrak Zueltzu bertsolariari omenaldi bero bat eskeñi diote. Irurogeita bost urte ditu Zueltzu'k. Oraindik orain-tsu arte bera izan da Luistarren lendakaria Itziar'en. Txapel aundi zoragarri bat eman diote eskuetara Itziar'ko Luistarrak Zuel-tzu'ri; txapelaren gañekaldean Itziar'ko Ama'ren irudia, urrez itsatsita. Erri guzia bat egiñik azaldu da jaialdietara. Zueltzu bertsolaria, Zueltzu Luistar zintzo ta osoa, ezagutzen duten guziak maite dute-na da.

- 1/ Zueltzu maite, danak zugana,  
gogoak ala emanik,  
Itziar ontan iñor bai al da  
etxean gelditu danik?  
Erri guzia oso osoan  
emen ikusten baitet nik,  
zerorrek etzenduan usteko  
ain maitatua ziñanik.
- 2/ Zeure bizitza osoan beti  
ain paketsua izana,  
iñor mintzeko moduko itzik  
oso gutxitan esana.  
Bertsolari on, patxarazkoa,  
ta luistar zuzen-zuzena,  
nola ezta ba extimatuko  
era ontako gizona?
- 3/ Itziartarrak zure ondoan  
gaur daukaten atsegiña,  
ain apal eta gozoa zera,  
ta aiñ ondo itzegiña.  
Premiz arkitu izan danari  
mesede asko egiña,  
ainbeste jende etzan bilduko  
petral bat izan baziña.
- 4/ Luistar gazteak zure lanketak  
oso dauzkate gogoan,  
omenaldi au eskeñi arte  
iñor lasai etzegoan.  
Txapel eder bat eman dizute  
on egiteko asmoan,  
zure burua estali beza  
aurreruntz urte askoan.
- 5/ Zuk Itziar'ko Ama lastana  
ain gogozkoa baitezcu,  
irugeita bost urte ontan  
berorrek lagundu dizu.  
Aurrerantz ere gorde zaitzala  
orrelaxe, osasuntsu,  
nere zorion anaikorrenak  
lagun zar maite, Zueltzu.

*Zarautz, 1959'garren urteko garagarilla  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## BERTSOLARI GAZTEAK

1959'garren urteko agorraren bederatzia da. Gipuzkoa'ko bertsolari gazteen txapelketa ospatzen da Ordizi'n. Amazazpitarano bildu dira; lau edo bost badira taldean egitazko bertsolari kutsua dutenak. Donosti'ko radiotik ari naiz kantari.

- 1/ Pozaren pozez ari naiz, jaunak  
gaur Donosti'tik izketan,  
ainbat gauza on ikusi baitet  
Billafranka'ko pestetan.  
Bertsoak galdu ote ditezken  
iñor ez egon kezketan,  
bizkor samarrak agertu dira  
Gipuzkoa'ko gaztetan.
- 2/ Zabaldu nunai kezkarik gabe  
zuen itz-neurtu gozoak,  
ta ezagutu zaitzate ondo  
gure probintzi osoak.  
Iturri onak ura bezela  
eman oparo bertsoak,  
zuen premia izango du ta  
gure izkuntza gaxoak.
- 3/ Gazte maiteak or mintza ziran  
egundoko errespetoz,  
serbitzu ona egingo dute,  
olako ugari betoz.  
Billafranka'ko billera ortan  
nik bai artu nuala poz,  
aurreko zarrak il ziran baña  
oñordekoak ba-datoz.

*Zarautz, 1959'garren urteko Agorra  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## ANAI GAZTEARI

Gaztea len, ura ere.

Gaur berrogei urte eginda dago. Venezuela'tik etorrita, Zarautz'en egin ditu sei illabete.

Berriro Amerika alderuntz irteteko bezperan, ama tartean genduala, senideok bazkari eder bat egin genduan. Ta... bazkari onaren ondorena bertso ta kantak izaten dira sarritan.

- 1/ Egun batean zorionez ik jo ukan Venezuela, eta lanean asia intzan beste geienak bezela. Jakiña zeok an diru asko irabazten dezutela, sei illabetez errege gisa ezin ibili bestela.
- 2/ Emen ikusi indutanean auxe pentsatu nian nik: anai gazteak egingo zian an pentsaketa zuzenik. Berrogei urte badauzkak eta diru aukera izanik, ez nian uste ezkondu gabe berriz joango intzanik.

3/ Neskatzak iri egiña ditek makiñabat erreparu, begirik kendu gabe ibili zaizkik or bi edo iru. Ezkondu naian bazeok emen etzekit zenbat aingeru, ik itz erdirik esan ezkerok baietza daukak seguru.

4/ Aukera paltik ez eukan emen gogorik izan baukan, Jaunak badaki anai gazteak zenbat pentsamentu daukan. Oraindik ere ez dek sartu nai ik ezkonduen errenkan, ondon ondoen erorrek dakik, Tomax, zer egiten dekan.

5/ Aurreruntz ere izango al dek bear dekan ainbat kemen, Jaungoikoari eska gogotik, osasuna baitek lenen. Berri on asko bialdu itzak, zai egongo gaituk emen, diru mordo bat aurreratuta ator berriro lenbait len.

*Zarautz, 1959'garren urteko Urrilla  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## BI ASTO LAPURTU!

- 1/ Anai arreba biotzekoak  
euki zazute arreta,  
obe dezute gustoko gauzak  
toki onean gordeta.  
Gipuzku ontan aberastasun  
pixkat somatzen dute-ta,  
ijito sallak ikusten dira  
bide guziak beteta.
- 2/ Ain ugariak ditugulako  
ezin kendu ingurutik,  
karriatzea gustatzen zaie  
ezer dagoan lekutik.  
Arrantza ona daukate sarri  
kanpotik edo barrutik,  
oiekin dexkuidatzen dan arek  
pagatuko du larrutik.
- 3/ Aukerik iñon soma ezkerok  
jakiten dute zer egiñ,  
bear dutena trallan artuta  
al dan azkarren aldegiñ.  
Bi asto galdu dira gau batez  
Zarautz'en eta Getari'ñ,  
andikan oso ordu gutxira  
salgai zeuzkaten Bitori'ñ.
- 4/ Gau beranduan beren ordua  
ondo aukeratzen dute,  
atari zakur gogorreatatik  
ajola gutxi zaiote.  
Aiek ixildu-erazitzeke  
botikaren bat daukate,  
ta ukullutan berak nagusi  
jendea lo dagon arte.
- 5/ Astozaleak tristerik zeuden,  
ia etsipen artuta,  
beren abere zintzo, leialak,  
ustez betiko galduta.  
Zuzen dabillen kristauak sarri  
laguntasuna badu ta,  
berriro etxeratu dituzte  
Bitori'ñ ezagututa.
- 6/ Sekulakorik ijito geien  
ikusten da aspaldian,  
egunez gauzak ondo ikusi,  
ta saiatu gaberdian.  
Jende bizkorra jarri diteke  
ugari samar guardian,  
bestela ez da giro izango  
ezer dagoan tokian.
- 7/ Ijito kasta ugari ori  
jarri da gure tarteko,  
ta zazpigarren agindu ona  
oiek ez dute beteko.  
Asmoak artu bitzate bizkor  
beste norabait joateko,  
iñon bearrrik ez degu emen  
egindakoa jateko.

*Zarautz, 1959'garren urteko Azaroa.  
Aranzazu, 1960-1.  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*



## ENTZUN, GURASOAK!

- 1/ Aspalditxoan nago  
kasketak emana,  
egi batzuk esaten  
ote dagon lana.  
Adierazi nairik  
nator zuengana,  
zer dan etxe askotan  
gaur gertatzen dana.
- 2/ Sukalde bazter asko  
testigu zerate,  
bertso aukeratuak  
berengan ez dute.  
Arrazoi aundiz guri  
esango digute,  
geronen izkuntzarik  
ez degula maite.
- 3/ Gertatzen dana dago  
aitortu bearra:  
erdel zaletasunak  
artu du indarra.  
Gure artean gaitz au  
oso degu zarra:  
kanpoko dana ona,  
etxekoa txarra.
- 4/ Mundutar jakintsuak  
erdi zoratuta,  
euskeraz ikasteko  
asmoak artuta.  
Or dabilta izkuntz au  
ezin goralduta...  
Eta geure lurtean  
ankaperatuta.
- 5/ Lengoan, guraso bat  
neri itzegiten.  
Zer gauz esan zizkidan  
asi zu jakiten:  
«A zer seme bizkorrak  
atera zaizkiten...  
Ez dakizu erderaz  
zein ondo dakiten».
- 6/ Seme alabak gero  
bildu ziranean,  
entzuten egon nintzan  
ni aldamenean.  
Uraxe zan tristura  
nere barrenean,  
ango Babel torrea  
ikus nuanean.
- 7/ Aitak ezin ulertu  
erderaren otsik,  
semeak etzekiten  
euskerazko itzik.  
Au ikusi ta alare  
gizajoa pozik,  
zenbait euskal gurasok  
ez daukate lotsik.
- 8/ Gaztelera, frantsesa,  
inglesa bestea,  
ta obe alemanez  
lenbailen astea.  
Gauzik ederrena da  
danak ikastea,  
bañan ez nork berea  
zokoan uztea.

9/ Euskeraz azi ziñan,  
euskal kutsuz bizi,  
aita bat izatera  
euskeraz iritxi.  
Aurrei ezpadiezu  
itzik erakutsi,  
guraso izenik zuk  
ez dezu merezi.

10/ Ondo ikusi nai det  
nik zure semea,  
izan bedi izkuntzak  
ikasten trebea.  
Zenbat eta geiago  
beretzat ohea,  
baña kontuan izan:  
lenengo geurea.

*Zarautz, 1959'garren urteko Urrilla  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## OSTATU BATEAN

Pake pakean gaudenak nastera gizatxar bat inguratu zaigu. Oitura duan bezela, neurritz kanpo zerbait edana dago. Bertsolari ote dan iduri zaio, ta bertsotan esaten ditu bere nardaxkeriak.

Bertsotan jaso ditu merezi zituan erantzunak.

- 1/ Petralkeri ta zitalkeria  
daukazu alde guztitik,  
beneno txarrez josia zaude  
gañetik eta azpitik.  
Zure izena borratua da  
Basarri onen listatik,  
al dan azkarren aldegin zazu  
nere begien bixtatik.
- 2/ Sua piztera inguratzen da  
neurritz kanpora edanda,  
ta beti libre oitua dago  
nai dituanak esanda.  
Bost arroarik ez da izango  
au pixura eramanda,  
kontzientziko karga litzake  
matralleko bat emanda.

*Zarautz, 1959'garren urtea  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## BIDETAKO EZBEARRAK

- 1/ Zer esan asko dagon ezker  
asi gaitzen bertotan,  
gai on guziak alperrik dira  
ixillik egotekotan.  
Berri tristeak datoz ugari  
joan dan aspalditxo ontan,  
makiñatxo bat jende galtzen da  
Españi'ko kamiotan.
- 2/ Oker aundirik gertatu gabe  
urteak egun bat eztu,  
goizean sano irten etxetik,  
gaberako odolustu.  
Zenbatak galtzen duten bizia  
ezin diteke sinistu,  
batak besteri aitzeki eman,  
baña illik ezin piztu.
- 3/ Kamioetan gabiltzan danok  
beti gaude arrixkutan,  
oker txarren bat noiz gertatuko  
beldurrez eta kezketan.  
Txoper batzuri begira eziñ  
egon diteke askotan,  
automobilla itxusia da  
zenbait astoren eskutan.
- 4/ Zenbat pekatu egiten diran  
ez da okerrrik esanda,  
zenbait txoperren gozamen dana  
al dan azkarren joanda.  
Oso sarritan ikusten dira  
dituzten danak emanda,  
beste batzutan komeni baño  
trago geiago edanda.
- 5/ Gauez ibiltzen dituzu berriz  
basati batzun antzera  
legerik errespetatu gabe,  
berak nai duten klasera.  
Oiek ez dute señik egingo  
argi luzetik motzera,  
gizajo orrek giro daukazu  
itxutzen baldin bazera.
- 6/ Gure bideak argatik daude  
luto gogorrez beteta,  
zentzu gabeko arrosko askok  
luzitu naia dute-ta.  
Griña txar danak ortxe dauzkate  
barren zokoan gordeta,  
merezi ez dun makiña batek  
erabiltzen du karneta.
- 7/ Agintariak pentsatu dute  
neurri estuak artzia,  
samingarri da kamioetan  
oinbeste jende galtzia.  
Ondo dagola derizkiot nik  
multa sendoak kentzia,  
pekatu egiten dun guziak  
bear du penitentzia.
- 8/ Jendea ondo ezitze ori  
a zer nolako lana dan!  
Txoperren bizkar ez bota dana,  
danentzako dator txandan.  
Iñork ez degu errenditu nai  
legeak jartzen dun langan,  
oñezko askok ere ez daki  
nola ibili bear dan.

- 9/ Bazterrak utzi ta amorratzen  
bidearen erdirako,  
bozinak entzun, baña ez daude  
mugimentu aundirako.  
Legien kontra eman pausoak,  
arretik ez dutelako...  
Zenbat desgrazi ez da gertatzen  
olakoak diralako!
- 10/ Ez daukagu guk zertan izanik  
arro ta erosgogorrak,  
eta odolez zertan bustirik  
gure kamio legorrak.  
Nola txoper da ala oñezko,  
bizikleta ta motorrak,  
gaurtik aurrera artu ditzagun  
asmo sendo ta jatorrak.
- 11/ Eriotz oiek gutxitu leizke  
zuzen ibiliz bidetik,  
legeak esaten dun bezela  
tokatzen zaigun aldetik.  
Ezker aldea utzi besteri,  
jo dezagun eskubitik,  
errespatorik ederrenean  
bakoitza bere tokitik.

*Zarautz, 1959'garren urtea  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## OÑATI'KO ZAKUR-PESTA

- 1/ Berri batzuk badauzkat  
nai ditunak jakiñ,  
zabaldu nai nituzke  
asmo on batekiñ.  
Laño asko zan baña  
denbora onakin,  
artzai zakurren pesta  
egin da Oñati'n.
- 2/ An egin zuten lanik  
ikusgarriena,  
zintzo, zuzen beteaz  
artzaien ordena.  
Au da millaka kristauk  
galdetu zutena:  
«Zakurrak nolatan du  
orrelako sena?»
- 3/ Ez dago esaterik  
oien baliua,  
artzai jatorrentzako  
zer alibiua.  
Apaltasunez entzun  
nagusi oiua,  
gizon askorentzako  
a zer leziua!
- 4/ Ardi atzetik aiek  
an zenbat enpeño!  
Eramaten zituzten  
nai zan tokiraño,  
artegi baten preso  
errenditzeroño...  
Bizkorragoak dira  
gizon asko baño.
- 5/ Beren lana egingo  
dute oiek lasai,  
aginduak artuta  
ez geldi egon nai.  
Olako zakurrekin  
izan leike artzai,  
izketan ez dakite,  
beste guzia bai.
- 6/ Maitatzen dute gogoz  
beren nagusia,  
zintzo egiñaz arek  
nai duan guzia.  
Arrokeria beti  
gauza itxusia,  
aiengandik badegu  
guk zer ikasia.
- 7/ Jaungoiko bat daukagu  
agintzen duela,  
ta badakigu Aren  
mendean gaudela.  
Jakín amar agindu  
eman zituela,  
bat ez degu betetzen  
bear dan bezela.

*Zarautz, 1959'garren Agorra  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## DANENTZAT BIZILEKURIK EZ

- 1/ Etxe-bizitzen gaia artuta  
kantu bat nai det ornitu,  
zerbait orretzaz esan gabe ni  
ezin ninteke gelditu.  
Bizi bearrak gure egunetan  
estuasuak baditu,  
ugaltzen ari zaigu jendea  
ta danok ezin kabitu.
- 2/ Ugalmen onek ez garabilzki  
oso tankera onean,  
txori asko ta kabiak urri  
daude gaurko egunean.  
Praille ta moja ezin joan danok,  
saiatu bear lanean,  
eta ezkontzaz pentsatzen degu  
garaia datorrenean.
- 3/ Bikote gaxo askok iñola  
ezin alaitu biotzik,  
maitasunetan gañezka daude,  
batu ditezkenak pozik.  
Ezkonduko ta ezin ezkondu,  
galanki supritu baizik;  
nunbait sartuko lirake baña  
ez dute etxe-bizitzik.
- 4/ Nolanai ezin sartu diteke  
libre dan txoko batera,  
soñak estali ta beartuak  
gaude egunero jatera.  
Etxe-bizitzik ez dago berriz  
milla pezetatik bera,  
lan-sari kaxkar batetik oiek  
nola demontre atera?
- 5/ Neska ta mutill asko dabilta  
kezka gogorrez beteta,  
burutan duten amets gozoa  
ezin loratu dute-ta.  
Arrazoi aundiz ikusten dira  
samintasunez erreta,  
langille batek nola pagatu  
dezake markes errenta?
- 6/ Erreztasunik ezpaldin bada  
emen badator galera;  
aterpe on bat bearreko da,  
guziok kristauak gera.  
Jende bajuak bear ezpadu  
kabi bat sortzeko era,  
mutill-zar eta neska-zarretik  
izango degu aukera.

*Zarautz, 1959'garren Urrilla  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## SERMOIGILLERIK ONENA

- 1/ Udazkeneko eguna da ta  
buruan zenbat gai polit,  
itxasoari begiratuta  
argitasun bat datorkit.  
Zueri auxe agertu naia  
nere baitan darabilkit,  
kosta errian bizi naiz eta  
zer gertatzen dan badakit.
- 2/ Uda partean praille ta apaiz  
ez dira gutxi nekatu,  
ondar gañean egiten dala  
ez dakit zenbat pekatu.  
Begiz ikusten degun gauza da,  
zer arranetan ukatu?  
Orru galantak egiñagatik  
jenderik ezin mudatu.
- 3/ Mutil da neska, badabilzkite  
udaran naikoa lanak,  
beren goputzak erakusteko  
dituzte aletin danak.  
Amets ederrik egiten dute  
ondartzetan dabilznanak,  
ta ez dituzte aintzakoz artzen  
kulpitotako esanak.
- 4/ Negu denbora trakets, gaiztoa,  
gertatu zaigu gaurkoan:  
itxaso zakar, aize aundia,  
etzan atsegin kanpoan!  
Getari bide zoragarritik  
begira ernai nengoan,  
Zarautz'ko kosta berdingabea  
anima bat etzegoan.
- 5/ Nola diteke gaur ain utsa zu,  
atzo baziñan beterik?  
Praka motx oiek ez al dakite  
zureganako biderik?  
Nunbait etzaie oso gogozko  
aizerik eta euririk,  
jendea ezkutatzeko ezta  
olako sermoigillerik.

*Zarautz, 1959'garren urtea  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*



## ILLARGIAREN KEZKA?

1959'garren urtea da. Mundutarron kezka guziak illargian daudela esan ditekete. Zientzi gaietan arrigarrizko aurrerapenak ditugu. Errusitarrak egatutako trespeta bat illargiaren salletan sartua da.

- 1/ Gizon azkarrak badabilkitez  
makiñatxo bat burupen,  
ezin dezake iñork ukatu  
zenbat aurreratu duten.  
Batek badaki azkenerako  
zer asmatuko diguten...  
Gaur illargia gora ta bera,  
besterik ez da entzuten.
- 2/ Jakintsu danak jarriak daude  
buruz ondo nekatzera,  
arrigarrizko berriak datoz  
lo zeudenak esnatzera.  
Illargi bera gizonen mende  
pelota baten antzera;  
gauza batzutan aurrera goaz,  
beste batzutan atzera.
- 3/ Ikusi degu gizonen tresnak  
illargia jo duela,  
erakutsiaz jakindurian  
aurreratuak gaudela.  
Esaten dute biaje ori  
laister egin ditekela,  
gaur Orio'tik Donosti'raño  
joango bagiña bezela.
- 4/ Jakintza salletako jaun oiek  
or dabiltz izerditan blai,  
munduko berri badakitez ta  
laister angoa ere bai.  
Gure artean zer gertatzen dan  
aitor genezake noiznai:  
etxean oker geienak eta  
auzokoak zuzendu nai.
- 5/ Lendabiziko kolpe gogorra  
errusitarrak eman du,  
jende bizkorra badaukatela  
orra garbi nabarmendu.  
Obe litzake beste bide bat  
artuko baldin bagendu:  
illargiari pakean utzi,  
eta mundu au konpondu.
- 6/ Illargiaren goraberatzaz  
zenbat dagon itzeginda;  
beste kontuak lenago ziran,  
orren ordua orain da.  
Zer irabazten degu gizonok  
ango berriak jakinda,  
gerraren kezkaz bizi bagera  
emen konpondu ezinda?

*Zarautz, 1959'garren urtea  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## MOGEL'EN OROIZ

Eibar'ko errian aztu-eziñeko jaialdiak ospatu dira 1959'garren urteko Azaroaren seian, zazpian eta zortzian. Erriko agintariak, Eibar'ko kale bati Mogel'en izena ematea erabaki dute.

*Peru Abarka*'ren egilleari era ontan agertzen diote beren esker ona erritarrak.

1/ Utzi zenitun lanak ain dira sakon da jakingarriak, ori agertzen dutela daude *Peru Abarka*'n orriak. Au erakusten digute garbi Eibar'ko asmo berriak, o, Mogel maite, etzaitu azten zeu jaio ziñan erriak.

2/ Eibar erria iru egunez ain dotore ageri zan, Euskalerriko jakintsu danak bere barrenen zebiltzan. Euskaltzaleak ugalduta dira olatu aundien gisan, zuk emandako pauso ederrak etziran alperrik izan.

3/ Millaka kristauk gañeztu zuten Eibar aundiaren plaza, zure izenik aitatu gabe unetxo bat etzan pasa. Euskal mintzoa zan jaun da jabe, ta nunai euskal jolasa... Zuk ain maitea zendun izkuntzak oraindik badu arnasa.

4/ Zuretzat, Mogel aztu-eziña, euskaldunon goralpenak, zure liburu ortan baitaude gauzik jakingarrienak. *Peru Abarka* ugari betoz erakutsiko dutenak, «Maisu Juan» asko daude oraindik ezertxo ez dakitenak.

*Zarautz, 1959'garren urteko Azarona Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## URREZKO EZTIAK

Tapiatarren Urrezko Eztaiak ospatu dira Asteasu'n. Joxe Tapia jaunak eta bere emazte Maria'k amabost seme-alaba izan dituzte. Danak bizkor eta osasuntsuak. An bildu ziran aita-amen ondoan amabostak, beren seme-alabez inguraturik. Ia irurogei lagun guzitara; ta zugaitz baten adarrak izaki. Ura ikuspegi zoragarri ta aztu-eziña!

- 1/ Egun aundi ta berdingabea gaur Mutegi baserriak, ta berdin berdin esan nezake Asteasu'ko erriak.  
Zer biotzondo ote daukate gure Joxe ta Mariak?  
Olako edertasunik bakan ikusten dute begiak.
- 2/ Bein etorrita edertasun au ikusi bear genduan, zer pentsamentu zoragarriak sortzen zaizkidan buruan!  
Amabost seme-alaba eder aita-amaren inguruan, aberastasun aundiagorik ezer bai al da munduan?
- 3/ Danak bizkorrak, danak sendoak, a zer nolako taldea!  
Berdiñik iñon ote dagoan egingo nuke galdea.  
Alkarganako izan dalarik maitasun berdin gabea, argatik zintzo bete dezute Jaungoikoaren legea.
- 4/ Berrogeitamar urte luzetan izan dezute grazia,  
kejarik gabe artzeko beti Jaunak eman dun guzia.  
Orain jendea kargaren iges gogortxo dago asia,  
gaurko munduak zuengandikan badauka zer ikasia.
- 5/ Zuen bidea jarraitzen dute familiko ondorenak,  
ta mereziak dauzkate noski zorionik beroenak.  
Amabostetik amabi dira ezkontza egin zutenak,  
iru bakarrik ikusten ditut orain ezkongai daudenak.
- 6/ Beste bertso bat moldatuko det nik ezkongai oientzako,  
gogo aundirik ez omen dute lagun gabe bizitzeko.  
Adiskideak eginda daude kanpoko edo auzoko,  
uztartu gabe denbora asko ez dute oiek pasako.
- 7/ Ainbat billobez inguratuta gaur zoriona janari,  
zeruak nola laguntzen dion zintzo jokatzan danari.  
Nik belarrira esan nai diet aitari eta amari,  
lanikan asko badaukazute esker ematen Jaunari.

8/ Agur gozo bat, Jose ta Mari,  
nere bikote maitea,  
garaia da ta komeni zaigu  
etxe aldera joatea.  
Zuen arbola indartsu dago,  
adar sendotan betea,  
aurreruntz ere opa dizutet  
osasuna ta pakea.

*Zarautz, 1959'garren urteko Azaroa  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## OSTIKOKETA

- 1/ Futbola gora, futbola bera,  
jendearen zoramena,  
urte auetan ori da nunbait  
oso modan dagoena.  
Iñork jakin nai badu gaur zein dan  
opiziorik onena,  
ostikalari oiek daukate  
irabazirik geiena.
- 2/ Mutiko danen amets bakarra  
ostikoketan asteko,  
anka-belaunak ainbat balio  
zutenik ez nun usteko.  
Ainbeste urtez zertan nekatu  
karrera bat ikasteko?  
Futbola bezelakorik ezta  
milloiak irabazteko.
- 3/ Jolas guziak onak ditugu  
neurritz, bear dan moduan,  
bakoitza bere zaletasunez,  
danok gustora orduan.  
Beldur naiz jaunak erri zar onek  
zer egingo ote duan...  
Baloï zarraren kezka besterik  
ez al da bizimoduan?
- 4/ Aundi ta txiki, zar eta gazte,  
danok jarri gera berdiñ,  
gaitz berri ontaz kutsutu gabe  
iñor gelditu etzediñ.  
Futbolaz kanpo eziñ asmatu  
degu zeretzaz itzegiñ,  
Euskalerrian bada oraindik  
zer ikasi ta zer egiñ.
- 5/ Bizimoduan jarraitu zintzo,  
egizko geure bidetik,  
errian ona billatzen saia  
euskaldun geran aldetik.  
Jolas batentzat zertako artu  
orrenbesteko arretik?  
Gauz latzagoak asko dauzkagu  
ostikoaren aurretik.

*Zarautz, 1959'garren Azaroa  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*



Zubeltzuren omenaldia, Itziarren, 1959-VI-14'an.

Lenengo illeran, ezkerretik: Prudentzio Egiguren «Artañola» zana; Jose Lizaso, Zubeltzu, Uztapide, Basarri, Txapel zana; bigarren illeran, ezkerretik: Migel Albizu, Soarte, aita; Angel Albizu, Soarte arrijasotzallea, semea; Jose Mari Arakistain, Aldazabal'koa, Itziar.



Eun mila pezetako sariketa. 1968-II-13. Ezkerretik: Mitxelena, Mattin, Uztapide, Lasarte, Basarri, Xalbador, Lopategi, Arozamena.

## LATASA AIZKOLARIA

- 1/ Baztan alderdi zoragarria  
zerbait aitatu dezagun,  
ango jendea, len eta orain,  
beti egizko euskaldun.  
Sunbilla'tikan a zer mutiko  
trebe ta latzak irten dun,  
gaur egunean bera baitegu  
aizkolarien txapeldun.
- 2/ Egur gañean jartzen dalarik  
orrek egiten du lana,  
nai badu neurritz izan dedilla  
kana-erdi edo kana.  
Saio latzenak egiñagatik  
ezer nekatzen ez dana,  
zerbaitegatik eraman ditu  
titulu danak Baztan'a.
- 3/ Petxu ona ta indar aundiak,  
ez dauka kolpe utsikan;  
orren gerri ta beso-balaunak  
iñon ez dute tatxikan.  
Ala diranak aitortzeko guk  
ez degu bear lotsikan,  
Latasa'rentzat orain ez dago  
«Luxerik» eta motzikan.
- 4/ Gure plazetan lau-bost aldiz nik  
Latasa zer dan ikusi,  
kontraioekin batera ekin  
eta bukatu lenbizi.  
Zuk egin dezun lana auxe da:  
jokatuak irabazi!  
Ta bakoitzari eman berea,  
zu zera danen nagusi!
- 5/ Asko goraldtu dezu, Latasa,  
zeu jaio ziñaden lurra,  
bazter guzitan sartu dezu zuk  
zuketza edo beldurra.  
Gaztaren gisa ebaten dezu  
jartzen dizuten egurra,  
kontrariarik zuretzat sortzen  
oraingoz ez da samurra.

*Zarautz, 1959'garren Azaroa  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## MANTEROLA

- 1/ Aia erritik azaldu zaigu  
indar mardulez betea,  
arria errez dantzaten orrek  
berekin dauka artea.  
Ez da egoki bere izena  
aitatu gabe uztea,  
Euskalerriko indartsu danen  
buru jarri dan gaztea.
- 2/ Bein bear eta Aia erritik  
orrelako bat atera,  
ori lanean ikusi degu  
guziok arritu gera.  
Beldurgarri da arri zarreri  
egiten dien sarrera,  
eldu orduko jasotzen ditu  
lurretikan bizkarrera.
- 3/ Kolorez gorri, gorputzez sendo,  
auxe bada mutikoa,  
bai jasotzalle garbi, ederra,  
bai maneju aundikoa.  
Naiz jarri arri zilindroa ta  
berdiñ zaio kubikoa,  
jostallu gisan erabiltzeko  
indarra dauka naikoa.
- 4/ Egun batean orrek Azpeitiñ  
mundu guzia arritu,  
amabi arruako arriak  
etzuan asko larritu.  
Azkenerako kontrariorik  
iñon ez dula gelditu...  
Orainarteko marka guziak  
oso beian utzi ditu.
- 5/ Ondo osatzen zaigu mutilla  
gerri, belaun eta beso,  
amabi arruako arria  
erabiltzen du eroso.  
Ordu erdian eun aldiz orrek  
bizkarrera garbi jaso,  
olakoari kontra egiten  
gaitza izaten da oso.
- 6/ Erakutsia daukazu garbi  
ortarakoa zerala,  
sinista zazu egindakoak  
ortxe gelditzen dirala.  
Zure indarrak Euskalerrian  
berekin dauka itzala,  
Jaun Zerukoak urte askoan  
ondo kontserba zaitzala.

*Zarautz, 1959'garren urteko Azaroa  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*



## XENPELAR

- 1/ Agortu ezin zitekena zan  
 zuk zenduan iturria,  
 gutxik bezela maite zenduan,  
 ene, zuk Euskalerria.  
 Zuretzat ditut nere kantuak,  
 maixu zar, bizkor, argia,  
 Errenteri'ko seme bikaña,  
 Xenpelar bertsolaria.
- 2/ Korajetsu ta bikaña ziñan  
 beti aurrera joateko,  
 etziñan ona zu zalantzetan  
 luzaroan egoteko.  
 Gerturik zeunden erabakiak  
 zirt edo zart emateko,  
 zure mingañak etzun illerik  
 ziran gauzak esateko.
- 3/ Okerrak nundik nora zetozen  
 agertzen beti lenengo,  
 aundizki askok min artu arren  
 etziñan ixil egongo.  
 Gerraren aurka iñork etzuan  
 itzik obeto esango,  
 zu baño pake-zaleagorik  
 etzan munduan izango.
- 4/ Orduan eta orain badira  
 makiña bat su-emale,  
 iñola ezin bizi diranak  
 saltsa ta nasketa gabe.  
 Euskalerria, len eta orain,  
 beti pakearen alde,  
 zuk bezelaxe diogu danok:  
 «Ez gera gerraren zale».
- 5/ Berezko doai aparta zuan,  
 etzan gizon ikasia;  
 gaur ere aztu eziñik dago  
 ark esandako guzia.  
 Pakean bizitzeko ona da  
 Xenpelar'en justizia...  
 Gerra zale dan arroputzari:  
 «Berari kendu bizia»!

*Zarautz, 1959'garren urteko Azaroa.  
 Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## UZTAPIDE

- 1/ Lagun zar, maite, agurtu nai aut  
gañera biotz guztitik,  
ire ta nere artean ez dek  
sekula izan nasketik.  
Ireganako ez diat iñoiz  
komeni ez dan izketik,  
bertsolari on, trebea aiz ta,  
gizon jatorra bestetik.
- 2/ Oso sarritan egon izan nauk  
i ikusteko pozetan,  
berdin pentsatzen degunak gaituk  
bizimoduko gauzetan.  
Alkarri esku emanda biok  
asi giñukan gartzetan,  
amaika saio egiñak gaituk  
Euskalerriko plazetan.
- 3/ Jaun Zerukoak argitasunak  
guri banatu zizkiguk,  
oiek zabaldu beste gauzarik  
ezpaidiagu egin guk.  
Lagun Manuel, emen urteak  
azkar asko joaten dituk,  
buruz poliki gabiltzak baña  
zartzen gogor ari gaituk.
- 4/ Bizkai, Gipuzku, ta Napparroa,  
bertsolariak danean,  
alde guzitan gazte bizkorrak  
asiak zeudek lanean.  
Ez dakik asko nolako poza  
daukadan nik barrenean,  
ordezko paltik ez dek izango  
gu ixiltzen geranean.
- 5/ Ate guziak zabal zabalik  
biok noranaira joanik,  
pasa ditugun egun alaiak  
ez dizkiat aztuko nik.  
Beti gizonki jokatu gaituk  
alkarri amor emanik,  
guk ez diagu iñoiz pentsatu  
anai batzuk ez geranik.
- 6/ Batzuk aultzera bagoaz baña  
indartsu datoz gazteak,  
euskera maite degunorentzat  
ez dira berri tristeak.  
Poztuko gaitu bertsolariak  
anaituta ikusteak,  
alkar maitatuz kanta zazute  
Euskalerriko gazteak.
- 7/ Semea azten ari omen zaik,  
badiat berekin fede;  
komeni bada izan dezala  
aitak ainbat argibide.  
Basarri emen daukak Zarautz'en  
benetako adiskide,  
emazteari goraintzik eman;  
agur, lagun Uztapide.

*Zarautz, 1959'garren urteko azaroa.  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## JANTZIA NAIAGO?

- 1/ Ikusia da gauzak aspaldi  
gutziz aldatu dirala,  
geientsuenok zentzua galtzen  
zerbait asiak gerala.  
Neskatxa bati gaur entzun diot  
au esaten ari dala:  
ondo jan baño ondo jaztea  
berak naiago duala.
- 2/ Engaño txarrak ugaldtu dira  
gure artean galanki,  
iñor lazoan erortzen bada  
pagatuko du ederki.  
Naizta kalean printseza baten  
dotoreziak eduki,  
etxe barruan nola dabilzan  
gure Jainkoak badaki.
- 3/ Ondo gogoan artua daukat  
neskatxa orren izketa,  
sentitzen duan dana esan du,  
ez du ezertxo gorde ta.  
Ez naiz gero ni asko arritu  
olako asko daude ta...  
Ondo jaztea gauz ederra da  
baña sabela beteta.
- 4/ Lana egiten duan kristauak  
zerbait ez al du merezi?  
Zoritxarrean, danentzako lain  
ezin degu irabazi,  
Ondo jantzi ta ondo agertu;  
zine politikak ikusi,  
bigarren mallan daudenak dira,  
sukaldea da lenbizi!
- 5/ Gazte denboran eduki arren  
orrelako iritziak,  
gero mudantza askotxo gaude  
geure begiz ikusiak.  
Alperrik erosiko ditugu  
abrigu klase guziak,  
sabela otza dabillenean  
bero gutxi du jantziak.

*Zarautz, 1959'garren Azaroa  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## EUTSI GANADUARI!

- 1/ Lan egitea bearreko da  
baña jakin zagon nola,  
iruditzen zait jende askori  
ori komeni zaiola.  
Albiste auxe zabaltzen eziñ  
asper ninteke iñola:  
baserritarren etorkizuna  
gaur ganaduan dagola.
- 2/ Ai, garai batez, gure lurrean  
arto-babarrun da gari,  
toki txar baten izatekotan  
jasotzen gendun ugari.  
Anai maiteok, sinistu gero  
modatik joan zala ori...  
Irabazia ortxe dago-ta  
jarraitu ukulluari!
- 3/ Gure probintzi aldapatsuan  
zertan nekatu orrela?  
Danok dakigu ordekan kontra  
ezer ezin gentzakela.  
Bixtakoa da balio dana  
gaur ukulluak dutela,  
esneak diru egiten du ta  
zerutan dago okela.
- 4/ Gure labore bakan auekin  
or gabiltz bizi ezinda,  
ori kanpotik modu obean  
datorkigula jakinda.  
Sail txiki batzuk gorde ortako,  
ori guztiz atsegin da;  
gañontzekotan obe dezute  
ganadu jana eginda.
- 5/ Ukullu danak itxuratuta  
jarri nai ainbat ganadu,  
berari zintzo ekin ezker  
orrek etekin ona du.  
Baserritarrak bere burua  
ondo ikusi nai badu,  
lana erreztu bearra dauka  
ta probetxua ugaldtu.
- 6/ Obra ederrak egin dituzte  
askok beren ukullutan,  
len baño askoz ugariago  
arkitzen dira burutan.  
Bizimodua lasaitu dute,  
sartu zaizkigu dirutan;  
ganaduari ekindakoak  
orain ez daude damutan.

*Zarautz, 1959'garren urteko Azaroa  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## GOIZ PARTEKO ZURRUTAK

- 1/ Tentazioak sarri  
aurre ta atzetik,  
naiz asmo on batekin  
irten gu etxetik.  
Esan bearra daukat  
lenengo itzetik,  
zurrut asko egiten  
degula goizetik.
- 2/ Lengo zarrak aspaldi  
eman zuten parte,  
zurrutak baduala  
makiña bat kalte.  
Ibiltzeko edari  
guzitik aparte,  
eguzkia jetxitzen  
asitzen dan arte.
- 3/ Esan ori gogoa  
bagendu bai obe,  
artaka beti geure  
buruaren jabe.  
Gaurko gazteak noiznai  
edateko trebe,  
eguzkiari kaso  
asko egin gabe.
- 4/ Igande goizetan gu  
zer ibiltzen gera?  
Aixa billatzen degu  
edateko era.  
Ostatu bat utzita,  
aguro bestera...  
Irurak alderarte  
ez goaz etxera.
- 5/ Nola gusta diteke  
ortaña zurruta,  
beregana jartzeko  
ain amorratuta?  
Zuri ta txakoliña,  
gañetik «vermuta»,  
dana ona ote dan  
pentsatzen degu-ta.
- 6/ Bazkaritan ez degu  
ezer asko jango,  
edarian indarra  
gero ta gorago.  
Goizetik egin dunak  
orrenbeste trago,  
siestarik ezpadu  
ondatua dago.
- 7/ Badatoz «tensio» ta  
beste endreduak,  
ondoren jakiña du  
au zurruteruak.  
Merezi genituzke  
makilka beruak,  
geu ari gera galtzen  
geronen buruak.
- 8/ Barrenen irakiten  
orrenbeste gradu,  
ez du euskaldun gutxi  
zurrut orrek galdtu.  
Gaurtik aurrera artu  
dezaiogun kargu,  
gerora damutzea  
alperrikan degu.

*Zarautz, 1959'garren Azaroa  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## GURE SAGARDOTEGIAK

- 1/ Garai batean ortxe oi ziran  
euskaldunen jaialdiak,  
kupel zarraren mama goxotik  
ongi bustiz eztarriak.  
Kontu ta gertaera  
joanaz an esatera  
gozatzen zuan erriak;  
orain zearo galdu zaizkigu  
gure sagardotegiak.
- 2/ Diru gutxikin gelditzen zan bat  
ase ta kontentaturik,  
sagardotegi zarretan etzan  
sartu kanpoko oiturik.  
Txandan-txandan gonbita,  
orixe zan polita,  
danak ondo alkaturik;  
zoritarrean orain ez dago  
garai bateko konturik.
- 3/ Sagardotegi gipuzkoarrak  
merezi dituzten sonak,  
gaur ain bakanak badira ere  
len ugariak izanak.  
Ipui, kantu ta bertso,  
gogozko ziran oso,  
ta tarteka guztiz onak;  
an nabarmentzen ziran aguro  
buru argiko gizonak.
- 4/ Orra kantuak, bertso ta ipui,  
bertan kolpetik ixildu,  
sagardotegi zale diranak  
gaur ez daukate nun bildu.  
Sagardo prezioa,  
ardo pare ioa,  
ori nork pagatu nai du?  
Estalpe maite oien azkena  
gauza onek ekarri du.
- 5/ Sagardotegi gipuzkoarrak  
gaur ez dakit nun zeraten;  
agortu ziran kupel ederrak,  
ez dute mamik ematen.  
Agur, estalpe zarrak,  
lengo gure izarrak;  
lan da min au eramaten!  
Euskera maitearen aterpe  
jatorrak zuek ziñaten.

*Zarautz, 1959'garren urteko Azaroa  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## GURE DONOSTI BERDINGABEA

- 1/ Gipuzkoa'ren erri-burua,  
agurtzen zaitut biozki,  
asmo onetan natorkizu ta  
etzaidazu artu gaizki.  
Zugatik esan ditezken danak  
len esanak daude noski,  
gure izkuntzak zu goraltzeko  
itzik ez dauka, Donosti.
- 2/ Mendi ta zelaiz inguratuta,  
urre kolorez jantzia,  
jostallu garbi, txukun, polita,  
Jaunak guretzat utzia.  
Kantauri zarra musuka dezu  
ta bi pausora Frantzia...  
Esku-eskutan daukazu beti  
nai dan aukera guzia.
- 3/ Goi-goiko mallak artu dituzu  
ta gañera eskubidez,  
Gipuzkoa'ko seme-alabak  
zurekin alaitu bitez.  
Munduko berri dakiten askok  
au aitortzeko dudik ez:  
zu austekorik ez dala iñon  
ez garbiz ta ez politez.
- 4/ Zure gorantzak egiten ezin  
asper ninteke izketan,  
o, lorategi zoragarria,  
polita zu politetan!  
Otaño batek aspaldi zion  
Amerika'ko Panpetan,  
ez dagoala Donostiarik  
gure lurrean bestetan.
- 5/ Diru guziak gutxigi ditu  
gure Donosti ederrak,  
izan ditzala politagotzen  
beti joateko indarrak.  
Gure eskutan utzi dituzu  
berdingabeko bazterrak,  
artu, Jaungoiko errukitsua,  
gipuzkoarron eskerrak.
- 6/ Mendizalea baldin bazera  
nunai mendi ta basoa,  
itxaso-zale baldin bazera  
ankapean itxasoa.  
Gure Donosti'k egiten dizu  
bere eskeintza gozoa,  
zoaz bertara ta antxe daukazu  
nai dan aukera osoa.
- 7/ Ene Donosti ameslaria,  
jarrai oraingo moduan,  
gure probintzi onak badaki  
bere pitxia nun duan.  
Kezkarik gabe aitortuko det  
arkitzen naizen lekuan:  
lenen izarra zu zera beti  
Gipuzkoa'ko zeruan.

*Zarautz, 1959'garren urteko Azaroa  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## ZORIONEKO AURRERAPENAK

- 1/ Ikusten diran ainbat gauetzaz zerbait nai nuke kantatu, gu ogeigarren gizaldi ontan bizi bearrez gertatu. Noiz izan da len orain ainbeste aurrerapen da inbentu? Alare danok zerbaitxo palta; iñor ez gaude kontentu.
- 2/ Ez gaitzala gu artaño poztu inbentu asko sortzeak, merezi baitu zer ondorenak datozkigun pentsatzeak. Bizi bearrak berekin ditu estuasun da trantzeak, an ainbat kalte ekar lezake geiegi aurreratzeak.
- 3/ Alde guzitan ugaldtu zaigu buruzko jende azkarra, guk egunero jan egin bear, ori daukagu lan txarra. Ogei lagunen lanak egiten dago makina bakarra, era onetan derrior dago jendea sobra bearra.
- 4/ Makineria gallendu zaigu ta balio aundikoa, egiten duten lana da berriz zuzentasun guzikoa. Len milla gizon bear baziran gaur berreunekin naikoa, ta sobratzen dan mordo aundia nora demontre dijoa?
- 5/ Neurrigabeko aurrerapenak kontu kaxkarrak dakazki, egunen batez konturatuko gera geientsunok noski. Irabaziak urritzen eta bizimodua garesti, besoak sobre gelditzezkero danok bear degu gaizki.
- 6/ Milloika dira kolperik gabe geldi diranak munduan, makinak indar artu baitute len gizona zan lekuan. Bizimodua zerutan dago ikusten degun moduan, kale gorrian gelditzen danak pentsa nundik jango duan.
- 7/ Jendea ere ugaltzen beti makinerian antzera, ta bear degun ainbat janari ezin ingura etxera. Bizi eziñak ekar lezake aunditsu zar au lertzera, gerra txarren bat etorriko da mundutarrok bakantzera.

*Zarautz 1959'garren Abendua  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*



## EUSKALDUNAK KANPORA DIJOAZ

- 1/ Egi batzuek agertzeko nik artu nai nuke denbora, komeni diran itzak esanik belarriaren ondora Bizimoduko malla oietan zerbait igo nairik gora, gure gaztedi maitagarria iges dijoa kanpora.
- 2/ Askok kalea uzten dute ta beste askok baserria, mendi artean bakar utzirik jaio ziraden erria. Sakabanatzen gogor ari da euskaldunen gaztedia, len Amerika zegoan modan eta orain Australia.
- 3/ Gure gaztea ibil zale da, etxean ez dago lasai, ta batez ere artzen badio diru pixka bati usai. Aukerik inoiz izaten badu aixa joango da noranai, emen zer daukan ongi daki ta kanpokoia probatu nai.
- 4/ Baserrietan azitzen dira indar aundiko gazteak, ardura gutxi ematen die nunai lancan asteak. Berealaxe artzen dituzte tokiz aldatu usteak, etxerako bat naikoa da ta sobre baitaude besteak.
- 5/ Bizimodua dana zearo bear dezute aldatu, jaio ziñaten txoko maitetik itxuan urrutiratu. Gazte maiteok, begira ondo gaur anak nora dantzatu, kanpoan dana larrosa danik etzazutela pentsatu.
- 6/ Oso urruti zaramazkite diruaren esperantzak, bizimoduak an eta emen, badauzka une garratzak. Ordeka onak izango dira, baitare aldapa latzak, gutxien uste dezutenean sortuko dira arantzak.
- 7/ Beste tokitan ezin arkitu emen degun izakerik, zer alde dagon probatu gabe ezpaitago esaterik. Naiz ta gelditzen bazerate ere zillar da urrez beterik, an ez dezute inoiz izango emengo lagun arterik.
- 8/ Ongi dakigu erbeste ontan denbora gutxi dagona, ta lagunaren par-irria da bati komeni zaiona. Asmo orrekin etzuan sortu gure Jainkoak gizona, eta ez dago diru utsean lur ontako zoriona.

- 9/ Ongi dakigu, ogia jaten  
emen ez dagola errez,  
ta sortzen degun pixka ori da  
saiatuaren indarrez.  
Urrutitako arbolak sarri  
beteak dira intxaurrez,  
Jainkoagatik ez bedi gerta  
bertara jun da ezerrez!
- 10/ Bertako gazte jende mardula  
badijoa Australi'ra,  
beste probintzi guzietatik  
ordañak Euskalerrira.  
Negarrik gabe ezin det iraun  
nere lurrari begira,  
erri zar onek merezi zitun  
eskerrak auek al dira?
- 11/ Bazoazte ta agur, anaiak;  
saiatu ondo izaten,  
eta zoazten toki guzitan  
beti euskaldun irauten.  
Arbola zarra etenik gabe  
ari da frutu ematen,  
beldurrik gabe aitortu nunai  
nungo semeak zeraten.

*Zarautz, 1959'garren Abendua  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## AIZKOLARI BIZKAITARRA

- 1/ Aizkol jokotan Bizkaia ez da  
izan oso sonatua,  
gure Gipuzku ta Naparroak  
lendik aurea artua.  
Gaur bada norbait alderdi artan  
lan ontarako sortua,  
mutil bizkorra azaldu zaigu  
Zeanuri'ko Txatua.
- 2/ Santa Luzitan peri ederrak  
dira Zumarraga'n oso,  
bi aizkolarik alkarren kontra  
aurten lanari eraso.  
Indarra dauka kupira gabe,  
eta aizkora errez jaso,  
kana erdiko zortzitan ortxe  
autsi digu Yurrebaso.
- 3/ Ogeitasei bat urte dauzka ta  
ain dago bikain da gazte,  
petxu ederra, gerri biguna,  
indarra nai dan ainbeste.  
Egur bat erdibitu orduko  
asten da berrian eske,  
ortan jarraitu asmotan bada  
lan txarrak eman lezazke.
- 4/ Zazpi librako aizkorarekin  
lanean jardun zan pozik,  
nola etzuan ark billatuko  
egur zarraren biotzik?  
Zortzi puskak an ebaki zitun  
berotu gabe arnasik,  
Zeanuri'ko Txatoarekin  
orain ez dago jolasik.
- 5/ Bizkai aldeko jendeak ez du  
baju gelditu usterik,  
probintzi artan ezpaita palta  
sasoi oneko gazterik.  
Orain aizkoran asi zaizkigu  
kemen sutsutan beterik,  
ez gero pentsa an ez dagola  
probalariak besterik.

*Zarautz, 1959'garren abendua.  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## ALDAZ-ALDEREGIA

1959'garren urteko abenduaren seigarren eguna da. Aldaz eta Alderegia laisterkariak Billabona'tik Aia'ra probatu dituzte beren almenak. Bi minuturen bentaja eman dio Aldaz'ek Alderegia'ri.

Beldurgarrizko lanak egin baditu ere, Aldaz txikia galtzalle da. Minutu bat eta ogeitamezortzi segundo kendu dizkio, baña bi minutu izateko ogeitabi segundo palta.

Zeingeiagoka zoragarria benetan! Oso gutxitan ikusi dan bezelakoa. Amazazpi kilometro ta seireun metroko bidea da.

Aldaz'ek, 57 minutu ta ogeitazazpi segunduan pasa zuan.

Alderegia'k, 59 minutu ta bost segunduan.

1/ Bein bear eta esan ditzadan egiak oso osorik,  
ainbat apunte goxo baitauzkat paperetara jasorik.  
Gaia danean nik ixiltzeko ez det izaten gogorik,  
aspaldi ontan ez da ikusi emen olako jokorik.

2/ Esaten dute orain plazara jotzen duala jendeak,  
irabazirik ez dan tokian artu nai ezik nekeak.  
Oiek dituzu txakur txiki bat iñori kendu gabeak,  
bide latzean proba dituzte beren abilitadeak.

3/ Zer bide luze, zakarra zuten bear degu gogoratu,  
ura beti zai an egongo da iñork nai badu probatu.  
Oietxek baño piñago ez da kristaurik iñoiz jokatu,  
Billabona'tik asi ziran da Aia sarreran bukatu,

4/ Gizon batzuek bidea neurtzen egiñak dituzte lanak,  
kilometroak amazazpi ta seireun metro an diranak.  
Badira aldapak eta ordekek, iñon diran klase danak;  
ez ditu oiek azkar pasako oso bizkorra eztanak.

5/ Gu bakoitzari berea gaude garbi aitortu bearrak:  
alde batetik petxua bear eta bestetik indarrak.  
Ez ditu oiek asko izutu orko aldapa zakarrak,  
oraintxen ere mutil bizkorra ekarri dute naparrak.

6/ Alderegia Gipuzku ontan gustatu da izugarri,  
len etzekian makiña batek gaur badaki bere berri.  
Betikan gora ezin diteke askoz ariñago korri,  
bi minuturen bentaja kentzen ez dago erreza orri.

- 7/ Aldaz txikiak ordekan beti eten gabeko sarrera, betikan gora asitakoan besteak egin aurrera, Azkar igo zan Asteasu'tik Andazarrate gañera, an erabaki zuten jokoan naparrak beren aldera.
- 8/ Birek jokutzen duten garaian biak ezin irabazi, len eta orain, emen da nunai, batek bear du nagusi. Iñork ez dauka itz erditxo bat esaterikan Aldaz'i, txalo bero ta onrak besterik ez du mutillak merezi.
- 9/ Kamio ortan danetik dago: ordeka eta aldapa; guziak pasa bearrak daude zuzenka edo albaka. Iñork probatu nai baldin balu bidea beti zai dauka, ia zenbatek ontzen diguten Aldaz'ek egin dun marka.
- 10/ Eltxua bezin ugari ziran motor da automobillak, paraje ortan noiz izan dira orrelako jende pillak? Bideak azkar pasatzeko bai bizkorrak eta abillak, gusto ederra eman dezute, zuek zerate mutillak!
- 11/ Zuek itxusi utzi dezute berritxuen esamesa, azaldutako gizatasuna ezpaita izan jolasa. Iñori ezer kobratu gabe ainbat kilometro pasa, danak ez dira txanponen billa ibiltzen plazarik plaza.
- 12/ Guk kanpoko aunditzen degu ta etxekoa txikitu, gure mutillak motibo gabe badute zerbait meritu. Erlojua da juez onena, ez berriketan aritu, Euskalerrriak oraindik ere laisterkariak baditu.

*Zarautz, 1959'garren abendua.  
Kantari nator, Zarautz, 1960*

## SANTO TOMAS'EN PERIAK

- 1/ Poztu zaitezte, baserritarrak;  
alaitu, nekazariak,  
urte buruan egun batzuek  
oso dira pozgarriak.  
Donostiarrak artu dituzte  
kolpetik asmo berriak,  
aurten apartak izango dira  
Santo Tomas'en periak.
- 2/ Berebiziko xuxperraldi bat  
artu bearra du aurten,  
zer asmo diran ezagututa  
ari bainaiz itzegiten.  
Periak galtzen ari zirala  
Donosti'n ondo zekiten,  
ume jostalluz plaza beteta  
ez gendun ezer egiten.
- 3/ Peri on baten eginbearra  
beti zerbait erakutsi;  
zer aurrerapen dauden azaldu,  
iñork nai badu ikasi.  
Aurten egizko kutsu jatorra  
nai genioke erantsi,  
sei eguneko pestak dira-ta  
izango da zer ikusi!
- 4/ Aiuntamentu donostiarrak  
badauka zerbait merituz,  
peri jatorrak izatea nai,  
naiz ta gastuak aunditu.  
Egun oietan baserritarrak  
bertan ikusi nai ditu,  
bixitatxo bat egin gaberik  
etzaitezte gelditu.
- 5/ Gaur egunean aurrerapenak  
komeni zaizka lurrari,  
eun urte atzerago bezela  
ez leike lanean ari.  
Kasinopean jarriko dira  
makiñabat makineri,  
begiak argituko zaizkio  
aruntz azaltzen danari.
- 6/ Baserritarrak premizkoa du  
inguratzea kalera,  
aurten Donosti'k beso-zabalka  
eskeintzen digu aukera.  
Peri ontatik zerbait probetxu  
bear genduke atera,  
ainbat bidean ez leike joan  
txorixo pixkat jatera.
- 7/ Zuzendu nairik dabiltz lenago  
ikusten ziran akatsak,  
Donosti'n gutxi luzitzen dute  
gauz arlote ta narratsak.  
Euskal teatru, bertso ta dantza;  
egizko euskal jolasak...  
Danetik sendo izango dute  
aurtengo Santo Tomas'ak.
- 8/ Garai batean kapoi pareta  
nagusiaren etxera,  
bakallau zar bat zintzilik artu  
ta buelta mendi aldera.  
Alda bearra zegoan eta  
pixka bat aldatu gera,  
oinbeste tarte ez dago orain  
gizonetik gizonera.

9/ Gipuzkoa'ko erri-buruak  
zabaltzen digu atea,  
komeni zaigu Santo Tomas'ez  
Donostirantza joatea.  
Kale-baserri, estutu gogor  
maitasunaren katea,  
danon artean senda dezagun  
gure sorterri maitea.

*Zarautz, 1959'garren urteko abendua.  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## GABON GABA - 1959

1959'garren urteko Gabon gaba da. Alaitasunez gañezka dago Zarautz'ko «Gure Kabia» deritzaion bazkuna, soziedadea. Etengabeko sartu-irtenean dabiltz Jesus'en jaiotzakiko eskaleak. Txistulari egoki ta trebeak beren doñurik alaien eta ederrenak entzunerazi dituzte. Urteroko oitura det, egunari dagozkion iru-lau bertso bertan kantatzea. Aurtengoak onelatsu izan dira, gutxi gorabera.

- 1/ Bere ogeitalaugarren gaba gaur du, jaunak, abenduak. Gizaldi zarrak millaka urtez illunpetan egonduak. Egun onetan alaitasun bat artua zigun munduak, estalpe xixtriñ, zarpail batean nolako kantu gozuak! Gaur ere pake egarria du itxuraz mundu osuak, baña ardien jantziarekin ikusten dira otsuak; jakin bezate amerikarrak, jakin bezate rusuak, berak ez ainbat indar duala gaur jaioko dan Aurtxuak.

- 2/ Bada oraintxe aurrerapena, ta bada milla zientzi, gizonak egindako trepeta illargiraño iritxi. Millaka milloi armetan gasta, ta jenderik ezin bizi; arrokeria dabil ugari, baña karidade gutxi, onek ez dio grazi aundirik egingo gure Jesusi. Diruan bidez lan danak egin, ta gogorrera nagusi, Belen'go estalpean ez dute orrelakorik ikasi... Gaur jaioko dan Aurtxoak ezin au begi onez ikusi.
- 3/ Nazio danak errezelotan, leporaño armaturik; gauza bat esan, bestea egiñ, ezta azpijana besterik. Ainbat millaka goseak iltzen, beste batzuk gañezturik... Gertatzen dana gertatu dedin ez dago eskubiderik. O, Jesus maite, ez da betetzen zuk emandako legerik, argatik ezin arkitu degu komeni zaigun biderik. Urte bi pasa bear lurreean eta gorrotuz beterik, alkar maitatzen ikasi arte ez da egizko pakarik.



4/ Alaitu bitez arrantzaleak,  
alaitu nekazariak,  
alaitu bitez kaleak eta  
alaitu gaur baserriak.  
Zeru lurrunez estali bitez  
gure baso ta mendiak;  
Belen aldera zuzen ditzagun  
euskaldun danok begiak.  
Kanta ditzagun Gabon gabeko  
abesti zoragarriak;  
aintza Aitari zeruetan da  
pakea gizon guziak.  
Onenbestekin buka nai luke  
Basarri bertsolariak...  
Zeuen etxetan ondo igaro  
Gabon da Eguberriak!

*Zarautz, 1959'garren urteko Gabon gaba.  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*



## URTE BERRI ON!

Urteberri eguna degu gaur. 1960'garren urtean sartu gera. Donosti'ko «Radio Gipuzkoa'tik», radio entzule maiteeri nere agurra egin bearrean naiz, urte berri on bat opalduaz.

Nere lagun zintzo Goenaga'k eta nik, bi bozetara, onoko bertso autxek kantatu ditugu:

- 1/ Anai-arrebak ementxe nator  
alaitasunez kantari,  
lendabiziko esker beroak  
Zeruetako Jaunari.  
Gure saioak entzuten zintzo  
egoten zenatenori,  
Urte Berri on opa dizutet  
Urte Berri on opa dizutet  
biotz biotzez danori.
- 2/ Urte gozo ta eztitsua da  
nik opa dedan urtea,  
gorrotoaren ixpirik gabe  
maitasunetan betea.  
Komeni zaigu anaitasunez  
lan egin eta jatea,  
Gure artean izan dedilla  
Gure artean izan dedilla  
zoriona ta pakea.
- 3/ Urte on beza arrantzaleak,  
urte on nekazariak,  
urte on beza kale zuloko  
langille maitagarriak.  
Alaitu bitez soro-baratzak,  
alaitu bitez mendiak...  
Irriparrezka ikus ditezen,  
irriparrezka ikus ditezen  
beti gure euskal erriak.
- 4/ A zer paraje amesgarria  
Jainkoak eman diguna!  
Garbi ta sendo irau naztea  
guri komeni zaiguna.  
Gorde ditzagun geure oiturak,  
gorde izkuntza kuttuna,  
au da euskaldun guzi guziok,  
au da euskaldun guzi guziok  
daukagun eginkizuna.
- 5/ Millaka urtez or irau dute  
gizalditik gizaldira,  
gure denboran ez dute oiek  
joan bearrik lur azpira.  
Izkuntz-oiturak jaso ditzagun  
merezi duten tokira,  
bizi pozikan ez dago emen,  
bizi pozikan ez dago emen  
oiek ondatzen badira.

*Zarautz, 1960'garren urte asieran  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## TXAPASTA

Berri txar, mingotza, bereala zabaldu da Euskalerrri zear. Txapasta pelotari entzutet-sua il zaigula Eibar'en. 57 urte bete bear zituen bezperan ill ere. Goian Bego.

- 1/ Uste gutxien degun garaian  
dator eriotz arrasta,  
ta lur ontatik beste aldera  
joan bear degu txandazka.  
Luto beltzean arkitzen da gaur  
euskal pelotari kasta,  
bizi artetik illen artera  
joana baitegu Txapasta.
- 2/ Pelota zegon tokian beti  
an zegoan begi argiz,  
ain gozoa ta egokia zan  
ezkerrez eta eskubiz!  
Beste batzuek geiago ziran  
indarrean da jo aundiz,  
baña obeak etziran asko  
buruz eta jakinduriz.
- 3/ Igande goizez, lagun artean,  
ustez osasun onean,  
erio beltza eldu zitzaion  
bazkaldu ondorenean.  
Urtebetetze eguna zuan  
berak biaramonean,  
danak alperrik izaten dira  
ordua datorrenean.

*Zarautz, 1960'garren urteko ilbeltza.  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## JOSE MARIA CABALLERO JAUNA'RI

Diputazioko artzai-buru ta lendakari izan genduan, urte asko ez dala, tolosar seme argi au. Gipuzkoa'ren onerako al zuana egiten gogoz saiatu zan. Len berekin diputadu izanak eta orain daudenak, danak ager nai zioten beren esker ona. Irun'go diputadu ta musikalaria dan Ezeizabarrena jaunak «Zortziko» bat eratu du Caballero jaunaren omenez, zortziko orren letra bertsolari motel onen gain utzi dualarik.

- 1/ Zu, gipuzkoar artaldearen  
artzai jatorra izana,  
esker onezko «bee» goxoz datoz  
ardi guziak zugana.
- 2/ Zuk jarritako larre sendotan  
indartuak dira nunbait;  
ezaugarritzko aitormen on bat  
ager nai dute nolabait.
- 3/ Maitasunezko buru-makurtze  
ardi onak artzaiari...  
Zintzarri orde z entzuten dana:  
Gora gaur zu, Joxe Mari!
- 4/ Zure artzantzak ondoren onak  
nabarmen azaldu ditu,  
ta jaio ziñan lur maite onek  
gogoan izango zaitu.

*1959'garren urteko abendua.  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## GIPUZKOA'KO CROSS'A

1960'garren urteko ilbeltzaren azken eguna da. Ogeitabost milla kristautik gora bildu gera Zubieta'ko zaldi zelaian munduko laisterkaririk bizkorrenak txalotzeko.

1/ Lur ontan gauzak tajuz egiten beti izan degu sena,  
kanpotar danak ala diote,  
ezta geronek esana.  
Berdingabeko jaialdi bat da gure artean izana,  
lenez gañera goian degu gaur Gipuzkoa'ren izena.

2/ Gure berriak ain zabalduak daude gaur mundu guzira.  
ta batez ere deporte itzak indarrrik daukan tokira,  
Urte guzian egon ondoren Gipuzkoa'ri begira,  
munduko gizon azkarren oiek pozikan etortzen dira.

3/ Gipuzkoarra beti izan da deporteari emana,  
txalotzen eta eskertzen daki lanik egiten duana.  
Naiz izan ingeles, txeko, frantzes, belga edo alemana,  
damutan ezta etxeratuko bein onuntz etortzen dana.

4/ Gure dei ori entzuten dute munduko laisterkariak,  
beste iñon ez bezela nunbait maitatzen ditu erriak.  
Grazi aparta dute berekin Gipuzkoa'ko mendiak,  
terrenoz txiki, mirriñak gera, gizatasunez aundiak.

5/ Probintzi galant askoak daude au ezin egin dutela;  
zaletasunik ez dago nunbait, asiko ziran bestela.  
Kanpotar danok badakizute gogozkoak zeratela,  
etorri lasai berriro ere zeuen etxera bezela.

*Zarautz, Ilbeltzak 31'garren eguna.  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## AITA ALARGUNAREN OÑAZEAK

- 1/ Nere urte onenak  
joan ziran igesi,  
alaitasun askorik  
ez det ikusi.  
Ondorengoak dauzkat  
etxean nagusi,  
kontsejurik ematen  
ez ninteke asi;  
bulla ta karraxi,  
supritu-erazi,  
oiek lotsa gutxi  
ta nik ezin eutsi...  
Semeak azi eta  
nekeak bizi!
- 2/ Emazte bat banuan  
zintzoa ta piña,  
il zan gaxoa eta  
au nere miña!  
Semeak artu dute  
pamiliko gaña,  
gaizki artzen dizute  
ondo itzegiña;  
txarrerako griña  
ezin esan aña,  
morroi alajaña  
ainbat on egiña...  
Au al da nik merezi  
nuan ordaña?
- 3/ Gazteak gallentzea  
jarri zaigu modan,  
lengo errespetoa  
ez dakit non dan.  
Amabost urte arte  
or ziran eskolan,  
oiek ezitzearren  
egin det gogor lan;  
orain nago proban  
guzizko desonrran,  
zartu eta sobran,  
zer kalbario dan!  
Ez naiz alperrik saia  
nere denboran.
- 4/ Aita mendean dute,  
il zan berriz ama,  
bi semeak daukate  
aginte dana.  
Irabazia urri,  
gastuan afana;  
eskaxten ari zaigu  
etxean zer jana;  
kontseju bat ona  
emango dedana:  
otoitz bero bana  
egin Jaunagana,  
ez gertatzeko neri  
gerta zaidana.

*1960'garren urteko ilbeltza.  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## JUAN SEBASTIAN ELKANO

- 1/ Gipuzkoar maiteok,  
jaso gaur kopeta,  
Elkano'ren egintzak  
merezi dute-ta.  
Zuk utzi gaituzu gu  
gloriaz beteta,  
lenbiziko emanaz  
munduari buelta.
- 2/ Goraldtu nai zinduzket  
al balitz kantari,  
baneukate zugatik  
zer esan ugari.  
Azi zendualako  
seme bikain ori,  
zorionsua zera  
benetan, Getari!
- 3/ Seme onen egiñak  
arrigarri dira,  
danak bana banaka  
esango balira.  
Bost ontzitatikan lau  
joanik ur azpira,  
Elkano iritxi zan  
bear zan tokira.
- 4/ Burruka ta naspilla  
ontzitateko lagun,  
eriotzak ugari  
ziran gau ta egun.  
Gose ta naigabeak,  
pozikan ez inun,  
Jaunak daki Elkano'k  
zer ikusi zitun.
- 5/ Magallanes il zuten,  
ura zorigaitza!  
Bukatu zan baitere  
Mendoza'n bizitza.  
Norbaitek bear zuan  
eskuetan giltza  
getariarrak artu  
zuan nagusitza.
- 6/ Ango gaitzen indarra  
ta bizi eziña,  
berreun da ainbat gizon  
galdu alajaña.  
Iru urte luzeko  
burruka gordiña,  
ori guzia dago  
Elkano egiña.
- 7/ Sebastian Elkano  
bai aundi zerala,  
gizon baten mingañak  
ezin esan ala  
Mende artu zenduan  
itxas-gain zabala,  
erakutsiz mundua  
biribilla dala.
- 8/ Karlos lenengoa zan  
orduko errege,  
egin zindun eskudu  
eder baten jabe.  
Geroztik Gipuzkoan  
zoraturik gaude,  
bera erakutsiaz  
iñoiz asper gabe.

9/ Elkano'ren lanketa  
txit arrigarriak,  
euskaldun guzientzat  
dira pozgarriak.  
Metroz ez dira gero  
neurtutzen erriak:  
lurrez txikiak gera,  
gizonez aundiak.

10/ Elkano'tzaz nai nuan  
au itzegitea,  
iñoiz galdu ez dedin  
bere entzutea.  
Bixitatzen badezu  
Getari maitea,  
bere seaska dala  
gogora zaitea.

*Zarautz, 1960'garren urteko otsailla.  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*



## GURE AXULAR AUNDIA

- 1/ Urdazubi'ko seme argia,  
zuretzat nik zenbait bertso,  
euskera zarra inork ezpaitu  
zuk bezin goitara jaso.  
Gure izkuntzan ezkutu danak  
mendean zenitun oso,  
zu zera egiz, euskal idazle  
guzi guzian guraso.
- 2/ Zu irten ziñan gure mintzoa  
zer degun erakustera,  
lotsez gordeta zegon gaxoa,  
ta zuk kanporuntz atera.  
Itzen jario buka eziña;  
arrigarrizko joskera,  
zein izkuntzaren inbiriz dago  
zuk darabilzun euskera?
- 3/ Euskal lurreko izar argia,  
zuretzat milla goraintzi,  
maixu oberik ezta izan da  
zuk aña nork erakutsi?  
Zure «Gero» da euskal liburu  
jakingarritan nagusi,  
nagikerien mende gaudenak  
badaukagu zer ikasi.
- 4/ Eragozpenik etzun arkitzen  
ai, zure luma trebeak,  
gai astunenak arintzen zitun  
etorri berdingabeak.  
Zuk erakutsi zenitun ondo  
animentzako bideak,  
Axular asko bear lituzke  
izkuntzak eta fedea.
- 5/ Lokatza zana zure eskutan  
biurtzen baizan urrea,  
zure euskera ain da aberats,  
apain, txukun, dotorea.  
Ainbat gizaldi pasa ta gero  
non arki larre ohea?  
Euskaldun danon ixpillu beti  
Sara'ko erretorea.

*1960'garren otsaila.  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## ARTURO CAMPION

- 1/ Naparroa'ko maixu laztana,  
zutzaz mintzatu gaitean,  
oso osorik eskeñi ziñan  
maitasun bero batean.  
Etenik gabe lan egin zendun  
bizi ziñan bitartean,  
zure izenik ezta aztuko  
euskaldun onen artean.
- 2/ Nork esan zenbat balio zuan  
zure talentu jantziak?  
Gai guzietan ematen ziñun  
ikasbide bereziak.  
Ainbeste erakusten digute  
zure liburu guziak...  
Bere frutua or emango du  
zuk ereindako aziak.
- 3/ Jakintsu azkar, purrukatua  
ziñan, ala bearrean,  
Euskalerrian alde trebeki  
nekezko lan gogorrean.  
Euskaldun danok makurtzen gera  
Campion baten aurrean,  
semerik bikañena zu ziñan  
Naparroa'ko lurrean.
- 4/ Etzendekizun euskerarik zuk  
baña bai azkar ikasi,  
berealaxe maixu biurtu  
eta bera erakutsi.  
Beko mallatik asi ziñan da  
oso goikora iritxi;  
euskaldun onak asko oi dira,  
zu bezelakoak gutxi.
- 5/ Argi dizdiraz josi zenitun  
len illun zeuden baztarrak,  
zer artzai zuzen, jatorra duten  
auzoko anai naparrak!  
Beti berri ta prexko baitaude  
zuk egindako lan zarrak.  
sekula ezin itzali leizke  
zu bezelako izarrak.

*Zarautz, 1960'garren urteko otsailla.  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## JOSE MIGEL BARANDIARAN

- 1/ Ataun'go seme onek  
kupira gabe lan,  
zer bide txalogarri  
zuzena daraman!  
Mundu guziak daki  
zein jaun argia dan,  
Euskalerrian ondra  
da Barandiaran.
- 2/ Atzeratuz millaka  
urte ta gizaldi,  
orduko arrastoak  
atereaz ongi.  
Jakinduri apartak  
egin dio argi,  
ezkutuan zeudenak  
azaltzeko garbi.
- 3/ Leiza-zulo sakonak  
sator baten gisan  
miatzeko ezpaitu  
kupirarik izan.  
Jaun orrek bezin ongi  
ez du inork esan,  
lenengo euskaldunen  
izakera zer zan.
- 4/ Ainbat urtean gogor  
lanketa bizian,  
zer talentu sortu zan  
gure probintzian!  
Goi mallako jakintsu  
danen iritzian,  
itzal egiten du gaur  
Europa guzian.
- 5/ Maixu agurgarria  
jakintzaz beterik,  
gaitz da zure mallara  
eltzea besterik.  
Ezta adierazi  
lezaken euskerik,  
zuk egindako lana  
ez dago neurtzerik.
- 6/ Ainbat jakinduri ta  
ainbat apaltasun,  
zein ixpillu garbia  
zuk jartzen diguzun!  
Erakutsi leikena  
erakus dezazun,  
Jaunak eman deizula  
luzaro osasun.

*Zarautz 1960'garren otsailla.  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## PATXI ESKUDERO

- 1/ Musikarentzat sortu intzan da,  
ortan dituk ire lanak,  
daukaken maixutasun orrekin  
arriturik dauzkak danak.  
Ik eman dizkak erri zar oni  
merezita zeuzkan sonak,  
ai, oso bakan jaiotzen dituk  
i bezelako gizonak.
- 2/ Ire izena mugaz kanpora  
noranai or ziak egan,  
alde guzitan kontura dituk  
ire balioa zer dan.  
Erri anima ausnartu dek ik  
gutxik egin duten eran,  
musika bidez erakutsiaz  
gu euskaldunok zer geran.
- 3/ Musika bidez eskeñi aiz i  
eure sorterriantzako,  
eta geroztik gau ta egun beti  
nekatzen aiz beretzako.  
Egiñ ezaken ona etzeok  
ezjakin batek neurtzeko,  
Jaunak osasun eman deikala  
bide ortan jarraitzeko.
- 4/ Patxi, badakik ez daukagula  
guk betirako mundurik,  
alare, motell, etzak eduki  
gaurko nekien ardurik.  
Or geldituko dituk guziak  
sorta sendotan bildurik,  
ire lan oiek ezpaizeukatek  
eriotzaren bildurrik.
- 5/ Alkarren auzo lagunak gaituk  
umetxo giñan ezkerok,  
ire lanari jo zizkiot nik  
makiñabat txalo bero.  
Izen on orrek sendo iraungo  
baitik orain eta gero,  
besarkadarik anaikorrena,  
biotzeko Eskudero.

*Zarautz, 1960'garren urteko otsaila.  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## KEIXETA ZARRA

- 1/ Txoko polit bat badu Gipuzku'k  
Urrestilla deritzana,  
zein aizkolari bikaña bertan  
egun batez sortu zana!  
Euskaldunetan nork ez du entzun  
Keixeta baten izena?  
Euskal arrazak sortutakotan  
semerik gogortxoena.
- 2/ Nekea zer dan ezagutu du  
Keixeta'k bere bizitzan,  
ainbat urtean basorik baso  
etengabe ibili zan.  
Egur botatzen sarritan eta,  
baita ere ikazkintzan,  
Urrestilla'ko semeak ez du  
lanaren beldurrik izan.
- 3/ Ai, Keixeta'ren zañetan bazan  
indar trebea ugari,  
ez dago begiratu besterik  
berak egin zuanari.  
Ogeitamar bat aizkol apustu  
jokatua da jaun ori,  
eta grano bat galdu gabetan  
utzi zion aizkorari.
- 4/ Gorputz biguna, indar sendoak,  
kolpe latz eta biziak,  
beldurgarriak izaten ziran  
Keixeta'ren erauntsiak.  
Argatik zitun ainbeste joko  
sallean irabaziak,  
mendean artzen zituan orrek  
azaltzen ziran guziak.
- 5/ Izketan ere ain egokia,  
ezti, goxo ta leguna,  
bein ezagutzen duanak galdu  
ezin lezaken laguna.  
Arrokerien etsai gogorra,  
apala ta zentzuduna,  
iñor bada ta Keixeta degu  
egitazko euskalduna.
- 6/ Oso bakarrak izaten dute  
zuk izan dezun konduta,  
len gazte trebe izandakoa  
ikusten zaitut zartuta.  
Larogei urtetaraño zaude  
oraintxe inguratuta,  
nik burumakur agurtzen zaitut  
zer ziñan gogoratuta,
- 7/ Arrigarria izan zera zu  
aizkolarien artean,  
danen txapeldun izan baiziñan  
ez dakit zenbat urtean.  
Zeu mundu ontan zeran arte ta  
berdin bestera joatean,  
zure izenik ezta aztuko  
lur ontan puska batean.
- 8/ Sasoiak iges egiten digu,  
ezpaigera betikoak,  
biotz biotzez opa dizkitzut  
egun onenetakoak.  
Noizpait atsedean artu bear du  
ainbat lan egindakoak,  
zartzaro gozo, on bat deizula  
Zeruetako Jainkoak.

*1960'garren urteko otsailla.  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## PARIS'KO BATZARRA

1960 urteko Maiatzaren 16'an, Paris'en bildu ziran Estados Unidos, Rusia, Ingalterra ta Frantziako buruzagiak, «lau aundiak» alegia: Eisenhower, Krushev, Mac Millan ta De Gaulle. Bañan egun gutxi zan rusoak zelatan zebillen amerikano aideplano bat botea zutela. Ori zala -ta, oso aserre ta gogor jardun zan Krushev, eta urrengo egunean etzan biltzarretara agertu. Ala, pakearen alde antolatutako batzarra artan bukatu zan, mundua len baño nastuago ta gerra-bildur geiagorekin utziaz.

1/ Eman diran pausoak danontzat kaltera, argitasun aundirik ez degu atera. Iritxi bearrean egizko pakera, len baño okerrago geldituak gera.

2/ Itxusia benetan Paris'ko tratua, danori eman digu zertaz pentsatua. Itzik txarrenak esan, azi gorrotua, gizon jakintsuentzat zer errepetua!

3/ Batetik Amerika, bestetik Rusia, oien artean dago ezin ikusia. Gañontzeko erriak ikara bizia, beren kezka baitago gaur mundu guzia.

4/ Krushev aritua da gogor itzegiten, amerikanoeri asko utsegiten. Konpontzerik etzala aurretik zekiten, obe zan ortarako etxetik ez irten.

5/ Paris'ko batzar orrek or egin du potu, nunai billa diteke ainbat errespeto. Ainbeste itz zakar da ainbeste gorroto... Mandazai batzuk mintza zitezken obeto.

6/ Batzarrik egin gabe utzi dute Paris, ez geunden alperrik gu pakean egarriz. Kopet illunarekin modu lotsagarriz beren trasteartu ta etxera berriz.

7/ Munduaren auzia  
ezin erabaki,  
itxaropen aundirik  
ezin inork euki.  
Lenez gain armatuko  
zaizkigu galanki,  
gero zer gertako dan  
Jaungoikoak daki.

*Aranzazu, 1960, VII.  
Laugarren Txinpartak, Auspoa 55, 1966.*

## PENTSATZEN ASTEKO ORDUA

Denbora berriak lanketa berriak eskatzen dituzte. Gure ingurura begiratzen badegu, nola kale, fabrika, itxas-ontzi, ostatu, komertzio ta abar, lengo itxura ta arrastorik gabe ikusiko ditugu. Gaurko bizi-moduaren moldera jarriak daude danak.

Baserritarrari ez ote zaio iritxi zerbait pentsatzen asteko ordua?

- 1/ Ainbat inbentu ta aurrerapen gizonak sortu ditunak, oietxek dira gure artean artu bear ditugunak. Buruz jokatzuz egin ditzagun etxeko eginkizunak, kontuak ondo ateratzeko eldu zaizkigu egunak, gu bakarrikan al gera beti lo egon bear degunak?
- 2/ Baserriari etorri zaio berebiziko trantzea, komeni zaigu begietako makar guziak kentzea, ikasi bear dana ikasi ta asmo sendoak artzea, egiten degun lan guziari probetxu ateratzea... Bururik gabe alperrik degu gorputza nekatutzea.

3/ Baserritarrok zenbat bentaja bear dana ikasirik, ematen duan gauzari eldu gañontzekoak utzirik. Aurrera gogoz bide onenak nun dauzkagun ikusirik, lengo martxari jarraitzekero ezpaitaukagu bizirik, lana geiegi egiten da ta ez dago irabazirik.

4/ Ondo begira nundik letorken onura edo mejora, beti azpian egon gabetan igo bear degu gora. Jakingarriak ikas ditzagun, eldu baizaigu denbora, berreun urteko xixtima zarrak utzi beingoan zokora... Baserriaren salbazioa ortatik etorriko da.

*Aranzazu, 1960, IV.  
Laugarren Txinpartak, Auspoa 55, 1966.*



## JUAN XXIII'GARRENA

- 1/ Ia larogei urte ditu ta  
etenik gabe lanean,  
bere itzala zabaltzen gogor  
ari da mundu danean.  
Berriro ere Artzai jatorra  
bada kristau artaldean,  
ase ta goza gaitezen danok  
autatzen digun larrean,  
gure Eleiza katolikoa  
ez dago esku txarrean.
- 2/ Oker mingotzak etorri ziran  
bein batez gure artera,  
artzai bakarra alde bat utziz,  
bakoitza bere aldera.  
Ondo ikusten du Erroma'tik  
onek dakarren galera,  
Aita Santua zuzen dijoa  
batasun eta pakera,  
kristau izena degun guziok  
bildu nai gaitu batera.
- 3/ Gaur ainbat puska egiñik gaude,  
len gorputz bat baigiñan gu,  
berriro ere batasun ori  
oso bearreko zaigu.  
Erroma'n degun Aita maiteak  
ala erakusten digu:  
kristau izena daramagunok  
bat egin ezin badegu,  
fedegabeko milloika oiek  
nola bilduko ditugu?
- 4/ Zuaitz aundi ta sendoa zana  
ainbeste adar egin zan,  
eta geroztik ikusten degu  
zein eta nola gabiltzan.  
Artzai bakar bat da egizkoa  
Jesukristo'ren eleizan,  
otoitzerako ez gaitezela  
nagitsu, alperrak izan,  
egiteko dan batzar aundiak  
ondorenak eman ditzan.
- 5/ Ez ote dago gure arteko  
eragozpenak austerik?  
Ezta komeni bakoitzak bere  
seta txarrari eusterik.  
Batzar orretan ez dago iñor  
minberatzeko usterik;  
batasun billa goazen guziok  
maitasun garrez beterik...  
Kristau famili onak ezpaitu  
Aita bakar bat besterik.
- 6/ Billera aundi, nagusi ortan  
ezta galdu nai denborik,  
ogeitairugarren Juan onek  
ez du ortako gogorik.  
Premi gogor bat egon ezpalitz  
etzan emango pausorik;  
sakabanatu ziran ardiak  
bildu nai ditu osorik,  
Erroma'n degun Artzai zintzoak  
ez dauka beste asmorik.

*Zarautz, 1960'garren urteko otsailla.  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## NUARBE'KO ELEIZA

- 1/ Balleratxo bat degu Nuarbe,  
inork nai balu ikasi,  
fedea sendo dagon tokian  
eleiza oi da lenbizi.  
Ango jendea poza gaur zer dan  
ez leike adierazi,  
ainbat urtean morroi izanda  
jarri baitira nagusi.
- 2/ Kanpai guziak jotzalle daude,  
itxaperoak ausarki,  
nuarbetarren jaia dala gaur  
orixe zeñek ez daki?  
Ainbat urteko auzi garratza  
beren alde erabaki,  
besten mendeko eleiza zana  
biurtu zaie parroki.
- 3/ Gazte ta zarrak nabarmen dute  
berengan alaitasuna,  
argi ditzirak jabetu dira,  
uxatu dute illuna.  
Nuarbetarrak nolatan aztu  
ospatzen duten eguna?  
Bene benetan aundia baita  
nor bere jabetasuna.
- 4/ Gaurtik aurrera zuen eleiza  
parroki oso-osoa,  
bertan sarritan entzun dedilla  
otoitzen lurrun gozoa.  
Kateak ausi badira ere  
maita zazute auzoa,  
danen onean izan dedilla  
eman dezuten pausoa.
- 5/ Alkar artean ez degu bear  
seta gaiztozko auzirik,  
naiz ta gertatu lengo morrontzan  
kate guziak ausirik.  
Etxe, auzotan, maitasun onak  
iraun dezala bizirik,  
Jainkoagatik ez bedi piztu  
gorrotoaren izpirik.

*1960'garren ilbeltza.  
Kantari nator, Zarautz, 1960.*

## ARRANTZALE BATI

Arratsaldeko bosteterdiak dira. Zenbat ordu ote daramazki onezkero, gizarajoak, bere kañaberari begira! Ustez arrantxo ona jartzen die amuan, baña arraiak ez egiten kasorik.

Lagun ona det. Etzait asarretuko, bera dagoan arkaitz gañera inguratuta, bertso bi kantatzen badizkiot.

- 1/ Arkaitz gaiñ ontan artzen dituk ik  
tratu izugarrizkoak,  
udaran bero galantak eta  
oraiñ otz eta prexkoak.  
Arrai goxoak arrapatuta,  
dauzkak jateko asmoak,  
ik engañatu bear badituk  
etzeudek oso gaiztoak.
  
- 2/ Atzo gonbita egiñ igukan  
arrai prexkoak jatera,  
asko bear da bakar bat ezin  
ik uretatik atera.  
Tripak asarre izango dituk  
oien zai jartzen bagera,  
aragi billa niak lenbailen  
arategiren batera.

*Kantari nator, Zarautz, 1960.*

**1961 - 1970**

## ARRANTZALEAK

- 1/ Nekazari ta gañontzekoak  
guziak era txarrean,  
irabazirik inõndik ez ta  
derrior jan bearrean.  
Arrantzalien artean ere  
poza ez dago urrean,  
itxasorako girorik ez ta  
geldi daude legorrean.
  
- 2/ Lan egiteko amorratzen da  
derriorrak dauzka geldia,  
oien bizitza zer izango dan  
norbera kontura bedi.  
Itxasoan da familietan  
eten gabe ekaitzaldi,  
atunetako irabaziak  
igesi zuten aspaldi.
  
- 3/ Amaika supritzeko sortua  
zera, anai arrantzale,  
bizi bearrak berekin ditu  
makiña bat atsekabe.  
Lau illabetez jarri zaite zu  
xentimorik jaso gabe,  
Euskalerriko etxe askotan  
era triste ortan daude.
  
- 4/ Arrantzale ta nekazariak  
zer diran nork erabaki?  
Oiek mantentzen gaituzte danok,  
au edozein umek daki.  
Jende on ori ezin diteke  
negar batean eduki,  
Jaun Zerukoa, estu dira ta  
izan oietzaz erruki.

*Aranzazu, 1961-II.*

## URRUTIKO INTXAURRAK

Urrutiko intxaurrek izaten dute beren otsa. Bertaratutakoan utsak askotan. Euskalerriko gaztediak gogoan bear luke auxe. Sorterria atzean utzi ezker, egun batetik bestera aberastuak dirala pentsatzen dute. Ta... badijoaz asko, nora ta zertara begiratu gabe.

Orain, orain bezela, Alemani'k du sekulako bolara. An gertatzen danaren berri jakin degu. Alemani'ra lanera, aurrez beren konponketak eginda dijoazenak, legepean dijoazenak, ez dira damutzeko modutan. Itxurantzean irabazten da alde artan. Bizimodu zintzo ta zuzena egin ezker, txanpon batzuk aurreratzeko era badago. Gazte asko, ordea, ez buru ta ez anka jokatzen dira. «Olako ta olako joan itukan eta ni ere baniak».

Gero zer? An ez dagola emengo kon-turik. Legepean ez dijoana sobratua dago-la. Argatik ikusten dira Alemani'n milla-ka españitar gazte, goian zerua ta beian lurra, berenak eta bi pasatzen. Gure arte-tik dijoazen euskaldunak beren kontrata-rekin dijoaz. Oiek seguru daukate lana ta irabazia.

Zoritarrez, geiegi dira, ordea, olako neurririk artu gabe, an zerbait sortuko da-la ta beste gabe dijoazenak. Oiek bai ikas-ten dutela bizitzea zer dan; oiek bai eza-gutzen dutela gosea ta otza zer dan.

Nolanaiko pauso ariñik eman gabe,

gazte, begira zertara zoazen. Denborak joanda gero damutzea alperrikakoa dezu.

Orain atera ondo zeure kontuak. Emen aldapa besterik ez dezu ikusten, gazte. Ori egia izan arren ere, kanpoan dana ordeka gozoa billatuko dezulakoan etzaitezela egon. Bizimoduak alde guzie-tan badu galtzak bete lan.

1/ Esan dizutet zer berri diran or Alemani aldetik, zenbat galera etorri leiken bidea oker artzetik. Bururik gabe jokatzen danak suprimenduak atzetik, kontuak kontu atera gabe ez irten beintzat etxetik.

2/ Gazte jendeak badu oraintxe kanpora irten bearra, pozaren billa joaten dira ta sarri arkitu negarra. Ezagutzeko dagoan onak arrixku aundi samarra, badaezpada obe askotan ezagututako txarra.

3/ Ondo giñake gure ametsak egi irtengo balira, baña sarritan zilipurdika dijoaz ondamedira. Gazte maiteok, ez-pa zoratu kanpo aldera begira, beste tokitan ere zakurrak ankutsik ibiltzen dira.

4/ Ain tristea da gazte jendea  
emendik aldentze ori,  
eta ordañez badakizute  
zeintzuk datozkigun guri.  
Bizi bearrak emanagatik  
istillu latza ugari,  
eutsi deiogun al baldin bada  
geu jaio giñan lurrari.

*Aranzazu, 1961-IV.*

## ZABILTZAN BIDEAK ARRAPATUKO ZAITU

Goizxeago, beranduxeago, oker dabilena erortzen ikusten degu beti. «Zabiltzan bideak arrapatuko zaitu» dio esaera zar batek. Ta auxe bai dala egi biribilla.

Egun auetan, munduko periodiko, radio ta telebisioetan ez dabil beste konturik. Jakitun zerate orain amaika illabete Peugeot jaunari Frantzi'n zer gerta zitzaien. Zuan seme bakarra lapurtu zioten. Ume-lapurrak karta bat egiña zioten aitari. Semea esku onetan zegola ta bereganatu eziñik etzuala izango. Ortarako, berrogeitamar millo franko alako egunetan eta alako lekutan utzi bearrak zeuzkala. Ala joka ezean, etzezala izan berriro semetxo ikusteko pentsamenturik. Diruak diru, aita biotzberak lapurren agindua egin bearra izan zuan. Seme batek ezpaitu preziorik.

Orain, amaika illabeteren buruan, gaizkilleak arrapatuak dituzte. Berrogeitamar milloetik ogeitemezortzi gastatuak zeuzkaten. Aien diru-zabaltzeak etzuan neurririk.

Etxe-bizitza, lau automobil eta nik al dakit zenbat balioko gauza zeukaten eresia Peugeot jaunaren diruarekin.

Nabarmendu egin ziran geiegi goizetik gabea. Len ezer etziranak printzipe modura ibiltzen asi, dirua parra-parra bo-

teaz. Bien bitartean, Frantzi'ko poliziak etzeuden lo.

Mirari ura nundik ziteken, zioten berrenkiko. Errezelo txar batek zulatu zituan eta jende klase aren pausoak zaitzen asi ziran. Azkenean zepoan erori bearra izan dute. Ukatu eziñeko pruebak azaldu dizkiete beren begien aurrera. Pekatua zan bezelaxe aitortu bear asieratik azkenerarte. Bi gizonezko ta bi emakume dira errudun nagusi bezela. Jolas etxe ta kasino dotoreak utzita, kartzela illun batean dute ostatu.

Frantzi'ko justiziak du orain itza.

1/ Len eguzkitan jolasten ziran, orain badute itzala, iruditzen zait pixka bateko seguratuak dirala.

Anai-arrebok, sinistu gero au ola gertatzen dala: gaizki dabillen pertsonak beti gaizki bukatzen duala.

2/ Modu txarretan gastatu gabe etzendutaken onikan, ez uste nunbait pilla zar ura iñoiz aituko zanikan. Atzo dirutsu ta gaur kartzelan, ez pentsa broma danikan, pixka batean berriz gastatzen ez daukazute lanikan.



3/ Aita bat utzi zenduten zuek  
zearo naigabetua,  
seme maitea nai bezin azkar  
etzuan etxeratua.  
Orretzaz kanpo ainbeste diru  
modu txarrez lapurtua,  
orain pagatu bear dezute  
egindako pekatua.

4/ Ainbeste diruk patrikak erre,  
arrotu berealaxe;  
zuen aurretik millakak dira  
galdutakoak olaxe.  
Aztuko dira lengo lujoak,  
automobil eta etxe;  
arnasa zaitzen lanikan asko  
badaukazute oraintxe.

5/ Neska ta mutil, danok ziñaten  
nunbait alkarren lagunak,  
kartzela illun batean orain  
nolako estuasunak!  
Bukatu ziran lengo loikeri  
ta ibillera lizunak,  
ez du askorik iraun munduko  
zuen aberastasunak.

6/ Frantzi guziak agertua du  
bere asarre zakarra,  
ondotik moztu bear omen da  
kaltegarri dan belarra.  
Orain derrior daukazute or  
asko supritu bearra,  
zuen gañera eroriko da  
justiziaren indarra.

7/ Denbora joanda alperrik dira  
antsi triste ta larriak,  
kristau bezela aurretik artu  
bakoitzak bere neurriak.  
Bide txarrera ez jo sekula,  
euskaldun maitagarriak;  
pobre izango bagera ere  
izan gaitezen garbiak.

*Aranzazu, 1961-IV.*

## DIAMANTEZKO EZTIAIAK

- 1/ Eztai urtebetea  
degu guk aurtan, bai,  
gogoratu dezagun  
pozik eta alai.  
Ez al degu bixita  
txiki bat egin nai?  
Arantzazu'ko Ama  
antxe daukazu zai.
- 2/ Irripartsu daukagu  
Arantzazu goia,  
gogoratu antziña  
egindako jaia.  
Ainbat on egiten da  
ainbat egin naia,  
olako Erregiñak  
bear du koroia.
- 3/ Sinistu egun ura  
zerutarra zala,  
gure guraso zarrak  
txoratu zirala.  
Goazen Amarengana  
nola edo ala,  
erakutsirik aien  
semeak gerala.
- 4/ Ikustaldi txiki bat  
agintzen dizugu,  
ainbeste bearkizun  
zurekin badegu.  
Ama, jarrai egiñaz  
gugatik erregu,  
zure laguntzik gabe  
galduak gera gu.
- 5/ Argira sar gaitzazu  
illunpe itxutik,  
ez aldendu zu, Ama,  
gure ingurutik.  
Gizalditan barrena  
iraun dezan zutik,  
Euskalerra maitea  
ez utzi eskutik.

*Arantzazu, 1961, VII-VIII.*

## GORDON PIRIE ETA ARRUIZ'KO TXIKIA

1961'garren urtearen azken egunean, Gordon Pirie, inglesa, ta Arruiz'ko Txikia jokatu ziran Tolosa'ko zezen plazan korrika. An gertatu zanaren berri ongi dakizute noski *Aranzazu*'ren irakurleok. Ainbat itzegin ta ainbat idatzi baita paperetan neurketa oni buruz!

Itz laburretan auxe esango genduke: bigarren agerraldi ontan emengo jendeak uste baño ondotoxo exkaxago gelditu dala inglesa. Kanpoko dana ona izaten degu guk, eta etxekorik aintzat artzen eztakigunak gera. Gure plazetan korritzeko oiturik eztuten arrotz eta kanpotarrerri, naizta punta-puntako korrikalariak izan, bildur izan ingles sonatu oni gerta zaiona gertatzea. Ta... jaunak! Noizpait asi gaitezen etxeokak errenak eztirala konturatzen. Ordua dala esango genduke.

- 1/ Irabaztea uste  
nai zuen klasera,  
euskaldunak utzirik  
nolanai atzera.  
Bi aldiz etorri da  
plazan probatzera,  
bietan burumakur  
joana da etxera.
- 2/ Gordon Pirie etzaigu  
batere aunditu,  
ain bizkorra dagonik  
etzait iruditu.  
Ingles orrek emengo  
lanak egin ditu,  
obe du Ingalaterra'n  
patxaran gelditu.

- 3/ Sarri esan ditugu  
egi biribillak,  
askok sinistu nai ez  
ta gero naspillak.  
Beti kanpoan uste  
dirala abillak,  
ankamotzak ezтира  
emengo mutillak.
- 4/ Bertakorik ez artu  
broman da txantxetan,  
ondo sartzen baitira  
norbere galtzetan.  
Lan onak egin arren  
toki arrotzetan,  
danak miatzen dira  
emengo plazetan.
- 5/ Estranjeritik asko  
daudela begira,  
ai, onuntza etortzen  
asiko balira!  
Azaltzen diranean  
gure barrutira,  
zenbateraño diran  
ikusiko dira.

*Aranzazu*, 1962-II.

## MADRID'KO PERI NAGUSIA

Oso gogoan zaituztegu, Madrid'ko Peri Nagusia ikusiaz eta maxiatuaz zabiltzaten anai baserritar maiteok.

Donosti'ko Aurrezki Kutxari esker, eskutara etorri zaizute aukera. Beste asko, Gipuzkoa'ko Nekazari Kamarak eratutako ibillaldietan joanak izango zerate.

Batzuk eta besteok, gozatu ederra emango diezute begiei. Badezute or zer ikusi, zeini zer zaion gogozko: bei-ganadu, ardi-ganadu, zerri, abere, egazti ta makineri... Zaletasun geiena zertara dezuten artara saia; antxe jarri arretarik aundiena. Etxean dagoenak etxeko berri bakarrik jakiten du. Ibili egin bear da begiak argitzeko. Ikusiak asko erakusten du.

Europa'ren ordua gainean da; Europa'ren batasuna zer esanik ez. Europa'ko orduan erlojuan jarri bearrean izango gera biar edo etzi.

Peria ondo ikusi nai badezute, ez presakaegi ibili. Gaur zati au, biar beste ura, ta etzi aruntzagokoa. Puskaka, zatika ibili. Egun batean dana ikusi naian asten bazerate, ler eginda geldituko zerate illuntzerako, ta ezer egin gabe. Periko mapa eroste da onena, or nunai saltzen dira-ta. Andik giatuko zerate ondoena.

Emen lan giro izan balitz, kezketan ibiliko ziñaten bear bada, au ta bestea egiteko utzi zenituztela ta. Ez estutu. Negu beltzean gaude; emen eztago ezer egiterik, eguraldi auk dirauten bitartean.

1/ Ganadutegi, abere, egazti, makineri eta beste, ori txantxako peria danik inork eztezala uste. Begi zorrotzez ikusi ondo ikusi leiken ainbeste, emen eztago lan girorikan, lasai ibili zaitezte.

2/ Joan-etorria libre dezu ta berdin orko ostatua, alare aixa billatzen da or txanponak nun gastatua. Zure kartillan lumeroa da suertean gertatua, Donostia'ko Aurrezki Kutxa ezta gaizki portatua.

3/ Kezkatzen ditu batzuk oraindik zu ondo ikusi naiak, kale-baserri danok baigera emen alkarren anaiak. Aurrezki Kutxa orri eskerrak orra zer une alaiak, lagunak ere badauzkatzute, danak eztira etsaiak.

4/ Izan zaitea, baserritarra, jakitearen egarri, bestela ondatua zerala ez al diozu igerri? Al dan etekin geien atera peri zabal, aundi orri, aurki artean agur danori ta berri onak ekarri.

Baserritarrak badaki nor ari zaion on egiten. Ogeitamar baserritar joan dira Madrid'a Donosti'ko Aurrezki Kutzari esker. Etzaie berealakoan aztuko. Ordaiñez etzaie ezer eskatu. Kartillatxo bat diru

pixka batekin edukitzea naikoa zan. Gaiñontzekoa suerteak egin du. Baserriak burua jasoko badu, laguntza bear andik eta emendik; itx gutxiago ta obra geiago.

*La Voz de España*, 1962-V-18.

## GARAGARRILLAREN ERDI PAREAN

Garagarrillaren erdi parean gaude. Badute lan da estuasun gure baserritarrak. Belarrak ondu bear; artajorrari ekin bear; goiz gariak gañean zenbait tokitan... Nekazariak eztu atsedetik; dituen danak emanda dabil oraintxe. Alare ezin da iritxi bazter guzietara. Ta bien bitartean...

- 1/ San Juanetan bai zoragarri  
eguzkiaren ditzira,  
urte sasoirik pozgarriena  
dudarik gabe ori da.  
Egun luzenak aldegin dute,  
laister negura begira,  
gure poz eta alaitasunak  
laburrak izaten dira.
- 2/ Arto, gari ta belarrarekin  
badira estuasunak,  
errendituta ikusten dira,  
ta gizonik indartsunak.  
Neke lazpean pasatzen dira  
nekazarien egunak,  
gero zer janik eztu izango  
orain egiten eztunak.
- 3/ Batzuetatik bestietara  
aldea beti izan da,  
eztago ezer esaterikan  
ala komeniko zan da.  
Nekazaria izerditan blai  
dituen danak emanda,  
beste batzuek itxas ertzean  
ondar gañean etzanda.

*Aranzazu, 1962-VII eta VIII.*

## ERNANI'KO SEGA-APUSTUA

Uztaillaren lenengo eguna da. Ernani'n, Jauregi baserriko salletan gaude. Iru mutil gazte aritu dira ordubeteko lan neketsu, latzean, bururik jaso gabe. Belarrik geiena nork ebaki; txapeldun nor izan. Urnieta'ko Agita, nagusi; Itziar'ko Endañeta, bigarren; Astigarraga'ko Artola, irugarren. Alkarrentzat modukoak irurak. Alde txikiak batetik bestera. Berrogeitamabi kilo belarrena izan da lenengotik bigarreneko alde; eun kilorena kendu dio bigarrenak irugarrenari. Bertso batzuk merezi dituzte.

1/ Ernani'n gustatu da  
iruron jokera,  
iñork ez gelditu nai  
salletan atzera.  
Danok saia zerate  
gogor egitera,  
etzan alde aundirik  
batetik bestera.

2/ Ordubeteko saio  
gogor da latzean,  
orko belar pilloak  
sortak egitean!  
Agita gaur txapeldun  
iruron artean,  
baña itziartarra  
etzan apartean.

3/ Orko sega mordoia,  
orko eskubare,  
lenbiziko bi oiek  
berdintsuak daude.  
Berrogei kilo pasa  
ziran danak ere,  
bear dala uste det  
orrenbeste alde.

4/ Artola ere ona  
zuen arterako,  
egin du orrek ere  
alegiña pranko.  
Iruron lana erruz  
gustatu dalako,  
ondo geldi zerate  
beste baterako.

*Aranzazu, 1962-VII eta VIII.*

## ITXASOAREN ASARREAK

Kantauri gureak eztitu nolanaiko asarrealdiak izaten. Guk nai baño sarriagotan izan ere, ta, alakorik danean, bereak eta bi egin gabe ezta gelditzen. Azaroaren 18'garren egunean, Pasaitik zortzi millako bidera, «De Jesús» izeneko itxas-ontzia irentsi zuen, barrenen zeramazkien amabi gizonekin. Zenbat olako eraso zakar urteen buruan!

- 1/ Amabi gizon itxas gañean lanean pin zebiltzala, ekaitzaldiak errabi biziz ezkutatu bereala. Ikusiz ainbat famili beltzez ta lutoz jazten dirala, alare sarri esaten degu arraia garesti dala.
- 2/ Pentsatzen ondo jarri ezker oiek eriotz tristeak! Nolatan eztu penik emango bizia ola uzteak? Oso sarritan ditu okerrak batak ezpada besteak, arrantzalien txanpon bakarrak ezтира gutxi kosteak.
- 3/ Arrantzalien irabaziak galanki arrixkaturik, itxas gañean ezpaitaukate ordutxo bat segururik. Arraia garesti dagola ta or gabiltz asarreturik, bizi bat pagatzeko eztago mundu onetan dirurik.
- 4/ Oien arrosak ezтира gero arantz gogorrik gabeak, pezeta batzuk eduki arren ondo kostata gordeak. Gu berriz sarri mar-mar bizian nolabait jardun zaleak, esker ohea merezi dute emengo arrantzaleak.
- 5/ Zenbat euskaldun galdu ote da zorigaitzez itxasoan, naiz eta ori asko ez pentsa ontzia artzerakoan? Arrantzalea biziarekin ibiltzen dala jokoan, auxe gogora dezagun beti arraia jaterakoan.

*Aranzazu, 1963-I.*



(1963)  
**SAN FERMIÑAK**

Jendea erruz, noski, Iruña aldean. Entzierrotako batean kristau odola ixuri. Bi mutil gazte zezenak adarkatuak eta oso gaizki geldituak.

- 1/ Ara zer diran iñoiz gertatzen diranak, zezen indartsu oiek egindako lanak. Oiengana juteko gaztien apanak, ederki pagatzen du deskuidatzen danak.
- 2/ Sarritan izaten da zerbait nobedade, familiak utziaz negarraren mende. Nola ibili leiken pentsatuaz gaude, bizia arrixkatzen motiborik gabe.
- 3/ Zezenaren aurrera erdi zoraturik, beren sasoi ederra ezin domaturik. Trago batzuk eginda barrena pizturik, gazteak ez ikusten nunbait arrixkurik.
- 4/ Kolpe zakarrak eta eriotz tristeak, batzuk bezela gerta ditezke besteak. Nola penik eman ez ori ikusteak? Beste moduz jolastu ditezke gazteak.
- 5/ Aruntz juten bazera biar edo etzi, zer arrixku daukazun pentsa lendabizi. Zezenari al bada bere kasa utzi, animala oiekin berriketa gutxi.
- 6/ Zentzunik etzazula anketara bota, buruz jokatuarren naiko lan dago-ta. Burrukan egin gabe zezenaren kontra, zenbat urte dauzkagu geienera jota?

*Zeruko Argia, 1963-VII-21.  
Laugarren txinpartak, Auspoa 55, 1966.*

## NAPARROAKO ANAI BERTSOLARIEI

1963'ngo Azaroaren 17'an Iruñe'ko Teatro Gayarre'n Naparroako Bertsolari-Txapelketa ospatu zan.

1/ Besarkada bat biali nai det  
Naparru'ko anaitara,  
illunpe beltza alde bat utziz  
irten dira argitara.  
Lenago aintzat artzen etzana  
teatro ederretara,  
bertsolaritza orain igo da  
merezi zuen mallara.

2/ Ene Naparru maitagarria,  
bide orri gogoz ekiñ,  
etzaitzela erabat aztu  
lengo oitura ederrekiñ.  
Ta zuek, anai bertsolariok,  
al dezuten dana egiñ,  
gure izkuntza berdin gabea  
berriro bizkortu dediñ.

3/ Teatro eder zoragarrian  
gure mintzaira gozoa,  
ate guziak ondo zabalduz  
barruratu da bertsoa.  
Derrior batek izan bear zun  
zuetan aurrenekoa,  
etzaitzela batere estutu,  
ori da gutxiñekoa!

4/ Gure izkuntza mendietara  
uxatua zegon lendik,  
ito etzediñ aldegin zuen  
erri aundien barrendik.  
O, Naparruko bertsolariak,  
txalo jotzen ditzutet nik,  
zuek azaldu dezute ondo  
bizi gerala oraindik.

*Zeruko Argia, 1963-XI-24.  
Laugarren Txinpartak, Auspoa 55, 1966.*

## SOKATIRA TXAPELKETA

Sokatira txapelketa izan zan Tolosa'ko zezen plazan. Oiartzun'go kuadrilla gelditu zan Gipuzkoa'ko nagusi.

- 1/ Ernio'tikan entzun zitezken  
Tolosa'ko deadarrak,  
irabazteko derrior zeuden  
lan latzak egin bearrak.  
An ainbat erritako gizonak  
neurtu zituzten indarrak,  
txarrik iñor ez izanagatik  
onenak oiartzuarrak.
- 2/ Edozeñentzat ezta egiten  
era ortako traturik,  
besoetako zañak gelditu  
ziran bapo luzaturik.  
Bi ordu pasan begira egon  
giñan danok zoraturik,  
Tolosa'n izandakorik etzan  
penetan etxeraturik.
- 3/ Oiartzuarrak, batanaz beste  
ziran eun da bat kilo,  
alkar ederki artzen zuten da  
etzuten egin beti lo.  
Urtero jarriko da aukera  
ta ezta izango giro,  
gu deika asten geran garaian  
azaldu danok berriro.

*Zeruko Argia, 1964-IV-26.*

## ERREKALDE GAZTEA

Gipuzku'ko lurretan badegu berriro aizkolari gazte, trebe bat. Ezeren okerrik eztula bide asko urratu lezakena, ezpairik gabe.

- 1/ Berriro ere gure Gipuzku'k  
nolako aizkolaria,  
zarrak moteldu zaizkigunean  
ordekotzat etorria.  
Beso ta belaun zaintsuak eta  
zume antzeko gerria,  
makiña batek itxaropena  
badauka zugan jarria.
  
- 2/ Maitasunezko kontseju on bat  
artu zazu gaur nigandik,  
ogeitalau bat urte dituzu,  
ori entzun det zeugandik.  
Tentazioak izango dira  
andik ezpada emendik,  
onenangana ez presaka jun,  
gaztetxo zaude oraindik.

*Zeruko Argia, 1964-VII-12.*

## ANKAMIÑA

1/ Ankamiñ gaitzak gure artean  
sortu dun zorabioa,  
errez etorri, oso nekez jun,  
txarra zabaltzen dijoa.  
Ordu gutxitan galdu lezake  
ukulluko balioa,  
len estu dagon baserritarrak  
orra zer alibioa!

2/ Aspalditxoko urte auetan  
supritzen dute ugari,  
argatik askok agur egiten  
diote baserriari.  
Zenbat ezbear etortzen zaion  
langille umillenari!  
Kukuak oker jotzen baitio  
len larri dabillenari.

3/ Ikusten degu zuen gañera  
zenbat zorigaitz datorren,  
arpegi ematen dakizute  
al dezutenik gogorren.  
Ez etsi beintzat, Jainkoagatik,  
denborak bete baño len,  
eguzki printzak asiko dira  
ekaitzaldien ondoren.

*Zeruko Argia, 1964-VII-12.*

## UDAKO GORABERAK

- 1/ Udan alde bat uzten ditugu  
negu parteko jantziak,  
jantziarekin batera noski  
beste oitura guziak.  
Zenbaitentzako eztira onak  
gaur dauden zer ikusiak,  
gabean aixa gastatzen dira  
egunez irabaziak.
- 2/ Garaiz etxera inguratzeko  
etzaiezula agindu,  
ordubik edo irurak arte  
badute nun atsegindu.  
Lanera junda ezin erantzun,  
nagusia oso mindu;  
gorputzez ondo astuntzen dira  
eta poltxikuz arindu.
- 3/ Gaztea beti odolez bero,  
ortan ezta zer esanik;  
itxutzen danak eztu ikusten  
nun dagon bide zuzenik.  
Udara berez ain ederra ta  
zoragarria izanik,  
neurritz ibiltzen eztakienak  
eztu egingo gauz onik.

*El Diario Vasco, 1964-VII-12.*

## EUSKAL PESTAK?

- 1/ Ordua bada, nere ustetan,  
jendea kontura dediñ,  
bururik gabe jokatzan danak  
gauza onik ezin egiñ.  
Gazte askoren jokabidea  
etzait izaten atsegiñ:  
euskal jazkerak artu soñean  
eta erderaz itzegiñ.
- 2/ Euskaldun eran ibili bear  
euskal pesta egiteko,  
bada garaia pausoa nora  
ematen dan jakiteko.  
Zentzu gabeko buru-ariñik  
iñoiz eztegu maiteko,  
euskal jazkera bearrrik ezta  
erderaz itzegiteko.
- 3/ Abarkak eta bruxa jazteak  
zerbait eskatzen du gero,  
zertako ditu, erderaz ari  
baldin bada bero-bero?  
Batek azaldu bitza gorbata,  
lebita eta sonbrero,  
neretzat ura euskaldunena  
euskeraz egin ezkeru.

*Zeruko Argia*, 1964-VII-19.  
*Laugarren txinpartak*, *Auspoa* 55, 1966.

## «PESTARIK BEAR BADA...»

Liburu bat geiago *Auspoa* bilduman. Jose Bizente Etxegarai'ren bertsoekin ornituta-ko liburu sendo ta mardula. Aurreko donostiarren umore ta alaitasunaren berri jakiteko ezтитеke iturri egokiagorik arkitu. Eztira puntako bertsoak noski liburu ontan arkitzen diranak. Baña erri baten arnasa agertzen digute; atzoko Donosti ezaguterazten digute.

- 1/ Liburu berri, txit atsegin bat  
sortu da, ala bearrez;  
azkeneraño ausnartu gabe  
uztea ezta ain errez.  
Dendan erosten dan gauza ezta,  
jaio egin bear berez...  
Donostiarrak berdintzekorik  
izan ote da umorez?
- 2/ Donostiarrak alaitasuna  
beti dute gogozkoa,  
odoletikan dakarkite ta  
argatik da legezkoa.  
Erri au zer dan ezagutzeko  
artzen badezu asmoa,  
bide oberik eztezu ezer:  
erosi zazu *Auspoa*.
- 3/ Inglesak erre zuten Donosti  
gogoak ala emanda,  
zenbaitek etsi egingo zuen  
gauzak ain oker joanda.  
Lanari ekin zioten gogor,  
ekin bearra zegon da,  
erri berririk ezta egiten  
beti negarrez egonda.

*Zeruko Argia*, 1964-VII-19.



## BIDEETAKO KONTUAK

- 1/ Bideak bete dira  
zearo goi ta be,  
etxetik aterako  
ezpafiña obe.  
Bazterretan ainbeste  
asta-kerten daude,  
eztago ibiltzerik  
arrixkurik gabe.
- 2/ Presaren presaz askok  
or artzen dute su,  
beste batzuk geiegi  
edanda dauzkatzu.  
Asta-kerten oker bat  
gertatzen bazaizu,  
zeu zuzen ibiltzeak  
zer balio dizu?
- 3/ Neskak bat alboan  
jarria neurrira,  
mutilla erdietan  
berari begira.  
Esku bat bolantera  
bestea gerrira,  
orrelakoak ere  
gaur ugari dira.
- 4/ Gazteak diralako  
ariñ eta alai,  
esan leike zartzerik  
ez ote duten nai.  
Nai ta ez oker asko  
gerta bear nunai,  
beurak arrixkuan da  
besteok ere bai.
- 5/ Ill eta zaurituak  
or daude pilletan,  
negarra pranko bada  
gaur familietan.  
Kontu berdiña dago  
alde guzietan,  
gerran baño geiago  
galtzen da bidetan.
- 6/ Eziñ asi diteke  
oñez edo zaldiz,  
pobrentxoek ere  
katxarrota gabiltz.  
Pentsatzen egoten naiz  
amaikatxo aldiz:  
Urbia'ko artzaiak  
lasaiago dabilz.
- 7/ Aurreratuak gaude  
gure kalterako,  
eriotzaren billa  
geu gabiltzalako.  
Gaitz bat agertu zaigu  
mundu danerako,  
zoro geiegi gaude  
gauza onerako.

*Zeruko Argia, 1964-VIII-2.  
Laugarren txinpartak, Auspoa 55, 1966.*

## ITURRIOTZ'KO SEGA-APUSTUA

1964'ngo Agorraren 27'an sega-apus-tua izan zan Iturriotz'ko barrutian. Amabi milla euskaldunetik gora bildu ziran. Zarautz'ko Zulaika ta Aburuza oiartzuarra ziran segalariak. Ordu biko lanean bururik jaso gabe aritu ziran. Denborak bukatu ziranean, amabi kiloren aldea besterik ez batetik bestera. Zulaika'k: 8.744 kilo ta erdi belar ebaki zituen; Aburuza'k 8.732 kilo ta erdi.

Biaramonen Donosti'ko erradiotik segalari bien gorantzan kantatu nituen iru bertsoak dijoazkitzute. Iparragirre'ren bozean antolatuak daude:

- 1/ Ainbeste milla persona giñan  
arreta biziz egonak,  
aitamen paltik eztu izango  
egin dezuten lan onak.  
Zulaika ta Aburuza,  
esku zar oiek luza,  
zuek zerate gizonak!  
Erradio onen bitartez artu  
biok nere zorionak

- 2/ Bururik jaso gabetandik an  
bi ordu luze lanean,  
amabi kilo belar xixtriñen  
aldea zan azkenean.  
Guk ikusitakoa  
ezta sinistekoa,  
Jainkoaren izenean,  
biok gelditu zerate atzo  
mallarik altuenean.

- 3/ A zer billera zoragarria  
gendun atzo Gipuzkoan,  
amabi milla euskaldun jator  
bildurik mendi kaskoan!  
Segalari maiteak,  
almen aundiz beteak,  
segi bide legezkoan,  
Jaun Zerukoa, gorde itzazu  
biak urte on askoan.

*Zeruko Argia, 1964-X-11.  
Laugarren txinpartak, Auspoa 55, 1966.*

## BERTSOLARI EGUNA

Txistulari, musikalari, abeslari ta gantzeakoak, urtean egun jakin bat izaten dute alkarganatzeko ta aundikiro ospatzeko. Opizioetako jendeak ere bai. Anaitasun kateak estutzeko ezta biderik txarre-na.

Markiña'ko Aita Karmeldarrak, oraintxe urte bi, gai ontan bertsolariak umezurtz ote zeuden konturatu ziran. Ikusi egin zuten utsunea nun zegoen. Babesa ta estalpea eskeñi zuten; konbentuko barrunbe zabala euskal bertsolarien esku utzi zuten.

Askotxok ez genduen izan Aita Karmeldarren deiari erantzuterik. An da emen, Euskalerrri zear, kantu eginkizuna bete bearrean gertatu giñan. Aurrez emandako itza jateari gaizki iritzi genion, eta Markiña'ra inguratzerik ez genduen izan.

Aurtengoa besterik izan da. Aita Juaristi agurgarriak aurrez egin zituen egitekoak; garaiz egin zitzaaien deia bertsolariari. Ala, urriaren 18'garren egunean, Gipuzku ta Bizkai'ko bertsolariak alkar besarkatzeko era zoragarria izan zuten.

Eguardiko meza bukatu zalarik, Aita Akesolo'k itzaldi mamitsu bat egin zuen. Orain berreun urte Euskalerrrian zer bertsolari giro zegoen agertu zigun. Iztueta'k bere liburuetan ematen dituen argibide asko entzunerazi zituen.

Ona emen Markiña'n bildutako bertsolari errenkada: Domingo Garmendia, Berrobi'koa; Bitor Agirre, Legazpi'koa; Inozenzio Olea, Legazpi'koa; Prudentzio Egiguren «Artañola», Errezil'koa; Domingo Iriondo, Eibar'koa; Jexux Alberdi «Egileor», Osintxu'koa; Imanol Lazkano, Azpeiti'koa; Juan Ibarzabal, Markiña'koa; Balentin Enbeita, Muxika'koa; Felix Ortuzar, Gernika'koa; Basilio Pujana, Bilbao'koa; Deunoro Sardui, Genika'koa; Anastasio Egia, Markiña'koa; Joxe Mari Gabilondo, Antzuola'koa; Yon Lopategi, Gernika'koa; Joseba Arregi, Berriatu'koa; Juan Mugartegi, Berriatu'koa; ta lerro auen antolatzailea.

Beste bertsolari mordoxka bat katigu gertatu zan; erri batean da bestean kantatu bearrean.

Erabaki bat artu zan Markiña'n. Aurrerantzean Bertsolari Eguna Pilareko Ama Birjiñaren egunean ospatzea. Orduan ezpaita iñorako deirik izaten; eta aske, libre arkitzen baitira bertsolari guziak.

Konturatuko zerate, irakurle maiteok, zein bazkalondo alaia izango zan Markiña'koa. Nik ezagutzen enituen bertsolari gazteak askotxo ziran. Urtean beingo billera au onurakor izango zaigu alkar gei-ago ezagutzeko eta gei-ago maitatzeko; bata bestearenganako artu-emanak sendotzeko. Famili zoragarri bat osatzen degu euskaldun bertsolariok. Zimendu sendo ta

gogor batzuk ezarri dezaizkiogun famili  
oni, iñongo ekaitzaldiak ondatu ta des-  
egindu eztezatzen.

- 1/ Urtean beingo billera onek  
berekin du milla grazi,  
guziok alkar ezagutzea,  
ori degu lendabizi.  
Ta maitasuna izan dedilla  
danon buru ta nagusi,  
bestela lur gain onetan eztu  
bizi izateak merezi.
- 2/ Al dan artean alai ditzagun  
Euskalerriko txokoak,  
nortasun auxe eman baitigu  
zeruetako Jainkoak.  
Bertsolariok izan gaitezen  
anai on, benetakoak,  
iñoiz ez beza tokirik artu  
inbiri ta gorrotoak.
- 3/ Zorionean, oraindik ere  
badegu zeñek entzuna,  
arnasik degun artean bete  
dezagun eginkizuna.  
Anai maiteok, au da guk beti  
gogoan bear deguna:  
Jaungoikoari zor diogula  
daukagun argitasuna.

- 4/ Gure famili zoragarrira  
kimu berri asko betoz,  
urtez aurrera goazenori  
orrek ematen digu poz.  
Ta gerorako utzi gabe gaur  
dei egiten zaizu gogoz,  
ezteazula utsikan egin  
Ama Birjin Pilarekoz.
- 5/ Aita Karmeldar Markiñakoak,  
guzizko borondatean,  
konbentu dana an jarri zuten  
bertsolarien menpean.  
Poz ematen du laguntzalleak  
ain ugari diranean,  
*Zeruko Argia*'tik eskerrak  
beste danen izenean.

*Zeruko Argia*, 1964-XI-1.

## LATASA SUNBILLATARRA

Jendeak bazeukan Latasa bere onera etorria ote zegoen jakiteko zaletasuna. Abenduaren 20'garren egunean erabakitzeko joko bat baitauka egiña. Polipaso ernaniarra izango du kontrarioa, ogei kanaerdiko nork lenago ebaki.

Lengoan, Tolosa'n, azaletatik aritu zan lanean Latasa; barrenak Gartziarena'ren gain izan ziran. Ta Latasa, bein bear da, asko gustatu zan Tolosa'n. Txalo zaparrada beroak jaso zituen. Aren jeikia, aren jarduna ta aren eman bearra!

- 1/ Azaletatik Latasa zan da Gartziarena barrendik, jendeak etzun begirik kendu sunbillatarrarengandik. Erdi illean len egon bazan etzun ezagun inondik, jendea kontuz ibili leike, gogorra dago oraindik.

- 2/ Nekatzen danik ere Latasa'k eztirudi alajaña, lenago ere makiña bati artu izan dio gaña. Gorputzez aundi ezpada ere bai aizkolari bikaña, gizonak estu artuko ditu, motordun zerrak ez baña.
- 3/ Gipuzkoarra eztago berriz orri obeditu naian, irabaztunak derrior dauka gelditu bearra goian. Polipaso au orain baitago berebiziko sasoian, komeri latzak izango dira abenduaren ogeian.

*Zeruko Argia, 1964-XI-8.*

## DUNIXI ZANAREN OMENEZ<sup>1</sup>

1/ Idazle goxo, txukun, landua  
ta pintatzalle ernea,  
Jaunak deiturik bukatu zaizu  
mundu ontako uea.  
Gorputz, anima, zu bai ziñala  
egizko euskal semea,  
betetzen ezta oso erreza  
utzi dezun utsunea.

2/ Zenbat alegin egin zenitun  
lur maitearen gorantzan!  
Ai, ai, *Dunixi* bat gure artean  
oso bearrezkoa zan.  
Zuk egindako ona ez leike  
iru-lau bertsoan esan,  
zuri eskerrak dakigu danok  
lengo Donostia zer zan.

3/ Liburu zoragarri bateri  
zenion arnas emana,  
bertan bildu ta mamitu zendun  
Donosti'ren kutsu dana.  
*Dunixi* maite, zeu joanagatik  
goiko Nagusiangana,  
ordañez emen gelditzen zaigu  
zuk egin zenduen lana.

4/ Zugaitzetako ostu igarrak  
lurrera udazkenean,  
gu ere orbel biurtzen gera  
gutxien uste danean.  
Bereganatu zindun Jainkoak  
ordua bete zanean,  
maixu maitea, zaude goxoki  
betiko atsedenean.

*Zeruko Argia*, 1964-XI-8.

---

1. D. de Azcue idazlea, garai bateko Donosti zarrari buruz *Mi pueblo ayer* izeneko liburuaren egilea.

## EDERKI KOSTATA!

- 1/ Dana egiña, uste du askok kanpoetara joanikan, txarra probatu arte eztegu aintzakoz artzen onikan. Edozeñentzat ezta egiten modu ortako lanikan, ez gero pentsa ango bizitza txantxetakoa danikan.
- 2/ Ain urrutira ezta joan bear errez ibili uste-ta, bizimoduak berekin ditu aldapak eta nasketa. Diru pixka bat egingo dute, arritzekoa ezta ta, baña gorriak pasa ondoren eta ederki kostata.
- 3/ Batzuek ondo ikuste ori oso da gauz atsegiña, an eta emen danok eztegu egokiera berdiña. Egi biurtzen zaill izaten da aurretik amets egiña, makiña bati damutu zaio lur ontatik aldegiña.
- 4/ Intxaur beteak arki ustetan zenbat or naigabetuak, arpegi beltzez ikusten dira erabat asarretuak. Denbora joanda alperrik dira negarrak eta lantuak pauso luzerik eman baño len ondo atera kontuak.
- 5/ Zenbaiten diru mordoxkak dira izerdi asko kosteak, etorri nai ta ontziarentzat osa eziñik besteak. Aurretik jakin guzia ondo, o biotzeko gazteak, eztu balio Euskalerria edozein moduz uzteak.

*Zeruko Argia, 1964-XI-22.  
Laugarren Txinpartak, Auspoa 55, 1966.*

## LAZKAO-TXIKI

1964'garren urteko Abenduaren amai-rugarren eguna da. Gipuzkoa'ko Bertsolari-Txapelketa jokatu da Tolosa'n. Jose Migel Iztueta «Lazkao-Txiki» izendatu dute buru ta nagusi. Onako bertso auek eskeñi nizkion. Urteberri-egunean, Euskalerrri guziko Bertsolari-Txapelketa jokatu zan Donosti'n. Lazkao-Txiki bigarren gelditu zan, Uztapide txapeldun.

1/ Bertsoa zuzen artzen dakizu  
sustraatik edo oñetik,  
bukatu arte, al dan guzian  
segiz bide berdiñetik.  
Alako kantu goxoak irten  
ziran zure mingañetik,  
zerbaitegatik gelditu ziñan  
beste guzien gañetik.


2/ Zure izena or gelditu da  
merezi zuen lekuan,  
lagunak eta adiskideak  
pozik ziran inguruan.  
Zu bezelako baten bearra  
aspaldian bazeguan,  
izarrik argiena zu zera  
gaur Goierriko zeruan.

3/ Gu bizi geran lur santu ontan  
badago gaia ugari,  
zer itzegiña nunai sortzen da,  
au ezpaldin bada ori.  
Nik eskari bat egingo diot  
Goierriko izarrari:  
arnas-biderik dezun artean  
kanta Euskalerrriari.

4/ Ordua eldu zan garai artan  
zuk bai gizonki erantzun,  
ezti-kutsuzko zure bertsoak  
jendeak pozkiro entzun.  
Nere zorion beroenak nik  
bertsoz eman nai nizkitzun  
ta badakizu, Joxe Migel, zuk  
lagun jator bat nun dezun.

*Zeruko Argia, 1964-XII-27.  
Sortu zaizkidanak, Auspoa 112, 1973.*





Irratiko izlariak. Eserita ezkerretik: Manuel Oñatibia, María Dolores Agirre, Enrike Zurutuza. Zutik ezkerretik: Jose M.<sup>o</sup> Etxebeste, Basarri, eta Jose Luis Rodriguez, publizitate arduraduna.

## «HERRIA» ASTEKARIA

«Herria» astakariak bere ogeigarren urtea bete zuanean.

- 1/ Agurtzen degu mugaz aruzko euskaldun astekaria, opa diogu izan dezala arnasbide ugaria. Ogei urtera iritxi zera, ori berri pozgarria! Lanik txarrenak egin dituzu, aurrera beti, «Herria»!
- 2/ Ogei urtean une txar asko pasa bearke zenduten, alare jakin dezute zuek noiznai gizon erantzuten. Danen gogoia betetze ori a zer lan txarra dezuten! Etzuen bete Jesusek ere ta gurutzean il zuten.
- 3/ Noizik eta bein kankatekoak sentituarren buruan, kokildu gabe iraun dezala bakoitzak bere lekuan. Asmo zuzenez ekin lanari orain arteko moduan, esker oneko euskaldun asko dago oraindik munduan.
- 4/ Geldi-unerik ez beza izan bein asi zenduten lanak, denbora onak eta ekaitzak guretzako daude danak. Asko baitira ezertxorekin kontentatzen ez tiranak, arantzak beti arkitzen ditu arros billa dijoanak.
- 5/ Ez begiratu eskubira ta ez begira ezkerrera, ori dala-ta gure izkuntza ez uxatu bazterrera. Gizatasunez jokatu beti guraso zarren legera, egizko euskal sukaldetan zuk izango dezu sarrera.

*Zeruko Argia, 1964-XII-20.  
Laugarren Txinpartak, Auspoa 55, 1966.*

## URTE BERRIA BADATOR!

(1965'ngo urtearen sarreran)

- 1/ Denborak beti aurrera gogoz,  
iñoiz egin gabe opor,  
urteak berriz bizkar gañean  
osa dituzte lau tontor.  
Lenengo zarra agurtu zagun  
errespetuz eta jator,  
o, irakurle biotzekoak,  
Urte Berria badator!
- 2/ Beste urte bat geiago bada  
itzalia edo illa,  
orren aurretik joanak badira  
nik eztakit zenbat milla.  
Etenik gabe dabill gizona  
zorion betean billa,  
len pasatako guziak baño  
obea izan dedilla.
- 3/ Zure zai geunden itxaropentsu,  
amets gozotan beterik,  
ez genduke nai ala egona  
gero pena izaterik.  
O, Urteberri, ez ekarri zuk  
iñorentzako kalterik,  
asmo oneko gizon artean  
ez bedi falta pakerik.
- 4/ Lanari ekin trebe ta sendo,  
euskaldun maite zintzoa,  
bakoitzak egin bearra dauka  
al duen alegintxoia.  
Urte oneri buka baño len  
jarrita daukan plazoa,  
ea pixka bat xuxperten degun  
gure izkuntza gaxoa.
- 5/ O, Urteberri, azaldu zait  
egizko gure laguna,  
alperrikako izan eztedin  
bakarka batzun jarduna.  
Ezta zillarra edo urrea  
guk eskatzen dizuguna,  
euskera degu oraingoz kezka  
geien ematen diguna.

*Zeruko Argia, 1964-XII-27.  
Laugarren Txinpartak, Auspoa 55, 1966.*

## «ZERUKO ARGIA» ASTEKARIARI

(Astekari onen eungarren zenbakian)

- 1/ Zure argiak diztiratzen du  
lendik illun zegoena,  
ale bakarka asi ziñan da  
auxe dezu eungarrena.  
Gogorki zoaz bide urratzen  
Euskalerrian barrena,  
pasa dezula esango nuke  
aldaparikan txarrena.
- 2/ Guk nai genduken edertasunik  
ezin osatu sekula,  
orretarako sinistu danok  
lagundu bear degula.  
Nik ondo dakit oraindik ere  
akats askotxo dezula,  
seguru nago denborarekin  
zuzenduko dituzula.
- 3/ Zuri eskerrak moldezko letran  
or dabill gure izkera,  
zabaltzen ere gogor ari da  
etxe batetik bestera.  
Asieratik agertuarren  
lotsati ta buruzpera,  
sendotzen eta bikaintzen zoaz  
orain astetik astera.
- 4/ Asieratik, askok bezela,  
lan egin zendun galeran,  
oraindik ere, zoritxarrean,  
bajutxo zaude aukeran.  
Bein zabaldu ta ezagutzean  
zuk merezi dezun eran,  
gure Jainkoak bakarrik daki  
nora iritxiko zeran.
- 5/ Zure moduko asteroko bat  
bear gendun lur onetan,  
gure izkuntza tokirik gabe  
gaizki zegoen benetan.  
Argi egiten saia zaitte zu  
al dezun etxe danetan,  
illunzaleak diranak geldi  
ditezela illunpetan.
- 6/ Euskaldun maite, ikus nai zaitut  
zeruko argiz jantzia,  
ango Jabeak eman bekigu  
premiszko degun grazia.  
Itz laburretan agertzen dizut  
opa dizudan guzia,  
gure lurrean izan zazula  
gizalditako bizia.

*Zeruko Argia*, 1965-I-24.  
*Laugarren txinpartak*, *Auspoa* 55, 1966.

## GEZALTZA'KO AITONA ZANARI

- 1/ Agur dagizu, jauna,  
gaur bertsolariak,  
azken tanta eman du  
zure iturriak.  
Betiko ezpaigera  
onuntz etorriak,  
eriotzak ebaki  
bizitz-lokarriak,  
asko naigabetu nau  
zure ill-berriak.
- 2/ Zuk goraltzen zenduna  
bizimodu latza,  
aurreko gurasoak  
zeruraño altza.  
Gaurko gaztediantzat  
naikoa garratza,  
pentsatua esaten  
bazenduen gatza:  
zuriari zuria  
ta beltzari beltza.
- 3/ Sarri begiratzen det  
nik zure lanetan,  
garbi asko baitaude  
moldezko letretan.  
Ainbat bertso egiña  
zu azken urtetan,  
batzuk gertatuarren  
geronen kaltetan,  
egi galantak ere  
badaude tartetan.
- 4/ Sarri agertzen ziñan  
mikatz eta gazi,  
bazterrak astintzeko  
bazenduen grazi.  
Euskaldun jaio ziñan,  
beti ala bizi,  
euseraz aldendua  
emendik igesi,  
zugandik badaukagu  
ortan zer ikasi.
- 5/ Gizon osoa ziñan  
ta ez gizon laurden,  
egiak esateko  
beti gertu zeunden.  
Ortarako bazendun  
koraje ta kemen.  
neke gogorra pranko  
artua zu emen,  
izan zazula orain  
betiko atsedan.

*Zeruko Argia*, 1965-IV-18.  
*Laugarren txinpartak*, *Auspoa* 55, 1966.

## PERIAK ASI DIRA

- 1/ Gaitz gogor bat sartu zan  
gure barrutira,  
kalteak egin ditu  
ezker-eskubira.  
Gizon utsak zebiltzan  
peri aitzekira,  
berriro ganaduak  
agertuak dira.
  
- 2/ Egarriz dagon batek  
edatea obe,  
etxea miatzen du  
aguro goi ta be.  
Botill utsak ematen  
dio atsekabe,  
peria berdintsu da  
ganadurik gabe.
  
- 3/ Legea bete danok  
errespetu aundiz,  
ondata ez gaitezen  
geure zabarkeriz.  
Norbere aldera ez  
asi arrokeriz,  
bestela lengo gaitza  
emen degu berriz.
  
- 4/ Kutsua berekin du  
sarritan zikiñak,  
zintzo bete ditzagun  
geure zer egiñak.  
Kontzientziz jokatzan  
egin alegiñak,  
indar artu eztezan  
berriz ankamiñak.

*Zeruko Argia, 1965-IV-25.*

## OTAÑO'RI OMENALDIA

- 1/ Maixuaren izena  
indartsu zebillen,  
bide asko urratu  
baizitun arek len.  
Jakin bear dezute  
guziok lenbailen:  
jai aundiak ditugu  
laister Zizurkill'en.
  
- 2/ Bertsozale zintzoak  
Zizurkill'a bildu,  
gaiñ amesgarri arek  
ainbeste grazi du!  
Otaño'ren izenik  
ez leike ixildu,  
iñor aitatzekero  
artxek merezi du.
  
- 3/ Maixu aren bearra  
lur ontan izan da,  
beste guzietatik  
nabarmendu zan da.  
Omenaldia noiz dan  
obe det esanda:  
maiatzeko illaren  
bederatztian da.
  
- 4/ Aukera eder ori  
etzazula galdu,  
esker ona biotzak  
agertu bear du.  
Esandako egunez  
zu zintzo azaldu,  
an ikusiko gera  
Jainkoak nai badu.

*Zeruko Argia, 1965-IV-25.*

## MONDRAGONES ZANARI

Euskalerra guziak dakiana, Mondragones iñoiz izan dan pelotaririk onenetako bat genduan. Juan Bautista Azkarate zeritzan. Mondragoe'n jaio zan, 1891-VII-24'an. 1917 urtean irabazi zuan txapela, ta bai gorde ere amar urtean, Atano Irugarrenarekin galdu zuan arte. 1965-IV-11'an utzi zuan mundu au.

1/ Berri txar bat zabaldu  
aiñ indar aundiko  
illundu gaitu danok  
kale ta mendiko.  
Lagun zarra eztegu  
berriz ikusiko,  
Mondragones aundia  
joan zaigu betiko.

2/ Urte askoz izana  
plazetan errege,  
zure sasoia nola  
ezkutuan gorde?  
Juan Bautista, etsiko  
al degu zu gabe?  
Pelotazale danok  
luto beltzez gaude.

3/ Jotzalle gogorra zu  
beñ emen da beñ an,  
indarrak errendituz  
nai zendun tamañan.  
Zuri begira sarri  
zoratuak giñan,  
on asko dira baña  
zu aparta ziñan.

4/ Plazan agertzen ziñan  
lerden eta eder,  
bapo zaitzen zenitun  
zabal eta bazter.  
Zu pelotan ikustez  
ezin zeiken asper,  
berdiñ berdiñak ziñun  
eskubi ta ezker.

5/ Onenak jartzen ziran  
beti zure kontra,  
bestela burutzerik  
etzan izango ta.  
Sei kuadrota artuta  
bertaraño bota,  
ala ibiltzen zan zuk  
jotako pelota.

6/ Beldurgarriak ziran  
zure erasoak,  
zutik txalotzen ziñun  
jendetza osoak.  
Ematen zenitunak  
zer pelotazoak!  
Arraun bi ziruditen  
zure bi besoak.

7/ Iñoiz etzenduen zuk  
eskutako miñik,  
zugandik etzegoen  
kolpe txar ariñik.  
Kontrarioak beti  
ler gaizto egiñik,  
atzeko pelotarik  
eraman eziñik.



- 8/ Argi diztiratsu zu  
izarren antzera,  
eriotza eztator  
dana itzaltzera.  
Gorputza sartuarren  
lur azpi otzera,  
pelotarik dan arte  
zu biziko zera.
- 9/ Bazeundeke gustora  
egindako lanez,  
etzera zu aztuko  
itxura dagonez.  
Arro gaude zuk utzi  
dezun izen onez,  
gizalditan entzungo  
baita Mondragones.
- 10/ Adiskide maitea,  
zuk ordua bete,  
agur, lagun Bautista,  
agur, Azkarate.  
Ainbat neke artua  
emen ziñan arte,  
betikotasunean  
atsedendu zaita.
- 11/ Plazetan zun guzia  
zintzoki emana,  
maltzurkeriz gordean  
ibiltzen etzana.  
Eskari au datorkit  
orain zuengana,  
erreza zaiozute  
aita gure bana.
- 12/ Garai batez pelota  
aretxek errez jo,  
mugaren bi aldetan  
zan danen gogozko.  
Pelotak artu dezan  
indar egitazko,  
ai sortuko balira  
Mondragones asko!

*Zeruko Argia, 1965-IV-25.  
Laugarren txinpartak, Auspoa 55, 1966.*

## BEREKOETXEA TA POLIPASO

Garagarrillaren 13'an, San Antonio egunez, jokatu ziran Tolosa'n Berekoetxea ta Polipaso. Egun bi aurretik, ostiral gabez, Donosti'ko *Radio Guipúzcoa*'tik, onoko lau bertso auk kantatu genizkien:

1/ Kantari nator orain  
pixkat zuengana,  
etzi badaukazute  
biok naiko lana.  
Egunaren izena  
lendikan emana,  
urreratu zaizute  
len urruti zana.

2/ Jokoak berekin du  
milla buruauste,  
norbait geldituko da  
burumakur, triste.  
Fama izan zazute  
merezi ainbeste,  
jendea pozik uzten  
saiatu zaitezte.

3/ Gero jasotzezkeru  
danen goralmenak,  
erakutsi ditzala  
nork bere almenak.  
Auxe desio degu  
ontako gaudenak:  
irabazi dezala  
biotan onenak.

4/ Etzaizute paltako,  
ez, estuasunik,  
plazako «aupa!» otsak  
indartsu entzunik.  
Batek galdu bear du  
tema bik izanik,  
lana egin ezkeru  
ezta zer esanik.

Zintzo bete zituzten gure kontsejuak nola batek ala besteak. Zituzten eta etzituzten guziak eman zituzten. Asko kostata, estu ta larri, baña onenak irabazi zuan: Berekoetxea gorritiarrak.

Lan aundi, traketsa ta urte sasoi txarra. Eguzkiak beste indar bat izan balu, norbait itotzea etzan arrigarri izango. Lenengotik geiegi jo zun gorritiarrak. Ori dala-ta, azken txarra eman zion lanari. Askatua, lertua, desegiña gelditu zan; balantzak menderatua, zutik egon eziñik...

Deporte gogorrik eta neketsurik bada, aizkora dezute bat. Udaberri, negu edo udazkenean egin ditezke neurketa latz auk. Udara sarreran ez, iñolako moduz. Gizonaren biziak ondotoz geiago balio du. Lan astun, ikaragarria batetik, eta arkitutako egurrik baldarren eta egosgogorrenak bestetik. Ikusi eta probatu egin bear ziran Polipaso'ren zortzi enborrak!

Biaramonean, euskal irratsaioan, ikusitakoaren berri zabal eta oparo eman gendun. Tolosa'ko neurketa arrigarriaren

goraberak ondo dakizkizute. Orduan kantatutako iru bertso ez letozke ain gaizki:

- 1/ Azkenerako ler egin zuten,  
askatu ziran zearo,  
eta begira ez genitun guk  
une ederrak igaro.  
Klase ortako lan zakarrean  
berriketarik eztago,  
kristauak ezin eska lezake  
egin zan baño geiago.
- 2/ Nai dan guzian ezta izaten  
aizkorarako girorik,  
jo ta jo gogor ari dan batek  
ezpaitu bear berorik.  
Itota ñor ikusteko guk  
ezpaitaukagu gogorik,  
uda partean ezta komeni  
modu ortako jokorik.

- 3/ Trantze estuak izan zitun, bai,  
jaunak, atzoko jokoak,  
nai dan guzian ezin ikusi  
ditezke orrelakoak.  
Lanak lenago bukatu arren  
pixkatez Gorritikoak,  
biok zerate, arranek ezik,  
alkarrentzat modukoak!

*Zeruko Argia, 1965-VI-27.*

## INAZIO DONEAREN EGUNA ZEUTA'N

Inazio Donearen eguna aundiki ospatu dute Zeuta'ko euskaldunak, urteroko oiturari jarraituaz. Ala moduzko artzaia dute, izan ere. Pedro Azkoitia jauna bizi arte, ez tira umezurtz geldituko. Urrustil'go seme jator onek berekin darama Euskalerrria, berekin euskera, berekin oiturak eta gañontzeko osagarriak. Azkoitia jauna, soldadutza Zeuta'n bete bearrean gertatu diran ainbat eta ainbat euskaldun mutil gaztentzat bigarren aita izan da. Zenbat esku luzatze, zenbat babes eskeintze!

- 1/ Karidadea egiñaz beti  
biotz dana zabaldurik,  
zure laguntzan premiz diranak  
azkar zeureganaturik.  
Artzai ona dan tokian ezta  
gertatzen ardi galdurik,  
inoiz eztezu izango, Pedro,  
on egindako damurik.
- 2/ Zeuta'n bizitu arren zaude zu  
asko baño urreago,  
gizon bateri ezin eskatu  
ortik aurrera geiago.  
Zure lanari txalo beroak  
jotzen beti emen nago,  
euskaldun on bat dagon tokian  
Euskalerrria an dago.
- 3/ Urte guzitan San Inazioz  
jartzen zerate billeran,  
mugarik eztun alaitasun bat  
azalduaz ibilleran.  
Txistu ta dantza, kantu ta bertso,  
danetik nai dan aukeran,  
zuk erakutsi dezu or ere  
gu euskaldunok nor geran.
- 4/ Bizimoduak zauzka zu, Pedro,  
oso urrutiratuta,  
jaino giñanok milla modutan  
jokatu bear degu ta.  
Munduan ainbat milla euskaldun  
daude sakabanatuta,  
zenbat on egin lezatekean  
zu ispillutzat artuta!
- 5/ Lengoan kartaz esaten zendun,  
euskerik xamurrenean,  
gero atsedean artu asmotan  
ari ziñala lanean.  
Onuntz etorri nai zendukela  
al bada udazkenean,  
beso zabalka emen gauzkatzu,  
azaldu nai dezunean!

*Zeruko Argia, 1965-IX-5.*

## EGUNA INGURATZEN

Errekalde ta Polipaso'ri ari zaiote eguna inguratzen. Oso urrutiko plazoa ematen zun asiera artan. Eguna izendatu ezkerro, ordea, poliki-poliki beti alderatzen. Urrillaren 31'garrena zan urrutiena. Danoz dakizute lau kanakotara dirala neurtzekoak aizkolari biak.

Nun jokatzekoak diran eztezute jakingo, bear bada. Atotxa'ko futbol zelaia aukeratu dutela esan bear dizutegu. Antxe ikusiko ditugu, aurrez-aurre, Errekalde ta Polipaso, kanako enbor beldurgarrien gainean.

1/ Oso errez da, anai maiteok,  
aitatzea lau kanako,  
gutxik ebaki izan dituzte  
bromakoa ezta lako.  
Gizon bakanak jaiotzen dira  
an modu auetarako,  
korajea ta abildadea  
bear da orretarako.

2/ Illabetetan ortako daude  
erabat oso laztuak,  
ikusi oien petxu ta gerri,  
belaun, beso ta eskuak.  
Egurak orain zer balio dun  
ez gaude gero astuak,  
zazpi erreal kostako dira  
bi gizon oien gastuak.

3/ Atxunberria ta Santa Ageda  
aitatu nai nere itz bik,  
irurogei ta bi urte aundi  
jun dira arrezkerotik.  
Lau kanakoren kargu artzeak  
bere kontuak badizkik,  
lan oietara kristaurik ezta  
emen jokatu geroztik.

4/ Ondo zailduta egongo dira  
zuen aragi giarrak,  
ala eskatzen baitu derrior  
lan astun, trakets, baldarrak.  
Nortanai ere tratu gaiztoa  
zaudete artu bearrak,  
azkenengoa bota orduko  
aulduko dira indarrak.

*Zeruko Argia, 1965-IX-5.*

## «ERREZILL» BERTSOLARIA

Juan Eizmendi, «Errezill» bertsolaria, Errezill'en jaioa zan 1917 urtean. Ortik zetorkion izengoitia. Bañan bere denborarik geiena Lapurdiko Urruña'n egin zuan. Igazko Agorrillan il zan, min biziaz joa, 47 urterekin, Urruña'n. Elisabeth Mocerrea, bertako alabarekin ezkondua zan. Sei seme-alaba utzi ditu. Buztingorri deritzaion etxean bizi zan. Argiña zan ofizioz. Il-berria jakitean, onako bertso auek moldatu nituan, lagun da erritarra nuan bertsolariaren oroimengarri:

- 1/ Egun-urratzez lengo zugaitza mutu ikusten diat nik,  
etzeok lengo «txioka» otsik,  
ez lengo alaitasunik.  
Iñoiz aspertzen ez intzan txori urretxindorra izanik,  
nork uste bear zian aiñ azkar ezkutatuko intzanik?
- 2/ Illun da trixte gelditu gaituk ire lagun on giñanak,  
mutu ta bakar dagon zugaitzez ainbat oroitzen geranak.  
Bukatu dituk ire samiñak,  
ire neke ta lan danak,  
kantatu dituk mundu onetan kantatu bear ziranak.
- 3/ Gure begiak ez aute berriz lur gaiñ ontan ikusiko,  
lengo erara alkar tentatzen ez gaituk emen asiko.  
Gure Jainkoak ez indukan i bazter batera utziko,  
guretzat toki on bat gertu zak biar ezpada etziko.
- 4/ Gure artetik goruntz baziak amaikatxo otoitz ixill,  
gorputzez ezkutatuagatik espirituz urre abill.  
Beti gogoan izango augu,  
i guretzako ez aiz ill;  
Egun Aundia datorren arte agur, lagun zar «Errezill»!

*Zeruko Argia, 1965-X-24.  
Laugarren txinpartak, Auspoa 55, 1966.*

## IPAR-AMERIKA TA TXINA

Viet-Nam aldeko goraberak ez dute onerakorik. Gero ta laño beltzagoak, gero ta arrixku aundiagoa. Norteamerika ta Txina'ren artu-emanak ez dira batere pozgarriak etorkizunari buruz. Itxasoa zakartzen dijoa gogor. Egunen batez ez ote dute urak gañez egingo?

- 1/ Gaxoa sendatzeko botikik  
etzaigu noski sortuko,  
arrazoi-bidez inor ez gera  
geure lekuan sartuko.  
Onez-onean oiek ez dute  
bururikan makurtuko,  
aunditsu ori egunen batez  
ez ote zaigu lertuko?
- 2/ Orain onean ezin leikena  
gero txarrez erabaki,  
bestetarako itxaropenik  
ezin diteke eduki.  
Gaurko armekin gure mundu au  
desegin diteke aurki,  
zer ikusteko gauden oraindik  
gure Jaungoikoak daki.
- 3/ Gaurko jakintsu bizkorrak ere  
buruzpidea daukate,  
ainbeste gastu gogor egiñaz  
gure lurretik aparte.  
Zertan aitatu etenik gabe  
illargia eta Marte?  
Oieri utzi pake-pakean  
mundu au konpondu arte.

*Zeruko Argia, 1965-XI-7.*

## AITA SALBATORE MITXELENA ZANARI

Aita Salvatore Mitxelena frantziskotarra Zarautz'ko Etxebeltz baserrian jaio zan 1919-I-18'an. 1943 urtean egin zan apaiz Arantzazu'ko konbentuan. An eta emen argitaratutako olerkiak ez-ezik, lau euskal liburu eder idatzi zituan: «Arantzazu Euskal Poema» (1949), «Ama-Semeak Arantzazuko Kondairan» (1951), «Arraun ta Amets» (1956), eta «Unamuno ta Abendats» (1956). Ameriketan zenbait urtetan apaiz-lanetan jardun ondoren, Suiza'ra igaro zan, eta bertan il zan, 1965-XII-20'an.

1/ Negu-sarreran berri txar batek mindua du Euskalerrri;  
mantu beltzetan jantzi zaitezte,  
Urbia eta Aitzkorri!

2/ Zuen maitale sutua berriz etzaizute urbilduko,  
zuen altzoan poema-gairik ez du berriro bilduko.

3/ Arantzazu'ko Ama maitea,  
zeu al ziñan aren eske?  
Zure gogoa al zan, biurtu zedilla zerutar gazte?

4/ Lurreko kantu ez tien danak zuri eskeñi dizkizu,  
betikotasun osoan orain kantuz or ariko zaizu.

5/ Euskal baratzak zuen lorerik usaintsuenetakoa,  
negu-sarreran esku on batek goruntz eramandakoa.

6/ Zertan ukatu, Ama maitea,  
utzi digun utsunea?  
Bearrekoa genduan, ustez,  
oraindik zure semea.

7/ Euskalerrriak eta euskerak abe sendo bat galdua,  
Salbatorentzat goiz iritxi da munduko azken ordua.

8/ Maiteak iges egin dio ta alargun gaur Arantzazu,  
il-kanpaiaren jardun geldia belarritan burrundatsu.

9/ Kendu txapela, euskaldun maite,  
toki eman otoitzari,  
galdu deguna Goietan dedin zerutarren bertsolari!

10/ Negu-sarreran berri txar batek mindua du Euskalerrri;  
mantu beltzetan jantzi zaitezte,  
Urbia eta Aitzkorri!

*Zeruko Argia*, 1966-I-2.  
*Laugarren txinpartak*, *Auspoa* 55, 1966.



## EGUN GOGOANGARRIA

Egun gogoangarria 1966'garren urteko martxoaren seigarren eguna!

Donosti'n, Anoeta'ko belodromoan, Euskalerriko zazpi aizkolari bikain eta trebe, aurrean zazpi illera egur zituztela. Amabi milla pertsona ikusle gisara.

Euritsuak aurreko egunak. Igande artan, ordea, denborak ere parte artu nai jaialdi berdingabearen aunditasunean.

Idatziak daude idatzi bearrekoak; esanak daude esatekoak.

«Zeruko Argia» astekaria da. Astekariari aurrea egunkariak artzen diote.

Anoeta'n gertatu zanaren berri eztun euskaldunik ezta. Lengoa berritzen ez nuke asi nai. Egunkarietan eta erradiotan egin eztan zerbait egin diteke ordea *Zeruko Argia*'ren bidez.

Egun zoragarri aren berri bertsotan ematea; parte artu zuten zazpi aizkolariei itz neurtu batzuk eskeintzea. Asmo one-kintxe natorkizute.

### *Berekoetxea:*

1/ Naparru'ko Gorriti nai det aitatzea, ezagutzen dunantzat zaill ez maitatzea. Legezko da bear dan malletan jartzea, bertako seme baita Berekoetxea.

2/ Donosti'ko burruka guk ikusi gendun, aurretik asi ziñan eta aurretik jun. Konturatzen al zera zer lan egin zendun? Gaurko txapeldunetan zu zera txapeldun!

3/ Iru neurritan ziran jarriak pagoak, Urbasa'ko menditik ekarritakoak. Zuretzat jostalluak dira alakoak, errez egin zenitun pentsatutakoak.

4/ Arriturik jendea gelditu zan mutu, olakorik oraindik ezta ezagutu. Bigarrenari kendu ia bost minutu, egun artan etzindun zu iñork estutu.

5/ Gogoz aritu ziñan tiki eta taka, ezpalak an zebiltzan aidean bueltaka. Ezta iñoiz aztuko egin zendun marka, ontzera dijoanak istillua dauka.

6/ Iñoiz irabazian,  
bestetan galeran,  
arrixkua baitago  
gure ibilleran.  
Beti eziñ luzitu  
batek nai dun eran,  
orain azaldu dezu  
nolakoa zeran.

7/ Goiko gallurra joa  
dezu egun ortan,  
zure izena dabill  
jendea aotan.  
Auxen entzuten da gaur  
paraje askotan:  
«Kontrariorik eztk  
egur legezkotan!».

8/ Ikasbide bikaña  
zuk eman dezuna,  
nabarmen erakutsiz  
nagusitasuna.  
Ogei milla durokin  
Gorriti'ra juna,  
noizpait eraman dezu  
merezi zenduna.

9/ Gerri, beso, belaunak,  
burua gidari,  
zure gorputzak badu  
ondasun ugari.  
Gorde zazu luzaro  
gaurko sasoi ori,  
agur, lagun zarra, ta  
eldu txapelari!

*Astibia gaztea:*

10/ Zugana nator, Leitza,  
ni gaiaren billa,  
merezi dun seme bat  
aitatu dedilla.  
Soldadutza betetzen  
dagoen mutilla,  
onek bai sartu dula  
ziri biribilla.

11/ Erreztasun geiegi  
ezta soldadutan,  
zein gertutzen da ondo  
alako lekutan?  
Atzetik bear zula  
oraingo dixputan,  
eta nun agertzen dan  
lenbiziko puntan.

12/ Patxik or erakutsi  
dizkigu kemenak,  
Naparru'tik azaldu  
zaizkigu onenak.  
Leitza'ko mutil gazte  
bikain da lerdanak,  
bapo esnatu ditu  
erdi lo zeudenak.

13/ Jeiki izugarrian  
dingi eta danga,  
berebiziko sasoi  
gogorra zeukan da.  
Etzaite mindu, Patxi,  
nik itz au esanda:  
lan oiek eziñ egin  
arrantxoa janda.

14/ Zer gertatuko ote  
iru-lau urtera,  
ez ote da sartuko  
txapeldun artera?  
Ain gaztea izanik  
orrek dun sarrera,  
kontuz ibili, jaunak,  
emendik aurrera.

*Errekalde ta Polipaso:*

15/ Oraingoan Gipuzku  
bazan naiko erren,  
nai dana egiterik  
ezpaitago emen.  
Bata irugarren da  
bestea laugarren,  
aurrera ezin pasa  
onak izan arren.

16/ Ikusia gaude gu  
aitortu bearrak,  
an azaldu zituen  
norbere indarrak.  
Ez izan arren biak  
langille baldarrak,  
bizitasun geiago  
zeukaten naparrak.

*Zeberio, Arretxea, Alberdi:*

17/ Ataun'go Zeberio  
gendun bosgarrena,  
Arretxea naparra  
sartu zan urrena.  
Bakoitzak egin zun an  
gogor, al zuena,  
norbaitek bear zun da  
Alberdi azkena.

*Zeruko Argia, 1966-III-20.  
Sortu zaizkidanak, Auspoa 112, 1973.*

## ZARAUTZ ERRIARI

Doña: «*Iduzki denean...*»

1/ Ene, Zarautz maite,  
nere amets laguna,  
kantuz datorkizu  
ainbat maite zaituna.  
Ain zera kutuna,  
garbi ta txukuna,  
gure alaitasuna...  
Lore izarduna,  
indar daukazuna,  
parerik eztezuna!

2/ Zeure zaindaritzat  
daukazu Talai-mendi,  
bestetik Pagota  
otoizka goi Jaunari;  
Barbara'n gain ori  
Torre Eiffel dirudi;  
bi pausora Getari...  
Itxasoko begi  
or dezu Mollarri,  
guzion txoragarri!

3/ Kanpotar millakak  
bixitatzen zaituzte,  
gero ta geiagok,  
nik alaxen det uste.  
Etorzeko eske  
ta joateko triste,  
zu gustatzen ainbeste...  
Zugana nai dute,  
aitortzen digute,  
oberik ezpaidute!

4/ Lur ontan ezta, ez,  
indartuko arantza,  
beste gisakoa  
da guk degun baratza.  
Zarauztar neskatxa,  
maitetasun utsa,  
balio dun dirutza!  
Eder du gorputza,  
aingeru izkuntza...  
Atoz, bada, Zarautz'a!!!

*Zeruko Argia*, 1966-VIII-14.  
*Sortu zaizkidanak*, *Auspoa* 112, 1973.

## ARIZKUN'GO BASERRITARREI

Eskari bat egin zidaten Naparroa'ko Arizkun erritik. Ango baserritarrak San Isidro egunez biltzen dirala ta, otordu denboran entzun zitzaaten, bertso bakar batzuk bialtzeko zintan, manetofon bidez emango zituztela ta.

- 1/ Txoriak kantuz txio-txioka  
or dauzka udaberriak  
alaitasuna nai luke buru  
gaur Arizkun'go erriak.  
Anaitasunez bilduta daude  
bertako nekazariak,  
besarkada bat eskeintzen die  
Basarri bertsolariak.
- 2/ Beti lurrakin burrukan dabiltz  
guziz nekatuz gorputza,  
jende langille ta saiatua,  
leiala eta on utsa.  
O, Arizkun'go bazter polit au  
beti jun dedin goruntza,  
Isidro maite, egin zaiezu  
premiszko duten laguntza.

- 3/ Isidro Done, zu zerala ta  
dute gaur emen billera,  
ta konpontzea komeni zaie  
amaikatxo gorabera.  
Pausoa errez eman diteke  
onera eta txarrera,  
zu bitarteko izan ezkeru  
irtengo dute aurrera.
- 4/ Zuen erriko alkate jauna  
Zarautz aldean gertatu,  
alkar ezkendun ikusi baña  
bertso batzuek eskatu.  
Talentu asko eztetan arren  
guzia etzait bukatu,  
klase ontako mesedetxo bat  
nola demontre ukatu?
- 5/ Bi urte pasa agintzen eta  
kargua utzi bear du,  
jakin dedanez zuen erriak  
lendik oitura ala du.  
Ainbat balio duen gizon bat  
ain errez nolatan galdu?  
Guzientzako obe litzake  
berak segituko balu.

*Zeruko Argia, 1966-V-22.*

## UDARAK EMATEKOAK EMANDA

Aurtengo udarak eman ditu ematekoak. Plazoa bete zaio jendeari. Bakoitza bere tokira joan bear; lanari eraso bear; datorren urterako txanponak aurrerratu bear. Larri ibili gera bolara batean; gañez jendea, gañez kotxeak. Lenera gatoz poliki-poliki. Etxekoak bakarrik izango gera egun gutxi barru. Arpegi danak ezagunak; auzoak, lagunak edo etsaiak, baña erri barrukoak.

1/ Millakak izan dira etorri diranak, ondar gañean bapo gozatzen ziranak. Bukatu zaizkiete bakazio danak, lanari ekin bear bizi nai duanak.

2/ Erria iritxi zan gañez egitera, benetan penagarri gure ibillera. Etxetik ezin irten kanpoko aldera, orain puska batean kabituko gera.

3/ Abixu txiki bat det agintarientzat, zer pentsatua pranko badator zuentzat. Tokirik egin ezik automobillentzat, laister ezta lekurik emen pertsonentzat.

4/ Urte gutxian ainbat katxarro ugaldtu, denborik ezin leike gaur alperrik galdu. Etxeak bota edo kaleak zabaldu, oker onek nolabait zuzendu bear du.

5/ Bazterrak gero eta gero beteago, atzean dana ezin pasa aurrerago. Oker asko gertatzen dan otsa badago, eztakit nola eztan izaten geiago.

\* \* \*

Jende on asko etortzen da; eziera onekoak, edukatuak, gizalegez ibiltzen daki tenak. Bestelakoak ere, orregatik, urtetik urtera ugaltzen dijoaz. Beren etxeetan eta errietan edukatuak diran ala ez nik ezin esan. Emen eztute alako itxura aundirik azaltzen. Oien jazkerak, oien txima ta bizarrak, oien ibillera ta jokerak eztira gus-tagarri.

Lengo apaiz zarren batek itz auek esan omen zituan beingo batean, sermoia egi ten ari zala:

– Fedea, nere kristau maiteok, Amerika alde ortan izan bear beldurgarri, emendik joaten diran euskaldun danak an utzita etortzen dira ta.

Emen azaltzen zaizkigun kristau itxurik gabeko oiek, edukazio dana beren parajetan uzten dute nunbait. Eta, jakiña, an utzitakoa emen palta.

6/ Tximaz eta bizarrez  
ondradu beteak,  
lotsak alde batera  
aspaldi boteak.  
Kiratsa darioten  
zikin, arloteak,  
pentsatzen jarrita zer  
«beraneanteak»!

7/ Oiek bear luteke  
zerbaiten lotura,  
parrik ez egiteko  
besteren kontura.  
Obe da bialtzea  
nai duten lekura,  
dabiltzala bestela  
pertsonek modura.

8/ Begiratu zaiezu  
betik eta gora,  
narraskeri guzien  
ostatua or da.  
Ez al da indartuko  
dakarkiten moda,  
bestela mundu zar au  
laister galduko da.

9/ Gure artean berdin  
kale ta mendia,  
bakoitzak bere galgan  
darama neurria.  
Euskaldunak gaur arte  
duan alderdia:  
pobrea izan arren  
txukun da garbia.

10/ Gaitza sartua dago  
ta erro-errotik,  
auzozeak gera  
emen lenagotik.  
Enuke entzun naiko  
inoren aotik,  
dana ona etortzen  
zaigula kanpotik.

11/ Aurrerapen errotak  
irinduko gaitu,  
jende au ezin baita  
inun errenditu.  
Naiz eta iru malla  
atzetik gelditu,  
obe degu askozaz  
lanean segitu.

12/ Bizar, txima, melena  
biurturik sasi,  
len eder ziñatenak  
oraintxe itxusi.  
Zerritegi bidean  
ezkaitezen asi,  
garbitasuna bear  
degu lendabizi.

*Zeruko Argia*, 1966-IX-4 eta 11.

## ABELETXE'RI

- 1/ O, Abeletxe aztu eziña,  
lagunak gera gu lendik,  
zure berriak izaten ditut  
andik ezpada emendik.  
Gorputza lirain, kolore onak,  
ori nabaitu nizun nik,  
urte sorta bat badezu baña  
sasoiko zaude oraindik.
  
- 2/ Biok Mañari'n alkartu giñan,  
alkarri eskuak luza,  
geroxeago bat kontatzen zan  
zure ta nere gorputza.  
Ainbeste kontu esateko ta  
ain gendun denbora utsa,  
egun jator bat igarotzera  
etorri zaite Zarautz'a.
  
- 3/ Gure txokoan jan da edanez  
izaten dira aukerak,  
pozik jarriko zaizkitzu emen  
basoak eta platerak.  
Zerbait gaztetu egingo nau ni,  
lagun, zure etorrerak,  
gogoratuko ditugu bapo  
Burdeos'ko goraberak.

*Zeruko Argia, 1966-XI-13.*



## JOXE MIGEL MAIZ

- 1/ Joxe Migel agurtu  
nai zinduzket garaiz,  
zuk igandez egiña  
ezin aztu iñoiz.  
Gipuzkoar bezela  
pozez gañezka naiz,  
txiki aundia zera:  
bejondaizula, Maiz!
- 2/ Jan dezu Aia'ko ta  
Zarautz'ko larretik,  
baita osatu ere  
bapo indarretik.  
Bizkorra irten zera  
zu gure lurretik,  
Mamo Wolde besterik  
etzendun aurretik.
- 3/ Joxe Migel maitea,  
etzera motela,  
uste det gaur geienak  
sinisten dutela.  
Zuk erakutsi dezu  
bear dan bezela,  
emen ere gizonak  
sortu ditezkel.
- 4/ Etxekoa txarra ta  
kanpokoia ona,  
au da gure lurtean  
gaur gertatzen dana.  
Or gelditu da bixtan  
egin dezun lana,  
ikasbide bikaña  
badezu emana.
- 5/ Ez al dute segiko  
begiak itxita,  
igandean gertatu  
zana ikusita.  
Zu arraira bigarren  
zaude iritxita,  
on usteko guziak  
atzetik utzita.

*La Voz de España*, 1-II-1967.  
*Zeruko Argia*, 1967-II-12.  
*Sortu zaizkidanak*, *Auspoa* 112, 1973.

## KONRAD ADENAUER

- 1/ Berri mingotza or azaldu da  
munduko bazterretara:  
egunak buka ta iritxia  
zaizula betiko gaba.  
Orain erori bazera ere  
eriotzan saretara,  
Alemani zuk jaso zenduen  
lurpetik izarretara.
  
- 2/ Zer ondorenak etorri diran  
zuk egindako lanetik,  
goi gallurrera erri bat ola  
igotzeakin lurpetik!  
Alemania maitatuarren  
biotzaren barrenetik,  
europatarra izan ziñan zu  
gauza guzien gañetik.
  
- 3/ Auzo nazio izanagatik  
beti setan, alkar joka,  
pakea beingoz nagusitzeko  
bide bat bear da topa.  
O, Adenauer, beste gauzarik  
eztegu guk ere opa:  
egi biurtu dedilla bizkor  
amestu zendun Europa.
  
- 4/ Lan bikain eta goralgarria  
emen egin zenduena,  
gizaldi zear izango baitu  
beti bere aitormena.  
Ondo dakigu zer dan zuretzat  
orain saririk onena:  
lurreko neke danen ordañez  
betirako atsedena.

*La Voz de España, 23-IV-1967.*

*Zeruko Argia, 1967-V-7.*

*Sortu zaizkidanak, Auspoa 112, 1973.*

## DON MANUEL LEKUONA'RI

Omenaldia egin zitzaion eguneko bertsoak, 1967-IV-23'an:

- 1/ Oiartzun maite, seme argiak  
badituzu zuk emanak,  
gaur batengana dijoaz zuzen  
gure pentsamentu danak.  
Beti gogoan dauzkagulako  
maixu aundiaren lanak,  
inguruan or izango gera  
zure ikasle geranak.
- 2/ Berdingabeko pozkariora  
gaurko au Oiartzun'ena,  
bear dan eran goralduko du  
semerik jakintsuena.  
Bere seaska zeran ezkeror  
au dezu bide zuzena,  
urrezko letraz ezarri zazu  
Lekuona'ren izena.
- 3/ Etenik eztun lanean beti,  
atsedenik ez inñundik,  
euskera zarra xuxpertu nairik,  
andik ezpada emendik.  
Jaunari eskatuko diot gaur  
ez aldentzeko gugandik,  
gure artean palta aundia  
egiten dezu oraïndik.

*La Voz de España, 23-IV-1967.  
Sortu zaizkidanak, Auspoa 112, 1973.*

\* \* \*

Igandean Oiartzun'a azaldu giñan da-

nok giñan, gutxi edo geiago, don Manuel'ekin zordun. Gure esker ona agertzerara joan gintzaizkion.

Danok saiatu giñan, al gendun moduan, al genduna egiten.

Oiartzuar adiskide zar batzuk erregu bizi bizia egin zidaten, bazkal ondoan kantatu nitun bertsoak nunbait argitaratzeko, arren, pozik ikasiko zituztela-ta. Zaila izaten da bat-baterako bertsoak gogoratzea; baña, gutxi gorabera, era ontan izango ziran:

- 1/ Kanta bat loratuko zait eta,  
anai-arrebok, or entzun,  
eginkizun bat artua daukat,  
eztakit nola erantzun.  
O, erri maite, bai al dakizu,  
barren ontan zein daukazun?  
Argi, jakintsu, umil, apala,  
orra or zenbat ondasun,  
seme au sortu zenduelako  
poztu zindezke, Oiartzun!
- 2/ Illun da goibel zeuden zokoak  
don Manuel'ek argitu,  
zikin tatxarrik ikusten bazun  
aguro asko garbitu.  
Euskeran alde arrigarrik  
mirariak egin ditu;  
etenik gabe beti lanean,  
ar bat aña ez gelditu,  
ai, Euskalerra maitagarriak  
Lekuona asko balitu!

3/ Inoiz taldean lana egiñaz  
ta geienetan bakarrik,  
gure izkuntza zarrari eman  
dio indartu ederrik.  
Nolatan eztet egingo emen  
oiu eta deadarrik?  
Sentitzen duen guzia garbi  
esan nai luke Basarrik:  
Gipuzkoa'ko zeruan ezta  
zure moduko izarrik.

4/ Irriparrezka ikusten zaitut  
ainbeste neke artuta,  
gure izkuntza ikusi nairik  
ate aunditik sartuta.  
Gure esker ona agertzera gu  
danok geunden beartuta;  
zure osasun alde nago ni  
gaur gogoz erregututa,  
gure artean oraindik oso  
premixkoa zaitugu-ta.

*La Voz de España*, 25-IV-1967.  
*Zeruko Argia*, 1967-V-7.  
*Sortu zaizkidanak*, *Auspoa* 112, 1973.

## AMAK EGINDA BEZELA

- 1/ Moda berri bat indartsu dago oraintxe bazter danetan, len tentazio gutxi zegon da premizkoa zan benetan. Gauzak aldatu zaizkigu bapo mundu xelebren onetan, tela sobrerik ezta ikusten gazte askoren gonetan.
- 2/ Soñeko motxak gorputzarentzat ote du irabazia? Edo edertu ote lezake berez dana itxusia? Orretan baldin badago beintzat emakumean grazia, palta dan pixka orregatikan kendu zazute guzia!
- 3/ Emakumea azaldu bedi txukun, garbi ta dotore, geiegikeri nabarmenetan ez arrixkatu beñere. Anka-makillak erakutsita ezpaitago ezer ere, neurri batean errendituta zeuentzako da mesede.
- 4/ Erropa billa dabil jendea baña txikitik txikira, len iru laurden luze ziranak orain jo dute erdira. Eguzki orrek berotzen badu gorputzarentzat neurrira, jantzi bearrik ezta izango emendik urte gutxira.
- 5/ Zertako dira jostun da sastre, ta zertako degu tela? Ni sinisturik nago oraintxe danak sobrean daudela. Erropa da gaur, ikusten danez, gorputzarentzat kartzela, laister batere gabe guziok amak eginda bezela.

*La Voz de España*, 1967-V-5.  
*Sortu zaizkidanak*, *Auspoa* 112, 1973.

## INDALEZIO OJANGUREN

- 1/ Bertso maiteok, asi zaitezte  
ezpain artean lertutzen,  
Ojanguren'en inguruan gaur  
zeiñek eztu poz artutzen?  
Ainbat urtean gallurrik gallur,  
beti prestu, beti zuzen,  
baso ta mendi, baserri, kale,  
danak mendean ziñuzen,  
Euskalerrria zuk bezin ondo  
eztu iñork ezagutzen.
- 2/ Makinatxo bat sorbaldan eta  
gogoz ekin bideari,  
beldurrik iñoiz izan gabea  
aldapik aundienari.  
Esan ziteken uso arin bat  
zebillela egalari;  
ta zer maitasun izan diozun  
zeu sortu ziñun lurrari,  
ikasbidea eman diguzu  
gañontzeko guziori.
- 3/ Argazki edo erretratutan  
or daude zure lan onak,  
Diputazio gureari zuk  
eskeñi zenizkionak.  
Euskalerrria ezagutzen du  
aiek ikusten dagonak;  
auxe azaldu nai dute garbi  
Basarri'ren itz sakonak:  
Gipuzkoa'ren ondra dirala  
zu bezelako gizonak.
- 4/ Arreta bizi ta gogo latza  
izan zendun lanerako,  
oroitzapena utzi dezu zuk  
oraingo ta gerorako.  
Aundia izan zera gogotik  
gure Euskalerrirako;  
txapela kendu bear guziok  
zu zerana zeralako,  
Jaun Zerukoak gorde zaitzala  
urte on askotarako!

*Zeruko Argia, 1967-V-7.  
Sortu zaizkidanak, Auspoa 112, 1973.*

## MANUEL MATXAIN

1967'ko maiatzaren amaseigarren egunean, Donosti'ko «Ollagorra» bazkunak (soziedadeak), omenaldi bat eskeñi zion Manuel Matxain jaunari. Gure irakurleak ondo ezaguna dute gizon au. Apari bukaeran bertso auk kantatu nitun, gutxi gorabera, Matxain adiskidearen goratzarez.

- 1/ Iñola mutu ezin egonik  
astera nua kantuan,  
Matxain maitea ikusten baitet  
lenengo begiratuan.  
Arrats eder au ezta iritxi,  
jaunak, berealakuan;  
erleak lorategian bezin  
pozik gu zure onduan,  
eskeintzen zaizun omenaldi au  
ondo merezi zenduan!
- 2/ O, lagun Matxain, nik galdetzen det:  
zuk barren ortan zer dezu?  
Gure Jainkoak ainbat birtute  
batera eman dizkitzu:  
bertso-jartzalle txit egokia,  
buruz argi ta jakintsu,  
bolarietan lenengo mallan,  
tokan errege ta maixu,  
txalogarririk iñon badago  
txalogarria zera zu.

- 3/ Danekin lagun, beti paketsu,  
irriparra ezpañetan,  
ate guziak zabal zabalik  
zabiltzan leku danetan.  
Lanean berriz neurri gabea,  
arrigarria benetan!  
Etzaitzela aldatu, Matxain,  
zuk jarrai zazu orretan,  
apaltasuna bezelakorik  
ezpaita mundu onetan.
- 4/ *Ollagorra*'ko zure lagunak  
bazeukaten borondate,  
gaurko billera zure omenez  
argatik eratu dute.  
Eztakieñik iñon badago  
laister emango det parte,  
Matxain, ondratzen dituzu bapo  
zuk Donosti ta Aiete,  
euskal oiturak biziko dira  
zuk bizirik dezun arte!

*La Voz de España*, 18-V-1967.  
*Zeruko Argia* 1967-VI-4.  
*Sortu zaizkidanak, Auspoa* 112, 1973.

## AZKARATE TA ATANO

- 1/ Zuen burruka milloika jendek  
ikusi du aurten begiz,  
o, Ilario, bizkorra zaude  
ankaz, besoz eta gerriz.  
Urtebetean palta zendun da  
nola egon ez egarritz?  
Eta burua oztu baño len  
txapela or dezu berriz.
- 2/ Gorputza ondo zigorkatuta  
ikasi zendun bizitzen,  
errezkerian oitutakoak  
ezpaitu ola luzitzen.  
Ezta erreza zuri jokoa  
nolanai irabazitzen,  
ogeitabira iritxi arte  
eztezulako etsitzen.
- 3/ Bi diranean, bat izaten da  
beti zerbait gogorrago,  
len, orain eta gero ere bai,  
ni ortan seguru nago.  
Zuretzat ere, Atano maite,  
zer esanikan eztago,  
zenitun danak emanda gero  
ezin eskatu geiago.
- 4/ Partidu ortan gerta ziranak  
eztauzkagu, ez, aztuak,  
asieratik aurretik ziñan,  
gero gauzak narrastuak.  
Zuri txapela kentzen burutik  
a zer komeri estuak,  
batzuk bezela izan ezkero  
burni antzeko eskuak!
- 5/ Eskuak galdu zitzaizkitzun da  
ori zure ondarena,  
aurrera joan zan ondoren bizkor  
len atzetik zegoena.  
Baten sobreak besteak palta,  
orrek ematen du pena,  
degunarekin konpormatzea  
au da gauzarik onena.

*La Voz de España*, 28-V-1967.  
*Zeruko Argia*, 1967-VI-4.  
*Sortu zaizkidanak, Auspoa* 112, 1973.



## LENGO DENBORAK

Bai, ezin ukatu; lengo denborak gogoratu ditugu. Aste ontan, oitura danez, omenaldi bat izan da Donosti'ko *Ollagorrra* soziedade ospetsuan. Iru gizoni eskeñitako omenaldia.

Nolako gizonak ordea! Txiki-txikitandik pelotazale geranok, amaika aldiz erabili ditugu ezpañetan gizon oien izenak: Artazo, Irureta, Kortabitarte. Sasoirik onenean ezagutu genitun; badakigu zer ziran eta nolakoak ziran. Une goxoa pranko paseak gera oien jokabide zoragarriak ikusiaz eta txalotuaz. Oso goi malletara jaso zuten eskuzko pelota.

- 1/ Pelotako legeak  
zuek zintzo bete,  
sarri jartzen zenduten  
jende dana tente.  
Artazo, Irureta  
ta Kortabitarte,  
aparteko gizonak  
izanak zerate.

- 2/ Pelota barrutian  
zer irukotea!  
Zail da beste olako  
iru izatea.  
Zugan daukate danak  
beren aterpea,  
gorde itzazu ondo,  
Elgoibar maitea.

- 3/ Utsik daude frontoiak,  
gazteak nun dira?  
Jolas berriak datoz  
lengoen tokira.  
Pelota jaso leike  
goi-goiko neurrira,  
zuen moduko asko  
sortuko balira.

Artazo, Irureta ta Kortabitarte'ren modukoak sortzen ezta errez. Zaletasun gutxi ikusten da bazterretan; itzaldu egin da pelotarako afizioa. Zaletasunik gabe, berriz, ezta lan onik egiten; beti da txarra gogoz kontrako lana.

*La Voz de España*, 1967-VI.

## EJIPTO TA ISRAEL

1/ Gorrotoak nunaitan  
ondoren txarra du,  
ta lurralde aietan  
zer gerta bear du?  
Burrukari ekinda  
bizi batzuk galdu,  
lengo sua ezpaita  
oraindik itzaldu.

2/ Nolatan bukatuko  
ote da jokoa?  
Asarrea eztute  
atzo goizekoa.  
Onek baietza badu  
arek ezezkoa,  
pake koxkorra oi da  
derriorezkoa.

3/ Gerraren arpegia  
iñoiz ezta eder,  
zer dan erakutsi du  
amaikatxo bider.  
Uztartuko al dira  
Dayan eta Nasser?  
Pozteko gauzik eztet  
nik ikusten ezer.

4/ Israel'ek egiñak  
txit amets xamurrak,  
gera irabazita  
uxatu beldurrak.  
Onu'k emanagatik  
agindu makurrak,  
utzi naiko al ditu  
artutako lurrrak?

5/ Guziok txartu gera  
ta orain zer egiñ?  
Munduko bost egalak  
jarri dira berdiñ.  
Gertatzen ari danak  
nola eman ez miñ?  
Au komeria dago:  
bizi nai ta eziñ.

*La Voz de España, 16-VII-1967.  
Sortu zaizkidanak, Auspoa 112, 1973.*

## LATASA'REN GARAIPENA

Aundia izan zan Latasa sunbillatarra. Españi'ko txapelketa nagusia estuasun aundi gabe irabazi zuan Iruña'ko zezen plazan. Garbiro ikusi zan an maixu aundiaren eskua. Astibia izan zan Latasa pixka bat estutu zuana. Baña lanak zenbat eta aurrerago, orduan eta bentaja aundia-go Latasa'ren aldera. Zakur onak eiza zaitzen duan bezelaxe zaitu zuan luzaro. Gero, pentsatu zuanean, aldegin zuan igesi, eta... kaxo, motell!

1/ Latasa, zu Iruña'n  
aurten bai dotore,  
ordubete pasean  
danen direttore.  
Atsedetik etzendun  
artu an batere,  
len ona ziñan eta  
bai oraindik ere.

2/ Jakin egin bear du  
ebakitzen ala,  
zure epai garbiak  
bai eder zirala!  
Besteak egiñ arren  
beren egiñala,  
an ikusi zan garbi  
onena ziñala.

3/ Dezun alderdi onik  
nork ukatu zuri?  
Irabazia zera  
makiña bat sari.  
Jaiotzatik izan zu  
egiz aizkolari,  
zorionak, Erramon,  
eutsi txapelari!

*Astibia'ri:*

4/ Badezu gorputz ortan  
sasoi ta kemena,  
Latasa zan lenengo  
ta zu bigarrena.  
Lan bikaña da, Patxi,  
egin zenduena,  
zuk estutu zenduan  
danetan geiena.

5/ Gazterik jarri ziñan  
nekeak artzera,  
gutxik uzten zaituzte  
orain zu atzera.  
Alegindu zaita  
oraingo antzera,  
lenen mallara garaiz  
iritxiko zera.

*Arria'ri:*

- 6/ Gazte zaude oraindik  
naizta indartua,  
eziñ artu lanari  
bear dan puntua.  
Ikasten dezunean  
aizkol sekretua,  
nunbait sartuko dezu  
zuk errespetua.

*Zeberio'ri:*

- 7/ Ataun'go seme jator,  
aizkolari trebe,  
dezun dana ematen  
ikasiaz zaude.  
Zeberio, ni zuri  
gaur txalo jo zale,  
ori lan egitea  
motiborik gabe!

*Zeruko Argia, 1967-VII-16-23.*

## UDAZKENA

- 1/ Gaur egoaize jostalaria  
bai goiz esnatua dala,  
zuk ondo jakin gure lur ontan  
oso premizko zerala.  
Egunak moztu zaizkigula ta  
gabak luzatu dirala,  
obeto konturatu gaitezen  
udazkenean gerala.
- 2/ Gure soroak aberats daude  
itxaropena sortzeko,  
ekaitzik ez dedilla etorri  
ainbat ondasun galtzeko.  
Denbora onak komeni dira  
lanatzaz baliatzeko,  
arto, babarrun da beste gauzak  
bear bezela eltzeko.
- 3/ Laister zutitu bearrak daude  
al dan ainbat garo-meta,  
ukullukoak etzan ditezen  
bearrezkoa dute-ta.  
Udazkenean nekazariak  
etengabeko lanketa,  
negu beltzaren beldurra kendu  
ganbarak ondo beteta.
- 4/ Atzo bai eder gure basoak  
ain ostro bikain, ederrez,  
laister arbola danak burusoil,  
lurra estaliz orbelez.  
Gure gañera, ai!, udazkena,  
ez al da etorri errez?  
Gizonok ere berdintsu gera:  
gaur zerbait, biar ezerrez.
- 5/ Zer pentsabide arbolen bidez  
Jainkoak guri emanak,  
zer gertatzen dan ikusten baitu  
talentuz osatzen danak.  
Udaberriak berpizten ditu  
orain il-zoriz diranak,  
gu gera emen bein il ezkerro  
berriz pizten ez geranak.

*La Voz de España*, 24-IX-1967.

*Zeruko Argia*, 1967-X-1.

*Sortu zaizkidanak*, *Auspoa* 112, 1973.

## EIZTARIEN POZA

- 1/ Eiztariak pestetan  
ditugu berriro,  
udazkena iritxi  
baizaigu geldiro.  
Entzun bearko dute  
makiña bat tiro,  
laister uso gaxoak  
eztaukate giro.
- 2/ Entzuten egoten naiz  
ernai eta prestu,  
gertatzen zaizkienak  
gero ezin aztu.  
Eiztariak izketan  
kupirarik eztu,  
esaten duten dana  
ez beintzat sinistu.
- 3/ Gertutu eskupetak,  
asi *rik* eta *rau*,  
usoak obe dira  
sei baño amalau.  
Eiztariaren pozak  
ni asko pozten nau,  
ola gozatzen baita  
bizitza mikatz au.

*La Voz de España*, 1967-X-1.

## PATXI ESKUDERO'RI

- 1/ *Zigor* operak ez dik  
gaur izen makala,  
ondo erakutsi dek  
balio dekala.  
Danak aitortzen ditek  
goi-goikoa dala,  
pentsatzen nian ala  
gertatuko zala.
- 2/ Len egiña *Illeta*  
ta orain opera,  
azitzen ari aiz i  
kolpetik kolpera.  
Iri eskerrak, Patxi,  
emendik aurrera,  
euskal musikak badik  
munduan sarrera.
- 3/ Ola goraltzen dek ik  
erri maitatua,  
beraren alde ago  
ainbat lan artua.  
Goiko gallurrean dek  
ire talentua,  
«eman da zabaldu zak  
munduan frutua».

*Zeruko Argia*, 1967-X-29.

## AU JENDEA!

- 1/ Esku zikiñekoak  
badabiltz ementxe,  
lotsik gabe jarriak  
daude ortaraxe.  
Lapurtuz bizikleta,  
motor eta kotxe,  
litxarreroak indar  
daukate oraintxe.
- 2/ Lan orri ekiteko  
badute azala,  
ezer palta zaionak  
billatu dezala.  
Ikusten da beldurrik  
gabe dabiltzala,  
ezpaitira zigortzen  
merezi bezela.
- 3/ Arrapatuta ere  
arpegiz txit alai,  
amabost egun pasa  
ditezke nolana.  
Estalpea seguru,  
zer jana ere bai,  
oietako askotxok  
eztu besterik nai.

*Zeruko Argia 1967-X-29.*



## GABON GAUEAN

- 1/ Orain bi milla urte inguru,  
mirari paregabea,  
gizon aragiz sortu zitzaigun  
zeru ta lurren Jabea.  
Gure mallara jetxita ortxe  
Jaungoikoaren Semea,  
argatik degu guk biotzean  
atsegin bete-betea;  
baña erreguz ementxe nator,  
ementxe, Jesus maitea,  
azaldu bear dizugu danok  
daukagun borondatea,  
au da Zarautz'ko Kabitarrak gaur  
egiten duten eskea:  
asmo oneko gizon guziei  
eman zaiezu pakea.
- 2/ Arrokeri ta dirua dabil  
alde guzitan balantzán,  
beko jendea, jende txikia,  
etengabeko morrontzan.  
Zu jaio baño lenago ere  
gure mundu au ola zan,  
eta itxuraz ezta oraindik  
zuzentzeko esperantzan;  
pake kontua gai artuta nik  
eztet asmatzen zer esan,  
zure sortzea ez al zan, Jesus,  
alperrikakoa izan?  
Arabe jende ta judutarrak  
otso amorratu gisan,  
zeu jaio ziñan lur santu artan  
ara nolatan dabilzan!
- 3/ Begira bazter guzitara ta  
nunai sua dariola,  
txarrena au da: oni azkenik  
barrundatzen etzaiola.  
Esaten dago karidade ta  
maitasunik eztagola,  
onetik iñork eztu ezer nai  
danok txarreko eskola;  
sarritan galdetzen det nik, Jesus,  
baña au guzia nola?  
Geurea egin da bestegatik  
ezer eztingu ajola,  
etenik gabe gerra bizian,  
ezin konpondu iñola,  
uste orretan etzendun eman  
zuk gurutzean odola.
- 4/ Berdingabeko Gabon gau ontan  
Basarrik kantuz goraintzi,  
artzai jende ta aingeruekin  
egin dezagun irrintzi.  
Ainbat gizaldiz zai egon eta  
Salbatzallea iritxi,  
illun guziak uxatu dira,  
argitasuna nagusi,  
zure jaiotzak bide eder bat  
guziori erakutsi.  
Mugak jarriak dauzkagu danok,  
beti ez gindezke bizi,  
zure aurrean izango gera,  
Jesus, biar edo etzi,  
arren da arren, ez gaitzazula  
zure eskuratik utzi.

*Zeruko Argia, 1967-XII-31.*

## LASARTE BERTSOLARIARI

1968 urteko otsaillearen azken igandean, 25'an, Leitza'ko erriak bere erriko seme dan Lasarte bertsolari on-onari, omenaldi biotzkor eta xamur bat eskeiñi zion.

- 1/ Lasarte, lagun jator,  
nere itzak entzun:  
zure ordu aundiak  
iritxi bear zun.  
Ona ziñala lendik  
nik antzeman nizun,  
erakutsia dezu  
zer balio dezun.
- 2/ Zure bertsoak beti  
goxo ta txukunak,  
ez ankamotzak edo  
beso luzedunak.  
Txoratuak dituzu  
kristau euskaldunak,  
olaxe luzitzen du  
berezkoa dunak.
- 3/ Udaberriz txoria  
nork ixillerazi?  
Zure udaberria  
orra or iritxi.  
Sasoikoa zaude ta  
lanari ez utzi,  
Jainkoak emandako  
doai orri eutsi.
- 4/ Dezun erreztasuna  
bai ederra dala,  
zure talentu ori  
ezta, ez, argala.  
Gizatasunez ere  
etzaude makala,  
apalik iñor bada  
zu zera apala.
- 5/ Omenaldi egiten  
dizute gaur Leitza'n,  
bertakoa izanik  
ala komeni zan.  
Utzi ezin nezazken  
lan batzuk nik izan,  
bestela poz askorik  
azalduko nintzan.
- 6/ Erritarrak zuretzat  
zenbat borondate,  
erakusteko berriz  
aukera daukate.  
Lagun bat emen dezu  
zeuk nai dezun arte,  
artu besarkada bat,  
Manuel Lasarte.

*La Voz de España*, 18-II-1968.  
*Príncipe de Viana*, 1968-III.  
*Sortu zaizkidanak*, *Auspoa* 112, 1973.

## GERO TA OKERRAGO

Udaberriak zer poz eman bear digu, munduaren egal askotan gertatzen ari diranak ikusita? Asia aldera begiratu besterik eztago. Gero ta okerrago, gero ta zakarrago ta itxusiago Viet-Nam aldeko goraberak.

- 1/ Zertarako da zelai-baratzak  
gutziz apaintzea lorez,  
gizonak alkar iltzen badabiltz  
asmo txar eta dollorrez?  
Gorrotoaren uztarripean  
noiz arte seta gogorrez?  
Gizatasuna bear da emen,  
naikoa degu odolez!
- 2/ Alde batera nolatan egon  
udaberrian pozetan,  
gizon generala aitortutzeak  
uzten bagaitu lotsetan?  
Ezin fiatu inola ere  
entzuten diran itzetan,  
pakea dabil mingañetan da  
gerra berriz biotzetan.
- 3/ Ainbat gorrotu, ainbat inbiri  
nundikan dator gugana?  
Danok agindu naia daukagu,  
onek ematen du lana.  
Mundu osoa ikusten det nik  
faltsikerira emana,  
bat esan eta bestea egin,  
ori da gertatzen dana.

*La Voz de España, 1968-III-3.*

## BELTZAK ETA ZURIAK

Lenago, Ipar-Amerika'n, beltz eta zurien arteko arazoak buru-austerik ezpazuan, oraintxe komeriak.

Kennedy lendakariaren (presidentearen) antzeko eriotza izan du Martin Lutero King jaunak.

Balkoi batetik kalera begira zegoala jo zuten tiroz. Etzuan besterik bear izan mundu ontako lanak bukatzeko.

Beltz eta zurien eskubideak berdiñak izatea nai zuan Nobel saria irabazitako gizon onek. Pake bidez iritxi nai zituan iritxi bearreko guziak.

Orain, aren eriotzarekin batera, pakeak uxatu dirala esan dezakegu. Agortu da beltz jendearen eramankizun eta pazientzia.

Txarrean eta gogorrean saia naiko dute emendik aurrera, itxurak diranez.

1/ Egun auetan mundu guzia erabat mindurik dago, gizonik ezta gaur ixtimatzen zakur bat baño geiago. Odola tarte izan ezkerok ezer onik ezpaitago, lenago gauzak oker bazeuden orain askoz okerrago.

2/ Bezperan pozez baldin bagera negar biaramonean, denbora onak ekaitz gaiztoa sarri du ondorenean. Asia aldetik pake itxurak zerbait asi diranean, sekula baño saltsa geiago orain etxe barrenean.

3/ Diruak eta indar zakarrak agintzen dute gaur nunai, bide zuzenez dabillan ura tiroz eratxi nolana. Beltz eta zuri, maitasunean bear gendukenak anai, pakean billa saiatzen danik iñork ezto ikusi nai.

4/ Beltzen arraza or utzi dute lertu bearrez miñetan, onez aspertu dira zearo, ta txarrerako griñetan. Odol guziak ain irakiñak dauzkate beren zañetan, milloika beltzek esango dute: «Odolkiak ordañetan!»

5/ Gorrotoaren ate guziak orra kolpetik ideki, beltz eta zuri, guziak gerran, iñor ez iñon erruki. Dendak ustuta, etxeak erre, gorputzak tiroz ebaki, kulpik gabeko makiña batek pagatuko du ederki.

6/ Emen gertatzen ari zaiguna  
negargarri da benetan,  
danok txarrena jarriak gaude  
alako itxumenetan.  
Begiratuta laño illunak  
dauzkagu leku danetan,  
bizi izateko poz geiegirik  
eztago lur gain onetan.

7/ Beltz eta zuri, gorri ta urdin,  
oriak edo moreak,  
Jaunaren seme geranez danok  
ditugu eskubideak.  
Alkar odolez itotzekoak  
badira gure ideak,  
seguru izan, arrapatuko  
gaitu gabiltzan bideak.

*La Voz de España*, 7-IV-1968.

*Zeruko Argia*, 1968-IV-28.

*Sortu zaizkidanak, Auspoa* 112, 1973.

## OLAKO SEIKOA!

*Erramun Latasa:*

- 1/ Egur gañean aixa  
egiten du lana,  
len ere amaikatxo  
naigabe emana.  
Begiak ondo luza  
gaur Latasa'ngana,  
azari zarra da ta  
asko dakiana.

*Patxi Astibia:*

- 2/ Orra mutil lerdin bat  
leitzarrak pozteko,  
sasoi betean dago  
gora irixteko.  
Gogo biziak ditu  
gaur irabazteko,  
ta badu arrixkua  
txapela jazteko.

*Migel Berekoetxea:*

- 3/ Sarri dago enborrak  
bizkor ebakita,  
bizi amorratua  
jaiotzatik baita.  
Len ere danak austen  
orrek badaki ta,  
jendeak ohea du  
kontuz ibilita.

*Arria:*

- 4/ Arria ezin utzi  
bide bazterrean,  
oraindik urte gutxi  
ditu bizkarrean.  
Iñor gutxi bezela  
dago indarrean,  
sartu leike au ere  
aurre samarrean.

*Polipaso:*

- 5/ Petxu arrigarria  
ta kolpe legorra,  
egurren biotzean  
trebe ta bizkorra.  
Aixa erdibitzen du  
oraindik enborra,  
gogorrik iñor bada  
auxen da gogorra!

*Usategieta lenengoa:*

- 6/ Arri jasotzen degu  
oso arrigarri,  
arraunlari bezela  
edozeiñen neurri.  
Orain berriz aizkoran  
onenekin jarri,  
eztu gelditu naiko  
plazan lotsagarri.

*Denbora ona komeni:*

7/ Denbora komeni da  
galga onekoa,  
bero zakarra beti  
danen kaltekoa.  
Gaur bai aizkora-egun  
grazi aundikoa,  
berriz noiz bilduko da  
olako seikoa?

*La Voz de España, 1968-IV-21.*

## IRITXI ZAIE ORDUA

Iritxi zaie ordua Erretegi ta Atano'ri. Astelenean izango da jakintsua pranko bazterretan. «Nik banetxekian seguru zer gertatuko zan –esango dute–. Amaika aldiz esaten nian lagun artean». Partidu ondoren danok gera jakintsu. Partidu aurretik izatea komeni da, ta ori da gaiztoa.

1/ Erretegi, Atano,  
biak bero-bero,  
asteko amorratzen  
daude onezkero.  
Arro mintzatu arren  
zenbait artabero,  
danok gera jakintsu  
ikusi ta gero.

2/ Jokalari artean  
eztago atsegin,  
trankil bizi nai dunak  
trabesik ez egin.  
Au gertatzen da beti  
apustu gauzekin:  
batzuek asmatu ta  
besteak utsegin.

3/ Nai dan guzian gero  
ezta irabazten,  
diruak errez daki  
eskutik igesten.  
Onena zein dan ezta  
xamurra berezten,  
jokotik ezpaizaigu  
iñor aberasten.

4/ Alkar autsi naiean  
badira or lanak,  
dun dana eman bear  
zerbait nai duanak.  
Itz au esaten degu  
zenezuko geranak:  
irabazi dezala  
abillena danak.

*La Voz de España, 1968-IV-28.*



## DON JULIO BEOBIDE'RI

Gaur Zumai'ko erriak, seme ospetsu Don Julio Beobide'ri omenaldi bero ta gartsu bat eskeiñiko dio. Zeñi eskeñi, izan ere, Don Juliori ezkeñi ezean!

- 1/ Dana da zuzentasun,  
dana espiritu,  
artearen goi-mallak  
arrapatu ditu.  
Orren gizatasunak  
atsegintzen gaitu,  
apalagorik iñun  
ez leike arkitu.
- 2/ Zeñek neurtu lezake  
Beobide'n obra?  
Balorea geituko  
baizaio gerora.  
Noizpait joaten danean  
Jaunaren ondora,  
egindako lan dana  
or geldituko da.
- 3/ Zure omenaldia  
oso bidezkoa,  
ezagutzen zaitugun  
danon gogozkoa.  
Seme bat eman dezu  
arrigarrizkoa,  
poztu zaite, Zumai, ta  
poztu, Gipuzkoa!

*La Voz de España*, 1968-IV-28.

## ZARAUTZ'KO AMA MARIARI

Gaur Zarautz'en *Ama Mari*ren omen -eguna. Ainbat on egindako emakume prestu, txalagarriak, gaur jasoko du erritarren esker ona.

- 1/ Errian osa leizke  
mordo ta pilloak,  
zure bidez argia  
ikusitakoak.  
Ain bakanak oi dira  
zure modukoak,  
erriak ezin aztu  
zuk egindakoak.
- 2/ Zarautzarrak amatzat  
autatu zaituzte,  
zure serbitzu danak  
gogoan dituzte.  
Egun ontan, Maria,  
alaitu zindezke,  
eziñ egiñ arren zuk  
merezi ainbeste.
- 3/ Larogetabi urte  
zintzilik daudenak,  
egin dituzu lanik  
txalagarrienak.  
Tartean izan arren  
pozak eta penak,  
saria jasotzen du  
zintzo dabillenenak.

*La Voz de España*, 1968-V-19.

## EIBAR

- 1/ Eibar maitagarria,  
goresmenak zuri,  
ezagutua zera  
tristura ugari.  
Gaur jarria bazaude  
izar dizdizari,  
lana gogor eginda  
gertatu da ori.
  
- 2/ Lengo guraso zarrak  
benetan asiak  
loreak ugaltzeko  
ondatzen sasiak.  
Gazte-gaztetandikan  
lanean eziak,  
erle antzeko dira  
eibartar guziak.
  
- 3/ Zu goi-gallurrean da  
gu begira pozik,  
geldi dauden nagiak  
geienean utsik.  
Gaur Eibar goraltzeko  
eztaukagu itzik,  
berez ezta gertatu,  
saiatuta baizik.
  
- 4/ Aberastasunak or  
egin du jaiotza,  
gaur erritarra baño  
geiago arrotza.  
Lengo euskal labea  
orain guziz otza,  
orrek naigabetzen du  
Basarrin biotza.

*La Voz de España*, 23-VI-1968.  
*Sortu zaizkidanak*, *Auspoa* 112, 1973.

## SAN PERMIÑAK

- 1/ Bere garaian iritxi zaigu  
beti bezela San Permin,  
pesta-zale dan jende guzia  
etxetik mugitu dedin.  
Sasoi betean dauden gazteak  
jakingo dute zer egin,  
egun batzutan Iruña aldean  
ezta izango atsegin!
- 2/ Batzuek sano ikusten dira,  
geientsuenak edanda,  
kalerik-kale salto ta brinko,  
gogoak ala emanda.  
Lo egiterik eztago berriz,  
etengabeko parranda,  
guk obe degu askozaz ere  
errian geldi egonda.
- 3/ Erropaz txukun jazten bazera  
ezta paltako zikiñik,  
ardoz bustitzen bazaituzte ere  
ez egin marmar txikiñik.  
Begiak sarri itxi bear guk  
ura ikusi eziñik,  
urtez aurrera goazenontzat  
an eztago zer egiñik.
- 4/ Gazte lardenak indartsu daude  
sasoian da kemenean,  
ta erakusten dute garbiro  
San Permin datorrenean.  
Gu gorputzetik nagitu gera,  
baña burua lanean,  
danak zoratu dirala uste  
geu zintzotu geranean.
- 5/ San Permin jaiak ospetsu dira  
orain baño lenagotik,  
eta oietzaz mundu guzian  
itzegiten da gogotik.  
Egun auetan bertan naikoa  
izaten degu zorotik,  
baña geu baño areagoak  
ez ote datoz kanpotik?
- 6/ Ezta dudarik, geure akatsak  
baditugu euskaldunak,  
baña beatza jaso dezala  
pekatu-rikant ez tunak.  
Emen bakarrik ez gera nunbait  
burua galtzen degunak,  
or atzerriko lurretan ere  
txori danak mokodunak.
- 7/ Jan-edan egin, ondo jolastu,  
ezta okerrik orretan,  
gazteak ori egiten baitu  
amaiketetik amarretan.  
Premirik gabe ez inor sartu  
orko arrixku txarretan,  
inork bizirik utzi ez dezan  
zezenaren adarretan.
- 8/ Beldurgarritzko abia biziz  
orrenbeste animali,  
gorputzez sendo, indarra gañez,  
aurrekaldean adar bi.  
Osasun eder ori ez jarri  
ari batetik zintzili,  
oiekin ezta jolasik eta  
urrutitxotik ibili.

9/ Ondo ibiltzen, ondo jolasten,  
egin zuen alegiñak,  
sasoi dan arte atera kontu,  
gero badatoz eziñak.  
Biotz-biotzez opa ditut nik  
ordu alai, atsegiñak,  
okerrik gabe igaro danok  
Iruña'ko San Permiñak.

*La Voz de España*, 7-VII-1968.

*Zeruko Argia*, 1968-VII-28.

*Sortu zaizkidanak*, *Auspoa* 112, 1973.

## «HUMANAE VITAE»

- 1/ Aspalditxoan pildora batek  
aitamen pranko izan du,  
jende geiegi bazterretan da  
oker au nai zan zuzendu.  
Mundu guzia zai zegon eta  
oraindik etzan berandu,  
ta Erroma'ko Aita Santuak  
erabakia eman du.
- 2/ Artzai burua or mintzatu da  
zerutar argiz beterik,  
eztagokigu esan duana  
gogoratzea besterik:  
Jaungoikoaren lege santua  
eztagola zapaltzerik,  
katolikoak eztaukagula  
pildora ontzat artzerik.
- 3/ Buruan zeuzkan Aita Santuak  
Iparra eta Egoa,  
zer gertatzen dan ezagutzen du,  
angoa ta emengoa.  
Okerra zuzentzeko badauka  
zaletasun da gogoia,  
baña badaki egin leikela  
beste bat aundiagoa.
- 4/ Ondotxo zekin marmar aundiak  
sortu bear zituela,  
lenez gañera etsaia pranko  
inguratuko zuela.  
Jakin ezkerok pildorak libre  
erabili ditezkeela,  
ez al giñake asiko danok  
animaliak bezela?
- 5/ Iru-lau urtez buru-puskatzen  
etengabe gau ta egun,  
Jainkoak daki gai au dala-ta  
zenbat lo eder galdu dun.  
Guk eztaukagu zer itzegiñik,  
ta berriketan ez jardun,  
egizko katoliko bagera  
burua makur dezagun.
- 6/ Gozotasun da atsegin oiek  
sarritan datoz gogora,  
gaur giro ona ta biar txarra,  
aldakorra da denbora.  
Errenditu nai baldin badegu  
Eleizak esandakora,  
euskaldun senar-emaztientzat  
alperrik dago pildora.
- 7/ Lengo legeak aurrera ere  
jarraituko dute berdin,  
bein artu gendun uztarriritan  
nolanai ezin aldegin.  
Ez jakiñean ez gaude iñor,  
orra Eleizak itzezin,  
ortik aurrera kontzientziak  
aginduko du zer egin.
- 8/ Kristoren ordezkari argiak  
gartsuki itzezin digu,  
dudak aidean zebiltzan baña  
or desegindu zaizkigu.  
Legezko bide zuzena zein dan  
danok ondo badakigu,  
errudunak geu izango gera  
segi nai ezpadiogu.

*La Voz de España*, 4-VIII-1968  
*Zeruko Argia*, 1968-VIII-11  
*Sortu zaizkidanak*, *Auspoa* 112, 1973.

## ARRANTZALEAK

- 1/ Gure jendea atun arrantzan  
oso dotore asia,  
gero eziña etorri zan da  
danok naigabe bizia.  
Orain poliki ari zerate,  
ala nago ikasia;  
negu luzea badator eta  
ekarri al dan guzia!
- 2/ Nola langille ta nekazari,  
norbere sallari eldu,  
iñoren izerdirik ez bedi  
nolanai alperrik galdu.  
Itxas-gañean arrixku aundiz  
pasatuaz ainbat ordu,  
lana egiten duen guziak  
bere saria bear du.
- 3/ Antxo ta sardin, legatz, bixigu,  
atuna eta abarra,  
zuen eskutik datorkiguna  
ez da klase bat bakarra.  
Itxasoari kentzen zaiona  
ain janari zerutarra,  
o, arrantzale maitagarriak,  
badegu zuen bearra!

*Zeruko Argia, 1968-XI-3.*

## DONOSTI'KO ARTZAI BERRIARI

- 1/ Berealaxe jakiñak gera,  
ta berria zein pozgarri,  
moldezko letraz azaldu dana  
guk bai gogoz irakurri.  
Artzai aulkia utsik zegoen,  
eta Erroma'k zu jarri,  
gure barruti eder ontara  
biotzez ongi etorri!
- 2/ Gizonak gera eta badegu  
seta ezpada lañeza,  
ematen diran agindutara  
sari makurtu nai eza.  
Batzuentzako zuria dana,  
beste batzuentzat beltza,  
danekin ondo asmatzen beti  
ez da izango erreza.
- 3/ Gipuzkoa'ko eleiz kontutan  
laister zu nagusi bakar,  
artu zazula zeruetatik  
bear dezun ainbat indar.  
Menderatzea opa dizut nik  
ainbat denborale zakar,  
maitatzen degun baño geiago  
maita dezagula alkar.
- 4/ An edo emen berri mingotzak  
badauzkagu egunero,  
maitasunean oztuak gaude  
ta zitalkeria bero.  
Alkarganako gorrotu biziz  
biurturik erdi ero,  
kristaurenik zer daukagu guk  
izena kendu ezkerro?
- 5/ Euskaldun zera gu bezelaxe,  
gañean dezu ordua,  
berealaxe artuko dezu  
artaldearen kargua.  
Izar dizdiraz argitu bedi  
berriro gure zerua,  
Artzai onaren agindutara  
makur dezagun burua.

*La Voz de España*, 1-XII-1968.  
*Zeruko Argia*, 1968-XII-8  
*Sortu zaizkidanak*, *Auspoa* 112, 1973.



## EZKONTZA BAT

Joan dan larunbatean, Azpeiti'ko Loiola'n, ezkontza bat izan zan. Migel Berekoetxea, gorritiar aizkolari ospetsua, aldatua da bizikeraz. Joan dan larunbata ezkeru, badu bere emaztea. Migel Berekoetxea ta Elbira Ibar senar-emazte dira.

Elbira, Joxe Manuel Ibar *Urtain*'en arreba da. Berekoetxea'k, lagun aizkolaria zintzo gonbiratu zituen ezta bazkariara. An agurtu genituen Astibia, Arria, Usategieta, Yurrebaso, Sestao, Armaldo ta abar. Ainbat erreguri erantzunaz, bazkal ondoan bertso bakar batzuek kanta bearra izan nuen. Era ontan ziran, gutxi gorabera:

1/ Bi txoritxo sartuak  
ditugu kabira,  
luzaroan bezate  
eguzki dizdira.  
Igo diranean gaur  
aldare erdira,  
zein zoragarri zeuden  
Migel da Elbira,  
ezin asper ziteken  
oieri begira.

2/ Orra or ezkontzaren  
lokarriz josiak,  
zer gorabera dauden  
gaude ikusiak.  
Iñoiz egualdi onak,  
iñoiz erauntsiak,  
badira une goxo  
ta une gaziak,  
alkar maitatuz pasa  
datozen guziak.

3/ Zorionez ziñaten  
gaur uztartzekoak,  
Migel eta Elbira  
txit biotzekoak.  
Lagun dezaizutela  
gure Jaungoikoak,  
seme-alabak badira  
garaiz sortzekoak,  
izan ditezela aiek  
zuen antzekoak.

*La Voz de España*, 1969-III-19.  
*Zeruko Argia*, 1969-III-30.

## TXAPEL ZANARI

Maiatzaren 2'garren eguna zan; ostirala. Azpeiti'ko eleiz nagusian Txapel bertsolari zanaren illetak. Txapel bertsolaria irurogeitamabost urtetan itzali zaigu. Bertako jendea arriturik zegon bildu zan jendetza ikusita. Gutxitan ezagutu omen dira alako eleizkizunak Azpeiti'n.

Benetako kristaua zan Txapel. Guraso zuzena, lagunartean atsegiña. Argatik maite zuten ezagutzen zuten gutxiak.

Geiegikeririk etzun maite jan-edanean; erretiro txarrik ere ez.

Amaika errialde alaitua zan, bere koñadu Zepai aldamenen zula. Urte mordo batean asko ibili ziran alkarrekin Txapel eta Zepai. Txapel'ek etzun Zepai'k bezelako eztarria. Ondotxo apalagoa zan bozez. Baña artutako gaiari zuzen segitzen zion bertsolaria zan; zuzena, arikoa, zabalera gutxikoa.

Loiola'ko Irratiak urtero antolatzen ditu bertsolari leiaketak. Zuzendari ibiltzen zan Txapel. Ala ibili da aurren ere, egun gutxi bitarte. Osasunez gañezka zebillela zirudin Txapel'ek. Ari begiratuta iñork etzizkion emango irurogeitamabost urte. Gazteagoa zirudin ondotxo.

Alkarkako meza izan zan Azpeiti'n, amar-amabi apaiz aldarean zirala. Bertsolariaren seme Don Migel Eizmendi meza-emale.

Eskeintza denboran, Lizaso, Agirre, Lazkano, Gorrotxategi ta zuen serbitzari onek bertso bana kantatu gendun. Eleizkizun ukigarria benetan Txapel zanaren animari eskeñia!

1/ Garaia izan eta  
zugaitzak loratu,  
lengo urrentxindorrek  
ez digu kantatu.  
Udaberri batean  
au nola gertatu?  
Txori abeslaria  
betiko mututu.

2/ Zer gerta zaio aurren  
udaberriari?  
Txapel, nolatan utzi  
zuk utsune ori?  
Nunbait bere ondoan  
nai zaitu kantari,  
ezetzik ezin esan  
Jaunaren deiari.

3/ Zure ixiltasunak  
goibel utzi gaitu;  
baña, txori gazteok,  
zuek ez erdoitu.  
Bertso ta kantu goxoz  
bazterrak alaitu,  
ark utzi du bidea,  
nai dunak jarraitu.

4/ Ar zazu atsedena,  
merezi baitezcu,  
emengo kantu lana  
bukatua dezu.  
Lengo lagun zarren zai  
egongo zera zu,  
aurki arte, lagun zar,  
laister or gaituzu!

*La Voz de España*, 1969-V-5.  
*Zeruko Argia*, 1969-V-18.

## EGUZKIA GAIXORIK?

Denbora-igartzalleak, *astronomuak*, ez dira beti zuzen ibiltzen. Aurten eguzkia gaixo gendula esan ziguten. Amaika urte-tik amaika urtera izaten dula gaixo aldia. Aurten tokatzen zitzaiola ta etzula lanik egingo; etzula berotuko. Etzegok toki txarrean! Andra Mari egunez moldatutako bertsoak dituzu auek, irakurle.

1/ Zenbat itzezin oi degun sarri  
ixilik egon nai ezta,  
ainbeste milla preskura billa  
eguzkiari igeska.

Abuztuaren erdian gaude,  
gaur da Andra Mari pesta,  
kosta erriak oraintxe daude  
zearo jendez gañezka.

2/ Jakinduririk asko badago  
baña ez iñor arrotu,  
obeko degu utsegiteak  
apaltasunez aitortu.

Gaixo zegola eguzkia ta  
etzezakela berotu,  
danak sinisten asi ezkeru  
ez al diteke erotu?

3/ Argiak egon ditezke baña  
ez orrenbeste dakiñik,  
aspalditxoan nola gabiltzan  
esan nai nuke garbi nik.  
Goizean goizez izerdi tintaz  
gorputz dana blai egiñik,  
eta gabean oieratuta  
begirik itxi eziñik.

4/ Denbora gutxiz sendatua da  
lenagotik gaixo zana,  
egundo baño bero geiago  
bialtzen baitu gugana.  
Eguzki, izar, goi eta beiak  
bere mende dituana,  
badago Norbait gizonak baño  
jakintsuagoa dana.

5/ Beroak bero, legorak legor,  
danak pasako al dira,  
leku geiago izango degu  
emendik egun gutxira.  
Laister aldegin bearra dauka  
bakoitzak bere tokira,  
berealaxe jarriko gera  
udazkenari begira.

*Zeruko Argia*, 1969-VIII-24 eta 31.

## IRLANDA IPARREKO NASKETAK

- 1/ Illuntasunak inguratzen nau,  
negarra daukat begian,  
katoliko ta protestanteak  
inpernu baten erdian.  
Gerra bizian ikusten dira  
jun daneko aspaldian,  
ez dakit nola gerta leiken au  
ogeigarren gizaldian.
- 2/ Kontzilioko deia ez al da  
bear bezela entzuna?  
Gizonak nola ematen dio  
orrelako erantzuna?  
Erruki gabe alkar iltzen or;  
nun da, ordea, zentzuna?  
Ikusten danez, ez dago urre  
kristau danon batasuna.
- 3/ Arrai aundiak diran tokian  
txikirik ez leike bizi,  
era etortzen zaien guzian  
al dan azkarren irentsi.  
Protestanteak ezin dutela  
katolikorik ikusi,  
justziaren arrastorik ez,  
ta gogorrena nagusi.
- 4/ Dana erre ta dana kixkali,  
gorrotoari eragin,  
odol gorritan kaleak busti,  
Irlanda'n ez da atsegin.  
Indar geiago daukatelako  
nai duten guzia egin,  
eskubidez ta obligazioz  
danok ez al gera berdin?
- 5/ Ez gendun uste gerta zeikenik  
orren gauza itxusirik,  
Kristotzaz danak sinisten eta  
alkar ezin ikusirik.  
Berdin pentsatzen ez duenari  
ez uztezkero bizirik,  
zeiñek maitatu ote lezake  
olako «demokrazirik»?
- 6/ Guziongatik odolustua  
gurutze batean Kristo,  
oraindik nola egon diteke  
orrenbeste grifia gaizto?  
Ainbat gorrotu, ainbat seta txar,  
ainbeste odol arrasto,  
illargiraño joan gabe emen  
badaukagu lanik asko.

*La Voz de España*, 24-VIII-1969.  
*Zeruko Argia*, 1969-IX-7.  
*Sortu zaizkidanak, Auspoa* 112, 1973.



Kantari.

## TXEKO ERRIAREN UZTARRIA

Aspalditxoko egunetan Txekoeslobakia'ra begira dago mundua. Bete berri da urtebete txeko erria errusitarrek zanpatua izan zala.

Ez daude aztuta derriorrezko uztarri-pe ortan daudenak.

- 1/ Irripar goxoz zeuden ezpañak estali dira negarrez, uztarri latzak estutzen zaitu, maite ori, zoritxarrez. Txeko erria irakiten gaur berebiziko asarrez, urtebete da errusitarrek sartu zirala indarrez.
- 2/ Ordu bakarrak izan zenitun itxaropenak galtzeko, erruki gabe zeuden etsaiak zure sailletan sartzeko. Zer motibo zan erri jator bat ankapean zapaltzeko? ez al zeukaten eskubiderik etxea gobernatzeko?
- 3/ Nun dira justizian almenak, nun dira zuzentasunak, erri bateri erakusteko olako estuasunak? Txiki ta aulak aspalditxotik gaude pikotara junak, nai dun guzia egiten baitu indarrik geiena dunak.
- 4/ Egiñak egin, or konpon esan, eta etzaie ajola, noiz arteraño jarrai bear du mundu sastar onek ola? Otso goseti oientzat beti arkumetxoen odola, ontako al da jakinduria, ontako al da eskola?
- 5/ Txeko erria uztarripean lengo esklaboen pare, besterik ezin itxaron leike indarra jartzean lege. Gizonak ez du aurrerakorik egiten nunbait batere, orain bi milla urte zan bezin maltzurra baita gaur ere.

*La Voz de España*, 30-VIII-1969.  
*Zeruko Argia*, 1969-IX-7.  
*Sortu zaizkidanak, Auspoa* 112, 1973.

## XALBADORREN OMENEZ

Agorra'ren 21'garren egunean, Donosti'n Xalbador bertsolari aundiari omenaldi bero ta sutsu bat eskeñi genion.

Ordurako moldatu nitun bost bertso apal dijoazkitzute.

- 1/ Piztu da biotzetan  
maitasun su-garra,  
zein txori kantaria  
dan urepeldarra!  
Egalari degu gaur  
gure lagun zarra,  
Donosti argitzera  
datorren izarra.
- 2/ Nork daki orren gisa  
kanpoaren berri?  
Bazka onaren billa  
eztu gutxi korri.  
Baso, mendi, erreka,  
ardi, abelgorri,  
danak esaten zerbait  
gure Xalbadorri.
- 3/ Egun santu batean  
bertsolari jaio,  
doai arrigarri bat  
nabarmentzen zaio.  
Mingain utsak ezpaitu  
geiegi balio,  
Xalbadorri biotzak  
itzegiten dio.
- 4/ Kantu ta txistu gozoz  
gañetan nagusi,  
izadiarekin bat  
egiñik an bizi.  
Sasi ta larrak ere  
eztitan igurtzi,  
bertsoa zuk biurtu  
diguzu poesi.
- 5/ Gipuzkoa zurekin  
aspalditxo zordun,  
eztakit gaur zor ori  
ordainduko degun.  
Ondo konturatzeko  
ordua bagendun,  
artzai bertsolariak  
zenbat balio dun.

*La Voz de España, 21-IX-1969.  
Zeruko Argia, 1969-X-19.  
Sortu zaizkidanak, Auspoa 112, 1973.*

## ERRETEGI TXAPELDUN

Toki gaztetasunari! Pelotarien txapela Erretegi'k jantzi du. Ezta buru txarrean gelditu. Joan dan igandean bera zan onena. Mendean artu zun lengo txapeldun Atano amargarrena.

Igande berean, *La Voz de España* egunkarian, onoko bertso auk argitaratu nitun:

- 1/ Oso urrean ezpazan ere  
orra eguna iritxi,  
bat izendatu bear zenduten  
eta San Andres berezi.  
Ler egin arte or saiatuko  
zaizkigu il edo bizi,  
galtzerik iñork eztu naiko ta  
biak ezin irabazi.
- 2/ Gerri, beso ta anak bezela  
burua ere askatu,  
tanto politak nun sartu leizken,  
al badezute, asmatu.  
Zuen arteko gizatasunik  
gaur eztedilla puskatu,  
alegin danak egin ezkeru  
geiago ezin eskatu.
- 3/ Jokalariak beren aldetik  
or konpondu ditezela,  
nik pentsatzen det zuek askozaz  
goragotik zaudetela.  
Ta nere naia agertuko det  
oitura dedan bezela:  
geiena danak jantzi dezala  
pelotarien txapela.

*La Voz de España*, 1969-XI-30.  
*Zeruko Argia*, 1969-XII-7.



## UDAZKENA

Joan da igandean San Andres eguna gertatu zan, ain zuzen. Iru bertso auek moldatzeko egokiera eman zidan:

- 1/ Bete-betean oraintxe gaude,  
anaiok, udazkenean,  
len berde ziran zugaitz ostoak  
txit oritu diranean.  
Mendiak zuriz jantzi zaizkigu  
ordua eldu danean,  
gaur azaroak azkena du ta  
negua degu gañean!
- 2/ Eguzki, euri, txingor ta elur,  
danak maite zaituztegu,  
jaio ezkeroz zuek ikusten  
ondo oituak gaude gu.  
Ala komeni zaigu danori,  
argatik eskatzen degu,  
egin dezala udan udara  
ta gero neguan negu.
- 3/ Elur zuriak mendi gañean  
artua du bere mailla,  
euri, aize ta trumoi-tximista  
laister a zer ixkanbilla!  
Zuen zaindari San Andres ona  
pixkat erruki dedilla,  
ta mutilzarrok asi zaitetzte  
berogarriaren billa.

*La Voz de España, 1969-IX-30.  
Zeruko Argia, 1969-XII-7.*

## XENPELARREN OROIZ

Errenteriko *On-bide* aretoan, Xenpelar il zaneko eungarren urtea betetzean, bersolari-saio eder bat egin zan. Bertsolari lagunak lanari ekin aurretik, onoko bost bertso auk kantatu nituan:

Doña: *Aizak i, mutil mañontzi...»*

- 1/ Mendi gain danak zuritu,  
eztago zertan arritu,  
Errenderi'tik datorren deia  
nork eztu aditu?  
Bertsolariok an bitu,  
erria kantuz alaitu,  
onore auk Xenpelar zanak  
mereziak ditu.
- 2/ Artu zun betiko loak,  
eun urte pasatakoak,  
baña ainbat lan daude bizirik  
ark egindakoak;  
kantatu bertso sendoak,  
biotza ikutzeakoak,  
saia zaitezte izaten danok  
aren antzeakoak.
- 3/ Utzi naigabe ta penak  
azaldu gaur gozamenak,  
zuri eskeñi nai dizkitzute  
bertsorik onenak;  
orra landare lardenak  
zu goraltzeko daudenak,  
zuk utzitako bide beretik  
jarraitzen dutenak.
- 4/ Danok, maixu, zure deira  
bilduak Errenderi'ra,  
ai, eun urtean emen mudantza  
asko izan dira.  
Poz bat badegu sikira,  
Xenpelar, jarri begira:  
zuk ain maitea zendun izkuntza  
oraindak bizi da.
- 5/ Tristuraz gaude beterik,  
au eztago ukatzerik,  
gaur edo biar biziko al da  
zuk zendun izkerik?  
Ez nai guk au ikusterik,  
ezpaldin bada euskerik  
Euskalerrriak eztu izango  
izena besterik.

*La Voz de España*, 7-XII-1969.  
*Zeruko Argia*, 1969-XII-21.  
*Sortu zaizkidanak*, *Auspoa* 112, 1973.

## KAMIOETAKO JENDE GALTZEA

- 1/ Gertatzen diran gauzak aitatu  
nai ditut berealaxe,  
jaunak, atzera ez ote goaz  
kangrejuak bezelaxe?  
Kamioetan alkar jotzen or  
ainbeste moto ta kotxe,  
etxetik irtetzeko beldurrez  
jarriak gaude oraintxe.
  
- 2/ Danok presaka, danok azkar nai,  
motorrak jarri garretan;  
iñoiz edari geitxo sartuta,  
gañera ordu txarretan.  
Bizi geranok eriotzari  
beti baigauke zorretan,  
oiean ainbat kristau iltzen da  
gaur kamio bazterretan.
  
- 3/ Bide zabala zipriztindurik  
kristauen odol beroa,  
il bear triste errukarria  
ez ote da emengoa?  
Ainbat berri txar jakinda zeiniek  
kamiorako gogoia?  
Gripea txarra degula baña  
beste au okerragoa.
  
- 4/ Zer balio du zuzen joateak  
oker badator bestea?  
Umeak berdin galtzen dira-ta,  
zarra bezela gaztea.  
Lastimagarri dala uste det  
ola bizia uztea,  
kotxea baño ez al da obe  
mando zar bat erosteia?

*La Voz de España*, 14-XII-1969.  
*Sortu zaizkidanak*, *Auspoa* 112, 1973.

## BIZIMODUA GORA

- 1/ Jornalak altxa bear dirala  
len baño zerbait gorago,  
oso bidezko dala uste det,  
baña ni beldurrez nago.  
Esaidazute, lagun maiteok:  
gauza onik ote dago,  
bizimodua igotzen bada  
soldata baño geiago?
  
- 2/ Sekula baño palta geiago  
egiten du gaur diruak,  
iges dijoaz berealaxe  
asko kostata bilduak.  
Derrigor jarri bearrak daude  
prezioentzat frenuak,  
galtzak bete lan artu duela  
uste det gobiernuak.

*Zeruko Argia, 1969-XII-28.*

## JAIK ONDO IGARO

- 1/ Begiratu utsakin  
 Belen ingurura,  
 pozaren ordez sartzen  
 zaigu gaur trixtura.  
 Maitasuna ekarri  
 zendun zuk mundura,  
 ta gu irauli gera  
 danok gorrotura,  
 orregatik gabiltza  
 gabiltzan modura.
- 2/ Zure dotrin ederra  
 bota ankapera,  
 amorru biziz goaz  
 alkar ondatzera.  
 Umillak zapalduta,  
 arruak aurrera;  
 izena degu baña  
 kristauak ez gera,  
 mingaña batera ta  
 biotza bestera.
- 3/ Beartsu jaio ziñan,  
 ta beartsu bizi,  
 ta guk lezio ori  
 eztegu ikasi.  
 Geronek nai genduke  
 jaun eta nagusi,  
 gurutzeko odolez  
 ginduzun erosi,  
 zuk ainbat supritzerik  
 ez gendun merezi.
- 4/ Zure Eleizan ere  
 ainbeste zarata,  
 gazte ta zarrak ezin  
 konpondu dira-ta.  
 Besteari erantsi  
 norberaren palta,  
 geure bidetik gaude  
 danok aterata,  
 Jauna, barka zaiguzu  
 argalak gera-ta.
- 5/ Itxaropen pozgarriz  
 barren oiek bete,  
 urak beren bidea  
 billatuko dute.  
 Aurtxo Jaungoiko ori  
 biotzetik maite;  
 onezkero ederki  
 aspertu zerate,  
 jaiak ondo igaro,  
 agur, urrenarte!

*Zeruko Argia*, 1970-I-11.  
*Sortu zaizkidanak*, *Auspoa* 112, 1973.  
*La Voz de España*, 1975-XII-24.

## ISIDRO ANSORENA

Berri pozgarri bat jakin det:

Ixidro Ansorena, txistulari maixuari, Donosti'ko «Gizartea» alkartean, soziedean, omenaldi anaikor bat eskeintzera dijoazela.

Zenbat illunaldi eztitu uxatu Ixidroren txistuak!

Zenbat alaitasun sortu ote ain urte luzetan, nola plaza, kale ta barrunbe aundietan, teatru ta gañontzekoetan!

Ona emen, urteak urte, denborak denbora, luzaroan gogoratuko dan deitura bat: Ansorena deitura.

1/ Zein ondo pentsatua omenaldi ori, erri arnasa gorde duan gizonari. Onore ta goralpen maixu aundiari, izketan eragiten zion txistuari.

2/ Plaza, kale, teatru, alderdi danetan, zeru doñuak beti zure ezpañetan. Ansorena deitura ederra benetan! Emen geldituko da urrezko letretan.

3/ Zuk egindako lanez ez gera aztuko, beste batek aurrerik eztizu artuko. Ikasleak etziñun alperrik sortuko, euskal txisturik ez da iñoiz mututuko.

4/ Omenaldi ori da San Martin kalean, gogoan izango da alditxo batean. Ixidro bein pasatzen dalarik atean, «gizon» bat sartuko da zuen «Gizartean».

*La Voz de España*, 13-II-1970.  
*Zeruko Argia*, 1970-II-22.  
*Sortu zaizkidanak, Auspoa* 112, 1973.

## LAJOS ETA TAPIA

- 1/ Euskaldun askok artu naiko du  
gaur Bergara'ko bidea,  
pelotazale zintzoa danak  
badauka eskubidea.  
Kupira gabe azaldu beintzat  
dezuten abildadea,  
onena zein dan jakin naiean  
estu da emen jendea.
- 2/ Zeuen buruak jarri bearra  
era ortako trantzean,  
alkar probatu bear derrigor  
txapelketa bat jartzean.  
Biok aurrera joaterik ezta,  
batek bear du atzean,  
jakintsu paltik ezta izango  
partidua bukatzean.
- 3/ Gero damurik ez izateko  
oraintxe da zuen ordu,  
guk laguntzerik eztaukagu ta  
al dan ondoen konpondu.  
Danok egin nai azken maillara  
irixteko ainbat modu,  
gaurko onenak kontrarioa  
Erretegi izango du.

*La Voz de España, 1970-V-10.*

## KANBOIA'KO GERRA

- 1/ Atzo gaizki bageunden  
orain gaizkiago,  
gaitzak gero ta gero  
indar aundiago.  
Mundutar familian  
lanik asko dago,  
lenago gutxi giñan  
eta aur bat geiago.
- 2/ Gizonek alkarrentzat  
daukagun eskerra,  
batak bestea iltzen  
lantegi ederra!  
Gutxitxo zan Viet-Nam  
aldeko okerra,  
ta orain piztu zaigu  
Kanboia'ko gerra.
- 3/ Gaur amerikanoak  
Kanboia'ri eusten,  
suak indar artzeko  
sasi-larrak pizten.  
Ezta errez bertsotan  
nik adierazten,  
onek zer ondorenak  
ekarri lezazken.
- 4/ Au da bizi eziña  
oraingo munduan,  
ez al gera irtengo  
guziok galduan?  
Bi alderdiak egon  
leizke pekatuan,  
zeiñek antzematen du  
arrazoi nork duan?
- 5/ Nazio indartsuak  
jaun eta nagusi,  
errukirik eztago,  
norbera lenbizi.  
Naiz-eta komunista  
dotriñakin bizi,  
eztabiltz adiskide  
Txina ta Errusi.
- 6/ Nora garamazki gu  
ainbat zoramenek?  
Noiz arte iraungo du  
denborale onek?  
Kontra ta alde egiñaz  
milloika gizonek,  
burua nun nekatu  
badauka Nixon'ek.

*La Voz de España, 1970-V-3.  
Zeruko Argia, 1970-V-7.*



## NEKAZARIAK

- 1/ Lur langillea jarria dago  
berebiziko koleran,  
naiko beldur naiz baserriaren  
azkena urre ote dan.  
Besteren gauzak ondo pagatu,  
bereak merkego eman,  
euskaldun nekazariak ere  
badauka galtzak bete lan.
  
- 2/ Zertako artu lan gogorraren  
ardurak eta ajolak,  
zuk bildutako danak eraman  
bear baditu ujolak?  
Nola eztira irakinduko  
nekazarien odolak?  
Litro esneak baiño geiago  
balio du *koka-kolak*.
  
- 3/ Arren da arren nekazariak  
berea izan dezala,  
ikusi danok bide ontatik  
gutziz oker gabiltzala.  
Danak dakite gaurko egunez  
*Juan Debalde* len il zala,  
esango dute: «Baserri lanak  
nai dunak egin ditzala!».

*La Voz de España*, 1970-VI-14.

## KOSTERA TXARRA

- 1/ Emen bakoitzak igaro bear  
izaten ditu bereak,  
arrairik eztan tokian zertan  
botako dira sareak?  
Ezak berekin izaten ditu  
trixtura ta naigabeak,  
zer udaberri kaxkarra duten  
euskaldun arrantzaleak!
- 2/ Negu beltzean ezta girorik  
itxas-lanetan asteko,  
etxe aldetik ibili bear  
lengo nekeak azteko.  
Gaur egunean bear danakin  
jateko eta jazteko,  
udaberrian zai-zai egonda  
ezer ez irabazteko.
- 3/ Aurtengo ontan arrantzaleak  
trantze larri ta estua,  
irabazirik inondik ezta,  
alde guzitik gastua.  
Emengo urak zearo antzu,  
nun da «antxua preskua»?  
eta Frantzira joan ezker  
kartzelako arrixkua.
- 4/ Jipoi ederra eman du aurten  
ain udaberri kaxkarrak,  
auzo uretan sartu ezker  
oso kastigu zakarrak.  
Kezka bizitan pasatu bear  
munduko urte bakarrak,  
zer estuasun ematen ditun  
egunero jan bearrak!
- 5/ Arrazoi aundiz negarti daude  
arrantzale euskaldunak,  
kostera txarrak berekin ditu  
olako estuasunak.  
San Pedro inguratzen ari da,  
gaiñean dira egunak  
ia antxuaren oker guziak  
ordaintzen ditun atunak.

*La Voz de España*, 14-VI-1970.  
*Sortu zaizkidanak*, *Auspoa* 112, 1973.

## KONTSERBADORE TA LABORISTAK

- 1/ Ingalaterra'ko botazioak  
ots izan dute munduan,  
ai, laboristak eztira irten  
pentsatzen zuten moduan.  
Seguru irabaztea uste,  
gelditu dira galduan;  
kontatu arte ezta jakiten  
boto geiena nork duan.
  
- 2/ Ta gobernuko buru zan Wilson,  
naigabetsu, buruzpera,  
or iritxi da uste etzuan  
egun txar bat ikustera.  
Erria alde zeukalako ta  
gertatu zaio bestera,  
erregiñarengana joan da  
bere kargua uztera.
  
- 3/ Ingles jendeak pakez egin du  
bere boto ematea,  
batzuk irten da besteak sartu,  
ori baita gizartea.  
Kontserbadore taldeak artu  
bost urteko agintea,  
an bai betetzen dala ederki  
erriko borondatea.

*La Voz de España*, 1970-VI-21.

## UDAZKENAREN EDERRA!

- 1/ Irten kanpora, bertso maiteok,  
irten al dan azkarrena,  
nik ondo dakit barrenen preso  
oso gaizki zaudetena.  
Auek giroak! Auek egunak!  
Auxe bada zoramena!  
Euskalerrian udazkena da  
urte sasoirik onena.
- 2/ Beeko ordekek atsegin biziz,  
goietan fir-fir egoa,  
otz berorik ez, dana tamañan,  
ta zer da ederragoa?  
Zerua urdin; eguzki aitak  
jolaserako gogoia,  
eztaietako jantziarekin  
agertzen zaigu kanpoa.
- 3/ Nekazaria langille dago,  
eztu opor egiterik,  
iñaurkin lanak egin bear da  
noiz olako aldarerik?  
Gozamenetan kosetxa jaso,  
laister ganbara beterik,  
azken onak zer balio duan  
eztaukat nik esaterik.
- 4/ Txindurriaren gisan oraintxe  
saia bear egiñala,  
jakiñik orain pillatzen dana  
gero billatuko dala.  
Sinistu beste zerbaitxo ere  
uka ezтитеkeala:  
udazken onak negu luzea  
asko laburtzen duala.
- 5/ Itxas-gizona aitatu nai nik  
beste batzuk aitatzean,  
euskal famili osoa ezta  
alkartuko gaiñontzean.  
Arrantzaleak ezin ibili  
beti burruka latzean,  
atunetako lanak eginda  
laister ditugu etxean.
- 6/ Langille, arrantzale ta artzai,  
dendari ta nekazari,  
danok begira bear diogu  
daramagun bizitzari.  
Egin dan lanak izan dezala  
merezi ainbeste sari,  
aurpegi eman bearra dago  
datorren negu beltzari.
- 7/ Neguak bere aize ta izotz  
elur edo kazkabarra,  
bat eziñean baldin badabil  
atarramentu kaxkarra.  
Langille batek derrigor dauka  
estu ibili bearra,  
bizimodua beti goraka,  
ori dago emen txarra.
- 8/ Gaur janari bat garestitzen da  
ta biar berriz bestea,  
oiñetako ta jantziak berriz  
obe ixilik uztea.  
Ezpada lortzen prezio danei  
galga batean eustea,  
zertarako da jornal pixka bat  
geiago irabaztea?

9/ Iñork sendatu nai baldin balu  
ezagutzen dugu gaitza,  
bestela berriz onek dakarki  
beldurgarrizko ekaitza.  
Zuk bost geiago irabazita  
zortzira igo bizitza,  
ori konpontzen eztan artean  
alper-alperrik gabiltza.

*La Voz de España*, 1970-X-18.  
*Zeruko Argia*, 1970-X-25.

## LAREUNGARREN «ZERUKO ARGIA»

- 1/ *Zeruko Argia*'ren izena  
ainbat lekutan entzuna,  
ezta makala batzuk beren gain  
daukaten eginkizuna.  
Asteroko au berria dala  
irudituko zaizuna,  
ta lareungarren aletxo da  
eskutan artu duzuna.
- 2/ Ainbat urtean aritu giñan  
premizko zala esanez,  
eta euskaldun asteroko bat  
agertu zan zorionez.  
Naiz-eta beti zure gustoko  
janari onik eman ez,  
al dugun dana egiten dugu  
borondaterik onenez.
- 3/ Apaltasuna galdu zan eta  
arrokeria gaillendu,  
alde batera edo bestera  
nai genduke nabarmendu.  
Geu setan gabiltzalako sarri  
bear dan grazia kendu,  
obea egin bear genduke  
alkar artuko bagendu.
- 4/ Baiña noiz arte gu, euskaldunok,  
begi ederrok itxita?  
noiz arte gorrotoaren mende,  
pake-bideak utzita?  
Lau katu izan, konpondu ezin,  
danok burrukan asita,  
arriak negar egin lezake  
gure martxa ikusita.
- 5/ Ez ote dira bein gozatuko  
gure arteko zauriak?  
Betiko artu ote genitun  
jokera negargarriak?  
Illuntasunik etzuan bear  
gure *Zeruko Argia*'k  
asterokoak eztu errurik,  
geu gera pekatariak.
- 6/ Ez gendukan guk zertan aldendu  
jatorrizko artaldetik,  
baiña gutxien uste danean  
ekaitza da nunbaitetik.  
Oso gaiztoa dugu oraingoz  
joaten bide batetik,  
al dan guzia egin dezagun  
bakoitzak geron aldetik.
- 7/ Negargurea datorkit sarri,  
ez naiz, ez, bizi gustora,  
txorakeritan ari baigera  
alperrik galtzen denbora.  
Gaur, zorigaitzez, gure artean  
ezin-konpondu asko da,  
denborarekin urak sartuko  
al zaizkigu arrastora.
- 8/ Seta gaiztoak ez beza artu  
neurritz kanpoko indarrik,  
denborak joanda gero, berandu  
ez egiteko negarrik.  
Beste guziak errespetatzen  
ikasi zuan Basarrik,  
baiña neronek ez tut ikusten  
*hatxe* letraren bearrik.

- 9/ Berdinu premi izugarrian  
badaude amaika tontor,  
ondo giñake egun orixe  
al dan azkarren baletor.  
Patxaran egin bear da lan au,  
ez presaka ta derrigor,  
batasunaren kontra dagonik  
eztut ezagutzen iñor.
- 10/ Onez eztugu ezer egin nai,  
baizik eta gogorrear,  
grña txar danak dantzan or dabiltz  
sekulako indarrean.  
O, Euskalerrri, bein bear eta  
gaur ere zoritxarrean,  
sakabanatu egin baigera  
bateratu bearrean.
- 11/ Gizatasunak zokoratuta  
umekeriak mantentzen,  
beste batzuek gure kontura  
bapo gozatu ditezen.  
Gu zalaparta bizian eta  
etsaia parrez, gizentzen,  
zentzu pixka bat baldin badugu  
alkarganatu gaitezen.
- 12/ Anai maiteok, danon artean  
ondu dezagun giroa,  
*Argia*’rentzat dijoala gaur  
gure zorion beroa.  
Uskeri danen gaiñetik artu  
lan egiteko gogoa,  
asteroko au agertu dedin  
gero ta ederragoa.

*Zeruko Argia*, 1970-XI-1.  
*Sortu zaizkidanak*, *Auspoa* 112, 1973.

## ZORIONEKO MODA

- 1/ Sortu giñan bein batez mundu ontarako, onezkero ez gaude. oso luzaroko. Zorioneko moda auek diralako, ikusten ari gera gorabera pranko.
- 2/ Urte gutxian bada mudantza galanta, zer da emakumeak dabilkian planta? Gertatzen ari dana lotsagarri da-ta, jendeak txoratzeko eztu asko palta.
- 3/ Erakusten dituzte saillik geientxonak, bularrondo ta izter, anka ta belaunak. Beste batzuek berriz estalgarri onak, lurrean arrastaka dituztela gonak.
- 4/ Bada zer ikusia gure begientzat, iñor ezta arritzen, danak eman ontzat. Tellatu ta bodega dauzkate mugatzat, erdiko bizitzarik eztago oientzat.
- 5/ Lengoan au esan dit auzoko mutillak: «Malizi asko dute gaurko neskatillak. Moztuko lituzteke gona oien maillak, politak balituzte beren pantorrillak».
- 6/ Udako eguzkitan ezta izaten otz, berotzen duanean artzen baitute poz. Berdin zaie jaztea oso luze edo motz, jendeak begiratzen badiote zorrotz.
- 7/ Urtetikan urtera zabartuz galanki, lengo ate itxiak bai bapo ideki. Danak larrugorrian ager leizke aurki, zer ikusteko gauden Jaungoikoak daki.
- 8/ Zerbait kargu artuta arro jartzen dira, «atzera bizi zera» bota aurpegira. Ikaratuta bizkor berriz lur azpira gure aiton-amonak piztuko balira.

*Aranzazu, 1970-XI.  
Sortu zaizkidanak, Auspoa 112, 1973.*



## ARANTZAZU TA URBIA

Amar eguneko atsedenaldia, oporralditxoa, urtearen buruan.

Nora jo aizeberritzeko?

Nik artu dut nere tokia. Iru urte segirakoetan Arantzazu izan da nere jo-muga. Andra Marik nai dezala aurreruntz urte askotan alaxe izatea.

Ta... bertsoz eman ditzadan nere kili-ma goxoak.

1/ Euskalerriko izar ostatu  
zaitugu zorionean,  
illunak eztu or zer egiñik;  
beti argitasunean.  
Zeiñek goraldtu ote zindezke  
merezi duzun aiñean?  
Beste mundu bat aurkitzen dut nik  
Arantzazu'ko gaiñean.

2/ Goi-Erregiñak zuan gogoan  
zu ala begiz jotzeko,  
guk, euskaldunok, gaur egunean  
etzauzkagu, ez, saltzeko.  
Imanak doai aparta oi du  
burnia inguratzeko,  
Arantzazu'ko Amak ere bai  
danok bereganatzeko.

3/ Gustoko toki bat aukeratu,  
gaiñontzeko danei «miau»,  
oitura zarra da guziz eta  
oraindik ere badirau.  
Nerea ezttu ukatuko nik,  
gain orrek lilluritzen nau,  
tximixta bezin azkar joan zaizkit  
amar egun da amar gau.

4/ O, Arantzazu egun batean  
indartsu erne zitzaigun,  
ekaitzak eztu or almen asko;  
ori bai lore usaidun!  
Ura ezean orko berririk  
iñork jakingo ez gendun,  
Baltzategi'ko artzai gazteak  
zer mesede egin zigun!

5/ Ama ezti zai dagolarik,  
Argana lenengo bizkor,  
ondoren gero, mendirik-mendi,  
irten gindezke saltakor.  
Leize ta arkaitz, gaillur, ordeka,  
ardi, zaldi edo beor,  
beste tokitan aurkitzen eztan  
zerbait aurkitzen dugu or.

6/ Aizkorri aundiaren oiñetan  
zabalune bat etzana,  
esaidazute, zein euskaldun da  
noizpait iritxi eztana?  
Zer edertasun paregabea  
duzun Jainkoak emana,  
Urbia gaiñaz ezta aztuko  
bein ezagutzen duana.

7/ Begientzako zer gozamina,  
au ikuspegi bikaiña!  
Lizardi batek bezela maita  
bagezeza mendi gaiña.  
Gazte sasoiko batek badauka  
nora aldatua oiña,  
ortxe dauzka zai Urbia eder,  
Aizkorri eta Aloña.

8/ Zu, Arantzazu, bai benetako  
euskaldun Paradihoa,  
bertso motelen bidez etzaitut  
bear ainbeste jasoa.  
Mendirik-mendi, alai igaro  
ondoren egun osoa,  
ostatu ona jan-edateko,  
ta gabea lo gozoa.

9/ Oñaztar eta ganboatarren  
denboretan bezelatsu,  
guk, euskaldunok, uskeri batez,  
gaur aixa artzen dugu su.  
Orduan oso bearrezkoa  
izan bazan Arantzazu,  
Ama maitea, berriro danok  
adiskidetu gaitzazu.

*Arantzazu, 1970-XII.  
Sortu zaizkidanak, Auspoa 112, 1973.*

**1971 - 1980**

## BASERRI BAT GUTXIAGO

Baserri bat gutxiago Gipuzkoa'n. Beste ainbat eta ainbat bezela, suak jo erazi dio beia; suak ondatu ta desegin du. Aia-ko Altzola baillarako Etxeberri baserria duzute oraingoa. Ilbeltzaren 11'garren egunean, arratsaldéko ordubat eta erdiak inguruan, zan okerra, Ez nolanaiko okerra ere! Inor konturatu orduko, berebiziko indarra artu suak. Aize aundia gertatu, ala bearrez. Ezer egiterik ez familiakoak. Etzuan merezi. Biziak galtzeko arrikkua besterik ez.

Amazazpi ganadu buru zeuden Etxeberri baserrian. Oietatik amabi buru galduak dira; erreak, kixkaliak. Idiparea ikullutik kanpora zan. Argatik salbatu ere. Iru beik egin zuten erioan ikullutik irteteko modua. Aietako bat naikoa errea, baiña ateratzeko moduan izango al da noski.

Ez da nolanaiko familia Etxeberri baserrikoa. Amalau seme-alaba, ta oraintxe amabosgarrenaren zai.

Ezertxo gabe gelditu dira, soñean dituzten erropa zarrak izan ezik. Mueble, jantzi, oiñetako, lan-tresna, labore... danak galduak. Goian zerua ta beian lurra. Berri-berriro asi bear bizimoduari aurpegi ematen. Zeren pozarekin?

Ogeitalau urtean bi baserri erre zaizkio. Nebera izeneko baserrian jaio, azi ta bizi zan. Suak irentsi zuan Nebera. Gero, Etxeberri baserrian jarri zan bizitzen. Esan dizutet zer gertatu zaion.

Bolara beldurgarria da oraintxe. Errezilgo Munain lenengo. Donosti'ko Ibaeta baillaran Amezketa-borda baserria urrena. Orain Altzola'ko Etxeberri. Ez daukagu besoak gurutzetuta egoterik. Altzola'ko famili au ez dago orrela uzterik.

1/ Txarrerako etsaia  
etsai indartsua,  
Altzola baillarak gaur  
inpernu kutsua.  
Baserriak ondutzen  
dago gogotsua,  
zenbat kalte egiten  
ari zaigun sua!

2/ Urtetako izerdi,  
neke ta jardunak,  
suak erruki gabe  
irentsi ditunak.  
Gaur mixeri gorrian  
antsika lagunak,  
errukitu gaitezen  
biotzik degunak.

3/ Altzolan Etxeberri  
benetan arlote,  
ango bizilagunak  
negar dariote.  
Ondasun danak suak  
kendu dizkiete,  
soñneko zarpa zarrak  
besterik ez dute.

4/ Erabat ondatzeko  
goiak eta beak,  
ganadutan egiñak  
baditu bereak.  
Ikulluko kalteak  
kalte asarreak,  
bei ta zekor amabi  
badira erreak.

5/ Famili ortan sarri  
bazan ugalmena,  
frutu berriak bata  
bestean urrena.  
Nola geldituko zan  
amaren barrena?  
Laister izateko du  
amabosgarrena.

*La Voz de España*, 1971-I-17.

*Zeruko Argia*, 1971-I-24.

## NEKAZARIAK ASARRE

- 1/ Kopeta beltzarekin  
milla nekazarik  
ezin onartu dute  
oraingo martxarik.  
Oso asarre daude,  
ez da or txantxarik,  
ez daukate gaiñera  
arrazoi faltarik.
- 2/ Prezioak goraka  
ez dijoaz mantso,  
gaur zortzi pagatua  
bostean zan atzo.  
Beurak egindakoa  
merke saldu oso,  
modu ortan bururik  
ezin leike jaso.
- 3/ Esnearekin ere  
komeri larriak,  
zenbat neke alperrik  
gaur nekazariak.  
Aldatzen ezpadira  
lege galgarriak,  
derrigor ustu bear  
gure baserriak.
- 4/ Gure nekazaria  
antsiz eta miñez,  
bizimodurik emen  
atera ezíñez.  
Zorrak baldin badatoz  
lanaren ordaiñez,  
pazientzi-neurriak  
egingo du gaiñez.
- 5/ Artzen dana garesti,  
merke eman zeurea,  
lanean jarraitzeko  
nork du balorea?  
Aldatu dezatela  
lenbailen legea,  
bizitzeko bear du  
bakoitzak berea.
- 6/ Zuen lanak saria  
jaso bear dute,  
eta jo beldur gabe  
bear ainbat ate.  
Ez dago izaterik  
beti «etxekalte»,  
ortzak erakustera  
beartu zerate.

*La Voz de España*, 14-III-1971.

*Zeruko Argia*, 1971-III-21.

*Sortu zaizkidanak*, *Auspoa* 112, 1973.

*Goiz-Argi*, 1974-XI-13.

## PAKISTAN

- 1/ Gu bizi geran mundu koxkor au okertzen gogor ari da, gorrotu beltza nagusitu da maitasuna deseginda. Bazter guziak alkar txikitzen pakerik egin ezinda, orain Pakistan ikusten dugu odolez gainez eginda.
- 2/ Nigeria ta Biafra ere oraindik ez dira aztu, gaur Pakistan'go burrukarekin iñor ez diteke poztu. Beldurgarrizko inpernu artan nunbait su guziak piztu, ikusi gabe zer gertatzen dan ez omen leike sinistu.
- 3/ Beste nazio aundi bat ere saltsan ez ote sartuko? Alde batera zailla da, baiña ez nintzake arrituko. Estu ta larri or ikusten da zer erabaki artuko, India sartzen bada tartean surik ez da txikituko.
- 4/ Erlakiztena aunditu da-ta gutxi palta du lertzeko, ordua dala uste du askok erabaki bat artzeko. Ta Indiari au dio Txinak: zentzurikan ez galtzeko, zer egitera dijoan ondo kontuak ateratzeko.
- 5/ Vietnam-darrak ainbat urtean gerra bizian daudenak, juduak eta arabetarrek alkar galdu nai dutenak. Basati batzun antzera danok odol-egarriz gaudenak, onetarako ote ditugu oraingo aurrerapenak?
- 6/ Geure buruak Jainkotzat egin, griña txar danak gailendu, etxera ere obe pixka bat begiratuko bagendu. Geroni txarrak geran bitarte mundurik ez leike ondu, gu, euskaldunok, lau katu gera ta ezin gera konpondu.
- 7/ Errespetu ta itzal guziak pikotara bialduak, beste bide bat artu ezean ez ote gaude galduak? Anken gainean emen gabiltza, talentuz oso aulduak, ta zer serbitzu egiten digu lepo-gaiñean buruak?

*La Voz de España*, 18-IV-1971.  
*Zeruko Argia*, 1971-IV-25.  
*Sortu zaizkidanak*, *Auspoa* 112, 1973.

## AGUSTIN OSTOLAZA

- 1/ Nola gelditu, ai, Azpeitiko txapelketaz mintza gabe?  
Arruak badu seme bizkor bat ondo osatua goi ta be.  
Erakutsi du argi ta garbi,  
korajetsu bezin trebe,  
Agustin Ostolaza dala gaur indartsu danen errege.
- 2/ Zer bizitasun da zer indarrak!  
Orrek dauzka nerbioak,  
aozabalka utziak gaitu gizon orren balioak.  
Ainbeste milla kilo txit errez bizkarreraiño igoak,  
gipuzkoar bi ta lau bizkaitar zituen kontrarioak.
- 3/ Usategieta anai lerdanak etziran gaizki portatu  
Yurrebaso ta Mallabitarra leiaketan an gertatu.  
Azkurreta ta Kabrejas ere Azpeitira inguratu,  
al zuten dana egiñagatik iñor etzan urreratu.
- 4/ Artzen zuena artzen zuela, artxek bai errez astindu, oraingo ontan pixkabateko zer itzegiña jarri du.  
Lau arri klase, ta guziekin nai zuen eran agindu,  
grano batekin etzuen iñork Ostolazarik berdindu.
- 5/ Amorru biziz eta gogotsu eltzen zion arriari,  
lurretik artu, ta bizkor asko erakutsi bizkarrari.  
Jaunak, ogeitasei jaso-aldi, tarte polita da ori,  
alde orixe atera zion bigarren geldituari.
- 6/ Erretangular eta kubiko, zein puska nekegarriak!  
Nola zilindro, ala borobil, Azpeitira ekarriak.  
Bost minutuko lau tanda zeuden bakoitzarentzak jarriak,  
eun da ogeita amalau aldiz jaso zituen arriak.
- 7/ Eun da amabi kilo ta erdi, arruatan bederatzi,  
zuk, Ostolaza, bizkar-gaiñari ainbeste aldiz erantsi.  
Zazpi arrua pixatzera zeu iñola ezin iritxi,  
arrigarriak badira baña zure modukoak gutxi.
- 8/ Lau arri klase, baña zuretzat etzegon buru-austerik,  
indar sobrea zer dan ez dago bertsoz adierazterik.  
Pixu ortako arrimoldetan zuri ez dago eusterik,  
ta kontrario gabe gelditu bear derrigor gazterik.



- 9/ Zaitu bearrik ez du sekula,  
badaki zer duen kalte,  
argatik dabil zintzo ta zuzen  
zabarkeritik aparte.  
Tratu gaizto ta neke gogorrek  
gutxi ikarutzen dute,  
ai, beste batzuk Ostolazaren  
borondatea balute!
- 10/ Bide txarretan dabillen batek  
azkar galtzen du karrera,  
irabazirik iñork ez baiña  
beretzako du galera.  
Diruarekin ordaintzen baita  
beti plazako sarrera,  
gizonak tajuz irten bear du  
jende onaren aurrera.
- 11/ Bizio txarrak ez ditezela  
iñola ere ugaltu,  
indarrak joango dira bestela,  
ta uste gabe makaldu.  
Jan-edanari neurri artuta,  
gabeko lorik ez galdu,  
plazan luzitu nai dun gizonak  
zintzo jokatu bear du.
- 12/ Itzal aundia oi du berekin  
jendez betetako plazak,  
egiten dunak jasotzen ditu  
txaloak eta gorantzak.  
Zer-nolakoa izan bear dun  
plaza-gizonaren trazak,  
ikasbiderik asko eman du  
Arrua'ko Ostolazak.

*Aranzazu, 1971-VI.  
La Voz de España, 3-4-VII-1971.  
Sortu zaizkidanak, Auspoa 112, 1973.*

## BEROA NAI?

- 1/ Euri ta euri etenik gabe,  
 bai aspertuak giñala!  
 Beldurtu giñan aurten mudantzak  
 nekez izango zirala.  
 Santio eta Santana buelta  
 ez da ortako makala,  
 beroa bear bagendun ere  
 uste det izango dala.
- 2/ Kejatsu geunden kanpotar danak,  
 berdin berriz etxeokak,  
 nekazarien lantuak emen  
 ez dira arritzekoak.  
 Eguzki gabe or zeuden larri  
 ildakoen antzekoak,  
 ia pixka bat mugitzen diran  
 arto ta gaiñontzekoak.
- 3/ Lenen belarrak zarregi egin;  
 noiz izango da bestea?  
 Ganaduzale batek badauka  
 naikoa buruaustea.  
 Izerdi patsez jo ta jo estu  
 or nekazari tristea;  
 beste askoren kezka bakarra:  
 beren gorputzak beztea.
- 4/ «Igualdatea etzegok urre»  
 nago sarritan esanda,  
 batzuk lanean madarikatzen,  
 besteak bizkar emanda.  
 Kristaua nola egon liteke,  
 eguna libre izanda,  
 ordu luzeak alperrik galtzen  
 ondar gaiñean etzanda?
- 5/ Jantzi ariñen alde jarriak  
 daude oraintxe geienak,  
 dituzten saillak bixtan jartzea  
 ainbat gustatzen zaienak.  
 Ainbeste gazte beroaren zai  
 ain amorratzen zeudenak,  
 ai, erakutsi naiko dituzte  
 erakutsi litezkenak.

*La Voz de España, 1971-VII-10.*

## GAILLURREAN GERA

- 1/ Jantzi apaiñez dago  
euskaldunon lurra,  
gelditzen dan zatia  
bai zati apurra!  
Emengo gorabera  
oso da laburra,  
aurtengo udaldiak  
artu du gaillurra.
- 2/ Gabak luzatuz beti  
asetzeko loaz,  
egunak laburtuaz  
ta bazterra joaz.  
Andra Mari ezkeru  
bakantzera goaz,  
bi etortzen badira  
lau iges dijoaz.
- 3/ Lantua ta marmarra  
ugari da emen,  
askoz jende ohea  
izaten zala len.  
Juxtu-juxtuan pasa  
etxera lenbailen,  
diru sobre aundirik  
apenas dabillen.
- 4/ Beatz aundia jaso  
kamio ertzetik,  
egundoko pardelak  
dituzte atzetik.  
Dirurik etzaiote  
erortzen poltsetik,  
ortarako irteten  
al dira etxetik?
- 5/ Ez dira puntakoak  
dabilzkiten telak,  
garbitasun alerik  
ez duten txepelak.  
Bizar da illez ondo,  
dirutan motelak,  
oiekin jai daukate  
emengo otelak.
- 6/ Ugaltzen ari dira  
urtetik urtera,  
gustatuta ez leike  
sartu bat tartera.  
Ori bada turistak  
bear dun tankera,  
obe degu etxetik  
oiñik ez atera.
- 7/ Beti aritu gabe  
jo ta ke lanean,  
egun bakar batzutan  
jai udazkenean.  
Uste det gozatzea  
nik oiek aiñean,  
artzaiekin bilduta  
Urbia gaiñean.

*La Voz de España, 1971-VIII-15.*  
*Zeruko Argia, 1971-VIII-22-29.*

## DOLARRA GAIXO

- 1/ Dolarra gora, dolarra beera,  
kezkaz beterik mundua,  
Amerikari iritxi zaio  
erabakien ordua.  
Len beti goitik ibili arren  
orain jetxi du burua,  
gizona gaixotzen dan bezela  
gaixotu leike dirua.
- 2/ Etengabeko dirutzak bear  
Vietnam aldeko gerrak,  
illargirako joan-etorriak  
gastuz ez dira melarrak.  
Amar artuta beste aldean  
ogei bat eman bearrak,  
lengo osasun bikain, ederra,  
ola galdu du dolarrak.
- 3/ Naziotako agintariak  
txinparta dariotela,  
ekaitz oneri igesi naian  
al dunak al dun bezela.  
Kontuak ondo atera bear,  
galduak daude bestela,  
danak erotu bear dute gaur  
zer egin ez dakitela.
- 4/ Larunbatean zazpi ministro  
ziran Belgica'n batuak,  
bat egiteko asmoz joan eta  
pot eginda geratuak.  
Erri bakoitzak bere aldera  
atera ditu kontuak,  
«lendabiziko Jaungoikoa ta  
ondorenean santuak».
- 5/ Ai, dolarraren gaixotasunak  
kutsutu gaitu batean,  
mundu osoa aztoratu da,  
iñor ez dago pakean.  
Anaitasunak indarrik artzen  
ezpadu gizon artean,  
gure Jainkoak bakarrik daki  
emen zer gerta leikean.
- 6/ Bein illargia eta bein Marte  
nai genduke zapaltzea,  
urrena berdin pentsatuko da  
Venus bixitatutzea.  
Zertarako da mundu berrien  
billa ola nekatzea?  
Ez al genduke obe askozaz  
lengo zar au konpontzea?
- 7/ Zorioneko diru petralak  
beti griña ezagunak,  
kontatu ezin ainbat zoritxar  
inguratzen dizkigunak.  
Bein interesa tarteko dala  
etsai biurtzen lagunak,  
zortzitik zazpi gerra badira  
diruak sortzen ditunak.

*La Voz de España*, 22-VIII-1971.  
*Zeruko Argia*, 1971-IX-5.  
*Sortu zaizkidanak, Auspoa* 112, 1973.

## IRUNTXIBERRI

- 1/ Aia erriak deporterako  
balio du izugarri,  
lengoak lengo, oraingo au nik  
goi maillan nai nuke jarri.  
Euskaldunetan geienak dute  
gure gizonaren berri,  
txiki aundiak izaten dira,  
eta bat «Iruntxiberri».
- 2/ Orrek auzia bere aldera  
beti garbi erabaki,  
bein jokatzera joaten danean  
kontu pixka bat eduki.  
Buruz ez dago oso motela,  
zer egiten dun badaki;  
begiratuta gorputz exkaxa,  
baiña indarra galanki.
- 3/ Askok pentsatu zuten len ere  
menderatuko zutela,  
gero ikusi zuten kukuak  
txit oker jo zietela.  
Arrigarrizko auspoa dauka,  
ain da zaill eta ximela,  
kontrariorik ez du arkitzen  
korrikalari bezela.
- 4/ Ariña baita lumaren gisan  
gutxi zanpatzen du lurra,  
baiña jokoak irabazteko  
badu orretzek adurra.  
Ia lurrean ageri ez ta  
nunai sartzten du beldurra,  
puska bi laister egiten baitu  
kana beteko egurra.
- 5/ Dabid txikiak Goliat aundi  
menderatu zun antzean,  
Iruntxiberrik bikaiñagoak  
izaten ditu ertzean.  
Aundiak bapo txikitzen dira  
orren ondoan jartzean,  
belar ebaten eta korrika  
nork utziko du atzean?
- 6/ Patxaran eta apal esango  
dizkitzu esatekoak,  
papera egin baiño lenago  
ondo pentsatutakoak.  
Orren talentu oiek ez dira  
bazterrera uztekoak,  
jokoak nekez egingo ditu  
baiña irabaztekoak.
- 7/ Sasoi aparta, iñolaz ere,  
Aia'ko txikiarena,  
erakutsia dauka ederki  
erruz balio duena.  
Ogeitamalau urte baditu,  
elduta dago txermena,<sup>1</sup>  
denbora gutxi gelditzen zaio,  
orixe dauka txarrena.

*La Voz de España*, 29-VIII-1971.  
*Zeruko Argia*, 1971-IX-12.  
*Sortu zaizkidanak*, *Auspoa* 112, 1973.

1. Txermena: udare, pera.

## GURE ESTROPADAK

- 1/ Poztu, anaiok, poztu, arrebok,  
goazen alkar alaitzera,  
goazen euskaldun arraunlaria  
gogo biziz txalotzera.  
Arraun eguna degu gaurkoa,  
ez begiratu atzera,  
goazen saltakor, berdingabeko  
Donosti bixitatzera.
- 2/ Erri bakoitzak bere oiturak  
maitatzen ditu biozki,  
maitasun ori itzaltzen bada  
orduantxe danok gaizki.  
Euskal biotzen asegarrria  
gaurko eguna da, noski,  
arraun-jai gabe oso ankamotz  
litzake gure Donosti.
- 3/ Gerri bigunak, beso sendoak,  
auspo ederra ere bai,  
ezin egonik, urduri daude  
asteko unearen zai.  
Amalau gizon ontzi bakoitzak,  
danak bizkor, danak ernai,  
duten ametsa jakiñekoa:  
lendabiziko sartu nai.
- 4/ Erri bakoitzak nai luke ziñez  
bestetatik nabarmendu,  
aurretik asi, aurretik buka,  
al bada bentaja kendu.  
Aupa, mutillak! Jo danok gogoz!  
Nagikeriak aldendu!  
Euskal arrazak sendotasuna  
olaxen erakusten du.
- 5/ Jendez estali dira bazterrak,  
noiz onelako egunik?  
Urgull, Igeldo ta Santa Klara  
begiz ikusten ditut nik.  
Ainbeste itxas-ontzi txistuka,  
nork ezkuta poztasunik?  
Munduko diruz ez da pagatzen  
olako edertasunik.
- 6/ Señalearen zai daude zintzo,  
gogozko zaie astea,  
zer atsegiña begientzako  
lenen txanpa ikustea!  
Danak anaiak ditugularik  
bat aiña maite bestea,  
beste gauzarik ez genduke nai:  
onenak irabaztea.
- 7/ Zenbait euskaldun bizio batek  
or dauzka menderaturik,  
santu izango giñake, noski,  
ezpagendu pekatu rik.  
Gorrotu gabe goza dezagun  
anaietara bildurik,  
gero penarik ez izateko  
etzazu joka dirurik.

*La Voz de España*, 1971-IX-5.  
*Sortu zaizkidanak*, *Auspoa* 112, 1973.

## NAZIO ALKARTASUNA

- 1/ Denbora gutxiz alda diteke amaikatxo egitura, oraintxen ere, ikusten danez, gauzak ala du itxura. Nazio alkartasuna ere bat-batean ugaldtu da, len baztertua zegoen Txina sartuko baita barrura.
- 2/ Ainbat urtean ate joka ta beti atarian utzi, ez aintzat artzen, baiñan alare aiek egundo ez etsi. Len bi pusketan zegon Txina'ri trantze gogor au iritxi: bati ateak pozez ideki, besteari berriz itxi.
- 3/ Goiko gaiñetik erori leike aguro beko zulora, politikoen artean ori sarritan gertatuko da. Atzotik gaurra orra erabat nola aldatu dan denbora: kanpoan zana barrura eta barruan zana kanpora.
- 4/ Len txinatarrak eduki arren familiaratik aparte, gaurtik aurrera beste edozeiñen eskubidea daukate. Erabaki au botoen bidez nazioak artu dute, amerikarren politikari ezetz erantzun diote.
- 5/ Ta erri oien borondatea garbi agertu dalako, ipurdikoa izan da ori Ipar-Amerikarako. Zortzireun milloi txinatar orain familian barrurako, izan dedilla mundutar danon pakearen onerako.
- 6/ Amesten zuten aukera dana orra etorri eskura, kopeta goian duala Txina ONU'ko batzar-lekura. Urretik ezagutu naiean bi erri oien postura, Nixon joateko asmotan degu Pekin'era ta Mosku'ra.
- 7/ Atzoko gorri, zuri, berdeak, gaur dira ori ta beltzak, iñoiz ez dute bukaerarik gizonen arteko saltsak. Komeni zaien soiñu artara egiten dituzte dantzak, ez dira sinistekoak ere politikaren mudantzak.

*La Voz de España*, 1971-X-31.  
*Zeruko Argia*, 1971-XI-7.

## URTAIN

- 1/ Gora ta gora zu sortu ziñun  
ama onaren sabela,  
Gipuzkoa'ko mendi-zelaiak  
gaur bai alaitsu daudela.  
Arrazoi aundiz ikusten det nik  
pozez gaiñezka zaudela  
bigarren aldiz jantzi baitez  
zuk Europa'ko txapela.
- 2/ Joxe Manuel, bein bear eta  
bete da zure ametsa,  
akatsak danok baditugu-ta,  
zuk errenditu nai eza.  
Ordua da-ta, mundu guziak  
egi au aitortu beza:  
gauza benetan artutakoan  
zu austen ez da erreza.
- 3/ Arrigarrizko kemenak dira  
Jainkoak zuri emanak,  
zentzu aundirik ez du berekin  
au aitortzen ez duanak;  
naiz izan belgak, berdin frantzesak,  
ingles edo alemanak,  
gorputz guzian min artzen dute  
zuk jotzen dituzun danak.
- 4/ Gazte denboran marka guziak  
ondu ziñun arrietan,  
neurri gabeko gatza baitago  
zure beso-gerrietan.  
Kontrarioak asko dituzu  
euskaldun lurrean bertan,  
indarra zer dan ez dakitenak  
ari dira berriketan.
- 5/ Baserri kaxkar batetik jetxi  
eta kalean luzitu,  
opiziorik ikasi gabe  
onen danak errenditu;  
bigarren aldiz Europa ontan  
jaun da nagusi gelditu,  
zeiñek ote du, Joxe Manuel,  
zuk dezun ainbat meritu?
- 6/ Derrigor utzi bearko dezu  
laister Europa atzera,  
zu beartuko zaituzte, noski,  
itxaso pasatzera,  
Ameriketan norbait joango da  
aguro lurra jotzera,  
azken aldian bezin gogotsu  
saiatzen baldin bazera.
- 7/ Seguru nago indarrez iñork  
ez dizula eragingo,  
gaiñontzean zer gerta diteken  
aurrez ez degu jakingo.  
Ameriketan on asko dira  
nola lengo ta oraingo,  
baiña zurekin nai dutenikan  
ez dute aixa egingo.
- 8/ Erremeritzen saia zaitea  
oraiñarteko utsuna,  
berdingabeko aukera baita  
orain etorri zaizuna;  
danok dakigu Jainkoak gaia  
sobrean eman dizuna,  
Joxe Manuel, zeure eskutan  
daukazu etorkizuna.

*La Voz de España, 19-XII-1971.  
Zeruko Argia, 1971-XII-26.  
Sortu zaizkidanak, Auspoa 112, 19.*



## URTEBERRI ON!

- 1/ Lenengo eguna gaur  
 aurtengo Ilbeltzez  
 agurtu nai genduke  
 egundoko pozez;  
 mundutar danok gaude  
 alaitasun gosez,  
 Urteberri on opa  
 dizutet biotzez.
- 2/ Gerta leike lengoak  
 baiño zitalago,  
 ainbat arrikkurekin  
 ni kezkatu nago.  
 Gorrotutik negarra  
 besterik ez dago,  
 emen bear deguna:  
 maitasun geiago!
- 3/ Orain bi milla urte  
 Jauna aragitu,  
 Arek esandakorik  
 guk ez nai aditu.  
 Gaitz danen sendagaiak  
 dotriñak baditu,  
 ez degu betetzen da  
 onek galtzen gaitu.
- 4/ Ez degu zorionik,  
 ez da gugan pozik,  
 kristau izenekuok  
 ezpaitegu lotsik;  
 ezpadegu entzun nai  
 an dagoen itzik,  
 dotriñak ez du kulpik,  
 guk geronek baizik.
- 5/ Etzaigu iritxiko  
 zorion urterik,  
 ugaltzen ezpazaigu  
 kristau birtuterik;  
 ezpadegu aldatzen  
 geure izakerik,  
 guk ez degu merezi  
 ondo izaterik.
- 6/ Beste danak gaizto jo,  
 geu bakarrik ontzat,  
 auxen da gozamina  
 gutar askorentzat.  
 Beti txar desiatu  
 lagun urkoentzat,  
 urte onik ez dago  
 orrelakoentzat.
- 7/ Ez dedilla indartu  
 kontzientzi arrik,  
 pasa nai ezpadegu  
 bizimodu txarrik.  
 Ez maita neurritz kanpo  
 urre ta zillarrik,  
 zoriona ez dakar  
 diruak bakarrik.
- 8/ Bizikera berri bat  
 Urte Berriz asi,  
 lengo sare berean  
 ez gaitzen nasi;  
 ikusterik nai ezta  
 alkarren igesi,  
 ola izatezkeroz  
 zertarako bizi?

*La Voz de España, 1971-I-2.*

*Zeruko Argia, 1972-I-9.*

*Sortu zaizkidanak, Auspoa 112, 1973.*

## MATTIN-EN OMEN EGUNEAN

- 1/ Negu beltzean usai bereziz  
or Ahetze'ko lorea,  
euskal baratza apaintzekotan  
nun billa leike ohea?  
Biotz biotzez opa dizut nik,  
lagun zar paregabea,  
urte askoan gorde zazula  
gaur daukazun umorea.
- 2/ Ainbat illunpe argitzeko zu  
dizdizka zauden izarra,  
maitasun labe dezu biotza,  
ezpainenetan irriparra.  
Ain aundia da inbiri eta  
gorrotoaren indarra,  
gaurko munduak badauka, Mattin,  
umorearen bearra.
- 3/ Tentatzen dezu gizon gordiña,  
eta berdin neskatiilla,  
denbora gutxiz bizkor kantatuz  
sekulako bertso pilla;  
ate danentzat billatzen dezu  
komeni dan maratilla,  
triste daudenak alai jartzeko,  
Mattin, zu zera mutilla!
- 4/ Etenik gabe, plazarik plaza  
or zabiltz jendea pozten,  
parre txikirik zeuk utzi gabe  
bestiei egiñerazten.  
Berez etorri bear du orrek;  
au zeñek ez du ikusten?  
Zure alderdi on oiek, Mattin,  
ez dira dendan erosten.
- 5/ Urte batzuek bizkar gaiñean,  
baiña barrendik ain gazte,  
zirikalari jostalaria,  
beti jolasaren eske.  
Txarretik ezer ez dezu eta  
onetik neurriak bete,  
orrenxegatik maite zaitu zu  
Euskalerrriak ainbeste.
- 6/ Jardunak jardun, zintzo ta sendo  
dakizu lagun irauten,  
iritxitako toki danetan  
beti gizon erantzuten.  
Nik ondo dakit ortako danak  
nola balio ez duten,  
zuk bietara dakizu ondo:  
esaten eta entzuten.
- 7/ Ai, Ahetze'ko lore mardulak  
menderatu du negua,  
usai gozotan kutsutu ere  
Donosti ta ingurua.  
Noizpait irixten danean, Mattin,  
emengo azken ordua,  
amaika pesta goxo jarrita  
utziko dezu mundua.

*La Voz de España, 16-I-1972.*

*Zeruko Argia, 1972-I-23.*

*Sortu zaizkidanak, Auspoa 112, 1973.*

## ENDAÑETA

- 1/ Bertso maiteok, barren-zulotik  
kanpora irten zaitezte,  
Endañeta'ko seme trebeak  
merezi baitu ainbeste.  
Ondoren ere gizaldietan  
zu aitatuko zaituzte,  
orrelakorik izan zeikenik  
iñork ezpaizuen uste.
- 2/ Laztasun eta zailmenak ditu  
beti arri kubikoak,  
txikiak ez det esaten, baiña  
amabost arruakoak!  
Gizonak nola izan lezazke  
indar ortaraiñoakoak?  
Erdi-zoratu ginduzen danok  
begiz ikusitakoak.
- 3/ Lenago beian etzeunden, baiña  
orain bai zerala aundi,  
zure lan ori aitatuko da  
emen gizaldiz-gizaldi;  
bost minutuko iru saiotan  
etziñan egona geldi,  
denbora ortan garbi emanaz  
ogitalau jaso-aldi.
- 4/ Zuk egindako marka ontzea  
buruan sartzen bazaio  
gaur edo biar bateonbati,  
naiko lan gelditzen zaio.  
Egindakoa or gelditzen da,  
itzak ez dute balio;  
arria beti zai egongo da  
iñork eldu nai badio.
- 5/ Ain berdintasun arrigarria  
azaldu zendun lanean,  
asieratik ziñan ainbeste  
baziñan zu azkenean;  
iru zortziko egin zenitun  
galgarik ederrenean,  
lendabiziko tandan bezelá  
berdin irugarrenean.
- 6/ Jakin al leike, zer da ordea  
jaten ematen zaiona?  
Egia al da gaur nere begiz  
emen ikusten nagona?  
Nere ondoan zegoen bati  
au da nik entzun niona:  
«Oinbeste indar duena ez da  
parte oneko gizona!».
- 7/ Erantzun nion: «Izan dezu or  
oker aundi, nabarmena,  
ez dezu ori zuk ezagutzen,  
orrek ematen dit pena.  
Ixilla eta lotsatia da,  
ditekenik apalena,  
txita bati gaitz egiten ere  
asmatuko ez lukena».
- 8/ Jainkoak emandako doايا  
nola eduki gordeta?  
Poztu, alaitu, Joxe Manuel,  
lenengo maillan zaude-ta.  
Aspalditxoko zure ametsak  
orra gelditu beteta,  
nere zorion beroak artu,  
lagun zintzo «Endañeta».

*La Voz de España*, 30-I-1972.  
*Zeruko Argia*, 1972-II-6.  
*Sortu zaizkidanak*, *Auspoa* 112, 1973.

## SAN PERMIÑAK

- 1/ Festazalea danak  
festa nai du egin,  
biotzez alai eta  
anketatik arin.  
Gogozko santua du  
jendeak San Fermin,  
Iruña aldean ezta  
izango atsegin.
- 2/ Sasoia gaiñezka ta  
ezin iñun gorde,  
San Ferminak dira-ta  
etxetikan alde.  
Askok aurkituko du  
zernai libertade,  
santuarekin asko  
gogoratu gabe.
- 3/ Bero diran odolak  
ezin errenditu,  
beti ala izan da  
eta ez arritu.  
Gazteak zorakeri  
asko maite ditu,  
zarrok ohea degu  
etxean gelditu.
- 4/ Jan-edan egin baiña  
neurritxo bat artu,  
familian eztedin  
naigaberik sortu.  
Sano nai badezute  
ortik etxeratu,  
zezen adarretara  
etzaitetze sartu.
- 5/ Zein da etxekoa ta  
zein da kanpotarra?  
Zein ote da emea?  
Zein ote da arra?  
Garbitasuna nunbait  
askorentzat txarra,  
bada gaur bazterretan  
txima ta bizarra.
- 6/ Moda omen da eta  
bai modari eman,  
oraingo naspide au  
nik eztakit zer dan.  
Euskaldun, frantzes, ingles,  
holandes, aleman,  
zoroenak zein geran  
gaur zeiniek antzeman?
- 7/ Kristau itxurik gabe  
emengo ta ango,  
oien alde botorik  
nik eztet emango.  
Nabarmenkeri alde  
ez izan egundo,  
itxuran jazten danak  
ematen du ondo.
- 8/ Ez nuke iraungo nik  
zoramen erdian,  
festa ona da baiña  
bear dan neurrian.  
Naiago nuke askoz  
gure alderdian,  
artzai artean lasai  
Urbia mendian.

*La Voz de España, 1972-VII-9.*

## GURE GIPUZKOA

- 1/ Beti zurekin pentsatzen nago,  
o Gipuzkoa kuttuna,  
nork argituko ote lirake  
barrengo illuntasuna?  
Zure semeak, naigabe biziz,  
au da galdetzen dizuna:  
nun galdu dezu garai batean  
zenduen edertasuna?
- 2/ Lanez, industriz ta ondasunez  
beste edozeiñen pare;  
ori ala da, baiña ez gaitu  
danok asetzen alare.  
Zu jostaillu bat ziñan lenago,  
beti apain da dotore,  
aunditzen asko ari zera gaur  
baiña bai zatartzen ere.
- 3/ Zer aldakuntzak urte gutxian  
sinisteak lanak ditu,  
gaillurretara begiratuta  
ixilik ezin gelditu:  
aritz, gaztain da pagoak bota,  
ta piñua nagusitu,  
zeru-kolore ziran mendiak  
beztu eta itxusitu.
- 4/ Alde batetik ikusten degu  
oso aberats zaudela,  
inguruetan zure inbiriz  
asko ta asko daudela.  
Zeiñek sinistu oinbesteraño  
alda bear zenduela?  
Etzagun pentsa zorion dana  
diruak dakarkiola.
- 5/ Gure Jainkoak ornitua zu  
ain edertasun ugariz,  
guztiak galdu bear al dute  
gu gizonon zabarkeriz?  
Arnas garbirik ez leike artu  
emen dagon zikinkeriz,  
ibai ederrak estali dira  
benenozko apar zuriz.
- 6/ Geuk sasitegi biurtu degu  
paregabeko baratza,  
erdibitzeko zorian dago  
gipuzkoarron biotza.  
Polit guzien erregin ziñan  
ta gaur ain zaude narratsa,  
lenago nunai usai gozoa  
ta orain berriz kiratsa.
- 7/ Guretzat zegon, itxura danez,  
naigabe danen kartzela,  
zu aunditzea danok nai degu  
baiña bear dan bezela.  
Zentzu pixka bat dutenak beintzat  
konturatu ditezela,  
ezta egia gauza guztitan  
aurreratutzen goazela.
- 8/ Etxe zatarrak an eta emen  
egin da egin trotean,  
arrotz jendea antxe pillatu  
eten gabeko katean.  
Egiña dago pekatua ta  
aitor dezagun batean,  
buru geiegi eztala izan  
gipuzkoarron artean.

*La Voz de España, 1972-VIII-9.  
Zeruko Argia, 1972-VIII-20 ta 27.  
Sortu zaizkidanak, Auspoa 112, 1973.*

## INAZIO, ARANTZAZU'N

- 1/ Zeru-argiak erdiz jo zuen  
danontzat zorionean,  
mundu engañagarri au zer dan  
bein ikusi zuenean.  
Arantzazu'ra gabeko onik  
etzuen ark barrenean,  
gerrako zauri gogorretatik  
ondo sendatu zanean.
- 2/ Amaren babes goxoan antxe  
barren dana zalapartan,  
zenbat eskari egingo zuen  
otoitzik beroenetan!  
Frantzisko Done Borjakoari  
garbi jarri zion kartan,  
animarentzat zenbat probetxu  
izana zuen gau artan.
- 3/ Lo beldur gabe, erne ta sendo,  
eskari danak intziri,  
ongi zekien ark Amarekin  
zer izkera erabili;  
bere gorputza zigorkatuaz  
an egin zuen bijili,  
goitar indarrak lortzeko etzan  
bigunkeritan ibili.
- 4/ Oker bideak alde bat utziz  
orra erabat zuzendu,  
gure Zaindari loiolatarrak  
gauza benetan artzen du.  
Neke latz eta suprimentuak  
iñoiz etzuten atzendu,  
zer ez genduke egingo emen  
aren fedea bagendu?
- 5/ Zu, Inazio, aspaldi artan  
erromes izandakoa,  
geroztik ainbat milla euskaldun  
bidean jarritakoa.  
Lareun da berrogeitamar urte  
denbora pasatakoa,  
Arantzazu'ren santutasuna  
ezta atzo goizekoa.
- 6/ Euskalerrriak gain santu ori  
beti zintzo maita beza,  
Amarik gabe dagon erria  
oso baita ezereza.  
Lareun da berrogeitamar urte,  
esaten oso erreza,  
ta ordurako Arantzazu zan  
pekatarien babesa.
- 7/ Orra euskaldun seme trebea  
apal belaunikatuta,  
Arantzazu'ko gain ederrean  
santutasunez sututa.  
Zeruko Ama biotz erdian  
indartsu zeukan sartuta,  
Montserrat'era joan zan ondoren  
emen indarrak artuta.
- 8/ Gaur ez gabiltza, zoritxarrean,  
Inazio'ren antzera,  
mundutar griñak etorri dira  
zerutarrak itotzera.  
Ugaldu dira aurrerapenak,  
ez noa ni ukatzera,  
zenbait gauzetan aurrera goaz,  
baiña fedean atzera.

- 9/ Len ezer onik etzala egin  
esaten dute lenengo,  
ipui zoroak dirala danak  
entzuten zaie urrengo.  
Erri zar onek akats asko du,  
ezetzik eztet esango,  
fedea gabeko Euskalerrria  
ezta ohea izango.
- 10/ Zientziaren barruti ortan  
orrenbeste jakinduri,  
baiña fedea iñoiz kalterik  
egin al dio iñori?  
Euskalerrriko semeak ere  
leiza zulora erori,  
Jainkorik eta Ama Birjiñik  
ez aitatu gaur askori.
- 11/ Asi ta buka guztia emen  
egiten dala diote,  
gerokoaren kezkarik eta  
ardurarik eztaukate.  
«Il zan Jainkoa», ta aren tokia  
gizonek artu baitute,  
zerbait sinismen daukagunori  
burla egiten digute.
- 12/ Ain amorratzen ikusten dira  
Eliz Ama zapaltzeko,  
une guztiak onak dituzte  
benenoa zabaltzeko.  
Egitzazute alegin danak  
trabak beingoan kentzeko,  
berealaxe izango gera  
animalien antzeko.
- 13/ Ekaitzaldi au etorri zaigu  
astinduak emateko,  
indarra eta kemena bear  
degu zutik egoteko.  
Bide kaxkarra artu dezute  
zoriontsu izateko,  
fedea utzitako utsuna  
ezerk ezpaitu beteko.
- 14/ Nola liteke euskal fedea  
gabetik goizera galdu?  
Gure lur onek utsune ori  
ezaguru bear al du?  
Arantzazu'ko Ama maitea,  
zure grazia zabaldu,  
beldurgarritzko olatu onek  
danok ez gaitzan zapaldu.
- 15/ Urte gutxian gure artean  
bada milla gorabera,  
munduak aixa garamazki gaur  
berak nai duen aldera;  
eliz-gizon da mundu-gizonak  
danok pekatari gera,  
urak etorri bearko dute  
derrigor beren bidera.
- 16/ Bide zuzena aurreko zarrak  
erakutsi zigutena,  
ezta ohea orain ordaiñez  
ezarri nai digutena.  
Azkena galdu bear dana da  
gure ustez sinismena,  
ilda berpiztu zan Kristorengan  
badegu itxaropena.

*Arantzazu, 1972-IX.  
Sortu zaizkidanak, Auspoa 112, 1973.*

## UZTAPIDERI

Donostiko Astoria Antzokian omenaldi eder bat eskeñi zitzaion Uztapideri 1972'ko iraillaren 24'an. Andik bi egunera bertso aukeratu nituan *La Voz de España*'n:

- 1/ Ogeitaka urtez ibili gera  
biok erririkan erriz,  
orduko sasoi eta almenik  
ezta etorriko berriz.  
Beti apal da beti leialki,  
jatortasun arrigarritz,  
ura berdintzen gaiztoa baita  
gizonez ta bertso lariz.
- 2/ Egun goxoak, egun mikatzak,  
danak alkarren segiran,  
Uztapidentzat ere eziña  
orra nola etorri dan.  
Orain an dabil burumakurka  
bere etxetxoaren jiran,  
onelakotan ikusten degu  
egizko lagun zein diran.
- 3/ Orain bi milla urte zitzaigun  
Salbatzaillea etorri,  
gurutze baten inguru-sailla  
utzirik odolez gorri.  
Ark eman zuen agindu ura  
bai dala gogoangarri:  
lurreko urte bakar auetan  
lagun deiogun alkarri.
- 4/ I Oiartzun'en eta gu emen,  
alkarrekin ezin goza,  
gure ondoan gertatu baintz  
izango genian poza;  
berriro entzun nai baigenikek  
laister ire kantu-otsa,  
itxaropenik ez galdu iñoiz,  
Manuel, jaso biotza!
- 5/ Lenago beian ez intzan baiña,  
jasoa izan aiz gora,  
i goraltzeko ta txalotzeko  
artu genikan denbora.  
Bein sartu intzan, zorionean,  
euskaldun biotz-ondora;  
Euskalerrria irekin zegok,  
egon indeke gustora!

*La Voz de España*, 26-IX-1972.  
*Príncipe de Viana*, 1972-X.  
*Sortu zaizkidanak*, *Auspoa* 112, 1973.



## UDAZKENA

- 1/ Uda joan zaigula ta  
zertan izan pena?  
Bera izaten baita  
sarri kaxkarrena.  
Aspaldiko urtetan  
uka ez leikena,  
askoz ohea dala  
emen udazkena.
  
- 2/ Ego-aize goxoak  
eztitzen gaitu gu,  
«ongi etorri» pozik  
esaten diogu.  
Kanpoa illabetez  
atzera daukagu,  
gozatzeko zerbaiten  
premia badegu.
  
- 3/ Negurako eztago  
geiegizko pozik,  
beteta bear luken  
asko dago utsik;  
eztegu ez sagarrik,  
ezta ere matsik,  
eztauka onek urte  
bapoaren antzik.
  
- 4/ Berrogei ta amar duro,  
ori da kolpea!  
Lakari babarruna  
eztago merkea.  
Pentsatzen jarri eta  
au bada urtea,  
ezta errez izango  
nai ainbat jatea.

*La Voz de España, 1972-X-6.*  
*Zeruko Argia, 1972-X-22.*

## ETXEAN DEGU GAITZA

- 1/ Zarautz erritik apalki nator  
Aloñaren magalera,  
ezin gorderik dauzkadan kontu  
batzuk zuri esatera.  
Ama laztana, entzun, arren!, zuk  
bertsolari eskaera,  
bein bear eta Euskalerrian  
zure bearrean gera.
- 2/ Emen agertu ziñan garaian  
zer naigabe ta samiñak,  
esan zeikean danak zeudela  
oso burutik egiñak:  
oñaztar eta ganboatarrak,  
lapurrak eta sorgiñak...  
Orduko marka guztiak orain  
ez al daude eragiñak?
- 3/ Ama maitea, zeure almena  
garbi agertu zenduan,  
arro ziranak apaldu ziran,  
ta bearra bagenduan.  
Otzago edo epelagoa,  
fedea bazan orduan,  
orain erabat galdu degu ta,  
animalien moduan.
- 4/ Gure lurreko goraberak gaur  
zein negargarri dabiltzan,  
ekaitza pranko ikustekoak  
gera munduko bizitan.  
Munich, Viet-Nam, ta beste ainbat  
beti aotan ez izan,  
begira zagun, o, euskadunok,  
etxean nola gabiltzan.
- 5/ Alkar arteko adiskidetzak  
joanak ditugu igesi,  
iñorentzako errukirik ez,  
danerako geu lenbizi.  
Au egia da, anai maiteok,  
eta ukatzen ez asi:  
alkar ikusi baiño naiago  
suge-gorria ikusi.
- 6/ Bizkar gaiñean artuak gaude  
makiña bat danbateko,  
ta motiborik asko badegu  
berriz kezkaz egoteko.  
Deabruaren almen aundiak  
artu gaitu gu menpeko,  
len igaroak naikoa ez ta  
odol gorria tarteko.
- 7/ Sendatu gabe dago oraindik  
erri zar onen zauria,  
beldur ikaraz jarria nago  
sortu leikela berria.  
Berriro ere infernu bizi  
laister da Euskalerrria,  
maitetasunak artzen ezpadu  
gorrotoaren tokia.
- 8/ Lenez gaiñera ez gaitzela  
anai artean zatitu,  
zentsuz osatu gaitzezen ondo,  
umekeriak garaitu.  
Gure lur onek begiak goruntz  
Zugana jaso nai ditu,  
ta okerrena gerta baiño len,  
Ama, gutaz errukitu.

9/ Anaiak nola ibili leike  
alkarrekin arakintzan?  
Noiz jarri bear degu apalki  
Jaunaren serbitzaritzan?  
Gure babesle paregabea,  
erri au kontuan izan,  
olatu trakets, ondagarriak  
azpian artu ez gaitzan.

*Zeruko Argia*, 1972-X-29.

*Sortu zaizkidanak, Auspoa* 112, 1973.

*Goiz-Argi*, 1978-IV-8.

## ARTETXE OROITUAZ

Joxe Artetxe il berria zalarik, Donosti-  
'ko Aurrezki Kutxaren etxean izlari mor-  
doxka bat izan zan, aren doai txalogarriak  
gogoratzen. Tarteko giñan gu ere, geure  
ezerezean; eta gau ortan esan genituen itz  
neurtuak dakarzkigu gaur orrialde aueta-  
ra.

- 1/ Itz bakar batzuk, adiskideok,  
ta neurtutako bertsotan,  
lagun on baten oroimen onak  
bildu gaitu arrats ontan.
- 2/ Baiña... nolako laguna gendun!  
Au nik nolatan agertu?  
Une guztitan gogoan degu,  
oroitzez ezin aspertu.
- 3/ Gipuzkoa'ko lur sendoaren  
egizko frutu, emaitza,  
berdiñak sortu daitezke baiña  
obea sortzen da gaitza.
- 4/ Gizon osorik izan badegu,  
osoa gendun Artetxe;  
iñork alderik etzezaioken  
kendu Joxeri ortantxe.
- 5/ Gizon etxean, gizon auzoan,  
gizon zebillen tokian,  
bere lekua betetzen Joxek  
gutxik bezela zekian.
- 6/ On utsa zan da on egitea  
zan arentzat atsegiña,  
kontatu ezin ainbat mesede  
bere denboran egiña.
- 7/ Zerbaiten eske joandakorik ark  
etzuen utsik utziko,  
lagun urkoa serbitzea zan  
arentzat lendabiziko.
- 8/ Ezin ukatu argibiderik  
billa zijoakionari,  
galde bestela artxiboetara  
maiz inguratzen zanari.
- 9/ Guraso gisan ere ura bai  
ixpillutat artzekoa!  
Aren ondoren zein ezereza  
Basarriren antzekoa!
- 10/ Zenbat anima triste alaitu  
ote Artetxeren itzak?  
Ebanjelio kutsua zuen  
aren kontseju bakoitzak.
- 11/ Penak arindu, zauriak goza,  
negar-osiñak urrundu;  
au xan Joxeren jo-muga beti:  
premijs zanari lagundu.
- 12/ Egizko kristau sendo artean  
nork artu ari aurrerik?  
Arek ezipadu, nork izango du  
zeruetako sarrerik?

- 13/ Euskaldun eran artuta berriz  
ura bai zala osoa!  
Iñork geiago ezin maitatu  
gure Euskalerra gaixoa.
- 14/ Ler zoriz zeukan maitasun orrek  
eman zion sufrimentu;  
erria gaixo ikusten zuen,  
ezin ba egon kontentu.
- 15/ Artetxe idazleaz eztaukat  
batere zertan itzegin;  
aurretik danak esan dute ta  
lana bi aldiz ez egin.
- 16/ Ogei liburu eta geiago  
gure Joxek idatziak,  
eta moldatu zituen letrak  
zerutar intzez jantziak.
- 17/ Euskal kutsua oparo dago  
orrialde bakoitzean;  
etzuen beste ezerk tokirik  
Artetxe'ren biotzean.
- 18/ Izarraizpean loratu ziñan  
landare argi, ernea;  
ezta makala, lagun zar Joxe,  
utzi dezun utsunea.
- 19/ Txiki-txikitan lagun egiñak  
zorionean zu ta ni;  
arrats onetan omen apal au  
nola ez zuri eskeiñi?
- 20/ Astero zintzo egiten nizun  
lantokiraiño bixita;  
zer naigabea zure aulkia  
gaur ain utsik ikusita!
- 21/ Sentikor jaio, sentikor bizi,  
sentikor zu lur onetan;  
guk uskeritzat genduzkan gauzak  
artzen zenitun benetan.
- 22/ Zure biotza senda ezin dan  
gaitzak esitua zeukan:  
lau katu izan eta emen gu  
eten gabeko burrukan.
- 23/ Zer naigabe ta zer oiñazea,  
Joxe maitea, zuretzat!  
Ikusten zendun etsai txarrenak  
geu gerala alkarrentzat.
- 24/ Erruki gabe arantza beltzak  
or zenitun zulatzaille;  
ikusten zendun gu geu gerala  
gure erriaren iltzaille.
- 25/ Neurritz kanpora maite baizendun,  
Joxe, zure sorterrria,  
ezin eraman iñolaz ere  
beraren ondamendia.
- 26/ Ito-larriak menperatuta  
biotzak ezin erantzun;  
aundi, zabala bazendun ere  
geratu egin zitzaizun.
- 27/ Lanez bizi ta lanez iltzea,  
ori zan zure ametsa,  
eta lanean eman zenduen  
lurreko azken arnasa.
- 28/ Negar zegiten euskal baserri,  
kale, itxaso, mendi, arkaitzak,  
zeru alderuntz egatu ziran  
euskal semien otoitzak.
- 29/ Agur, lagun zar berdingabea!  
Agur, gidari onena!  
Betikotasun osoan goza  
pakea ta atsedena!
- 30/ Itza ematen dizugu, Joxe,  
emen geranok batean:  
zure bidetik jarraiko degu  
arnasik degun artean.

## ZORIONAK

- 1/ Ia bi milla urte baditu  
gaurko egunaren sonak,  
entzun alare Basarri oni  
gogoratzen zaizkionak.  
Ezpain guzitan dabillen itza  
auxe degu: zorionak!  
Beste egunak eztuten zerbait  
berekin dute Gabonak.
- 2/ Ezta bukatzen inola ere  
gerrarik eta liskarrik,  
Belen'en sortu zitzaigun ari  
guk ez eman nai eskerrik.  
Ai, maitasunak gure artean  
eztu bear dan indarrik,  
obretan bear degu pakea  
ta ez itzetan bakarrik.
- 3/ Gizon egin zan Jaungoiko baten  
naigaberik aundiena,  
ezta dudarik, begiratuta  
emen ikusten duena.  
Ain indartua dago nunaitan  
gorrotoaren aiena,  
dirudienez, gizona degu  
konpondu ezin leikena.
- 4/ Emengo bonba, orko suketa,  
eraso eta atake,  
ta ezpainenetan zergatik dabil  
ainbat zorion da pake?  
Alkar iltzen da alkar ondatzen  
etenik gabe jo ta ke,  
zure dotriña beteko balitz  
beste modutan giñake.
- 5/ Esker gaiztozko lurarroak nunbait  
zentzu dana galdu degu,  
geiago ezta udaberririk  
baizik eta beti negu.  
Geu gera Jainko, geu gera dana,  
erabat aztu zaitugu,  
eta pasatzen ari geranak  
ondo merezi ditugu.
- 6/ Bukatu ziran parre gozoak,  
ugaldu dira negarrak,  
eta ez jakin oraindik emen  
zer gauden sufri bearrak.  
On egiteko mantsoak gera,  
txar egiteko azkarrak,  
kristautasuna ona da baiña  
kristauok gera kaxkarrak.

*Zeruko Argia, 1972-XII-31.*

## ESKERRAK EMANAZ

1973'garren urteko Ilbeltzaren 21'ean, omenaldi bat eskeiñi zidaten Donostian, *Astoria* antzokian. Eskerrak emanaz, iru bertso auek kantatu nituan:

- 1/ Anai-arrebok, zer portamena izan dezuten nerekin!  
Ainbeste maite ninduzutenik gaur arteraiño ez nekin.  
Gure Donosti berdingabea egitazko euskal jardín;  
usaintsu dago, bada danetik: lirio, arros, krabelin.  
Ai!, giro oni eutsi zaiogun ta ez dezala aldegin,  
gaixorik dagon gure izkuntza lenbailen sendatu dedin.  
Eztakit nola eskerrak eman, eztakit nola itzegin,  
nik gauza gutxi merezi nuen eta zuek asko egin.
- 2/ Pozaren pozez malko loditan bustirik ditut begiak,  
eta txikitat jotzen ditut gaur egindako lan guztiak.  
Maite zaituztet, euskal itxaso, baso, zelai ta mendiak;

maite zaituztet, erri txukunak, berdín baserri txuriak.  
Entzun ditudan goralpen oiek izan dira geiegiak.  
Zugaitz zarrari itsasi zaizka nunaitik mendu berriak.  
Pozik geiena zuek ematen dezute, bertsolariak,  
pixka bateko bizia oraindik badauka Euskalerrriak!

- 3/ Gure arteko jatortasun au ezin diteke berdindu,  
aurrera ere alkar maitatzen bear degu alegindu,  
uskeri danak alde bat utzi eta alkargana bildu.  
Ekin lanari gorputz ta anima, nagikeriak astindu,  
gure erriak bide bakarra nere ustetan ori du.  
Eta zuek, euskal urretxindorrek, etzaitzeta ixildu.  
Al baldin balitz gaurko zorra nik bizkor nai nuke ordaindu,  
serbitzari bat emen dezute, nai dezutena agindu.

*Zeruko Argia*, 1973-I-28.

## ARRIA TA LATASA

- 1/ Egun aundia ingura zaio  
antziñako aizkorari,  
ta jende askok bixita egin  
naiko dio Tolosa'ri.  
Gutxi-geiago errespetua  
izaten zaio plazari,  
beren ordua iritxi zaie  
Arria ta Latasa'ri.
- 2/ Biak trebeak, biak bizkorrak,  
ori ezin leike uka,  
gaur ika jardun bearko dute  
len itzegin arren zuka.  
Basarrik beintzat bere buruan  
pentsamentu auxe dauka:  
indarrak eta maiñak egingo  
dutela gaurko burruka.
- 3/ Arria sasoi betean dago,  
aundi, bikain da lerdena,  
Latasa'k berrogeitairu urte,  
jende danak dakiena.  
Alboan jartzen bazaio ere  
kontrario gogorrena,  
asko dakien azaria da  
Sunbilla'tik datorrena.
- 4/ Bakoitzak eman lezazke lasai  
bere iritzi txamarrak,  
nereak ere gerta litezke  
batzutan oker samarrak.  
Lan luze ortan ainbat garrantzi  
ezpaitu egur gogorrak,  
geiago bada gaur irabazi  
bear du azpeitiarrak.
- 5/ Iritzi ori eman badet nik  
ustez gauzak pentsatuta,  
sekula bada, bere garaia  
Arria'k oraintxe du ta.  
Gaur galtzen badu eskeiñitako  
bentajik ezin kenduta,  
ez ote luke berdin galduko  
berdiñean jokatuta?
- 6/ Goi-maillakoa izatea nai  
genduke zuen jarduna,  
erakutsiaz nolakoa dan  
aizkolari euskalduna.  
Tolosa'rako aukeratua  
daukagu gaurko eguna,  
pozik esango dizuetegu  
begiz ikusten deguna.
- 7/ Benetan artu egitekoa,  
izan lanaren ardura,  
sartu aizkora, dantza ezpalak,  
ori da lengo oitura.  
Joka gogotsu amorru biziz  
euskaldun jator modura,  
marmarrik gabe pozik joan dedin  
bakoitza bere lekura.
- 8/ Gizatasuna da lendabizi,  
au izan beti gogoan,  
gizon, al bada, etxean eta  
gizon, al bada, kanpoan.  
Batek galtzaille izan bear du  
birek jokaturakoan,  
eskuak luza biok alkarri  
lanak bukatutakoan.

*La Voz de España, 1973-II-18.*



## TURISMO TA INDUSTRIA

- 1/ Atzo politak ziran txokoak  
bear bada gaur itxusi,  
bizitz-ardatzak eskatzen du ta  
ezin leike galerazi.  
Begien bixtan daukagularik  
au nolatan ez ikusi?  
Egunero jan bear degu ta  
ametsetan ezin bizi.
- 2/ Lanaren bidez ingura bear  
premiszko irabazia,  
alare sobra baiño geiago  
izango da eskasia.  
Buruz jokatzan baldin bagera  
konponduko da guztia,  
beren sailletan errendituaz  
turismo ta industria.
- 3/ Lantoki palta ez ote degu  
zer pentsatu emateko?  
Mugaz arunzko gure anaiak  
ortxe ditugu tarteko.  
Tristeza bezin mingarria da  
bertso bidez esateko,  
norbere lurra utzi bearra  
ogi pixka bat jateko.
- 4/ Au komeria! Aize utsetik  
ezin gindezke mantendu,  
turismo eta industriari  
kendu ditekena kendu.  
Izkuntza galdu, oiturak loitu,  
sinismenetik atzendu,  
ai, bertsolari onen biotza  
onetxek erdibitzen du.
- 5/ Gorputzarenak osatu bear  
bakoitzak bere lanetik,  
lantegi edo turismotikan  
al dunak al duenetik.  
Ez gaitzezela iñoiz aldendu  
lengo bide jakiñetik,  
kristau euskaldun izanaz beti  
gauza guztien gaiñetik.

*Aranzazu, 1973, III.*

## GOIZ-ARGI ALDIZKARIARI

- 1/ Ordua da-ta asarre gabe  
mintza gaitezen txit garbi,  
eroak ere antzematzen du  
ez gabiltzala gu ongi.  
Illunpe beltzez inguratuta  
zure zai geunden aspaldi,  
amabostero gu argitzera  
azaldu zaite, *Goiz-Argi*.
- 2/ Zein deabruren bidez illundu  
da gure zerualdea?  
Norbait izan da biotz gogorra,  
erruki aundi gabea.  
Artzai premian aurkitzen da gaur  
euskaldunen artaldea,  
zuk badakizu ederki asko  
zein dan egizko bidea.
- 3/ Auxen da gaitza izkuntza oni  
kolpetik sortu zaiona,  
itxura danez, jende asko da  
noiz ilko dan zai dagona.  
Izan zaite zu erri xearen  
gidari zintzo ta ona,  
bera baita gaur gure euskerari  
bizirik eusten diona.
- 4/ Segá, igitai zorroztu ondo,  
ain daukazu zuk lan latza,  
*Goiz-Argi* zera ta zuk uxatu  
bearko dezu gau beltza.  
Egundo iñoiz ez det ikusi  
gaur dagon bezin narratsa,  
sasi txar eta larrak moztuta  
txukundu euskal baratza.
- 5/ Nastuak gaude, danok biurri,  
erri zorigaitzekoa!  
Au odolean dakarkigu ta  
ezta, ez, arritzekoa.  
Zure izkuntza izan dedilla  
iturri zuzenekoa.  
ez iñork entenditzen eztuen  
euskera izenekoa.
- 6/ Asko dituzu aurreko danak  
gaitzetsiaz dabiltzanak,  
aien laurdena izatekotan  
askotxo palta zaienak.  
Ez itzazula aintzat artu zuk  
buruariñen esanak,  
gure lurtean orain baiño len  
izan ditugu gizonak.
- 7/ Beurak zutiñik, tente nai dute,  
beste danak buruzpera,  
ikus bestela aldi onetan  
sortu duten idazkera.  
Lengo itxurik gabe utziaz  
egun batetik bestera,  
museorako traste bezela  
artu nai dute euskera.
- 8/ Onik ez leike ezer itxaron  
aldakuntza auengandik,  
baiña zuk argi egingo dezu  
andik ezpada emendik.  
Lengo bidea bezelakorik  
eztet ikusten iñundik,  
guk ere erakutsi dezagun  
bizi gerala oraindik.

*Goiz-Argi*, 1973-III-15.

## UZTAPIDE ADISKIDEARI

1973'ko Orrilla'ren 27'an, Eibar'en, omenaldi aundi bat eskeiñi zitzaion Uztapide bertsolari trebeari. Guk ez genduen joaterik izan. Ondoren datozen iru bertsoak bidali genizkion lagun aztu-eziñari.

- 1/ Zuaitzak ostoz apaindu dira  
ta naigabeak jo gaitu:  
txoririk ezagunenak lengo  
txorrotxioak nun ditu?  
Manuel maite biotzekoa,  
badezu zertaz alaitu:  
len zuk serbitu zendun Eibar'ek  
orain zeu serbitzen zaitu.
- 2/ Utsak gera ta gure almenak  
muga urrean daukate,  
zeure tokian ainbat urtean  
zuk beti zintzoki bete.  
Euskal bertsoa zuk bezin sendo  
iñork ez lezake maite,  
beraren morroi izan baizera  
eziña etorri arte.
- 3/ Eibar'en ainbat gozamen eman  
dezu euskera garbian,  
emen bezela, an eta emen,  
iritxitako tokian.  
Etengabeko ur-jarioa  
zegen zure iturrian,  
gizaldi zear gogoratuko  
zera zu Euskalerrian.

*Goiz-Argi, 1973-VI-30.*

## ISLANDIA'KO BATZARRA

- 1/ Mundutarrok kezketan  
beti ezin egon,  
alkar-izketak sarri  
egiten dute on.  
Islandia'n bilduak  
ditugu bi gizon:  
batetikan Pompidou,  
bestetikan Nixon.
- 2/ Bi buru oiek dira  
gogor itzegiñak,  
ez pentsa zituztenik  
kontu atsegiñak.  
Bakoitzak bere alde  
bere alegiñak,  
Europa ta Amerika  
eztira berdiñak.
- 3/ Amerika lendikan  
zegin indartuta,  
dolarraren indarrez  
Jainko biurtuta.  
Europa'k ez egon nai  
beti makurtuta,  
len bakarka zebillen,  
orain alkartuta.
- 4/ Len bezin xamur ezta  
egingo tratua,  
Amerika orrekin  
dago kezkatua.  
Bederatzi naziok  
emen merkatua,  
Nixon'ek ere badu  
gaur zer pentsatua.
- 5/ Burrukan dabiltzanak  
diru interesak,  
egi biurtu nairik  
nork bere ametsak.  
Burua jaso baitu  
europar arrazak,  
tontor danak berdintzen  
eztaude errezak.
- 6/ Batzar ori derrigor  
egin bear zuten,  
berriz Paris'en bildu  
bear dute aurten.  
Jakin entzuten eta  
jakin erantzuten,  
errezelo txar danak  
ito itzazuten.

*Goiz-Argi, 1973-VI-30.*

## UDAN SARTUAK GERA

Udan sartuak gera. Kosta-erri ta ondartzek izango dute ixtimazio aldi batean.

- 1/ Udaberria buka ondoren  
uda etortzen da berez,  
eta gustoko toki aietan  
denbora joaten da errez.  
Eguzki zarrak berotzen badu  
pulamentuz eta legez,  
gure ondartzak oraintxe bapo  
beteko zaizkigu jendez.
- 2/ Garai bateko kezkek joan ziran  
atsedenaldi artzera,  
ez ote gera laister jarriko  
Paradisuko antzera?  
Jainkoagatik etzaitetz joan  
ondartza bixitatzera,  
aragi puxkak ikusirikan  
izutzen baldin bazera.

- 3/ Gorputza degu amets bakarra  
bear duana emanik,  
geuk ez pentsatzen besteak baiño  
exkaxagoak geranik.  
Tentazioak gainezka daude  
gazte sasoiko izanik,  
indarrak ugaltzeko ez pentsa  
toki egokia danik.
- 4/ Olatu batek arturik dauka  
indar bildurgarrizkoa,  
arrixku biziz zaude zu ere  
ezpazera arrizkoa.  
Griña bat dago danetan gailen,  
ta bera aragizkoa,  
iñoiz bada-ta santu izaten  
orain bai dala gaiztoa.

*Goiz-Argi, 1973-VII-15 eta 31.*

## ESPAÑA'KO TXAPELDUN

- 1/ Itxumustuan presa bizian  
burruka deiak indar dik,  
euskal besotan euskal arraunek  
kemen itxua oraindik.
- 2/ Boga ta boga, seme lerdnok,  
erri zar onen onetan,  
ezpal zarraren trebetasuna  
erakutsiaz benetan.
- 3/ Kontrario latz, beldurgarriak,  
atzekaldean utzirik,  
arro ez baiña, pozik etxera,  
txapel ederrak jantzirik.
- 4/ España'ko txapelketan or  
lenengo eta bigarren,  
bear bezela tajututzeko  
denborik izan ez arren.
- 5/ Mendi gaineko artzaiak ere  
pozari ezin eutsirik,  
itxas-anaien garaitza orrek  
zorabiotan aserik.
- 6/ Artzai, langille ta nekazari,  
labe bateko opillak,  
beti aurrean ikusi nairik  
odol bereko mutillak.
- 7/ Irabazi ta galtzeko dira  
gizon arteko neurketak;  
arrokeririk gabe, apalki,  
egin bulartsu lanketak.
- 8/ Arraunak gora, arraia lenen  
iñoiz zapaltzen danean;  
gero datorren burrukarako,  
saia gogotsu lanean.
- 9/ Gipuzkoarron begietan gaur  
lore mardulak zerate;  
zorian zuri, Orio, eta  
zorian zuri, Lasarte.

*La Voz de España*, 1973-VIII-19.

*«Goiz-Argi»*, 1973-VIII-31.

*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.

## PAKEA?

- 1/ Gaur Sortaldeko gertakariak mundua dantzan daukate, denbora gutxiz laugarren gerra nolabait piztua dute. Kissinger jauna or dabil eta susmurrak ala diote: arabe eta judu artean pakea egiña ote?
- 2/ Rusitar eta amerikarrek badute beren jokoa, beste inoren berririk gabe luzatu dute lepoa. Jakin nai nuke zer dan lur ontan pakea berdintzekoa, egitazkoa izan dedilla eta ez axalekoa.
- 3/ Arrazoi al du pakea egin dala indartsu dionak? Paper batzuek pirmatu arren badira ezin egonak. Pekatariak besteak dira, geu bakarrik gera onak, itza jateko oso denbora gutxi bear du gizonak.
- 4/ Zuzenbideak izan bear du derrigorrean tarteko, legez tokatzen zaion uraxe bakoitzari emateko. Gizatasuna izan zazute pake on bat egiteko, ez gaur tiroak ixildu eta biar berriz ekiteko.
- 5/ Auzo nazio danak nastuta eten gabe arakintzan, odol gorriak ikusi gabe ez gindezke ondo izan. Viet-Nam alde aretan ere ustez pakea egin zan, etzazutela ezer sinistu: begira nola dabilzan!
- 6/ Ainbat interes dabil tarteko barrura eta kanpora, alkar nundikan galduko degun pentsatzen pasa denbora. Auzoarentzat errukirik ez, geuk igo nai degu gora, gizonarentzat gizona emen beti otso izango da.
- 7/ Aundiak aundi, txikiak txiki, diperentziak aunditzen, batzuk aberats, besteak pobre, zailla tontorrek berdintzen. Inola ere ezin ikasi anai bezela ibiltzen, balaz ezpada atomikakin, baiña beti alkar iltzen.
- 8/ Justiziaren arrastorik ez, arrokeriak indarra, pakea beti ezpainetan da nunai sua eta garra. Pentsatu utsez begietara inguratzen zait negarra, bi urte kaxkar pasa bear da ola ibili bearra.

9/ Ordu bat ezin lasai igaro,  
zenbat kezka txar buruan,  
kanpoko gaitza sartu liteke  
aguro etxe-barruan.  
Al dan artean emen nai degu,  
al dunak al dun moduan,  
ta bizitzeko ere eztago  
poz geiegirik munduan.

*La Voz de España*, 1973-XI-11;  
*Goiz-Argi*, 1973-XII.  
*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.



## UDAZKENA

Aldizkari au zure eskuetara orduko denbora aldatua izango da, bear bada. Baiña egin du ederrik aurtengo udazkenean! Gu idazten ari geran une ontan ere, urrez ordaintzen eztan eguraldia.

- 1/ Egoaizea neurritz danean ezer dan atsegiñena, euskal jendeak sasoi bereziz biziki maite duena. Gaurkoa ona, biar ohea, auxe bada gozarena! Urte-giroen errege degu lur onetan udazkena.
- 2/ Gorputzak neke udako bero sargori, kixkalgarran; neguko otzak bildurtzen gaitu, zer dago emen neurrian? Pio Baroja'k idatzi zuen tankera zoragarrian, udazkenaren moduko ezer ez tala Euskalerrian.
- 3/ Kontura ondo nekazariak zer estuasun daukaten! Arto-babarrun jaso artean patxarik ezta izaten. Presa bizian gurdi garoak etxeruntza eramaten, ganadu danak etzanleku on, biguna izan dezaten.
- 4/ Emengo aldi egiñik joan ziran aspaldi enarak, oraingo lanak or ekarriko ditu geroko patxarak. Ederki asko uxatzen dira negu beltzaren ikarak, udazkenean bear bezela bete ezkerro ganbarak.

*Goiz-Argi, 1973-XI-30.*

## URTE BERRI ON!

Irratian gaude. Au etorri zaigu burura bat-batetan: «Biar, asteartea, 1974'garren urtearen asiera dek. Urte Berriari asiera bertsotan emango bearko diok, Basarri. Etzaik denborarik gelditzen. Une ontan-txe asma bear dituk biar entzuleek entzungo dituzten bertsoak. Or daukak gizona zai grabatzeko. Zintak jasoko dizkik ire bertsoak. Betiko orduan jarriko ditek zinta dantzan, biar. Auek dituk gaurko aurrerapenak. Baliatzen jakin bear diagu». Era ontan ziran guk kantatu genituenak:

1/ Bere bidea ortxe darama  
lurreko gure bizitzak,  
«bat geiago ta bat gutxiago»  
emengo gure egoitzak.  
Maitetasunez aberats dira  
gaur Basarriren itzak:  
Urteberri Ona izan dezala  
entzuletako bakoitzak.

2/ Zarra itzali, berria piztu,  
legezkoa izan ori;  
irripar gutxi ikusten zaio  
mundu txar, biurriari.  
Urte gaiztoa izango dala  
bada bildurra ugari,  
adore biziz aurpegi eman  
deigun datorrenari.

3/ Bizimodua gora ta gora,  
au bai dala nabarmena!  
Ta zeñiek asma gure artera  
ondorean datorrena?  
Lanikan ezta, jendea astea  
kale zarretan barrena,  
nere ustetan ori litzake  
gerta leiken okerrena.

4/ Bazterrak jendez bete zaizkigu,  
au da ugaltzeko era!  
Euskalerrria gaiñezka dago  
luzera ta zabalera.  
Urte auetan millaka arrotz  
datoz gure lurraldera,  
lan ezaldi bat etortzen bada  
gaizki ibiliko gera.

5/ Ta gure kezka berdiñak ditu  
munduko edozein errrik,  
aurrez eztago neurtzerik ondo  
eskasiaren okerrrik.  
Zorioneko petrolioak  
badu ondoren ederrik,  
Europa dana dago berdintsu,  
ez gera, ez, gu bakarrik.

6/ Dana loretsu nai genduke ta  
ordez nunaitan otea,  
gure egunetan jende guztia  
dana gorrotuz bete.  
Gogoz eskertu bearko degu  
gure Jaungoiko maitea,  
gerrarik gabe bukatzen bada  
gaur asi degun urtea.

*Aranzazu, 1974.*

## ZUBELTZU BERTSOLARIAREN OMEN-EGUNEAN

Eldu zaigu, ba, Errege eguna ere; eldu zaigu Zubeltzu bertsolari zarraren omen eguna. Bere jaioterri Deba'n ospatuko da. Goizeko amaiketerdian, *Zubeltzu* antzokian, onoko bertsolari aukeratuak dituzte bere gorantzak: Agirre, Gorrotxategi, Lasarte, Lazkano, Lazkao-Txiki, Lizaso, Mugartegi, Xalbador. Gai-jartzaille ta zuzendari: Joxe Mari Iriondo jauna.

- 1/ Gazte denboran ain bertsolari egokia ta trebea, aspaldixoko urte auetan asko kantatu gabea. Zubeltzu maite, aztuta zeunden bazter batean gordea, berandu xamar izanagatik gogoratu da jendea.
- 2/ Triste zeudenak alaitu asmoz kantuz aritzen ziñan zu, udaberrian txorien gisa bai ziñala zoriontsu! Zu jaio ziñan erri politik omene eskeintzen dizu, azken urteak gozatzeko au ondo etorriko zaizu.
- 3/ An eta emen umore onez kantuzko ateralditan, tabernan sarri aritzen ziñan, berdin sagardotegitan. Beti paketsu, beti ondradu eta ez umekeritan, naste aundirik eztezu jarri iritxitako tokitan.
- 4/ Jende aundizki, eskolatuak etzun egiten kasorik; tontoak izan, ezin uxatu begietako lausorik. Bertsolaria bere maillara etzegolako jasorik, zu sasoikoa ziñan denboran etzan maitatzen bertsorik.
- 5/ Eder askoak zuri etortzen zitzaizkizun, bai, burura, probetxu gabe alperrik galtzen iturri oneko ura. Erriz-erri or ariko ziñan gaurko gaztien modura, berrogei urtez beranduago jaio baziña mundura.
- 6/ Berandu arte bertsuak eztu artu bear dan indarririk, buru argiko gizon bizkorrak nekatu ziran alperrik. Gazte nintzala eman zenidan neri gozamen ederrik, besarkadarik anaikorrena eskeintzen dizu Basarrik.
- 7/ Gu zuengana zorretan gaude, ezin uka leike ori, argia oso premizko zaio illunpetan dagonari. Bide urratzen zuek ziñaten benetako atxurlari, ai, zuek izan ezpaziñate gu ez giñan bertsolari!

*La Voz de España, 1974-I-6.*

## TOLOSA'KOA GOGORATUAZ

- 1/ Euskal indartsu paregabe bat daukat sarritan buruan, bertsoen bidez agertu nai det gogoratzeko moduan, milla ta bederatzireunetan irurogeitamairuan, Tolosa aldean begien bistan guk zer ikusi genduan.
- 2/ Neurritz kanpoko zerbait izan zan gizon baten indarketa, arkaitzarekin burrukatzea ezta gero berriketa. Aren jarduna! Aren langintza! Indar bulartsuz beteta, lenez gaiñera an ikusi zan zer dan gure Endañeta.
- 3/ Lurrean artu, gerrian bira ta sorbaldan segituan, alako ale bildurgarria iñun ezin geldituan. Pixutan emezortzi arrua ondradu eman zituan, ta emezortzi bider aupatu emezortzi minutuan.
- 4/ Ikara ere ematen zigun puska zar ari eltzean, eta txalorik etzan ixiltzen bein sorbaldan berdintzean. Sei minutuko iru tandetan, Hercules baten antzean, sei jasoaldi eman zizkion ekiñaldi bakoitzean.
- 5/ Gure gizona oraintxe dago osoko sasoi betean, lengo lan danak apurtzen ditu bein plazara joatean. Ezin sinistuz asko gabiltza emen, euskaldun artean, pertsona batek oinbeste indar nola izan lezakean.
- 6/ Zuek amabi anai-arreba, oietako bat zera zu, guztion jabe Jainkoa dala ori ondo badakizu. Onek dirua, ark buru ona, ezjakin eta jakintsu, ta zuri, berriz, Joxe Manuel, indar ori eman dizu.
- 7/ Batek bear du danen aurretik, batek bear du aurrean, guztiak daude zuri txapela gogoz kendu bearrean. Berreun da ogeitasei kiloko arririk gure lurrean oraindik ezta iñoiz ikusi gizon baten bizkarrean.
- 8/ Amorru biziz zoaz beti zu arri traketsei eltzera, bizkarreratu ere bai azkar lumatxo baten antzera. Zorionetan Tolosaratu ziñan, bai, marka jartzera, emendik bosteun urtera ere gogoan izango zera.

9/ Orain lasaitu, Joxe Manuel,  
or dago zutik egiña,  
berriz nor sortu ote diteke  
beste bat zure berdiña?  
Etxeko ezer eskertu nai ez,  
au da beti gure griña;  
diruz itota bear zenduke  
atzerritar bat baziña.

*Goiz-Argi, 1974-I-15.*

## MARKIÑA'KO IKETZA BASERRIAREN ALDE

- 1/ Suak berekin ditu  
naigabe samiñak,  
arintzeko egin nai  
orain alegiñak.  
Sei idi-pare dira  
tiralarari piñak,  
Bizkai'ko Etxebarri'n  
gaur proba bikaiñak.
- 2/ Antzua eta Burgo  
Bizkaia'n batuta,  
Gipuzkoa'n beste bi  
daude prestatuta:  
Telleria ta Urtain  
ondo alkartuta;  
Santander'tik González  
bi pare artuta.
- 3/ Iñoiz auzoarekin  
errukitzen gera,  
baita eskeiñi ere  
zernai egitera.  
Idi edo gizonek  
jo dute onera,  
danak utsaren truke  
dijoaz lanera.
- 4/ Gaur goiko gaillurrean,  
biar amildua,  
segurantzi gabea  
da gure mundua.  
Iketza baserria  
suak birrindua,  
arako izango da  
biltzen dan dirua.
- 5/ Suak jotzen badu bein  
itxu txarkerira,  
urtetako lan danak  
zuzen lur azpira.  
Naigabe ta negarra  
dakar pamilira,  
lagunak olakotan  
estimatzten dira.
- 6/ Ezbear batek uzten  
gaitu gu minduak,  
ark desegiten ditu  
kostata bilduak.  
Koskak laister lirake  
bapo berdinduak,  
beteko bagenitu  
amar aginduak.
- 7/ Probalari maiteok,  
zuentzat txalao,  
iñoiz ezta damutzen  
on egindakoa.  
Gizatasun aundia  
dezute gaurkoa,  
orrela maita bear  
da lagun urkoa.

*La Voz de España*, 1974-II-17.  
*Goiz-Argi*, 1974-III-20.  
*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.

## AZPEITI'KO OMENALDIA

- 1/ Lizaso, Agirre ta Lazkano,  
asi zorionak artzen,  
zailla da beste irukote bat  
zuen mailla ortan jartzen.  
Gogoz dabilta bertsoen bidez  
jaioterria edertzen,  
Azpeiti'k ondo ikasi zuen  
bere semeak eskertzen.
- 2/ Sasoi betean zaudetelarik,  
jarraitu bide zuzenez,  
naiz eta beti poztasun danak  
zeuen aldetik izan ez.  
Etenik gabe, erririk erri,  
egi sendoak esanez,  
puskarik ezin kendu oieri  
bertsolariz ta gizonez.
- 3/ Zuen bertsoak nunai ta beti  
ain gogozkoak zaizkigu,  
Jaunak zer doai eman dizuten  
aspalditxotik dakigu.  
Izarraitzpeko erri jatorrak  
poz au emango al digu?  
Ea berriz noiz sortzen dituzun  
orrelako beste iru.
- 4/ Agortzen eztan iturri ori  
zoragarria ez al da?  
Kanta alai ta kanta bulartsu,  
entzun nai duenik bada.  
Bertsozale dan guztiarentzat  
egun au txit ederra da,  
bana-banaka ar zazute gaur  
Basarri'ren besarkada.

*El Diario Vasco*, 1974-III-10.  
*Goiz-Argi*, 1974-IV-3.  
*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.

## JESUS ESKISABEL

- 1/ Agurtu nai zinduzket  
gaur maitasun sutsuz,  
bete gaitzazu danok  
umorezko kutsuz.  
Jokatu zeralako  
gizonki ta zentzuz,  
omen egun aundia  
iritxi da, Jesus.
- 2/ Umoretsu etxean  
ta berdin kanpoan,  
itzik ezin atertu  
bein asitakoan.  
Ateraldi zorrotzak  
pillan da mordoan,  
tristurarik eztago  
Jesus'en ondoan.
- 3/ Etorri ori ezin  
paga leike urrez,  
osatua zaude zu  
gatzetz ta piperrez.  
Izketa xelebrea  
sortzen zaizu errez,  
sarri utzi nazu ni  
ler zorian parrez.
- 4/ Zu alboan izanik  
beti dago jaia,  
ain errez dabilkizu  
artzen dezun gaia.  
Iztun umoretsua,  
trebe ta alaia,  
Jaunari zor diozu  
daukazun doaia.
- 5/ Gorrotu, inbiri txar  
ta gafiñontzekoak,  
eztira nere ustez  
desiatzekoak.  
Lotsagarri uzteko  
asmo beltzekoak,  
ugaldu ditezela  
zure antzekoak.
- 6/ Aspalditxotik gaude  
zugana zorretan,  
une gozoa pranko  
paseak or bertan.  
Bein da berriro bildu  
nai guk Legorreta'n,  
zorionak, lagun zar,  
ta jarrai orretan!

*La Voz de España, 1974-IV-7.*



## ENDAÑETA TA MENDIZABAL II

- 1/ Irten zaitezte, bertso maiteok,  
ta eman nunaitan parte,  
Endañeta ta Mendizabal'ek  
ondo merezia dute.  
Biok zenduten sasoi aparta,  
biok zenduten aldarte,  
zuen lan ori oroituko da  
mundua mundu dan arte.
- 2/ Azpeiti ortan jendea bazan  
iñun ezin kabi-ala,  
ni ziur nago joandako damuz  
iñor itzuli etzala.  
Arkaitz aieri begiratuta  
gu bai izutzen giñala,  
zuen eskutan esan ziteken  
jostaillu batzuk zirala.
- 3/ Zuen egintza ori aizeak  
mundu zear eramana,  
izkuntza askotan aitatuko da  
Azpeiti'n gertatu dana.  
Neurri gabeko indarra zuek  
baiña norbaitek emana,  
Jaungoikoari esker ematen  
badezute naiko lana.
- 4/ Nun entzun dira ainbeste txalo,  
aupá, oiú ta karraxi?  
Ura ikusi egin bear zan,  
eleike adierazi.  
Arri zarrekin burrukaturik  
ain gogor il edo bizi,  
iñor galtzaille izaterikan  
joko ark etzun merezi.
- 5/ Zer landareak etorri ziran  
auék euskaldun lurrera!  
Lotsarik gabe irten gindeke  
gaur edozeiñen aurrera.  
Ogei arrua ta emezortzi  
pixatuz lengo legera,  
amabost minutuko denboran  
zortzi aldiz bizkarrera.
- 6/ Berebiziko itzala beti  
Endañeta dan lekuan,  
sarri ezkerá, ez, konturatzen  
onek zer balio duan.  
Guk, euskaldunok, txapeldun on bat  
etxean bear genduan,  
ogei arrua jasotakorik  
besterik ezta munduan.

*La Voz de España, 1974-VI-9.*

## KORTABERRI AIZKOLARIAREN OMENALDIAN

Loraillaren 26'an, Inazio Elorza «Kortaberri» aizkolari zarraren omenaldia izan zan bere erri Mendaro'n. Urte ontako abenduaren 12'an beteko ditu irurogeite-meretzi urte Kortaberri'k. Ondoren irakurriko dituzuten bertsoak moldatu nituen omen egunerako.

- 1/ Mendaro du ostatu,  
ai, gaurko batzarrak,  
pozez gaiñezka gaude  
azaldu bearrak.  
Goraldu nai lukete  
gogoz erritarrak,  
danak merezi ditu  
Kortaberri zarrak.
- 2/ Inazio Elorza  
nork eztu gogoan?  
Gizon obean billa  
iñora ez joan.  
Tarteka baserrian,  
tarteka basoan,  
lana izan du lagun  
bizitza osoan.
- 3/ Agiñeta beste bat  
gogoan deguna,  
Arria zarra berriz  
guztien laguna.  
Ederra izango da  
gaur oien jarduna,  
azkarregi pasako  
zaiote eguna.
- 4/ Basoa zuten oiek  
betiko ametsa,  
urrutira nabarmen  
aizkoraren otsa.  
Zenbat lan egin duten  
ezin leike pentsa,  
bizimodua etzan  
gaur bezin erreza.
- 5/ Euskalerrri maitea  
ari da itxusten,  
gizon auek zer gauzak  
ikusituzten!  
Pago, aritz ta gaztain  
len lagun zituzten,  
piñu beltza besterik  
gaur ezta ikusten.
- 6/ Ain jende indartsua,  
sendo ta mardula,  
nola sinistu leike  
guk izan degula?  
Beste alimenturik  
etzuten sekula,  
ez esan baba beltzak  
indarrik eztula.
- 7/ Trontzan, zerran, aizkoran,  
nekerik aundiñez,  
pamili bat aurrera  
atera eziñez.  
Naiz orduko lanaren  
erdirik egiñ ez,  
orain bizio txarra  
jarri zaigu gaiñez.

8/ Artu, tokaio maite,  
millaka zorion,  
egun au noiz elduko  
aspaldi zai nengon.  
Zu besarkatu gabe  
gaur ni ezin egon,  
zure ondoan ortxe  
nai nuke Mendaro'n.

*Goiz-Argi. 1974-VI-12.*

## LEON ALBENIZ «IRUNTXIBERRI»

- 1/ Kantuz alaiki dator  
 gaurkoan Basarri,  
 zerbait esan naiean  
 aiar bizkor orri.  
 Euskalerrri guztiak  
 badu bere berri,  
 txiki aundirik bada  
 bat «Iruntxiberri».
- 2/ Gazterik artu zuan  
 korrika-moldea,  
 laguntza geiegirik  
 etzuan ordea.  
 Nola leike ainbeste  
 indarren jabea  
 sekula lau arrua  
 pixatu gabea?
- 3/ Nekea maite duan  
 serbitzari piña,  
 indarrez astuna ta  
 pixuan ariña.  
 Gorputz berezia du  
 ortako egiña,  
 asiera ona ta  
 azkena berdiña.
- 4/ Orren zain giartsutan  
 bada, bai, odola;  
 ederki daki zaitzen  
 plazako esola.  
 Oker txiki bat eztu  
 egingo iñola,  
 ondo ikasia du  
 premizko eskola.
- 5/ Buruz ere azkarra  
 gauzak ikasteko,  
 komeni dan garaian  
 jo ta jo asteko.  
 Kapaz da bizkorrena  
 zearo nasteko,  
 latin jakin bear da  
 orri irabazteko.
- 6/ Urrillaren seiean  
 ura zoramena!  
 Tolosa'n utzi zuan  
 marka nabarmena.  
 Ikusten degunari  
 eman aitormena;  
 ia berrogei urte  
 ta bera onena.
- 7/ Gorputzari emanaz  
 millaka nekaldi,  
 berez txikia dana  
 egin zaigu aundi.  
 Eluke izango, ez,  
 oinbeste alderdi,  
 parrandan balebil or  
 gau eta gaberdi.
- 8/ Beti amets batekin  
 gau, goiz, arratsalde,  
 erabat eskeiñirik  
 nekearen mende.  
 Penatuta egin da  
 gradu orren jabe,  
 «eztago arrosarik  
 arantzarik gabe».

9/ Zu zaude laztua ta  
zu zaude zaildua,  
zure bidetik jotzen  
dago istillua.  
Zuk utzi dezu, Leon,  
zerorren seillua,  
gero letozkenentzat  
zu zera ixpillua.

*Joxe Migel Maiz:*

10/ Zure kontra ezta, ez,  
iñor mintzatuko,  
geiagorik kristauak  
eztu eskatuko.  
Maiz pozten nola enaiz  
ni aleginduko?  
Gizatasunez eztu  
iñork berdinduko.

11/ Lenengotik pentsatu  
zenduan jotzea,  
al ziteken bentaja  
guztia kentzea.  
Gerta izan danetan  
birek jokatzea,  
derrigorrezkoa da  
norbaitek galtzea.

12/ Jaso biotza eta  
katerik ez eten,  
jakin zazu ezbear  
danak eramaten.  
Gorputzak eztu beti  
nai danik ematen,  
egun danak eztira  
berdiñak izaten.

*La Voz de España*, 1974-X-13.

*Goiz-Argi*, 1974-X-30.

*Kezta-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.

## ZIARAN-ZAR, SOARTE

- 1/ Ziaran-Zar, Soarte,  
alaitu zaitezte,  
auzotarrek gaur asmo  
aundiak dituzte.  
Pestatik jarri dute  
iñoiz ez ainbeste,  
jaiotako baillarak  
gogoan zaituzte.
- 2/ Izan dezuten mailla  
gogoan daukate,  
etzeuden lasai jaiak  
antolatu arte.  
Gaur zuek omentzeko  
zenbat borondate!  
Zein baiño zein obeak  
izan baizerate.
- 3/ Mendi bidean ortxe,  
gora ta trabeska,  
kaleko kutsu txarrak  
arrapatzen ezta.  
Gorputza penatzea  
beti zuen kezka,  
ez egon baziñate  
bizioz gaiñezka.
- 4/ Urteak bizkarrean,  
gaiñera ugari,  
noizpait pakean utzi  
bear arriari.  
Ogibide berdiña  
gertatu biori:  
len arrijasotzaille,  
orain tabernari.
- 5/ Zuek ere aurreko  
batzun jarraitzaille,  
ispillua da beti  
danon agertzaille.  
Gaur baldin bada ainbat  
arrijasotzaille,  
zuek izan ziñaten  
bide-urratzaille.
- 6/ Ezkaitezela gerta  
eri edo erren,  
orreratu nai degu  
al danik azkarren.  
Zuen ondoan artu  
gaitzazute, arren!,  
egun on bat nai degu  
igaro Lasturren.
- 7/ Agurtuko zaituzte  
ainbat zar da gaztek,  
Lastur maite, musuka  
gaur jango zinduzket.  
Beste ilusiorik  
nere baitan ez tet,  
besarkada batean  
estutzen zaituztet.

*La Voz de España*, 1974-X-20.  
*Goiz-Argi*, 1974-XI-20.  
*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.

## ZIRI EDERRA

Aurreko urtetan udazkenaren zai egoten giñan, urte guztiko eguraldirik bikaiñenak egiten zituala ta. Aurtengo ontan sartu digu ziri ederra. Goiak asi dira elurrez zuritzen, eta bee aldeak itxaso biurturik, etenik gabeko euri erasoak dirala bide.

- 1/ Denborak ere, petral asita,  
badaki petral irauten,  
zerbait aldatzen asiko balitz  
zer poz emango liguken!  
Eztakit, jaunak, laiño zar oiek  
zenbat gaitz egin nai duten,  
pikorik ere bear bezela  
etzaigu elduko aurten.
- 2/ Iturri danak zabalik eta  
bota ta bota zerutik,  
zer etxeratu bear da gero  
ezer eztagon lekutik?  
Usteltzen dana gaitzak jotzen du  
kanpotik eta barrutik,  
babarrun ona jan nai duanak  
pagatuko du larrutik.

3/ Urte guztian uztaren zai ta  
au bukaera zoroa!  
Soroak ibai, ganbarak utsik  
eta zutiñik garoa.  
Zeruko Aita, derrigor bear  
degu zure anparoa,  
komeni bada, eman zaiguzu  
itxurazko azaroa.

4/ Etenik gabe jario biziz  
orrenbeste gau ta egun,  
eta ikusi kanpotik ere  
zein berri txarrak dauzkagun.  
Olioz eta azukrez urri,  
ez arto ta ez babarrun,  
pranko beldurtzen asia nago  
zer ikusi bear degun.

*La Voz de España*, 1974-X-27.  
*Aranzazu* 1974-XI.



Bertsolari jaialdi batean.



Bertso jartzaillen billera, Arantzazun.



## SAN MARTIN EGUNEZ

Biar San Martin eguna degu. Nola oroitu ez gure ume denborako kontuak? San Martin egunez egiten ziran baserri al-daketak. Maizter batek nagusiarekin zer-bait izan bazuan, edo bere ustez baserri obe baterako tratua egin bazuan, San Martin egunerako ustuko zuan len bizi zan etxea. Gaur baiño estimazio ohea zuan orduan baserriak, gaur baiño askoz gaizkiago bizi arren.

Etxean gizendutako zerria iltzeko ere egun seinalatu samarra oi zan San Martin. Urteko sagardo berriak edateko ere bai. Gu Aia'ko Urdaneta baillarara joan oi giñan gonbirau San Martin egunez, ama angoa izanik. Eguna irixteko irrikitzen egon oi giñan, baserriko gaztain erreak jan eta sagardo berri gozoa edateko.

Orduko bazkari ta eltzekaiak gogorazten zaizkigu amaika aldiz. Beeko suan prantatzen zituzten jatekoak, baiña... nola gero! Orain berrogeitamar urte, ondo ere ondo jaten zan gure baserrietan, gonbirauak ziranean. Galdu ziran oitura aiek ere, beste ainbat eta ainbat bezelaxe.

- 1/ Au aldaketa bizimoduak ardatzean dakarrena!  
Umeak giñan denbora ura nigana gaur datorrena.  
Aizeak orru, euriak indar,  
goxo sukalde barrena,  
zerri gizena iltzeko ez da urte sasoirik txarrena.
- 2/ Zoaz baillara askotara gaur,  
bai daudela negargarri!  
Kanposantuen itxura dute,  
ezin zaiete igerri.  
Danak saldu ta azken urtetan  
asko kalera etorri,  
zenbat gelditu diran oraintxe  
ez zerri ta ez baserri!
- 3/ Eldu al zaio baserriari  
eriotzako ordua?  
Edo egingo al du oraindik  
arnas artzeko modua?  
Erabaki bat artu baiño len  
ondo nekatu burua,  
gaur baserria inpernu bada  
kalea ez da zerua.

*La Voz de España, 1974-XI-10.*

## IPAR-AMERIKA TA MEJIKO

Ipar-Amerika ta Mejiko'ren arteko artu-emanak etziran oso gustagarriak orain-txe arte. Ipar-Amerikan ogia irabazten duten mejikotarrek esaten dituzte bere-nak eta bi. Pertsonen trataturik ezti-tela ematen; abereen pare tratatzen dituztela, ta al dakigu guk zenbat katramailla!

Orain, gabetik goizera, arrigarrizko petrolio aberastasuna agertu Mejiko'n. Ipar-Amerikari ezin da obeto etorriko zaion aberastasuna. Len aintzat artu gabe zokoraturik zeukaten nazioarekin ondo konpontzea komeni. Denbora galdu gabe bilduko ta batzartuko dira, itxurak diranez, Ford eta Etxeberria, nazio bietako agintari buruak.

- 1/ Ikusten diran itxuskeriak nolatan egin grazirik?  
Lagun urkorik eztago iñon ezpada irabazirik.  
Mejikitarrak ainbat denboran alde batera utzirik,  
erbirik eztan tokian eztu zakurrak artzen usairik.

- 2/ Egun batetik bestera au da aldaketako modua,  
Mejiko'k orain bere aldera alda lezake ordua.  
Petrolioak emango dio premizko duan dirua,  
lenago azken morroia zanak jaso dezala burua.

- 3/ Zer aldakuntzak ikusten diran mundu ontan egun bian!  
Eztagon Mejiko'ren bearrik,  
au lendik bagenekian.  
Garai bateko ijito zarrak izketan ondo zekian:  
«Jendeak garbi dauzka eskuak ezer eztagon tokian».

*La Voz de España, 1974-X-27.  
Aranzazu, 1974-XI.*

## ONASSIS

- 1/ Nai zan aberastasun  
guztia zeukana,  
zillar, urre artean  
estali oi zana.  
Onassis ere azken  
arnasa emana,  
badago zerbait diruz  
konpontzen ez dana.
  
- 2/ Lurreko urte auek  
laburrak ditugu,  
aberats edo pobre,  
jakiña daukagu.  
Oinbeste arrotzeko  
zer kirten gera gu?  
Asera ta azkena  
berdiñak daukagu.
  
- 3/ Utsik etorri zana  
utsik geldituta,  
danon Egille dana  
alaxe nai du ta.  
Alako milloi pillak  
utziak ditu ta,  
on egingo luteke  
ondo partituta.
  
- 4/ Gizona berekoia  
izaten da berez,  
pillatu ote leike  
orrenbeste legez?  
Emen pakez bizitzen  
ez da oso errez,  
batzuk geiegi eta  
besteak baterez.

*La Voz de España, 1975-III-22.*

## PAZKO-JAIA

Igaroberri degu Berpizkunde eguna, Pazko eguna. Urteko egunik aundiena kristauontzat. Kristo illen artetik piztu ezpalitz, etzan izango kristautasunik.

- 1/ Entzun arreta biziz:  
ori kanpai otsa!  
Igaro da betiko  
une txar, mingotza.  
Neurririk gabea da  
gugan degun poza,  
Jauna, zuk menderatu  
dezu eriotza.
- 2/ Usaindu da gogotik  
udaberri lora,  
poztu, kristau maiteok,  
eldu da denbora!  
Alaitasun betean  
biotz danak gora,  
Kristoz iltzen dan ura  
Kristoz piztuko da.
- 3/ Azken odol tantoa  
leialki emana,  
gurutzeko zigorra  
jasan zenduana.  
Irujarren egunez  
berpiztu ziñana,  
gu salbatzeagatik  
egin zendun dana.

*Goiz-Argi, 1975-IV-9.*

## HELSINKI'KO BATZARRA

- 1/ Alako batez biltzea eta mintzatzea erabaki, Albanitarrik ez da azaldu, badute zerbait aitzaki. Europa'n diran nazio danek ura dute batzartoki, gaur beste itzik ez da entzuten: Helsinki eta Helsinki.
- 2/ Zutik gabiltza, baiña kezkatu, noiz baiño noiz eroriko, zorakeri bat aski litzake danok galtzeko betiko. Izketatuak dira gogotsu ezker eta eskubiko, lasaitasunik ez ote digu batzar orrek ekarriko?
- 3/ Armik txarrenak ugarituaz etenik gabe jo ta ke, gaurko egunez zentzu pixka bat erakutsi nai litzake. Nai dunak nai dun eran pentsatu, baiña izan bedi pake, orain gerra bat sutu ezker danok galduko giñake.
- 4/ Ai, txarrerako aurrerapenek ez dute izan neurririk, au mesede bat izan liteke ondo pentsatzen jarririk. Atomikak zer ekar lezaken aurrez gaude igerririk, arek ezpaitu errepestatzen zuririk eta gorririk.
- 5/ Pekatari ta erru gabeak, danok or gaude katean, azken berdiña ez ote degu izango egun batean? Arau au bete bear litzake erri guztien artean: nor bere etxea gobernatuta, besteri utzi pakean.
- 6/ Bakoitzak bere ona nai luke, ta beti ez bide garbiz, auzoa galtzen saiatzen gera neurri gabeko arrabiz. Kapitalista, sozialista, azpijanean or dabilta, bien azkena litzake orain gerrarik sortuko balitz.
- 7/ Batzar ortako ondorenaren zai gelditzen da mundua, gizonak zentzuz osa gaitezen, iritxi baita ordua. Egin bezate arrixku danak uxatuzeko modua, bestela alperrik daramakite lepoaigñean burua.
- 8/ Zuen batzarra, Jainkoagatik, ez bedi gerta alperrik, iñola ere ez da komeni modu ortako okerrik. Gure egarria nolakoa dan ez dago esan bearrik, obra sendoak bear ditugu ta ez itz utsak bakarrik.

*La Voz de España*, 1975-VIII-1.  
*Goiz-Argi*, 1975-VIII-20.  
*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.

## GABON AURREKO GOGOETAK

- 1/ Pentsamentutan ler zoriz nabil  
sarritan gau eta egun,  
ez dakit nora ezkutatu dan,  
edo zentzua nun degun.  
Bi milla urte jaio ziñala;  
au garbi aitor dezagun:  
zer gertatzen da, Jesus maitea?  
Ez da batere ezagun.
- 2/ Zakartu zaigu itxasoa ta  
ezin baretu iñola,  
lurra estali bear ote du  
amorrua dariola?  
Gurutze lotsagarri batean  
il ziñuten, eta... nola!  
Alperrikako izan ote zan  
eman zenduan odola?
- 3/ Aurrerapenak aukeran daude,  
joak gaude errezero,  
erosotasun ugari sortu  
zaigu gabetik goizera.  
Ikusten danak au naigabea  
dakar nere biotzera,  
jakindurian aurrera goaz,  
gizatasunez atzera.
- 4/ Gizona berez ain da eskasa,  
ain da txatxu ta ariña,  
birtute bidez ezin zapaldu  
txarrerako duan griña.  
Etzan ain errez nagusituko  
negarra eta samiña,  
kristau izena degunok beti  
kristau jokatu bagiña.
- 5/ Gaur ekaitz gabe ez dago iñun  
ez erri, ez pamilirik,  
nagusi, morroi, apaiz, sekular,  
zar, gazte, aundi, txikirik.  
Noiz izan da len orain aiñako  
gorroto ta inbidirik?  
*Pake urtea* degula aurten?  
Ez da itxura aundirik!
- 6/ Alai kantatu nai nuan, baiña  
barren au tristea dago,  
o, Jesus ona, noiz izan gera  
gaur baiño biurriago?  
Gizonengana inguratzeke  
beldurrez jarria nago,  
baiña Zugan nik orain sinisten  
sekula baiño geiago.

*La Voz de España*, 1975-XII-21.  
*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.

## ESKARIA

- 1/ Bertso maiteok, irrintzi gisa,  
poztu millaka belarri,  
erri zar onek ase eziñik  
badu amaika egarri.  
Zure aurrean txapela kenduz  
kantuan dator Basarri,  
zerbait eskatu nai nizuke gaur,  
biotzeko Urteberri.
- 2/ Ainbat burruka ta petralkeri,  
liskar eta ixkanbilla,  
irabazirik inñundik ezta,  
alde guztitik makilla.  
Alkarri zerbait amor emanik  
goazen pakearen billa,  
gizon artean zentzu pixka bat,  
arren!, ugaldu dedilla.
- 3/ Gure griña ta gure jo-muga  
beti alkar galtzekoa,  
egun bi pasa bear emen da  
ez al da arritzekoa?  
Urte alai bat amesten degu,  
ez bekozko beltzekoa,  
Urteberri, zu, ez izan beintzat  
aurrekoen antzekoa.
- 4/ Utzi txarkeri danak albora,  
utzi ezin ikusia,  
bakoitzak bere soroan badu  
lanean nundik asia.  
Batak bestea errespetatuz  
egiña dago guzia,  
au da guk gure euskal lurreean  
nai degun demokrazia.
- 5/ Egundo inñoz inñor ez artu  
derrigorrean katetik,  
«Goiz-Argitarrok», aurrera sendo,  
dakigun toki batetik.  
Beste bide bat artu dutenak  
or konpon beren aldetik,  
guk jo dezagun beti kementsu  
egizko *erri-bidetik*.
- 6/ Auek nituan, o, Urteberri,  
zuri esateko itzak,  
uxa itzazu gure artetik  
denborale ta ekaitzak.  
Oraindik ere senda ditezke  
gure izkuntzaren gaitzak,  
elur-bilduak urtuko ditu  
datorren eguzki printzak.

*Goiz-Argi*, 1975-XII-27.  
*La Voz de España*, 1975-XII-29.  
*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.

## AUSTRALITAR AIZKOLARIAK

- 1/ Millaka kristau inguratuak  
antsi biziz Donosti'ra,  
Anoeta'ko barrunbe artan,  
bazan aizkora ditzira!  
Zoramenetan egonak gera  
Australitarrei begira,  
beste paraje batzutan ere  
aizkolariak badira.
- 2/ Zer gertatu zan ondo dakigu,  
begira egon giñan-da,  
kukuak oker jo zigun guri  
geiegi amor emanda.  
Iñork etzuan bear bentajik  
txapelketa bat izanda,  
egur erdiak zutikan eta  
beste erdiak etzanda.
- 3/ Neurritz kanpora izendatu zan  
aien gustoko zan lana,  
gero alperrik gure mutillek  
artutako neke dana.  
Guretzat etzan txit pozgarria  
Donosti'n gertatu zana,  
australitarrek ez dute kulpik  
gu gizajoak izana.
- 4/ Gogorrak dira ta badakite  
basoko lanaren berri,  
etziran andik Donosti'raiño  
galtzeko asmoz etorri.  
Kondizioak berdin jarrita,  
alare naikoa larri,  
aiek ez dira atzekaldean  
geldituko lotsagarri.
- 5/ Etzaie palta jakinduririk,  
etzaie palta indarrik,  
aien epaiak zuzenak ziran,  
an etzegoan okerrik.  
Aurrez sekula ez egin iñon  
erronkazko deadarrik,  
amaren seme bizkor, trebeak,  
ez dira emen bakarrik.
- 6/ Lendikan ere guk bagenduan  
australitarren entzute,  
asko balio dutela orain  
begiz ikusi dezute.  
Zerbait bentaja bazuten baiña  
txapela kendu digute,  
Australitikan etorri eta  
lezio bat eman dute.

*Goiz-Argi, 1976-I-24.  
Kezka-giroan, Auspoa 169, 1983.*



## ARIAS JAUNAREN ITZALDIA

- 1/ Gaur Gobernuko buru dan jauna  
izketan asi zanean,  
ezagun zuan zer korapillo  
zeukan bere barrenean.  
Galbaian pasatako itz asko  
zegon aren mingaiñean,  
dantzan egiten ezpaita errez  
ari me baten gaiñean.
- 2/ Telebistaren aurrean danak  
antxe belarri ta begi,  
antsi bizitan noiz adituko  
beren gustoko lau egi.  
Gaur asmatuko duanak emen  
bear du gizon ta erdi,  
geitxo esan du batzuentzako,  
besteentzako gutxiegi.
- 3/ Nundikan asi eta nora jo  
egoera larri ontan?  
Danen gogozko irin gozoa  
nork eioko du errotan?  
Ekonomia lur jota dago,  
mugarik ez preziotan;  
gobernatzea ez da erreza  
olako kondiziotan.
- 4/ Bi egaletan marmar zakarrak,  
jaunak, ez da oso giro;  
itzez ta letraz or ari dira  
alkarri tiro ta tiro.  
Txarrena gerta baiño lenago  
amor eman anaikiro,  
edo bestela odol ixurtzen  
laister gera gu berriro.
- 5/ *Kontziertoa* aitatzen da gaur  
itxaropena pizteko,  
lenengo mailla izan liteke  
gaillurrera irixteko.  
Ezer onikan lortu baledi  
ez gaude ori uzteko,  
ez al da ordu gure etxean  
zerbait agintzen asteko?
- 6/ Arias jaunak itzaldi ortan  
lur-sail batzuek berezi,  
gu jaio giñan onek ez al du  
arnas-biderik merezi?  
Ateak irikitzen badira  
argiari sartzen utzi,  
auzoak maite ditugu baiña  
etxea da lendabizi.

*Goiz-Argi, 1976-II-7.*

## EUTSI LURRARI!

- 1/ Galdezka nago nere baitan ni:  
zer gerta bear du emen?  
Gauzak okertzen ari dirala  
ikusten baita nabarmen.  
Prezio danak gora presaka  
al dutenikan bizkorren,  
kezka jarri naiz berriro ere  
gosea ote datorren.
- 2/ Etxe utsean zaratak sarri,  
jendea gaiztakerira,  
prezko diran ainbeste gauza  
ezin bildu pamilira.  
Soldata laura igotzen bada,  
bizimodua zortzira,  
egiten diran burruka danak  
alperrikakoak dira.
- 3/ O, anai maite baserritarrok,  
badator zuen ordua,  
argi ditzira ez ote dago  
laiñoz goitik azaldua?  
Nora dijoaz lurreko gauzak  
eta nora ganadua?  
Damutu bear zaie askori  
etxe ta lurra saldua.
- 4/ Nola kaleko, ala mendiko,  
danok bear degu bizi,  
estuusun bat datorrenean  
norbera da lendabizi.  
Eutsi etxe ta lur sail danari,  
metro bakar bat ez utzi;  
azkenik emen nekazaria  
geldituko da nagusi.
- 5/ Aspaldi ontan zuentzat ziran  
eziñak eta negarrak,  
min ematen du besteak baiño  
beerago egon bearrak.  
Lautatik bira jetxiagatik  
emengo baserritarrak,  
nik asmatuko dutela uste  
gelditzen diran bakarrak.
- 6/ Pauso bakoitzez aurkitzen dira  
iru edo lau arazo,  
zulo bat itxi, bestea egin,  
zenbat lan gaizto, nekoso!  
Denbora ontzen asten ezpada  
gaizki bear degu oso.  
lur jota dagon ekonomiak  
burua nolatan jaso?

*Goiz-Argi, 1976-II-28.  
Kezka-giroan, Auspoa 169, 1983.*

## DANOK ANIMALI

- 1/ Euskal gizona ere  
ain izan argala,  
uste det goitik beera  
eroria dala.  
Alkar ondatu naian  
nola edo ala,  
esan liteke danok  
erotu gerala.
- 2/ Zer ekaitzaldik egin  
du emen sarrera?  
Zer zorigaitz azaldu  
da gure lurrera?  
Danok amorratuta  
or goaz txarrera,  
basa-piztiak baiño  
okerrago gera.
- 3/ Nun da kontzientzirik  
eta nun barrenik?  
Nun da gizatasunik  
eta nun ordenik?  
Gaur ainbeste gorroto  
ez det somatu nik,  
zeiñek esan euskaldun  
lurrean gaudenik?
- 4/ Bat ideaz gugandik  
urrun dagolako,  
zertan artzen degu guk  
su txarkerirako?  
Ura galtzera goaz  
bizi guztirako,  
au ez degu bidea  
demokrazirako.
- 5/ Ontan bide luzean  
ez gera, ez, joango,  
onek ondoren onik  
ez digu emango.  
Zuri, gorri ta urdin,  
orko ta emengo,  
alkar errespetatzen  
ikasi lenengo.
- 6/ Gurdia ez dedilla  
betiko irauli,  
argirik gabe ezin  
gu zuzen ibili.  
Denborale zakarrak  
kandela itzali,  
fedea galdu da-ta  
danok animali.

*Goiz-Argi, 1976-III-20.  
El Diario Vasco, 1976-III-21.  
Kezka-giroan, Auspoa 169, 1983.*

## LIZARTZA'KO ITXUA

Gipuzkoa'ko egal askotan da ezaguna Kaxiano Ibarguren «Lizartza'ko Itxua». Soiñujolea dalarik, bera izan da ogeitabost urte illarakoetan Errezil'go jaiak alaitu dituana. Zillarrezko eztaiak ditu Errezil'ekin soiñujole modura. Eta Errezil'go erriak, gazte ta zarrek bat egiñik, omenaldi bat egitea erabaki du. Gaur, igandea, loraillak amasei, ospatuko da, ain zuzen. Soiñujole ta bertsolari, danetik da Kaxiano. Baiña auetaz kanpo ta auen gaiñetik, gizon osoa, gizon gozo ta atsegiña.

- 1/ Zure zai antsiz egon oi dira mutiko eta neskatill, zure izena len eta orain guztien aotan dabill. O, Kaxiano, erri osoa dago pozkarioz pill-pill, zuk ogeitabost urte luzetan alaitu dezu Errezill.

- 2/ Gizatasunez jotzen dezu zuk maillarik gorakoena, nunai lagunak ugaltzekotan ori da bide onena. Gazte ta zarrek, danek badute zukanako aitormena, igande ontan jasoko dezu merezitako omena.

- 3/ Gaur inguruan mutil prestua, berdin neskatxa liraiña, errezildarrek zu goraltzeko izango dute mingaiña. Gerta dedilla laiño gabeko egun sendo ta bikaiña, ta, Kaxiano, jaso zazu zuk on egiñaren ordaiña.

*Goiz Argi, 1976-V-15.*

## ARozAMENA'RI

(Bere omenaldi egunerako, 1976-V-23)

- 1/ Bertsolaritik egon ezkeron  
nai genduken ugalmena,  
guk ez genduke ezagutuko  
euskeraren ondamena.  
Napar anaiek gure artean  
sortu duten zoramena,  
Leitza'k Lasarte eman zigun da  
Lesaka'k Arozamena.
- 2/ Askok itzegin naiko dute gaur,  
Migel, zurekin bakarka,  
pertsone onak ugari dira,  
zu bezin onak banaka.  
Betozen ugari zure bertsoak,  
itxi gabetan ataka,  
batera besarkatzen zaituztet  
bai zu eta bai Lesaka.
- 3/ O, Naparroa, zuzan badituz  
nik nere itzaropenak,  
kantuz ikusi nai dituz trebe  
sasoiko gazte lardenak.  
Guztiok zartzen ari gera-ta,  
asi zaizkigu etenak,  
betozen lenbailen gure tokia  
zintzo beteko dutenak.

*Goiz-Argi*, 1976-V-22.

*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.

## PEDRO LIZARDI

Illaren 27'an, Pedro Lizardi errederiar txistulari aundiaren omenaldia izango da bere errian. Lizardi'k urrezko eztaiak ditu txistuarekin. Berrogeitamar urte aundi dira Errenderi'ko kale ta plazak alaitzen dituala.

- 1/ Jantzi onenak artu soiñean,  
biotzeko Errenderi,  
berdingabeko egun bikain bat  
eskeintzeko Lizardi'ri.  
Ai, zure aize-errota orrek  
egin du lana ugari,  
berrogeitamar urtean zera  
zu erriko txistulari.
- 2/ Zer gizaseme egokia ta  
zer gizaseme prestua!  
Euskal arrazak berezko duan  
doaiez aberastua.  
Errenderi'ko kale ta plazak  
amaika bider poztua,  
zerutar erregalia baita  
zure ezpainenetan txistua.
- 3/ Errenderi'ko bi izar daude  
argirik galdu eziñik,  
orain bakarra ikusten degu,  
lagun onak aldegiñik.  
Gazte denboran or ibilliak  
biok gorputz bat egiñik,  
Lizaso zure lagun, maixuak,  
iñun etzuan berdiñik.
- 4/ Jaiotzatikan ekarri zuek  
biok txisturako sena,  
tresna zailla da au askorentzat,  
zuentzako errezena.  
Arrigarrizko zuen artea  
zalantzan jartzen etzana,  
zeruetara jaso zenduten  
Errenderi'ren izena.
- 5/ Txistuari zuk eman diozu  
zegokion goiko mailla,  
aspertu gabe ortxe lan da lan,  
beti geiagoren billa.  
Borondatea gaiñezka eta  
jotzaille trebe, abilla,  
biotz tristeak alai jartzeko  
zu izan zera mutilla.
- 6/ Txistua goruntz jaso naiean  
zenbat neke ta izerdi!  
Berrogeitamar urte luzetan  
etzera egona geldi.  
Zure pareko bat sortzerako  
joan litezke lau gizaldi,  
besarkadarik anaikorrena,  
nere lagun zar Lizardi.

*Goiz-Argi, 1975-VI-26.*

## LEGORTEA

1/ Berri txarrak berekin  
naigabe gogorra,  
ondamendirako au  
bai bide bizkorra!  
Neurriz kanpokoa da  
aurtengo legorra,  
Europa danarentzat  
datorren zigorra.

2/ Legorraren legorrez  
lurrak irakinda,  
lengo berdetasunak  
urrun aldeginde.  
Ganaduzale danak  
burutik eginda,  
erdira jetxi bear  
mantendu ezinda.

3/ Garestituko dira  
berriz jaki danak,  
ta lenez gain bizitzen  
orduan bai lanak.  
Mixeria berekin  
or du ez izanak,  
apalduko gera, bai,  
arro gabiltzanak.

4/ Lanik gabe millaka,  
auxen da urtea!,  
ta derrigorra degu  
guztiok jatea.  
Len eziñean larri  
gure gizartea,  
au bakarrik palta zan:  
orain legortea!

5/ Laguntzik ezpadegu  
zer dago lanetik?  
Naigabe ta samiña  
alderdi danetik.  
Ark eman bear digu  
txar edo onetik,  
Norbait badago nunbait  
gizonon gaiñetik.

*La Voz de España, 1976-VII-2.*  
*Goiz-Argi, 1976-VII-10.*  
*Kezka-giroan, Auspoa 169, 1983.*

## LAGUNA GOGORATUZ

- 1/ Bere omen egunez  
azkena etorri,  
ori gertatu zaio  
lagun Xalbadorri;  
pozikan komeni ez  
biotz aundi ari,  
begiandoak malkoz,  
biotzak ler-zori,  
luto beltzez jantzi da  
gure Euskalerrri.
  
- 2/ Urepel'eko argi  
dizdiratzaillea,  
bertsolari-poeta  
bikain da trebea,  
sentipenak agertzen  
berdiñik gabea,  
gure euskera zarraren  
egizko abea,  
zeiñek bete bear du  
zure utsunea?
  
- 3/ Euskal baratzak zuen  
lili indartsuena,  
kolpez igartu zaigu,  
au naigabe, pena!  
Baiña, Jauna, Zu zera  
jaunik altsuena,  
badakit nik Xalbador  
maite zenduena,  
emaiozu betiko  
pake, atsedena.

*La Voz de España, 1976-XII-5.  
Kezka-giroan, Auspoa 169, 1983.*



## FUEROAK

- 1/ Orain eun urte, o Euskalerra,  
zer negarra ta zer lotsa!  
Oroitze utsez erdibitzen da  
euskal semeon biotza.  
Madril aldetik eldu zitzaigun  
agindu zital, zorrotza:  
kendu ziguten nagusitza ta  
eman ziguten morrontza.
- 2/ Lege Zar aiek ainbat gizaldiz  
zutiñik egon ziranak,  
oraindik ere badira batzuk  
kontra mintzatzen diranak.  
Erregearen erregaliak  
ote ziran Fuero danak,  
baiña ez dute iñoiz esaten  
zeiñek eta noiz emanak.
- 3/ Gerra gerraren gaiñean eta  
justizirik ez iñola,  
erri gurea morrontzan beti  
su-txinparta dariola.  
Don Karlos izan, ala Isabel,  
emen zeini zer ajola?  
Euskal mutillek Fueroengatik  
ixuri zuten odola.
- 4/ Oroi Maroto'z ta Espartero'z,  
ez izan buru ariñak,  
Bergara'n egindako tratuak  
ekarritako samiñak.  
Ainbat iseka gaizto, biurri,  
erri zar oni egiñak,  
itz goxo, leunak, aurretik eta  
gero atzetik putz miñak.
- 5/ Nola karlista, ala liberal,  
euskalduna Fuero-zale,  
alare kendu zizkiguten bein  
erruki aundirik gabe.  
Gure egunetan Euskalerrian  
milla kolore badaude,  
euskal odola daramalarik  
nor ez da Fueroen alde?
- 6/ Auzo ta etxe, arrotz, bertako,  
guztiek jakin bezate:  
norbaitzuk joan dan eun urte ontan  
gurekin zorra daukate.  
Gure erriaren antsi ta nairik  
iñork ez lezake bete,  
lenago zuan jabetasuna  
berriz eskuratu arte.

*Goiz-Argi, 1976-VI-26.  
Kezka-giroan, Auspoa 169, 1983.*

## ATOZ ARGI EGITERA

- 1/ Noiz arteraiño irautekotan  
sortu zan denboralea?  
Urteko egun alaienetan  
negarra ta naigabea.  
Zitalkeria nunai gaiñezka,  
gorrotoa ta asarrea,  
gure errriari begiratuta  
auxen da negargurea!
- 2/ Ez ote gera noizpait irtengo  
ain egoera larritik?  
Noiz legortuko dira malkoak  
euskaldunaren begitik?  
Beti zigorra goi eta beetik,  
ezker eta eskubitik,  
ez ote degu irten bear guk  
infernu negargarritik?
- 3/ Geroni ere bide onetik  
ez ote gera urrundu?  
Askotan auxe galde izan det:  
jendeak burua nun du?  
Gorroto biziz bizi bagera,  
alkarri nola lagundu?  
Arriak negar egin lezake:  
geu ezin gera konpondu.
- 4/ Buru-belarri sartuak gaude  
ain nabarmen txarkerira,  
gurekin ezin joan diteke  
orain oso urrutira.  
Plaza erdian gu burrukan da  
ainbat albotik begira,  
maite ez gaituzten etsai gaiztoak  
ederki gozaten dira.
- 5/ Noiz esan guri garai batean  
gaitz au jabetuko zala?  
Len gutxi izanik, milla pusketan  
zaitzeakoak giñala?  
Nun degu alkarrentzat bear dan  
errespeto ta itzala?  
Zer eska bear zaio iñori  
geu onela gabiltzala?
- 6/ Euskal odola iru gerratan,  
orain au da ibillera;  
ezin iritxi, len giñan gisan,  
etxeko jaun izatera.  
Leiza-zulorik sakonenean  
illunpetan bizi gera,  
Belen'go izar dizdiratsua,  
atoz argi egitera.
- 7/ Gure oroimen goxoena gaur  
bedi, bai, Belen'erako,  
egizko gure Salbatzaillea  
an sortuko zaigulako.  
Jainkoak traba egiten digu  
gizona arrotu dalako,  
oker guztiak ez ote datoz  
bartzertu zaitugulako?

*La Voz de España*, 1976-XII-24.

*Goiz-Argi*, 1976-XII-25.

*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.

## ABERRI EGUNEAN

Apirillaren 10'ean, Aberri Eguna, Zarautz'ko Plaza Nagusian, ondoren dijoazen bertso auek abestu genituan, egunari berea emateko:

1/ Poztu zaitetze, baso-mendiak,  
poztu, itxaso bazterrak,  
egun eder au iritxi zaigu  
Jaungoikoari eskerrak.  
Poztu, aundi ta txiki, erdiko,  
nagusi eta maizterrak,  
jaso biotzak, andre ta gizon,  
berdin, gazte eta zarrak,  
Aberri Egun aundia da ta  
alaitu gaur, zarautzarrak!

2/ Orain eun urte pasa izan zan  
emen oker nabarmena,  
Fueroak galdu genituan da  
berdin aginpide dena.  
Ordutik dator gure erriaren  
benetako ondamena,  
len eta orain euskaldun onak  
au da eskatzen dutena:  
berriro eman dezaigutela  
len lapurtu zigutena.

3/ Auzo gauzetan mutur sartzeko  
ez dabilkigu usterik,  
etxe barruan zenbat lan dagon  
nork du adierazterik?  
Sekula iñoiz guk ez diogu  
iñori egin kalterik;  
ez degu maite gorroto txarrik,  
ixkanbilla ta nasterik,  
geure etxean geuk agintzea  
guk ez degu nai besterik.

4/ Ikamika ta uskeri danak  
lenbailen urrutiratu,  
maitasunaren kate gozoan  
anai denok bateratu.  
Gero damutu gindezke gogor  
orain egiña pekatu;  
Euskalerrian demokrazi bat  
nai baldin bada eratu,  
norbere ideak defenditu ta  
bestenak errespetatu.

5/ Erri maitea, zutiñik nola  
iraun zuk ainbat gizaldi?  
Istori zear artua zera  
amaika astindualdi.  
O, askatasun eguzki orrek,  
arren, egiguzu argi!  
Ainbat urtean ilda egonik  
orain degu piztualdi,  
denon artean salba ditzagun  
euskera eta Euskadi.

*Goiz-Argi, 1977-V-14.*

## ON MANUEL LEKUONA, MAIXUEN MAIXU

- 1/ Bertso apalen bidez eskeiñi  
nai diot nere omena,  
On Manuel'en aurrean au da  
Basarri'ren aitormena.  
Maixu aundien artean ere  
ez ote da maixuena?  
Amarengandik emen sortu dan  
semerik argitsuena.
- 2/ Danen gaiñetik eliz-gizona,  
apaiz jaun zintzo, prestua,  
idazle trebe, poeta xamur,  
jakindurian puztua.  
Arte gaietan sena biziko  
epai emale juxtua,  
asten dan artan nabarmentzen da  
Lekuona'ren eskua.
- 3/ Bijoazkio sorta sendotan  
euskaldunen zorionak,  
zer serbitzuak erri zar oni  
berak egin dizkionak.  
Ez dute neurri ta preziorik  
jaun argi onen lan onak,  
Euskalerrian urriak dira  
mailla ontako gizonak.
- 4/ Zu guretarra izate utsez  
gu bai arrotzen gerala,  
badakigu, bai, zorigaitzean,  
betikoa etzerala.  
Eguzki orrek bere lanketak  
zintzoki egin ditzala,  
Euskal Lurrean ez da galduko  
Lekuona'ren itzala.
- 5/ Gure izkuntzak zu bezelako  
dozenerdi bat baleuzka,  
ordekak utzi ta goi-gaillurrak  
joko lituzke egazka.  
Oiartzun maite, egon zindezke  
poztasunetan gaiñezka,  
zu zeralako Lekuona'ren  
jatorria ta seaska.

*La Voz de España, 1977-XII-11.  
Kezka-giroan, Auspoa 169, 1983.*

## ANAI OLABEAGA'REN OMENEZ

Anai Olabeaga'ren omenaldia antolatu zutenek ala nai izan zutelarik, Zarautz'ko plaza nagusian iru bertso kantatu genituen joan dan igandean. Olatsu izan ziran, oker aundi gabe.

- 1/ Abenduaren emezortzian  
gatoz Zarautz'ko plazara,  
gizon argi bat jaso naiean  
merezi duan maillara.  
Txalogarri ta goralgarria  
alakorik inun bada,  
bizi osoan jo ta ke beti,  
lanari inoiz ez laga,  
diruz ordaintzen ez dan gizona  
Inaki Olabeaga.
- 2/ Erriko gazte jende bizkorra  
eskola ederrez jantzi,  
bizimodua ateratzeko  
gaur ez du balio gutxi;  
geroztik oiek lantokietan  
goiko puntara iritxi,  
Anai Inakik egin duana  
asko ta ondo erakutsi,  
omenaldi au egin gabetan  
Zarautz'ek ezin ba utzi.

- 3/ Parre-irria ezpainetan da  
maixu jakintsu, apala,  
ezagun zuan erakusteko  
mundura jaioa zala.  
Etzaitugu, ez, guk eskertuko  
merezi dezun bezela,  
Zarautz'en beti geldituko da  
Olabeaga'ren itzala,  
Goitar Jaun onak urte askotan  
olaxe gorde zaitzala.

*La Voz de España, 1977-XII-21.*

## AMA GOGORATUZ

- 1/ Nere begiz ez daukat  
emen ikusterik,  
geiago ezin entzun  
nik aren izkerik.  
Nola ez naiz egongo  
illun da tristerik?  
Ez da izaten gero  
ama bat besterik.
- 2/ Ikusi zendun ainbat  
denborale nasi,  
zure bizitza latza  
nork adierazi?  
Amar seme-alaba  
azi eta ezi,  
gu bizitzeagatik  
zeu etziñan bizi.
- 3/ Lanean arrastaka,  
ori zure griña,  
seme-alabengatik  
amaika egiña.  
Eskolarik etzendun,  
oso ezjakiña,  
baiña ikasi zendun  
Kristo'ren dotriña.
- 4/ Gerra denbora artan  
aiek erauntsiak!  
Barkatzen ondo jakin  
kristauki eziak.  
Gorrotatzen zenitun  
molde txar guziak,  
bide zuzenak dira  
zuk erakutsiak.
- 5/ Arrotzerik ez nai zuk  
lurreko bizitzan,  
baizikan jokatzeari  
beti kristau gisan.  
Etziñan aspertzen zu  
esan eta esan:  
«Pobreak izan arren  
garbi utsak izan».
- 6/ Zure iturritikan  
edaten genduan,  
ama baten tokia  
nork bete orduan?  
Etziñan arrotuta  
murgildu munduan,  
gerokoaren kezka  
zeurekin zenduan.
- 7/ Lanak eta eziñak  
lotu zindun katez,  
neke bizitzan beti  
egunez ta gabez.  
Naigabeak bukatu  
ziran egun batez,  
atsedendu zaite or  
lur ontako partez.
- 8/ Jaiotako guztiok  
gera emen ilkor,  
guretzat ere ordu  
latz ori badator;  
zure bide berdiña  
daukagu derrigor,  
Ama, toki pixka bat  
presta zaiguzu or.

*La Voz de España, 1978-V-27.*

*Goiz-Argi, 1978-VI-3.*

*Kezka-giroan, Auspoa 169, 1983.*

## URREZKO EZTAIETAN

Bai, irakurle; eskari bat egin didate.  
Asko eskertuko lutekeala, joan dan igande-  
dean, Arrate'ko Amaren oiñetan kantatu  
nituan iru bertsoak moldezko letratan jar-  
tzea. Mesede ori ezin ukatu. Onela ziran  
gutxi gorabera:

1/ Urrezko eztaietan  
gatoz gu Zugana,  
gaur egingo diguzu  
irripartxo bana.  
Pakean bizi nai ta  
ezin, auxen lana!  
Gorrotoz ta inbiriz  
bete da lur dana,  
zure premian gera,  
arren, lagun, Ama!

2/ Illunpe beltzean gu  
kezkati ta larri,  
ez dakigu gertatu  
leikenaren berri.  
Ama laztana, pake  
pixka bat ekarri,  
ez dedilla ixuri  
ainbat odol gorri,  
etzazu galtzen utzi  
gure Euskalerra.

3/ Eibar'ek zaindaritzat  
autatu zinduan,  
euskal txistulariek  
Eibar'en moduan.  
Bitarteko oberik  
ez degu zeruan,  
Amatxo, izan beti  
zu gure onduan,  
nola bizitzan ala  
eriotz orduan.

*La Voz de España*, 1978-X-18.  
*Goiz-Argi*, 1978-XI-4.

## AINZAT ARTZEN EZ

- 1/ Burujabetzak gizaldietan  
izan du emen iraute,  
egun batean kendu ziguten,  
geroztik morroi gauzkate.  
Legedi ori guk onartzea  
nola demontre nai dute,  
gure erriaren eskubideak  
ukatzen badizkigute?
- 2/ Berandutxo da; orain iñola  
ezin konpon leike pertza,  
etsipenetan biurtu baita  
gure legezko ametsa.  
Konstituzio orrek eskeiñi  
izan baligu babesba,  
pozaren pozez emango gendun  
euskaldun danok baietza.
- 3/ Beti zulatzen gaitu zakarki  
arantza minkor, zorrotzak,  
eta guretzat errukirik ez  
egundo jende arrotzak.  
Gaur alaitasun izpirik ez du  
euskaldunaren biotzak,  
erabat mintzen gaitualako  
etengabeko morrontzak.
- 4/ Ez daukagu, ez, zima gaiztorik,  
ezta ere gorrotorik,  
baiña guk ez nai aintzat artzen ez  
gaitun Konstituziorik.  
Ez du asetzen iñola ere  
euskotar baten gogorik,  
argatik ez du izango Eusko  
Alderdiaren botorik.

*Goiz-Argi, 1978-XI-25.*



## EGUBERRI

- 1/ Urteko egun pozgarriena,  
eldu zaigu Eguberri,  
Belen'go izar paregabea  
ain zegoan dizdizlari.
- 2/ Igarle zarrek esandakoa  
orra beingo ez egiztatu,  
aingeru saillek eta artzaiek  
aurrez-aurre begiztatu.
- 3/ Iritxi zaigu irixtekoa,  
poz guztien sortzaillea,  
poztu izaki guztiok oro,  
jaio da Salbatzaillea!
- 4/ Argibide bat ematearren,  
illunpez ez uzteko gu,  
errege danen Errege danak  
Semea bidali digu.
- 5/ Gugatik jaio, gugatik bizi  
ta gugatik ilko dana,  
egun onetan umilki danok  
bil gaitezen Beragana.
- 6/ Neurrik gabe maitatzen gaitu,  
ezin esan leike nola,  
gu salbatzeko emango baitu  
gazterik azken odola.
- 7/ Orrek ez gaitu gu inoiz azten,  
guk bai aztu degu Bera,  
ta ondorenak ikusten gaude:  
gaur nolatan bizi gera?
- 8/ Gizonak ez zu Jainko bearrik,  
bera egin baita Jainko,  
udazkeneko orbel gisara  
oso denbora gutxiko.
- 9/ Aurrerapen da zientzietan  
egin duala aurrera?  
Zeiñek lagundu dio ortara?  
Berez gai ote da bera?
- 10/ Jetxi ditzagun buru arroak,  
goazen apalki Belen'a,  
gure gaitzentzat antxe daukagu  
sendagairikan onena.
- 11/ Griña gaiztotan josiak gaude,  
gaiñez egiñak pekatuz,  
danetik garbi geldu gaitzke  
Orri laguntza eskatuz.
- 12/ O, Aurtxo Jesus, entzun zaidazu  
dakarkitan eskaria,  
ongi dakizu nolatan dagon  
gaur egun Euskalerria.
- 13/ Eziñezkorik ez da zuretzat,  
zuk guztia dezakezu,  
ain errukarri dan erri oni  
begiak luza zaizkatzu.
- 14/ Xamurtu, ez titu ta gozatu  
euskal semeen biotzak,  
urrundu beingo ez odol-ixurtze,  
gogorkeri, eriotzak.

15/ Asmo oneko gizonez berriz  
aberasten geranean,  
bizi izateak poz emango du  
gure mundu zabalean.

16/ Entzun Zuk, arren!, eskari auk,  
entzun, arren!, Jesus Aurra,  
senda gaixorik dagon mundua,  
senda gure euskal lurra.

*El Diario Vasco, 1978-XII-26.  
Kezka-giroan, Auspoa 169, 1983.*

## ESTATUTOA LENBAILEN!

- 1/ Bein da betiko zapaltzekotan indartu dan gorrotoa, anai artean sendotu dedin pakezko errespetoa, zortzitik zazpi euskaldunek gaur orren alde du botoa, erri zar onek bear duana: lenbailen *Estatutoa!*
- 2/ Nola ez gaitu minberatuko erriaren ondamenak? Etengabeko morrontzan gaude len nagusitzan geundenak. Ongi dakite zer zor daukaten aginpidea dutenak, orain da ordu eskuratzeko len kendu zizkigutenak.
- 3/ Erri aundien azpian gaude, indarrak aiek dituzte, txarrera jota ezer dagonik iñork ez dezala uste; ez gaitezela alperrik neka ezin leikenaren eske, gutxi gera-ta, nai dutenean errez itoko gaituzte.
- 4/ Goliat eta Dabid burrukan, zer burruka nabarmema! Arrai aundiak txikia jaten izaten du gozamena; denbora joanda gero alperrik dira negarra ta pena, pixkaka lortu bear degu guk batera ezin leikena.
- 5/ Kontura zaitte, urtetsu ori, kontura zaitte, gaztea, indarkerian alperrik dala ateak jotzen astea. Eiztari jator, bizkor batentzat negargarri ta tristea, eiza eskura etorri eta iges egiten uztea.
- 6/ Badet uste on geuk autatuak diran gidariengana, zuzendu naiko dutela oiek guttiz oker dagoana. Buruz jokatzu ikas dezagun nola egin geure lana, nai dana egin ezin danean egin dezagun al dana.
- 7/ Eskarmenturik asko badegu oiñez ondo ikasteko, ogeitamaika eskutik degu jokia irabazteko. Burutik sano ote gaude gu aukera galtzen uzteko? Garaia degu geure lurrean zerbaiz agintzen asteko.
- 8/ Eldu lanari, eldu gogotsu, indar berriak artuta, euskal ontzia ikus dezagun bere kaiean sartuta. Espartero ta Maroto nago ikusten besarkatuta, eun da berrogei urtean gaude eskubideak galduta.

9/ Anai artean burrukan beti,  
zer gertatzen da gurekin?  
Negargurea datorkit neri  
ikusten dedanarekin.  
Lau katu izan eta iñola  
ezin bildu alkarrekin,  
arriak negar egin lezake  
gertatzen zaigunarekin.

*El Diario Vasco*, 1979-V-22.

*Goiz-Argi*, 1979-V-26.

*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.

## TXIRRITA ZANA

Neska gazte bat inguratu zitzaidan ostiral illunabarrean. Txirritari buruz saio bat egiteko asmoz zirala esan zidan, Loiolako irratitik. Ura ezagutzeko ta berarekin kantatzeko era izan nualarik, nere bi bertso nai zituala. Nola egin ez eskatzen zidan mesedea?

1/ Txirrita ezagutzeko era  
izan nuan nik lur ontan,  
zer eta nolakoa zan ere  
gogoratzen naiz prankotan.  
Artean oso gaztea nintzan,  
beti ni amets gozotan,  
iru-lau aldiz egin genduan  
biok gogotsu bertotan.

2/ Ateralditik ateraldira  
zan aren kantuzko lana,  
berezko argitasuna zuan  
gure Jainkoak emana.  
Itz bitan garbi agertuko det  
nor gendun Txirrita zana:  
berrogeitairu urte il zala  
ta oraindik bizi dana.

*El Diario Vasco, 1979-V-27.*

## GASTEIZ'KO PELOTA TXAPELKETA

Beste tokitako berri ez dakit, baiña EuskalERRI osoa Gasteiz'a begira zegon igandean. Bakoitza bere txokoa zan partidu ordurako. Telebistaz ez genduan izan ezer asko ikusterik, baiña irratiak etzeuden ixilik egoteko. Zintzo eman zuten *Ogeta* pelotalekuko norgeiagokoaren berri. Asiera estua, larria, gerora Bengoetxea irugarrena lasaitzeko. Ogeitabi ta amar partiduaren emankizuna. Garzia Ariño laugarrenak etzuan izan andik aurrera joaterik. Nai zukean, baiña ezin.

Kalidarez etzala partidu ona izan? Oso gutxitan gertatzen dira onak txapelketako azken partiduak. Urduri ta kezakatsu egoten dira pelotariak; beren onetik irtenda. Ala dagonak, berriz, ez dauka bere balio osoa erakusterik. Urrengo urtean ere aurtengo oztopo ber-berak izango dira. Bearrezko diran patxara ta lasaitasuna paltako zaizkie azken muturrera eltzen diraneri.

- 1/ Gasteiz'en burrukatu dira bi euskaldun, napar eta bizkaitar, bai benetan jardun! Jakin nai genduana garaiz jakin gendun, Bengoetxea degu berriro txapeldun.
- 2/ Txapelketa da beti lantegi txarrena, batek ez du ematen eman lezakena. Esaera bat dabil munduan barrena: «bi ezkeru seguru dala irugarrena».
- 3/ Bizkaitar trebe ori datorkit burura, batek galdu bear du, ta utzi tristura. Ez du nornaik egiten Ariño'n modura: iru urtetan iritxi azken partidura.

*El Diario Vasco*, 1979-V-29.

## GURE AITA SANTUA

- 1/ Juan Paulo bigarrenak  
baditu ideak,  
egan igarotzeko  
munduko bideak;  
aitortzen du Sortalde,  
berdin Sartaldeak,  
a zer Artzaia daukan  
kristau artaldeak!
- 2/ Beldur gabe agertuz  
barrengo su, garra,  
egiari ari da  
ematen indarra.  
Elizaren zeruan  
gaur degun izarra,  
Kristoren ordezkoa  
ta polonitarra.
- 3/ Komunismoa jaun da  
jabe dan lekuan,  
ez du ezer ixildu  
ta gorde kolkuan.  
Orrek erakutsi du  
bear dan moduan,  
Bera sortu zan lurra  
zenbat maite duan.
- 4/ Mingain doatsu orrek  
ez dauka trabarik,  
ez du alperrik galdu  
zeukan aukerarik.  
Aitortu bearra du  
gaur jende ugarik,  
kristautasunarentzat  
ez dala mugarik.
- 5/ Ori da mintzatzea  
sakonki ta legez,  
goiko laguntza gabe  
ez da oso errez.  
Ain garbi ikusi da,  
ta ukatzerik ez,  
Polonia oraindik  
sendo dago fedez.
- 6/ Polonia'k utzi nau  
erabat poztuta,  
erri bat ikusirik  
fedean piztuta.  
Lendik zer izan geran  
zero aztuta,  
Euskalerra gaixo au  
daukago oztuta.
- 7/ Gure artean zenbat  
negar eta antsi,  
bide bat izan ona,  
ta berari utzi.  
Gaur oso gaizki gaude  
baiña ez det etsi,  
aldatuko al gera  
biar edo etzi.

*El Diario Vasco, 1979-VI-12.  
Kezka-giroan, Auspoa 169, 1983.*

## EKIN LANARI!

- 1/ Ekaitz azpian Euskalerria  
erabat zegon lur joa,  
ez al da garai kentzen asteko  
daramakigun lutoa?  
Tartean langa gogorrak zeuden,  
baña eman da saltoa,  
ordua ere ba-zan, noski-ta,  
badegu *Estatutoa*.
- 2/ Gure gizonak Madrid aldean  
jokatu dute gudua,  
bai erakutsi ere bikainki  
berak daukaten gradua.  
Aginpideak eskuratzeko  
egin digute modua,  
euskaldun gisa latz jokatzeko  
oraintxe degu ordua.
- 3/ Danen gozoko etzeiken izan  
Madrid'en egin dan lana,  
batek ezpada besteak beti  
izaten du zer esana;  
alperrikako izan ez dedin  
ain nekez iritxi dana,  
pake bidetik bildu gaitezen  
anaioak anaiongana.
- 4/ Erri gurea, len goian bazan,  
gaur oso beian daukagu,  
lenagotikan okerragoak  
ezagutuak gera gu.  
Zalantza gabe gerora ere  
urte gogorrak daukagu,  
ustelkerira makurtu ezik  
burua jasoko degu.
- 5/ Amets zoroak beingoz baztertuz,  
asi gaiten esnatzen,  
buruz jokatzuz joan bear degu  
korapilloak askatzen.  
Gaur bizi geran uneak ez du  
beste gauzarik eskatzen,  
len daukaguna ontzen saiatu,  
ez dagon pixka puskatzen.
- 6/ Gu euskaldunok nola gabiltza  
ontaraiño zapuztuta?  
Zer irabazi bear degu guk  
bazterrak ola nastuta?  
Egan asteko guztiok egon  
bear genduke poztuta,  
atera kontu zenbat urtean  
gauden egoak moztuta.
- 7/ Bale aundia sardin txikiak  
ezin menderatu legez,  
buru pixka bat duanak ori  
ulertuko du, ta errez.  
Auzo erriak askoz geiago  
baldin badira indarrez,  
zentzudun batek nola eskatu  
guztia edo baterez?
- 8/ Ezin leikena lortu naiean  
iñoiz ez joan iñora,  
alperrikako damu, negarrik,  
izan ez dedin gerora;  
eman diguten eskailleratik  
asi danok betik gora,  
mailla berriak bear badira  
gero badago denbora.



9/ Poztu, alaitu, anai-arrebok,  
ordu au eldu dalako,  
bapo kostata, zerbait agintzen  
asi bear degulako.  
Au asiera izan liteke  
biarko egunerako,  
jaso biotzak, ekin lanari  
Euzkadi'ren onerako!

*El Diario Vasco*, 1979-VII-22.  
*Goiz-Argi*, 1979-VII-29.  
*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.

## ORAIN DA ORDUA!

- 1/ Setati eta kaskagorrrak  
sortu giñan egun batez,  
geu ari gera erri gurea  
ain gogorki lotzen katez.  
Anaiok alkarrekin burrukan  
geure buruaren kaltez,  
lotsatu egin bear du batek  
gaur euskalduna izatez.
- 2/ Zer olatu da denboraleak  
lur ontara dakarrena?  
Egundo inoiz ezagutu dan  
gaiztoen da zakarrena.  
Beneno guriz josia dago  
euskaldunaren barrena,  
len izen ona gendun munduan,  
ta gaur liteken txarrena.
- 3/ Gizaki batek ezpaldin badu  
pentsatzen gure modura,  
uste baiño len iritxiko da  
lurreko azken ordura.  
Alik azkarren bialtzen degu  
satorren bizilekura,  
gaur oso txiki gelditu zaigu  
azkeneko diktadura.
- 4/ Au bezin bide txar, galgarririk,  
ezin ziteken asmatu,  
anai euskaldun, lozorro ortatik  
al dan azkarren esnatu.  
Il da zauritu, erre, kiskali,  
ta dagon pixka puskatu,  
dana ondatu nai duten oiek  
geiago ezin eskatu.
- 5/ Goian dagonak bide ontatik  
nola ez du beia joko?  
Ta bein erabat erortzen dana  
ez da ain errez igoko.  
Autsi, txikitu, birrindu dana,  
ezer ez utzi geroko,  
gu bezin parregarririk etzan  
amarengandik jaioko.
- 6/ Urriko illak ogeitabosta,  
gauden egun orretxen zai,  
bakoitza bere tokian zintzo,  
arduratsu eta ernai.  
Au geiegizko *inpernua* da,  
ola ez degu bizi nai,  
argatik esan bear diogu  
guk *Estatutoari bai*.
- 7/ Nagitasunak utzi alde bat  
ordua eldu ezkeru,  
etorkizuna jokutzen degu,  
au gogora egunero.  
Oraintxe joka gaitezen danok  
leial, bulartsu ta bero,  
negar guztiak alperrik dira  
denbora pasata gero.
- 8/ Erabat ezpeditu asetzen  
gure nai eta gogoak,  
ez ote gaude gutxiagokin  
egoten oitutakoak?  
Gero geiago eska lezake  
zati bat artutakoak,  
orain ematen dutena artu,  
eta gero gerokoak!

9/ Eskeintzen zaigun aukera beintzat  
gogoz ez degu utziko,  
ate-leioak ez al zaizkigu  
geure pekatuz itxiko?  
Gizon jokatu, ezker, ezkubi,  
goi, beeko eta erdiko,  
Euskalerria arnasik gabe  
geldi ez dedin betiko.

*El Diario Vasco*, 1979-X-4.

*Goiz-Argi*, 1979-X-20.

*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.

## ALKARTZEKO ORDUA

- 1/ Ixilik egon naiago baiña,  
noan kantuzko lanera,  
zer zigor edo madarikapen  
inguratu da onera?  
Berriro ere zer ote dator  
erri zar onen gaiñera?  
Gauzak okertzen ari zaizkigu  
egunetik egunera.
- 2/ Gizonak alkar iltzen ain itxu,  
odolez ezin burutu,  
lapurreta ta «atrako» gabe  
ez daude amar minutu.  
Biziak ez du ezer balio,  
ta beldurrez danok mutu,  
orain ainbeste gorroto emen  
ez da iñoiz ezagutu.
- 3/ Nagusi asko zorpean dago,  
itxaropena galdua,  
ta langilletan amarretik bat  
kale gorrian saldua;  
erabaki bat bein artzekotan  
iritxi zaigu ordua,  
onek aldatu bearra dauka,  
au ez da bizimodua!
- 4/ Agintariak biurriturik,  
zuri, gorri eta urdin,  
nundik sartuko miztoa eta  
nundik nora emango min.  
Pamilietan burruka dago,  
ta pakarik ezin egin,  
au dana gutxi balitz bezela  
eliz-gizonetan berdin.
- 5/ Jaunak begiak eman dizkigu  
beerako au ikusteko,  
oraingoz ez da argi printzarik  
gure biotzak pozteko.  
Lenez gaiñera etorkizuna  
erabat oso bezteko,  
orain drogari eldu diogu  
pena guztiak azteko.
- 6/ Esan diteke oztopo danak  
gure gaiñean daudela,  
egundo gaizki egon bagera  
pentsa oraintxe gaudela.  
Ordu larri au zapal dezagun  
euskaldun sendo bezela,  
aberriaren azken arnasa  
urrean degu bestela.
- 7/ Aurreko zarrek ainbat ezbear  
ikusi zuten lenago,  
lanaren bidez burua jasoz  
uste zan baiño gorago.  
Beti «pasoka» ibili gabe  
noizpait jo bear «ordago»,  
itxaropena galdu ezkeru  
guztia galdua dago.
- 8/ Oso mendean artzen gaituzte  
erri txikia geranez,  
itz goxo asko esanagatik  
ez ikusten begi onez.  
Gure gaitz asko ontatik datoz  
garbi somatzen dedanez,  
ainbeste aldiz egiten duten  
agindu eta eman ez.

9/ Makar guztiak beingoz kentzea  
ez ote zaigu komeni?  
Bestela nola aurpegi eman  
ekaitzaldi gogor oni?  
Gure jokera txatxu onekin  
naigabez lertzen nago ni,  
gure pekatu astuna au da:  
ezin konpondu geroni.

*El Diario Vasco*, 1980-II-12.

*Goiz-Argi*, 1980-II-16.

*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.

## ARRIA ZARRAREN OMENEZ

Bizpairu irakurlek auxe eskatu didate: igandean, *Balda* pelotalekuan, Arria zarraren omenez kantatu nituan bertsoak argitaratzeko. Era ontan izango ziran, oker aundi gabe:

- 1/ Orbegozo da deituraz eta  
Inazio da izenez,  
aspertu gabe ari diteke  
orren gorantzak esanez.  
Mundualdia ortxe darama  
bide garbi ta zuzenez,  
ori berdintzen etzan erreza  
aizkolariz ta gizonenez.
- 2/ Guraso gisa zer izana dan  
or dauka erakutsita,  
seme-alaba zoragarriak  
bere txokoan azita.  
Arbola zarra igartuko da,  
beti ez leike bizi-ta,  
baiña landare sendo, bikaiñak,  
bere ordeko utzita.
- 3/ Itz bat bakarra bururatzen zait:  
abejondagizutela!  
Sinistu gero zuen izena  
oso goian dezutela.  
Ez esan neri Arriatarrek  
meriturik ez dutela,  
orain semeak jazten baitigu  
len aitak zuan txapela.

*El Diario Vasco*, 1980-IV-30.

## ISAAK LOPEZ MENDIZABAL

- 1/ Zorionez sortua  
gure onerako,  
nagikeri gabea  
zera lanerako;  
zure izenak indar  
badu sekulako,  
euskeraren martiri  
izan zeralako.
- 2/ Iñoiz geratu zera  
ez teilla, ez abe,  
baiña euskerarentzat  
biotz dana labe.  
Zenbat zigor gaizto ta  
zenbat atsekabe!  
Alare zuk aurrera  
iñoiz etsi gabe.
- 3/ Amets bat zutik eta  
amets bat etzanda,  
berdin Amerika'ko  
lurrera joanda.  
Jainkoak ainbat urte  
munduan emanda,  
zure kezka bakarra  
izkuntza izan da.
- 4/ Iñoiz atsedetik ez,  
iñoiz ez gelditu,  
lanerako jaioa  
ezin ba nagitu;  
euskera etziteken  
il-zoriz aurkitu,  
zure antzeko asko  
izan bagenitu.
- 5/ Zenbat azterketa ta  
zenbat lan egiñak!  
Or ez dago ustelik,  
danak urre piñak.  
Danontzat ikaspide  
goxo, atsegiñak,  
zuk idatzi dituzun  
liburu bikaiñak.
- 6/ Naiz Europa'n da berdin  
an Ameriketean,  
etengabe aritu  
zera zu lanketan.  
Itzala utzi dezu  
zuk alde danetan,  
maixu agurgarria  
zaitugu benetan!
- 7/ Zanpatu dezu, jauna,  
makiña bat egal,  
jakinduriz etzeunden  
murriz edo argal.  
Euskaldunik dan arte,  
aitor zagun apal,  
ez da iñoiz aztuko  
Lopez Mendizabal.

*El Diario Vasco*, 1980-VI-8.  
*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.

## DON EBARISTO URANGA SENDAGILLEARI

Igandean, Don Ebaristo Uranga sendagilleari eskeiñitako omenaldia zala-ta, nik ere nere aletxoak aurkeztea zan jai-eratzailleen naia. Bazkalondoan kantatu nituan iru bertsoak onela ziran, oker aundi gabe:

1/ Orra iritxi egun aundia  
ordua ere bazan-da,  
sendagille bat bizkor, trebea,  
gure artean izan da.  
Merezi ainbat ezin gorald  
esan leizkenak esanda,  
errian alde ibili baita  
duan guztia emanda,  
Zarautz'ek ez du iñoiz aztuko  
Don Ebaristo Uranga.

2/ Zure lagun da adiskideak  
orra inguruan bildu,  
kantuz asi dan txoria berriz  
ezin nolanaixildu.  
Zerbait egiten ari gera, bai,  
ta geiago merezi du;  
tristeak poztu, gaitzak uxatu  
ta oiñazeak arindu,  
Don Ebaristo'k bere bizitzan  
beti lan ori egin du.

3/ Ainbat urtean danon morroi ta  
serbitzurako egona,  
gaixoen deirik izan ezker  
lanerako prest zegona.  
Konturatzen naiz nolakoa dan  
orain zure zoriona,  
Zarautz'ek nola maiteko ez du  
mailla ortako gizona?  
Garaia zan-da, agertu dizu  
biotzeko esker ona.

*El Diario Vasco, 1980-VI-25.*



## PAKE EGUNAK

Gezurra badirudi ere, egi aundia da. Iru-lau egun odol ixurtze edo eriotz gogorrik gabe igarotzea beste munduko gauza iruditzen zaigu. Ontaraxe jarri gera, astoa makillara jartzen dan bezelaxe. Gogorke-ri ta indarkeria egin zaigu jaun da jabe. Guk bezela pentsatzen ez duanak traba egiten digu; ura beste mundura bialti bear da lenbailen.

Bienbitartean giza eskubideak darabilzkigu aotan etenik gabe. Zorioneko *derechos humanos* itz ori noiz aitatu da gaur aiña? Zer kaso egiten diogu? Zertarako balio digu? Gabon gabea, urteko gabik aundienean, iru-lau bertso kantatzera eramana ninduten Zarautz'ko Batzokira. Deitu egin zidaten eta pozik joan nintzan, nere apaltasunean egunari berea emateko asmoz. Gutxi gorabeera, auek izan ziran jaulki nituanak:

1/ Orain bi milla urte inguru.  
Belen estalpe zarrean,  
«Aintza Jaunari» kantatzen zuten  
aingeruak indarrean;  
ta ni Batzoki ontan nago gaur  
auxe kanta bearrean:  
«Asmo oneko gizon guztiak  
bezate pake lurrean».

2/ Danon aotan beti pakea  
ta iñundik ez ageri,  
aren ordaiñez indarkeri ta  
odol jario ugari.

Noiz ikusi da orain ainbeste  
gorrotu edo inbiri?  
Gu salbatzeko jaio ziñala,  
Jesus, gezurra dirudi.

- 3/ Euskalerrria ikusirik ain  
nastua ta ondatua,  
sari negarrez egoten naiz ni  
zearo naigabetua.  
Ez degu maite gerra zitalik,  
ezta ere gorrotua,  
geure lur auxe maitatzea da,  
Jesus, gure pekatua.
- 4/ Bedi pakea justizipean  
eta zuzentasunean,  
erri gure au senda dezagun  
saia gaitezen lanean.  
Bildu gaitzazu euskal anaiok,  
gaiñeztu maitasunean,  
auxen eskatzen dizu Basarrik  
Euskadi'ren izenean.

Bolaran etsipen antzeko zerbaitek esaltzen bagaitu ere, itxaropena da iñoiz galdu nai ez gendukeana. Istori zear arantzetik arantzera ibilia da Euskalerrria. Negarraren eta supritzearen berri dakiana da gure erri gaixo au. Oraingo gaitzak ere arindu ditezke. Ala gertatuko dalakoan gaude.

*El Diario Vasco*, 1980-XII-28.

**1981 - 1991**

## GAU GOGOANGARRIA

- 1/ Otsaillaren ogei ta irua  
oso gogoan baitet nik,  
iru-lau bertso moldatu gabe  
ezin lasaitu barrenik.  
Begizabalka ezin ikusi  
arrixkuaren laurdenik,  
ez dezagula sinista gero  
oso seguru gaudenik.
- 2/ Zezen gogorrak asitakoan  
indar zakarrez adarka,  
aien mendean erortzen danak  
istillu gorria dauka.  
Aurrera egin bearrean gu  
nola goaz atzeraka?  
Gure artean ez dagolako  
ez buru eta ez anka.
- 3/ Zoritxarrean jo genduan guk  
neurri gabe txarkerira,  
ez errespeto, ez gizatasun,  
zuzenean *anarkira*.  
Indartsuago diranen aurka  
nola egin sokatira?  
Gure oraingo arrokeriak  
laister tenplatuko dira.
- 4/ Ez ote degu egingo, jaunak,  
komeni dan esamiñik,  
ainbeste gauza lortu leikela  
gizonekin itzegiñik?  
Berealaxe itoak gera  
arnasik artu eziñik,  
txarkeriz eta gogorkeriz guk  
ez daukagu zer egiñik.
- 5/ Pekatu asko degu egiña,  
ta ez lotsatu esaten,  
ain parregarri gabiltzan arte  
ez degu ondo ematen.  
Ez da erreza gu geran baiño  
eskasagoak izaten,  
sua pizten geu ari baigera  
gero zapaldu gaitzaten.
- 6/ Ate askotxo zabaldu leizke  
jotzen asmatu ezkeru,  
lege azpian errendituaz  
ortantxe saiatu bero.  
Buruz ta zentzuz joka gaitezen  
euskaldunok egunero,  
negar antsika ibili gabe  
denbora pasata gero.

*El Diario Vasco*, 1981-III-3.

*Goiz-Argi*, 1981-III-14.

*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.

## IPARAGIRRE'RI

- 1/ Fueroen alde oso gazterik emanik zure odola,  
bazenekian gerra beltzetik ezer onik etzegola;  
pake santua goersten berriz ezin aspertu iñola,  
ta pake orren ereserkitzat or «Gernika'ko Arbola».
  
- 2/ Atzerriratze maltzurren berri jakin zenduan nai aiña,  
jaio ziñan lur bedeinkatua kuttuna zenduan baiña.  
Espetxeratze, zigorkada ta aldizka berriz iraiña,  
senti duana dionak sarri jaso oi duan ordaiña.
  
- 3/ Bizia degu lenengo baiña askatasuna urrena,  
gizona gizon izango bada baldintzarik bearrena.  
Au aitortu nai etzutenentzat etziñan etsai errena,  
libertadea baizan zuretzat doairikan ederrena.
  
- 4/ Gizonak bera jaio zan lurra babestu bear omen du,  
baiña guk ezin anai artetik xextra gaiztorik aldendu;  
bat egin baiño naiago degu alkarri larrua kendu,  
ez noski danok Euskalerrria zuk aiña maite bagendu.

*El Diario Vasco, 1981-IV-7.  
Kezka-giroan, Auspoa 169, 1983.*

## ERABAT KAKAZTU

- 1/ Sarritan lotsa sentitzen degu  
lurralde ontan jaioa,  
entzuten diran gauzak entzunda  
gaiñez amorrazioa.  
Nolaz indartu zaigu ainbeste  
biraurako bizioa?  
Jende guztia eskolan eta  
au da edukazioa!
- 2/ Gizatasun da errespetoan  
ibiltzeko ez kemenik,  
bide txarretik okerragora,  
artu gabe atsedenic.  
Mingaiñetako zikinkeriak  
ezpaitauka gaur azkenik,  
askotan ez da sinisten errez  
Euskalerrian gaudenic.
- 3/ Lotsagarri ta nazkagarria  
gaur eguneko izketa,  
bazter guztiak erretzen ortxe  
zerbait dirala uste-ta;  
gizon modura izketaldi bat  
egiten ez dakite-ta,  
urte osoan ortxe dabilta  
mingaiña kakez beteta.
- 4/ Amaika bider etxeratu naiz  
naigabe biziz gaiñezka,  
landare gazte oien mingaiñak  
ugaltzen du nere kezka.  
Nola emango ez dizute ba  
lotsakizuna ta nazka,  
ume mukizu batzuk izanik  
*Hostiaka ta Dioska?*
- 5/ Era ontako ustelkizunik  
ez degu izan gaur arte,  
gure belarri gaixoak beintzat  
istillu gorri daukate.  
*«Ez da Jainkorik»* esanaz nunai  
arro-arro zabiltzate,  
ez dan gauza bat kakazten beti  
zergatik ari zerate?
- 6/ Gure mingaiñak badu oraintxe  
berekin naikoa lokatz,  
nola mintzatu ote gindezke  
orren gaizki eta narrats?  
Gure lurean egundo ez da  
usandu ainbeste kirats,  
gizatasunez pobre gabiltza,  
zikintasunez aberats.

*El Diario Vasco, 1981-VII-5.  
Kezka-giroan, Auspoa 169, 1983.*

## LANIK EZA

- 1/ Lanik ezetik aixa letorke  
erri baten ondarena,  
neurtzen gaitza da onek ekarri  
lezakean ondorena.  
Ainbeste jende sasoi beteko  
dabil kaletan barrena,  
gaur egunean auxe da gure  
buruauste gogorrena.
- 2/ Al zan moduan moldatzen giñan  
urte batzuk aurrerago,  
gaitza indartzen dijoa eta  
gero eta okerrago.  
Gauzak aldatzen ezpazaizkigu  
ontan irauten zail dago,  
irabazteko biderik ezta,  
gero ta gastu geiago.
- 3/ Borondateko jendeak ere  
ezin billatu aukerik,  
ainbat ikusten dira oraintxe  
naigabe biziz errerik.  
Zertan bukatu «maestria» ta  
zertan ikasi karrerik?  
Ate guztiak itxiak daude,  
iñun ez dute sarrerik.
- 4/ Pamilietan negarra dago,  
danok kezketan beteta,  
irabazirik ez dan tokian  
ez da gero berriketa!  
Sasoirik onen onenean da  
zer egiñik ez dute-ta,  
berriro ere ugalduko da  
droga eta lapurreta.
- 5/ Saia nai luken jende prestua  
egonagatik ugari,  
ez da arrosik arantzik gabe,  
danok dakizute ori.  
Batzuk gorroto izugarria  
artu diote lanari,  
eta agintzea alperrikan da  
egin nai ez duanari.
- 6/ Gaitzak astintzen gaitu ederki  
nola anima ta gorputz,  
beti beeraka joan gabetandik  
noiz asiko gera goruntz?  
Beldurgarrizko zigor latzen bat  
inguratu al da onuntz?  
Aspalditxoko esaera da:  
*Etxe utsean gerra uts.*

*El Diario Vasco*, 1981-VII-12.

*Goiz-Argi*, 1981-VII-18.

*Kezka-giroan, Auspoa* 169, 1983.

## GURE ARRANTZALEAK

- 1/ Itxasgizonen artera ere sarturik dago ekaitza, bizimodua ateratzea oraintxe bai dala gaitza; inora mugitzeko bildurrez daramakiten bizitza, arrantzaleak bolara ontan arrazi gaizki dabilta.
- 2/ «Au nerea da» esanez asi zaigu gaur mundu osoa, urean ere langak jarriak, nunaitikan eraso; bi metroz deskuidatzen bazera gainean dezu lazoa, ez ote zuan danentzat egin Jaungoikoak itxaso?
- 3/ Gure artean asko ditugu istilluak ikusiak, lenago libre ibiltzen ziran eta gaur trabaz josiak. Eta lazoan erortzen danak beretzat zigor guziak, laister kenduko dizkitzute or urteko irabaziak.
- 4/ Lana egin nai arrantzaleak eta ez dauka aukerik, begiz jotako tokietara ez daukalako joaterik; etxeko urak antzuak eta kanpoak mugaz beterik, era onetan ez dago emen arraia merke jaterik.
- 5/ Legorrez ainbat eragozpen gaur aurkitu diteke urez, len uso gisan ibiltzen zana ezin mugitu loturez. Arrantzaleak bururik ezin jaso du orain tristurez, gaitz oiek danak gutxi dirala, antxorik arrapatu ez.
- 6/ Gu gera emen zuenganako zor aundiak ditugunak, zuek ekartzen dezutenetik goxoki jaten degunak. Biotz biotzez opa dizutet, o, arrantzale lagunak, antxo-ezaren oker guztia osa dezala atunak!

*El Diario Vasco*, 1981-VII-19.  
*Goiz-Argi*, 1981-VIII-1.  
*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.

## MATTIN IL ZAIGU!

- 1/ Itzali zaigu bein da betiko  
ain izar dizdiratsua,  
amaika bider zabaldua zan  
barrenen zeraman sua.  
Gure artean bat izan bada  
uraxe umoretsua!  
Bere doairik berezienak:  
alaja ta paketsua.
- 2/ Jostalaria zan berez eta  
ateraldietan trebe,  
entzule danak parrez jartzeko  
askotan bera errege.  
Asarreturik, kopeta beltzez,  
etzan ikusi beññere,  
esaten zekiana zan baiña  
bai gero entzuten ere.
- 3/ Gure artean ez da aztuko,  
ez, Ahetze'ko semea,  
ainbat gozamen emanda joan dan  
langille bizkor, ernea.  
Zuretzat ere iritxi, Mattin,  
lurreko azken unea,  
ez da makala Euskalerrian  
utzi dezun utsunea.
- 4/ Sarri egoten nintzan ni, Mattin,  
zurekin bildu egarriz,  
Bidasoa'ren bi aldetan gu  
kantatuak ainbat aldiz.  
Danak txoratzen zenituan zuk  
etengabeko par-irriz,  
ezin sinistu etzaitudala  
ikusi bear nik berriz.
- 5/ Samintasuna nagusitu da  
zu lur ontatik joatean,  
jakin dedanez, zure gorputza,  
gaur sartzen dute lurpean.  
Mattin maitea, murgildu zaitte  
zorion bete-betean,  
zeru goietan kanta gogotsu  
Xalbadorrekin batean.
- 6/ Guk ez daukagu kemenik eta  
guk ez daukagu indarrrik,  
Jaunak deitzean joan egin bear,  
ez dago esan bearrik.  
Mutututako txori zar biok  
gelditu gera bakarrik,  
otoitz orduan beti gogoan  
izango zaitu Basarrik.

*El Diario Vasco*, 1981-VII-25.

*Goiz-Argi*, 1981-VIII-1.

*Príncipe de Viana*, 1981-VII-IX.

*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.



## ATETIK ATERA TABERNAK

- 1/ Zer bide artu digu  
gaur Euskalerrriak?  
Ikusi nai duanak  
or ditu begiak.  
Iñor ez du galduko  
emen egarriak,  
atetikan atera  
taberna berriak.
- 2/ Gertatzen ari danak  
ez nau asko pozten,  
tabernez ari gera  
bapo aberasten;  
berriak zabaldu ta  
zarrrik ez da ixten,  
dirurik ez dagola?  
Nik ez det sinisten.
- 3/ Gure auzi au iñork  
nola erabaki?  
Neri beintzat kostatzen  
ari zait ederki;  
aurrera egiteko  
oraintxe poliki:  
lantokiak itxi ta  
tabernak iriki.
- 4/ Beren maillan itxuraz  
bizi ziranak len,  
orain goibeltasunak  
jo ditu nabarmen.  
Famili barrenetan  
gaur zenbat ondamen!  
Miraririk ez dago  
egiterik emen.
- 5/ Len jendeak, an, emen,  
egiten zuan lan,  
nork bere jornaltxo  
etxera eraman.  
Irabazirik eza  
ikusirik zer dan,  
askok, penak azteko,  
zurrutari eman.
- 6/ Istillu latzak ditu  
iritxi eziñak,  
ontatik datoz gure  
naigabe samiñak,  
ez gaitzala mendera  
zurruteko griñak,  
urte danak ez dira  
izaten berdiñak.

*El Diario Vasco, 1981-VIII-9.  
Kezka-giroan, Auspoa 169, 1983.*

## «NEUMONIA ATÍPICA»

- 1/ *Kontzientzia* itza  
bai ederra dala!  
Denbora da gugandik  
ezkutatu zala.  
Bada urte mordo bat  
entzun genduala,  
asto goseti batek  
irentsi zuala.
- 2/ Aberastea amets  
neguz eta udaz,  
dirua pillatzeko  
zertan egon dudaz?  
Kristo saldu zuana  
oroitu zan gutaz,  
inguruan badegu  
amaikatxo Judas.
- 3/ Kezkak bezela lotsak  
bat-batetan galdu,  
bat ortara jartzeko  
barrua bear du.  
Bestela ezin nunbait  
dirurik ugaldu,  
olio izenean  
benenoa saldu.
- 4/ Txarrak egiten dira  
beti txarren lagun,  
ta ez jakin geuri zer  
gertatuko zaigun.  
Konpiantza izpirik  
ez dago gaur inun,  
al dakigu barrura  
zer daramakigun?
- 5/ Diruaren atzetik  
ausardi ta kemen,  
danok a zer nolako  
arrixkuan gauden!  
Segurantzi pixkarik  
ez daukagu emen,  
garbituko gaituzte  
denborak baiño len.
- 6/ Ia larogei ta amar  
dira ildakoak,  
millatik gora berriz  
gaitz txar orrek joak.  
Lapur, gizon-iltzaille,  
biotz gabekoak,  
zer kastigu merezi  
dute olakoak?

*El Diario Vasco*, 1981-VIII-14.  
*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.

## MADRID ETA GASTEIZ

- 1/ Gure lendakariak sendo itzegin du, koskak ez ote leizken mintzatuz berdindu. Euskaldunik ez dedin neurritz kanpo mindu, gero ez ematekoz ez ezer agindu.
- 2/ Itz asko ziran aurrez goxoki emanak, baiña ez gaitu pozten gaur gertatzen danak. Itxuraz egin ezik artutako lanak, euskaldunak asarre, berdin katalanak.
- 3/ Estatutua degu emen lendabizi, onartua dago ta berriketa gutxi! Soiñekoa osorik nai genduke jantzi, goraizez puskek kentzen etzaitezte asi.
- 4/ Sendatu bearrean ez indartu gaitza, bestela guztiontzat dator zorigaitza. Denbora galtzen emen alperrik gabiltza, bete bear ezpada emandako itza.
- 5/ Ez gabiltza iñoren ondamenerako, lege uztarripean sartzen geralako. Oraintxe da denbora, jaunak, lanerako, zerbait egin dezagun danon onerako.
- 6/ Sinistu euskaldunok kezkatu gaudela, ikusirik arrixku aundiak daudela. Bi aldeok itzegin gizonak bezela, ta gaur dauden okerrak konpon ditezela.

*El Diario Vasco, 1981-VIII-23.*

## GAUPASAK

- 1/ *Gaupasak* emen ta *gaupasak* an,  
ortatik bada ugari,  
ustekabeen ez ote gera  
goitikan beera erori?  
Itxu ez dagon guztiak emen  
ondo ikusten du ori,  
sekula santan etzan izango  
orain ainbeste *gautxori*.
- 2/ Sasoi betean dagonik ez da  
ardurutzen osasunez,  
ezin aspertu pesta-giroz ta  
ezin aspertu lagunez.  
Moda berri bat indartu zaigu  
garbi somatzen degunez:  
gabez parrandan ler egin eta  
gero lo lasai egunez.
- 3/ Oillo ta txori, egun argitzez,  
or egoten dira ernai,  
aien erara iñola ere  
guk ez degu ibili nai.  
Zenbat galera dakarren onek  
esan genezake nunai:  
lenen gorputzak ondatu eta  
gero patrikak ere bai.
- 4/ Zer eskubide artu ditugu  
gau ta egunak nasteko?  
Bide ontatik nolatan sortu  
jateko eta jazteko?  
Lana derrigor egin bearra  
mailla bateri eusteko,  
onak gaude gu japondarreri  
kontra egiten asteko.
- 5/ Gaurko egunez ezertarako  
ez dago emen ordurik,  
naiz etorkizun beltza ikusi  
zertako izan ardurik?  
Goizeko lautan eta bostetan  
iñor ez dabil baraurik,  
aldaketarik sortzen ezpada  
ezin jaso guk bururik.
- 6/ Ur oietatik paseak gaude,  
izanak baigera gazte,  
eskarmenturik ez daukagunik  
iñork ez dezala uste.  
Zentzutik denok bear genduke  
komeni zaigun ainbeste,  
nik ez dizutet lagunduko-ta,  
ortik ibili zaitezte.

*El Diario Vasco*, 1981-VIII-30.  
*Goiz-Argi*, 1981-IX-26.  
*Kezka-giroan*, *Auspou* 169, 1983.

## ESTROPADAK

- 1/ Estropadari aurpegi txarrik  
guk ez daukagu jartzerik,  
aurreko zarrak erakutsia  
ez da komeni galtzerik.  
Ederragorik itxas-gaiñean  
bai ote dago sortzerik?  
Agorrilleko arraun-jairikan  
guri ez dago kentzerik.
- 2/ Grazi berezi, aparteko bat  
berekin gaurko egunak,  
au badakigu bizi osoan  
gozatu izan degunak.  
Baliatu or anka ta esku,  
gerri, beso ta belaanak,  
zuen ordua iritxi da-ta  
dantza, mutillak, arraunak!
- 3/ Edertasunez Donosti ere  
arraun jaiaren antzeko,  
beso-zabalka, aurpegi alaiz,  
zai dago danok artzeko.  
Jan-edanaren eskasirik ez  
premi danak osatzeko,  
beste toki bat nun olakoa  
eguna igarotzeko?
- 4/ Aurreko arrantzale on aiek  
norgeiagokan asita,  
arraun neurketa utzi ziguten  
betirako itsatsita.  
Nor alaitu ez oitura nola  
gordetzen dan ikusita?  
Zarrak joan ziran emendik baiña  
ondorengoak utzita.
- 5/ Beti zailla da egokitzea  
aukeran nai dan mutillik,  
negu beltzetik pasatu gabe  
ezpaitago apirillik.  
Aurten, tamalez, Orio, Pasai,  
gelditu dira ixillik,  
urte guztitan ezin osatu  
nai bezelako kuadrillik.
- 6/ Atozte danok, trebe, bulartsu,  
zeuen lana egitera,  
Donostia'ri paregabeko  
jaialdi bat ematera.  
Etzait gogozko nabarmentzerik  
aren da onen aldera,  
geien diranak jaso bitzate  
diruak eta bandera.

*El Diario Vasco*, 1981-IX-6.  
*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.

## GAURKO LEIA

- 1/ Arraun jai onek asko esan nai  
dio emengo dan bati,  
ainbeste gizon leia bizian  
bulartsu eta setati.  
*Kaiku* deritzan talde bikaiña  
aurretik daukagu beti,  
baiña Zumaia ta Ondarrabi  
ez daude oso urruti.
- 2/ Orain da garai indar, kemenak,  
osoki baliatzeko,  
orain ordua zein da zer geran  
ur gaiñean agertzeko.  
Iñork ez dauka eskubiderik  
aurrez kanpaiak jotzeko,  
oker txiki bat naikoa baita  
lengo bentaja galtzeko.
- 3/ Euskaldun askok diru aldatzen  
izaten du gozaketa,  
asegaitza da egarri ori  
barrean daukate ta.  
Txanpon geiegi ez arrixkatu  
or itxumenez beteta,  
aspalditxoko esaera da:  
«jokoa ez da errenta».

*El Diario Vasco*, 1981-IX-13.

## OPORRAK

- 1/ Urte guztiko lanen ondoren  
atseden goxo xamurra,  
al dan urbillen ikusi nai det  
Aizkorri mendi gaillurra.  
Bertsoz egin nai nizueteki  
maiteki nere agurra,  
artzera noa, anai maiteok,  
oporralditxo laburra.
- 2/ Mendi artean jaio nintzan da  
ni antxe atsegiñean,  
ainbat urtean kokatzen bainaiz  
beti kabi jakiñean.  
Ai, toki ura goraltzeko nik  
ez det itzik mingaiñean,  
beste mundu bat aurkitzen baitet  
Arantzazu'ko gaiñean.
- 3/ Pago ta lizar, arkaitz ta larrez  
osatua zauden ori,  
etenik gabe deitzen diguzu  
egizko euskaldunori.  
Anai arteko alkartasunak  
ematen dit kezka neri,  
guztion alde eska nai diot  
arantzarteko Amari.

*El Diario Vasco*, 1981-IX-13.

## GABON-ZAR GABEAN

- 1/ Anai arrebok, ementxe nator  
alaitasunez kantari;  
lendabiziko, esker beroak  
zeruetako Jaunari.  
Gure saioak entzuten zintzo  
egoten zeratenori,  
Urte Berri on opa dizutet  
biotz-biotzez danori.
- 2/ Urte gozo ta eztsua da  
nik opa dedan urtea;  
gorrotoaren izpirik gabe,  
maitetasunez betea.  
Komeni zaigu anaitasunez  
lan egin eta jatea,  
gure artean izan dedilla  
zoriona ta pakea.
- 3/ Urte on beza arrantzaleak,  
urte on nekazariak,  
urte on beza kale zuloko  
langille maitagarriak.  
Alaitu bitez soro-baratzak,  
alaitu bitez mendiak,  
irriparezka ikus ditezen  
beti gure euskal erriak.
- 4/ A, zer para je amesgarria  
Jainkoak eman diguna!  
Garbi ta sendo iraun-aztea  
guri komeni zaiguna.  
Gorde ditzagun gure oiturak,  
gorde izkuntza kuttuna,  
au da euskaldun guzti-guztiok  
daukagun eginkizuna.
- 5/ Millaka urtez or iraun dute  
gizalditik gizaldira,  
gure denboran ez dute oiek  
joan bearrik lur azpira.  
Izkuntz-oiturak jaso ditzagun  
merezi duten tokira,  
bizi-pozikan ez dago emen  
oiek ondatzen badira.

*Príncipe de Viana*, 1981, XI-XII.  
*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.



## JOXE MANUEL ARRIOLA'RI

- 1/ Berrogei ta bi urte egiñik  
Arrasate'ko kalezai,  
atsedentzeko, Joxe Manuel,  
badala uste det garai.  
Lan eta kezkek utzi dituzu,  
bizi zaite orain lasai,  
zu guztiz ondo portatu zera  
eta erria ere bai.
- 2/ Zuk aparteko begirapena  
zenduan legearentzat,  
bera betetzen etzuanikan  
etzenduan artzen ontzat.  
Zu ezagutzen zaituzten danak  
jotzen zaituzte zuzentzat,  
aberats, pobre, nagusi, morroi,  
berdiñak ziran zuretzat.
- 3/ Agindupean ibiltze ori  
sarritan oi da gogorra,  
zuk etzenduan beste biderik,  
jokabide derrigorra.  
Legez kanpora zebiltzenekin  
etziñan errukiorra,  
prailleak ere jasotzen zuten  
merezitako zigorra.
- 4/ Batek odolez dakarkiana  
ezin baztertu zokora,  
erlea beti lorera eta  
bertsolaria bertsora.  
Joxe Manuel, zuk etzenduan  
alperrik galdu denbora,  
amaika kantu moldatu zendun  
zeure lan orduz kanpora.
- 5/ Arrasate'ko erriak egin  
dizkitzu egundokoak,  
kalezai gutxi izango dira  
ain gora jasotakoak.  
Zer ikasbide bikaiñak diran  
zuk or eskeiñitakoak,  
oso bakanak izaten dira  
zu zeran bezelakoak.
- 6/ Egitekoak bete dituzu  
borondaterik onenez,  
zu berdintzerik ezpaizegoan  
zuzentasun da ordenez.  
Biotz-biotzez opa dedana  
zukanako esker onez,  
zartzaro on bat izan zazula  
osasanik ederrenez.

*El Diario Vasco*, 1982-1-10.  
*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.

## ANGULA

- 1/ Zaleak gera, ezin ukatu,  
baña ez degu aukerik,  
ez genduke nai jan eta gero  
naigabetan egoterik.  
Lau milla pezta inguru gabe  
ez dago billa joaterik,  
gustatu arren ez du izango  
nai dun guztiak jaterik.
- 2/ Urtean bein, bi, iru alditan  
ondo datoz, bai orixe!  
Arretaz begiraten diogu  
arraí txikitxo orrixe.  
Beste jakiak ere zerutan  
gaur angulak bezelaxe,  
esan diteke dirua jaten  
ari generala oraintxe.
- 3/ Patrikak arin dabilzan ontan  
prezios pixu galanta,  
biar damutan egon gindezke  
gaur errezegi botata.  
Pobreak ere bere sabela  
bete bearra dauka ta,  
ez ditezela urritu beintzat  
arraultzak eta patata.

*El Diario Vasco, 1982-I-24.*

## KAMIOIAK ZILIPURDIKA

- 1/ Danok gaude oraintxe  
zearo txartuak,  
bildurgarrizko gaitzak  
mendean artuak,  
interesen zakuan  
barrura sartuak;  
gero ta okerrago  
errien tratuak.
- 2/ Nunai badira trabak  
ta nunai lazoak,  
ero-etxe dirudi  
Europa osoak.  
Mugak itxi eraziz  
oien erasoak!  
Frantzes nekazariak  
ez daude gozoak.
- 3/ Frantzes nekazariak  
gorrotutan lertzen,  
kanpotik dijoanik  
ez dute onartzen.  
Burruka setatsuan  
ez dira aspertzen,  
kamioiak geldi ta  
jakiak usteltzen.
- 4/ Mugako langak gogor  
estutu zaizkigu,  
onek kalte galantak  
egingo dizkigu.  
Eten gabeko gerrak  
jarraitzen badigu,  
bizimodua nola  
merkatuko zaigu?
- 5/ Errukirik ez dago  
orain inõorentzat,  
indarra dabilkigu  
egizko legetzat.  
Konponbiderik inõork  
ez du artzen aintzat,  
alkar ito artean  
larri gera beintzat.
- 6/ Barazki eta pruta  
galtzen kamiuan,  
kamioirik aurrera  
ezin baita juan.  
Ezer ez dabil legez  
bear dan moduan,  
zer gizon eskasia  
dagoan gaur munduan!

*El Diario Vasco, 1982-II-7.*

## AU MUNDUA!

1/ Gaur berri txarrak egan dabilta  
lur guztian zaratatsu,  
txarkeria ta maltzurkeria  
oraintxe daude indartsu.  
Zertako ainbat aurrerapen da  
zertako ainbat jakintsu?  
Euskalerrian gaizki bagaude  
kanpotan ere berdintsu.

2/ Batak bestea nundik galduko  
loak artu gabe, ernai,  
egokiera noiz iritxiko  
aspalditxotik daude zai.  
Pauso bakar bat ez onerako,  
txarrerako gertu noiznai,  
gerrazale dan jendeak ez du  
pake konturik entzun nai.

3/ Israel eta Palestina or  
ari zaizkigu su ta gar,  
inglesak eta arjentinoak  
zenbat burrukaldi zakar!  
Gizon, arraza ta nazioak  
ezin ikusirik alkar,  
bertsolariak au galdetzen du:  
onek zer ondoren dakar?

4/ Iran da Irak ez daude berriz  
nolanai pakeatzeko,  
ez da itxurik ango tiroak  
egun bian ixiltzeko.  
Zer poz daukagu bizimoduan  
bide jator bat artzeko?  
Poxpoillo baten paltan baigaude  
mundu guztia galtzeko.

5/ Esaidazute: gaurko gizonak  
bere talentua nun du?  
Argia bada, erakusteko  
ez al da iritxi ordu?  
Txarturik dagon mundu zabal au  
nola demontretan ondu?  
Gu, euskaldunok, lau katu izan  
ta ezin gera konpondu.

6/ Armak pillatzen or ari dira  
gero ta gero geiago,  
erabili nai ezpadituzte  
or kastu alperra dago.  
Atomikazko indar oiekin  
oso izutua nago,  
ia inpernua ikusten degun  
geuk uste baiño lenago.

*El Diario Vasco, 1982-VI-13.  
Kezka-giroan, Auspoa 169, 1983.*

## UDARA EMEN DEGU

- 1/ Denbora degu ustekabeen  
iges dijoakiguna,  
atzo mutiko ta gaur agure,  
auxe gertatzen zaiguna.  
Une onetan au da guztiok  
gogoan bear deguna:  
udarak biar izango dula  
lendabiziko eguna.
- 2/ Gure begien engaiñagarri  
apain, dotore prestatu,  
klase danetik badaukazu ta  
nai dezunetik eskatu.  
Metroz metrora kafe, taberna,  
dantzaleku ta ostatu,  
zer kastaturik izaten bada  
izango da nun kastatu.
- 3/ Bizarrak eta illeak mozten  
askok ez daukate lanik,  
garai batean zeñek sinistu  
au ikusi bear zanik?  
Garbitasuna tiroz il eta  
zikinkerira emanik,  
begiratuta nork esango du  
oiek pertsonak diranik?
- 4/ Frantzes, aleman, sueka ta ingles  
etortzen dira bezteko,  
eta bertako alabak ere  
eskusik ez erazteko.  
Zaletasunik baldin badezu  
aragia ikusteko,  
kezketan iñor ez da egongo  
ditunak erakusteko.
- 5/ Kale bat pasa nai baldin bada  
beti arrixku aundian,  
pausoa nundik nora emango  
etsai gogorren erdian.  
Lau begirekin ibili bear  
dezu denbora guztian,  
bizia utzi nai ezpadezu  
automobillen azpian.
- 6/ Ezin ukatu nik itxasoa  
oso dedala maitea,  
baiña udarak bakarrik ez du  
osatzen emen urtea.  
Bakoitzak bere aukeran dauka  
nai dun tokira joatea,  
neuk naiago det askozaz ere  
mendi gaiñeko pakea.

*El Diario Vasco, 1982-VI-20.*

## ERRUKI, JAUNA!

- 1/ O, Euskalerra, nolatan zugar  
ainbat naigabe ta samin?  
Nungo indarrak pillatu dira  
lur au ondoratu dedin?  
Ondo dakizu, Aurtxo maitea,  
emen ez dago atsegin,  
ez dakit nundik asiko naizen,  
ez dakit nola itzegin.
- 2/ Sarritan nauka negar garratzak  
zearo menderatuta,  
emen gertatzen ari diranak  
astiro gogoratuta.  
Anaiak gaude anaiei aurka  
otso tankerak artuta,  
ezin itxaron gauza onikan,  
burua galdu degu-ta.
- 3/ Ez buru ta ez belarri emen  
ezer ezin eramanik,  
au da txarrena: itxura gutxi  
gaitz au sendatuko danik.  
Ondorenak zer izango dira  
etxeari su emanik?  
Aurtxo maitea, ez nuan uste  
onen eskasak giñanik.
- 4/ Jesus maitea, askok diote  
joan dala zure denbora,  
Zugandik urrun bizi nai dute,  
ez datoz zure ondora.  
Bagoazela nabaitzen degu,  
baiña ez dakigu nora,  
nik berriz ez det etorkizunik  
ikusten Zutaz kanpora.
- 5/ Fededunontzat Zu zera beti  
egitazko Jaun Altsua,  
argi dagonez, erri gaixo au  
gaur ez da zorionsua.  
Zure aurrean burumakurka  
au nere otoitz sutsua:  
euskaldunori eman zaiguzu  
premixko degun zentzua.
- 6/ Zuretzat ez da eziñezkorik,  
Zu grazi danen iturri,  
bear gorrian aurkitzen gera,  
ta laguntzera etorri.  
Baretu bedi itxasoa ta  
uztartu mendi ta erri,  
berriro ere biur dedilla  
benetako Euskalerra.

*El Diario Vasco*, 1982-XII-29.  
*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.

## AU LOTSA GUREA!

- 1/ Erri maitea, noiz izan dezu onelako zorigaitzik?  
Aspalditxoan ez det entzuten negar karraxia baizik.  
Au erakusten ari gera-ta, aitortzeak ez du lotsik: ez daukagula bizitzerik guk makilpean izan ezik.
- 2/ Egia da, bai, egun batean armak artu genitula, nork esan guri ondorenean au ikusiko gendula?  
Esan diteke erri gaixo au geuk ondatu nai degula, nik pentsatzen det mixeria ta gosea datozkigula.
- 3/ Ezin asmatu askatasunez pausoa zuzen ematen, geu ari gera geure ontzia arkaitzera eramaten.  
Mundu osoan gure kontrako itz gogorrak erasaten, batek lotsatu egin bear du «euskalduna naiz» esaten.
- 4/ Gaur anai batek ezin asmatu nola ondatu bestea, ala bearrez guri gertatu au guztia ikustea.  
Penagarria sendagai gabe gaixoa iltzen uztea, bein urak joanik alperrik degu presa egiten astea.
- 5/ Pakezaleon biotzak beintzat ondo bete dira zauriz, bururik ezin jaso baitegu geure atsekabe aundiz.  
Auxe pentsatzen egoten naiz ni, neuk ez dakit zenbat aldiz: Xenpelar batek gaur zer esango ote luke bizi balitz?
- 6/ Gau ta egunak daramazkigu penak ezin arinduta, Euskalerrian millakak gaude gaur erabat saminduta.  
Arro gabiltza emen bostgarren agindua birrinduta, bi urte pasa bear lurrean ta odolez zikinduta.

*El Diario Vasco*, 1983-II-10.  
*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.

## KOBRATU EZIÑA

- 1/ Batek saria jaso bear du  
lanketa bat egitean,  
bestela bere alegin danak  
bere buruan kaltean.  
Gaitzak mendean artuak gauzka,  
gaiñera danok batean,  
autsi ezin dan kate luze bat  
daukagu gure artean.
- 2/ Lagun bat badet mueblegillea,  
ditekenik jatorrena,  
«Lanez zer moduz?» nik galdeturik,  
itz auek ziran urrena:  
«Basarri maite, etzaidazula  
txitxarez bete barrena,  
egindakoa kobratzen dago  
emen lanikan txarrena».
- 3/ Berez alaia izanik ere  
lengoan etzegon alai,  
danak aitortu zizkidan gero  
ta ez gaiñera nolana:  
«Lanez poliki osatzen gera,  
eske berriak ere bai,  
baiña kontua pasatakoan  
iñork ez du ordaindu nai».
- 4/ Nola nagusi, ala langille,  
bada gaur buruaustea,  
zaildua dago, arranek ezik,  
dirua irabaztea.  
Neke guztiak alper alperrik,  
zer bizimodu tristea!  
Nolaz arritu ainbat lantokik  
beren atea ixtea?
- 5/ Zer ekaitzaldi agertu zaigun  
geure begien bixtara,  
leloen gisan gelditu gera  
ez onera ta ez ara.  
Ezin iritxiz dabilen ura  
nekez dijoa pestara,  
beltzak ikusi bearrak gaude  
gauzik aldatzen ezpada.
- 6/ Ez gendun asko itxaroten guk  
olako zorigaitzikan,  
onek ez dakar gure artera  
larritasuna baizikan.  
Atzo lau duro zituztenak gaur  
ortxe dabilta utsikan,  
bide ontatik ez dago emen  
ezertarako pozikan.

*El Diario Vasco*, 1983-V-1.  
*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.



## RETEGI BIGARRENA TA GALARTZA IRUGARRENA (1-V-1983)

- 1/ Anoeta'ko barrunbe dana  
jendez gainezka zegoan,  
sartu nai eta sartu eziñik,  
ango marmarra kanpoan!  
Bizirik dedan arteraño nik  
beti izango det gogoan,  
neure begiz zer ikusi nuan  
maiatzaren lenengoan.
- 2/ Merezi duten gazte oientzat  
dira gure aitormenak,  
oiek daukate abildadea.  
oiek daukate kemenak!  
Larre motxean aziak eta  
gogor zailduta daudenak,  
gaur Napparroa'k ematen ditu  
pelotaririk onenak.
- 3/ Aspalditxotik bien izenak  
zitun jendeak agotan,  
derrigor batek galdu bear zun,  
ez dago dudarik ortan.  
Retegi maite, zure ondoan  
gaur ez da giro pelotan,  
argatik jantzi dezu txapela  
lau urte segidakotan.
- 4/ Beso, gerri ta belaun oietan  
bada indarra ta gatza,  
atze ta aurre, ezker, eskubi,  
ura pelotaren dantza!  
Danak batera auxe zioten:  
ori da bikote latza,  
ez dira emen errez aztuko  
Retegi eta Galartza.
- 5/ Galtzaille gertatu zan Galartza  
gorago igo ezinda,  
ez da arritzeko kontrarioa  
nolakoa dan jakinda.  
Retegi ala estututzeko  
gai danik besterik zein da?  
Galdu zun baiña, ogei ta bira  
amasei tanto ginda.
- 6/ Zeuen merituz artuak zuek  
jokoan lenengo maillak,  
oso apartak zeratelarik,  
menderatzen txit lan zaillak.  
Jotzaille bildurgarriak eta  
tantoegille abillak,  
pelota goian utzi dezute,  
zuek zerate mutillak!

*El Diario Vasco*, 1983-V-8.  
*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.

## KAMIOIAK IRAULTZEN

- 1/ Interesaren indarrak dauzka erriak menderatuak, eta gizonak alkarrentzako otso zakar biurtuak. Emen bakoitzak bere aldera egiten ditu kontuak, lendabiziko Jaungoikoa ta ondorenean santuak.
- 2/ Iraulitako kamioi zarrak zilipurdika, saltotan, jende basati, biotzgabea, urregi dago askotan. Fruta, barazki, zer ondarena burrukaldi zakar ortan, lan egiteak zer balio du ordain au izatekotan?
- 3/ Nekazariak suak artuta asarre beroenean, frantzesak ere kontrariorik ez du nai aldamenean. Ainbat naspilla, iru pausora, mugarik gertuenean, mundu zabala nola konpondu geu ola gabiltzanean?
- 4/ Ainbat kamioi janez beteak azken ori ikusteko, barruko karga baliotsua kamioetan uzteko. Txofer jendeak ez dauka beintzat motibo asko pozteko, ola ibili bear kristauak ogia irabazteko.
- 5/ Adiskidetza komeni eta orra danok biurritu, bere tokian gizon bezela iñor ezin errenditu. Geuretzat ondo ez datorrena al dan azkarren txikitu, mundu ontako oker guztiak interesak sortzen ditu.
- 6/ Tente ta lerden bear genduke ta emen gaude etzanik, nork esan ogeigarren mendean au ikusi bear zanik? Inguratuta itzegitea ain premizkoa izanik, gauzak pixka bat itxuratzeko iñun ez al da gizonik?

*El Diario Vasco*, 1983-V-22.  
*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.

## LURDES'A ERROMES

- 1/ Gure artean maitale asko  
dezu, Ama, zorionez,  
indarberritu egiten gera  
zure ondoan egonez.  
Burumakurka eskabideak  
egitera biotz onez,  
gipuzkoarrok bein da berriro  
Lurdes'a goaz erromes.
- 2/ Goiko laguntzik artu ezean  
utsa da gure indarra,  
otoitz labeak ager dezala  
Lurdes'en bere sugarra.  
Beingo batean bukatu dedin  
erri zar onen negarra,  
iñoiz bada-ta oraintxe degu  
Ama on baten bearra.
- 3/ Itxaropena berekin duna  
beti pozez, beti alai,  
ongi baitaki an artzuloan  
norbait dagola bere zai.  
Gaur jakina da fedegabeak  
ugaldu dirala nunai,  
auentzat ez det ezer esaten,  
baiña fededunentzat bai.
- 4/ Guztiok gera pekatariak,  
Ama, ondotxo dakigu,  
orretxengatik ez ote degu  
jasotzen ainbat kastigu?  
Eziñak eta buruausteak  
ugaltzen ari zaizkigu,  
Zu bitarteko izan ezkerro  
Jainkoak entzungo digu.
- 5/ Gure premiak zer diran, Ama,  
zuk bai dakizula ongi,  
illunpe ontan ez zoratzeko,  
arren, egiguzu argi.  
Zure oiñetan egin asmotan  
gera milla otoitzaldi,  
gure naigabe astun, garratzak,  
biur ditezen pozaldi.
- 6/ Alaipidea sar zazu gure  
gaixoen biotz barrura,  
Ama, errukiz luza begiak  
gu bizi geran lekura.  
Ekaitz ontatik libra gaitezen  
artzazu danon ardura,  
gure ontzia zuzen joan dedin  
salbameneko portura.

*El Diario Vasco*, 1983-V-29.  
*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.

## DROGAREN KALTEAK

- 1/ Alperrik galdu zaigu  
ainbat gazte lerdan,  
aurrera ez jakin zer  
ikusteko gauden.  
Bixtan dago, ta izan  
aitortzeko kemen,  
len etzan gaitz berri bat  
sortu dala emen.
- 2/ Orra or auts egiñik  
len bikaiña zana,  
zutik egon ezin dan  
zugaitz erasana.  
Gu gazte giñanean  
entzuten etzana,  
gaurko gaitz berri onek  
*droga* du izena.
- 3/ Gorputza keldotuta,  
beeruntz osasuna,  
sasoirik onenean  
zer etorkizuna!  
Erri bat ondatzeko  
ori da laguna,  
errukarria *drogak*  
menderatzen duna.
- 4/ Bizioa sendotzen  
ari da indarrez,  
gero uzten gaiztoa  
izan, zoritxarrez.  
Pamilietan gaitz au  
ain sartzen da errez,  
zenbat guraso jator  
dagon gaur negarrez!
- 5/ Gaitzaren kontra jarri  
bear ainbat esi,  
tentazio txarretik  
zoazte igesi.  
Asko nola dabiltzan  
arretaz ikusi,  
gazte maitegarriok,  
probatzen ez asi.
- 6/ Mintzatzen naitzazute  
maitetasun utsez,  
on bearrez ari naiz,  
gaiñera biotzez.  
Zuek ere kutsatu  
etzaitzeten gaitzez,  
borondatea izan  
esateko ezetz.

*El Diario Vasco*, 1983-VI-5.  
*Kezka-giroan*, *Auspoa* 169, 1983.

## UDARA ELDU ZAIGU!

- 1/ Lau urte-aro ditu urteak  
bata bestean illaran,  
bizia iru illabeteko  
bakoitzak bere bolaran.  
Denbora beti korri ta korri,  
badakigu au nola dan,  
udaberriak iges egin du  
ta sartu gera udaran.
- 2/ Nai ainbat ezin gozatu iñoiz  
gogozko zaigun girotik,  
gaitz au sartua gendukan emen  
orain baiño lenagotik.  
Beti zerbaiten aitzekia guk  
ta negarra jo gogotik,  
len otzetikan aspertu gera,  
orain, seguru, berotik.
- 3/ Ondartza dana jendez gaiñezka  
erriko ta erbesteko,  
nork du mingaiñik ikusten diran  
gauzak adierazteko?  
Eguzki zarra indarrean da,  
erropa gutxi jazteko,  
a zer aukera duten oraintxe  
zuri daudenak bezteko.
- 4/ Gaurko jendeak lotsak erabat  
or utzi ditu atzera,  
neska ta mutil ortxe dijoaz  
bustialdiak artzera.  
Begiz ikusi nai badituzu  
azaldu itxas-ertzera,  
larrugorrian dabilta batzuk  
Adan da Eba'n antzera.
- 5/ Beti pozikan itxaroten da  
udararen etorrera,  
baiña nork artu lezake ontzat  
orrelako portaera?  
Lotsari tiro eman ezker  
okerretik okerrera,  
Jainkoak daki zer ikusteko  
gauden emendik aurrera.
- 6/ Danak azaldu bear dituzte,  
ezin dute ezer gorde,  
agintarien bildurrik ezta,  
orra naiko libertade.  
Zer pentsatuko ote lukete,  
egiten det emen galde,  
garai bateko aiton-amonak  
bizirik baldin baleude?

*El Diario Vasco, 1983-VI-26.  
Kezka-giroan, Auspoa 169, 1983.*

## ARANTZAZU'RA ERROMES

### I

- 1/ Arantzazu'ra erromes goaz,  
ala erabaki degu,  
zordun gerala badakigu ta  
ordaindu naia daukagu.  
Geure otoitzik xamurrenak gaur  
emen loratzen ditugu,  
Jainko altsu ta errukitsua,  
gogoz eskertzen zaitugu.
- 2/ Eskerrak eman batetik eta  
indar berriak eskatu,  
grña txar, gaizto eta zitalik  
ez dedin guban esnatu.  
Naiz eta gure mingain totalak  
erabat guztiz askatu,  
zure maitasun neurrigabea  
goraltzen nola asmatu?
- 3/ Saia bearrak gaude zintzoki  
zure nai danak betetzen,  
egin ditugun utsegiteak  
azturik geldi ditezen.  
Zure errukia nolakoa dan  
nundik asi gu agertzen?  
Seme bakarra eman zenigun  
guztiok salba gaitezen.
- 4/ Bi milla urte utsaren paltan,  
zer gertatu zan orduan?  
Kristo'k gurutze artatik danok  
izan gindula kontuan.  
Argalak gera eta sarritan  
murgiltzen gu pekatuan,  
damutasunez senda gaitezen  
aurtengo *Urte Santuan*.
- 5/ Jaungoikoaren Seme izanik  
eriotz aurrean bakar,  
gure pekatu zorrak ordaintzen  
maitasunetan su ta gar.  
Arnas-berritze lanari ekin  
dezaiogun danok azkar,  
Ark maite izan gindun bezela  
guk maita dezagun alkar.
- 6/ Bakoitzak jaso bearra dauka  
tokatzen zaion gurutza,  
laiño beltz, illun, bildurgarriak  
azaldu dira onuntza.  
Orain eskari txit berezi bat  
Euskalerritik goruntza:  
supritzen dagon erri zar oni  
ez uka zure laguntza.

*Zarautz, 27-III-1983*

*Arantzazu, 1983-VI.*

*Kezka-giroan, Auspoa 169, 1983.*

## ARANTZAZU'RA ERROMES II

- 1/ Arantzazu gaiñeko  
Birjiña laztana,  
danon Salbatzaillea  
mundura emana.  
Borondate argala  
aizeak darama,  
burumakurka gatoz  
lotsati zugana,  
zure premiz gera-ta  
entzun, arren, Ama!
- 2/ Gaiñezka zaude, Ama,  
Zu maitasunetik,  
danok ateratzeko  
estuasunetik.  
Tentaldi txar, gaiztoak,  
dauzkagu nunaitik,  
arrikkua besterik  
ez alde danetik,  
ez gaitezela irten  
bide zuzenetik.
- 3/ Lurreko egunetan  
unero, unero,  
gure itxaropena  
beti Zugan bego.  
Ama, otoitz dagigu  
sutsu eta bero,  
betiko zoriona  
zai daukagu gero,  
zure bitartekotza  
iritxi exkero.
- 4/ Bazter dezagun gure  
jokera ergela,  
laguntza bear degu,  
alperrik bestela.  
Zure graziak gugan  
ixur ditezela,  
uste det oso esku  
onetan gaudela,  
errukitsu baizera  
Semea bezela.
- 5/ Oñaztar, ganboatar  
alkarren etsaiak,  
artaldea banatu  
ziguten artzaiak.  
Guztia lor lezake,  
Ama, zure naiak,  
pozteko gure mendi,  
soro ta zelaiak,  
pakeatu gaitzazu  
euskaldun anaiak.
- 6/ Sinismena ez dago  
bear bezin tinko,  
ta bera indartzea  
da lendabiziko.  
Eskatuko dizugu  
gogoz belauniko,  
Zu lagun zaitugula  
bizitzan betiko,  
gure itxaropena  
ez da itzaliko.

*Zarautz, 27-III-1983.  
Arantzazu, 1983, VII-VIII.  
Kezka-giroan, Auspoa 169, 1983.*

## LENGO BIDERA?

- 1/ Berriro ere ostoberritzen  
asi al zaigu zugaitza?  
Arraunlarien udaberriak  
nabarmen du argi printza.  
Bere onera dator ziurki  
emengo arraunlaritza,  
Zumai, Orio, Orio, Zumai,  
aurreko puntan dabilta.
- 2/ Eskailerak or daude gorako  
eta beerako egiñak,  
au ezagutzen ez dutenentzat  
sarri daude tripamiñak.  
Jokoak beti berekin ditu  
naigabe ta atsegiñak,  
sinistu gero urte guztiak  
ez ditugula berdiñak.
- 3/ Jarrai aurrera, arraunlariok,  
zeuen jokera piñean,  
onenak ere sarri gertatu  
izan dira eziñean.  
Zaildu gorputzak, puztu birikak,  
saiatu alegiñean,  
Donostirako egunak ere  
or dituzute gaiñean.

*El Diario Vasco*, 1983-VIII-17.



## AU LOTSA!

- 1/ Ama Birjiña bezpera daukat  
oroimenean josita,  
gure Donosti berdingabea  
goitik beera erorita.  
Alkarren kontra gerra bizian  
erri-jaiak etorrita,  
lotsagarriak gera benetan,  
ondo pentsatzen jarrita.
- 2/ Izan egiten txarkerirako  
beti gerturik daudenak,  
egun, ordu ta une guztiak  
ondo zaintzen dituztenak.  
Donostia'ko gertakariak  
min ematen digutenak,  
geiegi dira gure artean  
pakerik nai ez dutenak.
- 3/ Ontziak gaiñez egin ezkerro  
errukarri gure lurra,  
zer ondamendi etorriko dan  
pentsatzea da samurra.  
Argi ta garbi agertuko det  
nere kezka ta bildurra:  
berriro laister ez ote degu  
bizkar gaiñean egurra?

*El Diario Vasco, 1983-VIII-17.*

## IZAR BAT ITZALI ZAN URTEA

Loiola Erri Irratitik izan gendun eskaria. Larunbatean bukatu zan urte ortan aldendu zan gugandik Manuel Olaizola Uztapide bertsolari aundia. Urte Zarrari ta Uztapideri buruz lau bertso kantatzea nai zuten. Nola ukatu mesede ori, ogei ta sei urtean beti alkarrekin ibiliak izanik? Auek dira, irakurle, Loiola erri Irratitik kantatu genitunak:

1/ Zuk, Urte Zarra, pentsatu dezu bein da betiko joatea, zure denborak bukatu dira, gaiñean degu bestea. Naigabe beltzez josi ninduzun, zer nai dezu esatea? Nere lagun on Uztapidentzat zu ziñan azken urtea.

2/ Izar argi bat itzali dezu bertsolarien zeruan, aren dizdirik ez da geiago emen gure inguruan. Gizon bezela ere oberik asko-asko ez munduan, oraindik ere gure artean ixtimatuko genduan.

3/ Ainbat urtean ibili giñan esan eta erantzuten, orain geiago ezin gozatu aren bertsoak entzuten. Nik, Urte Zarra, ez dakit nola adieraziko dizuten, euskerak eta Euskalerrriak zer galera izan duten.

4/ Oraindik ere bearrezkoak izanagatik guretzat, gu Jaunarentzat bizitzen gera ta il ere Jaunarentzat. Ni ere urtez aurrera noa ta erregu au zuretzat: Manuel maite, toki pixka bat gorde zazu or neretzat.

*El Diario Vasco, 1984-I-3.*

## ELBIRA ZIPITRIA ZANARI

Elbita Zipitria andereño zanaren oroimenez, ospakizun bikaiñak izan ziran juañ dan larunbatean, Donosti'n. Askotxok erregutu didate Antzoki Zarrean abestu nitun lau bertsoak nunbait argitaratzeko. Nun toki egokiagorik orrialde ontan baiño? Onela izan ziran, oker aundi gabe:

1/ Irten, bertso maiteok,  
aurreko aldera,  
entzule guztieri  
poz bat ematera.  
Zertarako degu gaur  
emengo billera?  
Elbira'ren omenez  
inguratu gera,  
ongi etorri danok  
Antzoki Zarrera.

2/ Zu ezin jaso iñoiz  
bear dan tokira,  
oraindik emen dabil  
argizko dizdira.  
Boga, boga jun bear  
degu urrutira,  
atseden ar zazu zuk  
or goian, Elbira,  
zure jarraitzaileak  
lur ontan badira.

3/ Euskeraren alde zuk  
odol danak pil-pil,  
iñola ezin egon  
geldi eta ixil.  
Erakutsi gabe zu  
nola bizi trankil?  
Zuk egin zenduana  
gogoratzen nabil:  
euskerarentzat bizi,  
euskerarentzat il.

4/ Denbora txar aietan,  
ai, zenbat ostiko!  
Baiña Elbira'k etzun  
egundo etsiko.  
Euskeraren bizia  
zan lendabiziko,  
itz ematen dizugu,  
gaiñera betiko:  
zure bide jatorra  
ez degu utziko.

Gaur, ikastolak eta andereñoak pausotik pausora aurki ditzazkegu. Etzan olakorik Elbira'k lanari ekin zionean. Bakar-bakarrak, gaixoa, olatu zakarrenekin burrukatzuz, gerra aurretik eta gerra ondoren, osasunak lagundu zion arteraiñoako guztian. Bere buruari asko eskatzen ziona zan. Ala bere ikasleeri ere. Zorrotza azalez, biguiña barrenez. Ondo mereziak zitun juañ dan larunbateko goralpen aitormenak.

*El Diario Vasco, 1984-VI-15.*

## URREZKO EZTIAIAK

Gaur dira berrogeitamar urte, eskue-tan daukazun *El Diario Vasco* au jaio za-la. Urrezko eztaiak ospatzen ditu egun seinalagarri ontan.

Jainkoak ala nairik, idazle apal au ere gaurko egunez jaio zan, 1913'garren urteko azaroaren ogeitazazpian. Beraz, egunkaria baiño ogeitabat urtez zarragoa naiz ni.

- 1/ Egunkari batentzat zein une alaiak!  
Arrokeriz ez baiña jo pozez kanpaiak.  
Txoratu bear nau zu zoriondu naiak,  
gaur diralako zure urrezko eztaiak.
- 2/ Dala mende erdi bat zan zure asera,  
kostata iritxia gaillurra jotzera.  
Diz-diz egiten dezu izarren antzera,  
eskurik geienetan zu ikusten zera.
- 3/ Zuk bai gizatasuna leial erakutsi,  
iñor ez dezulako bazterrera utzi.  
Zuri ate, leioak, zein demontrek itxi?  
Zu irakurri gabe iñork ezin etsi.

4/ Zure irakurleak erruz ugaritu,  
nai dunak argibide guztiak or ditu.  
Gaur daukazun salmentak gu arritzen gaitu,  
ezagutzen zaitunak zu erosten zaitu.

5/ Zuri zergatik ola atea iriki?  
Gaitza nai dezulako ondotik ebaki.  
Pentsamolde danentzat badezu zuk toki,  
setatsu etzerala jendeak badaki.

6/ Orko langille gera, gogoan daukagu,  
gure itzaropenak zuregan dauzkagu.  
Irakurle danekin zorretan gaude gu,  
ona obeagotzen saia bear degu.

*El Diario Vasco*, 1984-XI-27.

## ASTIASU'KO MARTIRIA

Il berria degun D. Prantzisko Segurola apaiz jaunak (goian bego), bertso bakar batzuk eskatu zizkidan, Astiasu'ko Urzuriaga baserrian jaio zan martiriarentzat. 1984'ko dagonillaren (abuztuaren) 8'an moldatu nitun, ondoren irakurriko dituzutenak:

- 1/ Mixiolari paregabeak  
ainbat neke ta izerdi!  
Urzuriaga'n jaio zan ura  
egundo etzegon geldi.  
Martiri sua berekin zuna  
martiri gisan itzali,  
Astiasu'ren aintzagarria  
Aita Julian Lizardi.
- 2/ Gure Lizardi Erniopean  
munduratu zuan amak,  
zertaz poztua badegu noski  
euskaldun seme geranak.  
Ain zoratua zeukan gugatik  
bein gurutzean il zanak,  
ta bere alde ixuri zitun  
gorputzeko odol danak.
- 3/ Beti arrixkuz arrixku antxe  
eraman zuan gurutza,  
Kristoren alde iltzea baizan  
Lizardi'ren amets utsa.  
Ogeitamabi zastailluz josi  
ziotelarik gorputza,  
ark bai gizonki egin zuala  
Maixuaren testigutza.

- 4/ Gazterik utzi zendun mundua  
eta modu gogorrean,  
geroztik zure toki artua  
or da zeru ederrean.  
Ondo dakizu nola gabiltzan  
zu jaio ziñan lurrean,  
bitartekotza egin zaiguzu  
Jaun aundiaren aurrean.

Lizardi'ren moduko semeak ez dira dozenan amairu izaten. Ni ez naiz arritzen astiasuarrak martiriaren arazoa ain benetan artzearekin. Astiasuar apaiz edo erlijiosoak, batez ere. Badakigu azken itza Elizak esan bear dula. Inork baiño obeto zekian au Segurola apaiz jaunak. Bere aldetik al zezaken guztia egin gabe etzan gelditu. Beste askotxo dira aren bidetik dijoazenak. Denborari emaiogun denbora.

*El Diario Vasco, 1985-I-13.*

## BIZITZAREN UDAZKENEAN

1/ Ez da erreza jai au  
trankil eramaten,  
barren korapilloak  
ezin zaizkit eten.  
Erri ontan asmoa  
artua zeukaten,  
pentsatzen jarrita, o  
zein onak zeraten!  
Orain nola asmatu  
eskerrak ematen?

2/ Nik ez det ezagutzen  
zer dan gorrotua,  
euskalduna ikusi  
nai det alkartua.  
Nagusitu dedilla  
bein pake santua;  
euskera ta Euskalerra  
asko maitatua,  
ori izan da beti  
nere pekatua.

3/ Nere udaberria  
juna da igesi,  
orain udazkenean  
bearko det bizi;  
ta laister negu beltza,  
eriotz ta guzi.  
Auxen eskatzen diot  
emendik Jesusi:  
nere azken orduan  
ez bakarrik utzi.

4/ Borondatez egin det  
beti al dedana,  
egun au da nik aztu  
ez nezakeana.  
Orrenbeste maitasun  
zuek neregana;  
ontan bukatzen da gaur  
nere bertso lana,  
artzazute guztiok  
besarkada bana.

Bertso ituntxoak, tristetxoak, bear bada. Kantuz asten naizenean, ordea, biotzak itzegiten dit. Sentitzen dedana esaten det beti. Une gogoangarri artan auxe agindu zidan biotz nereak. Urteak ez dira alperrik igarotzen, eta zer esan nezaken besterik? Laburra izaten da gizaki bakoitzaren udaberria. Ni, zuetako asko bezela, bizitzaren udazkenean nago. Jauna gogotsu eskertuz gaiñera.

*El Diario Vasco, 1985-V-23.*

## MEREZI GENDUNA

- 1/ Euskal jeltzale zar bat naiz eta  
au naigabe latz, astuna!  
Izan ditugun auteskundetan  
zer da ikusi deguna?  
Etxe barruan saltsa bizia,  
marmario ta jarduna,  
eta azkenean gertatu zaigu  
ondo merezi genduna.
- 2/ Geure artean beti mokoka  
gai ontaz ezpada artaz,  
ta beste batzuk baliatuak  
gure arteko zarataz.  
Jipoi aundi bat artuak gera  
eta dana geure faltaz,  
gure okerrak zuzentzeko geu  
ezpaigera izan kapaz.
- 3/ Bildur nintzan ni sua gelditu  
zitekela itzaldua,  
ta geiegizko arrokeria  
ondo asko apaldua.  
Orain alperrik degu negarra,  
orain alperrik damua,  
kontuak ondo ateratzeko  
lenago gendun ordua.
- 4/ Gure arteko personalkeri  
txatxu bezin nabarmenak,  
laister ikusi bearko dira  
dakarzkiten ondorenak.  
Auzotik dana ikusten dute  
lausorik gabe daudenak,  
familiarik auziak dira  
beti auzirik txarrenak.
- 5/ Artzaiak amor eman balute  
bakoitzak bere aldetik,  
gure artaldea zuzen jungo zan  
egizko bere bidetik.  
Beti alkarri zipoka zital,  
pozoi txarra mingaiñetik,  
Euskalerria ez ote zegoen  
txatxukerien gaiñetik?
- 6/ Gizatasuna bakandu da ta  
agindu naia ugaldtu,  
zer arroturik ez daukagunez,  
buru arroak apaldu.  
Dana eskuan euki degu ta  
dana geure erruz galdu,  
guk egin degun pekatu onek  
barkaziorik bai al du?

*Goiz-Argi, 1986, VII-VIII.*

## ERRIA GOBERNATU

- 1/ Auteskundeak izan ditugu  
kanpai ots galantarekin,  
zer pentsaturik asko badago  
ikusi degunarekin.  
Geienok berdin pentsatzen eta  
ez konpontzen alkarrekin,  
arriak negar egin lezake  
gertatzen zaigunarekin.
- 2/ Isteri zear lenago ere  
saltsa pranko izan degu,  
oñaztar eta ganboatarren  
odol ber-bera daukagu.  
Ain setati ta buru gogorrek  
zergatik ote gera gu?  
Eskuan euki txoria eta  
igesten utzi diogu.
- 3/ Penaz ta lotsez ezin gorde det  
nere barrengo samiña,  
noiz eta nola zuzenduko da  
egin degun utsegiña?  
Gure artalde zoragarria  
orra bi puska egiña,  
oraintxen ere nagusi giñan  
batuta egon bagina.
- 4/ Iñola ere ezin ibili  
danok bide berdiñetik,  
batzuk estutik naiago dute,  
beste batzuk zabaletik.  
Auxe pentsatu dezala sakon  
bakoitzak bere aldetik,  
Euskalerrria dagola beti  
partidu danen gaiñetik.
- 5/ Berdin pentsatzen ez duanari  
ez beintzat trabarik jarri,  
itzegin bear dana itzegin  
billerak egiñez sarri.  
Punturik garrantzitsuenetan  
amor emanaz alkarri,  
al dan ondoen gobernatuta  
falta diranak ekarri.
- 6/ Ni ziur nago gizon prestuak  
alde danetan dirala,  
ta danok berdin pentsatze ori  
eziñezko gauza dala.  
Erri zar onek merezi du ta  
saia danok egiñala,  
munduak ez dezala uste gu  
basati batzuk gerala.

*El Diario Vasco, 1986-XII-7.*



## URTE BERRIAN AURRERA

- 1/ Lengoak txiki, eta berriak  
zabaldu digu atea,  
auxe dala ta legezkoa da  
guk eskerrak ematea.  
Nik derrigortzat jotzen det emen  
galdera bat egitea:  
nolatan bukatuko ote da  
asi berri dan urtea?
- 2/ Alaitasuna nai genduke ta  
ori zailla da erosten,  
tristura beltzak ez diolako  
berari tokirik uzten.  
Jaunak badaki zer denboralek  
astindu bear gaituzten,  
oraingoz beintzat zeru aldean  
argirik ez det ikusten.
- 3/ Ainbat guraso naigabeturik,  
familien ondamena,  
nun dago oien etorkizuna?  
Nun oien itxaropena?  
Sasoirik oneneko gazteak  
ortxe kalean barrena,  
lanikan eza dala jotzen det  
emen arazo txarrena.
- 4/ Ez degu jakin garai bateko  
gizalegea mantentzen,  
sasoia degu bein da betiko  
eskarmentatu gaitezen.  
Maitasunezko janariakin  
ezpagera gu gizentzen,  
galtzak bete lan izango degu  
dauden okerrak zuzentzen.
- 5/ Zutiñik gaude eta ez goaz  
itxaropenik galtzera,  
o, Urteberri, gure artean  
ondo ikusia zera.  
Zorionduko zaitugu bero  
merezitako antzera,  
len pasatako guztiak baiño  
obea baldin bazera.

*El Diario Vasco*, 1987-1-11.

## LAIÑOPEAN

- 1/ Denbora aurrera ta  
kezkatuik gaude,  
ola bizitzen ere  
komeriak daude.  
Galdezka ari da gaur  
makiña bat jende,  
noiz arte bear degun  
laiñoaren mende.
- 2/ Aurten zerualdea  
ez daukagu alai,  
emen gaude guztiok  
goia urdindu zai.  
Gizonak Jainko nai du,  
baiña ez izan gai;  
gu aldatu gera ta  
denbora ere bai.
- 3/ Alaitasuna bear  
gizonon bizitzak,  
betiko menderatu  
ez gaitzan ekaitzak.  
Gordean daudelako  
eguzkian printzak,  
lurreko jangai danak  
or jo ditu gaitzak.
- 4/ Askori nola kendu  
barrengo samiñik?  
Amets asko baizeuden  
aurretik egiñik.  
Laiñoak ezin lortu  
gure atsegiñik,  
ondartzetan ez dago  
kabitu eziñik.
- 5/ Ezer egiterik ez  
gu bezelakoak,  
ixil-ixilik artu  
etorritakoak.  
Eguraldi beltz auek  
danon kaltekoak,  
uda tankerik ez du  
oraiñartekoak.
- 6/ Ongi dakizu danok  
zure zai gaudela,  
bizi-pozikan emen  
ez dago bestela.  
Eguzki, ager zaite  
sendagai bezela,  
zure zale diranak  
ase ditezela.

*El Diario Vasco*, 1988-VII-5.

## APIRILLA

- 1/ Uraren eskasian  
gure zoritxarra,  
baiña noizpait asi da  
gogoz barra-barra.  
Legorteak sortu du  
lur ontan negarra,  
apirilla, bagendun  
guk zure bearra.
- 2/ Grazi ederreko ur  
bikain da mardula,  
auxe bai guztiz ondo  
etorri zaigula.  
Garbi dago Jainkoak  
laguntzen digula,  
estutzen gaitu baiña  
ito ez sekula.
- 3/ Euririk gabe ez da  
lur au Euskalerrri,  
nun bizi geran ere  
geuk ezin igerri.  
Kezkaz beterik geunden  
estu eta larri,  
orain danok pozetan  
kale ta baserri.
- 4/ Estuasun latzetik  
gaituzu atera,  
apirilla, zu gutaz  
errukitu zera.  
Bai txalotzeko dala  
zure portaera,  
zuri esker, nik uste,  
salbatuko gera.
- 5/ Sartuak geunden oso  
arrixku txarretan,  
negarra ta lantua  
bazan bazterretan.  
Ez bedi palta urik  
ibai, erreketan,  
etxean, lantokian,  
zelai ta lurretan.
- 6/ Euriz ase ondoren  
bazter danak eder,  
orrek zuzenduko du  
makiña bat oker.  
Auxe pentsa dezagun  
bein da milla bider:  
goiko laguntzik gabe  
ez gerala ezer.

*El Diario Vasco, 1990-IV-22.*

## NAIGABEAK

- 1/ Santio-Santanetan  
beroa sarri da,  
zuriak beztutzea  
gaur modan jarri da.  
Ondar gaiñean etzan,  
bista eguzkira,  
berozale diranak  
gozatuko dira.
- 2/ Zorioneko modak  
badu gaur zarata,  
bi uskeri entzunik  
txorutzen gera ta.  
Neurriz kanpoko dana  
kaltegarri da ta,  
osasuna galtzeko  
arrixku galanta.
- 3/ Bizi geranontzako  
pozak eta penak,  
nik ere izan ditut  
oker nabarmenak.  
Erori txar bat egin,  
orain ondorenak,  
erakusten ari zait  
Jesukristorenak.
- 4/ Erreumaren mendean  
nabil gaur geldiro,  
pauso laburra eta  
mantso ta astiro.  
Gorputz guztian miña,  
emen ez da giro,  
oiñez ikasten orain  
asi naiz berriro.
- 5/ Gauza utsak izanik  
gaiñezka ustea,  
ta zein mingarria dan  
beeraiño jeixtea!  
Ondo pentsatzen jarri:  
au mundu tristea!  
Danontzat dago emen  
bat edo bestea.
- 6/ Tristurak estaltzen nau,  
ez nago alaia;  
orain berandutxo da,  
joan baitzan garaia.  
Asiera duanak  
bear du amaia,  
Jauna, egin dedilla  
beti zure naia.

*El Diario Vasco, 1990-VII-22.*

## GAITZAREN MENDE

- 1/ Gaitzak menderatuta,  
izena *trombosis*,  
begietara jo dit,  
ondatu nau guziz.  
Letrarik aundienak  
lañotsu ikusiz,  
len nekin pixkaz aztu,  
ta ezin ikasiz.
- 2/ Bizi geran guztiok  
eriotzari zor,  
ez aundi ta ez txiki,  
ez geratzen iñor.  
Ezta duda-mударik,  
auzi latza da or,  
egun ori pixkana  
danontzako dator.
- 3/ Osasun aberatsa  
izan det beti nik,  
orain or nabil oiñez  
asmatu eziñik.  
Etzazutela egin  
ain amets ariñik,  
urte danak aldakor,  
bat ezta berdiñik.
- 4/ Ezta, ez, alde milla  
beltz, ori, zurira,  
azkenengo unetan  
jar zaite begira.  
Jun bear degunean  
beste alderdira,  
gure arrokeriak  
or bukatzen dira.
- 5/ Santu, santa, martiri,  
aingeruak nun ez?  
Ostatu betikoa,  
agindu zaigunez.  
Atsedeen-leku artan  
gabak lekurik ez,  
aurrez Jauna ikusiz  
betikotasunez.
- 6/ Etsaia langille da,  
ez gaitezen auldu,  
aukera bikain ori  
eztezagun galdu.  
Zoriondegi artan  
parterik nai badu,  
nork bere gurutzea  
eraman bear du.

*El Diario Vasco*, 1991-IV-12.

## GALARZA TXAPELDUN

- 1/ Or Baraibar'ko txoko maitean  
sortu ziñan ume latza,  
ta pelotari eman diozu  
berebiziko gorantza.  
Egun au iritxiko zala zuk  
bazenduan esperantza,  
urte onetan txapeldun zera,  
bejondaizula Galarza!
- 2/ Gelditu gabe ibili bear  
pronto, baso eta mendi,  
zure gorputza iñolaz ere  
biurtu eztedin nagi.  
Aparta dezu kontrarioa,  
bera Julian Retegi,  
arekin kontuz ibili, Ladis,  
ta ez piatu geiegi.
- 3/ Biok sasoiko, biok indartsu,  
biok prontoian aldarte,  
ta bakoitzari berea eman,  
ezta iñorentzat kalte.  
Baraibar'tikan Erasun'era  
ezta noski ainbat tarte,  
ta pelotaren jaun, erregeak,  
napar anaiak, zerate.
- 4/ Zuen moduko plaza-gizonak  
eztira sortzen mordoan,  
lengo txapeldun zarrak sarritan  
eduki arren gogoan.  
Euskaldunak txit abillak dira  
beti pelota jokoan,  
len Gipuzku ta Bizkaia'n ziran,  
orain berriz Naparroa'n.
- 5/ Pobre izanik artzen badegu  
aberatsaren tankera,  
gorputz-animak izango dute  
mesede ainbat galera.  
Bizio mota guztieri guk  
eman diegu sarrera,  
larre motxean oitutakoak  
irteten dute aurrera.
- 6/ Azken tantoa egin artean  
ezin egon seguruan,  
aurten zuk egin zenduan, Ladis,  
ta gauzak diran moduan.  
Ondo dakigu zer gertatzen dan  
pelotarien munduan,  
bein kendu zion Tolosa'k baiña  
laister zan lengo buruan.

*El Diario Vasco, 1991-V-5.*

## LURDES'KO AMARI

- 1/ Gipuzkoa'tik emen gatoz gu fede bizitan indartsu, bakarka gauza utsa gera-ta, arren!, laguntza eiguzu. Agertu ziñan lurraldeari eman dizkagu bi musu, erri gurea nola dabillen, Ama, zuk ondo dakizu.
- 2/ Gazte denboran diru gutxi zan, dana da esan bearra; zan pixkarekin konpontzen giñan, errespetuak indarra. Ezin konpondu senar-emazte, gazte jendea ta zarra, iñoiz bada-ta oraintxe degu Ama on baten bearra.
- 3/ Gure kontua bakarrik ezta, mundu dana nola dago? Sinismen dana galdu zaigu ta dirua indartsuago. Eguna jun da eguna etorri gero eta okerrago, bitartekotza Zuk egin ezik gauza onikan eztago.
- 4/ Erri gureak agertu nai du barrenean dun antsia, oe goxoak goizik usturik au da otoitz erauntsia! Gipuzkoa'k Zu, Ama, etzaitu bazter batean utzia, zure Semeak guztiongatik emana baitzun bizia.
- 5/ Aulkeri danak aitortzeko gu zertarako egon lotsaz? Bixitatxo au onuntz egiñik alaiagoak askotzaz. Eztaukagu guk larrialdirik iñondik zure laguntzaz, bizitzan eta eriotzean, Ama, errukitu gutzaz.
- 6/ Nekazariak, artzai, enpresak sarturik or barrenean, betikotasun osoa degu danok il ondorenean. Bienbitarte alegin danak bakoitzak bere lanean, pake santua lortu dezagun Euskalferri kutunean.

*El Diario Vasco, 1991-V-18.*

## EKAINAREN 2'AN, AZPEITI'N

- 1/ Mindegia'ri sortua zaio  
illoba bat oso piña,  
oraindik oso gaztea eta  
aizkoran ondo dakiña.  
Esaera zar aien mamia  
ez al da gauz atsegiña?  
«Uretik dator arraia eta  
zakutik berriz iriña».
- 2/ Asera ona izan da beti  
gazte jendea ametsa,  
iru jokatu ta irabazi  
ezta bide aldrebesa.  
Auzo probintzi biren artean  
dago auzi gogor, beltza:  
Naparroa'tik Mindegia ta  
Gipuzkoa'tik Mugerza.
- 3/ Galdu-irabazi orixe degu  
joko danen ondorena,  
ogeña kanaerdiko zeñek  
erdibitu azkarrena.  
Anka, beso ta gerri bigunak,  
burua premizkoena,  
oker txiki bat egin ezkerre  
ondatu diteke dena.
- 4/ Gizon bakoitzak bi laguntzaille  
erakutsiz zer dakiten,  
erloju ona martxan or dabil,  
orrek eztu itxogiten.  
Saiatu beintzat egitekoak  
tajuz, ondo eragiten,  
urak jun eta gero ez asi  
presa berriak egiten.
- 5/ Mindegia txit gaztea degu,  
ori jakinda daukat nik,  
enborrak oso maite ditu ta  
etekiña nai du andik.  
Aurreko zarrak aspaldi samar  
ezkutatuak gugandik,  
aizkolaritzak bizia badu  
gure lurrean oraindik.
- 6/ Illaren bian Azpeiti ortan  
daukate buruaustea,  
an izango da ezpala otsa ta  
an izango da nastea!  
Neretzat biak arrotzak dira,  
bat bezelaxe bestea,  
beste gauzarik ez nuke naiko:  
onenak irabaztea<sup>1</sup>.

*El Diario Vasco, 1991-V-19.*

---

1. Mugerza'k irabazi zuan.



## ONDARTZETAKO ALBISTEA

- 1/ Itxas-ertzean bizi naiz eta itzegin nai det nik ere, pekataria izanagatik au ez det maite batere. Otzetan pasa sei illabete ta seitan beroak erre, udaran sartu geran onetan ez gera beintzat asarre.
- 2/ Sasoi betean gabiltzan arte ezta jakiten zer egin, asmatze ori zailla da eta askotan beintzat utsegin. Griñak garaian etortzen dira eta garaian aldegin, sasoioko gazte batek eztauka oraintxe oso atsegin.
- 3/ Etsaia beti urrean degu zuzentxoena nasteko, tela bearrik ez da oraintxe gorputzaldea jazteko. Ontara eldu bear gendunik egundo ez nun usteko, eskusarikan ez du jendeak daukana erakusteko.
- 4/ Aragizkoak gera guztiok, agindu ori sakondu, urte geiegi bizkarreratu, goizetik gabera ondu. Irauterikan geiago ez da, egun batean ezkondu, gero izaten dira kontuak, etxean ezin konpondu.
- 5/ Nik begirutzen diet ederki orrela dabiltzeneri, ondotoxo dakit okerra gerta leiokela zuzenari. Eskarmentua badaukat eta ezertxo ez esan neri, zer erakutsi bear diegu ondoren datozeneri?
- 6/ Gozamenaren ondoren beti datoz naigabe ta miñak, ezin lezake adierazi au bertsolari mingaiñak. Iges juten da sasoi eta berdin gorputzeko griñak, oso denbora gutxiko dira emengo poz-atsegiñak.

*El Diario Vasco, 1991-VI-30.*

## GIROA EDO DENBORA

- 1/ Itxurantzean agertzen dira  
baso, zelai eta mendi,  
baiña gizonen asmoak beintzat  
etzira egoten geldi.  
Denbora gutxiz esan dezaket  
emendik amaika egi,  
aurreko urtetan legor bazterrak,  
aurtengoan ur geiegi.
- 2/ Gizona beti izanagatik  
utsa eta ezereza,  
buruan zenbat asmo dabilkin  
iñork ez dezake pentsa.  
Batek ateri eskatuko du,  
beste batek euri-jasa,  
danen gustoa egiten beintzat  
ezta lantegi erreza.
- 3/ Agintaritzza daukan Jaunari  
naiagatik ezin kendu,  
setakerian alper-alperrik  
ez gaitezen nabarmendu.  
Gizonez kanpo denborarekin  
norbaitek or agintzen du,  
ezpailitzake obe izango  
guk egin bear bagendu.
- 4/ Geure bizitzan ezagutua  
ezta ezkutatzekoa,  
aurreko urtetan izan deguna  
ori bai arritzekoa.  
Uda euritan izate ori  
ezta lendabizikoa,  
nai dunak pentsa nai duna baiña  
au da emengo giroa.
- 5/ Geldialdia dute berengan  
gure langille bizkorrak,  
nolabait ere aztu bearra  
urteko une gogorrak.  
Itxirik daude pabrikak eta  
ixilik daude motorrak,  
biotz-biotzez opa dizutet:  
ondo gozatu oporrak.
- 6/ Etxean eta auzoan ere  
zirikaldia ugari,  
gure txanponak ortxe dabilta  
larritasunez igeri.  
Emaiozute atsedean ona  
gorputz eta animari,  
ordua datorrenean zintzo  
erasotzeko lanari.

*El Diario Vasco, 1991-VIII-4.*

## UDALDIA BADIJOA

- 1/ Urte-aroak, danak bezela,  
izaten dute ordua,  
ondo pentsatuz, olakoa da  
gu bizi geran mundua.  
Gauza bakoitzak izan dezala  
bere garaian lekua,  
al dan ongien igarotzeko  
udazken eta negua.
- 2/ Lau katu eta laurak asarre,  
ezin konpondu inondik,  
azkena ori galtzen da eta  
itxaropena badet nik.  
Etorri bitez argi ditzirak  
andik ezpada emendik,  
erri zar onek ager dezala  
arnasa dula oraindik.
- 3/ Okerbideak sarri artuak  
gaude gu geure bizitzan,  
kezkatu nago, ikusten baitet  
gaur egun nola dabiltzan.  
Burugabeko inozo batzuk  
ez gaitzela gu izan,  
aurrez pentsatu bearra dago  
nondikan nora gabiltzan.
- 4/ Aurreko zarrak, lana egiñez,  
gizatasun ederrean,  
euskaldunentzat ate-leioak  
zabalik zeuden lurrean.  
Zorigaitzez bein asi baigiñan  
setakeri gogorrean,  
ezin gaituzte ikusi orain  
beren begien aurrean.
- 5/ Denborak eztu, guk nai bezela,  
patxaratsu itxogiten,  
asmatzen baiño errezago da  
mundu ontan utsegiten.  
Ondorenean zer datorkigun  
ezta erreza jakiten,  
urikan dagon artean beintzat  
saiatu presa egiten.
- 6/ Euskal arrazak, besteen gisan,  
baditu zenbait alderdi,  
txar eta onak dirala oiek,  
inoiz beeko, inoiz aundi.  
Bideak alda bearra daude,  
ontan ezin leike segi,  
Jainkoagatik au eztedilla  
gertatu beranduegi.

*El Diario Vasco, 1991-VIII-21.*

## BUKATU DIRA OPORRAK

- 1/ Nekez gaude lur ontan  
gu aldarte onez,  
au, ori edo beste  
badegu geienez.  
Abuztuan beroa  
ezin eramanez,  
ea preskatzen geran  
aurki udazkenez.
- 2/ Lantokiak zabaldu,  
antxe bear ari,  
etxean izateko  
jaki ta edari.  
Oporrak bukatuak,  
nork eztaki ori?  
Ekin bearra dago  
berriro lanari.
- 3/ Urtean illabete  
ongi etortzen da,  
arnasbide berri bat  
gogotsu artzen da.  
Atsedenaldi ori  
goxoa izan da,  
baiña mundu onetan  
dana bukatzen da.
- 4/ Lanak berekin ditu  
milla buruauste,  
modurik eztegunak  
beti aren eske.  
Pozik egon, bazaude  
sasoiko ta gazte,  
nunbaitetik sortzen da  
jateko ainbeste.
- 5/ Txarra au degu emen:  
urte aiek joan,  
eta gelditzen gera  
betiko kanpoan.  
Ustez atzo goizean  
izan zalakoan,  
zartu egiten gera  
berealakoan.

*El Diario Vasco, 1991-IX-11.*

**ARKIBIDEA**

## ITZAURREAK

Inazio Eizmendi «Basarri» .....	11
Atadi - antzera .....	19
Kantari nator .....	22
Irakurleari itz bi .....	23

## 1931 - 1936

Nere arrebatxuari .....	27
Otoitzak .....	28
Baserritarrak erne! .....	29
Zorion, «Argia» .....	30
Gugandik egatu berri dan Lizardi olerkari ospetsuari .....	31
Zaitu gaitzazu! .....	32
Eusko araudia .....	33
Agate Doneaen aintzaz Zarautz'ko kaleetan abestu diran bertsoak Basarrik jarriak .....	34
Josu oin garbitzale .....	35
Igandekoari buruz .....	36
Eiztaria .....	38
Atoz, udaberria! .....	39
Atarrene'ri .....	40
Beltzak gogorrean .....	42
Mendigoizaleak .....	43
Ezkonberriak Donostian .....	44
Arantzazuko Ama .....	46
Zornotza'ko gertariak .....	48
Bertso berriak Eizmendi'tar Iñaki (Basarri'k) jarriak .....	49

## 1936 - 1943

Agur, Amuzkibar, agur! .....	53
Agirre'tar Joseba A. ....	54
Ai, Mola, Mola! .....	55
Txalo eusko apaiz agurgarriai! .....	56
Ez larritu maite! .....	58
Arantzadi'tar Ingartzi agur, irakasle! .....	59
Antzuola'tar Anastasi (G.B.) .....	60
Bertsotan denbora pasa... ..	61
«Aitza» idazle lagunari... ..	62
Biotzgeak zerate! .....	63
Eldu da gure ordua! .....	64
Basetxeko ikuspegiak .....	65
Bilbao! Zu etsaiarentzat? Ez orixe! .....	67
Eguna bertsotan I .....	68
Eguna bertsotan II .....	69
Elezkano I. Jaunari azken oparizat biotzki opaldua .....	72
Gernika'ko txikiketa .....	73
O Zarautz nerea! .....	75
Landes'ko piñu artean .....	78
Prantzi'ko alkate bati .....	79
Euskal mixioak Ichoux'en .....	81
Ichoux'eko madame Sart'eri biotzez .....	83
Ondarrutar gazteeri .....	84
Gazte denboran neska bati .....	85
Zorionak, Eresoinka! .....	86
Itzaldi bat .....	88
Au duk komeria! .....	89
Olakorik!... ..	90
Euskaldun Ama! .....	91
Amerikako anaiak, entzun .....	92
Mussolini ta Hitler .....	93
Udaberrian gera .....	95
Agur, Euskadi! .....	96
Amerikako euskaldunok, entzun! .....	97
Aiako arritan .....	98
Aritxulegi gañean .....	99
Lesaka'ko pestetan .....	100
Madrid aldetik .....	102

Oiartzun'i goralpena .....	105
Oroipenak .....	106

## 1944 - 1950

Bertso berriak estropa-gaiz Basarri'k jarriak .....	109
Errezil'ko billera nagusian .....	112
Basarrik Grazianori .....	114
Txantxa benetan Gezaltza'ko Grazian'eri erantzunez .....	116
Errezil'ko erretore agurgarri Etxeberria Jaunari bere urrezko apaiz-ezteietan .....	118
Euskal baserriak zer diran .....	119
Erosi zazute Sigma .....	120
Ernio'ko gurutz santuaren babesean .....	122
Gipuzkoa'ko luistarrak, ongi etorri! .....	124
Zestuako Irugarrendarren urrezko eztaietan abestutako bertsoak .....	125
Aita Olaizolarren oroiz (G.B.) .....	128
Azkoitia .....	131
Floriaga jauregia .....	132
Bere asiera ta jarripena 1921 - 1926 .....	133
Atano txapeldun 1926 .....	135
Trinketeko buru 1927 - 1931 .....	137
Atano III'garrena bina-binaka .....	139
Atano III'garrena ta Iraeta'ko Txikia 1940 .....	140
Atano III'garrena ta VII'garrena .....	141
Atano III'garrena ta Pelipe 1944 .....	142
Atano III'garrena ta Harrambillet 1944 .....	143
Atano III'garrena ta Akarregi 1946 .....	144
Atano III'garrena ta Gallastegi 1948 .....	145
Atano'ren izakera zer dan .....	146
Izaskun'go Ama .....	147
Udazkena .....	148
Amerikara dijoan lagun bati .....	150
Arrantzaleak .....	151
Atomika .....	152
Etxekoak nagusi .....	153
Bernarda Paton .....	154
Eiztariak .....	155
Egazkiñak .....	156
Aiton baten esanak .....	157
Pedro Maria Otaño .....	158



Abrego'ren omenaldia .....	159
Txistulariak .....	160
Bakoitzari berea .....	161
Gure baserriak .....	162
Itxas-ertzetako kontuak .....	163
Moskorkeria .....	165
Nekazaria .....	166
Arantzazu .....	167
Atzerriko bizitza .....	168
Euskalerria itxusten .....	169
Euskal sukak baztarrak .....	171
Lerde jarioak ( <i>Gamberros</i> ) .....	173
Mendietako gurutzak .....	174
Aurak .....	175
Eder bati .....	176
Erantzun zaidazu! .....	177
Txistulari zarra .....	178
Udazkena .....	180
Artzai mutilla .....	181
Bekaizkeri edo inbiria .....	182
Ez opa besteri .....	184
Arantzazu'ko eleiz berria .....	185
Baserriko aitona .....	186
Luxia - Garziarena .....	187
Mixioak izan ditugu! .....	188
Erne, baserritarrok! .....	191

## 1951 - 1960

Amaren igoera zerura .....	195
Itxasoa aserre .....	196
Zer da Arantzazu? .....	197
Au pakea al da? .....	198
Basarri Jaunaren erantzuna .....	200
Euskaldun artzaiak .....	202
Itziar'ko Amari koronazio egunean .....	203
Itziartarrei eleiz deia .....	205
Oriotarrak txapeldun .....	206
Marques de Cuevas'en jaialdia .....	207
Gipuzkoa'ren negarra .....	208

Gipuzkoa'ren etxea Madrid'en .....	210
Urte berriari eskari bat .....	211
Arrate'ko Ama'ri .....	212
Eiztariak asarre .....	213
Arantzazu'ko eleiza .....	214
Ogeta gaztea .....	215
Negurik etzala? .....	216
Konpondu eziña .....	217
Zorioneko udaberri! .....	218
Bere pixua diamantetan .....	219
Egi zabaltzalleak munduz mundu .....	220
Irizar bigarren .....	221
Udara badator .....	222
Zarautz'ko mixio batzutan .....	223
Tolosa'ko neurketa .....	224
Irun'i, maitasun oparoz .....	226
Arantzazu Arrate'n .....	227
<i>Gure Kabia</i> alkartearen ereserkia .....	228
Eskerrak zuri, Oiartzun! .....	229
Baserria azkenetan? .....	230
Aita Iñaki Eizagirre'ren meza berria .....	232
Oiartzun zarrari kantuz .....	234
Elgoibar langilleari .....	235
Azpeiti'ko erriari .....	236
Kanpoko jendea .....	237
Parisen kantatutako bi bertso .....	238
Oxobi zanari .....	239
Baxurko olerkariari Urruña'n, 1958 urtean .....	240
Beorlegi jauna il zaigu (G.B.) .....	241
Zueltzu'ren omenaldia .....	242
Bertsolari gazteak .....	243
Anai gazteari .....	244
Bi asto lapurtu! .....	245
Entzun, gurasoak! .....	246
Ostatu batean .....	248
Bidetako ezbeurrak .....	249
Oñatiko zakur-pesta .....	251
Danentzat bizilekurik ez .....	252
Sermoigillerik onena .....	253
Illargiaren kezka? .....	254

Mogel'en oroiz .....	255
Urrezko eztaiak .....	256
Ostikoketa .....	258
Latasa aizkolaria .....	260
Manterola .....	261
Xenpelar .....	262
Uztapide .....	263
Jantzia naiago? .....	264
Eutsi ganaduari! .....	265
Goiz parteko zurrutak .....	266
Gure sagardotegiak .....	267
Gure Donosti berdingabea .....	268
Zorioneko aurrerapenak .....	269
Euskaldunak kanpora dijoaz .....	270
Aizkolari bizkaitarra .....	272
Aldaz-Alderegia .....	273
Santo Tomas'en periak .....	275
Gabon gaba - 1959 .....	277
Urte berri on! .....	279
Txapasta .....	280
Jose Maria Caballero Jauna'ri .....	281
Gipuzkoa'ko cross'a .....	282
Aita alargunaren oñazeak .....	283
Juan Sebastian Elkano .....	284
Gure Axular aundia .....	286
Arturo Campion .....	287
Jose Miguel Barandiaran .....	288
Patxi Eskudero .....	289
Keixeta zarra .....	290
Paris'ko batzarra .....	291
Pentsatzen asteko ordua .....	293
Juan'XXIII'garrena .....	294
Nuarbe'ko eleiza .....	295
Arrantzale bati .....	296

## 1961 - 1970

Arrantzaleak .....	299
Urrutiko intxaurrak .....	300
Zabiltzan bideak arrapatuko zaitu .....	302

Diamantezko eztaiak .....	304
Gordon Pirie eta Arruiz'ko txikia .....	305
Madrid'ko peri nagusia .....	306
Garagarrillaren erdi parean .....	308
Ernani'ko sega-apustua .....	309
Itxasoaren asarreak .....	310
San Fermiñak .....	311
Naparroako anai bertsolariei .....	312
Sokatira txapelketa .....	313
Errekalde gaztea .....	314
Ankamiña .....	315
Udako goraberak .....	316
Euskal Pestak? .....	317
Pestarik bear bada... ..	318
Bideetako kontuak .....	319
Iturriotz'ko sega-apustua .....	320
Bertsolari eguna .....	321
Latasa Sunbillatarra .....	323
Dunixi zanaren Omenez .....	324
Ederki kostata .....	325
Lazkao-Txiki .....	326
«Herria» astekaria .....	328
Urte berria badator .....	329
«Zeruko Argia» astekariari .....	330
Gezaltza'ko aitona zanari .....	331
Periak asi dira .....	332
Otaño'ri omenaldia .....	333
Mondragones zanari .....	334
Berekoetxea ta Polipaso .....	336
Inazio Donearen eguna Zeuta'n .....	338
Eguna inguratzen .....	339
«Errezill» bertsolaria .....	340
Ipar-Amerika ta Txina .....	341
Aita Salvatore Mitxelena zanari .....	342
Egun gogoangarria .....	343
Zarautz erriari .....	346
Arizkun'go baserritarrei .....	347
Udarak ematekoak emanda .....	348
Abeletxe'ri .....	350
Joxe Migel Maiz .....	351

Konrad Adenauer .....	352
Don Manuel Lekuona'ri .....	353
Amak eginda bezela .....	355
Indalezio Ojanguren .....	356
Manuel Matxain .....	357
Azkarate ta Atano .....	358
Lengo denborak .....	359
Ejipto ta Israel .....	360
Latasaren garaipena .....	361
Udazkena .....	363
Eiztarien poza .....	364
Patxi Eskudero'ri .....	365
Au jendea! .....	366
Gabon gauean .....	367
Lasarte bertsolariari .....	368
Gero ta okerrago .....	369
Beltzak eta Zuriak .....	370
Olako seikoa! .....	372
Iritxi zaie ordua .....	374
Don Julio Beobide'ri .....	375
Zarautz'ko Ana Mariari .....	376
Eibar .....	377
San Permiñak .....	378
«Humanae vitae» .....	380
Arrantzaleak .....	381
Donosti'ko artzai berriari .....	382
Ezkontza bat .....	383
Txapel zanari .....	384
Eguzkia gaixorik? .....	385
Irlanda iparreko nasketak .....	386
Txeko erriaren uztarria .....	388
Xalbadorren omenez .....	389
Erretegi txapeldun .....	390
Udazkena .....	391
Xenpelar oroiz .....	392
Kamioetako jende galtzea .....	393
Bizimodua gora .....	394
Jaiak ondo igaro .....	395
Isidro Ansorena .....	396
Lajos eta Tapia .....	397

Kanboia'ko gerra .....	398
Nekazariak .....	399
Kostera txarra .....	400
Kontserbadore ta laboristak .....	401
Udazkenaren ederra! .....	402
Lareungarren «Zeruko Argia» .....	404
Zorioneko moda .....	406
Arantzazu ta Urbia .....	407

## 1971 - 1980

Baserri bat gutxiago .....	411
Nekazariak asarre .....	413
Pakistan .....	414
Agustin Ostolaza .....	415
Beroa nai? .....	417
Gaillurrean gera .....	418
Dolarra gaixo .....	419
Iruntxiberri .....	420
Gure estropadak .....	421
Nazio alkartasuna .....	422
Urtain .....	423
Urteberri on! .....	424
Mattin-en omen egunean .....	425
Endañeta .....	426
San Permiñak .....	427
Gure Gipuzkoa .....	428
Inazio, Arantzazu'n .....	429
Uztapideri .....	431
Udazkena .....	432
Etxean degu gaitza .....	433
Artetxe oroituaz .....	435
Zorionak .....	437
Eskerrak emanaz .....	438
Arria ta Latasa .....	439
Turismo ta industria .....	440
Goiz-Argi aldizkariari .....	441
Uztapide adiskideari .....	442
Islandia'ko batzarra .....	443
Udan sartuak gera .....	444

Españi'ko txapeldun .....	445
Pakea? .....	446
Udazkena .....	448
Urte berri on! .....	449
Zubeltzu bertsolariaren omen-egunean .....	450
Tolosa'koa gogoratuaz .....	451
Markiña'ko Iketza baserriaren alde .....	453
Azpeiti'ko omenaldia .....	454
Jesus Eskisabel .....	455
Endañeta eta Mendizabal II .....	456
Kortaberri aizkolariaren omenaldian .....	457
Leon Albeniz «Iruntxiberri» .....	459
Ziaran-Zar, Soarte .....	461
Ziri ederra .....	462
San Martin egunez .....	464
Ipar Amerika ta Mejiko .....	465
Onassis .....	466
Pazko-jaiak .....	467
Helsinki'ko batzarra .....	468
Gabon aurreko gogoetak .....	469
Eskaria .....	470
Australitar aizkolariak .....	471
Arias Jaunaren itzaldia .....	472
Eutsi lurrari! .....	473
Danok animalia .....	474
Lizartza'ko itxua .....	475
Arozamena'ri .....	476
Pedro Lizardi .....	477
Legortea .....	478
Laguna gogoratuaz .....	479
Fueroak .....	480
Atoz argi egitera .....	481
Aberri egunean .....	482
On Manuel Lekuona, maixuen maixu .....	483
Anai Olabeaga'ren omenez .....	484
Ama gogoratuaz .....	485
Urrezko eztaietan .....	486
Aintzat artzen ez .....	487
Eguberri .....	488
Estatutoa lenbailen! .....	490

Txirrita zana .....	492
Gasteiz'ko pelota txapelketa .....	493
Gure Aita Santua .....	494
Ekin lanari! .....	495
Orain da ordua! .....	497
Alkartzeko ordua .....	499
Arria zarraren omenez .....	501
Isaak Lopez Mendizabal .....	502
Don Ebaristo Uranga sendagilleari .....	503
Pake egunak .....	504

## 1981 - 1991

Gau gogoangarria .....	507
Iparragirre'ri .....	508
Erabat kakaztu .....	509
Lanik eza .....	510
Gure arrantzaleak .....	511
Mattin il zaigu! .....	512
Atetik atera tabernak .....	513
«Neumonia atipica» .....	514
Madrid eta Gasteiz .....	515
Gaupasak .....	516
Estropadak .....	517
Gauko leia .....	518
Oporrak .....	519
Gabon-zar gabea .....	520
Joxe Manuel Arriola'ri .....	521
Angula .....	522
Kamioiak zilipurdika .....	523
Au mundua! .....	524
Udara emen degu .....	525
Erruki, Jauna .....	526
Au lotsa gurea .....	527
Kobratu eziña .....	528
Retegi bigarrena ta Galartza irugarrena (1-V-1983) .....	529
Kamioiak iraultzen .....	530
Lurdes'a erromes .....	531
Drogaren kalteak .....	532
Udara eldu zaigu .....	533



Arantzazu'ra erromes I .....	534
Arantzazu erromes II .....	535
Lengo bidera? .....	536
Au lotsa .....	537
Izar bat itzali zan urtea .....	538
Elbira zipitria zanari .....	539
Urrezko eztaiak .....	540
Astiasu'ko martiria .....	541
Bizitzaren udazkenean .....	542
Merezi genduna .....	543
Erria gobernatu .....	544
Urte berrian aurrera .....	545
Laiñopean .....	546
Apirilla .....	547
Naigabeak .....	548
Gaitzaren mende .....	549
Galarza txapeldun .....	550
Lurdes'ko Amari .....	551
Ekainaren 2'an, Azpeiti'n .....	552
Ondartzetako albistea .....	553
Giroa edo denbora .....	554
Udaldia badijoa .....	555
Bukatu dira oporrak .....	556

# **AUSPOAREN SAIL NAGUSIA**


- 1.- Antonio Zavala: TXIRRITA (Bizitza eta bertsoak).
- 2.- «Basarri», Inazio Eizmendi Manterola: NERE BORDATXOTIK (Bertso-bilduma).
- 3.- Manuel Lasarte: BERANDUKO LANAK (Bizitza eta bertsoak).
- 4.- Antonio Zavala: KARLISTEN LEENENGO GERRATEAREN BERTSOAK.
- 5.- Antonio Zavala: PELLO ERROTA (Bizitza eta bertsoak).



1009237

BO-2192

AZKUE BIBLIOTEKA EUSKALIZANDIA BILBO
76701
1992 MAI. 17
1009237



**auspoa**

---